



Iturria: *Erakusaldia*, Juan Bautista Agirre (faksimilea). Hordago, 1978.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AgirreAErakusSakramentu.htm>

**JESU-KRISTOK
BERE ELIZARI UTZI ZIOZKAN,
ZAZPI SAKRAMENTUEN GAÑEAN
ERAKUSALDIAK**

Juan Bautista Agirre

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**JESU-KRISTOK
BERE ELIZARI UTZI ZIOZKAN,
ZAZPI SAKRAMENTUEN GAÑEAN
ERAKUSALDIAK**

DON JUAN BAUTISTA AGIRRE ASTEASUKO ERRETORE,
ETA GIPUZKOAKO ARZIPRESTAZKO NAGUSIAN
DIPUTADU JENERALAK,
KRISTAU AZIAI MEZA NAGUSIETAN EGIÑAK.

Eskeintzen diezte Apaiz Euskaldunai.

Haurietis, aquas in gaudio de fontibus Salvatoris. Isaiae C. 12.

IRUÑEKO GURE APAIZ NAGUSIAREN BAIMENAREKIN.

LENENGO LIBURUA.

TOLOSAN:

Andres Gorosabelen moldetegian 1850 garren urtean.



LENENGO ERAKUSALDIA

*Munduaren asieratik Salbatzallea etorri zan artean
izan ziran Sakramentuen gañean.*

ALABATUA

izan dedilla Aldareko Sakramentu guziz Santua,
eta Birjiña txit Santaren sortze garbia,
zeña bekatu jatorrizkoaren mantxarik gabe
sortu izan zan. *Gurutze Santuaren &*.

Zeñ on, eta maitagarria gure Jaun, eta Aita Zerukoa, gu betiko doatsu egiteko artu dituan, neurri ederretan! Egin ginduan bera ezagutzeko, ezagututa amatzeko, eta gero betikotasun guzian berarekin Zeruan doatsu izateko. Iru gauza bear ziran, gizonak Jauna bear bezala amatzeko. Lenengoa da ezagutzea Jaunaren Ontasun, eta Maitagarritasun baztergabea, animako graziaren, eta betiko bizitza doatsuaren emallea dan aldetik: ezin alabaña biotzak maite izan dezake nolerebait ezagutzen ez duan Ontasuna. Ezaguera au izan zezan gizonak, munduaren asieratik eman ziozkan Jaunak betiko bizitzaren berriak: eta bekatuan erori zanean, aditzera eman zion bidalduko zuala Salbatzallea. Etorri zan bere denboran au, eta ala berez, nola Elizaren bidez erakutsi dizkigu, Jaunaren antasun baztergabea ederki adirazten duen Misterio Andiak, eta oek bilduzituen Apostoluak Kredoan. Jauna bear dan eran amatzeko, ez da asko beraren Ontasun baztergabea ezagutzea, baizik egin bear dira beraren, eta Elizaren aginduak; baña egingo ditu gizonak oek, oen berririk ezpadu? Berri au guri emateko, utzi zizkigun Jaunak bere amar Aginteak, eta oek obeto gordetzeko ipiñi zituan Elizak ere bereak. Etzan au guzia ere asko gizonak bear bezala bere Jaungoikoa amatzeko, baizik bear zan irugarren gauza bat, nola dan Jaunaren grazian jartzea, eta Espiritu Santuaren lagunzak izatea. Gizonak, bekatuan dagoan bitartean, ez du amatzen Jauna, eta obra onak egin arren, ez dira oek Zerurako irabaziak. Gañera Jaunaren grazian arkitzen danean ere, ez da gai, edo gauza onelako irabaziak egiteko, ez eta Jesus bat bear bezala esateko ere, dio S. Paulok, Espiritu Santuaren lagunza gabe: *Nemo potest dicere Dominus Jesus nisi in Spiritu Sancto* Graziaren doai, eta apaindura ederra gizonari emateko, eta onekin batean Zeruko lagunak ere bai, bidaldu zuan lurrera Aita betiko-

ak bere Seme bakarra, eta onek erakutsi zigun Aita gurearen otoiz, edo orazio urrezkoa, iristeko Zerurako bidean bear degun guzia. Zer geiago? Utzi ziozkan bere Elizari zazpi iturri grazia, ta birtuteak beti ematen ari, eta beñiere agortzen ez diranak. Oek dira zazpi Sakramentuak. Askotan itzegin dizut, Kristaua, gauz oen gañean goizeko Mezetan, eta jai arratsaldeetan, Dotrinaren parteak azaltzeko denboran, baña zazpi Sakramentuak dira gauz añ andi, ta miragarriak, non doktrinako ukitze utsarekin ezin utzi ninzakean. Orregatik artu det asmoa Sakramentuen gañean betaz itzegiteko, Meza nagusietan. Ona da eguneko Abanjelioaren gañean itzegitea, baña gure errietan bearragoa da Sakramentuen berri, ta ezaguera Kristauai ugari ematea. Ojala itzegin albaneza nik gai andi onek eskatzen duan eran! Gaur, sarrera ongi egiteko, eman nai dizkitzut, Kristaua, Munduaren asieratik Jesu-Kristo etorri zan artean izan ziran, Sakramentuen berriak. Ondoren begiraldi bat emango diogu, Jaunak onetan agertu zuan, guganako ongi nai, ta amorioari. Enzun arretaz.

§ I.

Munduaren asieratik Jesu-Kristo etorri zaneke igaro ziran gutxienez lau milla urte, eta iru denboratara biurtzen dira urte oek. Bata da *inozenziakoa*. Bigarrena lege naturalarena. Irugarrena, Moisesen legearena.

Adan gure lenbiziko gurasoa bekatuan erori zan bitarteko denborari deitzen zaio inozenziako denbora. Arkitzen zan Adan Jaunaren grazian, eta adiskidetasunean. Arkitzen zan Zuzentasun, edo justizia orijinalaren doaiarekin apaindua. Au zan doai bat añ miragarria, non Adan, bera nor izatera, gordeko zuan gaitz guzietatik, zartze, eta eriotzatik. Doai bat, gizonaren gura guziak zeduzkana ezaguera zuzenaren, eta borondatearen mendean. Orduan gizonaren biotza zegoan pake osoan; etzuen alabaña asaldatzen bere gurak. Zori oneko denbora onek iraun zuan, Adanek Paradisuko arbola baten fruta debekatua jan zuan artean. Etzan orduan Sakramenturik batere izan Theologoak erakusten digunez.

Erori zan Adan bekatuan, eta ordutanik asi zan lege naturalaren denbora. Deitzen zaio onela, zeren mundua bizitu zan denbora luzean letraz ezarritako legegabe. Bitarte onetan jaio ziran eziñ konta al aur, eta guziak ziran bekatu jatorrizkoaren mantxarekin sortuak eta etzan artean bataio-ko Sakramenturik bekatu au barkatzeko. Ez ote zan aur gaxoai bekatu au barkatzeko modurik batere? Ez digu Eskritura Santak itzik esaten gai



onetan; baña ez da sinisteko gauza, Jaunaren Ontasun baztergabeak ainbeste aur utziko zituala bekatu orijinal, edo jatorrizkoaren sendagai gabe. Au da S. Agustiñen iritzia S. Gregoriok dio, gurasoen siniste, edo fedea orduan barkatzen zuala aurren bekatu orijinal, edo jatorrizkoa orain bataioak barkatzen duan eran Gurasoak sinistuko zuen etorriko zala bere denboran munduaren Salbatzallea, siniste onekin emango zioen aurrari bendizioen bat, edo eskeñiko ziozkeen Jaunari doai, edo ofrenden batzuek, eta gisa onetan kentzen zitzaten aurrari bekatu jatorrizkoaren mantxa, eta geratzen ziran Zerurako bidean. Au aditzen da aurrentzat; zeren ezagueran sartutakoak baziran oek iritsi zezakeen bekatu jatorrizkoaren barkazioa fede, esperanza, eta karidadearekin.

Onela joan ziran gauzak Abrahamen denboraraño bekatu orijinal, edo jatorrizkoari zegokan aldetik. Abrahami agindu zion Jaunak, marka zezala bere burua, baita ondorengo semeak ere *Zirkunzisioko* marka, edo epaiarekin; Abrahamen odoletik etorri bear zuan alabaña Salbatzalleak, eta nai zuan Jaunak ezagutua izan zedin non nai: Abrahamen jatorria marka arekin. Emen iru gauza aditzera eman nai dizkitzut. Lenengoa: *Zirkunzisiara* etzeuden beartuak Abrahamen ondorengoak baizik. Bigarrena, gizon jakintsu askoren iritzian Zirkunzisioko epaiarekin barkatzen zitzaten Abrahamen ondorengoai bekatu jatorrizko, edo orijinala. Irugarrena: emakumezkoai barkatzen zitzaten gurasoen fedeaekin, len esan dan eran.

Bekatu jatorrizko, edo orijinala barkatu ondoan, asko, ta asko eroriko ziran bekatuan, gaitzaren, eta onaren ezaguera iritsi ezker, orain bataiatuakin gertatzen dan bezela. Etzan orduan konfesioko Sakramenturik. Ez otezan bekatariarentzat barkaziorik? Bai, baldin fede, esperanza, ta onezko damu, edo kontrizio osoarekin biurtzen baziran Jaunagana. Gañera eskeintzen ziozkeen doai, ofrenda, edo Sakrifizioak, S. Gregoriok dionez, baña eztakigu Sakramentuen izena zegoten, edo ez. Orra nola egon zan mundua lege naturalaren denboran: etzan libururik, etzan Elizarik, etzan gurasoaz osteronekan Jainkoaren itza, eta Zerurako bidea erakusten zuanik: eta Adanen umeak amilduaz joan ziran bekatuaren bideetan, ainbesteraño, non damutu zitzaion Jaunari gizona egiñ izateaz. Bere aserrearekin bidaldu zituan mundu guzia estali zuen ujolak, eta Noe, ta bere etxeok ez beste guziak bukatu zituan.

Goazen orain lege zarraren, edo Moisesen legearen denborara. Jakob Patriarkaren ondorengoak, edo Israelitak urte askoan bizitu ziran Ejipton katiberio gogorrean. Oek ziran Abrahamen jatorri, Jaunak esleitua, eta autua, munduari salbatzallea emateko, Urrikaldu zan oen nekeaz;

atera zituan katiberio onetatik, egiten zituala gauz arrigarri asko: eta Sinaiko mendian eman zien legea letraz ezarria; eta deitzen zaio Moisesen legea, zeren Moisesen bidez eman zien. Deitzen ere zaio lege zarra, zeren Jesusek bere lege ederra ipiñi zuanean, aitu ziran aren zeremonia, sakrifizio, eta moduak. Atzenean deitzen zaio letraz ezarria, zeren ala ipiñi zuan Moisesek. Lege zar onetan bada baziran asko zeremonia, doai, eta Sakrifizio, eta batzuei eman oizate lege zarreko Sakramentuen izena. Oetatik ziran bekatuen konfesiota, eta oen barkaziorako eskintzen ziran doai, ta sakrifizioak: Pazkoako aparia bildots errearekin: Apaizak, eta Aita Santua konsagratzeko zeremoniak. Galdetu oi da, lege zarreko zeremonia, edo Sakramentuak indarririk ote zuen, graziaren apaindura emateko? Ezetz, dio Florenziako Konzilioak: *Non causabant gratiam*, baña nola ziran gauza Santuak, laguntzen zuen Jaunagana biotza altxatzeko, eta beraren grazia iristeko.

§ II.

Ekusten dezu, Kristaia, zer Sakramentuak izan ziran munduaren asieratik Jesu-Kristo etorri zan artean? Etziran gure legekoren gereiza baizik, eta alere ederki adierazten due Jaunaren guban ongina, eta ontasuna. Egin zituan Aingeruak, eta Luzifer beste askorekin altxa zan Jaunaren kontra: bereala bota zituan betiko su, eta garren artera. An egon bearrak dira betikotasun guzian. Egin zituan gure lenbiziko gurasoak, eta ipiñi zituan Paradisuko leku atsegiñean. Autsi zuen Jaunaren Agintea. Aserratu zitzaion, egia da; aserratu zitzaion Jaunari: bota zituan Paradisutik, baña ez Aingeruak bezela, betiko su, eta garren artera. Au egin lekuan, eman zien denbora, ezagutzeko beren eskergabekeri itsusia: agindu zuan, bidalduko zuala bere Seme bakarra mundura, eta onek, arturik gizonaren janzia, garaituko zuala bekatuan amilderazo zituan, etsai galgarria. Urruti zegoan Salbatzalle onen etorrera; eta bitarte onetan iritsi zezeen Adanen umeak bekatuen barkazioa, begiratu zion, denboraz Salbatzalleak gurutzean eskeñiko zuan, Sakrifizioari, eta ipiñi zituan aditzera eman ditudan Sakramentu, doai, ta sakrifizioak. Atozea, Kristaia, neurri añ eder-miragarriak gizon eskergabearen onerako artu bazituan Jaunak, nork eztakus, zeñ ongi nai, ta ontasun andia agertu zuan gubanonz? Eta Jaun au ez degu amatuko, eta serbituko? Au da, nere Kristaia, gure egiteko andi, eta bakarra: jarri degiogun bada, ta gure saria izango da ugaria, au da betiko bizitza doatsua. Amen.



BIGARREN ERAKUSALDIA

*eta Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan
zazpi Sakramentuen gañean lenengoa.*

ALABATUA &

Lenengo Erakusaldian itzegin nizun, Kristaua, munduaren asieratik Jesu-Kristo etorri zan artean izan ziran Sakramentuen gañean. Aditu zenuen orduan, nola gure lenbiziko gurasoak autsi zuen Jaunaren Agintea, eta galdu zuen Jaunaren grazia, eta Zerurako esku guzia, ala berentzat, nola ondorengoentzat. Aserratu zitzaion Jaunari, eta erbestetu zituan Paradisutik; baña etzituan bidaldu betiko su, eta garren artera, Aingeru gaiztoak bidaldu zituan eran, baizik eman zien denbora, ezagutzeko beren utsegite andia: agindu zien, bidalduko zuala mundura bere seme bakarra, eta onek gizatasunaren janzia arturik, garaituko zuala, engañatu zituan, etsai galgarria. Baña urruti zegoan Salbatzalle onen etorrera, eta bitartean iritsi zezeen Adanen umeak bekatuen barkazioa, begiratu zion Jaunak bere Semearen gurutzeko eriotzari, eta ipiñi zituan, ukitu ginduan, Sakramentuak: eta agertu zuan onetan ongina, ta ontasun geiegi bat.

Igaro ziran era onetan lau milla urte bezela: oska zegozkion Jaunari Patriarkak, Profeta, ta anima onak, bidal zezala agindu zuan Salbatzallea. Bete ziran Jaunak markatu zituan denborak, eta etorri zan Salbatzallea: bizitu zan ogei, ta amairu urtean, erakusten zuala Zerurako bidea: eman zuan gurutzean bere bizitza, eta irabazi zuan guretzat, Adanen bekatuarekin galdu genduan, graziaren doai, ta apaindura ederra, eta Zerurako eskubidea. Etzan au asko guk; ondasun oek iristeko; baizik bear ziran, irabazi zuan grazia gure animetara igarotzeko, bideren batzuek. Orregatik utzi ziozkan Elizari zazpi iturri, edo Sakramentu animako graziaren ur gozoak, eta birtuteak beti ematen ari diranak. Oek dira dotrinan guziok ikasi ginduanak, edo *Bataioa*, *Konfirmazioa*, *Penitentzia*, edo *Konfessioa*, *Komunioa*, *Oleazioa*, *Ordena*, eta *Ezkonza*, edo *Matrimonioa*. Urrutitik begiratu zien Isaias Profetak Jesusen zazpi iturri oei, eta dio: atsegin-kontentuz artuko dezue Salbatzallearen iturrietatik bear dezuen urguzia *Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris* (Isaia. 12). Zazpi iturri, edo Sakramentu oen gañean itzegino dizut gaur nere Kristaua. Aurrena begiratu bear degu, zeñ miragarria dan zazpi Sakramentu oek ipintzean,

Jesusek agertu digun ontasun, eta amorioa. Urrena, nola eranzun diogun ontasun, eta amorio oni. Enzun arretaz.

§ I.

Zure siniste, edo fedea erakusten dizun egia da, Kristaua, etzala guri onginaie aspertu Jesus maitagarria gurutzean gugatik bizitza ematearekin; baizik, bere eriotzarekin guretzat irabazi zituan grazia, ta birtuteak gure animetara igaro zitezten, ipiñi zituala zazpi Sakramentu, eta besterik esatea da herejia, eta, eskomiku nagusiarekin Elizak debekatua dukan, gauza, *Anathema sit*. Au asko dala, dirudi, Jesusek alde onetatik agertu digun ontasun, eta amorio miragarria ezagutzeko. Baña askoz obeto, ta argiroago ezagutuko dezu au, Sakramentu bakoitza ipintzean egin zuanari begiratzen badiozu.

Ekusten zuan Jesusek, gizona sortzen danetik arkitzen dala. Adanen bekatuarekin loitua, eta Jaunaren aserrearen azpian: ez dala, onela dagoan bitartean gai, edo gauza Zerurako irabazirik txikien ere egiteko. Ekusten zuan, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartzan danetik asi bearra dala Zerurak bidearekin, sinisten dituala fedeko misterioak, esperatzen duala betiko bizitza, eta amatzen, eta serbitzen duala Jauna; baña onetarako etsai andi, eta trebeak arkituko dituala. Zer egin zuan Jesu onak? Ipiñi zuan bataioko Sakramentua bekatu jatorrizko, edo orijinala kentzeko. Sakramentu onek, artzen dan unean bertan, ixurtzen du artzallearen animan graziaren doai miragarria: onek barkatzen du bekatu jatorrizkoa: egiten du gizona Jaungoikoaren seme, ta Zeruren jabegai, edo herederor. Ematen diozka fede, esperanza, eta karidadearen birtuteak, oekin garaitzeko Zerurako bidean arkituko dituan nekeak. Zer geiago? Gogoz, eta gustoz ari dedin egiteko andi onetan, ixurtzen ditu Espiritu Santuak bere doaiak bataiatzen danaren animan. Atzenean ezartzen dio Jesu-Kristoren artaldeko marka Baña au guzia ez da asiera besterik.

Ekusten zuan Jesus onak, askotan alako perilla, inguratzen duela anima dala fedearan, dala beste Mandamenturen baten kontra, batzuetan munduaren besteetan bere gura txarren aldetik, non erraz amildu lezakeen bekatoren batean, sendoro jartzen ezpada bere Jaunaren Agintea gordetzeko, naiz aserratu dedilla mundu guzia, naiz ez; naiz altxa ditezela beraren kontra aideak, auzoak, adiskideak, naiz ez; naiz kosta dakiola bizitza, eta nork ez du ezagutzen zeñ lan andia dan au? Orregatik ipiñi zuan



Jesusek bigarren Sakramentu bat *Konfirmazioa deritzana*. Sakramentu onek ugaritzen du animako grazia eta ixurtzen ditu Espiritu Santuaren doiaik Kristauaren animan bataioan baño askoz naroroago: eta atzenean ezarzen dio Jesu-Kristoren gerrari, edo soldaduaren marka. Onela sendotzen du Jesu-Kristok anima, etsai guzien kontra peleetzeko.

Ekusten zuan Jesusek, bere gudari, edo soldaduetatik geienak, edo alde-aldean guziak etzirala benaz, eta bear bezala peleetuko etsaiaren kontra, eta berriro illak geratuko zirala bekatuaren eriotzarekin. Añ argala, eta Zerurako egin bear diran gauzetan narra, ta nagia geratu zan gizona Adanen bekatuarekin! Zer egin zuan Jesusek? Ipiñi zuan irugarren Sakramentu bat *Penitentzia*, edo *Konfesoia* deritzana, eta itz bian anima illak piztutzen dituana.

Ekusten zuan, aldapa gogor, eta luzeak arkitzen dirala Zerurako bidean, eta bidezkoa aunatu, edo arikatu ditekeala, sarritan artzen ezpadu zerbait janari, eta edari: eta au ongi zekusanak bezala, egin zuan Jesusek mirari guzien miragarritasuna berekin duan gauza bat, au da ipintzea Aldareko Sakramentu guziz miragarria, guri emateko bere gorputza, eta odola, eta bera dan guzia: guri laguntzeko Zerurako bidean, eta premia guzietan. Zer geiago asma zitekean gure alde? Jakizu bada, Kristaua, etzala onenbestean geratu Jesusen gudanako ongina, ta amorioa.

Ekusten zuan, ill bearrak giñala, eta ordu ura alderatzen danean, perill andien artean arkituko gerala. Perill au jaiotzen da gure griña txarretik, eta bizitza gaiztoak animan uzten dituan kutsu, eta arrasto gaiztoetatik, nola diran onerako narra, eta gogo gabe geratzea, baño gaitzerako makurtua. Perill au jaiotzen da urrena etsai galgarriaren aldetik. Dakusanean onek, aitutzen, edo bukatzen zaiola, gerra egiteko, denbora, prestatuko ditu anima gaixoa galtzeko, edo atxitzeko sare, eta lazo guziak. Peril onetan galdu etzitezen animak, ipiñi zuan Jesus onak bostgarren Sakramentu bat, eta da *oleazioa*, edo *azken oleadura*, erdaraz *Extrema-unzioa deritzana*. Sakramentu onek kentzen ditu, edo osotoro, edo zerbait igarotako bizitzaren kutsu, ta arrasto gaiztoak: alaitzen du anima, ematen diozka indarrak etsaia garaitzeko, bai ta batzuetan gorputzaren osasuna ere.

Ekusten zuan gañera, Sakramentuak ongi, eta bear diranean emateko, bearko zirala Sakramentu berak egiteko, eta emateko, eskua zuenak, eta oek beti izan zitzen Elizak, ipiñi zuan Ordena deritzan Sakramentua. Sakramentu onen bidez ditu Elizak Aita Santua, Obispo Jaunak, Apaizak, Diakonoak, eta bakoitzak badu bere mallari dagokan eskua. Oraingoak iltzen diraneko, etorriko dira berriak, eta au bera gertatuko da gero ere munduaren bukararaño.

Atzanean ekusten zuan Jesus onak, munduaren asieratik bazala ezkontza, baño etzala Sakramentu: beragatik etzuan graziaren gozagarririk. Orregatik altxa zuan ezkontza Sakramentuen mallara.

Esan zadazu oraiñ, nere kristaua, ez da guziz miragarria gauz oek egitean Jesusek gudanaz agertu duan ontasun, eta amorioa? Gugatik gurutzean bizitza emateari S. Paulok deitzen dio ongina, ta amorioa: *Nimiam charitatem*. San Juanek dio, Aldareko Sakramentua ipintzean amatu ginduala azkeneaño, edo ezin geiagoraño: *im finem dilexit eos*. Zer esango degu bada zazpi Sakramentuak ipintzean agertu digun ontasun, eta amorioaz? Arriturik esan dezakegu Dabidekin: Jauna, zer da gizona, zu artzaz gisa onetan oroitzeko? *Quid est homo, quod memor es ejus?* Baña nola eranzun diogu Jaunaren ontasun, eta amorio oni? Au da oraiñ begiratu bear deguna.

§ II.

Bere bizitzaren kostuz irabazi zuan guretzat Jesus onak graziaren doia, eta Zerurako esku, ta deretxa, eta au eman zigun bataioko Sakramentuarekin. Non da orduan artu genduan apaindura ederra? !Ai doarik, eta ezer balio etzuan gauza bezela galdu genduan! Egin ginduan Jaungoikoaren beraren Seme, ta Zeruaren jabegai: eta onra au guzia trukatu degu gure griña txarren atsegiñ apur bategatik.

Konfirmazioko Sakramentuarekin egin giñan Jesu-Kristoren gudari, edo soldadu, demonioaren, munduaren, eta aragiaren kontra peleetzeko. Baña zer egin degu? Zer, ezpada munduaren beldurrez, edo gura txarrak garaitzeko nekea ez artezagatik, Jauna utzita etsaiagana igarotzea?

Konfesioko Sakramentua utzi zigun gure animako eritasunetatik gu sendatzeko. Baña asko, eta asko dira sendagai au beren puzoi biurtzen duenak: batzuek, zeren, eskatzen duan, prestaera egiteko saiatzen ez diran; besteak zeren lotsaz, edo gaiztakeriaz bekatuak diran bezala, eta diran adiña aitortzen ez dituen: batzuek, zeren dotriña ikastera saiatzen ez diran; besteak, zeren bekatuak bideak, etxe, ta lagun gaitztoak utzi nai ez dituen: batzuek, zeren lagun urkoari bekatuak bidea ematen dioen, itzegite loiak, keñada itsusiak lajatzeko biotzik ez duen; besteak edanean igarotzeko, birau, ta juramentuak egiteko oitura zarrean bizi diran: batzuek, zeren lagun urkoari, edo erriari egindako kalteak desegiten ez dituen; besteak besteren gauza jabearen borondatearen kontra daukeen.



Atzanean beren estadu, eta karguaren egin-bide, edo obligazioak ezagutu nai ez dituenak. Oek guzia zeren puzoi biurtzen due Konfesioko Sakramentua. Zer esango det Aldareko Sakramentuari egiten zaizkan bidegabeaz? Zer, beste Sakramentuakin gertatzen danaz? orregatik esan dezake Jesusek, len Israeltarrai Jaunak esaten ziena: jende zoro, ta zenzugabea; au da zure Jaun eta Jaungoikoari zor diozun eranzuera? *Haecine reddis Domino, popule stulte, et insipiens?* (Deuteronom. 32).

Kristaua, ezagutu dezagun gure, esker gabekeri izugarria; eta damu egiazkoarekin barkazioa eskatu degiogun Jesus onari. Aurrerakoan balia gaitezen, berak utzi dizkigun, Sakramentuaz bera amatzeko, ta serbitzeko, eta iristeko beti-beti iraungo duan Zeruko gloria. Amen.

IRUGARREN ERAKUSALDIA

*baña Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan,
zazpi Sakramentuen gañean bigarrera.*

ALABATUA &.

Aditu zenduan, kristaua, azkeneko Erakusaldian, zeñ miragarria dan, zazpi Sakramentuak ipintzean, Jesusek agertu digun ontasun, eta amorioa. Aditu zenduan gañera, zeñ gaizki eranzun diogun amorio oni. Oraññ dotrinak galdetzen digu gisa onetan.

«Zer gauza dira Sakramentuak? Eranzuten du: Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, siñale agiri diran batzuek, oen bidez grazia, eta birtuteak guri emateko. Zer gauza da grazia? Da Jainkozko izate, edo doai bat, gizona Jaungoikoaren Seme, ta Zeruaren jabegai, edo heredero egiten duana. Zer birtute graziarekin batean ematen ditue Sakramentuak?» Berezkiro iru Theologalak, edo Jaungoikoaganonz zuzen begiratzen duanak. Zein dira? fedea, esperanza, ta karidadea. Orra zer erakusten dizun dotrinak, Sakramentu guzien gañean; baña Kristauen artean asko dira, dotrinak itz piska oetan dakarrena aditzen ez duanak. Orregatik gauza bearra da beiñ, ta berriz, eta askotan azaltzea, eta agertzea dotrinak emen erakusten diguna. Sakramentu oek dira zazpi, fedea erakusten digun bezela. Ez dira, gizonak asmatutako gauzak, baizik Jesu-Kristok bere Elizari utziak, fedea erakusten digun bezela. Dira siñale agiri diranak; zoaz ezperen, Sakramentu bakoitza ematen danean, zer egiten dan ekustera. Bataioan ixurtzen du bataiatzalleak ura aurraren buru-gañera, eta esaten ditu Sakramentuari dagozkan itzak. Orra nola bataioa dan siñale agiria: eta au bera gertatzen da beste Sakramentuetan ere. Siñale oek aditzera ematen ditue animara dakartzien ondasunak: oek ez dira ekusten, baizik fedea erakusten ditu. Ondasun oetatik andienak dira grazia, ta birtuteak: orregatik dotrinak dio, Sakramentuak dirala Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, *siñale agiri diran batzuek, oen bidez grazia, ta birtuteak guri emateko.*

Sakramentuak, ongi artzen badira, ematen dioe animari grazia deritzan apaindura ederra: au da doai bat Espiritu Santuak Sakramentuen bidez animari ematen diona, eta deitzen dio Jesu-Kristok eztaietako jan-ziera: *Vestem nuptialem.* Ezta doai au galtzen, bekatu mortalarekin baizik.



Añ miragarria da doai, eta apaindura au, non egiten duan gizona Jainkoaren Seme, eta Zeruaren jabegai, edo heredero.

Baña Zeruko erreñua iritsi nai duanak amatu, eta serbitu beardu Jauna, eta onetarako bear ditu birtute egokiak, nekazari batek, lana ongi egiteko, lanabes egokiak, bear dituan eran, egin dezagun kontu atxurra, laiak, area, zerra, gubia. Orregatik Espiritu Santuak graziaren doai, eta apaindura animari ematean, ematen diozka Zerurako lanak egiteko birtuteak, nola diran fede, esperanza, ta karidadea, bai ta beste birtute asko ere.

Edozeñek beregan ezagutzen du, gauz onak egiteko gerala nagiak, eta gogo gutxikoak; eta gogoaren kontra ari dan langillea askotan zabartu oi da. Eritasun au sendatzeko, zer egiten du Espiritu Santuak? Birtuteakin batean ixurtzen ditu animan bere zazpi doaiak, oekin egin ditzan Zerurako egin bear dituan lanak, ez nolana, baizik gogoz, eta gustoz.

Atzenean bear ditu animak, gauz onak egiteko, Zeruko lagunzak; oek gabe alabaña ezgera gai, edo gauza gogorazio on bat egiteko, ez eta Jesus bear bezela esateko ere, dio S. Paulok. Zeruko lagunz oetatik asko denbora egokietan ematen ditue Sakramentuak. Orra zer, ta zertako diran zazpi Sakramentuak. Gauz oen zerbait ezaguera izan dezazun zuk nere Kristaau, berrituko ditut, orain esan diran eran, urrengo bi Erakusaldietan ere.

Dotrinak ukitzen dituan gauz oen artean graziaren doai da guziz miragarria, lenengo lekuan: animarentzat dakarren onraren aldetik: au da aurrena ekusi bear deguna. Urrena, Jesus onari kostatzen zaionari begiraturie. Au da bigarren lekuan ekusi bear deguna. Enzun arretaz, Kristaau.

§ I.

Graziaren izenez batzuetan aditzen degu edozeñ ontarte, eta mese-de, eta era onetan guk ditugun doai ta gauz on guziak dira Jaunaren grazia; guziak dira alabaña beraren esku ongilleak emanak, dala bizitza, osasuna, dala bizitzeko bear degun guzia; baña ez degu emen graziaren izenez aditzen edozeñ mesede. Beste batzuetan graziaren izenez aditzen ditugu, bekatutik irteteko, edo aldegitiko, obra onak egiteko, eta oei jarraitzeko Espiritu Santuak bidaltzen dizkigun gogorazio onak, eta biotzeko ukitzeak. Oek dira Zeruko mandatari batzuek, mandatua animari egiñ ondoan, gukan gelditugabe aurrera igarotzen diranak. Espiritu Santuaren mandatu oekin askotan esnatzen, eta kuturtzen da anima,

bekatutik irtetera, baña beste askotan geratzen, da bekatuaren lo astu-nean. Zeruko lagunz oek gabe betikotasun guzian egongo giñake gogorazio on bat egingabe; eta gureztat irabazi zituan oek Jesusek bere erio-tzarekin. Orregatik mandatu oek aditu bear ditugu biotz umil batekin, bestela erraz gerta ditekete galtzea betiko bizitza. Baña ez degu gaur itzegiten Zeruko mandatu, ta lagunz oen gañean. Atzenean graziaren izenez aditzen da geienetan arako Espiritu Santuak animari Sakramentuen bidez ematen dion doai, ta apaiudura eder ura. Doai au geratzen da animan, eta ez da galtzen bekatu larri, edo mortalarekin baizik. Lenengo aldian artzen du animak doai, ta apaindura au bataioan, gero kontesio ona egiten duanean, eta ugaritzen zaio gañerako Sakramentuetan. Beraz zuk, Kristaau, bataioko egunean, eta ongi konfesatu zeranean, artu dezu graziaren doai, eta apaindura ederra. Au da egia bat zure siniste, edo fedeak erakusten dizuna, eta guziok sinistu bear deguna. Baziñaki, Kristaau zeñ miragarria dan doai au! *Si scires donum Dei*. Nai dezu au nolerebait ezagutu? begira bada benik beñ, zeñ onragarria dan.

Graziaren doai, eta janziera onek, animan sartzen dan uean bertan, gizona egiten du Jaungoikoaren beraren Seme, ez bere izatez, baizik aintzakotzak Jaungoikoak artzen dualako. Gizona bere izatez ezin izan ditekete Jaungoikoaren seme; onetarako alabaña bearko luke Jainkotasuna, eta ezin dateke au. Era onetan Jesu-Kristo bakarrik da Jaungoikoaren semea, eta Jaungoiko egiazkoa. Baña ainbesterañ maitate izan gaitu Jaunak, non onratu nai izan gaituan bere Semeen izenarekin, eta aintzakotzat artu gaituan graziaren doiarekin. Demagun Españaiko Erregek seme bat bakarra duala, eta onez gañera semetzat artu nai duala beste bat. Eragiten du soñeko, edo janziera guziz eder bat, eta agintzen du, janziera au daramana onratu dezeela guziak Erregeren semetzat. Atozea, Kristaau, janziera au Erregegandik iristen duana, ez da izango Erregeren Seme? Bere izatez ez, esango didazu, baña bai aintzakotzat artua. Au bera gertatzen da bada graziaren janziera ederra iritsi duanarekin. Ez da, eta ezin izan ditekete bere izatez Jaungoikoaren Seme, zeren Jainkotasunak ezin izan dezakean, baña graziaren soñeko ederrarekin artzen du Jaunak bere Semetzat. Orregatik esan zuan S. Juanek: ekusi ezazue, nolako onginai, eta amorioa guganonz agertu duan Jaunak: *Videte qualem charitatem dedit nobis*. bada eman digu bere Semeen izena, eta izatea: *Ut filii Dei nominemur, et simus*.

Graziaren doai, eta janzierak, gizona Jainkoaren Seme egiteaz gañera, denbora berean egiten du Zeruaren jabegai, edo heredero. Semea Aitaren ondasunen jabegai da, edozeñek dakian bezela: beraz graziaren doaiak, gizona Jainkoaren Seme egiten badu, denbora berean egiten du



Zeruaren jabegai: ala esaten digu S. Paulok: *Si filii, et haeredes*. Gauz andi bat dala, uste degu, España, Frantzia, Alemania, eta Rusiako Erreñu, eta ondasunen jabegai izatea? Baña zer da au, Zeruko erreñu eta ondasunen jabegai izatearen aldean ipintzen bada? Ezer ez. Emengo izan guziak gorotza bezela dira Zeruko pare ipintzen badira. Ango ondasunak dira garbiak, aspertzen ez duenak, eta betikoak: eta Jaunaren edertasun neurri, ta mugarik ez duana izango da animaren sari, ta betegarria, Jaunak berak Abrahami esan zion eran: *Ego merces tua magna nimis*. Ekusten dezu, Kristaia, nola graziaren doaiak gizona egiten duan Zeruaren jabegai?

Egiten ere du *Jaungoikoaren beraren adiskide*. Anima bat, graziaren doai, eta apaindura gabe dagoan bitartean, arkitzen da bekatuaren loiez zikindua, eta Jaunaren aserarearen azpian, S. Paulok dion bezala: *Fitii irae*. Baña ozta jartzen da Jaunaren grazian, egiten da Jaungoikoaren adiskide. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Au aditzera eman zuan Jesu-Kristok, esan zienean Apostolui: *emendik aurrera ez dizuet esango nere serbitzariak baizik nere adiskideak*. Miretsitzen da S. Gregorio, onenbeste onra guri Jaunak eman nai izateaz, eta dio: ez gera serbitzarien izenaren diña, eta onratzen gaitu adiskideen izenarekin: *O mira Divinae Bonitatis dignatio! Servi non sumus digni nominari, et amici nominamur*.

Ez dira onetan bukatzen, graziaren doaiak dakartzian, onrak; zeren doai enek gizona egiten du Jesu-Kristoren senide. Jesu-Kristo da Aita Zerukoaren seme bakarra bere izatez, zeren Aitaren izate, eta Jainkotasunak duan. Seme bakar onez gañera graziaren doiarekin semetzat artzen ditu beste asko, edo graziaren soñeko ederrarekin dauden guziak, eta oek geratzen dira Jesu-Kristoren senideen onra andiarekin; Aita baten umeak alabaña senideak dira. Orregatik Jesu-Kristo da gure anai nagusia.

Azkenean graziaren doaiak gizona egiten du Espiritu Santuaren bizileku, eta Eliza bezala. Doai au animari ematean, S. Paulok dionez, ematen zaio Espiritu Santua ere, eta an bizi da animaren giaria bezala, eta an bizi naiko luke bere gogoko jauregian bezala, toki guzietan ezpalego ere. Orregatik Jaunaren grazian dagoan animari S. Paulok deitzen dio Espiritu Santuaren Eliza: *An nescitis, quoniam membra vestra templum sunt Spiritus Santi?*

Ekusten dezu Kristaia, zeñ onragarria dan animarentzat graziaren doai, eta soñeko ederra? Ekusten dezu, zeñ miragarria dan alde onetatik? Eta ez da gutxiago, zer kosta zitzaion doai au Jesus onari begiratzen badeugu. Au da oraiñ ekusi bear deguna.

§ II.

Zuk nere Kristaia, ez dezu ekusten begiak graziaren doai, eta janzeria ederra, eta janzeria au galdu arren, ez dezu negar andirik egin esana dago: *ekusten ez duan begiak negarrik ez*. Baziñaki, zenbat kosta zitzaion Jesus onari, doai au zuretzat irabaztea! Galdu zuen doai au gure lenbiziko gurasoak, Paradisuko arbola baten fruta debekatua jaten zuala, eta galdu zuen ez berentzat bakarrik, baita ondorengo guzientzat ere. Etzan gizonen, eta etzan Aingeruen artean ere arkitzen oker au zuzendu zezakeanik, eta Jaunak bere gañ artu bear izan zuan lan andi au. Aita betikoak eman bear izan zuan bere Seme bakarra, gizon egiñik, desegin zezan bekatua. Seme Jaungoikoa gizon egin zan Birjiña txit Santaren. sabelean Espiritu Santuaren obraz. Oroi zaitte, Kristaia, gero igaro zituan neke, ta oñazeaz. Oroi zaitte, zer illuntasun, edo tristurak ekusi zituan bere azkeneko arratsean. Oroi zaitte, nola jarri zan odolezko izerditan, eta iltzeko zorian. Oroi zaitte nola azotez urratu ta aranzaz koroatu zuen, eta atzenean, nola gurutzean eman zan bere bizitza: eta jakizu, au guzia kosta zitzaioa Jesus onari graziaren doai guretzat irabaztea. Esan gidazu oraiñ: zeñ miragarria izango ez da bada doai au, alde onetatik begiratzen zaiola?

Ai! eta alaere daldu degu doai au añ erraz, edo ezerezagatik? Galdu doai bat, Jaungoikoaren Seme, eta adiskide: Zeruaren jabegai, Jesu-Kristoren senide, eta Espiritu Santuaren bizileku egiten ginduana? Galdu, Jesus onak ainbeste nekerekin guretzat irabazi zuan apaindura ederra? Eta ezagaturik au guzia, ez gera damuz desegingo? Lotsa gaitezen gure zentzugabekeriaz: egin dezagun alegiña graziaren doai miragarri au biltzeko, eta ongi gordetzeko. Onela emango digu Jaunak guretzat prestatu rik daukan betiko bizitza. Amen.



LAUGARREN ERAKUSALDIA

*baña Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan
Sakramentuen gañean irugarrena.*

ALABATUA &

«Zer gauza dira Sakramentuak? galdetzen du dotrinak: eta erantzuten du: Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, siñale agiri diran batzuek, oen bidez grazia eta birtuteak guri emateko. Zer gauza da grazia? Da Jainkozko izate, edo doai bat gizona Jainkoaren Seme, eta Zeruairen jabegai, edo heredero egiten duana. Zer birtute graziarekin batean ematen ditue Sakramentuak? Berezkiro iru Theologalak, edo Jainkoaganon zuzen begiratzen duenak. Zeñ dira? fedea, esperanza, eta karidadea». Orra zer erakusten dizun dotrinak Sakramentu guzien gañean.

Sakramentu oek dira zazpi, fedea erakusten digun bezala. Dira siñale agiri diranak; zoaz ezperen Sakramentu bakoitza ematen danean, zer egiten dan begiratzera. Bataioan ixurtzen du bataiatzalleak ura aurraren burugañera, eta esaten ditu Sakramentuari dagozkan itzak. Orra nola bataioa dan siñale agiria: eta au bera gertatzen da beste Sakramentuetan ere. Siñale oek aditzera ematen ditue, animara dakartzien ondasunak: egin dezagun kontu, bataioan ura ixurtzeak adirazten digu, Sakramentuetan bidez Espiritu Santuak garbitzen duala anima bekatuaren loietik. Sakramentuak animara dakartzien ondasunak ez dira ekusten baizik fedea erakusten ditu. Ondasun oen artean andienak dira grazia, eta birtuteak: orregatik doktrinak dio, Sakramentuai dirala, *Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, siñale agiri diran batzuek, oen bidez grazia, eta birtuteak guri emateko.*

Sakramentuak, ongi artzen badira, ematen dio animari, grazia deritzan apaindura ederra: au da doai bat Espiritu Santuak Sakramentuen bidez animari ematen diona, eta deitzen dio Jesu-Kristok eztaietako janziera: *Vestem nuptialem*. Ez da doai au galtzen, bekatu larriarekin baizik. Añ miragarri da doai, eta apaindura au, non egiten duan gizona Jaungoikoaren seme, eta Zeruairen jabegai, edo heredero. *Jaungoikoaren seme*, ez bere izatez, zeren gizonak ez duan, eta ezin izan dezakean Jainkotasunik, baizik zeren graziaren doai, eta janziera ederrarekin apaindua dagoana bere semetzat artzen duan Jaungoikoak, S. Juanek esaten

digun bezala, *Videte qualem charitatem dedit nobis, ut filii Dei nominemur, et simus*. Zeruairen jabegai; Semea alabaña Aitaren ondasunen jabegaia da S. Paulok dion eran.

Baña Zeruko Erreñua iritsi nai duanak amatu, eta serbitu bear du Jauna, eta onetarako bear ditu birtute egokiak, nekazari batek, lana egiteko, lanabes egokiak bear dituan eran, egin dezagun kontu atxurra, laiak, area, zerra, aizkora. Orregatik Espiritu Santuak graziaren doai, eta janziera ematean, ematen diozka animari, Zerurako lanak egiteko birtuteak, nola diran fedea, esperanza, eta karidadea, baita beste asekoere.

Edozeñek beregan ezagutzen du, gauz onak egiteko, gerala nagiak, eta gogo gutxiokoak; eta gogoaren kontra ari dan langillea askotan zabartu oida. Eritasun au sendatzeko, zer egiten du Espiritu Santuak? Birtuteekin batean ixurtzen ditu animan bere zazpi doaiak, oekin egin ditzan, Zerurako egin bear, dituañ, lanak, ez nola nai, baizik gogoz, eta gustoz.

Atzanean bear ditu animak gauz onak egiteko Zeruko laguntzak; oek gabe alabaña ez gera gai, edo gauza gogorazio on bat ere egiteko, ez eta Jesus bear bezala esateko ere, dio S. Paulok. Zeruko lagun z oetatik asko denbora egokietan ematen ditue Sakramentuak. Orra, zer, eta zertako diran zazpi Sakramentuak.

Sakramentuak dakartzien ondasunen artean grazia da andiena, eta beste guzien sustraia. Azkeneko Erakusaldian asi nintzan adierazten, zeñ miragarria dan doai au. Onetarako begiratu genduan, zeñ onragarria dan animarentzat, eta zenbat kosta zitzaion Jesus onari doai au guretzat irabaztea. Gai oni beroni narraikala, gaur ekusi bear degu, benik beñ: nola graziaren doaiak piztutzen dituan, bekatuan illak, eta ustelduak dauden animak. Urrena, nola, animan sartzen dan unean bertan aienatzen dituan bekatu larri, edo mortal guziak. Atzanean animari ematen dion edertasun arrigarria. Enzun, nere Kristaua, arreta andiarekin.

§ I.

Baziñaki, esaten zion Jesus onak emakume samariarrari; baziñaki, Jaunak bidaldu dizun doaiaren berri! *Si scires domum Dei*. Au berau esango dizut gaur zuri, nere Kristaua. Baziñaki, zeñ miragarria dan, zure animan. Espiritu Santuak ixuri zuan, graziaren doai! Au da doai bat, bekatuan illak, eta ustelduak dauden, animak ere piztutzen ditua. Anima bat, bekatuan erortzen danean, dala hitzez, dala gogoz, edo pensamentuz,



dala obraz, illa geratzen da, Ezekiel Profetak dion bezala. *Anima, quae peccaverit, ipsa morietur*. Gertatzen zaio animari bekatuarekin, gorputzari bere eriotzarekin gertatzen zaiona. Aldegiten du animak gorputzetik eta geratzen da au ezer ere ezin egin dezakean eran. Baditu begiak, eta ez du ezer ekusten. Baditu belarriak, eta ez du ezer aditzen. Baditu eskuak, eta ez da gai beatz batere altxatzeko. Baditu oñak, ta eziñ jaso ditu. Eta ona animari bekatu larri, edo mortalarekin gertatzen zaiona. Aldegiten du graziaren doaiak. Aldegiten du nolerebait Jaungoikoak, eta geratzen da anima illa, eta Zerurako obra on, eta irabazirik ezin egin dezakean eran, bekatutik irten dediñ artean, eta eziñ berez irten diteke. Gañera gorputza, iltzen danetik laster, asitzen da usteltzen. Biurtzen da ar, eta zikinkeria; alde guzietatik kiratsa dario. Au bera gertatzen da asko animarekin. Erortzen dira bekatuan. Ez due biotzik bekatua, eta bekatuaren bideak osotoro utzitzeko: eta bekatuaren obian dautza ustelduak bezala, eta kiratsa dariezala. Zuaz festa batera: ekusiko dituzu gizonezkoak alduen ongiena apainduak, eta zerbait dirala, uste duenak. Ekusiko dituzu emakumeak normai lilluratu, ta txoraturik utzi lezakeen eran janziak. Nori gogorako zaio illak eta ustelduak daudela oriek? Ta ala egon oi dira geienak animaren aldetik. Dira obi kanpotik zuritua dagoan baten anzekoak. Ongi ematen du obiak, zuritua, eta armakin apaindua ekusten danean; baña ken bedi estalki ederra, zer ekusiko dezu? zer ezpada arra, sagua, zapoa; emen saietsezurrak, an buruaren, eskuen, eta zankoen puskak. Eta zer ekusiko dezu, gizon, eta emakume apaindu orien barrunbeari begiratzen badiozu? Ekusiko dezu, asko bekatuarekin ustelduak daudela, kanpotik bizi dirala badirudie ere. Alaere an miragarria da graziaren doaia, non bekatari usteldu oek ere piztutzen dituan animan sartzen dan uanean bertan. Piztutzen ditu gañera animak, bekatuan erori baño len egin zituan obra onak. Demagun, urlia, edo sandia denbora luzean bizitu dala bizitza on, edo birtutetsuan: eta gertatzen zaiola bekatu larriren bati leku ematea. Une artan bertan illak geratuko dira orduraño egindako obra on guziak, Apostoluen, eta Birjiña txit santarenak adiña izan balira ere. Añ izugarria da bekatu larriaren puzoia. Baña graziaren doaiak, animan agertzen dan bezala, piztuko ditu obra on aek. Ekusten dezu, Kristaua, nola graziaren doaiak piztutzen dituan, bekatuan illak, eta ustelduak dauden, animak? eta era berean len egindako obra onak? Eta doai au ezta guziz miragarria? Baña goazen aurrerasêago, eta dakuskun, nola animan sartzen danean aienatzen dituan bekatu larri, edo mortal guziak, diranak dirala.

§ II.

Demagun, añ errebes-gaiztoa izan dala bat, non egin dituan munduaren asieratik gertatu, eta munduaren bukaeraraño gertatuko diran bekatu itsusi guziak. Jakizu, añ andia dala, graziaren doaiak bekatuaren kontra duan indarra, non gizon errebesaren bekatu guziak aienatuko litukean animan sartze utsarekin, eguzkiak gauaren illuntasunak aienatzen dituan eran. Au aditzera ematen digu Isaias Profetak, dionean, elurra beziñ zuri egingo dirala gure bekatuak, grana bezela balira ere: *Si fuerint peccata vestra ut coccinum, quasi nix dealbabuntur*. Eta alaere doai au ez degu oraindaño ezertan iduki?

Demagun, Kristaua, zure baratza, edo berjeran agertzen dala iru orriko lore guziz eder bat. Begiratzen diozu, eta ekusten dezu, orri bakoitzean ezarriak daudela urrezko letra batzuek. Lenengo orriko letrak dioe era onetan: *illak piztutzen ditu*. Bigarren orrikoak dioe: *gaitz mota guziak aienatzen ditu*. Irugarren orrikoak dioe: *gorde ni ongi, eta etzera gaixotuko, ez illko*. Arriturik geratzen zera, letra oek dioena irakurririk. Aditzen dezu, ill dala zure adiskide bat: kentzen diozu lenengo orriari piska bat; ipintzen diozu adiskideari ezpañetan, eta piztutzen da. Nork esan, norañoakoa izango litzakean orduan zure poza? Aditzen dezu geroago, zure auzoan dagoala norbait etsia, eta azkeneko asnasetan bezala. Artzen dezu bigarren orritik piska bat, eta ematen diozu eriar ardo gutxi batean. Ozta igaro du barrena, geratzen da gaitzik gabe, eta osotoro sendatua. Arriturik, eta zer gertatzen zatzun eztakizula geratzen zera. Artzen dezu irugarren orritik beste piskabat: sartzen dezu kutun eder batean, eta zerekin darabiltzu, eta geroztik ez dezu gaitzik batere: etzera moteltzen, zartzen, eta iltzen. Atozea, zer ez luke balioko lore miragarri onek? Zer ez lizake emango beraren orri bakoitzagatik? Pozik erreñu osoak ere emango lirake. Kristaua; eta eztakizu, lore eder au dala Espiritu Santuak zure animan ipiñi zuan graziarenlorea? Lore onek piztutzen ditu bekatuan illak zeuden animak. Lore onek aienatzen ditu animako gaitzmota guziak, eta lore au ongi gordetzen duana ez da beñere illko. Baña gauza negargarria! Lore eder au galtzen da sarritan, eta ezerezagatik! Non da, Kristaua, gure sinis-tea? Baña begira atzanean, graziaren doaiak animari ematen dion, edertasan arrigarriari.

Ez degu begiz ekuzten, ez bekatuan dagoanaren itsustasuna, ez grazian dagoanaren animako edertasuna: orregatik ez da erraz bi gauza oek



ongi adiraztea. Alaere zerbait argitasun eman diteke, Jaunak beñ baño geiagotan agertu duanarekin. S. Bernardok esaten digu, Erlijosio bati erakutsi ziola Jaunak Demonioa, eta añ itsusia, ta izugarria zan au, non kordegabe geratu zan Erlijosioa, eta etzan beregana egun bat osoan. Santa Katalina Senakoari ere agertu zion beñ Jaunak Demonioaren itsustasuna, ta izutu zan ainbesteraño, non esan oi zuan, naiago zuala munduaren bukaeraraño susko bide batean ibilli, ezen ez berriz ura ekustea. Eta nondik, eta nola ote da Demonioa añ itsusia, izanik len guziz ederra? Jaunaren kontra egin zuan bekatutik; Eta bekatu batek añ itsusia utzi bazuan Luzifer, begira, Kristaua, nolakoa egongo zeran Jaunaren begietan; bada egin, eta eragin dituzu ainbeste bekatu itsusi.

Baña nolakoa ote da, anima bati graziaren doai, eta jañzierak ematen dion, edertasuna? Au da gauza bat, ez gizonak, eta ez Aingeruak ongi aditzera emango duena. Demagun, kristalezko onzi garbi batera biltzen dala, eguzkiak, eta izarrak, berjeretako loreak, urreak, zillarrak; perlak, eta diamanteak duen edertasun guzia. Ateratzen due eguzkitara onzi ura, an bildu diran edertasun guziakin; Zeñ ederra agertuko lizake? Baña edertasun au guzia ezer ez bezala izango lizake, graziaren doaiak animari ematen dion edertasunaren aldean. Santa Katalina Senakoari agertu zion beñ Jaunak graziaren zegoan anima bat, eta añ andia zan aren edertasuna, Santaren iritzian, non esan oi zion Konfesoari: O Aita! eta ekusiko balu graziaren dagoan arima baten edertasuna! Uste det, anima bat edertasun onetan ipintzeagatik, pozik beñ, eta berriz jarriko litzakeala, eriotzaren perillean.

Orra, zeñ miragarria dan graziaren doai, eta apaindura, ukitu diran iru alde oetatik begiratzen zaiola. Doai onek piztutzen ditu anima, bekatuan illak, eta ustelduak daudenak ere. Doai onek, animan sartzen dan unean bertan, aienatzen ditu bekatu larri, edo mortal guziak. Doai onek ematen dio animari edertasun bat eguzkiaren, izarren, lore, perla, ta diamanteen edertasun guzia garaitzen duana. Ta doai au galdu guk! Eta galdu, zergatik? Gura txar bati leku emateagatik. Arritu zaitzte Zeruak, eta desegin Zeruko ateak: *Obstupescite Caeli et portae ejus desolamini*. Zer egin aldeake bekatariak, kalte au desegiteko? Ezta besterik bear, S. Juanek esaten diguna baizik: oroi zaite, esaten digu, nondik erori zeran bekatu egitean, eta damuz beterik biur zaite Jaunagana: *Memor esto, unde excideris; et age paenitentiam*. Onela iritsiko dezu graziaren doai miragarria, eta gordezten badezu, iritsiko dezu betiko bizitza. Amen.

BOSTGARREN ERAKUSALDIA

*baña Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan,
zazpi Sakramentuen gañean laugarrena.*

ALABATUA &

«Zer gauza dira Sakramentuak? galdetzen du dotrinak: eta erantzuten du: Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, siñale agiri diran batzuek, oen bidez grazia, eta birtuteak guri emateko. Zer gauza da grazia? Da Jainkozko izate, edo doai bat gizona Jainkoaren seme, eta Zeruaren jabe-gai, edo heredero egiten duana. Zer birtute graziaregin batean ematen ditue Sakramentuak? Berezkiro iru Teologalak, edo Jainkoaganonz zuzen begiratzen duanak. Zeñ dira? fedea, esperantza, ta karidadea. Orra zer erakusten dizun dotrinak Sakramentu guzien gañean».

Sakramentu oek dira zazpi, fedea erakusten digun bezala. Dira siñale agiri diranak; zoaz ezperen Sakramentu bakoitza ematen danean, zer egiten dan begiratzera. Bataioan ixurtzen du bataiatzaileak ura aurraren burugañera, eta esaten ditu Sakramentuari dagozkan itzak. Orra, nola bataioa dan siñale agiria: eta au bera gertatzen da beste Sakramentuetan ere. Siñale oek aditzera ematen ditue animara dakartzien ondasunak: egin dezagun kontu, bataioan ura ixurtzeak adieratzen digu, Sakramentuaren bidez Espiritu Santuak garbitzen duala anima bekatuaren loietik. Sakramentuak animara dakartzian ondasunak ez dira ekusten, baizik fedea erakusten ditu. Ondasun oen artean andienak dira grazia, eta birtuteak: orregatik doktrinak dio, Sakramentuak dirala *Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan siñale agiri diran batzuek, oen bidez grazia, eta birtuteak guri emateko*.

Sakramentuak ongi artzen badira, ematen dioe animari grazia deritzan apaindura ederra: au da doai bat Espiritu Santuak Sakramentuen bidez animari ematen diona, eta deitzen dio Jesu-Kristok eztaietako janziera: *Vestem nuptialem*. Ezta doai au galtzen bekatu larri, edo mortallarekin baizik. Añ miragarria da doai, eta apaindura au, non egiten duan gizona Jaungoikoaren seme eta Zeruaren jabegai, edo heredero. *Jainkoaren Seme*, ez bere izatez, zeren gizonak ez duan, eta eziñ izan dezakean Jainkotasunik baizik zeren graziaren doai, eta janziera ederrarekin apaindua dagoana bere Semetzat artzen duan Jaungoikoak, S. Juanek esaten



digun bezala: *Videte qualem charitatem dedit nobis, ut filii Dei nominemur, et simus*. Zeruaren jabegai; Semea alabaña Aitaren ondasunen jabegaia da S. Paulok dion eran: *Si autem filii et haeredes*.

Baña Zeruko erreñua iritsi nai duanak, amatu eta serbitu bear du Jauna, eta onetarako bear ditu birtute egokiak nekazari batek, lana egiteko, lanabes egokiak, bear dituan eran, egin dezagun kontu atxurra, laiak, area, zerra, aizkora, Orregatik Espiritu Santuak, graziaren doai eta janziera ematean, ematen diozka animari, Zerurako lanak egiteko, birtuteak, nola diran fedea, esperanza, karidatea, eta beste asko.

Edozeñek beregan ezagutzen du, gauz onak egiteko gerala nagiak, eta gogo gutxikoak: eta gogoaren kontra ari dan langillea askotan zabartu oi da. Eritasun au sendatzeko, zer egiten du Espiritu Santuak? Birtuteakin batean ixurtzen ditu animan bere zazpi doaiak, oekin egin ditzan, Zerurako egin bear dituan lanak, ez nola nai, baizik gogoz, eta gustoz.

Atzenean bear ditu animak, gauz onak egiteko Zeruko lagunzak; oek gabe alabaña ez gera gai, edo gauza gogorazio on bat ere egiteko, ez eta Jesus bear bezala esateko ere, dio S. Paulok. Zeruko lagunz oetatik asko denbora egokietan ematen ditue Sakramentuak. Orra zer, eta zertako diran zazpi Sakramentuak.

Sakramentuak dakartzien ondasunen artean grazia da andiena; eta beste guzien sustraia. Azkeneko bi Erakusaldietan alik ongiena aditzera eman dizut, Kristaua, zeñ miragarria dan doai au. Baña oraindano esan degun guzia ez da, doai ouen miragarritasuna adierazteko, diña. Doai au da Espiritu Santuak animan ixurtzen duan ur bizi lurretik Zerurano igotzen dana. Au da gaur lenengo lekuan aditzera emango dedana. Doai au da birtute guzien zepa, edo sustraia, bere alsumak Zerurano botatzen dituana. Au da bigarren lekuan aditzera emango dedana. Atzenean doai au da obrarrik txikienai ere Zeruko erreñu, edo betiko bizitzaren balioa ematen diena. Au da azkena aditzera emango dedana. Enzun arreta andiarekin, Kristaua.

§ I.

Zu, nere Kristaua, bataioko egunean, eta ongi konfesatu zeranean, Espiritu Santuak apaindu zinduan graziaren doiarekin. Baziñaki, zeñ miragarria dan doai au *¡Si scires donum Dei!* Doai au da beñik beñ, Espiritu Santuak zure animan ixurtzen duan ur bizi, lurretik Zerurano igotzen

dana. *Ur bizia*, zeren, berez ura ezpada ere, garbitzen duan anima bekatuaren loi guzietatik, gorputza urak garbitzen duan baño obeto. *Ur bizia* gañera, zeren ur onek ematen dion animari betiko bizitza. Ur bizi au añ miragarria da, non, bere aldetik egiten badu animak dagokana, ugaritzen eta egiten dan iturri. Demagun, arreta andiarekin gordetzen duala animak iturri onek dakarren ur guzia: aziaz joango da, eta igoko da Zerurano, an dauka alabaña bere asiera, eta jatorria; eta edozeñek daki, iturri bateko ura igo ditekela bere jatorriaren neurrian. Au guzia berak bezala, eta guziz ederki aditzera eman zigun Jesus onak, emakume Samariarrekin izan zuan, izketan. Zijoan beñ Jesus Galileara. Bideko nekearekin aunatua zijoan, eta eguardiko denboran geratu zan *Siquen* zeritzan erriaren sarreran putzu baten aldean. Apostoluak errira joanak ziran bazkalzeko bear zituen, gauzen billa, eta bitarte onetan etorri zan emakume bat putzutik ura eramatera. Esan zion Jesusek: *indazu ura*. Emakumeak ezagutu zuan, janziak, eta itzegiteak zirudianez, Judutarra zala Jesus, eta Judatarrak zeduzkeen erejtzat Samariarrak. Orregatik eranzun zion emakumeak Jesusi: *Nola zuk, izanik Judatarra, ura eskatzen didazu niri?* Esan zion orduan: Baziñaki, zer doai bidaldu dion Jaunak munduari! *Si scires donum Dei!* Baziñaki, nor dan zuri ura eskatu dizuna! zerorrek eskatuko zenion, eta emango zizun ura, baña nolakoa? emango zizun ur bizia: *Aquam vivam*. Ur au iturri biurtuko da, eta alako eran igoko da, non saltatuko dan Zerurano, edo betiko bizitzaraño: *Fiet in eo fons aquae salientis in vilain aeternam*. Etzuan aditzen emakumeak, zer ur zan Jesusek zion ura, eta esan zion: Jauna, indazu ur orretatik, ez nabillen beti atzera, ta aurrera ur billa. Orduan esan zion Jesusek: zoaz, deitu zaiozu zure gizonari, eta atoz gero. Eranzun zion emakumeak: *ez det gizonik*. Ongi esan dezu, esan zion Jesusek; ongi esan dezu, ez dezula gizonik bost gizon izan dituzu, eta orañ dezuna ez da zurea. Ezagutu zuan emakumeak, Profetaren bat zala Jesus, bada argiro esan zion gertatzen zitzaiona: eta atzenean, Jesusek berak ala esanik, sinistu ere zuan, zala Mesias, edo munduaren Salbatzallea. Orra, nere Kristaua, nola, graziaren doaiari guri aditzera emateko, deitzen dion Jesusek ur bizia. Ur au, ongi gordetzen bada, biurtzen da iturri, eta igotzen da Zerurano: *Fons aquae salientis in vitam aeternam*. Atozea orain, nere Kristaua: ez da alde onetatik guziz miragarria graziaren doai? Baña gutxi dira Espiritu Santuaren iturri eder au gordetzen duenak, eta geienak bizi dira bekatuaren ur ustelak edaten dituela. Baña goazen aurrera, eta ekusi dezagun, nola graziaren doai dan, *virtute gucien cepa, edo sustraya, bere alsum ederrac Cerurano* botatzen dituana:



§ II.

Anima bat, bataio, edo konfesioko Sakramentuarekin Jaunaren grazian jarri dedin artean; da arbola makatza bezala. Arbola makatza, eta onek botatzen dituan alsumak ez dira egokiak fruta gozoak emateko, eta au bera gertatzen da graziaren doaia gabe arkitzen dan animarekin. Orregatik Espiritu Santuak bataio, eta Konfesioko Sakramentuarekin ipintzen du animan zepa, eta sustrai miragarri bat, Zeruko birtute, eta doaien mentuak berekin, dituana, nola diran fedea, esperanza, karidatea, eta beste asko. Mentu oek, ongi maneatzan, eta gordetzen baditu animak, asiko dira beren alsuma ederrak botatzen: beteko dira obra onen lorez, eta frutaz, eta altxako dira Zerurano. Demagun zure etxeko basoan arkitzen dezula zepa, edo sustrai bat alsumaz betea. Begiratzen diezu ongi, eta ekusten dezu bakoitza dagoala ninikaz, edo motez betea. Andik geroseago bazoaz, eta ekusten dezu, alsuma aek, batzuek daudela lore guziz ederez beteak, besteak fruta gozoakin. Ekusten dezu atzenean arbola ura azitzen dala odeietarano, ta uda ta negu beti dagoala lorez, eta frutaz betea. Esan zadazu, Kristaua, zeñ eder-zoragarria ez lizake izango arbola au, eta onen zepa? Ederragoa da bada Espiritu Santuak zure animan aldatu, edo ipiñi zuan graziaren zepa, edo sustraia, eta sustrai onetatik datorren arbola, dakartzian alsumai lagunzten bazate. Zeñ atsegin andia gauz oen berriak jakitea, Jaunaren beldur Santuan bizi diran animentzat! Oek graziaren zepa miragarria ez galtzeagatik gau ta egun ernai daude: goizean, esnatzen diranetik, adoratzan due Jauna, ematen diozkee, beragandik artu dituen, mesedeen eskerrak: eskeintzen diozkee bere onra, ta gloriarako eren itz, pensamentu, ta lan guziak. Sarritan egiten ditue fede, esperanza, karidadezko afektoak: aldegiten due, animak zikintzea besterik ez dakarten, munduko erausi, eta atsegiñetatik: leialki ari dira beren bizi-moduak eskatzen dituan lanak egiten; eta gurutze, ta naigaberen bat datorkienean, altxatzen due biotza Jaunagana, eta esaten dioe: *Egin bedi, Jauna, zuk nai dezuna; izan bedi nege au zure onran*. Gisa onetan graziaren sustraietik datozen alsumak betetzen dira lorez, eta obra onen fruta gozoz, eta igoaz dijoa arbola Zerurano. Alai zaitetzte, anima onak: zoazte aurre-ra, autu dezuen bizitz onean, mundu ustel-galdu onen losentxetatik ige-segiten dezuela. Azkenean graziaren doaia da obrarik txikienari ere Zeruko erreñu, ta betiko bizitzaren balioa ematen diena. Au da oraiñ ukituko dedana.

§ III.

Kristauak, bekatuan dagoan bitartean egiten dituan, obrak, berenez onak, ta laudagarriak izan arren, illak, ta Zerurako ezer balio ez duenak dira. Illak, zeren graziaren bizitzaren zepa, edo sustraia galdu zan. Demagun sagar bat loretan dagoan denboran, egoaren kolpe andi batek ateratzen duala sustraietik; lore aek, ederrak izan arren, ez due frutarik ekarriko, zeren sustraia galdu dan. Gañera bekatuarekin anima illa dagoan bitartean egindako obra onak ez due Zerurako baliorik, zeren Jaunaren adiskidearenak ez diran eta Zeruren balioa ematen duan doairik ez duen. Zabaldu bitza batek bere ondasunak, beartsuai lagunzten. Atera bitza gogora ditezkean baraurik gogorrenak: irabazi bitza Zerurako Apostoluak baño anima geiago: piztu bitza illak, alda bitza batetik bestera mendiak. Obra oek guziak ez dira izango Zerurako irabaziak, zeren graziaren zepatik ez datozen. Ala esaten digu S. Paulok: *Si habuero omnem fidem. ita ut montes transferant, Charitatem autem non habuero, nihil sum*. Baña Jaunaren grazian arkitzen bada anima bat, onen obra on txikienak ere, ongi egiña bada, balio du Zeruko erreñua, zeren graziaren doaiak ala balio duan. Gauza txikia da bearsu bati ogi zerra, edo ur piska bat ematea, eta alaere balio du Zerurako erreñua. Ala adiratzten digu S. Paulok. *Quod in praesenti est momentaneum, et lete... aeternum gloriae pondus. operatur*.

Bukatu dizut, nere Kristaua, graziaren gañean asi nituan Erakusaldiak, eta aldedan ongiena aditzera eman dizut, zeñ miragarria dan doai au. Doai onek egiten du gizona Jainkoaren Seme, eta adiskide: Jesu-Kristoren senide, Zeruren jabegai, eta Espiritu Santuaren bizileku, edo Eliza. Doai onek piztutzen ditu, bekatuan illak, eta ustelduak zeuden animak: aienatzen ditu, animan sartzen dan uean bertan, bekatu larri guziak, diranak dirala, eta ematen dio animari edertasun bat, bear bezala, ezin gizonaren mingañoak aditzera eman lezakeana. Doai au da Espiritu Santuak animan ixurtzen duan ur bizia, eta ongi gordetzen bada, igotzen da Zerurano: da birtute, eta Zeruko doaien zepa, edo sustraia: eta botatzen dituan alsumak, lore, eta frutuak altxatzen dira Zeruetarano: Zer geiago? Grazian dagoanaren obra on txikienari ere ematen dio, Zeruko erreñuak duan adiña balio. Orregatik egiarekin esan zuan San Leonek: garaitzen dituala doai onek gañerako doai guziak: *omnia dona excedit hoc donum*. Billa dezagun, kristaua, doai au, kostadedilla edozeñ gauza. Ez dezagun galdu ezerगतik ere; eta berekin ekarriko du beti-beti iraungo, duan Koruko gloria. Amen.



SEIGARREN ERAKUSALDIA

baña bataioko Sakramentuaren gañean lenengoa.

ALABATUA &

Itzegin dizut, Kristaua, bost Erakusalditan Sakramentu guzien gañean. Aditu dezu, Sakramentuak dirala, Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, siñale agiri diran batzuek, oen bidez grazia, ta birtuteak guri emateko. Aditu dezu gañera, zeñ miragarria dan graziaren doaia. Asi gaitzen oraiñ Sakramentu bakoitzaren gañean itzegiten: oen artean lenengo lekua eman bear diogu Bataioari, au da alabaña beste guzietarako atea. Aurrena begiratu bear degu, zer, eta zenbat gisatara dan bataioa. Urrena, zeñ gauza bearra dan Zerurako. Atzenean, nolako ontasun, eta amorioa agertu digun Jaunak bataiora deitzean. Enzun arretarekin, Kristaua.

§ I.

Fedeko gauza da, Adanen ondorengoak sortzen, eta jaiotzen dirala bekatuan, eta bekatu oni deitzen zaio *etorkia*, eta *jatorrizkoa*, eta erdaraz *orijinala*. Etorkia, zeren gerok egingabe bestegandik, edo lenbiziko gurasoetatik datorkigun. Deitzen zaio *jatorrizkoa* edo *orijinala*, zeren jatorriz, edo kastaz datorkigun. Bekatu au kentzeko bada, edo barkatzeko, ipiñi zuan Jesu-Kristok Bataioa esaten diogun Sakramentua. Zoazte, esan zien Apostolui, zoazte mundu guzira, aditzera eman giezue jende guziaz nere Legea, bataiatzen dituzuela Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Esan det, bekatu jatorrizko, edo orijinala barkatzeko ipiñi zuala Jesu-Kristok bataioa deritzan Sakramentua; baña bataiatzen danak balitu berak egindako bekatuak, oek ere barkatuko liozke, prestaera onarekin artzen badu Sakramentu au.

Bataioa da len bataiatua ez dagoan gizon, edo emakumea urez garbitzea bear dan eran, denbora berean esaten dirala Sakramentu oni dagozkan itzak. Sakramentu oni deitzen zaio *sortze* ta *jaiotza berria*, zeren Adanen bekatuarekin illa zegoan anima piztutzen duan, ematen diola graziaren bizitza. Deitzen zaio gañera *fedearen Sakramentua*, zeren Sakramentu au artu nai duanak, aitortu bear dituan fedeko Misterio nagusiak.

Orregatik Elizaren sarreran esaten du *Kredoa*, eta bataioa artzeko pontean prestatuak jartzen danean, berriro aitortzen ditu Misterio andienak. Misterio oen aitormena bakoitzak berak egiten du gaitzaren, eta onaren ezagueran sartua bada, bestela egiten due Aita, ta Ama ponteak, edo orduan an arkitzen danen batek. Atzenean deitzen zaio bataioari *Elizarako atea*, zeren Sakramentu onen bidez sartzen da Kristau fededunen artean: egiten da Elizaren ume, eta beste Sakramentuak artzeko gai.

Iru gisatara da Bataioa. Bata urezkoa, bestea garrezkoa, eta hirugarrena odolezkoa. Urezkoa da, len esan dan eran, bataiatua ez dagoan gizon, edo emakumea urez garbitzea bear bezala, denbora berean esaten dirala Sakramentu oni dagozkan itzak. Au bakarrik da Jesu-Kristok utzi zigun bataioko Sakramentua: beste biak dira onen ordekoak estatusun batzuetarako, gero esango dan bezala. Bataio-ordeko oetatik bata da *garrezkoa*, ta au da *fedea*, *esperanza*, *karidade*, ta *onezko damua*, bataioa artzeko gogo, ta borondatearekin, deitzen zaio *garrezko bataioa* zeren Jaungoikoaganako ongina ta amorioa Espiritu Santuaren garra bezala dan. Bigarren *bataio-ordekoa* da *odolezkoa*, edo Martirioa. Ez da egiaz Sakramentu, baña batzuetan Sakramentua adiña, edo Sakramentuaren lekuan balio du, gero ekusiko degun bezala. Dakuskun oraiñ, zeñ gauza bearra dan urezko bataioa Zerurako.

§ II.

Fedeko gauza da, berez gauza bearra dala Zerurako urezko bataioa. Ezpada bat berriro, jaiotzen uretik, eta Espiritu Santuagandik, ezin sarditeke Zeruetako erreñuan, esaten digu Jesu-Kristok: *Nisi quis renatus fuerit ex aqua, et Spiritu Sancto, non potest introire in Regnum Caelorum*. Lege naturalaren denboran, au da, Adan bekatuan erori zanetik Jaunak Moisesi letraz ezarritako legea eman zion artean, barkatzen zitzaten aurrai bekatu jatorrizko, edo orijinala gurasoen fedearekin, eta Abrahamen ondorengo semeai Zirkunzisioko marka, edo epaiarekin: eta bear zana egin gabe iltzen bazan aurra, etzan Zerura joango. Etorri zan Jesu-Kristo, aitu zan Moisesen legea, eta guzientzat ipiñi zuan bataioko Sakramentua, eta berez bearra da au, bekatu jatorrizko, edo orijinalaren barkazioa, eta Zerua iristeko.

Esan det, *berez* gauza bearra dala Zerurako urezko Sakramentua; zeren gerta diteke beñ baño geiagotan alako estatusuna, non urezko bataioa artzeko edo emateko leku, eta erarik ez dan, eta galdetu oi da, ote



dan bideren bat urezko bataio gabe Zeruratzeko. Demagun, urlia ez dagoala ongi bataiatua, zeren emagiñ ezjakin batek bataiatu zuan uste du ongi bataiatua dala, eta bizi da alde onetatik kezkarik gabe. Nola joango da au Zerura? Ezagueran sartua bada, Zerura diteke, egiten dituala fede, esperantza, ta karidadezko afektoak, oek alabaña orduan izango dira garrezko, edo amoriozko bataio-ordekoa; baña gaitzaren, eta onaren ezagueran sartua ezpada, ezta gai karidadezko afektoak egiteko, eta bitarte orretan iltzen bada, galdua da. Orra; zergatik emagintzan ibilli bear ez duen, bataiatzen ongi ez dakienak. Valentiniano Enperadoreak egin zuan bataioa artzeko asmoa: ari zan onetakako prestaera ekiten, baña Sakramentua artzeko zegoan egunetan ill zuen eta joan zan mundu onetatik bataiogabe. Alaere S. Anbrosiok dio. Enperadore ark artu zuala, Sakramentuak ematen duan grazia, zeren eskatu zuan, eta artzeko prestatu zan.

Demagun, Sandia ere bataioa artugabe arkitzen dala, zeren erarik izan ez duan; bizitudan lekuan, edo zeren bataiatua zegoala uste zuan. Ez ote da onelakoarentzat moduren bat urezko bataioa gabe Zeruratzeko? Gaitzaren, eta onaren ezagueran sartua bada, Zerura diteke fede; esperanza, karidade, ta onezko damuarekin, oraiñ Valentiniano Enperadoreaz esan dan eran; bai ta gañera martirioarekin ere; au da bizitza Jesu-Kristogatik ematea; baña bear ditu iru doai, edo kondizio. Lenengoa da bestek bizitza kentzea orregatik beren buruak iltzen dituenak, ez dira Jesu-Kristoren martiriak, baizik Deabruarenak. Oetatik asko izan oi dira Nortealdean: bukatzen ditue oek eren buruak, suerte onik munduan ez dakustenean. Martirioaren bigarren doai, edo kondizioa da bestek emana izatea, ez nolana, baizik Jesu-Kristoren Legearen gorrotoz. Ala izan zan Apostoluak igaro zuen martirioa, eta era berean beste askorena. Martirioaren irugarren doai, edo kondizioa da Martirioa artzea Jesu-Kristoren izenean, artarako bear dan prestaerarekin. Martirioak, doai oek ditueanean, bataioak bezala barkatzen du bekatu jatorrizko, edo orijinala, baita gañerako guziak ere. Barkatzen du gañera bekatuen zor guziaere. Orregatik ez du Elizak erregutzen martirien alde.

Au aditzen da, martirioa igarotzen duana gaitzaren, eta onaren ezagueran sartua danean. Baña ezpada ezagueran sartua, eta ezpadu artu urezko bataioa, oniere barkatuko dio martirioak bekatu jatorrizko, edo orijinala, eta zuzen Zerura joango da. Au ezagutu dezakegu Inozenteen egunean Elizak egiten duan festari ongi begiratzen badiogu. Herodes Jesusen jaiotzako berriakin beldurtu zan, galdu zezan bere erreñua, eta artu zuan Jesusi bizia kentzeko asmoa, eta illerazo zituan Belenen, eta

inguruan arkitzen ziran bi urtez beronzko aur guziak. Aur aen artean batzuek egongo ziran Zirkunzisioko marka artugabe, etzan alabaña Zirkunzisorik ematen, aurrak zortzi egun izan zitzan artean. Orregatik aur jaioberri oek arkitzen ziran, martirioa eman zitzatzen artean, bekatu jatorrizko, edo orijinal arekin. Alaere Elizak guziaz egiten die festa, eta aditzera ematen digu; Jesu-Kristogatik igaro zuen martirioak kendu ziela bekatu jatorrizkoaren mantxa. Au bera esaten digue gizon jakintsuak, baldin aurdun dagoan amari Jesu-Kristoren gorrotoz bizitza kenduko balioe aurrarekin batean. Baña era onetan amaren sabelean dagoanak Jesu-Kristogatik bizitza ematea gutxitan gerta diteke. Gauz oek guziak aditzera ematen digue, zeñ arreta andia bear dan aurrai bataioa ongi emateko. Ekusi dezagun oraiñ, nolako ontasun, eta amorioa agertu digun Jaunak, bataioko Sakramentura deitzean.

§ III.

Gu, nere Kristaua, autu gaitu Jaunak, eta deitu digu bataioko Sakramentura: Sakramentu onekin barkatu digu bekatu jatorrizko, edo orijinala; apaindu gaitu graziaren janziera ederrarekin, egin gaitu Zeruaren jabegai, edo herederu. *Nondik niri onenbeste ondasun, eta mesede? Unde hoc mihi?* Ondasun oek ote ditugu gure guraso, eta aurrekoetatik? Ez egiaz; oetatik datorkiguna da alabaña bekatuan sortuak izatea. Orra, zion Dabidek, bekatuan sortua naiz, eta gaitakerietan egin ninduan nere amak: *Ecce enim in iniquitatibus conceptus sum, et in peccatis concepit me mater mea.*

Gu bizi gera Jesu-Kristoren fede, eta Elizan, eta gu nor bagera, bizi gaitzke Jaungoikoaren Semeai dagoten eran. Onetarako prest arkitzen dira Elizaren Sakramentuak, eta oen emalleak, eta aditzera ematen zaizkigu Zerurako jakin, eta egin bear ditugun gauzak. Beste ezin konta al bizi dira bataiorik, eta federik gabe. Nondik niri ondasun, eta mesede au guzia? *Unde hoc mihi?* Ez datorkigu au gizonetatik: *Non ex hominibus*, dio S. Juanek.

Gu jaiο giñan, eta artu genduan bataioko Sakramentua, eta geratu giñan betiko bizitza iristeko era ederrean; eta beste asko ill dira bataiorik gabe. Nondik niri onenbeste ontarte, eta mesede? *Unde hoc mihi?* Mesede au ote datorkigu, zeren bataioa dan errian sortuak izan giñan? Ez, asko dira alabaña, onelako errietan ere, bataiogabe iltzen diranak. Ote datorki-



gu gure obra onetatik? Are gitxiago; bataiatu ginduenean alabaña ezgiñan gai, edo gauza obra onik egiteko, zeren alde batetik ezaguerarik ez genduan, eta bestetik bekatuan arkitzen giñan. Nondik bada guri onenbeste ontarte, eta mesede? *Unde hoc?* Nondik, ezpada Jaunaren Ontasun, eta amorioagandik?

Bedeikatua izan bedi betikotasun guzian, onenbeste ontasun, eta amorio agertu digun, Jauna. Zer egin aldezakegu amorio oni eranzuteko? *Quid retribuam Domino?* Guk egin dezakeguna da, bere bataio, ta federa deitzean agertu digun ontasun, eta amorio enegatik eskerrak ematea. Guk egin dezakeguna da oraiñdañoko eskergabekerien barkazioa eskatzea, eta aurrera Kristauari dagokan eran bizitzea. Onela iritsi dezakegu Jaunaren barkazioa, eta betiko bizitza doatsua: Amen.

ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

baña bataioko Sakramentuaren gañean bigarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko Erakusaldian asi nintzan bataioko Sakramentuaren gañean itzegiten. Aditu zenduan, Kristaua, zer, eta zenbat gisatara dan bataioa. Aditu zenduan gañera, zeñ gauza bearra dan Zerurako. Atzenean, nolako ontasuna agertu digun Jaunak, Sakramentu onetara deitzean. Gaur ekusi bear degu, lenengo lekuan: zer dan Sakramentu au egiteko gaia. Urrena, zer itz esan bear diran, gai au ipintzen dan denboran. Atzenean, nor diran Sakramentu au emateko eskua duenak. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Bataioto Sakramentua egiteko gaia da ura: eta urarekin garbitzen da Sakramentu onen artzallea. Ala aditzera ematen digu Jesu-Kristok, eta erakusten Elizak, eta besterik esatea dago exkomiku nagusiarekin debekatua: *Anatehema sit*. Noruegako toki batzuetan asi ziran bataiatzen garrarra, eta belarren loreakin egindako ardoarekin, edo zerbezarekin; baña Aita Santu Gregorio bederatzigarrenak gaztigatu zien, ezin bataiatu zitekeala urarekin baizik. Izan dedilla ura, naiz otza, naiz epela, inaz itsasokoa, naiz iturri, edo putzukoa, balioko du bataioak, baldiñ gañerako gauzak ongi egiten badira. Urarekin nastutzen diranean belar, lore, eta beste gauzak, ez da beti erraz erabakitzea, onelako urarekin balioko duan, edo ez bataioak.

Eriotzako perillik ez danean, bataioa eman bear da Elizak ipiñirik dauzkan zeremoniak, eta onetarako larunbat Santuz, eta Pazkoa maia-tzeko bezperan bedeinkatzen da ura, eta ur onekin ematen da bataioa; baña illtzeko perillean jartzen bada aurrera, eta ezin gorde baditezke Elizaren zeremoniak, orduan ematen da bataioa edozeñ urekin, zeren eskura ez oi dan egon Elizak bedeikaturik daukana.

Iru gisatara urez busti, eta garbitu izan dira Sakramentu onen artzalleak. Toki batzuetan osotoro sartzen zituen urean iru bider, eta bitarte onetan esaten ziran Sakramentuak egiteko itzak. Era onetan ederki adi-



tzera ematen zan, bataiatua geratzen dala Jesu-Kristorekin illa, eta illa ezezik obiratua munduko gauzetarako, eta bekaturako. Iru bider urean sartze au egiten zan, adirazteko, Jainko bat bakarra bada ere, dala iru Persona, Aita, Semea, eta Espiritu Santua. Egia da, balioko zuala bataioak, Sakramentu onen artzallea beñ bakarrik urean sartu balue ere. Ala egiten zan Españako Elizetan, onela adirazteko, Trinitadeko iru Personak dirala Jaungoiko bat bakarra. S. Leandro Sevillako Arzobispoak gaztigatu zion S. Gregoriori, zer, eta zergatik egiten zan Españan, eta ontzat eman zuan emengo usanza. *Concilium Toletanum IV. anno 633 celebratum c. 6.* Beste toki batzuetan, urez izatzen omen zuen bataiatzen zana, ez nolana, baizik bustitzen. eta garbitzen zan eran. Atzenean tokirik geienetan, ura iru bider ixurtzen da aurraren buru gañera, eta denbora onetan esaten dira bataioaren itzak. Ura burugañera ixurtzen dan bakoitzean egiten da gurutzeta, adirazteko, Sakramentuak ere era berean emanten dira gurutzearen siñalearekin. Ez da erraz erabakitzea, ur txirrist, edo tanta bat asko dan, edo ez, bataioa egiteko; baña gauza jakiña da, bear dala ainbeste ur, non, aurra garbitzen dala esan ditekean.

§ II.

Bataioko Sakramentua egiteko ez da asko ura ixurtzea artzallearen burugañera, baizik gauza bearra da ura ixurtzen dan bitartean esatea Sakramentuari dagozkan itzak. Ez degu zer nekatu asmatzen, zer itz esaten zituen Apostoluak, Sakramentu au egiteko. Era berean alferrikako arazoa izango litzake, jakin nai izatea, Greziako Elizetan esaten dituela bataiatzeko, guk esaten ez ditugun zenbait itz. Asko da guretzat jakitea zer itz Erromako Elizak artu, eta *Rituala* deritzan liburuan ipintzen dituan. Enzun, zer itz diran oek: *Nik bataiatzen zaitut zu Aitareen eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.* Gertatzen da askotan ez jakitea, aurren bat ongi bataiatua dagoan, edo ez: orduan, gauzaren berri jakiteko alegiña egiñik, berriro bataiatzen da, itzak esaten dirala gisa onetan: *Bataiatua epazaude, nik bataiatzen zaitut zu Aitareen eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.* Gai onetan izan oi dira leku batzuetan utsegite negargariak, zeren emagiñ jakiñezak, eta nola bataioa eman ez dakienak izan oi diran. Gerta diteke gañera ez jakitea, aurra bizidan edo ez, eta orduan itzak esaten dira era onetan: *Bataioa artzeko gai bazera, Nik bataiatzen zaitut*

zu Aitareen eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Dakuskun oraiñ, nor diran Sakramentu au emateko eskua duenak.

§ III.

Elizaren lenengo denboretan larunbat Santuz, eta Pazkoa Maiatzeko bezperan bakarrik eman oi zan Bataioa, bitartean premia esturik ezpazan. Orduan Obispo Jaunak berak ematen zuen Eliza nagusi, edo Katedralean, eta bataiatzen ziran aurrai ere eman oi ziezan Konfirmazio, ta Komunioko Sakramentua, geienetan behintzat. Oraiñere Italiako leku batzuetan erri askotatik aurra daramazkie Katedralera.

Obispo Jaunen agintez askotan ematen zuen Apaizak bataioa, baita Diakonoak ere premia zanean. Ala S. Felipe Diakonoak Apostoluen baimenarekin bataiatu zituan zenbait. Ugaritu ziran Kristauak: ipiñi ziran errietan animen zaiak bataiatzeko eskuarekin, eta erri gutxi dira beren ponteak ez duenak. Orregatik oraiñ bataioko Sakramentua eman dezakee Elizaren zeremonia guziakin lenengo lekuan Obispo Jaunak, urrena erri bakoitzeko animen kargudunak, ponterik badue: guero oen baimenarekin beste Apaizak, eta atzenean Diakonoak, premia bada.

Askotan getatzen da bataioa artu bear duana eriotzaren perillean arkitzea, eta Elizaren zeremoniak gordetzeko lekurik ez izatea. Orduan Sakramentu au eman dezake edozeñ gizon, eta emankumek, nola eman badaki. Ala erakusten digu Florenziako Konzilioak. Anziñako denboran auzi andiak izan ziran gizon jakinsuen artean erejeak emandako bataioaren gañean. S. Zipriane, eta beste askok uste zuen, etzuala balio onelako bataioak; bestek zioen balio zuala, baldin erejeak ura botatzen bazion aurrari, edo bataioa artzeko zegoanari Eliz Ama Santak egiten duana egiteko asmoarekin. Auzi au bukatu zan, zeren Aita Santu S. Estebanek, eta Elizako Konzilioak erabaki zuen, balio duala erejeak emandako bataioak, Sakramentu oni dagozkan, gauzak ongi egiten baditue. Izan zan gañera beste auzi bat, Judu, eta jentillak bataiatzeko duen eskuaren gañean. Tertuliano, S. Jeronimo, eta S. Agustin etziran atrebitzen esatera, balio zuala oen bataioak; baña Aita Santu Nikolas lenbizikoak, eta gero Florenziako Konzilioak erabaki zuen, nork erenai estutasunean eman dezakeala Sakramentu au, naiz gizonak, naiz emakumeak, naiz Katolikoak, naiz erejeak, naiz Juduak, naiz jentillak, baldin bear bezala ura ematen, eta itzak esaten badira, Elizak egiten duana egiteko asmoarekin.



Estutasunen batean eman bear bada bataioa, eta bataiatzen dakien asko an arkitzen badira, bakoitzari gorde bear zaio bere malla. Lenengo lekuan erriko artzaiari dagoka bataioa ematea; urrena dira beste Apaizak, gero Diakono, edo Abanjelioaz ordenduak. Oen ondoren beste ordene-takoak, eta gero gañerako gizon, eta emakumeak. Lenago da gizona emakumea baño: eta erejea baño lenago Katolikoa. Au onela izan arren berez, gerta liteke gizonak ez jakitea nola eman bear dan bataioa, eta emakumeak bai, orduan lenago da emakumea. Gerta diteke gañera, obeto izatea emakumeak bataiatzea, onestidadeagatik, eta orduan emakumea lenago da gizona baño. Emendik atera ezazu, Kristaua, eriotzako perillean arkitzen bada aur bataiatu gabea, guziak daudela beartuak ari bataioa ematerat, bataiatzen dakienak beintzat. Baña zer gertatzen da? Gutxi dira dakienak, nola ongi bataioa egin ditekean, eta erraz Zerura bidaldu litezkean aurrak, geratzen dira Zerutik deserrituak betiko. Eta ezda gauza guziz negargarria, Katolikoan artean au gertazea? Baña asko da gaurko.

Aditu dezu, Kristaua, bataioko Sakramentua egiteko gaia dala ura. Urarekin bustitzen, eta garbitzen da Sakramentu onen artzallea burutik beera, eta onetan aditzera ematen da, Espiritu Santuak orduan animan egiten duana, edo garbitzen duala anima bekatuaren loietatik. Aditu dezu gañera, ura ixurtzeko denboran esan bear dirala, Sakramentuari dagozkan; itzak, eta dira oek: *Nik bataiatzen zaitut zu Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.* Aditu dezu atzenean, noranai duala Sakramentu au estutasunean emateko eskua. Nor eztakus onetan Jaunaren guganako ongina, eta amorio andia? bada bataiogabez Zerutik erbestetuak gera ez gindezen, norinai, naiz gizonari, naiz emakumeari, naiz Katolikoari, naiz ereje, judu, eta jentillari eman zion bataiatzeko eskua. Eta ez degu Jaun au amatuko? Eta eskola duenak bederik ez ote dira saiatuko, nola bataioa egi-ten dan ikastera? Saia zaitezte, bai, bada onetan dago bearbada zenbait aur edo Zerura joatea, edo andik deserrituak betiko geratzea. Egin dezagun alegiña gure lagun urkoari laguntzeko, eta Jaunaren lege ederra gordetze-ko, Onela iritsiko degu betiko bizitza doatsua. Amen.

ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

baita bataioko Sakramentuaren; gañean irugarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko Erakusaldian aditu zenduan, Kristaua, zer dan bataioko Sakramentua egiteko gaia. Aditu zenduan gañera, zer itz esan bear diran, gai au ipintzen dan denboran. Atzenean, nor diran Sakramentu au emateko eskua duenak. Gaur ekusi bear degu, benik beñ nori eman bear zaion. Urrena, noiz, non, ta zenbat bider eman bear dan. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Ezpada bat jaiotzen berriro uretik, eta Espiritu Santuagandik, eziñ sartu diteke Zeruetako Errenuan, esaten digu Jesu-Kristok. Emendik argiro ateratzen degu, Sakramentu au eman bear zaiola edozeñ gizon, eta emakumeri, naiz izan guraso, fededunen, naiz fedegabeen umea, bizi, eta jaio bada.

Eman bear zaio bai edozeñ gizon, edo emakumeri, biak datoz alabaña Adanegandik bekatu jatorrizko edo orijinalaren mantxarekin, eta biak due bataioaren premia mantxa au uzteko, eta Zeruko Erreñuaren gai izateko. Demagun jaiotzen dala, ez gizona, ez emakumea, baizik bidutziren bat, erdaraz Monstruo esaten dioena. Etzaio oni bataiorik eman bear; zeren bataioa gizon, eta emakumearentzak bakarrik dan. Bidutzien gañean ipui asko barreatu izan dira munduan. Batzuek sinistu izan due, au, edo ura jaio zala auntzagandik, bestea beiagandik, bestea artzagandik; baña oek dira ipui utsak gizon jakintsuen iritzian. Gerta diteke, ama batek aur itsusiren bat egitea; orduan eman bear zaio bataioa, aurrik ederrenari bezala. Gerta diteke gañera, bidutzia egiaz gizona, edo emakumea izatea, eta ezin igerritzea aur bat bakarra, edo bi diran. Orduan Ritualak erakusten du, zer egin bear dan.

Eman bear zaio gañera bataioa edozeñ gizont edo emakumeri, naiz izan guraso fededunen, naiz fedegabeen umea. Ereje batzuek, oen artean Zuingliok, eta Kalbinok, esan zuen, etzuela bataioaren premiarik Kristauen umeak; baña fedeko gauza da, ala fededunen, nola fedegabeen



umeak sortzen dirala bekatu jatorrizkoarekin, eta eman bear zatela bataio-ko Sakramentua, bekatu onen barkazioa iristeko, eta exkomiku nagusiaren azpian debekatua dago besterik esatea: *Anathema sit*. Noiz, eta nola bataiatu ditezkean Juduen, eta beste fedegabeen umeak, ez degu guk zer jakin: jakingo due ori alakoan errietan arkitzen diran bataiatzalleak.

Esan det, edozeñ gizon, eta emakumeri eman bear zaiola bataioa, bizi bada: zeren illa bada ez du animarik, eta ez da bataioa artzeko gai. Izan ziran anziña aur illak ere bataiatzen zituena: izan ziran beste batzuek aur illen orde zizkaien bataioa ematen ziezana; baña kendu zituan Elizak usanza oker oek. Gertatzen da askotan ama batek aurrak galtzea, bearbada lau, edo geiago illabete dituana: bizitzaren sinalerik igerritzen bazaio, bataiatu bear da. Ala erakusten digu Rituala deritzan Elizako liburuak. Ezin igerri bada, illa, edo bizi dan, bataiatu diteke gizon jakintsu askoren iritzian, esaten dirala itzak era onetan: *Bataioa artzeko gai bazera; nik bataiatzen zaitut zu Aitare, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*. Zenbat bider gertatzen da bizitzaren sinalerik batere ez igerritzea, adinean sartutako gizon, eta emakumeetan ere, bizirik egon arren? Orregatik obian sartzeko artzen da zerbait denbora, bizirik sartu ez ditezen, askotan gertatu dan bezala. Zergatik bada gerta ez diteke, aurrak bizirik egon arren, bizitzaren sinalerik ez ematea? Eta au gerta baditeke, zergatik ukatuko zaio bataioa? Gertatzen da beste batzuetan, amak aurrak botatzea aurdun geratu zanetik laster. Ezin igerri da, aurrak anima artua dan, edo ez, eta artu bazuan ere, bizi dan, edo ez, zer egingo da orduan? Noiz anima artzen duan aurrak, eztaigu. Batzuek esan zuen, sortuta berrogeigarren egunean artzen duala aurrak anima, mutilla bada; eta larogeigarrenean, neskak bada. Besteak dioe, sortzen danetik zazpigarren egunean animarekin dagoala aurrak; batzuek dioe, sortzetik irugarrenean, besteak, sortzen dan egunean bertan, eta au da orain askoren iritzia, eta dioe, gertatzen danean amaren batek botatzea aurrak, bataiatu bear dala au, denbora gutxikoa izan arren, esaten dirala itzak gisa onetan: *Bataioa artzeko gai bazera, nik bataiatzen zaitut zu Aitare, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*.

Esan det gañera, edozeñ gizon, eta emakumeri eman bear zaiola bataioa, *jai bada*; Jesu-Kristok berak alabaña esan zuan: *ezpada bat berriro jaiotzen uretik, eta Espiritu Santuagandik, ezin sarditeke Jaungoikoren erreñuan*. Itz oek adirastan duela dirudi, bataioa eman bear zaiola, ez norinai, baizik len jai danari. Orregatik aurgite batzuetan arkitu oi dira zer egin eztaikie-la gizon jakintsuak ere. Gertatzen da zenbait aldiz, ama neke andian, eta aurrak ezin egin duala egotea. Noizbait ematen du aurrak burua, baña osotora jai baño len illko da, edo illko dala dirudi, ez ote zaio emango

bataioa, osotora jai ezpada ere? Bai, zeren jai dan burua, eta au dan gizonaren parte, edo puska nagusia. Ala erakusten digu Ritualak. Gertatzen da beste batzuetan, aurrak ez ematea burua, baizik eskua, oña, edo besoa, ta jai baño len illko da, edo beintzat perill adian dago. Zer egingo da orduan? Eman bear zaio bataioa jai dan parte artan, dala eskua, dala oña; baña itzak esan bear dira era onetan: *Bataioa artzeko gai bazera, nik bataiatzen zaitut zu Aitare, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*. Itzak onela esaten dira zeren ez dakigun eskuan, edo oñean ematen dan bataioak balio duan, edo ez. Demagun, gisa onetan bataioa eman ondoan, jaiotzen dala aurrak bizirik: orduan bataiatzen da berriro, esaten dirala itzak gisa onetan: *Bataiatua ezpada, nik bataiatzen zaitut zu Aitare, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*. Atzenean gertatzen da zenbait aldiz, ez ematea aurrak ez bururik, ez esku, eta oñik; eta arkitzea urak ukitu lezakean eran; nekakua dago ama, eta dirudiane z jai baño len illko da aurrak. Zer egingo da onela dagoan aurrarekin? Batzuek dioe, ezin bataiatu ditekeala, zeren jai ez dan. Besteak dioe bataiatu ditekeala, zeren munduaren begietara agerta ezpada ere, Jaunaren aurrean sortua, eta jai dagoan. Aingeruak jai dala deitu zion Jesu-Kristori Amaren sabelean zegotan denboran ere: *Quod enim in ea natum est, de Spiritu Sancto est*. Beste batzuek dioe, ezin jakin dezakegula, amaren sabelean dagoanari emandako bataioak balio duan, edo ez; eta orregatik eman bear zaiola ura, sabelean badago ere, esaten dirala itzak gisa onetan: *Bataioa artzeko gai bazera, nik bataiatzen zaitut zu Aitare, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*. Iritzi onetakoa da Benedikto amalagarrena: Baldin onela bataiatutako aurrak, jaiotzen bada gero bizirik, berriro bataiatuko da, esaten dirala itzak gisa onetan: *Bataiatua ezpada, nik bataiatzen zaitut zu Aitare, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*. Dakuskun orain, noiz, non, eta zenbat bider eman bear dan Sakramentu au.

§ II.

Elizaren lenengo denboretan askok etzuen bataioa artzen, urteetan aurreratu zitezkeen artean, eta baziran zenbait eriotzako orduraño uzten zuenak. Gertatzen zan au, batzuetan, zeren Sakramentu onek dakartzian eginbideak andiak diran, eta betaro begiratu nai ziezana zenbaitek; bestetan gurasoen zabarkeriaz; eta atzenean geienak, zeren bizitza lasaia, eta emengo atsegin lizunak uzteko biotzik etzuen, eta betiko utzi bear ziran



bataioa artzeko. Ala egon zan S. Agustin bataioa artu gabe ogeita amairu urteetaraño. Tertulianok etzeritzan ongi aurrak bataiatzeari, eta baziran ereje batzuek, eziñ bataiatu zitezkeala aurrak, esaten zuenak; baña Eliz Ama Santak, Espiritu Santua giari duanak bezala, bere asieratik eman izan die aurrak ere Sakramentu au, eta fedeko gauza da, balio duala bataio onek. Nai du, aurrak lenbaitlen bataiorako ekartzea, eta emengo legeak agintzen du, ekarri ditezela jaiotzatik amar egunen barrunbean.

Bataioa estutasunean eman ditekete, eta eman bear da edozeñ tokitan, baña estutasunik ez danean, eman bear da gurasoen Elizan, ponterik bada: eta beste Elizaren batera bidaldu nai bada aurrak, Sakramentu au artzera, ori egin bear da arzaiaren baimenarekin, ez bestela.

Zazpi Sakramentuen artean iru dira anima markatzen duenak, oek dira Bataioa, Konfirmazioa eta Ordena: bataioak ezartzen dio animari Jesu-Kristoren artaldeko marka: Konfirmazioak Jesu-Kristoren gudari, edo soldaduarena, eta Ordenak giariarena: iru Sakramentu oek beñ bakarririk eman ditezke, fedeak erakusten digun bezala. S. Epifaniok dionez, izan ziran ereje batzuek, aurrak iru bider bataiatzen zituenak, eta oraiñ ere badira, aur denboran bataiatutakoak berriro bataiatzen dituenak ogei, ta amairu urteetara iristen diranean: baña Elizak debekatu zituan gauz oek. Asko da gaurko.

Aditu dezu, Kristaua, nori eman bear zaion bataioako Sakramentua. Aditu dezu gañera, noiz, non, eta zenbat bider eman bear dan. Zer ote da, Erakusaldi onetatik guk atera bear degun ona? Zuk emakume aurdun zerana, atera bear dezun lenengo ona da, zere naiez ez jartzea aurrak galtzeko perillean. Batzuek galtzen ditue aurrak, neke andiegiak artuaz, besteak triskan, eta saltoka eren buruak aunatzen dituela; batzuek edari biziaz jarraituaz, besteak bearbada gaiztakeriaz, egindako bekatuak agertu ez ditezen. Onelako amen kontra deadar egiten due aur galduak Jaunaren begietan, zeren Zerutik betiko erbestetuak geratu diran. Bigarrena, gertatzen bazatzu aurrak galtzea, dei zaiozu lenbait len, nola bataioa ematen dan, ongi dakianen bati. Ez du ezer esan nai aurrak denbora gutxi, edo asko izateak alik ongiena zuk beraren zori onari begiratzeko. Jaunari nai dakiola, bakoitzak bere aldetik alegiña egitea onela aur gaixoak Zerura bidaltzeko, eta guziok iristea beti iraungo duan Zeruko gloria. Amen.

BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

baña bataioako Sakramentuen gañean laugarrena.

ALABATUA &

Azkeneko aldian aditu zenduan, Kristaua, nori eman bear zaion bataioako Sakramentua. Aditu zenduan gañera, noiz, non, eta zenbat bider eman bear dan. Ekusi bear degu gaur, benik beñ: zer ondasunak dakartzian artzallearen animarentzat. Urrena, nolako prestaera eskatzen duan, Enzun arretaz, Kristaua.

§ I.

Bataioako Sakramentuak dakartzian, ondasunak asko, eta andiak dira, eta batzuek len ukitu ditut, baña alaere aditzera guziak emango dizkitzut, nolerebait gera ditezzen zure gogoan.

Sakramentu onek bada lenengo lekuan piztutzen du bekatuan illa zegoan anima. Fedeko gauza da, Adanen ondorengoak, Birjiña txit Santa ez, beste guziak sortzen dirala aren bekatuarekin loituak, eta animaren alde-tik illak; baña bataioako Sakramentuak piztutzen ditu graziaren bizitzirekin.

Bataioako Sakramentuak bigarren lekuan aienatzen ditu animatik bekatu jatorrizko, edo orijinala, eta bataiatzen danagan arkitzen dan beste edozeñ. Aurrak bada, ez du bekatu jatorrizkoa baizik, eta au bakarrik barkatzen zaio; baña adinean aurreratua bada, izango ditu berak egindako bekatuak ere, eta barkatuko diozka guziak bataioak, artzen badu bear dan eran. Ogei, ta amairu urte zituan S. Agustiñek, bataiatu zanean: eta ordurako egin zituan bekatu andiak, eta asko; bizitu zan alabaña Manikeoen erejian, eta atsegin lizunetan itsutua; baña osotoro barkatu ziozkan Sakramentu onek, ala bekatu jatorrizko, edo orijinala, nola berak egiñak.

Bataioako Sakramentuak irugarren lekuan barkatzen du, bekatua ezezik, bekatuan pena guzia ere. Demagun fede, ta bataiogabe bizitu dala bat irurogei, ta amar urteetaraño, eta egin dituala bekatu guziz itsusiak mandamentu guzietan, eta ezin konta al. Bataiatzen da prestaera eder batekin, eta bereala iltzen da. Jakizu, Kristaua, bekatari au zuzen zuzen Zerura joango dala, zeren bataioak barkatuko diozkan, bekatuak ezezik, oen pena



guzia-ere, Florenziako, eta Trentoko Konzilioak erakusten digen bezala. Esan det, bekatuak ezezik, oen pena guzia ere barkatzen duala bataioak, baña zer pena da au? Zerura joatea eragozten duan pena guzia, ez ordea gañerako penak. Ala bataioa artuta ere, Kristaua zartuaz, eta desegñaz dijoa: igarotzen ditu gaitz, edo eritasunak, eta atzenezan iltzen da: eta neke oek bekatu jatorrizkoari darraizkanak dira. Oek geratu ezpalitzaizkigu, nork burutuko luke gurekin? Ill bearrak gerala, egun oro, ta ordu oro dakuskula ere, ez degu utzi nai bekatua, zer izango litzake eritasun, zar-tze, eta eriotzaren beldurrik ezpagendu? Neke, ta pena oez gañera bada beste bat bataioak kentzen ez diguna, eta gurekin iraungo duana azkene-raño: au da gaitzeron makurtuak, eta zaletuak egotea. Zertako utzi ote digu Jaunak pena, eta gurutze pisu au? Utzi digu benik beñ, guk ongi eza-gutzeko, zeñ samiañak diran bekatuaren ondorenak: utzi digu urrena, astu eztagikun, guraso desleial-eskergabe batzuen umeak gerala, eta nondik nai, umillak izateko biderik baizik ez degula. Utzi digu atzenezan gurutze astun au, gure griña txarren kontra peleatuaz, betiko bizitza irabazteko. Ala esaten digu Trentoko Konzilioak: *Ad agonem*. Asko balio duan gauza da betiko bizitza, eta Zeruko Erreñua, eta iristen da etsaiak garaituaz.

Bataioko Sakramentuak laugarren lekuan edertzen, eta apaintzen du anima graziaren doai, eta janziera miragarriarekin. Demagun, jaiotzen dala etxe batean aur bat añ itsusia, non etxeko guziak, eta beste ekusten duenak izaturik uzten dituan. Bataiatzen due, eta geratzen da eguzkia, eta izarrak baño ederrago. Zer esango zenduke orduan, Kristaua, bataioko Sakramentuaz? Zer dakarren edertasunaz? Arriturik, eta zer esan ez daki-zun eran geratuko ziñake noaski. Jakizu bada, aur itsusi argan gorputza-ren aldetik gertatuko litzakena baño geiago egiten duala bataioak aurraren animan. Bataioa artu baño len, aurraren anima añ itsusia dago, non izu-tuko giñakean, dagoan bezalakoa ekusiko bagendu; baña ozta botatzen dio bataiatzalleak ura, geratzen da guziz ederra, zeren ematen dion Espiritu Santuak graziaren doai, eta apaindura ederra. Ikatza bezala dira berjeretako loreak, urre, zilar, perlak, eta diamanteak onelako anima baten edertasunaren aldean. Kasano, Tartariako Erregea, ezkondu zan Armeniako Prinzesa batekin. Erregea zan fedegabea, baña Prinzesa Kristaua. Denboraz argitara eman zuan aur, edo obeto esateko bidutzi bat añ itsusia, non Erregek sinistu zuan etzala berarena, ta agindu zuan, ken zekiola Erregiñari bizia. Etzuan onek, Erregek uste zuan, utsegiterik egin, baña au zan gauza bat Jaungoikoak bakarrik agertu zezakeana, eta beste aldetik Erregek agindu zuana bereala egin bear zan. Estutasun onetan, negarrez eskatu zuan eraman zegioela aurra; eramaten dioe, eta ordurako

prest zedukan urarekin bataiatzen du. Gauza miragarria! Aur, edo bidutzi añ itsusia biurtu zan aur añ ederra, non ezin aspertu zan Errege begira-tzez, eta ekustez. Ezagutu zuan bere gaizki egiña: barkatu zion Erregiñari, ta agindu zuan Erreñu guzian aditzera eman zedilla Jesu-Kristoren legea. Ekusten dezu, Kristaua, zer egin zuan bataioak aur itsusi aren gorpu-tzean? Au bera egiten du egun oro animetan.

Bataioko Sakramentuak bostgarren lekuan dakarren ondasuna da artzallea egitea Jainkoaren Seme ta adiskide: Jesu-Kristoren Seiñide, Zeruaren jabegai, eta Espiritu Santuaren Jauregi, edo Eliza. Jainkoaren Seme. Ez da, eta ezin izan diteke gizona *Jainkoaren Seme bere izatez*; Semeak alabaña, norbaiten seme izateko, bear du Aitaren izatetik zerbait, eta gizo-nak ez du Jainkoaren izaterik; bestela izango litzake Jainko egiazkoa Jesu-Kristo bezala. Nola bada bataioak egiten du gizona *Jainkoaren Seme*? Zeren bataiatzen dana graziaren doai eta apaindura ederraren bidez bere Semetzat artzer duan Aita Zerukoak. Ekusi ezazue, dio S. Joanek nolako ongina, ta amorioa guganonz agertu duan Jaunak: *Videte qualem charitatem dedit nobis*: bada eman digu bere Semeen izena, eta izatea: *Ut filii Dei nomi-nemur, et simus. Jainkoaren adiskide* ala esaten digu Trentoko Konzilioak: eta Jesu-Kristok berak esan zien Apostolui: *emendik aurrera ez dizuet esango nere serbitzariak, baizik nere adiskideak. Jesu-Kristoren Senide*: aita baten umeak alabaña senideak dira: orregatik S. Paulok deitzen dio Jesu-Kristori anaia askoren artean nagusia; Jainkoa dan aldetik betikoa da alabaña: *Primogenitum in multis fratribus* (Ad Rom. c. 8). Egiten du gañera bataioak Kristaua Zeruaren jabegai: semea alabaña Aitaren ondasunen jabegai da, S. Paulok dion bezala. Egiten du atzenezan Espiritu Santuaren Jauregi, edo Eliza. Ala esaten digu S. Paulok berak: *An nescitis, quoniam membra vestra templa sunt Spiritus Sancti*?

Bataioko Sakramentuak seigarren lekuan dakarren ondasuna da anima ornitza, eta apaintzea fede, esperanza, eta karidadearen birtutea-kin. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Birtute oek ematen diozka Espiritu Santuak animari Jauna amatzeko, eta serbitzeko, nekazari bati bear dituan lanabesak ematen zaizkan bezala. Birtute oez gañera, Santo Tomasen iritzian Espiritu Santuak ixurtzen ditu animan beste birtute asko, nola diran *Prudenzia, justizia, fortaleza, tenplanza, eta penitenziaren birtu-tea*, bekatutik altxatzeko, Ematen ere diozka graziarekin batean Espiritu Santuaren doaiak, oekin egin ditzan, Zerurako bidean egin bear diran gauzak gogoz, eta gustoz. Onela uzten du bataioak Kristaua Jesu-Kristorekin bat egiña, birtutez, eta doaiez edertua, eta ornitua: Ni naiz, dio Jesu-Kristok, zepa, eta zuek zerate adarrak *Ego sum vilis, vos palmites*.



Atzanean bataioko Sakramentuak ezartzen dio animari Jesu-Kristoren artaldeko marka, ala erakusten digue Florenziako, eta Trentoko Konzilioak. Arzai batek erosten dituean ardiren batzuek, ipintzen die bere ardien marka, ezagutuak izan ditezen, eta au bera egiten du Jesu-Kristok anima bat bataioaren bidez bere artaldera artzen duanean. Marka onek egiten du Kristaua Elizaren ume, eta ematen dio Elizaren Sakramentuak artzeko eskua. Ekusten dezu, Kristaua, zer ondasunak dakartzien bataioko Sakramentuak artzallearen animara? Dakuskun oraiñ, nolako prestaera eskatzen duan.

§ II.

Sakramentu onen artzallea gaitzaren eta onaren ezagueran sartu gabea bada, ez du prestaeraren bearrik. Baña adiñean, eta ezagueran sartua danean, ez dio Elizak ematen Sakramentu au, ongi prestatua dagoanari baizik. Prestaera onetarako bi mallatan ipintzen zituan Elizak bataioa artu nai zuenak. Lenengo malla zan *Enzunleena* esaten zioena: *Audientium*. Malla onetan zeudenai aditzera ematen zitzaten Jesu-Kristoren lege edergarbia: nola aldegin bear degun bekatutik, eta bekaturako bideetatik, eta egiñ obra onak: uzten zitzaten Mezatan egoten Sermoia bukatu artean, eta orduan Diakono batek otsegiten zuan: *Irten bitez Elizatik bataioa artugabe daudenak*. Orregatik Mezaren parte oni deitzen zitzaion *Katekumenoen Meza*, edo bataiorako prestatzen zeudenena. Malla onetan zeudenen artean batzuek etzuen biotzik gure lege Santak agintzen duan eran bizitzeko, eta luzatzen zuen bataioa artzea, besteak laster asitzen ziran eskatzen, eta oen izena ipintzen zan Elizako liburuan. Au zan bigarren malla, eta latinez deitzen zioen: *Competentium*, esan naidu: *Bataioa eskatu zuenen malla*. Malla onetan zeudenak ateratzen zituen asko barau: arretarekin peleatu bear zuen animaren etsaien kontra: leialki egin bear zituen agintzen zitzaizten gauzak, eta aitortu, edo konfesatu bear ziozkeen Obispo Jaunari, edo onen ordekoari beren bekatuak. Konfesio au etzan Sakramentu, baña egiten zuen bataioa artzeko zeudenak, erakutsi zegien Obispo Jaunak, edo onen ordeko Apaizak, zer egin bear zuen beren oitura, eta griña gaiztoak garaitzeko. Era onetan ongi prestatuak zeudenai ematen zitzaten bataioa Larunbat Santuz, edo Pazkoa maiatzekoaren bezperan; baña bekatua, ta bekaturen bideak uzteko ongi saiatzzen etziranak

geratzen ziran bataioa gabe. Orra nolako prestaera eskatzen duan bataioak.

Aditu dezu, Kristaua, zer ondasunak dakartzien Sakramentu onek artzallearen animara. Aditu dezu gañera, zer prestaera eskatzen duan, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartu danak artu nai badu. Zer ote da Erakusaldi onetatik atera bear degun ona? Lenengoa da Jaunari eskerrak ematea bataioarekin eman dizkigun ondasun andiak gatik, eta barkazioa eskatu, zeren oraindano zabarrak izan geran onetan. Bigarrena: Jaunaren aurrean biotzetik negar egin, zeren gure Ongille Andi Jesus maitagarria amatu ez degun, eta amatu bearrean ainbeste bider utzi degun. Irugarrena: sarritan oroi gaitezen, Bataioko egunean illak, eta Jesu-Kristorekin obiratuak bezala geratu giñala bekaturako. Ala esaten digu S. Paulok. Eta ez degu bizi bear Jesusen lege garbia gordetzeko baizik. Au da guk agindu deguna, eta au egiten degula, iritsiko degu betiko bizitza doatsua. Amen.



AMARGARREN ERAKUSALDIA

baña bataioko Sakramentuaren gañean bostgarrena.

ALABATUA &

Aditu zenduan, Kristaua, azkeneko aldian, zer ondasunak dakartzian bataioko Sakramentuak artzallearen animara. Aditu zenduan gañera, nolako prestaera eskatzen duan, baldiñ artzallea gaitzaren, eta onaren ezagueran sartua bada; baña geienak, edo aldealdean guziak artzen due Sakramentu au jaiota laster, eta prestaerarik ezin egin zezakeen adiñean. Au onela izanik ere, ez uste izan, nolana eman digula Elizak Sakramentu au. Etzigun eman, eta ez dio iñori ere ematen, agindugabe, leialki gordeztea Jesu-Kristoren lege Santa, eta uztea betiko bekatua, eta bekatuaren bideak. Aurrak ezin agindu zezakean au berez, eta orregatik aurraren lekuan jartzen dira, Aita ta Ama pontekoak, eta aren izenean ematen due itza, esan dana egiteko. Beartuak gaude, Aita, ta Ama pontekoak gure ordeaz agindu zuena egitera, Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala. Etzuen alabaña ezerere. agindu, nai, ta nai ez Zerurako egin bear dana baizik. Orregatik gauza txit egokia da ongi begiratzea, lenengo lekuan: zer gisatan artu ginduan Eliz Ama Santak bataioko Sakramentura, eta zer agindu genduan. Urrena, nola eranzun diogun egun andi artan aginduari. Enzun, Kristaua, arreta andiarekin.

Eliz Ama Santak, bataioa norbaiti emateko, eskatzen du Aita, edo Ama pontekoa, edo biak. Au da lenengo zeremonia. Zertako egiten du au Elizak? Egiten du, benik beiñ, aurraren izenean izan dedin norbait, bataiorako bear dana agintzen duana. Orregatik deitzen zate batzuetan: *Sponsors*, eta esan nai du: Agintzen, edo itzak ematen duenak. Eskatzen du gañera Elizak Aita edo Ama pontekoa, gurasorik gabe aurra geratuko balizere, izan dezan nork erakutsi Zerurako bidea. Askok da berez Aita, edo Ama pontekoa, baña ipiñi ditezke biak, ez ordea bi Aita, edo bi Ama. Aita, ta Ama pontekoak bear litukee izan gitxienez, amalau urte Aitak, eta amabi amak, baña batzuetan ipintzen dira adiñ au ez duenak ere. Eta ongi litzake konfirmatuak egotea. Ez dira Aita, ta Ama pontekotzat autu bear fedegabeak, exkomikatuak, ezagueran sartugabeak, dotrinarik ez dakienak, eta bizitza gaitzokoak; erakusle txarrak dira alabaña onelakoak Zerurako bidea erakusteko. Era berean ez dira autu bear Erljioko

Ordenaren batean bizi diranak. Autu ote ditezke Apaiz, Erljioko Ordenakoak ez diranak? Ez du au Ritualak debekatzen, baña debekatu zuan S. Karlos Borromeok, eta au bera egin izan due beste Obispo askok ere. Aita, eta Ama pontekoak aide egiten dira, aurrarekin lenengo mallan, eta aurraren gurasoakin bigarren mallan.

Bigarren zeremonia: ekartzen da aurra Elizako ateetara, baña ez da barruna sartzen, aienatu artean argandik etsaia. Aurrarekin datozenak ekarri bear lukee agiria, esaten dala: *zer orduz jaiotzen da aurra, ura eman zaion, edo ez: non jaiotzen ziran, eta bizi diran gurasoak: nola derizten; eta era berean alde bietako Aiton, eta Amonak*; baña asko dira gai onetan zabarrak. Orregatik ez da erri batzuetan iñor bataiatzen bear dan agiria ekarri dediñ artean.

Irugarren zeremonia: Artzen du Aita edo Ama pontekoak (edo bes-tela Elizara ekarri duanak) aurra buruaz eskuiko besoaren gañean, eta ipintzen zaio izena. Lege zarrean, gizonezkoai beintzat, ipintzen zitzaten izena zirkunziosioko marka ezartzean, eta au egiten zan jaiotzatik zortzigarren egunean, baña Jesu-Kristoren legean izena ipintzen da bataioko egunean zeña ipintzea gurasoai dagote, baña oen ordeaz ipiñi oi due Aita, ta Ama pontekoak. Ez da ipiñi bear idolo, edo Jainko gezurrezkoen izenik. Ezta berez gaizki dan gauza lege zarreko Santuen izena ipintzea, egin dezagun kontu: *Abraham, Isak, Jakob, Dabid*; baña obe da lege berriko Santuren batena ipintzea, eta ala agindua dago emengo legeetan. Herejeak, gure legeko Santuak ez onratzeagatik, lege zarrekoenak artzen ditue, eta guri dagokigu gure Santuak onratzea. Ez dira ipiñi bear izen asko; zeren emendik etorri oi dan zenbait aldiz, libruan era batera ezarriak egotea izenak, eta ez ala deitzea etxean. Gero hidalgia ongi egiteko datoz milla neke.

Laugarren zeremonia: Bataiatzalleak galdetzen dio bataioa artzeko dagoanari: *Urlia, zer eskatzen diozu Jainkoaren Elizari?* Erantzuten du: *fedea*; baña ez nolana fedea, baizik fede bizia, edo esnatzen duana Kristaua amatzeko Jauna biotz guzitik, eta lagun urkoa geren buruak bezala. Au eragiten ez duan fedea illa da. Orregatik berriz galdetzen dio bataiatzalleak: *Zer ematen du fedea?* Eta erantzuten dio: *Betiko bizitza*. Orduan dio bataiatzalleak: *Betiko bizitza iritsi nai badezu*, gorde itzatzu Mandamentuak.

Bostgarren zeremonia: agintzen zaio etsaiari, aldegin dezala aurragandik, eta utzi dezala toki ura Espiritu Santuarentzat: eta iru bider asnasa ematen du aurraganon. Au egin zuan Jesu-Kristok, eman zienean Apostolui, bekatuak barkatzeko eskua. *Arrezazue Espiritu Santua*, esan zien, asnasa ematen zuala aetaronz: eta dirudi, Jesusek orduan egin zua-



netik artu duala Elizak zeremonia au, adirazteko, aurraren animara jaxtiko dala Espiritu Santua.

Seigarren zeremonia: askotan egiten du bataiatzalleak gurutzearen siñalea aurraren gañean, aienatzeko etsaia.

Zazpigarren zeremonia: bi aldiz bataiatzalleak ipintzen diozka eskuak aurrari buruaren gañean, baña ukitugabe, eta da Espiritu Santuari deitzea bezala, jatxi dedin aurraren biotzera, eta argitu dezan, betiko bizitzari dagozkan, gauzetan.

Zortzigarren zeremonia, gatz bedekiatua ipintzen zaio auan. Zer aditzera eman nai ote du zeremonia onek? S. Isidorok dionez, aditzera eman nai du, Kristauren mihia, utzirik betiko birauak, juramentuak, itz loiak, eta lagun urkoen kontrako erausiak, geratzen dala konsagratua bezala, Jauna alabatzeko, ta bedekiatzeko.

Bederatzigarren zeremonia: ematen dio bataiatzailleak aurrari estolaren erza, esaten diola: *Urlia, sar zaite Jaunaren etxean, Jesu-Kristorekin parte izan dezazun betiko bizitzan*. Sartzen dan denboran, esaten ditu bataioa artzera dijoanak berez, edo bestez Aita gurea, eta Kredoa. Elizaren lenengo denboretatik gorde izanda ardura andiarekin zeremonia au.

Amargarren zeremonia: pontera baño len geratzen dira bataiatzallea, eta bataioa artu bear duana: berriro agintzen zaio etsaiari, dijoala ordu gaiztoan andik, zeren Jesu-Kristok deitu dion aur ari bere Elizara, izan dedin Jainko biziaren, eta Espiritu Santuaren bizi leku. Zenbat eta bataioaren alderago arkitzen dan aurra, anbat amorru andiagorekin jarraituko dio etsaiak, eta Jaunak ez eragoztera, irintsiko luke, leoi aserre batek bildotsa bezala; eta orregatik Jesu-Kristoren izenean agintzen zaio, aldegin dezala andik.

Amaikagarren zeremonia. Istuarekin ukitzen dira aurraren belarriak, eta sudurrak. Zeremonia au artu zuan Elizak Apostoluetatik, eta oek, Jesu-Kristok gizon gor, eta mutu batekin egin zuan, mirari batetik. Eraman zioen Jesusi gizon gaixo au: atera zuan besteen artetik: sartu ziozkan belarrietan beatzak, eta bere istuarekin ukitu zion mihia. Jaso zituan Zeruronz begiak, eta esan zuan: *Epheta*, au da; *idiki bitez zure belarriak*. Onela sendatu zuan Jesusek gizon gor, eta mutu ura. Jesusek orduan egin zuana gizon gor, eta mutuarekin, egiten du Elizak bataioa artu nai duanarekin, Gorra dago au Jaunaren itza entzuteko, eta ez du Jesusen lege ederraren usai gozoa aditzen, eta ukitzen du istuarekin belarrietan, eta sudurretan, eta esaten dio *Epheta*. Zertako uste dezu? Idikiak iduki ditzan belarriak, Jaunaren itza entzuteko, eta sudurrak Jesusen lege, eta mandamentuen usai gozoa aditzeko. Amabigarren zeremonia: eramaten da bataioa

artu bear duana pontera, eta egiten zaizka zenbait galde, jakiteko, prest ote dagoan bekatutik, eta bekatuaren bideetatik betiko aldegitiko. Esan diteke, bataioko egun andian Jaungoikoaren, eta gizonaren artean egiten dala igual bat, beti gogoan erabilli bear gendukeana. Joungeoak agintzen diozka gizonari betiko bizitza, eta ondasunak, eta Kristauak bere aldetik agintzen du oraiñ esatera noana. Aditu kontuz, Kristaua. *Urlia* esaten dio bataiatzalleak: *urlia, gaurdanik betiko uzten dituzu Satanas, eta Satanasekin batean beraren lagun, eta langilleak, zeñak diran mundu galdua, edo munduan bizi diran gaiztoak, eta aragiaren gura txarrak? Abrenuntias Sathanae?* Esaten balio bezala. Begira ondo, biotzik ote dezun onetarako: ezpadezu, ez dago zuretzat bataiorik. Bataioa artu nai duanak eranzuten du: bai, betiko uzten det Satanas, bere lagun, eta langilleekin: *Abrenuntio*. *Urlia*, esaten dio berriz: gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen lan, eta obra guziak nola diran bekatua, eta bekatuaren bideak *Et omnibus operibus ejus?* Ez edo bai. Eranzuten du: Bai, Jauna, beti betiko uzten ditut: *Abrenuntio*. *Urlia*, esaten dio irugarren aldian: gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen arrotasun, eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atsegin, eta jolasetan? *Et omnibus pompis ejus?* Ez edo bai? Bai Jauna, dio. beti betiko uzten ditut: *Abrenuntio*. Ezin gorde diteke Jesu-Kristoren legea, gauz oek egiten ezpadira: orregatik ez dio Elizak bataiorik eman nai, au guzia egiteko biotzik ez duanari. Egiten du onetan Elizak, Jedeonek Jaunaren agintez gudari, edo soldadu beldurtiak egin zuana. Bilduziran ogei, ta amabi milla Israeltar, Jedeon Agintari zuala, Madiantarren kontra gerra egiteko. Etsaiak prest arkitzen ziran pelearako, eta esan zien Jedeonek bere Israeltarrai: ea, beldurtia dana, edo etsai oriek garaitzeko biotzik ez duana, biurtu bedi etxera. Zenbat, uste dezue, biurtu zirala? ogei, ta bi milla biurtu ziran. Elizak bada bataiora dijoanari begien aurrean ipintzen diozka, garaitu bear dituan etsaiak, eta ezpadu onetarako biotzik, ez dio emango bataioa, eta bidalduko du etxera. *Qui formidolosus, et timidus est, revertatur* (judicum 7).

Amairugarren zeremonia: Ganzutzen da bataioa artu nai duana olio bularrean, eta sorbaldan. Etsaia garaitzeko, ez da asko itzez agintzea, esaten dala: *Abrenuntio*, baizik peleatu bear da gogotik, eta au aditzera ematen du zeremonia onek. Anziñako denboran festetan irten oi ziran gudariak elkarren kontra peleatzera; kentzen zituen soñeko guziak, izan etzezan etsaiak nondik eldu, eta ganzutzen ziran olio gorputz guzian, itsasteko denboran irristatu zekion etsaiari atzaparra. Gisa onetan bada Elizak ganzutzen du olio bularrean artu nai duana, eta aditzera ematen dio,



nola guda, edo pelean bizi bearra dan Demonioaren, munduaren, eta gura txarren kontra.

Amalagarren zeremonia: uzten du bataiatzalleak estola morea, eta ipintzen du zuria: aditzera ematen zaio bataioa artzera dijoanari, utzi bear duala Adanen soñeko zarra, edo bekatua, eta artu bear duala graziaren apaindura ederra.

Amabostgarren zeremonia: galdetzen dio: *Urlia, sinisten dezu Jaungoiko Aita guziz Poderoso, Zeruari, eta hurraren Kriadoreagan?* Erantzuten du: *Sinisten det.* Galdetzen dio berriz: *Sinisten dezu: aren Seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunagan, zeña jai, eta gurutzean il zan?* Erantzuten du: *Sinisten det.* Galdetzen dio irugarren aldian: *Sinisten dezu Espiritu Santuagan, Eliza Santa, Katolika, Santuen Komunioa, bekatuen barkazioa, aragjaren piztutzea, eta bizitza betikoa?* Erantzuten du: *Bai sinisten det.* Iru bider eranzun zion Jesusek S. Pedrori: *Pedro amatzen nazu?* eta iru bider eranzun zion, baietz: eta emendik artu zuan Elizak, iru galde oek fedearen gañean egiteko bidea.

Amaseigarren zeremonia: fedearen aitormen, edo konfesio au egiñ ondoan, galdetzen dio bataiatzalleak: *Urlia: ta oraiñ artu nai dezu bataioa? Vis baptizari?* Esaten balio bezala: aditu dezu, nola peleatu bear dan Demonioaren, munduaren, eta gura txarren kontra: ezpadezu biotzik iru etsai oek garaitzeko, biur zaitezke etxera; etzera alabaña gauza Jesu-Kristoren gudari, edo soldadu izateko. Baña baldin prest, eta alai bazau-de, au guzia egiteko, ona ni ere prest, zuri bataioa emateko. Artu nai dezu bada bertatik Sakramentu au? *Vis baptizari?* Erantzuten du, bai, nai det. *Vola.* Orduan ematen zaio Sakramentua.

Amazazpigarren zeremonia: emanik era onetan bataioa, ganzutzen da buruan krismarekin, edo olio, eta balsamoarekin. Aditzera ematen du zeremonia onek, Kristaua geratu dala Jesu-Kristori, bere zepari bezala, itsatsia. Aditzera ematen du gañera, bataiatuaren anima ganzutu duala Espiritu Santuak bere doaiakin.

Emezortzigarren zeremonia: ipintzen, edo ematen zaio janzi, edo zapi zuri bat. Anziñako denboran bataiatuak lenengo zortzi egunetan ibilli oi ziran bataioan artu zuen janziera zuriarekin: orregatik Pazkoatik urrengo igandeari deitzen zaio: *Dominica in albis*, esan nai du: *janziera zuria* uzten zan igandea. Zer aditzera ematen ote digu zeremonia onek? Aditzera ematen digu, benik beñ, Espiritu Santuak animari bataioan ematen dion soñeko ederra. Aditzera ematen digu urrena, soñeko eder au arreta andiarekin gorde bear dala.

Emeretzigarren zeremonia: ematen zaio bataiatuari kandela erazeki bat. Zer aditzera eman nai du zeremonia onek? Aditzera eman nai du,

Zeruko erreñua irabazteko, ez dala asko bataiatua izatea, ez eta gauza gaiztoriz ez egitea ere, baizik bakoitzak bere estadu, edo bizimoduan argi egin bear duala obra onakin. Orregatik esan zuan Jesu-Kristok: *Beude zuen eskuetan argi erazekiak: sint... lucernae ardentes in manibus vestris.*

Ekusten dezu, Kristaua, nola artu ginduan Eliz Ama Santak bataio-ko Sakramentura, eta zer agindu ginduan? Jaungoikoa bere aldetik bear-tua, edo obligatua geratu zan, guri ematera betiko bizitza, eta betiko atsegin-kontentuak, leialki egiten badegu agindu deguna; eta gu beartuak geratu giñan eman ginduan itzai eranzutera. Itz oek eman ginduan Aingeruen, eta Elizaren aurrean, eta gure izenak letraz ezarri ziran Elizako liburuan. Ongi: eta nola eranzun diogu egun andi artan aginduari? Au da oraiñ ekusi bear deguna:

§ II.

Zuk, Kristaua, bataioko egunean artu zenduan auan gatz bedekatua, eta zure mihia geratu zan konsagratua bezala Jauna alabatzeko: ordutanik utzi zinduan betiko birauak, juramentuak, itz loi-desonestoak, eta lagun urkoaren kontrako erausiak. Nola eranzun diogu orduan aginduari? Ea Kristaua, ager ezazu mihi ori: Ez da ezagun, artu zenduan, gatz bedekatuaren kutsurik batere: eta guzia dago loitua, eta zikindua.

Zuri bataioko egunean ukitu zizkitzuen belarriak, eta sudurrak istua- rekin: belarriak, enzuteko gogotik Jainkoaren itza, eta sudurrak aditzeko Jesusen lege Santaren usai gozoa: eta ordutanik agindu zenduan, ikasiko zenduala Jesusen lege Santa, eta Zerurako bidea. Nola eranzun diozu egin-bide oni? Aspaldi da igesi zabiltzala Jaunaren itzagandik, eta aditzen dezunean ere, ez diozu gustorik artzen. Sorra, eta gorra zaude animari dagozkan gauzetan eta au da marka guziz gaiztoa, edo Deabruarena.

Zuk bataioko egunean eman zenduan itza, utzitzeko Satanas, eta Satanasen langilleak, nola diran lagun gaiztoak. Nota eranzun diozu egin-bide oni? Ai! Zure atsegin guziak dira lagun gaiztoakin gau ta egun, eta animak galeraztea da zure lan, eta egiteko gozoa. Zuk eman zenduan, itza, utzitzeko bekatua, eta bekatuaren bideak. Nola eranzun diozu egin-bide oni? Ez dituzu utzi nai oitura lizun-lotsagarri oriek: ez dituzu utzi nai, bekatuak bidea zuretzat dakarten, etxe, adiskidetasun, eta jolas oriek. Zuk eman zenduan itza, utzitzeko munduko arrotasunak, eta zorakeriak,



dala janzian, janean, eta edanean, dala gastuetan. Eta zer da zuk egin dezuna?

Zuk egun andi artan, eta guziok artu genduan graziaren soñeko ederra, eta au aditzera eman zigun janzi, edo zapi zuriak. Non da apaindura ura? Atzenean agindu zenduan zere estadu edo bizimoduan obra onakin argiegitea. Nola eranzun diozu egin bide oni?

Nere, Kristaua, ongi begira dezagun, zer agindu genduan bataioko egun andian, eta nola eranzun diogun aginduari, eta arkituko degu negar egiteko gai ugaria. Aditzen danean, erlijioko ordenaren batean sartu zan, gizon, edo emakumen bati gertatu zaiola bekatoren batean erortzea, miretzen da mundua, eta asitzen da ozka, eta aginka erlijioko ordenetan bizi diranen kontra, zeren bati gertatu zaion utsegite larriren bat, zergatik ori? Zeren bizimodu ura artu zuanean, utzi zituan bekatua, ta bekatuaren bideak, eta emen zuan itza bizitzeko, autu zuan bizimoduak eskatzen duan eran. Au bera agindu geuduan zuk, eta nik: utzi ginduan betiko bekatua, eta bekatuaren bideak bataioko egunean: orduan emandako itzak obeto gordetzeko, bakoitzak aututzen du beretzat egokia deritzan bizimodua, bata sartzen da Erljioko ordenaren batean, bestea egiten da Apaiz: bata ezkontzen da, bestea geratzen da ezkongai, eta guziok ematen degu geren bizimoduan bekatutik aldegitoko itza. Nola bada miretsitzen da mundua, Erljioko ordenaren batekoari bekatoren bat gertatzen bazaio, eta ezertan artzen ez ditu, beste bizimoduetakoak ugari egiten dituen bekatuak? Kristaua, noizbait zentzatu gaitezen; edozeñ estadu, edo bizimodu artu dezala batek, guziok gaude beartuak bataioan, eta bizimodua artzean aginduari erantzutera. Egin dezagun au leialki bakoitzak bere bizimoduan, eta onela emango digu Jaunak agindu digun betiko bizitza. Amen.

AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfirmazioko Sakramentuaren gañean bakarra

ALABATUA &.

Astiz, edo betaro itzegin dizut, Kristaua, bataioko Sakramentuaren gañean. Aditu dezu, Sakramentu onen bidez barkatu zizula Jaunak, bekatu jatorrizko, edo orijinala, apaindu zinduala graziaren soñeko ederrarekin, eta ezarri zuala zure animan Jesu-Kristoren artaldeko marka. Arzai batek, erosten dituean ardiren batzuek, ipintzen die bereala bere marka, norenak diran jakin dedin: eta au bera egin zuan Jesu-Kristok, zu bere artalde, edo Kristau fededunen artean artu zinduean. Aditu dezu gañera, nola bataioko egun andi artan eman zenduan itza, ordutanik betiko uzteko Demonioa, eta lagun gaiztoak, bekatua, eta bekatuaren bideak, eta munduaren arrotasun, eta zorakeriak. Ekusten zuan Jesus onak, prest arkitzen zirala, zure kontra irteteko, iru etsai guziz gerrariak, trebeak, eta leiatuak, eta zu indar gutxikoa, eta beratxoa zeundela etsai oen kontra peleetzeko, batez ere perill andiren batzuek inguratzen bazinduen. Ekusten zuan, gu gerenez gerala nagjak onerako, eta makurtuak gaudela gaitzerontz, eta nekez ariko giñala gogoz, eta gustoz etsaien kontrako peleetan. Orregatik ipiñi zuan bigarren Sakramentu bat, Konfirmazioa deritzana, eta au izango da gaurko Erakusaldiaren gaia. Aurrena emango dizkitzut, Kristaua, Sakramentu onen berriak. Urrena, ekusiko degu, nola baliatu geran Sakramentu onezaz gure etsaiak garaitzeko. Enzun arretarekin.

§ I.

Konfirmazioko Sakramentua Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, zazpietatik bat da. Ala erakusten dige Florenziako, eta Trentoko Konzilioak. Ez da bataioa beziñ bearra, edo premiazkoa, baña nork ezta-kus, zabarkeri txit itsusia izango lizakeala Sakramentu au ez artzea izanik artarako era?

Konfirmazioko Sakramentua emateko denboran, Obispo Jaunak gantzutzen dio artzalleari kopeta krismarekin, edo olio, ta balsamoarekin, ez nola nai, baizik gurutzearen siñalearekin, eta ipintzen diozkala eskuak



buruaren gañean. *Crisma* da balsamoarekin nastutako olio, Obispo Jaunak Sakramentu au emateko bedekitzen duana. Ala erakusten digu Florenziako Konzilioak. Olioak aditzera ematen digu, Sakramentu onen bidez ixurtzen dituala Espiritu Santuak artzallearen animan bere doaiak: eta balsamoak adirazten du, nola zabaldu bear degun bakoitzak bere bizi-modu, edo estadian, obra onen usai gozoa, alako eran, non esan ditekian, Jesu-Kristoren usai ona gerala, S. Paulok zion eran: *Chiti bonus odor sumus* (2.^a ad Corint. c. 2). Egiten zaio Sakramentu onen artzalleari gurutzea kopetan, zeren Sakramentu onen indarra Jesusek gurutzean igaro zuan eriotzatik datorren. Zeren gañera Konfirmazioko Sakramentuarekin egiten dan Kristaua Jesu-Kristoren gudari, edo soldadu, eta berekin bear duan bere Erregeren, edo Jesu-Kristoren siñalea. Zeren atzenean kopeta dan lotsa, edo alkearen tokia, eta Jesu-Kristoren gerrariak ez du lotsarik bear bere Erregea onratzeko, eta beraren aginteak gordetzeko, eta, ala bear baliz, beragatik bizitza emateko.

Sakramentu onen emallea da Obispo Jauna. Alaere askotan ematen due Indietan eta txit urrutiko tokietan Obispo ez diran Apaizak, Aita Santuak onetarako eman dien eskuarekin, baña eramaten due Obispoak bedekitutako krisma. Obispo Jaunak, Sakramentu au ematean, esaten dituan itzak dira oek: *Nik markatzen zaitut gurutzearen siñalearekin, eta sendotzen zaitut animako osasuna dakarren krismarekin Aziaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean*. Oek dira Florenziako Konzilioak dakartzian itzak.

Konfirmazioko Sakramentuaren artzalle izan diteke bataiatua dagoan edozeñ gizon, eta emakume. bataiatua dagoana diot, zeren bataiatua ez dagoana ez da gai beste Sakramentuak artzeko. Anziñako denboran Obispo Jaunak berak eman oi zuen bataioko Sakramentua, eta denbora berean ematen zituen Konfirmazio, ta Komunioa ere, bataiatzen zana aur jaioberrria izan arren: eta oraiñ ere au bera egiten da Greziako Elizetan, Aita Santu Benedikto amalagarrenak dionez. Naiago luke Elizak Konfirmazioa artuko balue Kristauak gaitzaren, eta onaren ezaguera duen denboran; baña eman oi zate ezaguerarik ez duen aurrai ere, zeren Obispo Jaunak erarik ez duen erriz erri sarritan ibiltzeko. Sakramentu au artzen duana ezagueran sartua ezpada, ez da onen aldetik prestaeraren bearrik, baña bai adiñean, edo ezagueran sartua bada. Ara prestaera au egiteko egokiak diran, zenbait gauza. Lenengoa, ongi lizake Sakramentu au artzea baraurik. Ala artzen zan len; baña ez du Elizak agintez iñor beartzen onetara. Bigarrena, Sakramentu au artzera joan bear da aurpegi, ta soñeko garbiakin, baña arrokeria gabe. Irugarrena, anima garbitu bear

da bekatuen loietatik, Konfirmazioa alabaña da bizien Sakramentua, eta artzalleak egon bear du graziaren bizitzarekin. Orregatik asko prestatzen dira bizitza guziko konfesioarekin, Espiritu Santuaren doaiak ugari artzeko. Apostoluak, Jesus Zerura igo zanetik Espiritu Santuaren etorreraraño, egon ziran prestaera egiten otoiz, edo orazioan, eta barautuaz.

Eta zer ondasunak ote dakartzi Sakramentu onek? Benik beñ artzallearen animan ipintzen du Jesu-Kristoren gudari, edo gerrariaren siñalea. Erregeak bere gerrariak ipintzen dieza beren siñalea dala janian, dala txapelan. Eta au bera egiten du Jesu-Kristok bere gerrariakin Konfirmazioko Sakramentuaren bidez, ipintzen die animan bere soldaduen marka. Ala erakusten digue Elizako Konzilioak. Sakramentu onek ugaritzen dio artzalleari animako grazia, eta bere denboran ematen diozka Zeruko indar, eta lagunzak, alaitasunarekin, eta sendo egoteko Jesu-Kristoren fede Santan, eta gordetzeko beraren lege Santa. Sakramentu onek gañera, edo onen bidez Espiritu Santuak ixurtzen ditu ugari artzallearen animan bere doaiak. Elizaren lenengo denboretan jatxitzen zan Espiritu Santua Konfirmazioa artzen zuenetara, gertatzen ziran mirarietan norenai ezagutzen zuan eran; ekusten zan alabaña, gizon jakiñezak ere, Sakramentu au artu ondoan, aditzen zituala izkunde guziak. sendatzen eriak, eta egiten zituela gauza miragarriak. Ez da oraiñ ekusten onelako miraririk, Konfirmazioa artu arren; zeren oen premiarik ez dan; baña fedeko gauza da, Sakramentu onen bidez jatxitzen dala Espiritu Santua bere doaiakin Sakramentu au artzen duanaren animara. Sakramentu au ematen duana aide egiten da konfirmatzen danarekin lenengo mallan, eta onen gurasoakin bigarreanean, eta au bera egiten du Aita, ta Ama Konfirmaziorako ipintzen diranakin. Sakramentu au ezin eman diteke, beñ baizik, len esana dagoan bezala.

Sakramentu oni dagozkan zeremoniak dira oek. Lenengoa. Bataiorako ipintzen dira Aita, ta Ama pontekoak; baña Konfirmaziorako ez dira berdiñak leku guzietako usanzak. Batzuetan ipintzen ditue Aita, eta Ama, besteetan ez bata, eta ez bestea. Batzuetan Aita bakarrik, besteetan gizonekoarentzat gizona, eta emakumezkoentzat emakumea eta au da ongi dirudian gauza. Konfirmaziorako ez dira ipiñi bear Aita, edo Amatzat bataiatu, eta konfirmatuak ez daudenak. Ala agintzen du Elizak. Sakramentu au artu bear duana aur txikia bada, idukitzen da besoetan, eta azia bada, berak ipintzen du oñ bata Aitaren, edo Amaren oñaren gañean.

Bigarren zeremonia: Sakramentu au artzen duanari, leku batzuetan ipiñi oi zaio izen berria, utzi dezan gizon zarra bere izenarekin, eta egin dezan bizitza berri on bat; baña utzi da zeremonia au.



Irugarren zeremonia: Sakramentu au emateko asieran zabaltzen ditu Obispo Jaunak bere eskuak konfirmazioa artzeko daudenen alderon, eta erregutzen dio Jaunari, jatxi dediñ oen biotzetara Espiritu Santua. Konfirmazioa artzeko daudena arretaz joan bear due Elizara, zeremonia onen asierarako; baña askotan gertatzen da, zeremonia au egiñ ezker, Elizara etortzea ez gutxi, eta besteak bezala artzea Konfirmazioa. Emendik Obispo Jaunak zenbait aldiz kezka beteterik geratzea, zeren erabakia ez dagoan, asierako zeremonia ura, Sakramentuak balio izateko, premiazkoa dan, edo ez.

Laugarren zeremonia: Konfirmazioa artzen duanari ematen dio Obispo Jaunak masalleko bat, eta adirazten dio, nola egin dan Jesu-Kristoren gudari, eta beldur, edo lotsarik gabe gorde bear duala Jesusen fede, eta lege Santa, eta garaitu bear dituala etsaiak: itz batean, prest egon bear duala bere Jesusen onran edozeñ neke, ta gurutze igarotzeko.

Bostgarren zeremonia: toki askotan Konfirmazioa artzen duenai ipiñi oi zate kopetan zinta bat, ixuri eztakiten krisma: eta zintarekin ibiltzen dira batzuek zazpi egunez, besteak denbora gutxiagoan. Zinta oek olioak ukitu baditu, erreta autsak ponteko putzura botatzen dira: gorde nai badira Elizako gauzaren baterako, garbitzen dira ur, eta gatzarekin. Baña utzi dira, eta bide andiarekin, zintak. Zeren batzuek nolana erabiltzen zituen; eta zinten orde, kopetak garbitzen zaizte konfirmatzen diranai, onetarako prest ipintzen dala, onziren bat urarekin.

Azkenean Sakramentu au artu duenai Obispo Jaunak ematen die bendizioa. Nai luke Elizak, konfirmatu guziak bendizio au artzea, baña asko irteten dira lenago Elizatik, dala zeren eri dauden, edo dala zeren asperzen dituan Elizako egoerak, eta ez da au ongi egiña.

Ona, Kristaua, Konfirmazioko Sakramentuari dagozkan gauzen berriak. Orañ ekusi bear degu, nola baliatu geran Sakramentu onezaz.

§ II.

Konfirmazioko Sakramentuaren bidez egin gin duan Jesu-Kristok bere gerrari, edo soldadu: ornitu ginduan, gure etsaiak garaitzeko, armaz, eta Espiritu Santuaren doaiez. Doai oek alaitzen due Kristaua Jesu-Kristoren etsai guzien kontra peletzeko gogoz, eta gustoz, Apostoluakin gertatu zan eran. Apostoluak, Espiritu Santuaren doaiak artu zituen artean, gu bezala ziran beldurtiak, eta argalak, alako eran, non ostegun

Santu arratsean igesi joan ziran, utzirik Jesus; baña nolako gerrariak egin ziran, Espiritu Santuak bere doaiez bete zituanean? Bereala asi zan S. Pedro Jerusalemene Jesu-Kristoren lege Santa barreatzen, eta au bera egin zuen gañerako Apostoluak ere mundu guzian. Alperrik altxa ziran munduko andi, eta jakintsuak Apostoluen kontra: alperrik prestatu ziran, oek izutzeko, gurutzeak, urkamendiak, labe goriak, eta oñaze-mota. guziak, etziran izutu Apostoluak, eta garaitu zituen etsai guziak, zabaltzen zuela munduaren lau aldeetan Jesu-Kristoren legea. Zer geiago? Pozik, eta gustoz eman zuen bizitza Jesu-Kristogatik. Orra, nola peleatu ditekean gizotik argalena ere Espiritu Santuaren doaiakin, eta nola garaitu ditzakean demonioa, mundua, eta bere griña txarrak.

Baña nola baliatu ote gera gu, Espiritu Santuak Konfirmazioko Sakramentuan eman zizkigun doaiak? Zeñ gauza lotsagarria gurekin gertatu dana! Batzuek ez dira oroitu ere, Espiritu Santuak egin zien, ontarte, eta mesedeaz; besteak ez due biotzik izan demonioari, eta munduari kontra egiteko; eta besteak jarraitu dieza eren gura, eta griña txarrai. Gauza lotsagarria da gerrari, edo soldadu bat, armak utzirik, etsaietara igarotzea eta au bera gertatzen da Kristaurik geienakin: uzten ditue beren Errege Jesus maitagarriaren armak, eta igarotzen dira etsaien aldera, eta ez ote degu askotan zuk eta nik ere au egin, nere Kristaua? Eta zer ote da orañ egin bear deguna? Lenengo lekuan, lotsa gaitzen Jaunaren aurrean, gerrari añ txarrak izan geralako, eta konfesio on baten bidez biur gaitzen gure Jaun, eta Errege egiazkoagana. Bigarrena umilki eska degiogun Espiritu Santuari, bidal ditzala gure animetara bere doaiak, gogotik ekiteko etsaien kontra. Atzenean doai oekin arretaz, eta alaitasunarekin jarraitu degiogun Zeruko bideari, onela iristeko betiko bizitza. Amen.



KONFESIOKO SAKRAMENTUAREN GAÑEAN ERAKUSALDIAK

OETATIK BAKOITZAREN GAIA IZANGO DIRA,
LENBIZIKO KOMUNIOAREN LIBURUAK
LENENGO PARTEAN DAKARTZIAN,
ERAKUSALDI LABURRAK.

AMABIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko, Sakramentuaren gañean lenbizikoa.

ALABATUA &.

Gure Jaungoikoak egin ginduan Zerurako; baña Adanen bekatuarekin galdu genduan arako eskubide guzia: eta au guri berriro emateko, egin zan gizon Trinidadeko bigarren Persona: eman zuan gurutzean bere bizitza, eta ainbeste neke, eta oñazeren kostuz, irabazi zuan guretzat, galdu genduan Zerurako eskua. Ipiñi zuan bataioko Sakramentua, eta Sakramentu onen bidez barkatzen du bekatu jatorrizko, edo orijinala, au da arako lenbiziko gurasoetatik jatorriz datorkigun bekatu ura. Bataioko egun andi artan apaindu ginduan graziaren soñeko ederrarekin, egin ginduan Jaungoikoaren Seme, ta Zeruaren jabegai, edo heredero, lenago aditzera eman dan bezala. Baña Zeruko Erreñua ez da, doarik ematen dan gauza; geiegi balio du onela emateko; eta ara joan nai duanak gorde bear du leialki Jesusen lege Santa, eta garaitu bear ditu animaren etsaiak, nola diran demonioa, mundua, eta gerengan ditugun gura, eta griña txarrak. Au guk ongi egiteko, ipiñi zuan bigarren Sakramentu bat, *Konfirmazioa* deritzana: ta Sakramentu onekin sendotu ginduan, eta ornitu etsaiak garaitzeko arma ederrakin. Era onetan egin ginduan bere gudari, edo soldadu.

Baldin gu izan bagiñan Jesu-Kritoren gerrari leialak, etzan Konfesioko Sakramentuaren bearrak; baña ekusi zuan Jesus onak, zeñ makurtuak geunden gaitzeron, eta geienak eroriko giñala bekatuan: eta ainbesteraño urrikaldu zan guzaz, non ipiñi zuan irugarren Sakramentu bat, bataioa ezkeroko bekatuak barkatzeko, eta au da *Penitentzia* edo *Konfesioko* Sakramentua. Deitzen zaio *Penitentzia*, zeren egindako bekatuen damua eskatzen duan: eta deitzen zaio *Konfesioko* edo *Konfesiokoa* zeren Sakramentu au ongi artzeko, aitortu, edo konfesatu bear diran bekatuak. Onen gañean itzegin uste det luzaro, eta onetarako baliatuko naiz lenbiziko Komunioaren liburuak dakartzian Erakusaldiaz. Orregatik Sakramentu onen gañean itzegiten dedan jaietan, arretarekin begiratu bear dezue, zer dakarren liburuak ukitzen dedan gaian.

Asieran galdetzen du gisa onetan: «Eliz Ama Santaren Sakramentuen artean irugarrena zein da? Erantzuten du Penitentzia, edo



Konfesioko Sakramentua. (Lenengo ipintzen due batzuek Komunioko Sakramentua, baña berdin da guretzat lenago, edo geroago ipintzea). Zer da Penitentzia, edo Konfesioko Sakramentua? Bekatariaren aldetik biotzeko damua, aozko Konfesioa, eta obrazko satisfakzioa: eta Konfesoarearen aldetik absoluzioa. Nork utzi zion Eliz Ama Santari Sakramentu au? Jesu-Kristo gure Jaunak. Jesu-Kristoren etorrera baño len ez ote zan Konfesorik? Moisesi Jaunak letraz ezarririk lege zarra eman zion artean, etzan izan konfesorik, ez eta gero ere lege zarraren azpian bizi etziranen artean. Moisesen legean ote zan Konfesorik? Omen zan Jauna, Konfesioa, baña Sakramentu etzana, eta bekatuak barkatzeko indarrik, eta kemenik etzuana. Beraz Jesu-Kristo etorri zan artean, etzan izan bekatariatzat barkaziorik? Bai, Jauna, fede, esperanza, eta onezko damu, edo kontrizio osoarekin biurtzen baziran Jaunagana. Nori utzi zion Jesu-Kristok bekatuak barkatzeko eskua? Ez edozeñi, baizik Apostoluai, Obispo Jaunai, eta oek, Konfesioko aditzeko, bidaltzen dituen Apaizai».

Orra lenbiziko Komunioaren liburuak Sakramentu onen gañean asieratik dakarrena: eta liburuak laburki ukitzen dituan, gauz oek berak luzeseago adiraztea izango da gaurko Erakusaldia. Enzun arretarekin, Kristaia.

§ I.

Konfesioko Sakramentua bekatariaren aldetik da biotzeko damua, biritza ontzeko asmo osoarekin, aozko konfesioa, eta obrazko satisfakzioa: eta konfesoarearen aldetik absoluzioa. Ez da Sakramentu au gizonen obra, edo gizonak asmatutako gauzaren bat, baizik Jesu-Kristok bere Elizari utzia Zerura igo zan aurretik, eta besterik esatea da herejia bat, eta debekatua dago exkomiku nagusiarekin. *Anathema sit*.

Sakramentu au ipiñia dago bataioa ezkerreko bekatuan erori dan edozeñentzat. Emendik bekatu larri edo mortalean erori danak ez du barkazioaren ustetik zer artu, lotsaz, beldurez, edo gaiztakeriaz aitortu nai ezpadu bekatua. Alferrik negar egingo du, eta aterako ditu baraurik gogorrenak: alferrik bere izan guziak zabalduko ditu beartsuen artean: ez du barkaziorik iritsiko, artu nai ezpadu Konfesioko Sakramentua, aitortzen dituala egin dituan bekatu eriozko, edo mortalak. Gerta liteke, eta sarritan gertatzen da, bekataria eriotzako perillean, eta konfesatzeko lekurik gabe arkitzea: orduan iritsi dezake, konfesio gabe ere, bere bekatuen barkazioa,

fede, esperanza, karidade, edo onezko damuarekin; baña orduan ere izan beardu konfesatzeko borondate, edo asmo egiazkoa. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Au da Jesu-Kristok, gure bekatuen barkaziorako, utzi zigun bidea.

Etziran gauzak onela igaro munduaren lenengo lau milla urteetan, edo munduaren asieratik Jesu-Kristo etorrian artean. Lege naturallean, edo lege letraz ezarria Moisesi Jaunak eman zion artean etzan izan konfesorik, eta bekatariak iritsi zezakean barkazioa, fede, esperanza, ta onezko damuarekin biurtzen bazan Jaunagana; baña gutxi izan ziran au egin zuenak: gizona amilka joan zan bekatuaren bideetan, eta usteldu zan gaiztakeria gaizkeriaren gañean egiñaz, ainstesteraño, non damutu zitzaion Jaunari, gizona egin zualako, eta bidaldurik mundu guzia estali zuen ujola izugarriak, bukatu zituan lurraren gañean arkitzen ziran Adanen umeak, ala gizonak, nola emakumeak, ala zarrak, nola gazteak. Noe, ta beraren etxeokak ez, beste guziak. Era onetan garbitu zuan lurra, bekatuz zikindu zuen, gizon, eta emakume enasetatik.

Eman zien gero Jakob en ondorengoai bere legea ez nolana, baizik letraz ezarria. Lege onek agintzen zien Israeldarri bekatuen aitormen, edo konfesio moduren bat; baña eztakigu nolakoa zan konfesio au. Batzuek dioe, bekatuen barkaziorako onezko damu, edo kontrizioarekin eskeñi bear zitzaizkala Jaunari Apaizaren bidez doai, edo sakrifizioaren batzuek, eta onetan aitortzen zuan bekatariak nolerebait bere bekatua. Beste bazuek dioe, Apaizari, edo Profetari esan bear ziozkala bekatariak bere bekatuak, guk esan bear ditugun eran. Baña dana dala lege zarreko konfesio onez, etzan au Sakramentu, gure legeko konfesioa bezala, eta etzuan indarrik, edo kemenik bekatuak kentzeko. Alaere laguntzen zuan, gizona erraza izan etzedin bekatuan erortzeko.

Etorri zan Jesu-Kristo, eta ekusten zuan zer giñan gu. Ekusten zuan lege naturalaren denboran konfesio gabe zer gertatu zan gizonarekin, eta orduko gizonen eran makurtuak geundela gaiztzeron. Ekusten zuan lege zarreko konfesioak itxura bai, ta kemenik etzuala, eta onezko damu, edo kontrizio osoa gabe ezin iritsi zezakeala bekatariak barkaziorik. Zer egin zuan bada gure Salbatzalleak? Ipiñi zuan Konfesioko Sakramentua. Era onetan alde batetik beartzen gaitu animako zauri guziak Apaizari agertzerara; bestela txit gutxi oroituko lirake Jaunagana biurtzeaz. Beste aldetik Sakramentu oni eman zion indarra bekatu mota guziak kentzeko prestatera onarekin artzen bada: eta onetarako etzuan eskatu onezko damu, edo, kontrizio osoa, baizik zerbait gutxisêago. Ekusten dezu, Kristaia, zeñ ederki prestatu dituan Jesus onak gauza guziak gure animak sendatzeko,



eta bekatutik gordetzeko? Ala ere geranak bagera; zer izango lizake konfesatu bearrik espagendu?

Konfesioko Sakramentua artu diteke, ez beñ bakarrik bataioa bezala, baizik nai dan guzian. Ala erabaki zuan Eliz Ama Santak hereje batzuen kontra.

§ II.

Esan det, Konfesioko Sakramentuak baduala indar, edo kemena bekatuak barkatzeko. Emendik Sakramentu onen emalleak badu onetarako eskua. Esku au etzion eman Jesu-Kristok edozeñi, Luterok esan zuan bezala. Anziñako denboran eriotzako perillean, Apaizik gabe arkitzen zanak nori nai esaten ziozkan bere bekatuak. Usanza au izan zan Erreñu onetan, emengo legeak adirazten duenez. Au bera egiten zuen itsasoan zebiltzanak, peril andiren batean ekusten ziranean; baña jakizue, Konfesusio au etzala Sakramentu, eta egiten zala Sakramentuaren naia agertzeko, eta Jaunagandik iristeko, onezko damu, edo kontrizio osoa. Galdetzen da, eriotzako perillean Apaizgabe arkitzen danak oraiñ, anziñako eran, egin degiokean Apaiz ez danari bere bekatuen konfesioa? Ezetz, dio Aita Santu Benedikto amalaugarrenak: zeren aldebatetik alferrik agertuko litukean bere utsegiteak, eta bestetik nolerebait bidea emango lukean, sinisteko, Luteroren eskolakoa dala; Luterok alabaña uste izan zuan, Kristau guziak duela Sakramentu au emateko eskua.

Nori bada eman zion Jesu-Kristok bekatuak barkatzeko esku miragarria? Apostolui, Obispo Jaunai, eta Konfesusioak aditzeko oek bidaltzen dituen Apaizai. Zu zera arria, eta arri onen gañean altxako det nik nere Eliza; eta zuri emango dizkitzut Zeruko erreñuaren, giltzak, esan zion Jesu-Kristok S. Pedrori: *Et tibi dabo claves regni Caelorum*, Zerura igo zan baño lenseago sartu zan Apostoluak zeuden tokira, eta itzegin zien era onetan: Nere Aitak ni bidaldu ninduan eran, nik ere bidaltzen zaituet zuek: Asnasarekin aizeman zuan Apostoluen alderonz, esaten ziela: Arrezazue Espiritu Santua: *Accipite Spiritum Sanctum*. zuek barkatzen diez-tezuenen bekatuak barkatuak izango dira, eta orain bertatik ere barkatzen zaizte. *Quorum remiseritis peccata, remittuntur eis*. Eta zuek barkatu gabe uzten dituzuenenak, barkatu gabe geratuko dira: *Et quorum retinueritis retenta sunt*. Itz oetan eman zien Jesu-Kristok bere Apostolui bekatuak barkatzeko esku andia; eta eman zien Elizaren onerako: orregatik igarotzen

da Apostoluen ondorengo Apaiz guzietara. Ala erakusten digu Eliz Ama Santak, eta sinisten due Katoliko guziak.

§ III.

Ekusten dezu, Kristaua, zer egin duan gure Salbatzalleak guri gure utsegiteak barkatzeko, eta Zerurako bidean gu ipintzeko? Bekatuak barkatzeko eskua Jainkoari bakarrik dagokan eskua da: eta esku au ematen dio Jesusek gizonari, eta batzuetan nolako gizonari? Bekatuz betea daganari bear bada. Arritu zaitezte Zeruak! Ta au gugatik egin duan Jaunaren ontasuna norañokoa izango da? Balia gaitezen bada ontasun onek prestatu digun Sakramentuaz, gure animak garbitzeko, Jaunaren grazian irauteko, eta iristeko betiko bizitza. Amen.



AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

§ I.

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean bigarrena.

ALABATUA &.

Asigiñan Konfesioko Sakramentuaren gañean itzegiten, eta lenengo Erakusaldian aditu zenduan, au dala Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan Sakramentuetatik bat. Bekatariaren aldetik da biotzeko damua bizitza ontzeko asmo osoarekin, aozko Konfesioa, eta obrazko satisfakzioa: eta Konfesorien aldetik absoluzioa. Aditu zenduan gañera, etziola Jesu-Kristok eman edozeñi bekatuak barkatzeko esku miragarria, baizik Apostolui, Obispo Jaunai, eta Konfesioak aditzeko oek bidaltzen dituen Apaizai. Oraiñ lenbiziko Komunioko liburuak dio era onetan.

«Zertako ipiñi zuan Jesu-Kristok Konfesioko Sakramentua? Eranzuten du: bataioa ezkerro egindako bekatuak barkatzeko.

Zer ondasun ote dakartzi barkazio onekin batean? Ondasun andiak, eta asko. Zeñ dira? Lenbizia barkatzen du, bekatuai zegoten betiko pena, eta aldatzen du, emen, edo Purgatorioan denboraz bukatuko dan penan. Bigarrena, biurtzen dio animari, bekatuarekin galdu zuan, graziaren apaindura, eta soñeko ederra, birtute, eta doai askorekin. Irugarrena, berriro egiten du Jaungoikoaren ume, eta adiskide, Jesu-Kristoren senide, Espiritu Santuaren bizileku, edo Eliza, eta Zeruairen jabegai. Laugarrena, ematen ditu, bekatuak aldegitoko, eta: bizitza onean irauteko Zeruko lagunak. Bostgarrena, ematen du askotan animako pakea, eta sosegu gozo bat. Seigarrena, piztutzen ditu, bekatuarekin illak geratu ziran, obra on, edo Zerurako irabaziak. Konfesatzen diran bekatari guziak artzen ote ditue ondasun oek? Ez Jauna, baizik konfesio ona egiten duanak».

Ona zer erakusten dizun lenbiziko Komunioko liburuak lenengo partearen bigarren Erakusaldian. Gauz oek ongi ezagutzea txit on asko ekarri dezakean gauza da, oen artean Konfesioko Sakramentua: ongi, ta sarritan artzea. Orregatik gaur aditzera eman nai dizut, Kristaua, lenbizia: zertako ipiñi zuan Jesu-Kristok Konfesioko Sakramentua. Urrena, zer ondasun dakartzian, ongi artzen danean. Enzun kontuz.

Bataioko Sakramentuan artu genduan graziaren janziera ederra guk gorde izatera, etzan beste Sakramenturen bearrik, bekatuen barkaziorako. Ala esaten digu Trentoko Konzilioak. Baña gutxi dira bataioko apaindura galtzen ez duenak, eta Jesu-Kristok, guziaren berri ongi dakienak bezala, ipiñi nai izan zuan Konfesioko Sakramentua, eta ipiñi zuan, bataioa ezkerro egindako bekatuak barkatzeko. Ala erakusten digu gure fede Santak. Emendik, ez dezu, Kristaua, ibilli bear zere burua berotzen, esaten dezula: *nola niri barkatuko dizkit Jaunak onenbeste bekatu, eta añ itsusiak?* Guziak barkatzeko ipiñi zuan Sakramentu au, eta, bear dan prestaerarekin artzen badezu, barkatuko dizkitzu egin dituzunak, diranak dirala. Orregatik, utzirik kezka farragarri oek, arreta andia ipiñi bear degu, gure, bizitza gaitozaz negar egiteko, eta Kristauari dagokan bezala bizitzeko.

Bekatuak batzuek dira eriozkoak, edo mortalak, besteak benialak. Bekatu eriozko, edo mortala da esatea, egilea, edo nai izatea zerbait Jaunaren legearen kontra gauza larri, edo pisuan. Bekatu beniala da, esatea, egiltea, edo nai izatea zerbait Jaunaren legearen kontra gauza ariñ, edo txikiren batean; edo da bekatu eriozko, edo mortalean erortzeko prestea, eta bidea: eta Konfesioko Sakramentuak badu indarra bekatu oek barkatzeko, ala eriozko, edo mortalak, nola benialak.

Bekatu benialak batzuetan arkitzen dira bekatu eriozko, edo mortalkin batean, eta orduan ez dira bekatu benialak barkatzen, Konfesioko Sakramentuarekin, edo onezko damu, ta kontrizio osoarekin baizik. Beste batzuetan bekatu benialak arkitzen dira berak utsik, edo mortal gabe, zeren Jaunaren grazian dagoala bat erorten dan bekatu benialen batzuetan. Bekatu benial oen barkazioa iritsi diteke bi gisatara. Iritsi diteke benik beñ Konfesioko Sakramentuarekin, bear dan damuarekin aitortzen dirala. Iritsi diteke gañera bekatu benialen barkazioa, Konfesioko Sakramentua kanpora, Elizak artako ipiñirik dauzkan erregu, eta bendizioekin, eta zerbait gauz onekin. Gauz. oek batzuen iritzian dira geiago, besteen ustean dira gutxiago, eta gure dotrinak dakartzianak dira bederatzitzi. Oek dira, lenengoa *Meza enzutea*, bigarrena; *komulgatzea*, irugarrena *konfesio jenerala*, laugarrena *Obispoaren bendizioa*, bostgarrena *ur bedeinkatua*, seigarrena *ogi bedeinkatua*, zazpigarrena *Aitagurea esatea*, zortzigarrena *Sermoia enzutea*, bederatzigarrena *Jaunari barkazio eskatuaz bularra jotzea*. Bederatzitzi oez gañera ipintzen ditue batzuek *limosna*, eta urte oro Aita



Santuak bedekatu oi dituan *Agnus*, edo bildotsaren argizagizko iduriak. Baña gai onetan engañatu etzaitzen, Kristaua, gogoan arrezazu esatera noana. Lenengo lekuan, ez dira bekatu benialak ere barkatzen, ezpada biotzean sortzen oen damua, edo beintzat damuaren indarra izan dezakean barrengo mugidaren bat. Demagun, Meza enzutean, komulgatzean, ur bedekatua artzean, esnatzen dala zugar Jaungoikoaganako amorioaren sua, ta alako sasoiari jartzen dala zure biotza, non gogorako balitzaizkitzu egin dituzun bekatu benialak, gorrotoz begiratuko zeniekeen. Jaungoikoaganako amorio onek barkatuko dizkitzu zure bekatu benialak, edo guziak, edo gorrotoz begiratuko zeniekeen aek. Demagun gañera, *ni bekataria* esatean, edo sermoia enzutean alako eran damutzen zatzula Jaunaren kontra egin dituzun bekatuaz non gorrotoz begiratu zeniekeen bekatu benialai ere, oez oroitu ezker. Au asko lizake bekatu benialen barkazioa iristeko, baña ez nola nai, baizik zure biotzeko sasoiaren neurrian. Bigarrena, dotrinak dakartzian bederatziz gauzak berenez ez due indarririk bekatu benialak barkatzeko, baña egokiak dira Jaungoikoaganako amorioa, edo bekatuen damua sortzen laguntzeko; eta emendik ipiñi dira, bekatu benialak barkatzen dituen, gauzen artean. Irugarrena, oitu zaite, Kristaua, fede bizi, eta jaiera andiarekin gauz oek egitera. Atzenez, oituz txit ederra da fede, esperantza, karidade, eta onezko damua sarritan sortzea, alegiñean zabaltzen dala damua bekatu guzietara. Baña biur gaitzen Konfesioko Sakramentura, eta ekusi dezagun, zer ondasunak dakartzian, bekatuen barkazioarekin batean.

§ II.

Esan det, Konfesioko Sakramentuak baduala indarra bekatuak barkatzeko, ala eriozko, edo mortalak, nola benialak. Baña ez du beñere uzten anima barkazio utsarekin edo soilldua bezala baizik barkazio onekin batean ematen diozka ondasun andiak. Ondasun onen artean bata da barkatzea bekatuari zegoten, betiko pena, aldatzen duala, geienean beintzat, emen, edo purgatorioan denboraz bukatuko dan penan. Bekatu eriozko, edo mortalak Jaunari egiten dion, bidegabekeria neurririk ez duana da, eta dagoka betiko pena; au da, betiraunde guzirako geratzea bekataria Zerutik erbestetua, eta betiko su, eta garren artean. Pena au barkatzen dio Jaunak bekatariari, ongi konfesatzen dan unean bertan; baña geienean betiko pena onen orde bidaltzen diozka, edo siñalaten zenbait

neke, eta gurutze, ez betikoak, baizik bukatuko diranak edo emen, edo Purgatorioan. Adani barkatu zion Jaunak sagar debekatua jatean egin zuan bekatua, beragana biurtu zan unean. Barkatu zion gañera betiko pena, baña onen lekuan prestatu ziozkan bederatzieun urteko neke andiak. Barkatu ziozkan Dabidi ere bere bekatuak, eta oen betiko pena, baña geratu zitzaizkan neke, eta nai gabe txit samiñak, emen igaro bear izan zituanak. Au onela egin oi du Jaunak geienean bekatariarekin. Alaere gerta liteke, bekatari bat biurtzea Jaunagana biotz añ prestu, ta damu añ biziarekin, non iritsi lezakean bekatuen, eta oei dagoten penaren barkazio osoa ere. Ala uste degu, iritsi zuela Magdalena batek, eta beste zenbait bekatariak.

Konfesioko Sakramentuak dakarren bigarren ondasuna da animari biurtzea, bekatuarekin galdu zuan, graziaren apaindura, eta soñeko ederra, birtute, eta doai askorekin. Bekatariak bekatu eriozko, edo mortalari leku eman zionean, galdu zuan graziaren doai miragarria: galdu zituan karidadearen birtutea, eta Espiritu Santuaren doaiak, eta geratu zan esan al baño itsusiago, eta nazkagarriago egiña Jaunaren begietan. Baña Konfesioko Sakramentua artzen badu ongi, edo prestaera onarekin, orduan Aita Zerukoak, Abanjelioko seme ondatzalleari bezala ematen dio pakezko musua, eta biurtzen dio galdu zuan graziaren janziera ederra: *stolam primam*. eta graziarekin batean karidadearen eraztuna, eta Espiritu Santuaren doaiak. Añ ederra uzten du graziaren apaindura onek bekatariaren anima, non eziñ bear bezala aditzera eman dezakean gizonaren mingañak. Asko da jakitea agertu ziola Jaunak Santa Katalina Senakoari grazian zegoan anima baten edertasuna, eta geratu zala Santa ariturik, eta zer esan etziakian eran.

Konfesioko Sakramentuak dakarren irugarren ondasuna da berriro egitea bekataria Jaungoikoaren ume edo seme, ta adiskide: *Jesu-Kristoren senide, Espiritu Santuaren bizileku edo Eliza, eta Zeruaen jabegai*. Bai nere Kristaua: Konfesioko Sakramentua ongi artu dezunean, graziaren soñeko ederrarekin egin zaitu bere seme; ez zeren gizona izatez, edo naturalez izan ditekean Jaungoikoaren seme, baizik zeren *aintzakotzat* artzen zaituan. Ekusi ezazue, norañoko onginai, ta amorioa guganonz agertu duan Jaunak, esaten digu S. Juanek: *Videte qualem charitatem dedit nobis*: bada eman digu bere semeen izena ezezik, izatea ere bai: *Ut filii Dei nominemur, et simus*. Egiten du gañera bekataria Jaungoikoaren adiskide, au aditzera eman zuan Jesu-Kristok, esan zienean Apostolui: *emendik aurrera ez dizuet esango*: nere serbitzariak, *baizik* Nere adiskideak. Egiten ere du *Jesu-Kristoren senide*, Aita baten umeak alabaña senideak dira, eta Jesu-Kristo da



gure aita Zerukoaren-Semea, ez nola nai, baikik, bere izatez, edo natura-lezaz eta bera gatik ditu Aitaren edertasun, eta perfekzio guziak. Orregatik egiaz esan dezakegu S. Paulorekin Jesu-Kristo dala gure senide nagusia. Egiten ere du bekatiaren biotza Espiritu Santuaren *bizileku* edo *Eliza*. Au zuk ongi aditzeko, demagun, Eliz oni erortzen zaizkala tellatuak, zarrakutzen pareteak eta len Trinitade guziz Santa adoratzen, eta alabatzen zan tokia betetzen dala arriz, eta ondakiñez. Laster beteko da larrez, osiñez eta biurtuko da surangillen, zuge, ta piztien bizileku. Demagun gañera, garbitzen duela era onetan geratu zan Eliza: berritzen ditue pareteak eta tellatuak: zuritzen, eta ederki apaintzen due. Asitzen dira Jaunaren alabantzak kantatzen, Mezak esaten, eta ipintzen due Aldareko Sakramentua bere lekuan. Orduan len surangillen, suge, ta piztien bizileku zan tokia biurtzen da Espiritu Santuaren bizileku, edo Eliza. Eta orra, Kristaua, Konfesioko Sakramentuak zurekin egiten duana, ongi artzen badezu. Bataioko Sakramentuarekin egin zinduan Jaunak Espiritu Santuaren Jauregi, edo Eliza. Erori ziñan bekatuan, eta zure biotza egin zan anziñako suge, edo dragoiaren lize; baña Konfesioko Sakramentuarekin garbitu, zuritu, apaindu, eta geratu da berriro Espiritu Santuaren jauregi, edo Eliza egiña. Eztakizue, dio San Paulok; eztakizue, zuen gorputz oriek dirala Espiritu Santuaren bizileku, edo Eliza? *An nescitis, quoniam membra vesira templum sunt Spiritus Sancti?* Au dio San Paulok, eta edozeñ bekatarri ariturik utzi bear lukeen gauzak gogora datoz emendik. Esan gidazu bekataria: izango ote zenduke ausardia Aldareko Sakramentua egoten dan onzia esku zikiñakin erabiltzeko, edo loiez zikin-tzeko? Ez det sinisten. Eta orrelako gauzarik gertatu-balitzatu, etzenduke orain negar egingo? Ongi. Eta nola, eta zenbat bider izan dezu ausardia Espiritu Santuaren bizileku, edo Eliza zan gorputz ari esku zikinakin erabiltzeko, dala zere bakarrean, dala besterekin? Atzenean, Konfesioko Sakramentuak egiten du bekataria Zeruairen jabegai, edo herederu; egiten du alabaña, len esan dan eran, Jaungoikoaren Seme, eta Semea da Aitaren ondasunen jabegai. Orregatik dio S. Paulok: Serneak bagera: *Si filii*, beraz gera jabe gaiak: *Et haeredes*.

Konfesioko Sakramentuak dakarren laugarren ondasuna da bekatarriari ematea bekatutik, aldegitiko, eta bizitza onean irauteko Zeruko lagunzak. Abanjejiloko seme ondatzalleari Aita Zerukoak eman ziozkan, leneko janzia, ta eraztuna ezezik oñetako ederrak ere bai, zegokan eran ibiltzeko. Oñetako aek aditzera ematen ditue bekatutik aldegitiko, eta bizitza onari jarraitzeko bear dituan lagunzak; oek gabe alabaña ez da gai pensamentu on bat, edo Jesus bear bezala esateko ere, S. Paulok esaten

digun bezala: *Nemo potest dicere: Doaminus Jesus nisi in Spiritu Sancto*. Orregatik ez da zer miretsi, Kristau asko bekatuan berriz eta berriz erortzen badira, zeren Sakramentu au edo gaizki, edo berandutik berandurartzen duen, galtzen dituela Zeruko indar, eta laguntza asko.

Konfesioko Sakramentuak askotan dakarren bostgarren ondasuna da animako pake, eta sosegu gozo bat, Trentoko Konzilioak esaten digun bezala Espiritu Santuaren frutuen artean bigarrena da Pakea, eta zazpigarrena espirituko gozoa, edo atsegin garbi bat, munduak ezagutzen ez duana: Gizonaren biotza beti dago bere gura, eta griña txarrakin asaldatua: ekiten dioe oen bagak, beñ alde batetik, gero bestetik, eta oek ukatuaz, eziaz, edo ilduratuaz datorkio animari barrengo pake gozo bat, eta onetarako laguntzen dio Konfesioko Sakramentuak. Zenbat eta obeto ezitzen dituan animak bere gura, eta griñak, anbat andiagoo da beregan daukan pakea, eta gogoz, eta gustoz ari da obra onak egiten. Emendik ugaritzen zaio Zeruko ondasunen ustea, eta zabaltzen zaio biotzean gozo, eta atsegin bat muduko atsegin guziak garaitzen dituana. Atsegin oen berririk ez du bere gura txarren ondoren. bizi danak; baña noizbait biurtzen bada Jaunagana, konfessio onaren bidez, bear bada añ andia da orduan beregan daukan poza, non gorotzari bezala begiratzen dien munduan progatu, edo dastatu dituan, atsegin guziaz.

Azkenean Konfesioko Sakramentuak dakarren seigarren ondasuna da, bekatuarekin illak geratu ziran obra on, edo Zerurako irabaziaz piztutzea. Bekatu eriozko, edo mortala da animarentzat puzoi añ indartsua, non batetan iltzen, eta galtzen dituan orduraño egindako obra on guziak. Ala aditzera ematen digu Ezekiel Profetak: *Omnes justitiae ejus, quas fecerat, non recordabuntur*; baña Konfesioko Sakramentuak piztutzen ditu, Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala.

Ekusten dezu, Kristaua, zer ondasunak dakartzian Konfesioko Sakramentuak, ongi artzen danean? Baña zeñ gauza negargarria geienakin gertatzen dana! Gutxi dira ondasun oek artzeko azkartzen diranak! Askok dira Konfessio gaiztoak egiten dituenak. Askok dira berandutik berandura, eta bortxaz bezala Sakramentu au artzen duenak. Askok dira atzenean prestaera gutxiarekin konfesatzen diranak. Onela galtzen ditugu Sakramentu onetatik atera gintzakean ondasunak.

Nere Kristaua, noiz bait, noiz bait begira degiogun gure animen onari. Denbora egokian esna gaitzen gure bizimodua zuzentzeko. Egin dezagun alegiña Konfesioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko, eta oekin batean iristeko beti iraungo duan Zeruko gloria. Amen.



AMALUGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean irugarrena.

ALABATUA &

Azkeneko aldian aditu zinduan, Kristaua, konfesio onak dakartzian, ondasun andi, eta frutu gozoak. Orain lenbiziko Komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Zenbat gauza bear dira Konfesio on bat egiteko? Erantzuten du: Bost gauza. Zein dira? Lenengoa examina. Bigarrena dolorea, edo egindako utsegiteen damua. Irugarrena, bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Laugarrena konfesioa. Bostgarrena satisfakzioa.

Zenbat gauzatar biurtzen dira, esan dituzun, bost oek? Irutara. Zein dira? Biotzeko damua, aozko konfesioa, eta obratzko satisfakzioa. Zergatik bost gauza oek biurtzen dira iru oetara? Zeren examina biurtzen dan konfesio onera, eta bizitza ontzeko asmoa egiazko damura? Zer izen eman oi zate biotzeko damuari, aozko konfesioari, eta Obratzko satisfakzioari? *Penitenziaren iru parteen* izena. Zergatik ori? Zeren iru gauz oek txit bearrak diran Penitenziako Sakramentua osatzeko, eta bekaturen barkazioa osatoro iristeko».

Lenbiziko Komunioaren liburuak emen ukitzen dituan bost gauz oek izango dira gaurko Erakusaldiaren gaia. Aurrena aditzera emango det, nola bost gauz oetatik bakoitza bear dan konfesio ona egiteko. Urrena ukituko det, zer arreta ipintzen degun gai onetan. Asi gaitzezen bertatik.

§ I.

Konfesio on bat egiteko, bear dan lenengo gauza da examina: au da egindako utsegite, edo bekaturen kontuak ateratzea. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Bekatariak aitortu, edo konfesatu bear ditu egin dituan bekatu eriozko, edo mortalak, ez nola nai, baizik esaten duala, zer birtute, edo mandamenturen kontra, nola, eta zenbat bider utsegin duan. Eta nola au egingo du ongi, ezpada arretarik ipintzen kontuak ateratzeko? Au aditzen da eriotzako perillik ezpada, edo perill au izan arren, examina

egiteko tokia bada; eriotzako perillean alabaña beñi baño geiagotan gertatzen da bizitza guziko konfesioak berritzeko premian egotea eria, eta examina egiteko lekurik gaitzak ez ematea. Orduan alegin guzia egiten da eriarri sorrerazteko bekaturen damu egiazkoa, eta bizitza ontzeko asmo osoa: gero, betarik ematen badu gaitzak, osatzen da examina.

Konfesio ona egiteko bear dan bigarren gauza da egindako utsegiteen damua, edo dolorea. Ala dio Trentoko Konzilioak. *Animi dolor, ac detestatio*. Ez da ordea asko edozeñ damu Urliak galdu du jokoan, edo trabesean duan guzia: sandia zikindu eta erdi-usteldu da, bekatuaren bideetan dabilela; berendia ezkongura geiegiarekin kuturtu da atsegin lotsagarrietara, eta utzi due kirastua dagoan gauza bezala: damu andiarekin daude oek; baña damu au da emengo kalteetatik sortua, ez Zerutikakoa, edo sobrenaturala, eta au da Konfesio onak eskatzen duana. Alaere emengo neke, eta kalteak askotan, laguntzen dioe bekatariari Zeruko damuaren mallara igotzen, Abanjelioko seme ondatzallearekin gertatu zan bezala. Gastatu zuan onek, atsegin lizunen ondoren zebilela, etxetik zegokan guzia: ekusi zuan bere burua ezer gabe, goseak erkitua, eta jarri zan morroi; baña suerteak eman zion nagusi bat an zikoitza, eta zimurra, non ipifri zuan txerrizai; eta txerrien bazkatik ere etzuan gosea iltzeko diña. Gure ezkutari ergela etzan bere Aita onagana biurtzeaz oroitu orduraño; baña ekusirik bere burua era añ negargarrian, asi zan esnatzen, eta zion beregan: nere Aitaren etxean serbitzariak ere ogi zuria jaten due, eta emen nago ni, zerriak jaten duenetik ere, nai adiña ez dedala, goseak igaroa, eta iltzeko zorian: *Fame peræ*. Zer egingo det? Baña badakit zer egin: joango naiz nere Aita onagana, eta esango diot: Aita, egin det bekatu zure kontra, eta ez dagokit zure Semearen onra; baña ar nazazu zure serbitzarien artean bederik. Orra, nola Abanjelioko seme ondatzallea emengo nekekin, eta Jaunak bere adimentu argitzen ziola, zentzatu, eta biurtu zan bere Aita Zerukoagana.

Konfesio ona egiteko bear dan irugarren gauza da bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Ala esaten digu Trentoko Konzilioak. *Cum proposito non peccandi de cetero*. Asmo au, benazkoa, eta osoa bada, zabaltzen da bekatu eriozko, edo mortal guzietara, eta sendoro erabakitzen du biotzak aurrera bekaturik ez egitea beñere, ez eriotzgatik, ez. bizitzagatik. Asmo au agertu zuan S. Paulok, esan zuanean. *Zerk galeraziko dit niri Jesus onaren ongnai, eta amorioa? Quis nos separavit á charitate Christi? Galerazoko ote dit neke, edo naigabe andiren batek? An tribulatio? Galeraziko ote dit goseak, eta larrugorritasunak? An rames, an nuditas? Garleraziko ote dit ezpada nere lepoan ekustek? An gladius? Ez, dio*



Santuak: ez eriotzak, ez bizitzak, ez dit galeraziko niri nere Jesus ona amateza. *Neque mors, neque vita*. Orra zeñ benaz, eta osotoro erabaki zuan S. Paulok bekatuik ez egitea ezergatik; eta nola erabaki, ala eman zuan bizitza ezpataren kolpez. Gañera bizitza ontzeko asmoa (benazkoa, eta osoa danean) *eragillea* da, esan nai det, esnatzen eta azkartzen duala bekataria, aurrera bekatuik ez egiteko neurri egokiak artzeko. Neurri oen artean jakiñetzak dira oek: dotrina jakiteko alegiña egitea, eta bere kontukoai erakustea, bekatuak bide, eta perrillak betiko utzitzea: griña txarrak ezitze-ko bakoitza saiatzea: lagun urkoari bekatuak bidea ematen dioen itz, eta modu itsusiak betiko utzitzea: aide, auzo, edo beste lagun urkoakin gorroto, edo gorrotoaren anza duan gauzarik bada, pakeak egitea: kalterik egin bazaio lagun urkoari, dala onran, edo izen onean, dala beste ondasunetan, oek desegitea, eta bakoitzari berea biurtzea. Atzenean bakoitzak duan estadu, eta karguari dagozkan egin-bideak ezagutzea, eta oei erantzuteko arreta ipintzea. Neurri oek artzen badira, orduan bizitza ontzeko asmoa da egiazkoa, osoa, eta eragillea; bestela da iduripen utsa.

Konfesio ona egiteko bear dan laugarren gauza da aitortzea, edo konfesatzea Apaizari examinan arkitu diran bekatu eriozko, edo mortalak. Ala erakusten digu gure fede santak. Onetarako esan bear degu, zer Mandamenturen kontra, nola, eta zenbat bider utsegin degun. Esan det, aitortu bear dirala examinan arkitu diran bekatuak, zeren, examina arretaz eginda, gogoratzen ezpadira bekatuak batzuek, konfesio ona izan diteke gogora etorri diranak esatearekin. Era berean konfesatzeko. Denboran zerbait aztutzen bada. Egia da, beartua geratzen dala bat, bekatu oek gero esatera, gogoratzen badira. Esan det, gañera, aitortu bear dirala bekatu *eriozko edo mortalak*; ez da alabaña premiazko gauza *benialak* esatea, eta beragatik utzi ditezke esan gabe, dio Trentoko Konzilioak, zeren konfesioaz kanpora beste bide askoz iritsi ditekean oen barkazioa. Orregatik konfesioaren ondoren gogoratzen bazatzu, konfesatu ez dezun, bekatu benialen bat, etzabiltza Jauna artzeko kezka, eta beldurrez; ipintzen dezula bear bada zere burua komunio gaiztoa egiteko perillean. Eska zaiozu Jaunari bekatu orren barkazioa, aurrera ez egiteko asmoarekin, eta zoaz Jauna artzera.

Konfesio ona:egiteko bear dan bostgarren gauza da *satisfakzioa*, edo bekatuari darraikan penari erantzutea. Bekatu eriozko, edo mortalari, darraikio betiko pena, au da betiraunde guzian Zerutik erbestetua, eta betiko su, eta garren artean egon-bearra. Bekatuarekin batean pena betiko au barkatzen dio Jaunak ongi konfesatzen danari; baña, onen orde, edo lekuan eman oi dio emen, edo Purgatorioan denboraz bukatuko dan

penaren bat. Ala erakusten, digu Trentoko Konzilioak. Demagun urliak, edo Sandiak egiten duala gure Jaun Erregeren kontra gaiztakeri itsusi bat, eriotzaren pena legeak ipintzen diona. Aitortzen du bere gaizki egiña, eta agintzen da, ken dakiola bizia, lau laurden egin dedilla, eta puska bakoitza ipiñi dedilla leku agiri batzuetan. Aditzen du gaizkilleak au guzia ta erregutzen dio Erregeri urrikaldu dedilla artzaz. Demagun barkatzen diola Erregek, askotan gertatzen dan bezala, eriotzaren pena, eta onen lekuan ematen diola amar urte Iruñeko gazteluan igarotzeko pena. Gisa onetan barkatu oi dio Jaunak ongi konfesatzen danari betiko pena, eta onen orde, ematen dio, emen, edo Purgatorioan igaro bearko duan neke, eta pena, baña ez betikoa, baizik denboraz aituko dana. Orregatik konfesioak ipintzen ditue penitenziak, eta gauza bearra da oek leialki egiteko asmoa, edo borondatea. Gañera arretarekin egin bear dira agintzen zaizkigun gauz oek, zeren eziñ Zerura ditekean iñor ere bekatuen zorrak osotoro atera gabe.

Orra, nere Kristaua; nola gauza bearrak diran konfesio ona egiteko, asieratik aitatu, eta izendatu diran bost gauzak, edo examina, egindako utsegiteen damua, bizitza ontzeko, edo aurrera bekatuik ez egiteko asmoa, konfesio, eta satisfakzioa. Dakuskun orain, zer arreta ipintzen degun gai onetan.

§ II.

Begiratzen badegu, nola bizi diran Kristaurik geienak, ekusiko degu, ezin konta al dirala, konfesio ona egiteko bear diran bost gauza, oetan ardurarik ipintzen ez duenak. Batzuek, ez due begiratzen zer Mandamenturen kontra, nola, eta zenbat bider bekatu egin duen. Galde bekie batzuei, egin dezu biraurik? Bai, Jauna. Zer birau? *Eztanda egingo aldek, itoko al aiz, Deabruak eramango al au*. Birau oriek egin dituzu egun oro? eta zenbat bider azkeneko konfesiotik, oraindaño? *Makiña bat, Jauna*. Ordea zenbat bider gutxi gora bera? *Frankotan Jauna*. Era onetan geratzen da konfesoia, zer egin ezta kiala. Beste batzuek ez dira saiatzen damu egiazkoa sortzeko bide egokiak gogora ekartzera: eta nola gure biotzetan sortuko da damu *Zerutikako* edo sobrenaturala, animari artarako bide egokiak bejien aurrean ipintzen ezpazaizka? Eta nola gogora ekarriko ditu bide oek, beñere ikasi, ezpadu? Eta ez ote dira arkituko *Akto* kontriziozkoaren itzak ere ikasi ez dituenak? Eta au gertatzen bada examina, eta



damuaren aldetik, zer gertatuko ez da bizitza ontzeko asmoaren gañean? Arkituko dira, Kristauari dagokan dotrina ikasteko saiatzen ez diranak. Arkituko dira bekaturako bideak, etxeak, eta lagun gaiztoak urteetan utzi ez dituenak. Arkituko dira, anziñatik oitura gaiztoa duenak birau, ta juramentuak nola nai egiteko, edanean igarotzeko, ukitze lotsagarriak egiteko, itz desonestoak esateko, lagun urkoai bekaturako bidea emateko. Arkituko dira, beren nekearekin ederki bizi litezkeanak, baña alferkeriari, erriz erri ibiltzeari ederretsirik gaizki bizi diranak. Lenago Etiopiako beltz bat elurra bezala zurituko da: lenago katamotsak, edo tigreak utziko ditu bere nabardurak, oek alferkeria utziko duen baño. Zer esango det, lagun urkoari, edo erriari egindako kaltea desegiteko biotzik ez duenaz? Zer esango det, lagun urkoari berea biurtzeko, eta zorrai erantzuteko arretarik ez duenaz? Zer esango det, beren estadu, edo karguak dituan, egin-bide, edo obligazioak ezagutzeko, eta oei erantzuteko azkartzen ez diranak? Igaro zaite Kristaua, konfesio ona egiteko bear dan laugarren gauzara: au da bakoitzak bere bekatuak agertzea, edo aitortzea diran bezala. Zenbat, eta zenbat izango dira lotsaz bekatuak edertzen, edo ezkututzen dituenak? Zenbat edanerako oitura, eta emendik datozkion kalteak edertzen dituenak? Zenbat..? baña geiegi luzatuko nintzeke, alde onetatik gertatzen danari jarraituko banio. Atzenean ez dira gutxi, konfesoareak emandako penitenziak nola nai utzitzen dituenak.

Orra, nere Kristaua, zefi arreta gutxi degun konfesioko Sakramentuarekin gure animak garbitzeko, eta sendatzeko. Ez ote gera noiz bait zentzatuko? Ea, egin dezagun alegiña, emendik aurrera Sakramentu enek eskatzen dituan gauzak leialki egiteko, bizi gaitezen Kristauari dagokan eran, eta onela iritsiko degu betiko bizitza doatsua. Amen.

AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean laugarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko erakusaldian ukitu nituan, konfesio on bat egiteko bear diran, bost gauzak. Oen artean lenengoa da examina. Onen gañean lenbiziko Komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Zer, da examina? Erantzuten du: egindako utsegite, edo bekatuen kontuak ateratzea. Zer egingo dezu onetarako? Bost gauza. Zein dira? Lenbizia: jarriko naiz Jaunaren aurrean leku egokiren batean, eta adoratu det umiltasun, eta errespeto guziarekin, goizeko jaieran erakusten dan bezala. Bigarrena, emango diozkat eskerrak egin dizkidan mesede guziagatik, baña batezere zeren oraindano itxeden didan, bekatutik irteteko, eta beragana biurtzeko. Irugarrena, eskatuko diot Espiritu Santuari argia, eta lagunza, nere utsegiteak ezagutzeko, ongi damutzeko eta konfesatzeko. Laugarrena, begiratuko det, azkeneko konfesion bekatu larriren bat aztu ote zitzatan, eta emandako penitentzia egin nuan, edo ez. Bostgarrena, animaren begien aurrean ipiñiko ditut Jainkoaren Legeko amar Aginteak, Eliz Ama Santaren bostak, eta nere estadu, bizimodu, eta karguak dituan egin-bideak, eta kontu aterako det, nola, eta zenbat bider utsegin dedan bakoitzaren kontra. Orra lenbiziko Komunioaren liburuak, azkeneko konfesiostatik oraindanoiko examinaren gañean dakarrena».

Examina batzuetan egiten da, ez konfesorako asmoarekin, baiziki griña txarren bat garaitzeko, edo birtuteren bat iristeko. Animako gauzetan Maisu andiak diranak erakusten digue, examina sarritan egitea dala sendagai txit andia bakoitzak bere gura, eta griña erbesak eskuratzeko, eta birtuteak iristeko. Orregatik Erljioko ordena batzuetan egun oro bi aldiz egiten da examina; ala agindu zuen S. Basiliok, eta S. Ignaziok. Leku batzuetan lenbiziko Komuniorako prestatzen dauden aurrai erakusten zate au goizeko, eta arratseko jaieran, eta gero erraz oitutzen dira Konfesiok eskatzen duan prestaerara. Emen ere au bera egiten degu ala aurrakin, nola aziakin. Aurrakin, Komunioko prestaera ikastera datozen egunetan: eta aziakin goizeko Mezan, eta arratsaldeko dotrinaren ondoren; baña batzuek daude añ landugabeak, non zeren gañean itzegiten zaten igerritzen ez duen. Pitagoras fedegabea, eta jentilla zan: alaere bere



ikasleai esaten zien, autu bear zituela egunean bi denbora, eta gogora eka-
rri bear zituela iru gauza: *Zer egin det, nola egin det, eta egin gabe zer utzi det.*
Au zion jentil batek, eta au erakusten zuan bere eskolan: eta izanik gu
Kristauak, ez degu arretarik beste onenbeste ikasteko, eta egiteko? Ez da
au gauza lotsagarria?

Beste batzuetan egiten da examina, Konfesioko Sakramentua arte-
ko asmoarekin: eta au izan diteke azkeneko konfesiotik oraindañokoa,
edo bizitza guzikoa, edo urte batzuetakoa. Gaur itzegingo det azkeneko
Konfesiotik oraindañoko examinaren gañean. Aurrena ukituko ditut, exa-
minaren aurretik egin bear ginduzkean gauzak. Urrena, examinako den-
boran egin bear diranak. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Gauz egokia izango lizake examinaren aurretik lenengo lekuan,
Jaunaren aurrean jartzea, eta Jaun bera adoratzea umiltasun, eta errespe-
to guziarekin; zeren asiera onek asko laguntzen duan examina, eta edozeñ
gauza ongi egiteko. Baña zer ote da Jaunaren aurrean jartzea? Da fedea-
ren argiarekin gogora ekartzea, eta sinistea, begira dagokigula, leku guziak
betetzen dituan gure Jaun Andia, eta ekusten dituala argiro, egin ditugun
bekatu guziak, baita biotzaren zokorik ezkutatuenetan daudenak ere. Ni
nerau naiz gauz orien juez, eta testigu, esaten digu berak: *Ego sum iudex et
testis* (Jerem 29). Bigarrena, gauz egokia da Jaunari eskerrak ematea, egin
dizkigun mesede guziakgatik, baña batezere zeren itxedon digun bekatu-
tik irteteko, eta beragana biurtzeko. Alde batetik alabaña nai du Jaunak
guk ezagutzea, eta aitortzea egin dizkigun mesedeak, eta oen artean ez da
txikiena itxedon digun eran itxedotea, bidaldurik beste asko betiko su, eta
garren artera; eta beste aldetik ezaguera onek laguntzen dio biotzari beka-
tuen damua sortzeko. Irugarrena, gauz egokia da eskatzea Espiritu
Santuari argia, ta laguntza, gure utsegiteak ezagutzeko, oen damu egiazkoa
sortzeko, eta konfesatzeko. Zergatik au? Zeren S. Paulok esaten digun
bezala, ez geran gauza Jesus bat esateko ere, bidaltzen ezpadigu Espiritu
Santuak bere lagunza *Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto.*
Eta Jesus bat bear bezala esateko gauza ezpagera, zer izango da bekatuak
ezagutzeko? Illuntzen due adimentua griña txarrak, zokoz, eta tolesturaz
betea dago biotza, eta sarritan ezpadabill examinaren iunzia, edo erratza,
autsez, eta amamaz estaliak dauden gela illunen anza dauka: orregatik ez

da erraz bekatariak bere bekatuak ongi ezagutzea, eta beardu onetarako
Espiritu Santuaren argia. Nork ezagutzen ditu bekatuak? zion Dabidek:
Delicta quis intelligit? Garbinazazu Jauna, ezkututzen zaizkidan nere beka-
tuetatik, eta barkagizkidatzu besteenak ere, edo besteak nigatik egin ditue-
nak: *Ab oculis meis munda me, et ab alienis parce servo tuo.* Gauz oek erraz egi-
ten ditue aurrak lenbiziko Komunioaren liburutik; baita emakume askok
ere, baña gizonak (irakurtzen dakienak ere) gutxi dira liburuaz baliatzen
diranak; batzuek zeren lotsatzen diran liburuarekin egoteaz; eta beste
batzuek, zeren euskera irakurtzera oituak ez dauden. Nork sinis dezake
au? Emakumeak alde onetatik laudagarriak dira. Goazen oraiñ examina-
ko denboran egin bear diran gauzai begiraldi bat ematera.

§ II.

Examinako denboran egin bear diran gauzen artean lenengoa da
begiratzea, azkeneko konfesioan bekatu larri, edo mortalen bat aztu ote
zitzazun, eta emandako penitenziak egin zinduan, edo ez; beartua zaude
alabaña oek esatera, edo aitortzera. Bekatu larri, edo mortala ezpada aztu
zitzatzuna, ez da premiasko gauza au esatea.

Examinako denboran egin bear dan bigarren gauza da animaren
begien aurrean ipintzea Jainkoaren Legeko amar Aginteak, eta Eliz Ama
Santaren bostak; eta ispillu onetan begiratu bear dezu, zer, nola eta zen-
bat bider utsegin dezun mandamentu bakoitzaren kontra. Asko Kristau
dira txit zabarrak Mandamentuen ispillu oni begiratzeko; emendik dator
garbiro ez esatea, zer bekatu egin dituen gogo, edo pensamentu utsez, zer
itzez, eta zer obraz. Zor bat ateratzera dijoanek, ez oi ditu eraman nastuak
urra, zillarra, eta kuartoak, baizik bereis, bakoitza bere lekuan. Emendik
dator gañera, zenbat bider bekatu egin dan pensamentuz, zenbat bider
itzez, eta zenbat bider obraz, konturik batere ez ateratzea. Galdetzen dio
konfesoreak: *zenbat bider egin dezu ori?* Eranzuten dio: *frankotan Jauna: zen-
bat bider ura? frankotan.* Beste batzuek dira, geiena autsitzen duen
Mandamentu ari begiratu nai ez dioenak, zeren ark agertzen diezten bere
bekatu itsusiak. Enbidiaren bekatuetan erori danak ez dio gogoz begira-
tuko bostgarren Mandamentuari, ez eta edaleak ere: amarren, eta primi-
ziak sisatzen dituanak ez dio begiratu nai Elizaren bostgarren
Mandamentuari: eta orobat gertatzen da geiena autsitzen diran beste
Mandamentuakin. Apaiz batek omen zituan bi ispillu; bata gauzak ziran



eran erakusten zituana, eta bestea edertzen zituana. Serbitzaria adiñean aurreratua eta zimurturaz betea bide zegoan. Begiratu zion lenengo ispilluari, eta nola begien aurrean ipiñi ziozkan bere zimurturak, bereala aldegin zuan argandik muzinka. Ordutanik etzions autsik kendu ispillu leial ari; eta egon oi zan amamaz betea. Begiratu zion bigarren ispilluari, eta onek erakusten zuan serbitzariaren aurpegia ogei urte zituanean beñ ederra, garbia, ta leuna. Eta oni arretaz kontu egiten zion sarritan garbitzen, eta gordetzen omen zuan, autsak, eta euliak zikindu etzezen. Beste onenbeste egiten du bekatariak Mandamentu batzuen ispilluarekin: ez dio oetan begiratu nai bere buruari, zeren begien aurrean ipintzen diozkeen egin dituan bekatuak.

Examinako denboran egin bear dan irugarren gauza da, seigarren mandamentuaren kontrako gauzak diranean, begiratzea, urlia aidea dan, edo ez, zer estadutakoa dan.

Examinako denboran egin bear dan laugarren gauza da begiratzea, eman ote diogun lagun urkoari bekatuak biderik, dala zabarkeriaz, dala artarako sarea, edo moduren bat prestatuaz. Zabarkeriaz gerta diteke gurasoetan, eta animen kargua duenetan, era berean erriko kargudunetan. Au gertatu bada, begiratu bear da gañera, *zenbat bider; ta zenbat laguni bakoitzean bekatuak bidea eman zaion*. ez da alabaña oro bat bat iltzea, eta sei, zortzi, edo amar iltzea, eta bekatuak bidea ematen duanak beregan danez iltzen ditu artarako bidea eman dien guziak. Begiratu ere bear da, bekatuak bidea eman zuten umeai, senideai, aideai. Baña zenbait añ dira jakinezak, edo zabarrak animako gauzetan, non gauz oek ezertan artzen ez dituen.

Examinako denboran egin bear dan bostgarren gauza da begiratzea, oraingo aldian gertatu diran bekatuak etorri ote diran, leneko konfesaldietan izan dan, oitura gaiztoren bat garaitzeko neurriak artu gabez. Ala bada, neurriak *ez artze au beste bekatua da*. Au askotan gertatzen da birauak botatzeko, juramentu gezurrezkoak egiteko, edanean igarotzeko, itz desonestoak esateko oitura duenakin Orañ egindako bekatuetatik bat izan oida oitura gaiztoa uzteko neurri egokiak ez artzea.

Examinako denboran egin bear dan seigarren gauza da begiratzea, zeñ ote dan gure bekatuen sustraia. Urlia onraren gurari geiegi itsasia dago, ta emendik dator aide onetatik ukitzen badue, erraz irristatzea birauetan, eta edozeñ gauza esatea lagun urkoaren kontra. Bekatu oen sustraia da onraren era gabeko gura. Sandiak artu du edari bizitxoetarako grña: ez da osotoro orditzen, baña lasaitzen da seigarrengo utsegiteetan, edo aserre, ta gorrotoaren suan erazekitzen zaio. Bekatu oen sustraia da

edari bizia. Berendiak, nekeari ongi jarraitzen diola, irabazi lezake bereztat, eta umeentzat bear duana: agertu liteke ederki bere mallan; baña ederretsi dio alperkeriari. Emendik zorren azpian geratzea: emendik emaztearen negarrak: emendik edanean igarotzea era atxitzen dan guzian: emendik luxuria eta aserreak. Bekatu oen sustrai nagusia da alperkeria. Sustrai oek ebakitzen ez dirala, ez dira aituko oetatik jaiotzen diran bekatuak; eta ebakitzeko, ezagutu, eta agertu bear dira konfesioan; eta au egin gabez gertatzen zaio bekatuari, nekazari bati meloi belarrarekin gertatzen zaiona. Betetzen zaio soro eder bat meloi belarrez: ebakitzen ditu agertu diran ostoak, baña alferrik, sustraia galtzeko sasoi atxitzen ezpada. Au bera gertatzen zaie bada esan ditugun bekatariak: aitortzen, edo konfesatzen ditue bekatuen ostoak, baña ez oen sustraia, eta au erretzen, edo galtzen ez dan bitartean animako soroa beti egongo da bekatuen belarrez betea. Begira bada, Kristaua, ez bakarrik agirian dauden bekatu oriei, bai ta orien sustraiak ere. Ekusiko dezu batzuen sustraia dala onraren egarri geiegi bat, besteena kutizia; batzuen ezkongura, besteena edari biziai jarraitzea; batzuen alperkeria, besteena gauetan ordu onan ez etxeratzea, besteena apaingura eragabekoa.

Examinako denboran egin bear dan zazpigarren gauza da begien aurrean ipintzea zure estadu, bizimodu, eta karguak dituan eginbideak. Ispillu onetan begiratzen badiegu geren buruai eztakit nolakoak ekusiko geran. Ezkongura, eta gurasoa zera?, Beartua zaude etxeaz, eta umeaz kontu idukitzera, bearrari jarraitzera, Zerurako bidea eraskustera, ez itzez bakarrik, baita ere geiago zerori aurretik zoazela. Erriko kargudun zera, edo izan zera? Beartua zaude juramentuz beartada, erriaren gauzetan erriari, Komunarenetan Komunari leialki begiratuzera, batarena besteri emangabe. Beartua zaude bekatu larri, edo mortalaren azpian, zeregan danez eragoztera, erriko jendea galtzeko diran, edarien sarrera. Gai onetan ez naiz sartzen onen, edo aren kontra itzegitera, ez eta Erri onetako kargudun izan diranak markatzera ere; baña guziok aditzen degu, zertaraño igaro diran gauzak beste erri askotan. Zuazte Tolosara, ekusten omendira inguruetakoa emakumeak, taldez, edari bizien etxean sartzen: irteten dira andik, batzuek begietako lausoarekin, besteak alfereziaren aize txarrak ukituak, besteak bonbillak arzelluan dituela. Gauz oek norknai dakizkianak omen dira, eta besagatik esaten ditut. Zoazte inguroko beste erri askotara. Adituko dezue, len ardo adiña, edo geiago saltzen dala edari zuritik. Ez omen dira kontentatzen gizonak ardo utsarekin, baizik bear due txuritik. Adituko dezue, goizetik asi, eta arratsaraño dabiltzala ontzi txikiak, eta andiak, eta zenbaitek edari biurtzen dituala artoa, garia, oia,



gonak, gorputza, eta anima. Adituko dezue, arkitzen dirala sei, edo zazpi urte dituen aurrak non nai edaria dastatzeko ipiñi ditezkeanak. Adituko dezue, atzanean, kaleetan ezezik baserrietan ere asi dirala zenbait aurrak goizetik ematen edari bizitik. Zer emen gertatzen dan, ezin esan dezaket, baña bai gaitz au guziz itsaskorra dala, eta etxeak, gorputzak, eta animak galtzeko perillean ipiñiko dituala. Orregatik beartuak daude bekatu larri, edo mortalaren azpian *erretorea*, *erriko kargudunak*, *batzarreetan* joateko eskuaduenak, beren aldetik alegiña egitera, miñanze au sartu ez dedin erri onetan, eta sartzen asia bada, deserritu dedin osotoro. Au egin nai ez duana ezta gai Sakramentuak artzeko, eta ez du izango parterik Zeruko erreñuan. Orregatik begiratu bear degu examinako denboran, nola erantzuten diegun gure estadu, bizimodu, eta karguaren eginbideai. Asko da gaurko.

§ III.

Ekusten dezu Kristaua, gauz askori begiratu bear diegula examina ongi egiteko, azkeneko konfesiotik oraindañokoa baizik, egin bear ezpalizere. Au guzia txit erraz egiten du, maiz, eta arretarekin konfesatzen danak, baña ez zabarrak. Etxe bat, sarritan garbitzen bada, erraz iunziarekin igarotzen du garbitzalleak; baña denbora luzeetan garbitu ezpada, betetzen dira zoko guziak amamaz, armiarmez, autsez, eta zikinkeriaz, eta nekez garbitzen da. Orregatik, zenbait Kristau zabarrek egiten dituen konfesioetan, esaten dituen bekatuak baño geiago dira bear bada, esan gabe geratzen zaiztenak, zeren examinaren erratza ibilli ez dan zoko guzietan. Nere Kristauak izan gaitezen azkarrak animaren gauzetan: eta zuek, gurasoak, etzaitzela izan sorrak, eta gorra aurrak bidaltzeko eskolara, eta dotrinara. Onela guziok moldagaitezke Zerurako bidean, eta iritsi dezakegu betiko bizitza. Amen.

AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean bostgarrena.

ALABATUA &.

Aditu zenduan, Kristaua, azkeneko Erakusaldian, zer dan, konfesio ona egiteko bear dan, examina. Aditu zinduan gañera, examinaren aurretik, eta examinako denboran egin bear lirakean, asko gauza. Orduan itzegin nuan azkeneko konfesiotik oraindañoko examinaren gañean bakarrik. Askotan gertatzen da, Kristaua arkitzea konfesioak berritzeko premian, zeren lenekoak gaiztoak izan ziran, eta orduan, gauzak ongi egiteko, jakin bearda, zer gisatan egin bear duan examina, eta au guri erakusteko, lenbiziko Komunioaren liburuak dio era onetan.

«Esan dezu, nola egin bear dan azkeneko konfesiotik oraindañoko examina. Demagun, aurtasunetik, edo geroz egin dituzula konfesio gaiztoren batzuek, nola egingo dezu, oek berritzeko bear dan, examina? Erantzuten du. Lenbizia jarriko naiz Jaunaren aurrean, eta adoratu det umiltasun, eta errespeto guziarekin. Bigarrena, emango diozkat eskerrak Junari, egin dizkidan mesede guziakgatik, baña batez ere zeren oraindañoi itxedon didan bekatutik irteteko, eta beragana biurtzeko. Irugarrena eskatuko diot Espiritu Santuari argia, eta lagunza. nere utsegiteak ezagutzeko, ongi damutzeko eta konfesatzeko. Laugarrena, begiratuko det, zenbat denbora, edo urte dan, gaizki konfesatzen asi ninzala: bataz beste urtean zenbat konfesio, eta Komunio egin ditudan bitarte orretan. Bostgarrena, konfesatzen nitzanean, oroitzen ote nintzan leneko Konfesio, eta Komunio gaiztoaz. Seigarrena, animaren begien aurrean ipiniko ditut Jainkoaren Legeko amar Aginteak, Eliz Ama Santaren bostak, nere estadu, bizimodu, eta karguak dituan eginbideak, eta kontu aterako det, nola, eta zenbat bider utsegin dedan bakoitzaren kontra. Zazpigarrena, zenbat bider utsegin dedan oroitu ezin banaiz, alik ongiena kontu aterako det, zer oitura gaizto izan dedan Mandamentu bakoitzean, astean edo illean zenbat bider erortzen nintzan, *pensamentuz*, *itzez*, eta *obraz* gutxi gora bera». Orra zer erakusten digun lenbiziko komunioko liburuak, konfesioak berritzeko egin bear dan, examinaren gañean. Onenbesterekin molda diteke konfesioak berritzeko premian arkitzen dana, batez ere mugonean konfessorearekin itzegiten badu bere premia onen gañean.



Konfesoioak berritzeari deitzen zaio *Konfesoio jenerala* egitea, zeren azkeneko konfesiostatik oraindanioko bekatuak ezetik, lenekoak ere berritoki esaten diran. Konfesoioak berritze au batzuentzat da kalte andiko gauza; besteentzat txit ona, eta askorentzat premiastkoa. Orregatik gaur aditzera eman nai dizut, Kristaia, lenbia: norentzat izan oidan kalte andikoa. Bigarrena, *norentzat ona*. Irugarrena, nor diran konfesoioak berritzeko premian bizi diranak. Asi gaiten bertatik.

§ I.

Konfesoioak berritzea, edo konfesoio jenerala egitea batzuentzat da kalte andiko gauza. Ala erakusten dige animen Maisu andiak. Norentzat ordea izan oi da kaltetsua *Konfesoio jenerala*? Len prestaera onarekin konfesoio jenerala eginda bizitza onari jarraitu dioen animentzat, batezere bereenez beldurtiak badira. Onelakoak, leen ematen bazate, garizuma, eta Misio guzietan, beren, eta konfesoioaren buruak berotuko ditue, eta jarriko dira zenzua galtzeko perill andian. *Jauna, esango due: eztaikit konfesoio jeneralean bear adina esan nuan, edo ez: eztaikit onelako, edo alako bekatu aditzera enan nuan, edo ez, bear bezala*. Atozea: etzenduan orduan esan, zina, eta eza gutzen zenduan guzia? Etzina asmo orrekin prestatu, eta jarri konfesatzen? Etzina orduan poz andi batekin geratu? Zer zabiltza bada zere barren guzia erretzen, eta kiskaltzen gauza zar oriekin? Onelako bekatarientzat ez da beste sendagairik, Konfesoioaren esanera itsu-itsuan jartzea baizik. Au da gizon jakiunde andikoak erakusten diguena. Kontatzen da, ill bat agertu zitzaioala bere adiskide bati. Adiskide au zan animako gauzetan txit beldurtia, eta kezka beterik erraz, eta bide andigabe ibilli oi zana. Bereala asi zitzaion illari bere beldur, eta kezka esaten, baia etzion beretik eranzun illak, ezpada: *galde zaiezu jakintsuai, eta egizu oen esana*.

§ II.

Konfesoioak berritzea askorentzat da txit ona. Ara norentzat. Lenbia: estadu, bizimodu, edo kargu perill andikoren bat artu bear, edo artu duanarentzat, dala Apaizen, dala ezkonduen, dala erretoreen bizimodu. Orregatik pregoiak eskatzen dituenai esan oi diet, presta ditezela denborarik galdu gabe, konfesoio jeneral bat egiteko, nai duenarekin, eta ez

ditezela elkarrekin bakarrik jarri. Bigarrena, ona da konfesoio jenerala urteren batzuetan zenbait bekaturan askotan erori, eta bizitza onari txit benaz ekin nai dionentzat. Ala S. Franzisko Salesek jaiera, edo deboziozko bizitza artu nai duanari, beste gauzen artean, erakusten dio konfesoio jeneralen bidea. Irugarrena ona da errietako karguetan nastuak bizitu diranentzat, batez ere erriaren, edo komunaren ondasunak eskutartean erabili badira. Erri batzuetarako aditzen diran gauzak, egiak badira, neke da alako tokietan kargudun izatea, eta anima ez galtzea. Eta zer diot kargudun izatea? Neke da batzarreetan sartzea, eta Satanasi ez jarraitzea. Laugarrena, aserreen, auzi eta esanmesen artean bizitu diranentzat ona izan oi da konfesoio jenerala. Bostgarrena, ona ezetik premiastkoa izan oi da asko ezkonduentzat, zeren elkarganako ongina, eta amoriorik. izan ez duen, edo zeren gauz itsusi, ta debekatuak, (aur asko izateko beldurrez) egi izan dituen, eta garbi konfesatzeko biotzik izan ez duen. Seigarrena, ona izan oi da konfesoio jenerala amasei, edo ogei urteetan sartzen diranentzat: zeren asko adin orretara joaten dira konfesatzera, besteak egiten duena egiteagatik, austerrez autsa artzera joaten diran bezala. Atzenean ona da konfesoio jenerala, len egin ez duentzat, beren ustean zintzoro bizitu balirake ere. Dakuskun orain, nor diran konfesoioak berritzeko premian bizi diranak.

§ III.

Konfesoioak berritzeko premian bizi dira lenengo lekuan lotsaz, beldurrez, edo gaiztakeriaz bekatu eriozko, edo mortalen bat konfesoioan utzi duenak. Oetatik asko izan oi dira, batezere emakumeen, eta ezkonduen artean. Au bera gertatzen da zenbait aldiz gizonak gizonakin, emakumeak emakumeekin, baikotzak bere buruarekin, edo animaliak egin dako gauz itsusiak egin dituenen.

Konfesoioak berritzeko premian bizi dira bigarrena, bekatu eriozko, edo mortala ote dan, edo eztan, beldurrekin gauz itsusiren batzuek egiten dituenak, eta galdetzeko arretarik ez duanak. Onelako ez gutxi arkituko dira ezkonduen artean. Suerteak eman dio urliari, edo sandiari gizon bat an zikiia, enasa, ta nazkagarria, non eragiten diozkan, Jaungoikoak debekatzen dituan, asko gauza emazteari. Kezka andiarekin bizi da au, bekatu ote diran edo ez; baia losatzen da konfesoioari galdetzeko, eta senar zikiia beartzen du bekatu diran gauzetara. Kezka oekin bizitu



danak berritu bear ditu konfesoak, igaroa igaro dan bezala aitortzen duala.

Konfesoak berritzeko premian bizi dira irugarrena, len konfeso jeneralak egin bazituen ere, baldin orduan lotsaz, edo bestela gaitakeriaz konfesatu gabe utzi bazuen bekatu larri, edo mortalen bat, edo aintzakotzat zeukeena. Demagun, urlia gaizki bizitu dala, eta lotsaz uzten zituala konfesatu gabe zenbait bekatu. Egiten du garizuman, edo Misioko denboran konfeso jenerala, eta aitortzen edo esaten ditu, len lotsaz esan gabe uzten zituan bekatu aek ere: ez ordea lotsaz utzi zituala. Au egin badu, oartua zegoala, berritu bear ditu konfesoak, dana dan bezala esaten diola konfesoari.

Konfesoak berritzeko premian bizi dira laugarrena, Kristauak jakin bear duan dotrina ikasteko. saiatu ez diranak saiatu litezkeala. Negar egiteko gauza da arkitzea zenbait Kristau adiñean sartuak, añ landu gabeak, eta jakinezak, non eztaikien onezko damu, edo akto kontriziozkoa, bekatu jatorrizkoaren, edo orijinalaren berririk ere ez: eztakie zer eskatzen duen *Aita gurearen* erregu labur-ederrean eztakie zer dan grazia: eztakie zer diran, eta zertako Sakramentuak. Oek ez dira saiatu jakin bear duena ikasteko, eta nolakoak izango ziran oen konfesoak?

Konfesoak berritzeko premian bizi dira bostgarrena, bekatuak bide, eta perill urkoak uzteko biotzik izan ez duenak, utzi zitzaizkeela; bitarte orretan alabaña ez due izan bizitza ontzeko asmo oso, ta eragillerik. Nola ori? zeren bizitza ontzeko asmo oso eragillea duanak, artzen ditu onetarako neurri egokiak, eta oetatik bat da bekatuak bide, eta perill urkoak utzitzea. Nekazari batek nola izango du artoa, ta garia egiteko asmo osoa, ezpaditu artzen artarako neurri egokiak, nola diran lurrak maneatzea, azia ereitea, eta beste lan asko? Gazteak, gaitzeron kolokatzan diranetik, asitzen dira bekatuen sarea berentzat, eta besteentzat eotzen: gaur auzoko etxean izan oi diran, neskatxen, eta mutilen bilkui, edo batzarreetan, bigar erriko, eta inguruko festetan; gaur iñuteriko lasakerietan, bigar Tolosan. Eorik gisa onetan bekatuak sareak uura bezala edaten dira bekatuak, eta ez dira ezertan artzen, araurreneko bekatuak iristen ezpadira: eta alegeranzaren izena eman oi zate. Alferrik geienean egingo due konfesoak alegiña, betiko utzi ditzeen onelako gazteak perill oek: eta emendik dator konfeso gaiztoak egitea, eta berritzeko premian bizitza.

Konfesoak berritzeko premian bizi dira seigarrena, bekatuen baten oitura uzteko saiatu ez diranak, edo artarako neurri egokiak artu nai izan ez dituenak. Oetatik izan oi dira biraugilleak, juramentuak nolainai, naiz

egiaren, naiz gezurraren gañean egiten dituenak: gurasoai edozeñ lotsagabekeria eranzuten diezanak: edanean maiz igarotzen diranak: edari bizietara itsuturik, artoa, oiko zapiak, gonarik onenak, gorputza, ta anima saltzen dituenak: itz loi desonestoak esaten, keñada lotsagarriak, ukitze zikiñak egiten dituenak oituraz: oek, eta beste oen antzeko asko bizi dira konfesoak berritzeko premian, zeren oitura gaiztoa uzteko asmo oso, eta eragillerik izan ez duen. Eta nola ongi berrituko ditue, onelako asmorik ezpadue? Eta nola asmo au izango due, ezpadue biotzik oitura gaiztoa garaitzeko neurri, edo modu egokiak artzeko? Oek au egin baño len, elurra bezala zurituko da Etiopiako beltz bat: eta lenago katamotzak utziko ditu bere mantxa nabarrak, Jeremiasek dion bezala: *Si Aethiops mutare potest pellem suam, aut pardus varietates suas, et vos poteritis bene facere, dum didiceritis malum.* Esan beza ezperen oraindano ekusi danak; esan beza Pazkoa ondoan gertatudanak.

Konfesoak berritzeko premian bizi dira zazpigarrena, lagun urkoaganako gorrotoan, edo beintzat gorrotoaren siñaleak agertuaz iraun duenak denbora luzean; gaiztoak dira alabaña, bitarte orretan egin dituen, konfesoak *Ez nik gorrotorik*, esango due; baña beti daude prest etsaiari txarkeria egiteko, era datorkienean, azaria olloa atxitzeko prest dagoan eran. Onelakoetatik asko izan oi dira auzo, aide, eta errenteroen artean, noizbait txarkeriaren bat egin badie lagun urkoak. Onelakoen artean bekatu jatorrizkoaren eran igaro oi da aurrekoetatik ondorengoetara gorrotoa. Ez nik gorrotorik dio besteak ere, baña poztutzen da, lagun urkoari etorri bazaio kalteren bat, eta barrena illuntzen, eta tristuraz betetzen zaio aren berri onak aditzean. *Ez nik gorrotorik*; baña ukatzen, edo muzinka egiten due diosala. Onelakoak ez oi due egin konfeso onik, eta bizi dira egindakoak berritzeko premian.

Konfesoak berritzeko premian bizi dira zortzigarrena, lagun urkoari egindako kalteak desegiteko, eta bakoitzari berea biurtzeko arretarik gabe bizitu diranak. Oetatik asko omen dira, errietako ondasunai eskua egozteko era izan duenen artean, asko edanean, jokoan, apainduretan, zorrak ateratzeko beardana, ondatzen duenak.

Konfesoak berritzeko premian bizi dira bederatzigarrena, guraren bati biotza osotoro itsatsia iduki duenak, alako eran, non gura ura atzeratu gabez, bizitu diran Mandamenturen bat autsitzeko perill urkoan. Au gerta diteke edozeñ gurarekin, baña batez ere onraren, ondasunen, edanaren, alperkeriaren, eta ezkonzaren gurarekin. Gura oei, lapa arkaitzari bezala, itsasten bazate biotza, ipiñiko due perill urkoan bekatu askotan erortzeko.



Konfesioak berritzeko premian bizi dira amargarrena, beren estadu, eta karguaren eginbideak jakiteko, zabarrak izan diranak. Ezpadu arretarik Erretoreak bere karguaren eginbideak jakiteko, nola oei eranzungo die? Era berean *Alkate, Errejidore, Bolsero, Bezino, Diputaduak* ezpadakizki bere egin bideak, eta jakin ere nai ezpaditu: ordenanzak irakurtzen ezpaditu, nola eranzungo dio bere karguari? Nik dakidana da Santo Thomasekin Teologoak erakusten diguela, bekatu larri, edo mortalaren azpian beartuak gaudela, gure estadu, eta karguari dagozkan gauzak jakitera: *Singuli autem tenentur scire ea, quae ad eorum statum, vel officium spectant*. Emendik atera ezazue zeñ perill andiko gauza dan errietako kargu, eta batzarretan batek bere burua sartzea. Guziok dakigu, zeñ zintzoak diran emengo Jaunak; alaere askoren artean izango dira bearbada itsuitsuan erriko batzarre, eta kargetan sartu ziranak, eta beren eginbide, eta ordenanzen berririk gabe bizitu diranak. Eta ekusia dago oen premia konfesioak berritzeko. Zer esango det gurasoaz? Oetatik askok eztakie, zer eginbide dituen, eta nola eranzungo dieza? Baña geieki luzatuko nintzake guzia ukituko banu.

§ IV.

Baderitzat, nere Kristauna, aditzera eman ditudan gauz oetatik igerri dezakezula, nor diran konfesioak berritzeko premian bizi diranak. Ez ote zera zu ere oetatik bat? Ala bazera enzun ezazu esatera noana. Lenengo lekuan, ez utzi egiteko ori eriotzako ordurako. Orduan ez dizu bearbada lekuri emango gaitzak: ala gertatu zate askori: *Jauna*, esaten zidan batek: *nere konfesioak berritu nai nitukean*. Eranzun nion: *eztago orretarako lekuri: zeren eriotza alde aldean daukagun; egin dezagun alegin guzia damu egiazkoa, eta bizitza ontzeko asmo osoa zortzeko*. Ill zan konfesioak berritzeko lekuri gabe. Eta gaitzak leku emango balizu ere, nola moldatuko ziñake zure konfesio okerrak zuzentzeko? Gaitzak aldebatetik, eriotzaren, eta ondorengo kontuen beldurrak bestetik utziko zindukee ezertako etzerala.

Bigarrena, lenbait len asi zaite zure prestaera egiten, eta au ongi egiten dezunean zoaz Konfessoreagana, eta umilki esan giozkatzu zure utsegiteak. Onena da lenagotik Konfessorearekin egotea, era bada. Ez luzatu lan au egunetik egunera, bestela zure gain izan liteke batetan Jaunaren ase-
rea, Espiritu Santuak esaten dizun bezala.

Irugarrena, ona da, ta ona ezezik bearra bekatuen kontuak arretarekin ateratzea, baña askoz bearragoa da damu egiazkoa, eta bizitza ontzeko neurri egokiak artzea. Egizu, nere Kristauna, denbora dezun bitartean alegiña, bizitza ontzeko: bizi zaite Jaunaren pakean, eta emango dizu zuretzat prestatua daukan betiko bizitza. Amen.



AMAZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean seigarrena.

ALABATUA &.

Lenbiziko Komunioko liburuak, lenengo partearen bostgarren Erakusaldian, dio gisa onetan.

«Esan dezu, nola egin bear dan azkeneko Konfesiotik oraindañoko examina. Demagun, aurtasunetik, edo geroz egin dituzula Konfesio gaiztoren batzuek. Nola egingo dezu, oek berritzeko bear dan, examina? Lenbizia, jarriko naiz Jaunaren aurrean, eta adoratu det umiltasun, eta errespeto guziarekin. Bigarrena, emango diozkat eskerrak Jaunari, egin dizkidan mesede guziakgatik, baña batezere zeren oraindaño itxedon didan bekatutik irteteko, eta beragana biurtzeko. Irugarrena, eskatuko diot Espiritu Santuari argia, ta lagunza, ñere utsegiteak ezagutzeko, ongi damutzeko, eta konfesatzeko. Laugarrena, begiratuko det, zenbat denbora, edo urte dan gaizki konfesatzen asi ninzala, bataz beste urtean zenbat Konfesio, eta Komunio egin ditudan bitarte orretan. Bostgarrena, konfesatzen nintzanean oroitzen ote nintzan leneko Konfesio, eta Komunio gaiztoaz. Seigarrena, animaren begien aurrean ipiñiko ditut Jainkoaren legeko amar aginteak, Eliz Ama Santaren bostak, nere estadu, bizimodu, eta karguak dituan eginbideak, eta konta aterako det, nola, eta zenbat bider utsegin dedan bakoitzaren kontra. Zazpigarrena, zenbat bider utsegin dedan, oroitu ezin banaiz, alik ongiena kontu aterako det, zer oitura gaizto izan dedan mandamentu bakoitzean: astein, edo illean zenbat bider erortzen nintzan pensamentuz, itzez, eta obraz gutxi gora bera». Orra lenbiziko Komunioko liburuak Konfesioak berritzeko examinaren gañean dakarrena.

Azkeneko aldian aditu zenduan, Kristaua, Konfesioak berritzea, edo berbera dana, *Konfesio jenerala* norentzat dan kaltetsua; norentzat txit ona, eta atzanean nor diran Konfesioak berritzeko premian bizi diranak. Oen artean ez gutxi egon oi dira bekatuan oatuak bezala, Konfesioak berritzeko nekearen beldurrez. Beldur au utzita azkartu ditezen bekatari oek, bekatuen lizetik irteteko, gaur aditzera eman nai dieztet, lenbizia: Konfesio jeneralaren gañean gizon jakintsuak erakusten dizkiguen zen-

bait gauza. Urrena, Konfesio jeneralak ongi egiten danean ekarri oi dituan ondasun, eta frutu gozoak. Enzun kontuz, Kristaua.

Bekatarien artean asko dira Konfesioak berritzeko premia estuan bizi diranak, baña lan oni ekiteko biotzik ez duenak. *Nor oroitu, dioe, egin dituan bekatu guziaz? Ezta ori nere buruarentzat egin dako lana.* Aitzakia onekin etsi-etsian dijoaz eriotzaren atzaparretara, eta infernura. Onela bizi zeran, Kristaua, enzun itzatzu gai onetan gizon jakintsuak erakusten dizkiguen zenbat gauza, eta zuk ezagutuko dezu Konfesio jenerala ez dala zuk uste dezun bezeñ egiteko andia, Konfesioaren aldetik begiratzen zaiola.

Lenengoa: ona da, baña ez premiazko gauza bekatu benialak esatea, eta utzi ditezke esan gabe Konfesio jeneralean ere, Trentoko Konzilioak erakusten digunez, zeren oen barkazioa iritsi ditekean beste bide askoz. Era onetan asko gutxitzen da, examina egiteko, eta Konfesatzeko nekea.

Bigarrena: examina arretaz egiñ ondoan, zeregan arkitzen dituzun, bekatu eriozkoak, edo mortalak aitortu, edo Konfesatu bear dituzu, ez nolainai, baizik arkitu dituzun eran. Oroitzen zera, egin zenduala onelako, edo alako gaiztakeria? esan bear dezu bada, *egin zenduala*. Etzera ongi oroitzen, eta zabuan bezala zabiltza, *egin nuan, ez nuan*. Esazu *duda au eta baitezera* etziñagoa bazaude, esazu ori. Au da bekatuak *aitortzea*, edo *Konfesatzea* bakoitzak beregan arkitzen dituan bezala, eta asko da au, Trentoko Konzilioak erakusten digunez. Demagun, examina arretaz egiñarren, adiñarekin, neke, eta arazoakin aztu zaizkitzula bekatuen erdiak, edo geiago. Alaere ona izango da zure Konfesioa, gogora zaizkitzunak esaten badituzu, eta guziak barkatuko dizkitzu Jaunak. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Eta au onela izanik, neke andia ote da Konfesio jenerala, examinaren, eta Konfesioaren aldetik?

Irugarrena: Bekatu eriozko, edo mortalak aitortu bear dira beren *zenbatezkoarekin*, edo zenbat diran ainbeste. Egin dezagun kontu zortzi juramentu gezurrezko egin badituzu, ez dezu Konfesioan ari bear esaten banaka: *onelako ta alako juramentu egin nituan gezurraren gañean*, baizik bate-tan esan dezakezu: *egin ditut zortzi juramentu*. Aditzen da au, examina egiñik alik ongiena, ezagutzen badezu, zenbat diran egin dituzun bekatuak. Ala aditzera ematen digu Trentoko Konzilioak. Ezagutzen ezpadezu argiro, zenbat diran, baña bai *gutxi gora bera*, esazu: *onenbeste bider gutxi gora bera erori nintzan bekatu onetan, edo artan*. Ezagutzen ezpadezu, zenbat ziran, *gutxi gora bera ere*, baña bai batzuetan erori ziñala bekatu onetan, edo artan, esazu au, eta ongi esana izango da. Atozea, eta neke au añ izugarria da, non eziñ garaitu dezakezun?



Laugarrena: bekatariek era onetan *zenbatezkoaren* kontuak atera ditzake, gutxitan erori bada; baña neke da au egitea bekatuaren bideetan denbora luzean bizitu bada. Nola alabaña oroituko da, zenbat bider erori zan gogoz, edo pensamentuz? Zenbat bider itzez. Zenbat bider obraz? Zenbat bider zabarkeriaz, eta zenbat bider jakin bear zituan gauzak jakin-gabez? Batzuek, zenbat bider erori diran kontuak ateratzen, ardura guzia ipintzen due, eta zabartzen dira gauzarik bearrenean, edo egiazko damua, eta bizitza ontzeko asmoa sortzean, eta bearbada kontuak ezin ateraaz berotzen, eta nastutzen ditue eren buruak. Felipe bigarrenaren jauregiko zaldun batek egin nai izan zuan Konfesio jenerala: igaro zituan amabost egun kontu-ateratzen, eta berotu zuan burua *zenbatezkoaren billa*, baña alperrik. Konfesatu zan; baña, nola ezin esan izan zuan, zenbat bider erori zan, inguratu zuen milla kezkek, eta sartu zion bularretik bere buruari ganibeta, eta ill zan. Egia da, izan zuala denbora ezagutzeko bere utsegitia, eta sosegatua ill zala. Beste batzuek zer esaten duen ongi eztakiela, eunka, ta millaka bekatuak botatzen ditue. Galdetu zion Aita Calatayudek bati: *zenbat juramentu gezurrezko egin dituzu?* Eranzun zion: *zortzi milla, eta laureun. Zenbat birau bota dituzu? Bederatzi milla, eta bost eun.* Gisa onetan millaka Konfesatzen zituan juramentu, eta birauak, eta zenbat diran larogei doi doia jakingo omen zuan. Nork sinistuko die onelako bekataria?

Jauna, esango didazu: denbora luzean gaizki bizitu danak nola bada aterako ditu egindako bekatuen kontuak? Era onetan: begira beza aurrena; *zenbat denboran* mandamentu aren kontra gaizki bizitu dan? *urrena, egunean askotan*, edo *illean* bataz beste, zenbat bider erortzen zan *obraz, itzez*, eta, *pensamentuz?* Era onetan utsegiteko perill gutxirekin agertuko du, alduan eran, bere bizimodua. Begiratu bear du gañera, gaizki bizitu zan urte aetan igaro ote ziran illen batzuek bekatuan erori gabe, zeren erarik etzan, edo bizitza ontzeko asmo piskaren batzuek izan ziran.

Bostgarrena: seigarren Mandamentuaren kontrako bekatuen kontuak ateratzen diranean, berezi bear dira kolore, eta mota bakoitzekoak besteetatik: alde batera gizonak gizonarekin, edo emakumeak emakumearekin egiñak, bestera bakoitzak bere buruarekin egin dituanak. Alde batera ezkongaiakin egin diranak, bestera ezkonduakin, aideakin edo beste estadutakoakin egiñak. Eta norbaiti bekaturo bidea, edo eskandaloa eman zaionean, kontu atera bear da alegiñean, bakoitzean zenbati gutxi gora bera.

Seigarrena, gerta diteke ez oroitzea bekataria zenbat denboran gaizki bizitu zan artean, edo illean bataz beste zenbat bider erortzen zan, zeren urteakin joan zaizkan burutik gauz oek. Orduan egin beza alegiña

oroitzea, *denbora luzean, edo laburrean gaizki bizitu zan mandamentu onen, edo aren kontra, bekatu asko, edo gutxi izan ziran obraz, itzez, eta pensamentuz*, eta oen artean izan ote zan kolore, edo mota berezia zuanik. Era onetan alduan eran aditzera emango dio Konfesoari, zer bizimodu izan duan, eta ez dio Jaunak geiago eskatzen, beste gauzaz oroitzen ezdan ezker. Nork eztakus au edozeñek egin dezakeala neke andi gabe? Baña au aditzen da beti, examina egiteko alegiñean saiatzen dala bakoitza, gizon jakintsuen, edo Konfesoaren iritzian asko dan adiña denboran.

Zazpigarrena: gertatzen da askotan, bekatariek (examina ustez ongi egiñik) esate konfesio jeneralean zenbat *denboran gaizki bizitu zan, zer oitura gaizto izan zituan mandamentu bakoitzean, astean, edo illean zenbat bider erori oi zan gutxi gora bera*: eta gero, dotrinaren bat aditurik, gogora etortzea *nik bekatu au egin nuan, eta eztakit esan nuan, edo ez*. Au da gauza ongi ez aditzea. Atozea, etzinduan esan astean, edo illean egin oi zinduan bekatuak? Eta ez dezu ekusten bekatu ori ere aetatik bat dala? Utzi giezu bada alperrikako buru autsitze oriei. Besterik lizake konfesio jeneralean esan zinduan oitura gaiztoetan sartu etzan bekatu motaren bat gogorako baliz. Egin dezagun kontu, aitortu zenduan, onenbeste denboran izan zenduala astean iru bider birauak botatzeko oitura: gero gogoratzen zatzu iru aldiz Aitari egin zeniola birau: iru birau oek *Aitaren kontra egiteak duan gaiztakeriatik berezki* esan bear dira: gañerakoan ez da ibilli bear leneko gauzak irabiatzen. Egizu itsu-itsuan Konfesoaren esana.

Zortzigarrena: gertatzen da beste askotan, bekatariek batek bere, eta Konfesoaren iritzian (aurtasunetik asitzen dala) Konfesio jenerala ongi egitea, eta ondoren bizitza onari jarraitzea. Andik denboren buruan Misioren batean, edo libururen bat irakurtzean, edo bestela gogora etortzen zaio: *Nik egin nuan gaiztakeria au, eta eztakit Konfesio jeneralean esan nuan edo ez*. Orduan esantzat eman bear da bekatu ura, eta askori debekatu bear zate osotoro lena berriz erabiltzea. Atozea nola oroituko zera, zer, ta nola esan zenduan oraiñ iru, edo amar urte egin zenduan Konfesio jeneralean? Neke da, eta beragatik gizon jakintsuak erakusten digue, esantzat iduki bear dirala, denboren buruan orrela gogora datozen bekatuak.

Atzenean gertatu oi da, batek *Konfesio jenerala* egiña izatea oraiñ sei, edo amar urte, aurtasunetik arteraño bekatuak esaten zituala. Gero egin zituan Konfesoaren aginduak, aldegiten zuala lagun gaiztoetatik, eta beste bekaturo bideetatik, eta irauan zuan bizitza onean denbora puska batean; baña lagun gaiztoen losentxakin, edo bere griña txarren leiarekin kuturru zan leneko gaiztakerietara, eta arreizkero bizitu da len baño ere gaizkiago. Oraiñ dio, aspertu dala gaizki bizitzez, eta konfesio on batekin



jarri nai lukeala Zerurako bidean; baña eztaki noizdanik asiko duan bere konfesioa, edo aurtasunetik, edo azkena egin zuan Konfesio jeneraletik, eta galdetzen du, zer egin bear duan. Gai onetan gizon jakintsuen iritzia da, bekatari au ez dagoala beartua konfesioak berritzera aurtasunetik, eta asko izango dala azkeneko Konfesio jeneraletik oraindañoakoak berritzea, zeren leneko Konfesio jeneralak konfesio onaren markak, edo siñaleak dituan. Besterik lizake, Konfesio jeneralaren ondoren saiatu ezpaliz bekatutik, eta bekaturoko bideetatik aldegitera.

Orra, nere Kristaua, Konfesio jeneralaren gañean gizon jakintsuak erakusten dizkiguen gauzetatik batzuek. Baderitzat, asko dirala oek, utzie-razteko nori nai konfesio gaiztoak berritzeko beldur gaizto-animen galgarria. Goazen oraiñ, Konfesio jeneralak, ongi egiten danean, ekarri oi dituan ondasun, eta frutu gozoak ukitzera.

§ II.

Konfesio jeneralak, ongi egiten danean, ekarri oi dituan ondasunak asko dira. Oetatik bat da, bekatariak *ezagutzea*, zeñ esker gabea izan dan bere Aita onarekin. Ekusten du bekatariak, egin zuala Jaunak Zerurako. Ekusten du, galdu zuala eskubide au Adanen bekatuarekin. Ekusten du, Aita Zerukoak, oker au zuzentzeko, bidaldu zuala bere Seme bakarra, Seme au egin zala gizon, eta bere bizitzaren kostuz irabazi zuala guretzat Zerurako esku, ta deretxa: Ekusten du atzenean, Aita onen kontra egin dituala ezin konta al eskergabekeria. Emendik argiro ezagutzen du, nor, ta nolakoa izan dan. Konfesio bakoitzean ere au ezagutzen zuan nolerebait, baña ez ongi. Konfesio jeneralean begien aurrean jartzen zaizka bere denbora guzian egin dituan bekatu itsusi guziak, eta arriturik dio: *Au guzia nik egin? ela alaere itxedon dit nere Aita onak? O ontasun, eta Urrikimentu pare gabea!*

Bigarren ondasun, edo frutua izan oi da bizitza ontzeko, eta aurrera bekatutik ez egiteko len baño asmo sendoagoak sortzea. Erreñu onetako erri batean gertatu zan oraiñ esatera noana. Etxe aberats bateko semeak ederretsi zion geiegi jokoari, eta jokatu oi zuan, ez dirua maiean ipiñirik, baizik txartelez, eta beragatik galtzeak etzion ainbeste miñematen, nola emango zion bestela Aitak geiegi nai zion seme oni, eta zetozkionean batzuetan berreun, besteetan irureun dukateko txartelak, bereala ematen zuan dirua. Egun batean galdu zituan semeak amabi milla dukat. Irabaztunak bidaldu zion Aitari txartela, eta onek esan zuan: *Amabi milla*

dukat galdu ditu nere semeak? Ez du naski diru au kontatzen ere jakingo. Ez det pagatuko, ezpadator bera, eta kontatzen ez paditu amabi milla dukatak. Etorri zan semea, eta esan zion Aitari, bere onra zijoakiola galdu zuana pagatzean. Erakarri zituan oegi, ta lau diruzorro, bosteun bana dukatekoak, eta zabaldu zuan diru guzia maiaren gañean. Arritu zan semea diru ura guzia ekusi zuanean, eta esan zuan: *Au guzia jokatu det nik?* Aitak eranzun zion: *Bai, ene seme: laster gera gisa onetan hospitalean.* Orduan esan zuan semeak: *Emen betiko bukatzen dira neretzat kartak; ez geiago jokorik.* Eta nola esan, ala egin zuan. Au bera gertatzen da bekatariarekin, Konfesio jenerala prestaera onarekin egiten duanean. Len etzan izutzen, bere bizitzari, azaletik bezala, begiratzen zionean; baña Konfesio jeneralean ekusten ditu bere bekatu guziak pilla batera bilduak eta izuturik geratzen da. *Non zebillen, dio beregan; non zebillen nere burua, ainbeste bekatu egin ditudanean? Emen bukatzen dira nere bekatuak.*

Konfesio jeneralak ekarri oi duan irugarren ondasuna da bekataria bere biotzean geratzea alako alaitasun, eta atsedenean, non uste duan, lertzen zedukan mendi bat bere gañetik kendu dioela. Ala esan zuan batek, Konfesio jenerala egin ondoan: *Deritzat, zion, neregandik bota dedala karga bat eziñ iroso nuana,* eta lertzeko zorian nendukana: eta berrogei, ta amar urteko atsegin-kontentu guziak ez due zer ekusi oraiñ nerekin daukadan atsegin, eta gozotasunaren aldean.

Atzenean, utzirik alde batera beste ondasun asko, Konfesio jenerala ongi egiten duan bekataria artzen du Aita Zerukoak, Abanjelioko seme ondatzallea artu zuan eran. Azturik egin diozkan eskergabekeria guziaz, ematen dio pakezko apa, edo musua: ematen dio galdu zuan graziaren soñeko ederra, apaintzen du karidadearen eraztunarekin, beste birtute, eta Espiritu Santuaren doaiakin: eta Zerurako bidean ongi ibilli dedin, ematen diozka oñetako ederrak, edo Zeruko lagunzak. Zer geiago? Egiten du festa andi bat Zeruan. Au guzia aditzera emana utzi zuan Jesu-Kristok.

Aditzen dezu au guzia, konfesioak berritzeko premian bizi zeran bekataria? Eta alaere egon nai dezu lertzeko zorian zauzkan karga izugarri orrekin? Ea, presta zaitte arreta onarekin, eta zoaz zere Aita Zerukoagana, eta artuko zaitu biotz bera-urrikaritsu batekin, eta zu nor bazera, emango dizu betiko bizitza doatsua. Amen.



EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

§ I.

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean zazpigarrena.

ALABATUA &

Itzegin dizut, nere Kristaua, konfesio on bat egiteko bear dan lenengo gauzaren, edo examinaren gañean. Igaro gaitezen bigarrenera, eta da dolorea, edo egindako utsegiteen damua. Onen gañean lenbiziko Komunioko liburuak galdetzen du era onetan:

«Konfesio on bat egiteko, bear dan bigarren gauza zeñ da? Erantzuten du dolorea, edo egindako utsegiteen damua. Zer doai, edo kondizio eskatzen ditu damu onek? Lau doai, edo kondizio. Zein dira? Lenengoa Zerutikakoa, edo sobrenaturala izatea. Bigarrena, barrendik edo biotzetik jaioa izatea. Irugarrena, bekatu larri, edo mortal guzietara zabaltzen dana. Laugarrena, kalte, eta gaitz guzien gañetikakoa izatea.

Zer aditzen dezu *Zerutikako damuaren* izenez? Aditzen det, damu au dala Espiritu Santuaren lagun, eta graziarekin sortzen dana. Aditzen det gañera, damu au sortzen dala, fedeak erakusten duan, damubide, edo motiboren bategatik. Zer aditzen dezu barrendik, edo biotzetik jaiotzen dan damuaren izenez? Aditzen det, ez dala asko auaz esatea: damu det Jauna, ez eta bularrari kolpe andiak ematea ere, baizik bear dala biotzetik egiaz, eta benaz sortzen dan damua. Zer aditzen dezu, bekatu larri guzietara zabaltzen dan, damuaregin? Aditzen det, ez dala asko bekatu larri batzuen damua, baizik bear dala guziena, Zer aditzen dezu kalte, eta gaitz guzien gañetikako damuaren izenez? Alako eran, eta añ biotzetik damutu bear zaiola bekatariari, non naiago lukean beste edozeñ kalte, eta gaitz gertatu balitzaio, ezen ez bekatuan erortzea».

Ona konfesio on bat egiteko, bear dan damuaren gañean lenbiziko Komunioko liburuak dakarrena. Gai au andia da, eta andia ezezik guziz bearra, ta premiazkoa. Orregatik egingo det alegin guzia al dedan ongiena, eta argiroena itzegiteko damuaren gañean, iru erakusalditan. Gaur aditzera emango det, benik beñ: zeñ gauza bearra dan egindako utsegiteen damua, barkazioa iristeko. Urrena, zer doai bear dituan gutxienez damu onek. Atzenean, nola utsegin oi dan bear dan damua konfesorako sortugabez. Asi gaitezen, Kristaua, bertatik.

Gizonak, bekatuari biotzean leen ematen dionean, uzten du bere Jaun, eta Jaungoikoa, eta biurtzen da emengo gauza debekatuetera: eta Jaunari egin dion bidegabearen barkazioa iristeko, gauza bearra da bekatariak damuaren bidez kentzea biotza emengo gauza debekatuetatik, eta aldatzea utzi zuan Jaunagana. Orregatik esaten digu berak: biur zaitezte nigana. *Convertimini ad me* Añ bearra da biotzaren aldaera au, non gizon jakintsu askoren iritzian, Jaungoikoak berak ere ezin barkatu dezakean bekatua, aldatzen ezpada bekatariaren biotza, emengo gauzetatik beragana, damuaren bidez.

Lege naturalean, edo Moisesen legeraño etzan konfesioko Sakramenturik, eta onezko damu, edo kontrizio osoarekin baizik, etzan arkitzen bekatariarentzat barkaziorik. Zer gertatu zan? Amilka zijoan gizona bekatuaren bideetan, ainbesteraño, non damutu zitzaion Jaunari, gizona egin zualako, eta Noe, ta beraren etxeokak ez, beste gizon, eta emakume guziak osotoro bukatu zituan, bidaltzen zituala mundu guzia estali zuen ujolak. Lege zarrean ere etzan Konfesioko Sakramenturik, konfesiorekin iduriren bat bazan ere, eta etzan bekatuen barkaziorik onezko damu, edo kontrizio osoa gabe. Denbora onetan etzan len baño asko ohea izan mundua. Etorri zan Jesus, eta gertatu zan guziaren berri ongi ziakianak bezala, ipiñi zuan konfesioko Sakramentua, bekatu guziak barkatzeko indarrez betea. Sakramentu onen bidez alde batetik erraztu zuan bekatuen barkazioa, zeren onezko damu, edo kontrizio osoa baño zerbait gutxiagorekin barkatzen dituan; eta bestetik utzi zigun sendagai txit andia bekatuarekin ez egiteko. Nork eztakus alabaña, bekatuarekin ezkatutuenak ere agertu, eta konfesatu bearrak atzeratzen duala gizona bekatu egiteko?

Esan det onezko damu, edo kontrizio osoa baño zerbait gutxiagorekin barkatzen dituala bekatu konfesioko Sakramentuak: ala erakusten digu ala baño Trentoko Konzilioak; ez ordea damurik gabe. Au da fedeko gauza. Baña zer doai, edo kondizio bear ote ditu damu onek? Ez naiz ni sartuko, gai onetan Theologoak erabili dituen auzi andietan; baizik aditzera emango ditut, guzien iritzian gutxienez konfesorako damuak bear dituan, doai, edo kondizioak. Au da bigarren lekuan adirazteko, autu nuan gauza.



§ II.

Konfesio ona egiteko bear dan damuaren lenengo doaia da *Zerutikakoa*, edo *sobrenaturala* izatea. Zerutikakoa beñik beñ, zeren Espiritu Santuaren lagunz, edo graziarekin baizik ezin sortu ditekian, Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala. Bekatua da lize bat, nondik ezin irten gaitzkean, bidaltzen ezpadigu Espiritu Santuak Zeruko lagunza. Izan dedilla bekataria Salomon baño jakintsuagoa, eta Sanson baño ere indartsuagoa, ez da irtengo berez bekatutik. Eta zer diot irtengo ez dala? Ez du irteteko pensamentu bat ere egingo, ez gera alabaña gauza *Jesus bat* esateko ere ezpadigu bidaltzen Espiritu Santuak bere laguntza: dio S. Paulok: *Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto*. Damu Zerutikakoa, edo sobrenaturala diot gañera, zeren konfesio ona egiteko damua sortu bear dan fedek erakusten duan damu bideren bategatik. Au onela! eta alaere izan degu ausardia Jaunaren kontra bekatu egiteko!

Konfesio ona egiteko bear dan damuaren bigarren doaia da barren-dik, edo *biotzetik jaioa izatea*. Ez da asko auaz esatea: *Damu det Jauna*, ez eta bularrari kolpe andiak ematea ere, baizik biotz osoz damutu bear zaio bekatariari, Jaunaren kontra egin dituan, bekatuaz. *Biur zaitzete nigana biotz guzitik: urra itzatzue zuen biotzak, ez soñekoak: egizue biotz berri bat*, esaten digu Jaunak, Joel, eta Ezekiel Profetaren autik.

Konfesio ona egiteko bear dan damuaren irugarren doaia da bekatu larri, edo mortal guzietara zabaltzen dana izatea. Berez ez da premiazko gauza bekatu benialetara damu au zabaltzea, baña Sakramentuaren ondusunak ugari artzeko ala egin bear degu alegiñean. Gañera, bekatu benialak baizik aitortzen ezpadira, orduan gauza bearra da oen guzien, edo oetatik baten damua sortzea: bestela ezta egingo konfesio ona. Ez da asko konfesio ona egiteko bekatu larri, edo mortal batzuen damua, baizik bear da guziena; Jaunak alabaña agintzen digu, biur gaitzela beragana biotz guzitik, eta egin dezagula biotz berri bana; eta bekatu larri guzien damua sortzen ezpada, ez da bekataria biurtzen Jaunagana biotz guzitik, baizik erdizka, edo laurdenka: eta ez du egiten biotz berria, baizik erdia zarra, eta erdia berria, edo obeto esateko guzia geratzen da zarra.

Konfesio ona egiteko bear dan damuaren laugarren doai, edo kondizioa da *kalte*, eta *gaitz* guzien gañetikakoa izatea: esan nai det, alako eran, eta añ benaz damutu bear zaiola bekatariari Jaunari egin diozkan bidegabeaz, non naiago lukean edozeñ kalte, eta gaitz gertatu, eta gertatzen bali-

tzaio, ezen ez bekatuan erortzea. Era onetan prest arkitzen zan S. Paulo Jesus maitagarriaren ongi nai, eta amorioa ez uzteko, ez bizitzagatik, eta ez eriotzagatik. Askotan gertatzen da, emengo neke, ta naigabeak dakarten damua nabarbenagoa, eta aziagoa izatea bekatuen damua baño. Badira gurasoak maite dituen umeen eriotzarekin gaixotzen, eta iltzeko perillean jartzen diranak; baña ez due erakutsi onenbesterañoko bekatuen damurik. Jakob Patriarkak, Joserren ill berria eman zioenean, naigabearen anditasunez urratu zituan soñekoak, janzi zan zilizioz, eta denbora luzean negar egin zuan. Bildu ziran beste seme guziak, eta egin zuen alegiña Aitaren naigabea arintzeko; baña alperrik. Etzuan Patriarka Santuak damu añ nabarbena erakutsi bere bekatuen gañean. Ala ere bekatuen damua, añ agiria, ta nabarbena izan ez arren, andiagoo izango da bere balio, eta prezioan, baldin kalte, eta gaitz guzien gañetikakoa bada; zeren damu onekin biotza prest arkitzen dan, guzia galtzeko Jaunaren kontra bekatu ez egi-tegatik. Ezkutu lodi bat andiagoo da onz-erdi bat urre baño; baña onek askoz balio andiagoo du.

Lau doai oek gutxienez bear ditu, konfesio ona egiteko, sortu bear degun damuak. Berekin bear du bizitza ontzeko edo aurrera bekatu-rik ez egiteko asmoa, baña ez det onen gañean itzegin nai oraiñ, zeren gero berezkiro ukitu uste dedan asmo au. Bizitza ontzeko asmoarekin batean bear da konfesatzeko nai, edo borondatea. Atzanean oitu zaitte, Kristaua, konfesatzeko prestaera egiten dezunean, *akto fede, esperanza, karidade, eta kontriziozkoak* alik ongiena egitera. Asko buruausitze due Theologoak erabakitzeko nolako, eta zeren sinistea, eta esperanza bear dan konfesio ona egiteko, eta neke au kentzen da akto fede, ta esperantzakoak egiten badira konfesorako prestaeran. Oek ikasi ez dituanak, aurrena esan beza *Kredoa, gero Aita gurea, eta atzanean Nere Jesu-Kristo Jauna*. Kredoa ongi esaten, eta esaten duana sinisten duanak, egiten ditu *Akto fedekoak*, eta *Aita gurearekin* esperantzakoak. Dakuskun orain; nola utsegiñ oi dan bear dan damua sortu gabez.

§ III.

Baldin arretaz begiratzen badegu, alde batetik zer doaiak eskatzen dituan konfesio ona egiteko bear dan damuak, eta bestetik zer prestaera egin oi dan erraz igerriko dezu, Kristaua, geienak bear dan damuagabe konfesatzen dirala. Ekusiko dituzu zenbait, *akto fedekoak* ez dakizkienak,



eta fedearen argia piztugabe nola nai konfesatzera dijoazenak. Ekusiko dituzu asko emengo kalteren bat etorri artean, gozotora dabiltzala bekatuaren bideetan, eta au datorkienean naigabe andiarekin, eta malko ugarikin aitortzen dituela beren bekatuak. Urliak negar egiten du, bekatua agertu danean, edo uste zuan era galdu duanean: Sandiak pena, ta naigabe andia dauka, arditik gabe bere burua dakusanean, zeren edanari, jokorari, alperkeriari ederretsi zion, edo ezin iroso zitzaiekan zorakerietan sartu zan. Onelakoen damua ez oi da izan *Zerutikakoa*, edo *sobrenaturala*, baizik emengo kalteetatik jaioa. Alaere emengo nekeak asko lagundu dezakee Zerutikako damura igotzeko. Abanjelioko seme ondartzalea, Aitak emandako ondasunak aitua zitzaizkan artean, etzan zentzatu: baña ekusi zuanean bere burua txerrizai, eta goseak igaroa, oroitu zan bere etxeaz: eta damu egiazkoarekin biurtu zan bere Aita onagana. Ekusiko dituzu asko, *damu det Jauna* esan arren, biotzik ez duenak bekatuak bideak, etxeak, eta lagunak uzteko, edo bakoitzari berea emateko. Oek ez due damuaren iduria baizik. Ekusiko dituzu asko bekatu batzuen damua nolerebait sortzen duenak, baña beste batzuen txit nekez. Urliak erraz sortuko du juramentu gezurrezkoen damua, baña ez bearbada birauena, zeren griña anziñakoa duan. Sandiari neke andigabe damutuko zaio ordikeriaz, baña ez saldu-erosian, egin dituan tranpaz, zeren kutiziari itsatsia daukan biotza. Berendiak erraz damu izango du lagun urkoari bota zion birauaz; baña ez, duana, eta ez duana edariari emateaz. Urliari neke andi gabe damutuko zaio mandamentu batzuen kontrako bekatuaz, baña lagun gaiztoakin biltzeaz? itz loiaz, keñada itsusiaz? ez, ez geienetan beintzat. Lasaikeria oen damu egiazkoa sortu baño len utziko du larrua. Au bera gertatzen da alperkeriari ederretsi dioenakin. Au bera errietako kargetan gaizki sartu, eta gaizki bizidiranakin. Atzanean Kristaurik, geienen bizi-tzari begiratu ezker, zeregan esango dezu: *gutxi dira kalte, eta gaitz guzien gañetikako damuarekin konfesatzen diranak*, zeren erraz, eta alde aldean bide-rik iñork eman gabe uura bezala edaten dan bekatua. Baña asko da gaurko.

Nere Kristaua, ez gaitezen izan arduragabeak animaren egiteko andian. Egin dezagun alegiña Konfesioko Sakramentua damu egiazkoarekin, eta sarritan artzeko. Era onetan Sakramentu onek barkatuko ditu gure bekatuak, eta aurrera Jaunaren aginduak leialki egiten ditugula, iritsi-ko degu betiko bizitza doatsua. Amen.

EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean zortzigarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko Erakusaldian aditu zenduan, Kristaua, zer doaiak eskatzen dituan gutxienez, konfesiio ona egiteko, bear dan damuak. Doai oen artean lenengoa da *Zerutikakoa*, edo *sobrenaturala* izatea. Bigarrena: barren-dik, edo biotzetik jaioa izatea. Irugarrena, bekatu larri, edo mortal guzietara zabaltzen dana. Laugarrena, kalte, eta gaitz guzien gañetikakoa izatea. Orañ lenbiziko Komunioko liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Zenbat gisatara da damu *Zerutikakoa*, edo *sobrenaturala*? Erantzuten du: Bitara. Zeñ dira? Bata da beldurrezkoa, ta berekoia, eta deritza *Atrizioa*; bestea onezkoa, eta deritza *Kontrizioa*. Zer da *Atrizioa*? Damu bat biotzean sortzen dana, len bizia, zeren gauza guziz itsusia dan, Zerurako egin, eta bere Semearen odol prezioetsuaren kostuz erosi ginduan, Jaunaren kontra altxatzea, eta bekatu egitea. Bigarrena, zeren bekatu larria egitean galdu degun Jaunaren grazia, eta Zerurako esku, ta deretxa guzia. Irugarrena, zeren bekatu larri bakoitzarekin irabazi ditugun betiko su, eta garrak, edo infernuko penak. Laugarrena, zeren Jaunak gubanako urriki-mentuz deitzen digun, bekatutik irteteko, eta eskeintzen digun gure esker-gabekeria guzien barkazioa, Jesusen eriotza, eta merezimentuak bitarteko dirala.

Zergatik deitzen zaio *Atrizioari beldurrezko damua*? Zeren sortu oi dan betiko bizitza galtzeko, eta betiko su, eta garren artean erortzeko beldurrez. Zergatik deitu diozu berekoia? Zeren biotzak, atriziozko damua sortzen duanean, bere on, eta egitekoari bakarrik begiratzen dion. Asko ote da Atrizioa konfesiio ona egiteko? Bera utsik ezta asko, bekatariari grazia-aren apaindura ederra emateko; baña prestatzen du au iristeko konfesioko Sakramentuarekin batean: eta onena da beñ saiatzea Atriziora, eta gero onezko damu, edo kontriziora». Ona lenbiziko Komunioko liburuak Atrizio, edo beldurrezko damuaren gañean dakarrena.

Damu au biotzean sortzeko gauza bearra da fedearen argiarekin damubide egokiren bat gogora ekartzea, eta au da gaur aurrena ukituko dedan gauza. Gauza bearra da gañera, damu bide egokiak gogora ekarri-rik, alik ongiena oez baliatzea, damu egiazkoa biotzean sortzeko, eta au



nola egin gentzakean adiraztea izango da gaurko Erakusaldiaren bigarren partea. Asi gaitezen bertatik, nere Kristaia.

§ I.

Gizonaren biotzean ez da jaiotzen, eta ezin jaio diteke ongina, ta amorioa, ez eta gorroto, ta damua ere, artarako bideren bat agertzen ez diola adimentuak. Orregatik ez diogu gorrotoz begiratuko bekatuari, eta ez dira gure biotzak bekatutik Jaungoikoaganon aldakutako, bide egokiren bat gogora ekartzen ezpadegu.

Gizonaren biotza berekoa da, eta ezta geienetan kuturtzen bekatuen damu, edo gorrotora, baldin betiko ondasunak galtzeko, eta betiko su, ta garren artean erortzeko beldurrak esnatzen ezpadu. Orregatik aurrena ipintzen ditu lenbiziko Komunioaren liburuak Atrizioa sortzeko bideak. Baña zer egiten degu oek aditzearekin, arretarik ipintzen ezpadegu, oez baliatzeko? Zer baldin ezpadakigu, nola au egin dezakegun? Egizu kontu, Kristaia, guraso batek esaten diola semeari, *soro andi ori maneatu bear dezu garia ereiteko. Aurrena kendu bear dira larrak, eta zorkotzak: gero laiatu bear da, eta aretu. Atzanean sasoi oean ereñ bear da azia.* Aditzen du semeak au guzia, baña nola lan oetara oitua ez dagoan, eztaki nondik, ta nola ekin lanari. Artzen du Aitak berekin, eramaten du sorora, eta Aitarekin batean lana egiñaz, ikasten du nola egin. Au bera, edo onen anzeko gauza bat egin bear da, Kristaia, zurekin, Atrizioaren damu bidez baliatzen ikasi dezazun. Atoz nerekin.

§ II.

Egin dezu, Kristaia, zure bekatuen examina? Sortu nai dezu orien damu bizi bat, *Atrizioa* deritzana? Ipiñi itzaztu bada animaren begien aurrean, damu oni dagozkan, bide egokiak, fedeak erakusten dizkitzun eran. Damu bide oen artean aurrena aitatzten, du Trentoko Konzilioak bekatuaren itsustasuna, ez ordea zerez dezun argitasunarekin igerritzen dezuna, baizik fedeak erakusten dizuna, egin dezagun kontu, zeren gauza guziz itsusia dan, Zerurako egin, eta bere Semearen odol preziotsuaren kostuz. erosi ginduan, Jaunaren kontra altxatzea, eta bekatu egitea. Egin det bekatu, esan dezakezu Jaunaren aurrean: *Peccavi*. Egin det bekatu ezin

konta al bider, ni Zerurako egin, eta bere Semearen odol preziotsuarekin erosi ninduan, Jaunaren kontra. *Peccavi*. Esan det, itzez ezpada, obrax: ez det Jaun au serbituko. Au da Jaun onek Jeremiasen autik gure kontra erakusten duan espadasun andia. Autsi dezu, dio, nere legearen uztarria, urratu dituzu nere Aginteen edeak, eta esan dezu: ez det Jaun au serbituko. *Confregisti jugum meum, rupisti vincula mea, et dixisti: non serviam*. Nere anima, ez da au eskergabekeria guziz itsusia? Luzifer, Jaunaren grazian zegoan bitartean, eguzkia, ta izarrak baño ederragoa, ta argiagoa zan: baña leen eman zion antuste, edo soberbiaren bekatuari eta bereala amildu zan betiko su, eta garren artera. Eta nork esan, zeñ itsusi, ta nazkagarria geratu zan? Santa Katalina Senakoari agertu zion beñ Jaunak Deabruaren itsustasuna, eta ainbesteraño izutu zan, non esan oi zuan, naiago zuala oñ utsetan, eta brasa erazekiz ezarririk bidean munduaren bukaeraraño ibilli, ezen ez berriz Demonioa ekusi. Nondik datorkio Demonioari onenbeste itsustasun? Egin zuan bekatu artatik. Eta antuste, edo soberbiaren bekatu batek au egin bazuan Aingeru añ eder bategan, zer egingo ez due, Kristaia, zuan ainbeste bekatuk? Zeñ itsusi, ta nazkagarria etzera egongo Jaunaren begietan?

Peccavi. egin det bekatu, esan dezakezu, eta galdu det Jaunaren grazia, eta Zerurako esku, ta deretxa guzia. Au da Atrizioa sortzeko bigarren bidea, fedeak bakarrik erakusten dizuna; zeren fedeaz kanpora gauz oen berririk eztan. Galdu det bai benik beñ Jaunaren grazia. Ai! eta bazinaki zeñ andia dan graziaren doai au! *Si scires donum Dei!* Doai au zuretzat irabazteko, etorri bear izan zuan lurrera Trinitadeko bigarren personak, eta kosta zitzaion bere biziña ematea. Doai onek, animan sartzen dan uean bertan, aienatzen ditu bekatu guziak: piztutzen du bekatuan illa arkitzen dan anima, apaintzen du Zeruko birtute, ta doaiakin. Orregatik deitzen dio Jesu-Kristok *eztaietako janzia*. Eta doai au galdu dezu añ erraz? Doai onek gizona egiten du Jaungoikoaren Seme, eta adiskide, Jesu-Kristoren senide, Espiritu Santuaren Jauregi, eta Zeruaren jabegai? Eta doai au galdu dezu bekatuaren atsegin apur bategatik? *Peccavi*. egin det bekatu, eta galdu det gañera betiko biziña doatsua; galdu ditut betiko atsegin-kontentuak, eta itz batean, galdu det nere Jaungoikoa. Au egin dezu, nere anima? eta etzera damuz, eta negarrez desegingo?

Peccavi. egin det bekatu: eta zer irabazi det? Zer atera dezu orañi lotsatzen zaituen bekatu orietatik, esaten digu S. Paulok: *Quem ergo fructum habuistis in illis, in quibus nunc erubescitis?* Zer, betiko su, eta garrak, betiko pena, ta oñazeak baizik? Eta au da atrizioa sortzeko irugarren bidea. Jatxi zaite nere anima, pensamentuz oñaze aen togi izugarria, edo infernura,



gero jatxi etzaitzen betiko. Zer dala uste dezu infernua? Ura da Demonioaren, ta bere serbitzarien lize izugarri bat non betikotasun guzian egon bearrak diran oñazez lertzen. Ura da beti sutan dagoan labe ikaragarri bat, beñere itzaliko ez dana: ta bekatariak berak izango dira ango egurra, ilintxak, eta illetiak. Ura da sufre erazekiz irakiten dagoan ainzira, edo putzu bat, non Satan, Ante-Kristoa, eta bekatuaren erakusleak egon bearrak diran betiraunde guzian. Ura da neke, eta pena guziak onaren kutsurik gabe arkitzen diran lekua. Au guzia, ta geiago aditzera eman digu Jaunak Eskritura Santan toki izugarriaren gañean. Ara amiltzen dira biraugilleak, eta umeak ongi azitzeko arretarik ez duenak. Ara amiltzen dira, edanari, ta aisiari ederretsirik, etxeaz, zorraz, eta beste eginbideaz aztuta bizi diranak. Ara amiltzen dira lagun urkoai bekatutako bidea ematen diezenak, dala itzez, dala ezkontzaren ustearekin, dala bestela. Ara amiltzen dira bekatutako bideak, etxeak, eta lagun gaiztoak, ibillera lotsagarriak utzi nai ez dituenak. Ara amiltzen dira irabazi debekatuetan eta besteren gauza, dala erriarena, dala besteren batena, biurtu naitzate bizi diranak. An daude oñazez lertzen, adiaz, eta orroaz.

Gaitz erdi litzake, noizbait bukatu bearrak balira neke oek; baña ez dira beñere bukatuko. Joango dira urteak urteen gaiñ, eta etzate puskarik txikiena ere kenduko. Galde Luziferri, galde Kaini, galde an arkitzen diran beste guziaz. Luzifer munduaren asieratik an dago, eta asieran bezala daude aren oñazeak. Sei milla urte bezala dira Kain ara jatxi zala, eta ez dira batere arindu aren penak: milloika joango dira urteak, eta ez dira gutxituko aren nekeak. Ezagutzen due au an arkitzen diran doakabeak. Badakie beste asko (bearbada bekatari andiakoak) Zerura joan zirala, zeren garai onean zentzatu, ta biurtu tiran Jaunagana; eta ai! esango due! Ni emen, eta betiko! betiko! betiko! Betiko au izango da ar bat, animari ozka bezala beti ariko zaiona, eta beñere ilko ez dana. Kendu naiko du ar ozkari au, baña ezin kendu duala ekusirik, asiko da birauka bere gurasoen, eta lagunena kontra. Gutxi da au: madarikatuko ditu Jaungoikoa bera, Birjiña txit Santa, Aingeruak, eta Santuak. Bukatu naiko du bere burua, eta otsegingo die mendiai, eta aitzai: amildu zaitzete nigana: *cadite super nos*; baña alperrik, zeren iges egingo duan eriotzak an arkitzen diran doakabeetatik, dio S. Juanek: *Mors fugiet ab eis*. Ekusten dezu, nere anima, zer irabazi dezun zure bizitza lotsagarriarekin? Eta au guzia ekusirik, ez ote zera zure Jaunagana biurtuko?

Baña zoaz laugarren damubidera, edo Jaunaren gubanako ontasun, urrikimentu, edo Miserikordiari begiraldi bat ematera. Erori zan Adan bekatuan: galdu zuan Jaunaren grazia, ez beretzat bakarrik, bai ta guretzat

ere: eta ainbesteraño urrikaldu zan guzaz Jauna, non eman zuan bere Seme bakarra, gu Zerurako bidean ipintzeko. *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret*. Egin zuan Dabidek bekatu, eta beragana biurtu zan bezala, barkatu zion. Magdalenak bere ergelkeria, eta janziera arroakin eman zuan asko bide bekatutako. Biurtu zan Jaunagana, eta barkatu ziozkan bekatu guziak: Abanjelioko Seme ondatzailearekin au bera egin zuan. Biurtu zion galdu zuan graziaren apaindura ederra, eta egin zuan festa andi bat. Ez du mingaño Dabid Santuak Jaunaren urrikimentuaren alabantzak kantatzeko. Batzuetan dio, Jaunaren Miserikordiaz betea dagoala lur guzia: *Misericordia Domini plena est terra*: bestean dio Zeru guzien erpiña baño ere gorago igotzen dala Miserikordiaren anditasuna: *Magnificata est super Caelos misericordia tua*. Jaunaren miserikordiak kantatuko ditut, dio, betikotasun guzian: *Misericordias Domini in aeternum cantabo*. Eta miserikordia au ezagutzeko, asko dezu, nere anima, zurekin egin duanari begiratze utsa. Oroi zaitte, zenbat bider bidaldu zintzakean betiko su, eta garren artera, eta nola itxedon dizun, beragana biurtu zaitzen. Beste asko, bear bada zuk baño bekatu gutxiago zuenak, eta lagun izan zinduanak zere zentzugabekieretan galdu ziran, eta zu arkitzen zera zere utsegitteak zuzentzeko eran. Nondik onenbeste ontarte, edo rnesede? Nondik, Jaunaren miserikordiagandik baizik? Jaunaren miserikordiari eskerrak, bukatu ez geranean, esan dezakezu Jeremiasekin: *Misericordiae Domini, quia non sumus consumpti*. Zer geiago bear dezu, nere anima, Jaun onen kontra egin dituzun bekatuen damu andi bat sortzeko? Besoak zabaldurik, Aita urrikaritsuak bezala, deitzen dizu, eta Jesusen eriotza, ta merezimentuak bitarteko dirala, barkatu nai dizkitzu egin diozkatzun eskergabekeria guziak. Ez det nai, dio, bekataria galtzea, baizik nigana biurtzea, eta nere grazian bizitzea: *Nolo mortem impii, sed ut convertatur... et vivat*. Bekataria nigana biurtzen dan unetik aztuko naiz egin dizkidan eskergabekeria guziaz. Nere anima, zoaz laster zure Aita urrikaritsu onen besoetara. Zoaz, eta esan zaiozu: zeñ andiak diran, Jauna, zure miserikordiak! Eta zeñ izugarriak nere eskergabekeriak! Zu zera nere ongille ezin andiagoa. Zu zera nere zori ona, eta doatasuna. Zu zera, zere seme bakarra, niri onginaiez, mundura bidaldu zenduana. Zu zera, beraren eriotza, eta merezimentuak bitarteko dirala, bekatuak barkatzen dituzuna konfesio onaren bidez. Zu zera Zeruko graziaren, ta doaien emallea. Sinistu det au guzia, zuk esan, eta Eliz Ama Santak erakutsirik: eta zugana nator, zure miserikordien uste, edo esperanza osoarekin. Ai nere ongille andia! Damu det zu ofendituz, eta damu det gauza guzien gañetik. Ill banintz, eta



iltzen banintz, zu ofenditu baño len. Artzen det asmo osoa, ez geiago bekatuak egiteko, bekatuaren bideetatik aldegiteko, eta. konfesatzeko.

Ekusten dezu, Kristaua, nola, ta zer bidez baliatu gaitzekan *Atrizioa* deritzan damua gure biotzetan sortzeko? Sasoi onetan jartzen danean biotza, neke gutxirekin igo diteke onezko damu, edo kontriziora, begiratzen duala, zeñ on, ta maitagarria izango dan Jauna beregan gurekin onelakoa danean. Saia gaitzen, Kristaua Jaunaren laguntzarekin, gure bekatuen damu egiazkoa sortzera, eta bekatuaren bideetatik aldegitara, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean bederatzigarrena.

ALABATUA &.

Beldurrezko damu, edo Atrizioa izan zàn azkeneko Erakusaldiaren gaia. Igaro gaitzen onezko damu, edo Kontriziora. Onen gañean galdezten du lenbiziko Komunioaren liburuak era onetan...

«Zer da onezko damu, edo kontrizioa? Erantzuten du: damu bat biotzean sortzen dana, zeren ontasun, eta maitagarritasun baztergabea dan, Jaunaren kontra bekatu egin degun. Zergatik damu oni deitzen diozu onezkoa? Zeren damu au sortzeko bidea dan, ez beldurra, baizik Jaunaren ontasun, eta maitagarritasun bazterrik, eta neurririk ez duana.

Atrizioa, edo Kontrizioa da ohea? Biak dira onak, baña askoz prestuagoa, ta ohea da onezko damua, edo kontrizioa. Zergatik? Zeren len esan dan bezala, atrizioa bera utsik ez dan asko bekatariari graziaren apaindura ederra emateko; baña kontrizioa da damu añ indartsua, añ miragarri, ta prestua, non biotzean sortzen dan une, edo puntuan bertan aienatzen dituan bekatu larri guziak, eguzkiak gauaren illuntasunak aienatzen dituan eran. Beraz onezko damu, edo kontrizioarekin konfesatzeko prestatzen bada bat, eta Elizara dijoala bidean iltzen bada konfesio gabe, Zerura juango da? Bai, Jauna, zeren Jaunaren grazian ileko dan. Eta beldurrezko damu, edo Atrizioarekin prestatzen dana konfesatzeko, Elizarako bidean iltzen bada konfesiogabe, nora joango da? Infernura, zeren bekatuan ileko dan. *Erakusleak*: ongi diozu; orregatik sarritan, eta biotz osoz egin bear lituke Kristauak fede, esperanza, karidade, ta kontriziozko afektoak, eta oek egiteko balia diteke dotrinako liburutxoak dakarren goizeko jaieraz. Ona lenbiziko Komunioko liburuak gai onetan dakarrena».

Kristauen artean batzuek ez due uste, onezko damu, edo kontrizioarekin Jaunagana biurtzera daudela beartuak: eta oei aditzera eman bear zate, nola, eta noiz beartuak dauden onezko damua sortzera, edo *Akto Kontriziozkoak* egitera. Besteak uste due, *damu det Jauna* esatearekin barkatuak daudela bekatuak, oei aditzera eman bear zate, zer doai, edo kondizio bear dituan onezko damu, edo kontrizioak, konfesioa baño len bekatuak barkatzeko. Atzenean asko dira eztakienak, nola moldatu gindez-



kean, ala nai izatera, onezko damua sortzeko, eta alik ongiena au erakutsi bear zate. Iru gauza oek izango dira gaurko Erakusaldia. Enzun Kristaua, kontuz.

§ I.

Kristaua, erori zera bekatuan? Utzi dezu beraz ezin geiagoraño ona, ta maitagarria dan zure Jauna, eta beartua zaude beragana biurtzera onezko damu, edo kontrizioarekin, edo bestela konfesio on baten bidez. Biur zaitezte nigana, esaten digu Jaunak Joel Profetaren autik: *biur zaitezte nigana biotz osoz, urra itzatzue zuen biotzak, ez soñekoak.*

Emendik beartua zaude onezko damua sortzera, edo *Akto kontrizioak* egitera, benik beñ eriotzako ordu, edo perillean; orduan alabaña beartuak gaude biotz osoz *Akto karidadezkoak* egitera, eta bekatuaz oroitzen danak eziñ oek egin ditzake denbora berean sortzen ez duala onezko damua. Bigarrena beartua dago onezko damua sortzera itsasoz, edo bestela perill andiko bidea igaro bear duana. Irugarrena, gerrariak peleara dijoazenean. Laugarrena, erri batean izurria, edo gaitz itsaskor perill andikoaren bat zabalduaz dijoanean. Bostgarrena, emakume bat argite gaiztoan arkitzen danean. Seigarrena, gure bekatuak gatik Jaunak errietara neke andiren batzuek bidaltzen ditueanean. Zazpigarrena, beartua dago bekataria, Jaunagana biurtzera bekatuan erortzen danetik laster edo beintzat berandutu gabe. Baña ez due onetan iritzi bat gizon jakintsu guziak. S. Buenabenturak dio, beartua dagoala bekataria Jaunagana biurtzera, bekatuan erortzen danetik bereala, baita konfesatzera ere, garizumari itxedoten egongabe. Besteak dioe, denbora luzea dala aste bat igarotzea bekatuan, besteak dioe illa bete, besteak lau, edo bost illabete. Atzenean beste batzuek dioe, egiaz Jaunagana biurtzen bada bekataria konfesatzeko agintek estutzen duanean, ez dala izango zabarkeria larri, edo mortala bitarteko luzapena; Eta zer nik esatea nai dezue, gizon jakintsuak onenbeste iritzi elkarren kontrakoak, baditue? Nik esan dezakedana da, Eskritura Santan Jaunak esaten diguna. Ez dezazula, dio, egunetik egunera luzatu Jaunagana biurtzea, zeren batean etorriko dan beraren aserrea: *Non tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem, subito enim, veniet ira illius.* Nik esan dezakedana da, denbora luzean badago bekataria Jaunagana biurtu gabe, dala onezko damu, edo kontrizioarekin, edo dala konfesio on baten bidez, eroriko dala bekatu berriren batean; zeren bekatu barkatu gabeak

bere kargarekin amilderaziko duan beste bekatuen batean, S. Gregoriok dionez. Orregatik errazago arkituko dira bekatu larri, edo mortalean erori ez diran Kristauak, ezen ez beñ bakarrik erori diranak. Atozea oraiñ, Kristaua: au onela izanik, nola luzatuaz zoaz zere Aita onagana biurtzea, ez egunetik egunera, baizik urtetik urtera. Ez dezu ekusten, luzapen oriekin bekatua bekatuari erantsitzen diozula, eta erraz neurria igaro dezakezula? Eta ala gertatzen bada, zer izango da zuzaz? Galdua izango zera, eta galdua betiko. Etxaitezela bada izan sorra, eta gorra zure Jaunaren deia entzuteko: orain deitzen dizu, Aita urrikaritsuak bezala, eta lenbait len biur zaite beragana. Baña goazen aurrera, eta dakuskun, zer doai, edo kondizio bear dituan onezko damu, edo kontrizioak, konfesioa baño len bekatuak barkatzeko.

§ II.

Onezko damu, edo kontrizio osoak bekatuak barkatzen ditu konfesioa baño len, bear diran doai, edo kondizioak baditu. Au da egia bat Katoliko guziok sinisten deguna. Bekatuan erori ziran Adan, Dabid, Magdalena, eta barkatu zien Jaunak onezko damuaren bidez; eta besterik esatea debekatua dauka Elizak.

Baña zer doai, edo kondizio bear ote ditu onezko damu, edo kontrizioak, bekatuak barkatzeko konfesioa baño lenago? Batzuek esan zuen, onezko damu, edo kontrizioak ez duala bekatuak barkatzen konfesioa baño lenago, baldin konfesatzeko era bada; baña iritzi au aztua arkitzen da. Beste batzuek esan zuen, onezko damu, edo kontrizioak ez duala konfesio gabe bekatuak barkatzen, ezpada txit bizia, samiña, eta azia; baña Santo Tomasekin Teologorik geienak erakusten due, onezko damu, edo kontrizioak barkatzen dituala bekatuak, izan ditekean andiena ezpaliz ere, baldin kalte, eta gaitz guzien gañetikakoa bada. Batzuek esan zuen, onezko damu edo kontrizioak ez duala konfesio gabe bekatuak barkatzen, beldurrarekin nastua bada; baña beldur onak laguntzen du onezko damura igotzeko. Besteak esan zuen onezko damuak ez duala berekin bear ezeren uste edo esperantzarik, ez eta Zeruarenik ere; baña esperanza da karidadearen laguna, eta malla egokia onezko damu, eta Jaunaren amoriora igotzeko. Batzuek esan zuen onezko damu, edo kontrizioa sortu bear dala bekatu larri bakoitzaren gañean; baña lan andiegia litzake au denbora luzean gaizki bizitu danarentzat; noiz alabaña bekatu bakoitzarentzat sor-



tuko luke kontrizio bana, ezin konta al badira egin dituan bekatuak? Beste batzuek esan due, aurrena ezagutu bear dala bekatu bakoitza, eta gero sortu bear dala guzaien damua. Ala egin oi da, batez ere konfesatzeko pretaera egiten danean; baña beiñ baño geiagotan gertatzen da, bekatuen examina bukatu baño lenago bekatariak sortzea onezko damu, edo kontrizio sendo bat, eta gauza gogorra litzake esatea, onelako damuak ez dituala barkatzen bekatuak. Batzuek dioe, onezko damu, edo kontrizioak konfesioa baño lenago barkatzen dituala bekatuak, Jaungoikoaganako ongi nai, eta amoriotik jaiotzen bada; baña geienak erakusten due, onezko damu, edo kontrizioak, egiazkoa bada, berekin daramala Jaungoikoaganako ongina, ta amorioa; eziñ alabaña Jaunaren ontasun baztergabeari egindako bidegabeai gorrotoz begiratuko die bekatariak, denbora berean amatzen ez duala ontasun ura. Eta dana dala gauz onen gañean, *akto kontriziozkoa* egiten bada dotrinak dakarren eran, aurrena egiten da *karidadezkoa*, edo amoriozkoa. Ekusten dezu Kristaia, zenbat lan, eta buru-ausitze izan dituen gizon jakintsuak onezko damu, edo kontrizio osoaren gañean? Au guzia esan det, uste izan ez dezazun, *damu det Jauna nola nai* esatearekin barkatuak daudela bekatuak. Oraiñ ukituko ditut, guzaien iritzian onezko damu, edo Kontrizioak bear dituan doai, edo kondizioak, bekatuak barkatzeko konfesioa baño len.

Lenengo doai, edo kondizioa: *Zerutikakoa*, edo *sobrenaturala* izatea. *Zerutikakoa*, esan nai det, onezko damu, edo kontrizio emen ukitzen dana, sortu bear dala Espiritu Santuaren lagun, eta graziarekin. Esan nai det gañera, fedearen argiarekin gogora ekarri bear dala Kontrizioari dagokan damu bidea, ta au da Santo Tomasen, eta geienen iritzian Jaunaren ontasun, eta maitagarritasun baztergabea. Ez degu guk ezagutzen Jaunaren ontasuna beregan dan eran, baña ezagutu dezakegu bear adiña, egin dituan obra miragarrietatik. Obra oek batzuek dira gerenez degun argiaregin ezagutzen ditugunak. Ekusten dituzu Zeruak, Eguzkia, izarrak: ekusten dituzu lurra, eta lurrak dakartzian loreak, arbolak: eta zeregan diozu: gauz oek diran bezeñ onak, eta ederrak izanik, zeñ ona, zeñ eder, eta maitagarria izango da oen Egillea? Nai, ta nai ez guziz ona, ederra, maitagarria. Orra nola zerez dezun argiarekin ezagutzen dezun Jaunaren ontasuna; baña era onetan ezagutzen dezun ontasuna ezta damubide egokia onezko damu, edo Kontrizio *Zerutikakoa* sortzeko. Beste obra batzuek dira, zerez dezun argiarekin ezin ezagutu ditzakezunak, baña bai fedearen bidez, nola diran: egin ginduala Jaunae betikotasun guzian berarekin batean doatsu izateko: Adanen bekatuarekin galdu genduala Jaunaren grazia, eta Zerurako esku, ta deretxa guzia: utsegite au zuzentzeko gizon egin

zala Trinitadeko bigarren Persona, Birjiña, txit Santaren sabelean, Espiritu Santuaren obrak, eta graziaz: eman zuala gurutzean bere bizitza, eta bere bizitzaren kostuz guretzat irabazi zuala Zeruko grazia, eta arako esku, ta deretxa: piztu ta igo zala Zerura: ipiñi zituala gure animetan grazia ixurtzeko, zazpi iturri, edo Sakramentu; oen artean Konfesioa, bataioa ezkerro egindako bekatuak barkatzeko, eta Komunioa gure animen janari, eta edari izateko, eta grazia ugaritzeko. Obra oen berririk ez du gizonak berez, Platon eta Aristoteles baño jakintsuagoa baliz ere; baña ezagutzen ditu fedearen argiarekin, eta emendik igerritzen du Jaunaren ontasun, eta maitagarritasun baztergabea: eta era onetan sortu dezakezu onezko damu, edo kontrizio *Zerutikakoa*, edo *sobrenaturala*. Damu onek bear duan bigarren doai da berekin, edo bere aurretik izatea barkazioaren ustea. Ala aditzera ematen digu Trentoko Konzilioak. Uste au gabe, nola esnatuko litzake bekatariaren biotza onezko damu, edo kontrizioa sortzeko? Irugarren doai, edo kondizioa da *kalte, eta gaitz guzaien gañetikakoa izatea*, esan nai det, Jaunaren ontasun baztergabeai begiraturik, alako eran damutu bear zaku ontasun beraren kontra egin ditugun bekatuak, non naiago gendukean edozeñ kalte, eta gaitz gertatu ta gertatzen balitzaku, ezen ez bekatuan erortzea. Laugarren doai, edo kondizioa da aurrera bekatuak ez egiteko asmoa. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak: *Cum proposito non peccandi de caetero*. Bostgarren doai, edo kondizioa da egindako bekatuak, larriak bederik, konfesatzeko asmoa. Ala aditzera ematen digu Trentoko Konzilioak.

Doai oek dituan onezko damu, edo kontrizioak barkatzen ditu bekatuak konfesioa baño ere lenago. Ala aditzera ematen digu Abanjelioko Seme ondartzallearen ipuiak. Aita batez zitan bi seme, eta gazteenak esan zion: Aita eman begit etxetik dagokidana. Eman zion, eskatu zuan bezala, eta joan zan semea urrutietara. Gastatu zuan Aitak eman zion guzia bekatuaren bideetan, eta geratu zan arloteria andian. Goseak igarora zebillen, eta iliko ezpazan, jarri bear izan zuan morrontzan; baña suerteak eman zion nagusi bat añ zimurra, ta prestueza, non gure ezkutari ergela ipiñi zuan txerrizai, eta etzion opa gosea iltzeko diña janari ere. Pozik jango zitukean zerriai ematen zitzaizten az-osto, eta kirtenak, baña etziozkeen ematen oek ere, sabela betetzeko diña beintzat. Ekusirik bere burua era añ negargarrian, asi zan bere Aitaren etxeaz oroitzen. *Zenbat langillek*, zion beregan; zenbat langillek naroro, edo ugari jaten due nere Aitaren etxean ogia? eta emen nago ni goseak erkitua, ta iltzeko zorian: *Ego autem hic fame pereō*. Eta onela egongo naiz zerrien artean goseak igarora? Ez, ez: joango naiz nere Aitagana, eta esango diot: *Aita egin det bekatu zure aurrean*



eta zure kontra: ez naiz zure semearen izen onragarria izateko diña; baña ar naza-zu zure serbitzarien artean bederik. Ona nola artu zuan bere bekatua aitortzeko asmoa. Au beregan erabakita, bereala artu zuan bere Aitaganako bidea. Ekusten du Aitak nola biurtzen dan beragana, eta Aita urrikaritsua bezala irteten zaio semeari bidera, eta onek konfesioa egin baño ere lenago, ematen dio pakezko musu, eta laztana: artu zuan bere etxean, biurtu zion galdu zuan graziaren soñeko. ederra: eman zion karidadearen eraztuna: eman ziozkan gañera, Zerurako bidean ongi ibiltzeko, bear zituan oñetako ederrak, edo lagunzak, eta egin zuan, festa andi bat, zeren bere seme galdua biurtu zitzaion etxera. Au da Abanjelioko seme ondartzallearen ipui gozoa, eta txit ederki aditzera ematen du, onezko damu, edo kontrizio osoarekin Jaunagana biurtzen dan bekatariari gertatzen zaiona. Biurtzen da bere Aita onagana bere bekatuak aitortzeko, edo konfesatzeko asmoarekin, ekusten du Aitak eta artean konfesioa egin ezpadu ere, ematen dio pakezko laztan, eta musua. Biurtzen dio graziaren apaindura ederra, eta egiten du gero festa andi bat, zeren seme galdua biurtu zaion. Orra, nola onezko damu, edo kontrizioak barkatzen dituan bekatuak konfesioa baño lenago. Egia da, beti geratzen dala beartua konfesatzera. Ala egin zuan seme ondartzallearak. Aitak eman zion pakezko musu, ta laztana bere eskergabekeriak aitortu baño len, baña andik bereala egin zuan semeak bere aitormen, edo konfesioa. Ekusi dezagun oraiñ, nola moldatu gindezkean, ala nai izatera, onezko damu, edo kontrizioa sortzeko.

§ III.

Esan det len, onezko damu, edo kontrizio Zerutikakoa sortzeko, gogora ekarri bear degula fedearen argiarekin damubide egokia, eta au dala Jaunaren ontasun, eta maitagarritasun baztergabea. Ontasun oni ongi begiraturik, gozatuaz joango da biotza, bera amatzeko: eta ekusirik ontasun onen kontra egin ditugun eskergabekeriak, sortuko du onezko damu, edo kontrizioa. Jarri gaitezen bada, Kristaua, Jaunaren aurrean, eta saia gaitezen au egitera.

Egin det bekatu, esan dezakezu zeregan; egin det bekatu ezin konta al bider: *Peccavi*. Egin det bekatu, eta utzirik nere Jaun ona, ipiñi det biotza emengo aurkerietan, edo obeto esateko ezerezean. *Peccavi*. Nor dala, uste dezu, era onetan utzi dezun, Jaun au? Fedeak erakusten dizu, Jaun au dala zu ezerezetik atera, eta Zerurako egin zinduana. Fedeak erakusten

dizu, Adanen bekatuarekin galdu zenduala Jaunaren grazia, eta Zerurako esku, eta deretxa guzia: eta au zuri berriro emateko, bidaldu zuan mundura bere Seme bakarra. Ainbesteraño maite izan ginduan, dio S. Juanek, non eman zuan bere Seme bakarra. *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret.* Fedeak erakusten dizu, Trinitadeko bigarren Persona gizon egin zala Birjiña txit Santaren sabelean Espiritu Santuaren obraz, eta graziaz: eta emanik gurutzean bere bizitza, irabazi zuan guretzat Jaunaren grazia, eta Zerurako esku, ta deretxa, Adanen bekatuarekin galdu genduana. Au onela egiñik, piztu eta igo zan Zerura. Amatu ninduan, eta eman zuan nigatik bere burua, dio S. Paulok *Dilexit me, et tradidit semetipsum pro me* Fedeak erakusten dizu, Jaun onegana biotz osoz biurtzen bada bekataria, añ gozotoro artzen duala, non guzia barkatzen dion, begitarte gaitorik erakutsigabe. *Ez det nai, dio, bekataria galtzea, baizik nigana biurtzea: eta nere grazian bizitzea, nigana biurtzen dan uean bertan aztuko naiz egin dizkidan eskergabekeria guziaz.* Fedeak erakusten dizu, guri graziaren doai miragarria emateko, ipiñi zituala zazpi iturri graziaren ur gozoa beti ematen ari, eta beñere agortzen ez diranak, oen artean bataioko Sakramentua. Sakramentu onen bidez barkatu zizun bekatu jatorrizko, edo orijinala, guziok arekin jaiotzen gerana, eta lenbiziko gurasoetatik datorriguna. Apaindu zinduan graziaren soñeko ederrarekin: egin zinduan bere Elizaren ume, eta ipiñi zaitu betiko bizitza iristeko era guzian. Nondik zuri, nere Kristaua, onenbeste ontarte, eta mesede? Ezin konta al arkitzen dira bataiorik, eta federik ez dan lekuetan, eta fedea duen errietan ere asko iltzen dira bataiorik gabe: eta zu bizi zera Jesu-Kristoren lege Santan. Ekusi zuan gure Jaunak, bataioko Sakramentuarekin graziaren soñeko ederra artu arren, beti geratzen ziñala gaitzeron makurtua, eta eroriko ziñala bekatuan: eta ipiñi zuan beste Sakramentu bat illak piztutzen, eta bataioa ezkerro egindako bekatuak barkatzen dituan: au da konfesioko Sakramentua. Fedeak erakusten dizu, utzi zigula beste Sakramentu bat, *Komuniakoa* deritzana. Gugatik gurutzean bizitza emateko zegoan bezperan, ainbesteraño erazeki zitzaion Jesus onaren biotzari guri ongi naiez, non geratu nai izan zuan Sakramentu miragarri onetan gurekin, eta gure artean bizitzeko, eta guri emateko bere gorputza, bere odola, eta bera dan guzia. Izanik gure Jaungoikoa Guzielduna, edo Omnipotentea, eziñ alaere eman digun baño geiago eman zezakean: izanik guziz jakintsua, etzuan jakin, zer geiago guri eman: eta izanik guziz aberatsa, ta gauza guzian jabea, etzuan izan zer geiago eman, dio S. Agustiñek. Esan gidazu oraiñ, nere anima: au guzia guri onginaiez egin duan Jauna, zeñ ona, ta maitagarria izango da beregan? Eta Jaun au ez



degu amatuko? Zer amatuko degu, ontasun au amatzen ezpadegu? Baña ai! Ontasun au amatu ordean beraren kontra altxa naiz ainbeste bider: autsi det beraren lege Santa, eta esan det obraz: *Ez det Jaun au serbituko*. Au da Jeremiasen autik Jaun onek erakusten digun espadasun andia: *Confregisti jugum meum, rupisti vincula mea, et dixisti: Non serviant*. Arritu zaitzte Zeruak, eta desegin naigabez Zeruko ateak: *Obstupiscite Caeli et portae ejus desolamini*.

Nere anima, biur zaitze noizbait zure Aita onagana: deiez dagokizu. Esan zaiozu benaz: O ontasun neurrik, mugarik, eta bazterrik ez dezu-na! Zeñ berandu ezagutu zaitudan! Amatzen zaitut biotz guzitik zure ontasun orri begiraturik. Eta zure izenean amatzen ditut nere lagun urko guziak, oen artean nere etsaiak: opa diet Zerua, eta arako bidean on izan-go duen guzia. O ontasun guziz miragarria! Damu det zu ofendituaz, eta damu det gauza guzien gañetik. Ill banintz, eta iltzen banintz zure kontra bekatu egin baño len! Artzen det asmo osoa ez geiago bekaturik egiteko, bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta konfesatzeko.

Orra, nere Kristaia, nola moldatu gindezkean onezko damu, edo Kontrizioa sortzeko. Oitu gaitzen bada, Akto fedekoak, esperanzakoak, karidade, ta kontriziozkoak sarritan egitera. Arretarekin jarraitu degiogun animaren egitekoari, onela iristeko, Jesus onak ainbeste nekerekin guretzat irabazi zuan betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI, TA BATGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amargarrena.

ALABATUA &.

Konfesio on bat egiteko bear dan bigarren gauza, edo egindako utsegiteen damua izan da azkeneko iru Erakusaldien gaia. Orain lenbiziko Komunioko liburuia asitzen da itzegiten, konfesio onak eskatzen duan, irugarren gauzaren gañean, eta galdetzen du gisa onetan.

«Konfesio on bat egiteko bear dan irugarren gauza zeñ da? Erantzuten du: ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa.

Nolako asmoa ote da asmo au? Lenbizia asmo oso, ta sendoa. Bigarrena, bekatu guzietara, larrietara beintzat, zabaltzen dana. Irugarrena, asmo eragillea.

Zer aditzen dezu, diozunean asmo oso, ta sendoa? Aditzen det asmo biotz guzitik jaioa, eta alako sasoiari ipintzen duana bekataria, non prest jartzen dan ezergatik ere aurrera bekaturik ez egiteko, ez eta bizitzagatik, edo eriotzagatik ere? Zer aditzen dezu diozunean: *bekatu guzietara, larrietara beintzat zabaltzen dana*? Aditzen det konfesio ona egiteko ez dala asko bekatu au, edo ura ez egiteko asmoa, baizik bear dala, bekatu larririk beintzat, batere beñere ez egiteko asmoa. Asko ote da bekatu larririk beñere ez egiteko asmoa, bekatu benialik baizik ez duana konfesatzen danean? Ez, Jauna. Zer egin bear du bada onelako bekatariak konfesioko Sakramentuaren ondasunak ez galtzeko? Artu bear du asmo osoa, bekatu larririk ez egiteko beñere, ez eta konfesatu dituan benialak ere, batezere au, edo ura: orregatik onena da gutxitan egindako bekatu benial andiskoteren bat aitortzea, larririk ez danean. Zergatik ori? Zeren errazago sortzen dan, gutxitan egiñ oi dan bekatuan ez erortzeko, asmoa. Zer aditzen dezu diozunean: asmo eragillea? Aditzen det asmo bat bekataria esnatzen, eta azkartzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera». Orra lenbiziko Komunioko liburuak gai onetan dakarrena.

Bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa gutxik bear bezala ezagutzen due, eta au gabe geienak konfesatzen dira. Orregatik gauz egokia deritzat, Komunioko liburuak asmo onen gañean dakarrena ugarisêago azaltzea. Gaur aditzera emango det, benik beñ: Konfesio ona egiteko zeñ gauza bearra dan bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez



egiteko asmoa. Urrena, zer doai, edo kondizioak bear dituan asmo onek: eta emendik atera bear degun frutua. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Bekatariak Jaunaren kontra egin dituan, eskergabekerien barkazioa iristeko, dala onezko damuarekin, edo dala konfesioko Sakramentuaren bidez, gauza bearra da bekatuen damu egiazkoa; len ekusi degun bezala; baña ez da asko au, baizik gauza bearra da gañera, aurrera bekatuak ez egiteko, eta Jaunaren aginteak leialki gordetzeko asmoa. Zer egiten degu igarotako bizitza gaiztoaren gañean negar egitearekin, ezpadegu biotzik aurrera bekatuak ez egiteko? Garbi zaitzete bekatuen loietatik, eta ez galdu bekatu berriekin garbitasun au, esaten digu Isaias Profetak: *Lavamini, mundi estote aiena itzatzue* zuen gogorazio gaiztoak, utzi itzatzue gaiztakeriak, eta ikasi obra onak egiten: *Auferte malum cogitationum vestrarum, quiescite agere perverse, discite bene facere*. Era onetan elurra bezala zuri-tuak geratuko dira zuen bekatuak, grana bera bezeñ gorriak balira ere: *Quasi nix dealbabuntur*. Gaiztoari damutzen bazaio egin dituan bekatu guziaz, eta gordetzen baditu osotoro nere aginteak, aztuko naiz, dio Jaunak Ezekiel Profetaren autik, egin dituan eskergabekeria guziaz: *Omnium iniquitatum ejus non recordabor*. Itz oetan argiro eskatzen zaku bizitza ontzeko, edo aurrera bekatuak ez egiteko asmoa. Orregatik Florenziako, ta Trentoko Konzilioak, bekatuen barkazioa iristeko, eskatzen due, ez damua bakarrik, baita aurrera bekatuak ez egiteko asmoa ere. *Dolor de peccato commisso cum proposito non peccandi de cetero*. Emendik erraz atera dezakezu, konfessio ona egiteko guziz bearra dala bizitza ontzeko, eta aurrera bekatuak ez egiteko asmoa. Ekusi ditzakun orain, asmo onek bear dituan doai, edo kondizioak.

§ II.

Konfessio ona egiteko bear dan asmoaren lenengo doai, edo kondizioa da osoa eta sendoa izatea. Emendik ez da asko asmo erdi, edo laurdena sortzea, esaten dezula: *nai nuke, al banu, utziko balit pakean: alegiña egingo det*. Era onetan itzegiten duan bekatariak ez du bekatua utzitzeko asmo oso, eta sendoa, baizik nai nukezko utsa; baña sortzen badu asmo oso, ta

sendoa, orduan beregan osotoro erabakitzen du bertatik beti-betiko utzitzea bekatu diran gauza guziaz, kosta dakiola edozeñ neke edozeñ gurutzeta, eta naigabe. Asmo au guziz ederki aditzera ematen digu S. Paulok, orain esatera noan eran. Gogora ekarri zituan Apostolu Santuak Jesus maitagarriak guri ongi naiez egin zituan gauzak, oen artean gugatik gurutzetan bere bizitza ematea: eta galdetzen dio bere biotzari: *nork galerazoko digu Jesus maitagarria amatzea, eta serbitzea? Quis nos separabit á charitate Chri?* Galerazoko ote digue neke andiren batzuek? *An tribulatio?* Galerazoko ote dige barrengo kezka, eta estutasunen batzuek? *An angustia?* Galeraziko ote digu goseak, edo gauza guzieren gabeak? *An fames, an nuditas?* Galeraziko ote digu Jesus maitagarria amatzea, ta serbitzea, onra, eta bizitza galtzeko perillak, edo munduak, ta Demonioak gure kontra altxa lezakean okaitz gogorren batek? *An periculum, an persecutio?* Galerazoko ote digu Jesus ona amatzea, ta serbitzea ezpata lepoan ekustek? *An gladius?* Zer diola, uste dezu, S. Paulok galde oen guzieren ondoren? Ez dio *nai nuke*, ez dio *al banu*, edo *alegiña egingo det*, baizik dio biotz alai, ta prestu batekin: uste osoa daukat Jaunagan, ezerk ere galerazoko ez didala nere Jesus ona amatzea, ta serbitzea: *Certus sum*. ez eriotzaren beldurrak, ez bizitzaren usteak: *neque mors, neque vita*. ez Aingeruak, ez oraiñ diran, ez gero izango diran gauzak, ez munduko andien alegiñak, ez Zeruak, ez infernuak, ez eta beste gauzak ere ez dit galerazoko nere Jesus ona amatzea, ta serbitzea. Ona zeñ ederki aditzera ematen digun S. Paulok konfessio onak eskatzenduan *asmo oso ta sendoa*. Esan gidazu oraiñ, Kristaua: onelako asmo oso, ta sendoarekin joan, eta joaten ote gera konfesioko Sakramentura? galde zere biotzari; onek bakarrik daki alabaña gauz onen berri. Beldur naiz geienai biotzak eranzungo diela: *ez da nigan sortu orrelako asmo oso, ta sendorik*; askok alabaña nai luke bekatuak ez egitea, baña eziñ erabaki due beti-betiko bekatu diran gauzak utzitzea: *nai nuke, albanu: utziko balit pakean: alegiña egingo det*, eta beste onelako itzak esango ditue, eta aditzera emango due, ez duela bekatuak beñere ez egiteko asmo osorik. Eta oez gañera zenbat dira, esan, eta egin bear diran gauzak esateko, ta egiteko, biotzik ez duenak auzoaren, aidearen, adiskidearen beldurrez? Zenbat gauza debekatueta kuturtzen diranak, urliarekikoa galtzeko beldurrez? Zenbat ezkontzaren uste piska ez galtzeagatik leku ematen diezanak itz loiai, keñada, eta jolas lotsagarriak? Zenbat erriz erri, festaz festa dabilzanak suerte onaren billa, utsegite askotan erortzen dirala. Noiz sortu due oek bekatuak beñere ez egiteko *asmo oso ta sendoa?* Baña goazen aurrera.



Konfesio on bat egiteko bear dan asmoaren bigarren doai, edo konfizioa da *bekatu guzietara, larrietara beintzat, zabaltzen dana izatea*. Florenziako, eta Trentoko Konzilioak eskatzen due aurrera bekaturik ez egiteko asmoa: *cum proposito non peccandi de cetera*, eta nola sortuko da aurrera bekaturik ez egiteko asmoa, guziak, larriak bederik, osotoro utzi nai ezpada? Beraz konfesio onak eskatzen duan asmoa zabaltzen da bekatu guzietara, larrietara bederik. Eta emen arkitzen da bekatarik askorentzat aldapa bat txit gogorra, batezere oitura zarrarekin, edo guraren batera itsutuak arkitzen badira. Urkia aspaldi oitua dago erari-mota guzietara: emendik gertatu zaizka kalte andiak animaren, eta gorputzaren aldetik. Konfesio ona egiteko, artu bear du asmo osoa, aurrera griña ori utzitzeko, baña non da biotza aldapa au igarotzeko? Sandia gurasoa da, eta bear-tua dago umeai Zerurako bidea erakustera, ala itzez, nola bizitza onarekin; baña berak eztaiki ongi dotrina, eta oitua dago lasaikerian bizitzera, berandu etxeratzera, Sakramentuetatik iges egitera. Ezagutzen du, zer egin bear lukean, bere eginbideari erantzuteko, baña ez du biotzik lan oni ekiteko. Berendiak du anziñako oitura itz loiak esateko, keñada itsusiak egiteko; eta konfesio ona egingo badu, gauza bearra da, bekatu oriek betiko utzitzeko asmo osoa; baña ez du biotzik griña oek osotoro desegiteko. Alperrik egin due alegiña konfesoarek oitura oek utzierazteko, berendia geratu da len zana. Urkia aspalditxo asi zan suerte onaren billa: badabil ergel-ergel beñ batera, gero bestera, eta leku guzietan gertatu zaizka utsegite asko, itzez, gogoz eta eskuz, azkeneko bekatuan erori ezpada ere. Konfesio ona egiteko artu bear du, bekatu oriek betiko uzteko asmoa; baña artuko ote du? Nekez. Naiago luke ur, eta ogi utsarekin astean beñ barautzea, ezen ez bere ergelkeria, ta ibillera oriek betiko utzitzea; eta bekatarik oek, eta beste oen anzekoak, nola sortuko due bekatu larri guzietara zabaltzen dan asmoa, biotzik ezpadue, ukitu diran, bekatu oriek betiko utzitzeko?

Konfesio ona egiteko bear dan asmoaren irugarren doia da eragile izatea: au da asmo bat bekataria esnatzen, eta azkartzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera. Alperrik esango dezu, bekataria, negar andiak: *artzen det asmo osoa bekaturik ez egiteko: ez, ez geiagor bekaturik, ez bizitzagatik, ez eriotzagatik*. Alperrik, diot, izango da au guzia esatea; ez dezu bear dan asmorik, baldiñ esnatzen ezpazaitu bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera. Demagun, zure etxeak dituala soro onak, eta iñaurkiñak ere ugari, baña urrutitxo. Zuk, ala nai izatera, izango zenuan artoa, ta garia, etxerako ezezik, salzeko ere, baña ederretsi zenion edanari, ibilliari, ta alperkeriari, eta galdu dira lurak. Ez dezu bear dezun

artoreen laurdenik egiten, eta or zabiltza auzoetan arto billa, baña ez dizu iñork eman nai, zeren pagatzen eztakizun. Jartzen zera lurrai begira: ikusten dezu, nola dauden larrez, aranzaz, eta belar gaiztoz estaliak, eta negarraz diozu: *ah soroak, soroak, nere zabarkeriaz galdu zerate, baña laster beste gisatan ekusiko zaitue begiratzen dizuenak*. Au guzia zuk esan arren ezpazera esnatzen lanari jarraitzeko; ezpadezu arretarik iñaurkiñak ekartzeko, eta lurak ongi maneatzeko, zer esango da zure negarraz, eta asmoaz? esango da antzuak, edo obeto esateko, iduripen utsa zirala zure asmoak, zeren eragileak izan ez diran, eta azkartu etzaituen zure lurak ongi maneatzera. Au bera esango da aurrera bekaturik ez egiteko, artzen ditugun asmo guziaz, esnatzen, eta azkartzen ezpazera artarako neurri egokiak artzeko. Asko da gaurko.

Zer frutu emendik atera bear degu? Lenengoa, Jaunaren aurrean negar egitea oraindano gure zabarkeria, ta bizitza gaiztoaz. Bigarrena, bizitza ontzeko asmo egiazko gabe egin diran konfesoak berritzea: eta aurrera bizitza onari arretarekin jarraitzea. Era onetan iritsiko degu gure bekaturen barkazioa, eta gero betikotasun guzian iraungo duan gloria. Amen.



OGEI, TA BIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amaikagarrena.

ALABATUA &

Azkeneko Erakusaldian aditu zenduan, Kristaua, Konfesio ona egiteko, zeñ gauza bearra dan bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Aditu zenduan gañera, asmo onek bear dituala iru doai, edo kondizio: oek dira *asmo oso, ta sendoa, bekatu guzietara, larrietara beintzat, zabaltzen dana, eta eragillea izatea*. Asmo eragillearen izenez aditzen degu asmo bat bekataria esnatzen, eta azkartzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera. Neurri oen gañean itz egiten degu lenbiziko Komunioko liburuak gisa onetan.

«Esan dezu, asmo eragillea dala asmo bat bekataria esnatzen, eta azkartzen duana aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera. Esadazu oraiñ. Zer neurri dira oek? Bearrenak sei. Zeiñ dira? Lenengoa bekaturoko bide, eta perill urkoak beti-betiko utzitzea. Bigarrena, utzitzea era berean, besteri bekaturoko bidea ematen dioen, izketa, eta modu gaizto guziak. Irugarrena, lagun urkoari bere onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegitea, eta gauza bere jabeari biurteza lenbait len. Laugarrena, bekatoren batean erortzeko oitura izan bada, au eskuratzeko, eta ezitzeko benaz saiatzea, eta argaltasunez irristatzea gertatzen bada, lenbait len altxatzeko alegiña egitea, Sakramentuaren sendagaiak artuaz. Bostgarrena, bakoitzaren estadu, bizimodu, eta karguari dagozkan, eginbideai arretaz eranzutea. Seigarrena, ezagutzea ez gerala gauza, edo gai, gerenez, edo Jaunaren grazia, ta lagunzagabe neurri oek artzeko, ez eta *Jesus bat* esateko ere: eta grazia au kontuz billatzea, dala Jaun berari umilki eskatuaz, eta sarritan Sakramentuak artuaz, dala Birjiña txit Santa, bekatariaren Ama gozoa, bitarteko ipiñiaz. Konfesatzera datozen guziak ote dakarte esan dezun bezalako asmoa? Ez, Jauna; omen dira alabaña bekatari asko, asmoaren iduri utsarekin datozenak, ona asmo eragilleak eskatzen dituan, neurrien gañean lenbiziko Komunioko liburuak dakarrena».

Bekatarien artean badira zenbait egindako bekatuen damuz negar egiten duenak, eta aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzen benaz ari diranak. Oek badue konfesio onak eskatzen duan asmo oso *era-*

gillea gure ustean. Oetatik ote zera zu aditzen zauden Kristaua? Au da gaur ongi begiratu bear degun gauza, eta oraingo Erakusaldiaren gaia. Enzun kontuz, Kristaua.

§ I.

Zuk, Kristaua, uste dezu, aurrera bekaturik ez egiteko asmo oso, ta eragillearekin arkitzen zerala. Ezagutzen det, diozu, Dabiden eran, nere bekatua: *Iniquitatem meam ego cognosco*. Baña ona ni damuz beterik, eta prest aurrera bekaturik ez egiteko ezergatik, ez eta bizitzagatik, edo eriotzagatik ere. Ongi nere Kristaua; baña zure asmo ori eragillea ote da? Asmo orrek azkartu ote zaitu aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiak artzera? Azkartu ezpazaitu, zure asmoak izan dira anzuak; baña ekin badiezu benaz bekaturok ez egiteko neurri egokiai, orduan uste izan diteke, zure asmoa dala *osoa*, ta *eragillea*. Au ezagutzeko, atoz nerekin, eta begiraldi bat eman degiegun, bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko neurri egokiai.

Oen artean lenengoa da bekaturoko bide, ta perill urkoak beti-betiko utzitzea, utzi albaditezke. Ez dago bizitza ontzeko, ta aurrera bekaturok ez egiteko asmo oso, ta eragillerik neurri au artu ditekeala artzen ezpada. Orregatik Teologoak erakusten due S. Karlos Borromeorekin, bekaturoko bide, ta perill urkoak utzi bear dirala absoluzioa artu baño len, gutxitan gertatu oi dan estutasunen bat gertatzen ezpada: eta Espiritu Santuak esaten digu: *perilla nai duana, perillean bukatuko da*. Zuretzat, nere Kristaua, bekaturoko bide, ta perill urkoa izan da etxean, edo auzoan dezun urlia ori: eta era berean arako etxe artara joatea, edo zauden tokian bizitzea, ta zure kide zentzugabe oriekin biltzea. Zuretzat bekaturoko bide, ta perill urkoa izan da inuterian triskan, edo izan oi diran lasaikerietan ibiltzea: erriko, edo auzoetako festetara joatea. Zuretzat bekaturoko bide, ta perill urkoa izan da ezkontzeko itza eman zenionarekin egotea, edo ezkontzaren arrastoan erriz-erri ergelkerian ibiltzea. Bekaturoko bide oek utzitzea da asmo oso-eragillearen siñalea. Atozea, eta utzi dituzu, eta betiko? Bai, Jauna, nekez badaere.

Bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko bigarren neurria da, besteri bekaturoko bidea ematen dioen izketa, eta modu gaizto guziak betiko utzitzea. Era onetan lagun urkoai bekaturoko bidea ematea da bekatu guziz izugarria: da animen eralle izatea, eta Jesus onak bere bizi-



tzaren kostuz erosi zituan animak Satanasen atzaparretan ipintzea. Zori gaiztokoa au egiten duana, dio Jesu-Kristok: *Vae homini illi, per quem scandalum venit*. Onelako bekataria beartua dago benik beñ, bekaturako bidea lagun urkoari ematen dioen modu guziak utzitzera; eta len beiñ, ta berriz itza emanda, agindua egiñ ezpadu, egin bearra da absoluzioa artu baño len. Ez da au ere asko adiña; baizik bere aligiñean desegin bear ditu animetan egindako kalteak; deadar egiten due alabaña oek Jaunaren aurrean. Baña nola au egingo du, ezpadaki noraño zabaldu diran kalteak? Nola, baldin bearbada asko galdu badira betiko? Ez du bekataria animen kalte oek desegiteko beste biderik, ezpada bere bizitza onarekin Zerurako irabaztea, len galdu zituan adinbat, edo geiago. Au aditzera eman zuan Dabidek, esan zionean Jaunari. Erakutsiko diet gaiztoai zure lege Santa, eta biurtuko dira zugana: *Docebo iniquos vias tuas, et impij ad te convertentur*. Zuk, Kristaua, uura bezala edan izan dezu bekatu au, eta egin dituzu animetan ainbeste kalte. Oroj zaite, zenbat bider esan dituzun itz loi, edo desonestoak etxean, soroan, ta bideetan, zenbat bider egin dituzun keñada lotsagarriak, eta zenbati eman diezun bekaturako bidea, zertan zeuden jakin naiez. Oroj zaite zenbati erakutsi diezun bekatua. Nork esan, emendik etorri, ta etorriko diran kalteak? Beartua zaude, Kristaua, betiko utzitzera bekaturako bidea ematen duen modu guziak; eta gañera animetan egin dituzun kalteak desegitera: eta ezin sortu dezakezu bestela konfesio onak eskatzen duan asmo oso-eragillea. Galde oraiñ, Kristaua, zere biotzari, prest arkitzen ote dan au guzia egiteko? Jauna, utzi ditut, diozu, besteri bekaturako bidea emateko modu guziak: ta desegin nai nituke animetan egin ditudan kalteak bizitza on bati jarraituaz. Ongi: gisa onetan zugar arkitzen da asmo oso-eragillearen bigarren siñalea.

Bizitza ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko irugarren neurria da lagun urkoari bere onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegitea, eta gauza bere jabeari biurtzea lenbait len. Añ gauza bearra da au, non S. Karlos Borromeok dionez etzaio bekataria absoluziorik eman bear kalte oek desegin, edo gauza bere jabeari biurtu artean, baldin len ala agindu bazitzaion, eta zabarra izan bada. Zuk, Kristaua, lagun urkoari kalte egin diozu bere onran aurpegira ematen zeniola bere edo aurrekoen utsegiteren bat: kalte egin diozu bere izen on, edo faman, ez dituan tatxak egotziaz, edo dituanak aziaz: barreatu gabe zeudenak agertuaz. Zu izan zera añ madarikatua, non, lagun urkoari eragin ziñukan, bekatua gauz anditzat esan dezun batean, eta bestean: etziñan kontentatu anima galeraztearekin, baizik kendu nai izan diozu bere izen ona, edo fama. Zuk egin diozkatzu kalteak lagun urkoari neurrian, pisuan, prezio-

an; era berean erriari, edo Komunari. Zuk batean, eta bestean, egin dituzu zorrak, eta era izanik ez diezu eranzun, eta bizi zera besteren gauza biurtu gabe. Suminduak daude artzekodunak, eta Zeruraño deadar egiten due zure, ta konfesooren kontra. Beartua zaude kalte oek guziak desegitera, ez nola nai, baizik absoluzioa artu baño len, zeren len zabarra izan zeran. Prest arkitzen ote da zure biotza au guzia egiteko? Jauna diozu, berorrek esan dituan kalteak alegiñean desegin ditut; egon naiz artzekodunakin, eman diet aldedana, eta gañerakoaren epeak egin dizkidee. Au onela bada, zugar arkitzen da asmo *oso-eragillearen irugarren siñalea*.

Bizitza ontzeko, ta aurrera bekaturik ez egiteko laugarren neurria da *bekaturen batean erortzeko oitura izan bada, au eskuratzeko, eta ezitzeko benaz saiatzera*. Bekatuan erortzeko oitura, batezere ongi errotua, eta zarra bada, miñanze izugarria da, ta gutxitan sendatzen dana. *Gazteak gaste denboran artu duan bidea, ez oi du utzi zarizen danean ere*, dio Eskritura Santak: eta Jeremiasek esaten digu; *gaiztakeriara oitutzen bagera, onduko gerala, noiz ote? Etiopiako beltzak bere larrua aldatzen duanean, eta katamotzak bere nabardurak; edo mantxak uzten dituanean*. Añ da miñanze txarra, non absoluziorik ezin artu dezakean onelako bekataria, oitura gaiztoa uzteko ongi saiatu dedin artean, baldiñ len emandako itzak gorde ezpaditu. Zuk, Kristaua, izan dituzu bekatuan erortzeko oitura ez gutxi, dala, birauak botatzeko, edanean eta, alferkerian zere anima galtzeko: dala itz desonestoak esateko, keñada lotsagarriak egiteko, zere bakarrean atsegin zikiñak artzeko, mutillak mutillakin, eta neskatxak neskatxakin gaizki dirudien ibillerak egiteko: asko bider itza eman dezu, utziko dituzula aztura gaizto oriek, baña ez dezu egiñ agindu zenduana: eta beartua zaude bertatik alegin guzia egitera griña txar oriek garaitzeko, eta artean eztago absoluziorik. Gañera beartua zaude konfesioak berritzera, bizitza ontzeko neurririk artu ez dezulako. Prest arkitzen ote zera au guzia egiteko? Jauna, esango dezu: onenbeste denbora da oartu nintzala, zeñ perill andian nengoan betiko su, ta garren artera joateko: arreizkero garaituaz noa nere oitura gaiztoak, eta ari naiz prestatzen nere bizitza gaiztoaren kontuak. Beldurtzen naue nere griña txarrak, baña uste det, lagunduko didala Birjiña txit Santak. Au onela dala, badezu zuk asmo oso-eragillearen, laugarren siñalea.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko bostgarren neurria da, bakoitzaren estadu, bizimodu, eta karguari dagozkan, eginbideai ongi begiratzea, eta arretaz erantzutea. Gerta diteke, Erretore, Alkate, Errejidore, Diputadu, eta guraso bat ardura ona duana izatea Jaunaren legeko amar aginteak, eta Eliz Ama Santaren bostak gordetzeko, baña aurpegirik ez izatea bere karguaren eginbideai erantzuteko: orregatik kar-



gadun dan bitartean biziko da bekatu larri, edo mortalean. Au onela gertatzen da edozeñ estadutan askorekin, eta era berean errietako batzarreetara sartu ziran ez gutxirekin. Oetatik batzuek eztakie, zer ordenanza dituen, besteak ez due aurpeirik bear danean sendoro kontra egiteko. Baña zu, Kristaau, alde onetatik zer ekusirik ezpazendu ere, gurasoa zera, eta beartua zaude umeai dotrina erakustera, edo zerez, edo eskolara bidaltzen dituzula: beartua zaude Zerurako bidea erakustera ez itz utsakin, bai-zik bizitza onarekin: beartua zaude, bekatuak bide, ta perilletan ibiltzea eragoztera: beartua zaude atzenean bearrari, edo lanari jarraitzera, ume, ta etxeakoak bizi ditezen ongi beren mallan; baña zu bizitu zera eginbide oei batere begiratu gabe, eta zure konfesioak izan dira, bizitza ontzeko asmo osoeragillerik gabe egiñak. Orregatik beartua zaude, benik beñ, zere eginbideak ezagutzera, eta oei benaz erantzutera. Beartua zaude urrena, zabarkeria orretan bizitu zeran denborako konfesioak berritzera. Prest arkitzen ote zera au guzia egiteko? Jauna, esango didazu: urte betera dijoa, dotrina batzuek aditu ta, Jaunak biotzean ukitu ninduala, eta arreizkero saiatzen naiz gurasoari dagozkan gauzak leialki egitera: ari naiz gañera nere bizitza guziko kontuak ateratzen. Au onela bada, badezu asmo oso-eragillearen bostgarren siñalea.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekatuak ez egiteko seigarren neurria da Jaunaren grazian, ez gerengan, ipintzea gure esperanza: eta grazia au billatzea kontuz, dala Jaun berari umilki eskatuaz, eta sarritan Sakramentuak artuaz, dala Birjiña txit Santa, bekatarien Ama gozoa, bitarteko ipiñiaz. Gertatzen da batzuetan, bekatariak bere kezka guziak idukitzea egin dituan bekatuen konfesio osoan, eta ardurarik ez izatea aurrerakoaz. Ai! dio, oraindañokoa zuzendua baneuka! gerokoak ez liket emango ainbeste kezka. Eta gero? Biurtzen da lenekora, zeren beregan uste geiegi artu, eta Zeruko laguntza billatzeko zabartu zan. Asko degu gaurko.

§ III.

Ekusi degu, nere Kristaau, nola zu arkitzen zeran bizitza ontzeko, eta aurrera bekatuak ez egiteko asmo oso-eragillearekin: au ederki aditzera emango digue artarako artu dituzun neurri egokiak. Zoaz aurrera asi dezun lan onetan: billa ezazu Jaunaren lagunza, ta grazia, dala berari umilki eskatuaz, eta sarritan Sakramentuak artuaz, dala Birjiña txit Santari jaiera andi bat artuaz. Andiak dira zure etsaien indarrak, eta ezin konta al,

prestaturik dauzkeen, lazoak, baña andiagoa da Jaunaren lagunzaren indarra. Ez beldurtu, esaten dizu lsaiasen autik; ez beldurtu, zeren ni zurekin, eta zure alde naizan: *Ne timeas, quia ego tecum sum*. Jauna, esaten zion Job Santuak, jarri zaite nere alde, eta betor nor nai nere kontra: *Pone me juxta te, et cujusvis manus pugnet contra me*. Eta S. Paulok dio; Jangoikoa gure alde bada, nor da gure kontra? *Si Deus pro nobis, quis contra nos?* Jauna zere alde dezula, irau dezakezu bekatuan berriro erori gabe, eta onela iritsiko dezu betiko bizitza doatsua. Amen.



OGEI, TA IRUGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amabigarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko aldian aditu zenduan, Kristaua, nor diran bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko *asmo oso-eragillearekin* konfesatzen diranak. Baña asko omen dira, asmoaren iduri utsarekin datozenak, eta oen gañean lenbiziko komunioko liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Nor, edo zeñ ote dira ontzeko asmo egiazko gabe edo asmoaren iduri utsarekin konfesatzen diranak? Erantzuten du: asko bide dira, baña ezagutuena oek. Lenbizia, doktrina, ta ongi konfesatzero prestaera ikasteko arretarik artu nai ez duenak. Bigarrena, bekaturako bide, eta perill urkoak uzteko biotzik ez duenak. Irugarrena, besteri bekaturako bidea ematen dioen, itz loi, eta modu gaiztoak laja nai ez dituenak. Laugarrena, lagun urkoari onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegiteko, edo jabeari bere gauza biurtzeko, arretarik ez duenak. Bostgarrena, bekaturako oiturak garaitzera benaz saiatu nai ez duenak. Seigarrena, beren estadu, bizimodu, eta karguaren eginbideaz ardurarik gabe bizitu diranak. Zazpigarrena, lagun urkoaganako gorrotoa, edo gorrotoaren siñaleak utzi nai ez dituenak». Ona lenbiziko komunioko liburuak asmoaren iduri utsarekin konfesatzen diranen gañean dakarrena.

Oetatik ote zera zu, aditzen zauden Kristaua? Au da aurrena begiratu bear degun gauza. Eta oetatik bazera. Zer ote da zuk egin bear dezuna? Au da urrena ekusi bear deguna. Enzun, Kristaua, kontuz.

§ I.

Kristauak konfesatzera datorrenean, esango du beregan: *ez, ez geiago bekaturik, ez eta bizitzagatik ere*. Alaere geienak engañatzen dira, eta ez due, asmoaren iduri utsa besterik. Nola ori? Zeren azkartzen ez diran aurrera bekaturik ez egiteko arreta ipintzera. Onelakoak dira *benik beñ, dotrina, ta ongi konfesatzeko prestaera ikasteko arretarik artu nai ez duenak*. Kristauak, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartzen danetik, artu bear du Zerurako bidea, eta au egiteko bear dan eran, jakin, eta sinistu bear dira fedeko gau-

zak; eta nola au egingo du, saiatzen ezpada benaz? Kristauak eskatu bear diozka Aita Zerukoari betiko bizitza, eta arako bidean bear dituan gauzak, eta au nola egiñ erakutsi zigun Jesu-Kristok; baña nola au ongi egingo du, Jesu-Kristok erakutsi zigun erregu laburra aditzeko, saiatzen ezpada? Kristauak egin bear ditu Jaunak, eta Eliz Ama Santak agintzen diozkan gauzak; baña nola egingo ditu, ezpadaki zer agintzen zaion mandamentu bakoitzean? Gañera artu bear ditu Sakramentuak, batezere konfesiokoak, ta Komuniokoak: eta ezpadaki oek ongi artzeko prestaera, nola prestatuko, da? Atzenean, Kristauak denboraz artzen du bere estadu, bizimodu, edo karguren bat, eta Santo Tomasek esaten digun bezala, bekatu larriaren azpian beartua dago, bere estadu, bizimodu, edo karguari dagozkan eginbide, edo obligazioak jakitera. Kristauak jakin bear dituan gauzen artean batzuek dira añ bearrak Zerurako, non ezdakizkiana ezin Zerura ditekean, ez jakitean kulparik ezpalu ere. Beste batzuek ez dira añ bearrak, baña jakin bear dira bekatu larri, edo mortalaren azpian. Eta len kontuan konfesoareak, edo arzaik ipiñita saiatu ez danari etzaio absoluziorik eman bear. Ala esaten digu S. Karlos Borromeok. Ala ere badira Kristauak dotrinako liburutoak lau parteen gañean dakarrena eztaienak badira, *Akto Kontriziozkoa* egiteko itzak bederik ikasi ez dituenak. Badira dotrinatik igesi dabilzanak. Ez jakitea zenbat gauza, ez da miseritsitzekoa: baña jakiteko arretarik artu nai ez izatea? Au da bekatu bat barkaziorik ez duana. Kristaua, eta ez ote zera zu ere oetatik bat? Ala bazera, zure konfesoak izan dira asmo oso-eragillea gabe, edo asmoaren iduri utsarekin.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osogabe, edo asmoaren iduri utsarekin konfetatzen dira bigarrena, bekaturako bide, ta perill urkoak uzteko biotzik ez duenak. Ala erakusten digue Teologo guziak: eta Espiritu Santuak esaten digu: *perilla nai duana perillean bukatuko da*. Alaere, Pazkoetan igarotzen diranen artean, asko geratzen dira, len zituen bekaturako bide, eta perilletan. Urliarentzat bekaturako bide, ta perill urkoa izan zan etxean, edo auzoan duan ori: era berean arako etxe artara joatea, bizi dan:lekuan bizitzea, eta oraindano izan dituan lagun arro, ta lasaiakin ibiltzea. Sandiarentzat bekaturako bide, ta perill urkoa izan zan iñuterian triskan, edo izan oidiran jolas enasetan ibiltzea; erriko, edo auzoetako festetara joatea; ezkontzeko itza eman zionarekin egotea, edo erriz-erri ezkontzaren usaian ibiltzea. Alaere ez due izan biotzik perill oek utzitzeko, ez Misioko deadarrakin, ez Konfesoaren aginteekin: eta da siñale agiria, asmoaren iduri utsarekin konfesatu zirala. Eta ez ote da, Kristaua, au bera gertatu zurekin ere?



Bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osorik gabe, edo asmoaren iduri utsarekin konfesatzen dira irugarrena, besteri bekatu-rako bidea ematen dioen, itz loi, ta modu gaiztoak utzi nai ez dituenak. Batek bere anima galtzea, gauza izugarria da; baña berea ezezik lagun urkoenak ere galdu nai izatea, au da, Jesu-Kristok bere bizitzaren kostuz irabazi zituan, animak saltzea Satanasi, eta Jesusen odol preziotsua alpe-rrikako gauza biurtzea. Orregatik dio Jesusek: Ai! ta munduaren zori gaiz-tokoa eskandaloakgatik. *Vae mundo ab scandalis*. Ai! bekatu-rako bidea ematen duanaren zori gaiztokoa! *Vae homini illi per quem scandalum venit*. Bekatu au ez du munduak ezertan artzen; eta ezertan artu lekuan, zenbat eta anima geiago bekatuan amilderatzen diran, anbat geiago arrotzen, eta poztutzen da. Begira ezperen munduan ekusten danari. Zoaz soroetara, bideetara, plazetara, etxeetara, zer adituko dezu? Itz desonestoak, eta ipui zikiñak. Zer ekusiko dezu? Keñada itsusiak, jolas gaistoak, apaindura lotsagarriak. Zer ekusiko dezu? Gauetan batean, eta bestean geratzen dirala zenbait, eta Justiziaren aginteak autsitzen dirala nolana. *Vae mundo ab scandalis!* Ai! munduaren zorigaiztokoa! Onelako bekatariak, konfesa-tzen diranean ere, ez due asmo oso-eragillerik, uzteko osotoro, bekatu-rako bidea ematen duen, modu gaizto guziak. Atozea, Kristaua, eta etzera zu oetatik bat? Begira ongi Jaunaren aurrean.

Bizitza ontzeko, eta aurrera bekaturik ez egiteko asmo osogabe; edo asmoaren iduri utsarekin konfesatzen dira laugarrena, *lagun urkoari onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegiteko edo jabeari bere gauza biurtzeko arretarik ez duenak*. Onelako bekatariak beñ baño geiagotan adi-tzera emango zien beren arzaia, edo konfesoareak, lenbait len desegin bear zituela kalte orain aitatu diranak: eta era berean gauza biurtu bear zaiola bere jabeari; baña ez due izan biotzik au egiteko, egin zezakeela. Beraz oek konfesatzeko egin zituen asmo guziak etziran iduripen utsa bai-zik, eta konfesioak izan dira gaiztoak. Orregatik S. Franzisko Jabierrek, S. Karlos Borromeok eta Ritualak berak erakusten digue, eztakiela eman onelakoai absolu ziorik. Eta zenbat era onetako Kristau ez dira arkituko gaurko egunean? Batzuek kalte egiten dioe lagun urkoari onran, aurpegi-ra ematen diozkeela bere, edo aurrekoen tatxaren batzuek; besteak izen on, edo faman, egozten diozkeela ez dituan tatxak, edo agertzen dituela isilik zeudenak. Ta ez ote dira arkituko anima añ madarikatuak, non lagun artean agertuko duen besteri eragin zioen bekatua? Batzuek kalte egiten dioe lagun urkoari litxarrerriakin, besteak zorrai bere denboran erantzun gabez, eranzun litekeala; baña ez due arretarik izan kalte oek desegiteko. Emendik orrela bizitu diran denborako konfesioak izan dira asmo egiaz-

ko gabe, edo iduri utsarekin egiñak. Eta zu Kristaua, ez ote zera oetatik bat? Bizitza ontzeko, ta aurrera bekaturik ez egiteko asmo oso, gabe, edo asmoaren iduri utsarekin konfesatzen dira bostgarrena bekatu-rako oitu-rak garaitzera benaz saiatu nai ez duenak. Bekatu-rako oitura, jaioberria danean, garaitu diteke neke gutxiagorekin; baña anziñakoa bada, ez da garaitzen, baldin bekatariak ekiten ezpadio lan oni txit benaz. Au aditze-ra ematen digu Jeremiasek, dionean: *Gaiztakeriara oitutzen bazerate, onduko zerate, Etiopiako belzak bere larrua aldatzen duanean, eta katamotzak bere nabar-durak, edo mantxak uzten dituanen*. Emendik onelako bekatariak, baldin konfesatuta, benaz saiaturen ezpadira oitura gaiztoa garaitzera, aditzera ematen due, etzuela bizitza ontzeko asmo oso-eragillerik, baizik asmoa-ren iduri utsa: eta Teologoak erakusten digue, etzaiela absoluziorik eman bear, benaz saiatu dirala obraz erakutsi dezeen artean. Goazen oraiñ, Kristaua, soseguz, eta pakean munduari begiraldi bat ematera, eta ekusi dezagun nola bizidan. Arkituko dituzu asko bekatuaren oitura zarrarekin: batzuek birauak botatzeko; besteak edanean igarotzeko; batzuek itz deso-nestoak esateko, eta keñada lotsagarriak egiteko, besteak beren bakarrean atsegin zikiñak artzeko: batzuek litxarreriarako, eta saldu-erosian tranpak egiteko; besteak lagun urkoaren kontra nola nai itzegiteko. Oek eman ditue milla itz oitura gaizto oek utzitzeko, baña ez dira saiatu benaz, eta beragatik ez due izan, konfesatu diranean bizitza ontzeko asmoaren iduri utsa baizik. Eta nolakoa izango zan, Kristaua, zure asmoa, baldin oitura gaiztoak utzitzeko saiatu ezpazera benaz?

Bizitza ontzeko, ta aurrera bekaturik ez egiteko asmo oso gabe, edo asmoaren iduri utsarekin konfesatzen dira seigarrena, *beren estadu, bizimo-du, eta karguaren eginbidez arduragabe bizi diranak*. Izan dedilla bat kontuz-koa Jaunaren legeko amar Aginteak, eta Elizaren bostak gordetzeko, arduragabe bizi bada, bere estadu, ta karguari dagozten gauzetan, ez du onek konfesio onik egiten, zeren ez duan bizitza ontzeko asmo oso-eragillerik. Zu Kristaua, zere estadu, edo bizimodua arturik zaude; zu gura-so zera, eta bear bada beste karguak ere badituzu; baña ez dezu arretarik izan zure estadu, ta karguaren eginbideak ongi ezagutzeko, eta are gutxia-go oei eranzuteko. Zer asmo izan zentzakean bada zere konfesaldietan aurrera bekaturik ez egiteko?

Azkenean bizitza ontzeko, ta aurrera bekaturik ez egiteko asmo oso-gabe, edo asmoaren iduri utsarekin konfesatzen dira *lagun urkoaganako gorroto, edo gorrotoaren siñaleak utzi nai ez dituenak*: ez due alabaña gorde nai Salbatzallearen lege Santa. Gure Salbatzalleak agintzen digu, maite izan ditzakula gure etsaiak: *Diligite inimicos vestros*: on egin zaiezue, dio gorrota-



tu zaituenai: *Et benefacite his qui oderunt vos*. Ongi nai, ta amorio au, egiazkoa danean, agertzen da obretan, laguntzen zaiola lagun urkoari premiak ala eskatzen duanean bederik; ez du erakusten apendu nairik, ez eta gorrotoaren beste siñalerik ere: eta barkatzen ditu bidegabe guziak. Ongi nai, eta amorio au gabe bizitu diranak, konfesatu dira aurrera bekatuak ez egiteko asmo oso gabe, eta S. Karlos Borromeok erakusten digu, eztakie-la eman absoluziorik, bizitza onaren siñaleak obraz erakutsi ditzeen artean. Alaere asko dira Kristauen artean, edo gorrotoan, edo gorrotoaren siñaleak agertuaz bizi diranak. Badira etxeak, jatorriz bezala, lagun urkoaganako gorrotoaren sua itzali gabe gordea daukeenak, eta ondorengoetara zabaltzen duenak, Adanen bekatuaren eran. Badira, azaria olloaren zai dagoan bezala, eraren zai daudenak lagun urkoari, edo mesedea ukatzeko, edo txarkeriaren bat egiteko, eta ez due utziko biotzaren sasoi gaizto au, ez Pazkoetan, ez misioetan, ez bizitzan, eta ez eriotzan, eta onela jaxkiko dira betiko su, eta garren artera. Badira etsaiaren berri onak aditzean naigabez, eta illuntasunez betetzen, baña aren neke, edo kalteren baten berriarekin, poztutzen diranak. Badira era agertzen danean ozka, ta aginka bezala asiko diranak, etsaiaren onra, edo izenari utsiki egiten: ezta oentzat sonu añ gozorik nola dan lagun urkoaren utsegiteak esatea, ta aditzea. Badira lagun urkoari diosala ukatzen, edo muzinka egiten dioenak. Oek guziak konfesatu dira, Jesu-Kristoren lege ederra gordetzeko, asmo oso gabe. Eta zu, nere Kristua? Jauna, esango didazu on guzia orrela bada, guziz oker dago munduaren geiena: eta argiro dakust, nere oraindañoko konfesioak izan dirala bizitza ontzeko asmo oso ta eragille gabe egiñak. Zer egingo det, Zerurako bidean jartzeko? Au da oraiñ itz bian ukitu bear dedan gauza.

§ II.

Ekusia dago, nere Kristaua, aurrera bekatuak ez egiteko asmo oso gabe egindako konfesioak izan dirala gaiztoak, eta berritu bear dituzula; baña ez degu ezer egiten oek berritzearekin. Aurrena maneatu, prestatu, eta gozatu bear dezu zure biotzeko lur galdu ori, eta gero ongi etorriko da konfesioak berritzea. Biotzaren prestaera au ongi egiteko, egunean beñ igaro ezazu denbora piska bat gaizki bizitu zeran denborako kontuak ateratzen: zenbat urte igaro dituzun bizimodu orretan, urtean batz beste zenbat bider konfesatu zeran, eta madamentu bakoitzean zer oitura izan

dituzun. Bigarrena, irakurtzen badakizu, irakurri ezazu S. Ignazioren liburutik zerbaít, eta egizu fede, esperanza, karidade, ta kontriziozko afektuak, oraindañoko okerrak desegiteko asmo osoarekin. Irugarrena, bertatik utzi itzatu bekatuak bideak, eta anima galtzeko ona lagun urkoari ematen dioen modu guziak: utzi itzatu gorrotoak gaurdanik betiko, zeren ala agintzen digun Jesu-Kristok: saia zaitte zure oitura oriek garaitzeko, eta desegiñ itzatu bertatik lagun urkoari, erriari edo komunari egindako kalteak: garbi itzatu gauzak zure artzeko dunakin, eta albadezu bertatik erantzun giezuz zorrai, eta ezin badezu, egon zaitte artzeko dunakin, eta gera zaitte pakean. Au guzia ezta biotzaren prestaera besterik: gero zoaz nai dezun konfesoaregana, eta erraz berrituko dira zure konfesio gaiztoak. Egizu au, eta zure konfesioa izango da asmo oso-eragillearekin egiña: bizi zaitte asmo oni dagokan eran, eta iritsiko dezu betiko bizitza doatsua. Amen.



OGEI, TA LAUGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amairugarrena.

ALABATUA &.

Konfesio on bat egiteko bear dan irugarren gauza, edo aurrera bekatu ez egiteko asmoa izan da azkeneko Erakusaldien gaia. Emendik igarotzen da lenbiziko Komunioaren liburua, Konfesio ona egiteko bear dan laugarren gauzaren gañean itzegitera, eta galdetzen du gisa onetan.

«Konfesio on bat egiteko bear dan laugarren gauza zeñ da? Erantzuten du konfesioa, edo bekatuak aitortzea. Zer aditzen dezu konfesioaren izenez? Aditzen det egindako bekatuak aitortzea, edo esatea barkatzeko eskua duan Apaizari: Aitortu, edo konfesatu bear ote dira bekatu benialak ere? Ona da, baña ez da premiazko gauza: eta nola konfesatu ditekean bekatu benialak baizik ez duana, esan da bederatzigarren Erakusaldian.

Zer doai, edo kondizio bear ditu konfesioak? Irutara biur ditezke guziak. Zeñ dira? *Umilla, egjazkoa, ta osoa izatea*. Zer da konfesio Umilla? umiltasun, eta lotsa eder batekin bekatuak aitortzea. Zer da *konfesio egjazkoa*? Aitortzea bekatuak examinan arkitu diran eran, eta adiña. Zer da konfesio osoa? Bekatu larri konfesatugabeak osotoro aitortzea.

Konfesatu gabe utzitzen badezu bekatu larriren bat, zeren examinan gogora etzatzun, edo zeren gero aztu zatzun, gaiztoa izango ote da zure konfesioa? Ez, Jauna, ori nere kulpaz gertatzen ezpada; baña geratuko naiz azututako bekatu ura gero konfesatu bearrean. Lotsaz, edo gaiztake-riaz bekatu larriak edertzen, edo isilik gordetzen badira konfesioan, zer bekatu egiten da? *Sakrilejioa deritzan bekatua*? Zer egin bear du onelako bekatariak? Berritu bear ditu, gaizki konfesatzen asi zanetik egindako konfesioak. Beraz konfesatu gabe utzi zuan bekatua ezezik, konfesatuak ere berriro aitortu, edo esan bearko ditu? Bai, Jauna, zeren konfesio onarekin bakarrik kentzen, edo bukatzen dan bekatu larrien konfesatu bearra? Eta konfesatu gabe utzi zituan bekatuak aitortzeaz gañera, esan bearko ote du, nola lotsaz, edo gaiztake-riaz utzi zituan? bai, Jauna, zeren onetan dagoan *Sakrilejioa* deritzan bekatua oraiñ diogun tranzean. *Erakusleak*: ongi diozu, eta konfesio gaiztoak berritzeko, nola egin ditekean examina,

esan zan bostgarren Erakusaldian». Ona, lenbiziko Komunioaren liburua konfesioaren gañean dakarrena.

Gauz oek zuk ongi aditu ditzatzun, Kristaua, itzegin nai dizut gaur Konfesioaren gañean. Aditzera emango dizut aurrena, zeñ gauza bearra dan bekatuen barkazioa iristeko, oek Apaizari aitortzea, edo konfesatzea, eta zer gisatan au egin izan dan Elizaren asieratik. Urrena, zer doai, edo kondizio bear dituan konfesio onak. Enzun kontuz.

§ I.

Zuk, nere Kristaua, iritsi nai dezu, egin dituzun bekatuen barkazioa? Gauza bearra da bada oek aitortzea, edo konfesatzea. Au da zure siniste, edo fedea erakusten dizuna, eta besterik esatea da *herejia* deritzan bekatua, eta debekatzen du Elizak Exkomiku nagusiarekin: *Anathema sit*. Gauza bearra da gañera zure bekatuak aitortzea, ez norinai, baizik barkatzeko eskua duan Apaizari. Au ere fedeko gauza da, eta besterik esatea debekatzen du Elizak Exkomiku nagusiarekin: *Anathema sit*. Anziñako denboran, Apaiz gabe eriotzako perillean arkitzen zanak, norinai esaten ziozkan bere bekatuak, Españako legeak aditzera ematen digunez: eta au bera egin oi zuen itsasoan zebiltzanak, perill andiren batean ekusten ziran: baña konfesio au etzan Sakramentu, eta egiten zan, Sakramentuaren naia erakusteko, eta Jaunagandik iristeko onezko damu, edo kontrizio osoa. Galdetzen da, eriotzako perillean Apaiz gabe arkitzen dana oraiñ len bezala konfesatu ote ditekean Apaiz ez danarekin? Ezetz dio Aita Santu Benedikto Amalagarrenak: zeren alperrik agertuko litukean bere utsegiteak; eta gañera, zeren nolerebait emango lukean bidea, sinisteko, Luteroren eskolako dala, Luterok alababaña beste herejia askoren artean esan zuan, guziak, ala gizonak, nola emakumeak duela konfesioak aditzeko eskua. Bi gisatara egin izan da Elizaren asieratik konfesioa. Egin izan da benik beñ, oraiñ bezala, bakoitzak isilik belarrira esaten diozkala Apaizari bere bekatuak: eta modu au da guzien artean egokiena, edozeñek ezagutu dezakean bezala. Egin izan zan gañera, aitortzen, edo esaten zira-la bekatuak, Elizan arkitzen, ziranak aditzen zituela; baña gertatu zan Konstantinoplan, Nektario ango Obispoaren denboran, emakume batek guzien aurrean aitortzea, egin zuan bekatu itsusi bat, agertzen zuala bekatuan lagun izan zuana. Emendik etorri ziran esamesa andiak, eta utzia z joan ziran Kristauak bigarren konfesio mota au, eta geratu zan bakarrik



konfesio *isilla*; baña naiz bata, naiz bestea naiz biak ziran onak, Jesu-Kristoren Aginteari eranzuteko.

Emen, bide nabar bezala, gogoan arrezazu Kristaua, esatera noana, konfesatzera zoazenean, etzuazela konfesioaren idurian beste munduko gauzen billa; batzuek alabaña joan oi omen dira bizi lagunaren kontrako espadasunak esatera, jakin dezan konfesoareak nolako gizon, edo emaztearekin bizi diran. Ez orrelakorik egin, Kristaua. Esan itzatzu zure bekatuak, eta utzi itzatzu bestearenak. Beste batzuek joan oi omen dira, konfesioaren aitzakian, limosnaren bat ateratzeko ustean. Oek gatik esan ditek, Dabidek beste gauzatarako ziona: konfesatuko da mesedeak artzen dituan bitartean: *Confitebitur tibi, dum benefeceris ei*. S. Felipe Neriri joan omen zitzaion beñ emakume bat konfesatzero idurian, Santua bitarteko zuala iristeko S. Jeronimoren ordenako Erlijosioak egun oro beartsuai ematen ziezan ogia. Santuak ezagutu zuan Zeruko argiarekin, zer asmorekin zijoakion emakume ura, eta bidaldu zuan konfesatzeko lekurik eman gabe, esaten ziola: *Eztago emen ogirik zuretzat*. Beste batzuek joan oi omen dira konfesatzera, konfesoareen bidez iristeko ezkontzaren bat. Konjuratzallea dan errira bilduko dira gaizkiñadunak, eta au bera gertatzen da jakiten danean, Erretore, edo beste konfesoreren bat dala ezkontzagillea. Baña ez da emen onelako gauzarik aditzen, eta goazen aurrera. Dakuskun, zer doai, edo kondizio bear dituan konfesio onak.

§ II.

Asko dira konfesio onak bear dituan doai, edo kondizioak, gizon jakinsuak erakusten digunez, baña guziak biur ditezke irutara. Oek dira, *umilla, egjazkoa, elta osoa izatea*.

Konfesio *umilla*, au da umiltasun, eta lotsa eder batekin bekatuak aitortzea: umiltasunarekin: ala Abanjelioko seme ondatzalleak Aita Zerukoari aitortu zion bere gaizki egiña: *Aita*, esan zion: *egin det bekatu zure kontra: ez naiz ni zure seme izendatzeko diña; baña arnazazu zure serbitzarien artean bederik*. Au bera aditzera eman zigun Jesu-Kristok Fariseo, ta bekatari *Publikanoaren* ipui, edo parabolan (Publikanoaren izena ematen zitzaion Juduen artean guzien auan, ta iritzian bekataritzat ezagutua zegoanari). Sartu ziran Fariseoa, ta publikanoa beñ Elizan. Fariseoa igaro zan Elizan goora, eta asi zan Jaunari eskerrak ematen, ez ordea umilki, baizik antuste, edo soberbia andiarekin esaten ziola: *Eskerrak, Jauna, zeren egñ ez*

nazun bestean, eta arako publikano aren anzekoa: astein bi eguez barautzen naiz eta ditudan gauza guzien amarrena ematen det. Ekusten dezu, zeñ arroa, eta puztua agertu zan Fariseoa Jaunaren aurrean? Etzan ara joan bere bekatuak aitortzera, baizik obra onak esatera, eta era berean dijoaz batzuek konfesatzera, ez bekatuak, baizik obra onak. Publikanoa geratu zan lekurik beanean: eta begiraturik bere bekatuak, etzan atrebitzen lurretik begiak kentzera. Bularrari kolpe andiak emanaz Jaunari esaten zion: *Nere Jaungoikoa, urrikaldu zaite bekatari onezaz. Propitius esto mihi peccatori*. Ona zer umiltasun, eta ezaguerarekin eskatzen zuan Publikanoak bere bekatuen barkazioa. Orregatik dio Jesu-Kristok, barkatu ziozkala Jaunak bekatari oni bere bekatuak, ez ordea Fariseoari. Esan det, konfesio *umilla* dala umiltasun, eta *lotsa eder batekin* bekatuak aitortzea. Bada lotsa bat, dio Espiritu Santuak, gaiztoa eta berekin bekatua dakarrena: onek eragozten du esan, eta egin bear diran gauzak esatea, ta egitea. Bada beste lotsa bat onra, ta edertasuna dakarrena. *Confusio adducens gloriam, et gratiam*. Lotsa onek ez du eragozten bekatua aitortzea bear dan denboran, eta lekuan, baizik aitor erazten du. Begira Magdalenari Jesusen oñetan. Ekusi zuan Magdalenak zeñ eskergabea izan zan Jaunarentzat: lotsatu zan, eta lotsa onek etzion eman pakearik Jesusen oñetan jarri, eta negarrez barkazioa iritsi zuan artean.

Konfesio onaren bigarren doai, edo kondizioa da *egjazkoa izatea*: au da bekatuak aitortzea examinan arkitu diran eran, eta adiña. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Onetarako ez ditugu gutxitu bear gure bekatuak, baizik esan bear ditugu, zenbat examinan arkitu ditugun, ainsteste. Ez ditugu edertu bear, besteri obena, edo kulpa egozten diogula, zeren bekatu egiten degunean, naiz bestek bidea eman, naiz ez, geren naiez egiten degu, ez bestela. Atzenean ez ditugu esan bear besteren bekatuak, baizik gerenak. Zertako esan bear ditu gizonak emaztearen, eta emazteak gizonaren bekatuak? Zertako gurasoak umearenak, eta umeak gurasoarenak? Esan bitza bakoitzak bereak. Baña Adan eta Ebaren ondorengoak izan gu! Adanek bere bekatua egotzi nai izan zion Ebari, eta Ebak sugeari, edo Deabruari.

Konfesio onaren irugarren doai, edo kondizioa da *osoa izatea*. Onetarako ez da asko Mandamentu baten kontra egindako bekatuak, esatea, baizik esan bear dituzu Mandamentu guzien kontra egin dituzunak: ez da asko gogoz, edo pensamentuz egindakoak esatea, baizik esan bear dituzu gañera itzez, eta obraz egin dituzunak. Era berean esan bear dituzu zure estadu, eta karguaren eginbideen kontra egin dituzun utsegiteak, dala zabarkeriaz, dala bestela. Karlos bostgarrena, edo Karlos kinto bizi



zanean, zebillen alde errirenbatean, sartu omen zan. Elizen batean, prestatu zan konfesatzeko. Deitu zion erriko Apaiz edo Erretoreari, eta konfesatu zan; baña etzan oroitu Errege zan aldetik izan zezakean utsegiteaz. Orduan Erretoreak esan zion esan dituzu Karlos zure bekatuak: esan ditzatzu Erregerenak. Añ ongi erori zitzaion Erregeri Apaiz. arren esan au, non gero onra andietara altxatu zuan. Askotan gertatzen da lagun urkoai bekatuak bidea ematea: orduan esan bear da, zenbat laguni, eta zenbat bider, eta gurasoak umeai edo umeak gurasoari eman badio bekatuak bidea, au ere aditzera eman bear da konfesioan. Baldin bekatu egin bada seigarren Mandamentuaren kontra, orduan begiratu bear da, zer estadutakoarekin egin dan aidea dan, edo ez, eta aidea bada, zer aidetasun dan. Bekaturen bat konfesatu gabe geratzen bazatzu, zeren examinan gogora etzatzun, edo zeren gero konfesatzeko denboran aztu zatzun, ezta orregatik gaiztoa izango zure konfesioa, baldin-arreta onarekin kontuak atera badituzu; baña beartua zaude gero konfesatzera aztutako bekatu ura, aditzen da *larria* edo *mortala* bazan, ez bestela. Lotsaz konfesatu gabe utzi badezu bekatu larri, edo mortalen bat, orduan gaiztoa da zure konfesioa, eta berritu bear dituzu konfesio ura, ta arreizkero egindakoak, gar-biro esaten dezula nola lotsaz utzi zenduan konfesatu gabe bekatu au, edo ura. Baña zer gertatzen da beiñ baño geiagotan? Garizuman, edo Misioren, batean esnatzen da, lotsaz konfesatu gabe utzi zan, bekatu itsusiaren oroipena; artzen du bekatariak konfesio guziak berritzeko asmoa: prestatzen da, eta egiten du konfesio jenerala, eta beste bekatuen artean sartzen du lotsaz utzitakoa ere. Alaere ez du konfesio ona egiten, zeren atrebitu ez dan esatera, lotsaz utzi zuala bekatu au, edo ura. Orregatik beste bekatuakin nastutzen du.

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ gauza bearra dan bekatuen barkazioa iristeko, oek Apaizari aitortzea? Ekusten dezu, zer doai, edo kondizio bear dituan konfesio onak? Izan gaitezen leialak gure bekatuak aitortzeko, eta leiala, urrikaritsua, ta justua da Jauna guri barkatzeko, esaten digu S. Juanek: *Si confiteamur peccata nostra, fidelis est, et justus, ut remittat nobis peccata nostra, et emundet nos ab onani iniquitate* (1 Joan. c. 1). Bizi gaitezen aurrea zintzoro, onela iristeko betiko bizitza. Amen.

OGEI, TA BOSTGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amalaugarrena.

ALABATUA &.

«Konfesio on bat egiteko bear dan, laugarren gauza, zeñ da? galdezen du lenbiziko Komunioko liburuak. Eranzuten du: Konfesioa. Zer aditzen dezu konfesioaren izenez? Aditzen det egindako bekatuak aitortzea, edo esatea barkatzeko eskua duan Apaizari: Aitortu, edo konfesatu bear ote dira bekatu benialak ere? Ona da, baña ez da premiazko gauza; eta nola konfesatu ditekean bekatu benialak baizik ez duana, esan da bederatzigarren Erakusaldian.

Zer doai, edo kondizio bear ditu konfesioak? Irutara biur ditezke guziak. Zeñ dira? *Umilla, egiazkoa, ta osoa izatea*. Zer da konfesio umilla? Umiltasun, eta lotsa eder batekin bekatuak aitortzea. Zer da konfesio egiazkoa? Aitortzea bekatuak examinan arkitu diran eran, eta adiña. Zer da konfesio osoa? Bekatu larri konfesatu gabeak osotoro aitortzea.

Konfesatu gabe utzitzen badezu bekatu larriren bat zeren examinan gogora etzatzun, edo zeren gero aztu zatzun, gaiztoa izango ote da zure konfesioa? Ez Jauna, ori nere kulpaz gertatzen ezpada; baña geratuko naiz aztutako bekatu ura gero konfesatu bearrean.

Lotsaz, edo gaiztakeriaz bekatu larriak edertzen, edo isilik gordetzen badira konfesioan, zer bekatu egiten da? *Sakrilejioa* deritzan bekatua.

Zer egin bear du onelako bekatariak? Berritu bear ditu, gaizki konfesatzen asi zanetik egindako konfesioak.

Beraz konfesatu gabe utzi zuan bekatua ezezki, konfesatuak ere berrito aitortu, edo esan bearko ditu? Bai, Jauna, zeren konfesio onarekin bakarrik kentzen, eta bukatzen dan bekatu larrien konfesatu bearra.

Eta konfesatu gabe utzi zituan bekatuak aitortzeaz gañera esan bearko ote du, nola lotsaz, edo gaiztakeriaz utzi zituan? Bai, Jauna, zeren onetan dagoan *Sakrilejioa* deritzan bekatua, orain diogun tranzean. *Erakusleak*: ongi diozu, eta konfesio gaiztoak berritzeko, nola egin ditekean examina, esan zan bostgarren Erakusaldian». Ona lenbiziko Komunioren liburuak konfesioaren gañean dakarrena.

Azkeneko aldian aditu zenduan, Kristaua, zeñ gauza bearra dan, bekatuen barkazioa iristeko, oek Apaizari aitortzea: Aditu zenduañ gañera



zer doai, edo kondizio bear dituan konfesio onak. Gizon jakintsuak esaten diguenez bekatari txit asko dira, lotsaz, edo beldurrez konfesio osoa egitera atrebitzen ez diranak. Emendik konfesio gaiztoak konfesio gaiztoen gain egitea? Bekatari. oetatik bat ez ote zera zu ere, aditzen zauden Kristaau? Au da gaur ikusi bear degun gauza. Entzun arretarekin, Kristaau enzun, lotsaz konfesatu gabe dauzkatzun, bekatu oriek lenbait len aitortzeko asmoarekin.

§ I.

Zuk Kristaau, gaztetxoia ziñala, ikasi zinduan gaiztakeria batzuek, edo senide, edo auzokoren batekin; askotan gogora etorri zaizkitzu dotrinaren bat aditzean, edo konfesioko egunetan; baña lotsa ziñan oriek esateko, eta utzi dituzu konfesatu gabe, zeregan esaten dezula: *txikia nintzan orduan*. Atozea, eta zenbat urte zinduan orduan? *Zazpi*, zortzi, edo geiago. Atozea, eta etziñan ezkututzen gaiztakeria oriek egiteko? Bai Jauna. Beldur naiz; zure konfesioak gaiztoak izan ote diran.

Zuk; amar, amabi, edo geiago urte zinduan, egin zinduan ibillera itsusiak; ukitu zinduan zaurian dotrinaren batek, edo Konfessorearen galdeak aitortu zinduan bekatu, oriek baña zere burua edertzeko esan zenduan: *Jauna artean ez nituan bost edo sei urte besterik*. Ause da bekatua osotero ukatzea bezala; konfessoreak alabaña usteko du, ibillera oriek egin zinduala, onaren, eta gaitzaren ezaguerarik etzenduan adiñean. Orregatik zure konfesioa gaiztoa izan zan.

Zu askotan egon zera zere bakarrean kastidade, edo garbitasunaren kontrako gogorazioetan; len igarotako gauzaz oroiturik, batzuetan poz-tutzen, besteetan goisätzen ziñan, orduan bertan gauza gertatzen baliz bezala; besteetan gaitzerako gura esnatzen zan: Alaere lotsatu ziñan, zeregan igaro zitatzuna garbiro aitortzeko, eta esan zenduan: *etzenduala ezer seigarren Mandamentuaren kontra*. Zure konfesioak izan dira gaiztoak: Gogorazio, edo pensamentu gaiztoak etortzea, naiz garbitasunaren, naiz karidadearen kontra, ez da berez bekatu; uts-utsik begairatzen zaiola: baña gogorazio gaiztoetan, oarturik poztutzen, goisatzen, edo leku emateko-perillean zabarturik egotea, au da bekatu.

Zu zere buruarekin, aur denboran ezezik, gero ere egin dituzu eskuz, edo bestela ibillera zikiñak. Zeregan igertzen zenduan, modu oriek etziralaz izango onak. Alaere ez dituzu konfesatu. Noizbait esnatu zinduan

dotrinaren batek, edo Konfessorearen galdeak; baña ez dituzu bekatutzat aitortu: *Ez niakin bekatu zirala*, esan diozu konfessoreari. Atozea, egingo ote zinduan, gauz oriek gurasoen aurrean? ez noaski. Atozea, eta konfesatzeko prestatzen ziñanean, ez ote ziñan oroitzen, nola egin zinduan modu itsusi oriek? Etzizun zere barrenak esaten: *konfesatu bear dira gauz oek?* Beldur naiz, zure konfesioak izan dirala gaiztoak. Badira gizon edo mutill batzuek añ landugabeak, eta aberekiak, non uste oi duen, ez dala bekatu mutillak mutillakin edozeñ gauza egitea; baña jakin bezee oek, emakumeakikoa baño itsusiagoa dala mutillak mutillakin zikinkeriak egitea. Eta au bera esan bearko lizake, emakumeak emakumeakin egingo balitue gauza debekatuak. Badira beste batzuek araurreneko bekatuaz osteronzekoak ezertan ez dauzkeenak, eta nola egingo due oek konfesio osoa?

Zuk, an eta emen zabilzala, ederretsi diozu, edari biziari, ta askotan lausoa jarri zatzu begietan, mihia moteldu zatzu; bideak estutu, eta etxeak jiraka asi dira, eta atzenean atxitu dezu arako aditzen dezun gauzatxo ura. Alaere ez dezu garbiro aitortu zure bekatua: esan dezu *berotusê nintzan: algeratusê giñan: bear baño geisêago edan nuan*. Itz oek bekatuaren edergarriak dira, eta, batzuetan beintzat gaiztoak izan oi dia onelakoen konfesioak. Eta au gizonezkoakin gerta baditeke, zer izango lizake, emakumezkoak ederretsiko balio edari goxuari, edo biziari? Gutxitan berak berez aitortuko luke dana dan bezala. Kristaau, ez dago Zerurako biderik, lotsaz edertzen badira bekatuak. Bada beste gauza bat, eta da edanareko oituratik datozen ondoren gaiztoak ez aitortzea konfesioan. Askorentzat osotero ez orditzea gaiztoago da; zeren otso txikia duenean, idurikortzen diran, eta pakearik ez duen, ez etxean, ez lagun artean: eta au gutxi baliz bezala; esaten due edozeñ gauza. Non da edanari jarraituaz, umeak, eta etxeoko guziak erkiturik idukitzea? Eta ondoren oek garbiro aitortuko dira? Ea ez esan, nik gogor itzegiten dizudala: esazu zerorrek, zere biotzak aditzera ematen dizuna.

Zuk mandamentu baten kontra egin zinduan bekatu andiak, eta asko, eta lotsatu zera, guziak aitortzeko: esan dituzu erdiak, edo obrazkoak pensamentu utsak izan balira bezala: egin dituzu konfesio gaiztoak. Badira batzuek añ basatiak, non, izendatzen ezpadie konfessoreak egin duan bekatua, uzten duen konfesatu gabe. Ostu omen zuan mutill batek antzumeren bat: galdetu zion konfessoreak: *ostu dezu arkumerik?* Eranzun zion *ez Jauna*. Eta ondoren omen zion: *arkumearen lekuan esan balit antzumea, galdua nintzan*.



Zuk egin zinduan zenbait bekatu itsusi aide urko, edo beste estaduko batekin: aitortu dituzu bekatu oriek, ez ordea urlia aidea zan, edo ez, eta zer estadukoa zan. Beste onenbeste gertatzen da zenbait aldiz, arako abere, edo ganaduakin gauz itsusiak egiten dituen, bekatarari nazkagarri aekin. Badira beste batzuek, gertatu zaizten bekatuak esaten dituenak, ez ordea urlia ura aentzat dala bekatuak bide, ta perill urkoa. Oek guziak egiten diltue konfesio gaiztoak, zeren lotsaz aitortzen ez dituen, aitortu bear diran gauzak.

Zuk bekatu egin zenduan onekin, edo arekin, baña ez dezu konfesatu beñere, zergatik ote? *Jauna*, diozu: *ark eragin zidan bekatu au; esan nion berak konfesatu bearke zuala, eta ala eman zidan itza*. Atozea, eta ezta kizu, ark aitortu bear duala zurekin egin zuan bekatua, eta era berean zuk arekin egin zenduana?

Zu, zenbait dotrina aditu ta, izutu ziñan, ekusirik lotsaz utziak zenduzkala zenbait bekatu, eta egin zinduala asko konfesio, ta komunio gaizto. Prestatu ziñan zure bizitza guziko konfesioak berritzeko; baña neke au guzia galdu, eta berriro egin zenduan konfesio gaiztoa. Nola ori? zeren atrebitu etziñan esatera, bekatu oriek lotsaz konfesatu gabe utzi zinduala. Esan zenduan, aztu *zitzazkitzula*, edo ezer esan gabe, beste bekatuakin batean pillan sartu zinduan. Orregatik egin zenduan konfesio gaiztoa.

Zuk egin zenduan arako bekatu itsusi ura urliarekin: lotsatu ziñan konfesatzeko ta esan zenduan: *bortxaz, eta nere borondatearen kontra eragin zidan*. Atozea, bortxaz? etziñan zere naiez (aldegin zentzakeala) egon ergelkerian? Atozea, eta deadar egin zenduan? *Ez Jauna, baña esaten nion, utzi zegidala pakean*. Orisê da ardiak otsoari esatea: *otsoa, zuaz enendik, utzi gidazu pakean*. Atozea, eta egin zenduan alegiña, iñola ere ez lekurik emateko? Ezaitzela engañatu: eta aitor ezazu zure bekatua, edergarriak utzirik.

Zuk gizon, edo emakumea, ezkondu ezkeru egin dituzu, Jaunaren legeak debekatzen dituan, asko gauza, batzuetan aur asko izan ditzatzun beldurrez, besteetan aragizko atsegin berriak arkitu naiez. Igerritzen zenduan, etzirudiela ongi modu nazkagarri oriek: askotan kezka andian jartzten ziñan, baña etzera trebe izan konfesoreari galdetzeko, eta aurrera joan zera zere oitura gaiztoan, esaten dezula zeregan: *ezkonduen artean ez dira bekatu onelako gauzak*. Zure konfesioak gaiztoak izan dira, zeren kezka, eta beldur oriek kentzeko arretarik izan ez dezun, eta jarraitu diezun zere modu itsusiai. Jauna, ezta emaztea gizonarena, eta gizona emaztearena? Bai, baña ez, Jaunak debekatzen dituan gauzak egiteko. Zurea da zatoan, edo bonbilletan daukazun ardoa, ez ordea zere burua, edo besterik orditzeko. Sararen lenbiziko zazpi gizonak ezkonduak ziran; alaere, Sararen

gelara sartzean, zazpiak urkatu zituan Demonioak. Judas Patriarkak ezkondu zuan bere seme nagusi *Her* zeritzana, Tamarrekin: eta seme nagusi oni bizia kendu zion Jaunak, zeren gaiztoa zan beraren begietan. Ez digu Eskriturak esaten, zer gaiztakeria zan Herrek egiten zuana; baña gizon jakintsu askoren iritzia da, egiten zituala loikeria itsusiak. Patriarkak ezkondu zuan Onan bere bigarren Semea, Tamarrekin berarekin. Onek ere egiten zituan zikinkeria andiak, eta kendu zion Jaunak bizia. Ekusten dezu, nola ezkonduen artean ere bekatu diran asko gauza? Baña asko da gaurko. Onenbesterekin ezagutu dezakezu, lotsaz konfesatu gabe bekatu ren batzuek utzi dituzun edo ez.

§ II.

Ala gertatu bazatzu ez dezazula egunetik egunera luzatu konfesio on bat egitea. Zure animagatik etzaitzela lotsatu egia esateaz, esaten dizu Espiritu Santuak: *Pro anima tua non confundaris dicere verum*. Au egiten ezpazazu, joan bearra zera betiko su, eta garren artera; baña konfesio on batekin kenduko dezu zereganetik, ler eragiteko zorian zaduzkan, bekatuen karga ori, eta aurrera Jaunaren lagunzarekin bizitza onari jarraitzen diozula, iritsiko dezu betiko bizitza. Amen.



OGEI, TA SEIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amabostgarrena.

ALABATUA &.

«Konfesio on bat egiteko bear dan laugarren gauza zeñ da? galdezten du lenbiziko komunioko liburuak eta eranzuten du: konfesioa. Zer aditzen dezu konfesioaren izenez? Aditzen det, egindako bekatuak aitortzea, edo esatea barkatzeko eskua duan Apaizari. Aitortu, edo konfesatu bear ote dira bekatu benialak ere? ona da, baña ez da premiazko gauza eta nola konfesatu ditekean, bekatu benialak baizik ez duana, esan da bederatzigarren Erakusaldian.

Zer doai edo kondizio bear ote ditu Konfesioak? Irutara biur ditezke guziak. Zein dira? *Umilla, egjazkoa, ta osoa izatea.* Zer da konfesio umilla? Umiltasun, eta lotsa eder batekin bekatuak aitortzea. Zer da konfesio *egjazkoa*? Aitortzea bekatuak examinan arkitu diran. eran, eta adiña. Zer da konfesio osoa? Bekatu larri konfesatu gabeak osotoro aitortzea.

Konfesatu gabe utzitzen badezu bekatu larriren bat, zeren examinan gogora etzatzun, edo zeren gero aztu zatzun, gaiztoa izango ote da zure konfesioa? Ez Jauna, on nere kulpaz gertatzen ezpada; baña geratuko naiz aztutako bekatu ura gero konfesatu bearrean.

Lotsaz, edo gaiztakeriaz bekatu larriak edertzen, edo isilik gordetzen badira konfesioan, zer bekatu egiten da? *Sakrilejioa* deritzan bekatua. Zer egin bear du onelako bekatariak? Berritu bear ditu, gaizki konfesatzen asi zanetik egindako konfesioak. Beraz konfesatu gabe utzi zituan bekatuak ezezik, konfesatuak ere berriro aitortu, edo esan bearko ditu? Bai, Jauna, zeren konfesio onarekin bakarrik kentzen, eta bukatzen dan bekatu larrien konfesatu bearra. Eta konfesatu gabe utzi zituan bekatuak aitortzeaz gañera, esan bearko ote du, nola lotsaz, edo gaiztakeriaz utzi zituan? Bai, Jauna, zeren onetan dagoan *Sakrilejioa* deritzan bekatua orain diogun tranzean. Erakusleak: ongi diozu, eta konfesio gaiztoak berritzeko, nola egin ditekean examina, esan zan bostgarren Erakusaldian». Ona lenbiziko komunioko liburuak konfesioaren gañean dakarrena.

Azkeneko aldian itzegin nizun, Kristaua, konfesatu gabe lotsaz utzitzen diran bekatuen gañean, eta aditu zenduan, zuri au gertatu zatzun, edo ez, ezagutzeko diña. Ezagutzen dezu bai alde onetatik gaiztoak izan

dirala zure konfesioak, eta arkitzen zerala betiko su eta garren artera jaxitzeko perill urkoan; baña alaere etzera atrebitzen zure bekatu oriek garbiro aitortzera, zeren ikaratua zaduzkan etsaiak, gogora ekartzen dizkitzun, iduripenakin. Orregatik oen gañean itzegin nai dizut gaur. Aurrena ekusiko degu, zer iduripen diran oek, eta zeñ zorakeria andia dan oetatik bakoitza. Ekusiko degu urrena, zeñ negargarriak diran, iduripen oei leku ematek ekarri oi dituan ondorenak. Entzun kontuz, Kristaua.

§ I.

Konfesio gaiztoen kateakin loturik zauzka etsaiak, nere Kristaua? Jakizu, zaituko zaituala gau, ta egun iges egin ez degiozun konfesio onaren bidez: eta burura ekarriko dizkitzu asko iduripen. Oetatik bat da, oraiñ esatera noana. *Aitorzen, edo konfesatzen ba det bekatu au, jasoko naue Inkisiziora.* Au da zorakeria bat añ farragarria, non dotrina ongi dakian edozeñiek erraz ezagutu dezakean. Atozea, eztakizu, konfesoreak ezin esan dezakeala, lau laurden egingo balue ere, zuk konfesioan esaten diozun bekatuak. Benzeslao Boemiako Erregeak, estutu zuan beiñ, ta berriz, eta atzenean bizitza galtzeko penaren azpian S. Juan Nepomuzeno, agertzeko Erregiñak aitortu ziozkan bekatuak; baña alferrik: orregatik Errege zentzugabe ark kendu zion bizia Santuari. Baña demagun izan litekeala konfesore bat, añ errebesa, non aditzera eman legikeon zure bekatua Inkisizioari, zer uste dezu, emendik etorriko, litzakeala? Zure kontra ezer ez, zeren ez inkisizioa, ez Errege, ez eta Aita Santua ere baliatu ditekean konfesioko berriaz zure kontra; baña konfesorea izango lizake pena askoren mendean ipiñia.

Bigarren iduripena: eztago neretzat barkaziorik, Erromara ezpanoa. Au da bigarren zorakeria lenengoaren anzekoa. Atozea, ez dezu buldarik? Bai, Jauna, eta eztakizu edozeñ konfesorek eman dezakeala, bekatu batena ez, beste guzien barkazioa, bulda badu bekatariak? *Herejia* bakarrik da bulda duanari konfesoreak ezin barka dezakeana; baña onen barkazioa ere, zere etxean zaudela, eta iñork eztakiala iritsiko dizu konfesoreak, isilla bada herejia. Zer zabilta bada zere burua ausitzen zorakeri oekin?

Irugarren iduripena: *Bekatu oek esaten badiozkat absuluziorik gabe bidalduko nau.* Au da irugarren zorakeria. Bitatik bat, edo ongi prestatua zaude, edo ez? Ongi prestatua bazaude, pozik emango dizu konfesoreak *absuluzioa*. Baña ongi prestatua ezpazaude, ez dezu absuluziorik nai izan bear,



artarako prestatu, ta sasoi onean jarri zaitezten artean: eta prestaera au nola egin erakutsiko dizu konfesoreak. Badira zenbait añ basatiak, non absolutioa, ta komunioa bereala artu nai duen, artarako prestatuak ezpadaude ere. Nondik dator au? Sakramentuak nola artu bear diran, ez jakitetik. Jauna, ta zer esango due komulgatzen ezpaniz? Ezer ez, zeren bakoitzak berekin du zer egiñik asko zure begira egongabe. Zer esango due? Zentzua duenak ez due esango ezer, oartuko balira ere, zeren dakien, konfesio, ta komuniorako prestaerak eskatzen duala denbora, eta sosegu piska bat.

Laugarren iduripena: *Nork esango diozka konfesoari bekatu añ itsusi, ta nazkagarriak? Ez du bestek egin nereak bezei itsusirik.* Au da laugarren zorakeria. Atozea, Santo Kristoren bat azotatu dezu? Aldareko Sakramentua oinpean erabili ote dezu? Norbaiti puzoia eman diozu, bizia kendu naiez? Ez det uste, ta au guzia gertatu balitzatu ere, jakizu, ori, ta geiago lenago igaro dala munduan. Ez det ezer esan nai seigarren mandamentuaren kontrako bekatuen gañean, zeren gertatu diran gauza nazkagarriak aitatze utsak zikindu litzakean zuen gogo, ta biotzak. Asko da esatea, Munduaren asieratik Noeren denborarako ainstesteraño zikindu zuala griña lotsagarri onek mundua, non damutu zitzaion Jaunari gizona egin zualako, eta lur guzia estaltzen zuen ujolak bidaldurik, bukatu zituan munduaren lau aldeetan arkitzen ziran gizon, eta emakume guziak, ala zarrak, nola gazteak: etzan bizirik geratu Noe, ta bere etxeoak baizik. Zentzatu ote da mundua? Ez, eta denboraz bidalduko ditu Jaunak beste ujola batzuek, ez urezkoak, baizik suzkoak.

Bostgarren iduripena: *zer esan, edo igaroko luke konfesoreak beregan, esango baniozke bekatu oek?* Ona bostgarren zorakeria. Bitatik bat: edo bizitza ontzeko asmo osoarekin zaude, edo ez? Asmo au gabe ekusten bazaitu, esango du beregan, eta esango dizu zuri ere: *gauza bearra dala, zu ongi moldatzeko, denbora puska batean zere kontuak ongi ateratzea: zeregan erabakitzea, aurrera bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitia,* eta bizitza onari jarraitzea. Baña ekusten badu, zu prest arkitzen zerala, bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, orduan esango du beregan: *gerrari ona zerala, leneko peleetan gaizki irten bazera ere.* Egizu kontu, gudari, edo soldadu bat, etsaiarekin pelean dabillega, geratzen dala zauri edo erida andiz betea. Deitzen dio sendatzalleari, eta esaten dio *ona beso au zinzilika, eta burua zuloz betea: ona izterra bala biz igaroa: egin beza sendatzeko bear dana naiz erreaz, naiz ebakiaz, bestela ezin sendatu ditekeana.* Atozea, zer esango du beregan sendatzalleak, soldaduauren autik au aditzean? Esango du, biotz andiko gerraria dala. Au bera esango du zuzaz konfesoreak, ekusten duanean,

umilki aitortzen dituzula zure bekatuak: prest arkitzen zerala bear diran sendagaiak artzeko, eta etsaiaren kontra pelezteko.

Seiarren iduripena: *izutuko lizake konfesoera, bekatu añ itsusiak nigandik adituko balitu.* ona seigarren zorakeria. *Izutuko lizake konfesoera,* diozu: zergatik? Atozea, eta ezta bera ere gizona, ta bere utsegiteak dituan edo mandamentu orretan, edo besteren batean? Zu bezala ni ere bekataria naiz, zion S. Agustiniak: *Peccator sum, sicut et tu.* Izutuko lizake, nola izutuko da, baldin bekatu on baño andiagoak irakurtzen baditu Eskritura Santan bertan? Nai dezu jakin, zerk izutzen duan askotan Konfesoera? Izutzen du ekusteak, bekatariak ez duala biotzik bekatutik, eta bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta bere griña txarrak utzitzeko.

Zazpigarren iduripena: *eztago nerezat Zerurik eta barkaziorik.* Zergatik ez? Eztago zuretzat barkaziorik, egia da, utzi nai ezpadituzu bekatua, ta bekatuaren bideak: eztago barkaziorik, zure griña txarrak garaitzeko biotzik ezpadezu: eztago barkaziorik lagun urkoaganako gorrotoa, edo gorrotoaren siñaleak utzi nai ezpadituzu: eztago barkaziorik, aitortu nai ezpadituzu zure bekatuak osotoro. Baña baldin zuk au guzia egiten badezu, jakizu Aita guziz Urrikaritsua dala gure Jauna, eta besoak zabaldurik dagoala zuri guzia barkatzeko. Egin zuan bekatu S. Pedrok: egin zuan bekatu Dabidek: egin zuan bekatu Magdalenak bere apaindura, ta ergelkeriak. Egin, ta eragin zituan bekatu asko Santa Pelajiak; izan zan alabaña askorentzak bekatuak sarea, eta bizitu zan bekatuaren sariarekin. Alaere biurtu ziran Jaunagana; eta dira Santu, ta Santa andiak Zeruan.

Ekusten dezu, Kristaia, zer iduripenakin engañatzen dituan etsaiak asko bekatari? Eta zu ere oekin berakin lotua, ta itsutua iduki zaitu ainsteste denboran. Ez ote zera oraiñ bederik kuturtuko zure bekatu oriek aitortzera? Aditu dezuna asko ezpada orretarako, ekusi dezagun, zeñ negargarriak diran iduripen oriei leku emateak ekarri oi dituan ondorenak.

§ II.

Lenengo ondorena izan oi da egunetik egunera ugaritzea lotsa, eta konfesaldi bakoitzean geratzea bekataria esan nai ez, eta lotsak eragozten diola bekatuak osotoro aitortzea. Etorri ziran, dio Isaiasek beste gauza baten gañean, etorri ziran semeak jaiotzeko zorira, baña etziran jai, zeren etzuan amak indarririk: *Venerunt filii usque ad parfum, et virtus non est pariendi.* Bigarren ondorena: gau, ta egun bizitzea bekatuaren aranzarekin pakea-



rik, sosegurik, eta atsegin-kontenturik gabe. Irugarren ondorena beti gerorako utzitzea konfesio ona, eta *gero* ura beñere ez etortzea, zeren nola otsoak ardia lepoan estutzen duan orroa egin ez dezan, ala Demonioak eztarria estutzen die bekatariak, aitortu ez ditzeen bekatuak, dio S. Agustiñek. Ala gertatu zitzaion Valenziako dama bati. Geratu zan Ama gabe; asi zitzaion ezkutari bat sarritan itzegiten, eta atzenez milla losên-txarekin bekatuak bidea ematen. Denboren buruan erori zan. Sarritan konfesatzen zan, len oi zuan eran, baña etzan atrebitzen gertatu zitzaiona esatera: iru urte joan ziran gisa onetan konfesio, ta komunio gaiztoak egiñaz. Urte oen buruan Joan zan erri artara Misionari andi bat, eta asi zan Jaunaren itza adiratzan. Etzuan damak sermoirik utsegin: eta bakoitzak arpoi baten eran igarotzen zion biotza batetik bestera. Ezin negarrez ase zan, eta zion beregan: *Betiko zere burua galdu naiko dezu? Etzenduan lotsarik bekatu egiteko: eta lotsatzen zera aitortzeko? Baldin lotsa bazera batekin konfesatzeko, zoaz beste bategan orra non dezun Misionaria, eta ordu erdi batean irten zaitezke estutasun orietatik.* Onela gerra ikaragarri batean zegoan bekatari doakabe aren biotza. Egun batean sermoiak au indar andiarekin ukitu zion biotza, non osotoro erabaki zuan aitortzea bere bekatua. Egin zuan gaixoaren iduria, eta deitu zion Misionariari. Joan zan au lagun batekin eri ustekoaren etxera. Aditu zion bere konfesioa: eta ekusirik, negar, eta damu andiarekiñ esan zituala bekatuak, atesezin andiarekin eman zion absolutzioa, eta biurtu zan Kolejiora. Misionariaren laguna eria konfesatu zan bitartean, arkitzen omen zan guzia ekusten zuan lekuan, ezin ezer aditu bazezakean ere. Bitarte orretan ekusi zuan, oiaren bazterretik noizean beñ agertzen zala atzapartzar beltz itsusi bat, eta bere azkazal luzekin estutzen zuala eria eztarrian, alako eran, non zirudian ito nai zuala. Biurtu zan Misionaria eriaaren etxera, eta gauza negargarria! eria, edo eria-aren iduria egin zuana ill zan ordurako. Jarri zan konfesoia Sakramentuaren aurrean Juanari anima argatik erregutzen: eta gau erdian aditu zituan kateen otsak, eta adia izugarriak, ta andik laster agertu zan emakume doakabe ura garrez inguratua. *Ni naiz esan zion, zurekin konfesatu naizan emakume ura.* Atozea esan zion Misionariak: etziñan ongi konfesatu? Ez, ez nintzan konfesatu osotoro: asi nintzan bekatu txikienetatik, uzten nituala andienak azkenerako, oen artean oraiñ iru urte gertatu zitza-tan seigarrengo bekatu au, eta ondorengo konfesio, ta komunio gaiztoak. Ai! andienetatik asi banintz! Baña lotsaz ez nintzan ala asi; geroztik gero-ra andiangoa zan nere lotsa eta etsaiak gogora ekarri zidan, *zuri nere bekatua esatearekin, beste edozeñ esanda baño, geiago galduko nuala: orduan osasuna nuala, eta gaixotzen nintzanean, guzia konfesatuko nuala.* Zu nere etxetik irten

ziñan bezala, geratu nintzan itz gabe, eta andik laster illa. Atozea esan zion Misionariak: *eta zerk oraiñ penarik andiena ematen dizu?* Ekusteak, eran-zun zion: Jaunak bidaldu zinduala zu urrutietatik onera, nere anima Korurako bidean ipintzera, eta galdu dedala era añ ederra. Au esanda, adia andiakin jatxi zan doakabe ura betiko su, eta garren artera. Orra etsaiaren iduripenai leku emateak ekartzen dituan ondorenak.

§ III.

Kristaua: uste det, erabaki dezula, bekatu oriek lenbait len konfesatzea, baña begira etsaiak engañatu etzaitzan, beste asko engañatu dituan bezala. Etzaitzela asi konfesatzen txikienetatik, baizik lotsaz edertu, edo gorde dituzun orietatik. *Jauna, esan zaiozu, onenbeste urte dira lotsaz konfesio gaiztoak egiñaz bizitu naizala, Bekatu oek izan dira onelako Mandamenturen kontra.* Au esan ezkerro, erraz izango da gañerakoa. Arritatzu zure bitartekotzat Birjiña txit Santa Doloreetakoa, zure Aingeru guardakoa, eta S. Franzisko Jabier, lagun degizuen lotsa animagalgarri on garaitzen, eta Zerurako bidean jartzen. Onela bizi zaitezke Kristauari dagokan eran, eta iritsi dezakezu betiko bizitza. Amen.



OGEI, TA ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amaseigarrena

ALABATUA &.

Azkeneko iru Erakusaldietan itzegin dizut, Kristaua, konfesioren, edo egindako bekatuak aitortzearen gañean. Emendik igarotzen da lenbiziko Komunioko liburuak, konfesioren bat egiteko bear dan, bostgarren gauzaren gañean itzegitera, eta galdetzen du, gisa onetan.

«Konfesioren bat egiteko bear dan, bostgarren gauza zeñ da? Erantzuten du: *Satisfakzioa*. Zer aditzen dezu *Satisfakzioaren* izenez? Konfesoreak emandako penitentzia leialki egitea. Konfesoreak ematen dion penitentzia egiteko, asmo gabe konfesatzen danak zer bekatu egiten du? Bekatu larria. Emandako penitentzia autsitzen, edo egin gabe uzten duanak, zer bekatu egiten du? Autsitzen badu penitentzia larria, eta aintzakotzat emana, bekatua izango da larria; baña autsitzen duan penitentzia txikia bada, txikia, edo beniala izango da alde onetatik egiten dan bekatua ere, gizon jakintsuen iritzian. Konfesoreak agintzen dizun penitentzia ezin ongi egin dezakezuna bada, zer egingo dezu? Umilki eskatuko, edo erre-tutuko diot, alda degidala beste penitentzia batera, alda baditeke.

Konfesoreak ematen diezten penitentziak gañera zer egin oi due Kristau onak? Ontzat edo Jaunaren izenean artzen ditue emengo gurutze, edo samintasunak; eskintzen diozke Jaun berari beren obra guziak, eta egiten due alegiña, induljenziak, edo barkazioak irabazteko. Ona lenbiziko Komunioko liburuak Satisfakzioaren gañean dakarrena».

Gauz oek zuk ongi ezagutu ditzatzun, aditzera emango dizut gaur, benik beñ: zeñ gauza bearra dan Zerurako gure bekatuak dagoten penitentzia egitea. Urrena, zer penitentziak ematen dituen Konfesoreak, eta nola oek egin bear diran. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Guk, nere Kristaua, bekatuari leku ematean, utzi degu Zerurako egin ginduan Jaun ona: eta au da bide gabe guziz itsusia, ta deritza obena, edo kulpa. Barkatzen dio au Jaunak bekatariari, biotz osoz beragana biurtzen

danean, dala onezko damu, edo kontrizioarekin, dala konfesioren onaren bidez. Bekatuari leku ematean, galdu genduan Zerurako esku guzia, eta geratu giñan betiko erbestetuak Zerutik, eta egon bearrak betiraunde guzian infernuko su, eta garren artean. Au da bekatu larri, edo mortalak berekin dakarren pena: eta au ere barkatzen dio Jaunak ongi konfesatzen danari. Emendik konfesioren onak biurtzen dio bekatariari, galdu zuan Zerurako eskubidea, eta barkatzen diozka, betiko su, eta garren artean igaro bear zituan, neke, ta oñazeak. Ala erakusten digu gure fede Santak. Alaere geratu oi zaizka bekatariari barkazio onen ondoren bere bekatuen bi kutsu, edo arrasto, eta dira, lenengoa: betiko penaren lekuan emen, edo Purgatorioan igaro bear dituan neke, eta penak, ez betikoak, baizik denboraz bukatuko diranak. Askotan gertatzen da Erregek, Prinzipe, eta Erregiñaren erreguz eriotzaren pena irabazi duanari barkatzea, eta amar urte Iruñeko gazteluan igarotzeko pena ipintzea: eta onen anzeko gauza bat egin oi du Jaunak ongi konfesatzen dan bekatariarekin. Jesusen eriotza, eta Birjiña txit Santaren erreguak bitarteko dirala, barkatzen diozka egin diozkan bide gabeak, baita betiko su, eta garren artean egon bearra ere, eta betiko penaren lekuan, ematen diozka, emen, edo purgatorioan igaro bearko dituan nekeak. Barkatu zion Adani, fruta debekatua janda egin zuan bekatua, eta oni zegokan betiko pena, baña igaro bear izan zituan bederatzi eun, eta geiago urte neke andien artean. Barkatu zion Dabidi, egin zuan bekatu itsusia, bai ta betiko pena ere, baña onen lekuan eraman zituan nortaki zenbat gurutze. Au onela egin oi du Jaunak geienetan; baña biurtu liteke bekataria Jaunagana biotz añ prestu, ta damu añ andiarekin, non iritsi lezakean bekatuaren barkazioa ezezik, pena guziarena ere bai. Ala uste degu, iritsi zuala Santa Maria Magdalenak, baña au gutxitan gertatzen dan gauza da, eta bekatua barkatuta ere, geratzen da onen zorra, edo igaro bear dan penaren arrasto, eta kutsua. Au osoro kendu artean ez dago Zeruan sartzerik. Orra zeñ gauza bearra dan alde onetatik bakoitzak bere bekatuen penitentzia egitea.

Konfesioren onarekin bekatua barkatuta, geratu oi dan bigarren kutsu, edo arrastoa da gaitzeron makurtua eta etziña geratzea bekataria, bekatu egin duan alde artatik. Au ongi aditzeko, enzun ezazu Kristaua, esatera noana. Egin zuan Jaunak gizona Zerurako. Apaindu zuan graziaren soñeko ederrarekin, eta eman zion gañera beste doai bat *Zuzentasun, edo justizia orijinala deritzana*. Doai bat añ miragarria, non gizona gordeko zuan, bera nor izatera, gaitz guzietatik, zartzetik, eta eriotzatik. Doai bat, gizonaren gura, ta griña guziak zeduzkana ezaguera, ta borondatearen mendean, eta borondatea prest zegoan Jaunak nai zuana egiteko.



Gizonaren gura ta griñak ziran orduan morroi leial batzuen eran. Etziran altxatzen borondatearen kontra, baña prest arkitzen ziran onek agintzen ziena egiteko. Onela bizi zan gizona pake gozo batean. Baña autsi zuan Adanek Jaunaren agintea, jaten zuala, Jaun berak debekatu zion, arbola baten fruta: eta bekatu onekin galdu zuan beretzat, eta guretzat graziaren soñeko ederra, bai ta *zuzentasun*, edo justizia orijinalaren doaia ere: eta ordutanik asi ziran gizonaren gura, eta griña guziak etxeko pakea galtzen, bakoitza bere aldetik. Presa bat urratzen danean, len geldi zeudela zirudien urak indar andiarekin abiatzen dira beren bidean: eta au gertatu zan galdu zuanean gizonak *justizia orijinalaren* doaia: len geldi zeuden gura, eta griñak, ekin zioen eren bideari, bakoitzak bere aldetik, eta geroztik ez dioe pakerik eman nai animari. Orañ, bear bada asaldatzen du antuste, edo soberbiak, gerosêago enbidiak, edo aragiaren atsegin lizunen gurak: orañ, nagitasunak; gerosêago jan, eta edan nai geiegiak. Ekusten dezu, Kristaia, nolakoak utzi gaituan Adanen bekatuak? Gura oek ez liokee gizonari kalterik ekarriko, arretarekin eziko balitu, baña geienetan, ezi bearrean, berai jarraitzen die, eta egiten ditu asko utsegite, edo bekatu. Zer dator emendik? Makurtua ta etziña geratzea bekatuak geiena egin duan alderonz, eta batzuetan ainbesteraño, non zentzia galtzeko perillean arkitzen dan. Onelako bekatariari, ongi konfesatzen bada, barkatzen diozka Sakramentuak bere bekatuak, baña ez dio osotoro kentzen gaitzerako makurtasuna, edo bekatuari jarraituaz bere buruari erantsi dion gose gaiztoa: eta au sendatzeko, edo aienatzeko gauza bearra da penitentzia egitea. Dakuskun orañ nolako penitentiak ematen dituen Konfesoreak, eta nola oek egin bear diran.

§ II.

Konfesoreak geienetan beintzat, ipiñi bear diozka bekatariari penitentiak, bekatariaren adiñari, era eta bekatuak begiraturik. Esan det geienetan; zeren gertatzen dan zenbait aldiz, norbait iltzeko zorian, eta atzeneko asnasetan arkitzea, eta orduan eman oi da batzuetan absoluzioa penitentiari ipiñi gabe, zeren eria edo itz gabe, edo ezin ezer egin dezakean eran dagoan. Era berean bekatariak, konfesatzeratorreneko, bizitza onarekin eranzun badie bekatuen zorrari, eta aurrerako sendatua, eta sendo badago, orduan ez legoke konfesorea beartua penitentiari ipintzera. Jubileoko urte batean Ines (Enperadorearen emaztea) joan zan Erromara:

berritu zituan bizitza guziko konfesioak S. Pedro Damianekin, eta ekusirik, zeñ bizitza ederra egin zuan, eman zion absoluzioa, penitentiari bate re ipiñi gabe, Aita Santu Benedikto amalaugarrenak dionez. Baña gutxitan gerta ditezke onelako gauzak, eta neke da Konfesoreak ezagutzea (Jaunak agertzen ezpadio), bekatariak erantzun diela bere utsegiteen zorrari, eta sendatua dagoala osotoro. Orregatik ipiñi bear dio penitentzia.

Konfesoreak ipintzen ditue era askotako penitentiak. Oetatik batzuek dira ariñak, besteak andiak. Batzuek isillak, edo bakoitzak bere bakarrean isilik egiten dituanak; besteak agiriak, zeren, agirian egiten diran. Anziñako denboran izan zan beste penitentzia bat, agiria ezezik, Elizak ipiñirik zeduzkan zeremoniak, eta denboretan egiñ oi zana; baña penitenti-mota oek guziak biurtu ditezke bitara. Bata da *kitagarria*, au da egindako bekatuen zorrari erantzuteko, eta Jaunarekin *kito* geratzeko ematen dana, egin dezagun kontu egin dedilla onenbeste, edo ainbeste limosna, edo atera ditezela astean, edo illean onenbeste barau sei illabeteren barrunbean, bisita ditezela aldareak onenbeste bider. Beste penitentzia-mota da *sendagarria*, au da bekataria sendatzeko, eta aurrera bekatuan erori ez dediñ ematen dana, nola izango litzakean *goiz arratsetako jaiera egitea*, *San Ignazioaren liburitik egun oro zerbait irakurtzea*, *ill oro konfesatzea*. Askotan gertatzen da bekatariari ez ematea, egin dituan bekatuen zorrak ateratzeko diña penitentzia, zeren ainbeste neke irozotzeko kemenik ez daukan, edo zeren induljenzia, edo barkazioren bat irabaztera datorren. Orduan askok eman oi due penitentiatzat, induljentiak eskatzen dituan, obra onak egitea. Ala egiten zan Elizaren lenengo denboretan: Martirioa igarotzeko zeudenak erregutzen bazioen Obispoari, penitentiako malle-tan zegoanen baten alde, barkatzen zitzaion penitentzia. Esan det, dagonkan baño penitentzia gutxiago eman oi zaiola bekatariari induljenzia, edo barkazioren bat irabaztera datorrenean; baña au aditzen da, egindako bekatuen zorrari bakarrik begiratzen zaiola; zeren aurrerakoari begiratzen bazaio, ez dira gutxitu bear induljenzia, edo Jubileoaren aitzakiarekin bekatuan ez erortzeko bear dituan sendagaiak, edo *penitentzia sendagarriak*, induljentiak alabaña ez dio bekatariari kentzen gaitzerako makurtasuna, eta griña gaiztoa.

Konfesoreak ematen duan penitentzia artu bear du bekatariak, ez nolanai baizik leialki egiteko asmoarekin; bestela egiten du bekatu larria geienak, edo aldealdean guziak erakusten diguenez. Eziñ ongi egin deza keana bada, erregutu degioke, alda degiola beste penitentzia batera (alda baditeke). Gerta diteke, bekatariari aztutzea eman zaion penitentzia; orduan biurtu bedi konfesoreagana, eta esango dio, zer egin bear duan.



Konfesoarea urruti bizi bada, egon bedi besteren batekin, eta egin beza onek esaten diona: eta au neke andia bada, gogora ekarri beza, zer bekatu zituan konfesio artan, eta nolako penitenziak eman oi diozkeen alako aldietan, eta egin bitza beste ainbeste. Ala erakusten digue gizon jakintzu batzuek. Penitentzia egin bear da agindu dan denboran; baña luzapen piska bat ez da berez bekatu larria. Penitenziazat eman zaizkan obrak egin bitza bekatariak Jaunaren grazian dagoan bitartean, bekatuen zorrari erantzuteko: egia da, askoren iritzian ez dala bekatu agindutako obrak bekatuan egitea, batez ere bekatuak gogo, ta asmoak utzi badira. Batzuetan Konfesoarea agintzen dio bekatariari, absolutzioa, edo Komunioa artu baño len egin dezala zerbait, egin dezagun kontu *irten dedilla etxe artatik, biur dezala besteren gauza*, edo beste zerbait: gauz oek egin bear dira agindu diran bezala. Konfesoarea agintzen dituan obrak, ongi egiten badira, ugaritzen due animako grazia, eta ekarri oi ditue, aurrera bekatariak ez egiteko, Zeruko lagunak, eta atzanean kentzen due bekatuen zorra, edo guzia, edo zerbait, Asko da gaurko.

§ III.

Aditu dezu, Kristaua, zeñ gauza bearra dan Zerurako gure bekatuari dagoten penitentzia egitea. Aditu dezu gañera, zer penitenziak eman oi dituen konfesoarea, eta nola oek egin bear diran. Ez dago Zerurako biderik, bekatu egin ezker, ezpada penitentzia. Orregatik esaten digu Jaunak: *ezpadezue egiten penitentzia galduko zerate: Nisi paenitentiam egeritis, omnes similiter peribitis*. Penitentzia da, Jaunari egin diozkagun bidegabean barkazioa iristeko. Penitentzia, bekatua barkatuta, geratzen dan zorrari erantzuteko, eta aurrera bekatu ez biurtzeko: bide au bakarra da guretzat Zerurako. Egin dezagun alegiña bide oni jarraitzeko. Onela uste izan dezakegu gure bekatuen barkazioa, eta gero betiko bizitza. Amen.

OGEI, TA ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean amazpigarrena.

ALABATUA &.

«Konfesio on bat egiteko bear dan bostgarren gauza zeñ da? galdezen du lenbiziko komunioaren liburuak: eta erantzuten du: *satisfakzioa*. Zer aditzen dezu satisfakzioaren izenez? Konfesoarea emandako penitentzia leialki egitea. Konfesoarea ematen dion penitentzia egiteko asmo gabe konfesatzen danak zer bekatu egiten du? Bekatu larria. Emandako penitentzia autsitzen, edo egin gabe uzten duanak zer bekatu egiten du? Autsitzen badu penitentzia larria, eta aintzakotzat emana, bekatua izango da larria; baña autsitzen duan penitentzia txikia bada, txikia, edo beniala izango da alde onetatik egiten dan bekatua ere, gizon jakintzu askoren iritzian. Konfesoarea agintzen dizun penitentzia eziñ ongi egin dezakezuna bada, zer egingo dezu? Umilki eskatuko, edo erregetuko diot, alda degidala beste penitentzia batera, alda baditeke.

Konfesoarea ematen diezten penitenziaz gañera, zer egin oi due Kristau onak? Onzat edo Jaunaren izenean artzen ditue emengo gurutze, edo samintasanak: eskeintzen diozke Jaun berari beren obra guziak, eta egiten due alegiña induljenziak, edo barkazioak irabazteko». Ona lenbiziko Komunioaren liburuak satisfakzioaren gañean dakarrena.

Azkeneko aldian aditu zenduan, Kristaua, zeñ gauza bearra dan Zerurako, gure bekatuari dagoten penitentzia egitea. Aditu zenduan gañera zer penitenziak ematen dituen konfesoarea, eta nola oek egin bear diran. Baña añ minberaak, eta nagiak gera, animaren onerako diran, neketan, non uste duen batzuek, geiegiak dirala ematen zaizten penitentzia-apurrak ere. Emendik, oek erraz utzitzea, eta bekatuaren berrizkatuak. Emendik konfesoarea, zer penitentzia eman ez dakiela, geratzea. Emendik azkenean asko anima betiko galtzea. Au gerta eztakizun zuri ere, aditzen zauden bekatari minberatxoak, begiratu bear dezu gaur, benik beiñ, zer neke, eta penak dagozten zure bekatuari. Urrena, nolako utzi zaituen zure bekatuak. Atzanean, nolako penitenziak siñalaten zituen anziñako denboran Obispo Jaunak. Enzun kontuz.



§ I.

Zuk, nere Kristaua, ongi begirutzen badiozu zere bizitzari, arkituko dituzu ezin konta al bekatu, batzuek larriak, edo mortalak, besteak benialak. Demagun larrien barkazioa bederik iritsi dezula konfesio onaren bidez. Nortaki, zer pena, ta nekeak zor dituzun bekatu oriek gatik? Adanek iritsi zuan bere utsegitearen barkazioa; baña bederatzi eun, ta geiago urte igaro bear izan zituan, Paradisutik kanpoan, neke, ta naigabe andien artean. Dabidek ere iritsi zuan, bere bekatuaren barkazioa, baña ondoren ekusi zituan bere gañean gurutze, eta samintasun txit andiak, eta luzeak. Zer pena, eta nekeak ez dituzu bada zuk zorko, ainbeste utsegite, ta bekaturen ondoren? Baña jakizu ariñak, edo ezer ez dirala emengo penak, eta nekeak, beste bizitzakoen aldean ipintzen badituzu. Ango pena bata izango da Zerutik erbestetua egotea. Egarri andiarekin egongo da anima, Jaunaren edertasun neurrik ez duana ekusteko, baña debekutzen dio Jaunak au, bere zorra azkeneko apurreraño atera dezan artean. Beste pena izango da su, eta gar erretzalle baten erdian egon bearra. Pena onen anditasuna aditzera ematen digu Eskritura Santak Malakias, eta Isaiasen autik: eseriko da Jauna, dio Malakiasek; aize emango dio suari, eta garbituko ditu Lebiren semeak, urrea, eta zillarra garbitzen diran bezala: *Sedebit conflans, et purgabit filios Levi, et colabit eos quasi aurum, et argentum.* Garbituko ditu, dio Isaiasek, garbituko ditu Siongo alaben, edo animaen erdoiak su, ta garraren espirtureakin: *Abluet Dominus sordes feliarum Sion in spiritu ardoris.* Jaungoiko Guzalduna bera sua erazekitzen, eta bizkortzen ari dala esate au da adirazteko guri, zeñ andia izango dan animaren ango bigarren pena. Gaitz erdi lizake pena au laburra baliz, baña guk uste degun baño luzeagoa izango da. Dionisio Kartujarrak, eta Beda Beneragarriak dioe, asko animari eman diela Jaunak azken-kontuen eguneraño Purgatorioan egoteko pena: eta au bera eman omen zion Aita Santu Inozentzio Irugarrenari ere, Elizaren onerako neke andiak artu zituan Aita Santua izan bazan ere. S. Bizente Ferrerrek esaten digu, anima bat bidaldu zuala Jaunak Purgatoriora urte beterako bekatu benial bategatik. Au onela bada, zeñ da nere Kristaua; zeñ, beste onenbeste, edo azken-kontuen eguneraño pena zorko ez duana, edo bekatu larri barkatuak gatik, edo uura bezala oituraz edaten diran bekatu benialak gatik? Atozea, eta alaere muzindua geratuko zera ematen dizkitzuen penitentzia-piskakin? Baña zoaz aurrereseago, eta begira gañera nolakoa utzi zaituen zure bekatuak.

§ II.

Zu, nere Kristaua, egin dituzun bekatuakin geratu zera onerako narra, eta nagia, eta gaitzerako zaletua, eta gose andi batekin dagoanaren anzekoa: eta konfesio onarekin bekatuen barkazioa iritsita ere, eritasun au, edo onerako nagia, ta gaitzeronaz makurtua egotea, ezta batetan aienatzen. Eritasun onek berriro amilderazoko zaitu bekatuan, eta atzanean betiko galduko du zure anima, ezpadituzu artzen sendagai egokiak. Begira ezperen egun oro munduan gertatzen danari. Urliak leku eman zion antuste, edo soberbiari, eta oitu zan lagun urkoaren kontra edozeñ gauza esatera, eta egitera giarrean ukitzen badue. Sandia oitu zan birauak botatzera etxean, eta kanpoan lagun urkoaren kontra: gurasoari zor zaion begiramentu, eta errespetoa galtzera, itz loi desonestoak esatera, keñada itsusiak egitera, edanera, lagun gaiztoakin ibiltzera, edo bere buruarekin atsegin lizunak artzera. Berendia oitu zan litxarreriarra, edo lagun urkoari zor diona ez biurtzera, edo aren taxak agertzera. Oek guziak, edo geienak, noizbait egingo zuen konfesio onen bat; baña ez dira sendatu, eta amilka dijoaz bekatutik bekatuta, eta betiko su eta garren artera. Zergatik au? Zeren bekatuari jarraituaz, geratu zitzaten gaitzerako makurtasun ura kentzeko, sendagaiak garai onean artu nai izan ez dituen. Au da, nere Kristaua, munduan egun oro gertatzen dana, eta zerorrek ekusten dezuna. Eta zer zurekin ere gertatuko da griña txar on aienatzeko, sendagai onak artu nai ezpadituzu, eta konfesorea uzten badezu, zer egin eztakian eran? Nai dezu aditu zurekin gertatuko dana? Etzera sendatuko: gero, eta geiago eroriko zera bekatuan, eta neke izango da zuk zure egunak ongi bukatzea. Jakizu, konfesoreak zuri eman nai dizkitzun sendagaiak ez dirala añ samiñ, eta garratzak, nola ziran, anziñako denboran Obispo Jaunak siñalaten zituen penitentziak. Oek oraiñ ipiñi nai ditut zure begien aurrean.

§ III.

Elizaren lenengo urteetan oraiñ bezala gutxi gora bera eman oi zitzaizten bekatariari penitentziak. Altxa ziran Elizaren, eta fedearen kontra ekaitz andiak, eta eriotzaren beldurrez asko erori ziran idolatrian, eta beste bekatuetan. Eliz Ama Santak etzien ukatu nai barkazioa, baña beldur zan, errazegi barkatzen bazitzaten, geitu edo ugaritu zitezen beka-



tuak. Orregatik erabaki zuan bekatu barkazioa iristeko, nola egin bear zuen bekatiari penitentzia: siñalatu zuan, non, nola, eta zenbat denboran egon bear zuen, eta Obispo Jaunak aditzera ematen zuen, zer penitentiak ipiñi bear ziran bekatu-mota bakoitzarentzat.

Lau malla siñalatu ziran, penitentzia egiteko. Lenengo malla zan *negartiena*. Jartzen ziran Elizako atez kanpora, zaku bat janzirik, eta gizonekoak mozturik illea. Ezin sar zitezkean Elizan, denborak bete artean. Negarrez erregutzen ziezán Elizan sartzen ziranai, urrikaldu zitezela aezaz. Onela egon bear zuen batzuek lau urtean, besteak gutxiago. Bi garren malla, eta lekua zan enzunleena, Elizako atez barrendik. Oek entzuten zuen Jaunaren itza, edo sermoia eta au bukatzean botatzen zituen Elizatik. Gisa onetan igarotzen zituen iru, lau, edo geiago urte. Iruarren malla zan *auspez zeudenena*. Malla onetan zeuden auspez: askotan ipintzen ziezten eskuak buru gañean Apaizen batek; eta egin bear zituen penitentzia txit samíñak, nola ziran ur, ta ogi barautzea, limosnak, eta beste onelako gauzak: eta botatzen zituen Elizatik ofrendarako. Laugarren malla zan *Meza enzuten zuenena*. Lenengo ira malletan denbora siñalatu ongi bete zuenai, utzitzen zitzaten Meza enzuten, baña ez Jaunaren maian jartzen, ez ofrendarik egiten penitentiako urteak igaro artean, aditzen da, eriotzako perill, edo beste bide andiren bat ezpazan penitentzia au bukatu ta, Elizaren barkazioa iritsi ondoan, biurtzen bazan bekataria lenekora, etzitzaión Sakramenturik ematen eriotzako orduaz kanpora, Aita Santu Inozentzio lenengoak dionez. Penitentzia egiten zeudenai debekatzen zitzaten ezkonza, zaldiz ibiltzea, festetara joatea. Aditu orañ, Mandamentu bakoitzaren kontrako bekatuentzat, Obispo Jaunak siñalatu izan zituen penitentzia batzuek.

Lenengo Mandamentua da *Jaungoikoa gauza guzieren gañean amatzer*: eta debekatzen du eskuz egindako idolo, edo Jaungoiko falsoak adoratzera. Bekatu onentzat eriotzaren pena ipiñi zuan Jaunak Lege zarrean. Lege berrian asko kuturtzen ziran idoloak adoratzera, zeren Errege, ta Enperadoreak ala agintzen zuen eriotzaren penarekin, eta biurtzen baziran Elizara, ipintzen zitzaizten penitentzia garratz, eta luzeak. S. Basiliok nai zuan, onelakoak bizitza guzia igarotzea Elizako atean negartien mallan, eriotzako orduaz kanpora Sakramenturik artu gabei. Ez da leku oetan idolatriaren perillik; baña eskuz egindako idoloen lekuan, ez dira adoraten emengo ondasunak? Ez dira adoraten aragizko idoloak? Eta nolako penitentzia ez litzake ipiñi bear bekatu onegatik?

Bigarren Mandamentua da *aren izen Santuaz juramentu alferrik ez egitea*. Juramentu gezurraren egitea gauza itsusia da Jaunaren begietan, zeren

gezurraren testigotzat ipintzen dan: eta S. Basiliok siñalatu zion amaika urteko penitentzia. Eun juramentu gezurrezko egin zituari zer penitentzia emango zitzaion, amaika urtetakoa bazegokan juramentu bati? Eta zuk, Kristaua, penitentzia garratza dala, uste dezu, baldin agintzen badi-zue, goiz oro lurrean arrastatu dezazula mihia, ill bitan?

Iruarren Mandamentua da *festak*, edo jai egunak *santifikatzea*. Lege zarrean Jaunaren egun, edo jai andia zan larunbata, eta ausitzen zuanari ipiñi zion Jaunak eriotzaren pena: *morte moriatur*: eta pena au eman zion Moisesek larunbatean egurra egiten arkitu zuan gizon bati. Jesu-Kristoren legea askoz gozoagoa da; alaere ipintzen ziran len, oraiñ baño penitentzia garratzagoak, jaiak ausitzen zituarentzat. Ara oetatik batzuek. Iru igandetan Elizaratzen etzanari, errian arkitzen zala, debekatzen zion Española Konzilio batek Elizan sartzea, eta Sakramentuak artzea. Onela eskomikuaren azpian bezala egon bearra zan Obispoak Elizan sartzeko, eta Sakramentuak artzeko baimena eman zegion artean. Bigarrena, Elizako ateetan, edo aurrean triskan ibilli zanari iru urteko penitentzia, esan ditugun malletan. Eta zer penitentzia ipiñiko zate Mezaurrean, erro-sarioa esaten denboran erausian, iskanbillan daudenai, edo pillotan dabil-tzanai? Zer bezperetako denboran ostatuan deadarka daudenai? Iruarren penitentzia: Meza, edo bezperak esaten ziran denboran, Elizan itz egiten zuanari premia gabe, amar egunez ur, ta ogi barautzea. Eta zer penitentzia emango zaio ordu onean Meza entzutera ez datorrenari, edo Elizan lo egiten duanari? Laugarren penitentzia: igandean lan debekaturen bat egiten duanari iru egunetan ur, ta ogi barautzea. Penitentzia au eman bear balitzate zenbaiti, zenbat barauren zorrarekin egongo lirake oraiñ?

Laugarren Mandamentua da *Aita, ta Ama onratzea*. Ara Mandamentu onen kontrako bekatuentzat siñalatu ziran penitentzia batzuek. Lenengo: gurasoa jotzen zuanari zazpi urte penitentzian igarotzea, eta lege zarrean eriotzaren pena. Bigarrena, gurasoari bidegabereren bat egiten zionari iru urte penitentiako malletan igarotzea. Iruarren, gurasoaren kontra birau egiten zuanari berrogei egunez ur, ta ogi barautzea. Penitentzia oek oraiñ emango balira, ez lirake diran bezeñ errebesak, eta lotsagabeak izango zenbait seme, ta alaba.

Bostgarren Mandamentua da *ez iñor iltzea*. Mandamentu onen kontrako bekatuentzat ipiñi oi ziran penitentzietatik batzuek dirade oek. Lenengo: eriotza egiten zuenari S. Gregorio Nisakoak siñalatu zion ogei, ta zazpi urte penitentiako malletan igarotzea, Beste batzuek nai zuen bizitza guzia onela igarotzea: eta lege zarrak ipiñia zeukan eriotzaren pena. Bigarren penitentzia: aurdun ez geratzeko, edariak ematen zituari, erio-



tza egiten zuanari bezala. Irugarren penitentzia: lagun urkoaganako gorrotoan bizi zanari ur, ta ogi barautzea, pakeak osotoro egin artean. Goazen seigarren Mandamentura.

Mandamentu au da *aragizko bekatuik ez egitea*. Era askotara utsegiten da Mandamentu onen kontra, eta orregatik asko dira ematen ziran penitentiak. Enzun itzatzu, oetatik batzuek. Lenengoa, donzellaren bate gana-ko gura gaiztoari leku eman diona, bego urte betean penitentzia egiten. Bigarrena: bekatuik egiteko asmo gabe bere burua loitzen duanak itz desonestoakin, edo begiratze lotsagarriakin, igaro bitza ogei egun penitentzia egiten. Phelipe bigarrenak penitentzia gogorragoa ipiñi zien itz desonestoak esaten, eta kanta zikiñak kantatzen dituenai, bada agindu zuan eun azote emanik, bota zitezela erritik. Au da oitura itsusi bat anima asko galerez duana, eta txit nekez sendatzen dana; baña sendatuko litzake Phelipe bigarrenaren penitentiarekin. Irugarren penitentzia: gizonezkoai agradatu naiez, ukenduz bere burua edertzen duana, iduki bedi penitentzia egiten iru urtez. Laugarren penitentzia: eskuz bere burua zikintzen duana, iduki bedi penitentzia egiten, lenengoa amar egunez, urren- goan ogei, gero ogei ta amar, eta atzenean eun egunetan. Bostgarrena, ezkongai ezkongiarekin erori bada obrazko bekatuan, igaro bitza zazpi urte penitentzia egiten. Ala zion S. Basiliok. Seigarrena, Mandamentu au autsitzeke estalkiñari ematen zitzaion bizitza guziko penitentzia, eta ukatzen zitzaizkan Sakramentuak, eriotzako orduaz kanpora. Española legeak ala agindurik, erabiltzen dira onelako estalkiñak kalez kale asto gañean, borroeroak azotatzen dituala: eta eraman oi due siñaletzat tontor farragarri bat. Onelako mandatari, ta estalkiñak eztira bearbada gutxi erri andietan, eta batzuetan gertalike txikietan ere zer, edo zer izatea; baña gutxituko lirake, legeak diona maiz egingo baliz.

Zazpigarren penitentzia: aideak elkarrekin erortzen baziran, igaro bear zituen leku batzuetan amabost urte penitentiako malletan; eta lege zarrean zuen eriotzaren pena. Zortzigarren penitentzia: ezkonduak elkarriz zor dioen leialtasuna autsitzen bazuen, San Basiliok siñalatzen ziezen amabost urte penitentzia egiteko, eta lege zarrean arrika iltzen zituen. Bederatzigarren penitentzia: gizonezkoak gizonezkoakin zenbait bekatu nazkagarri egitea, emakumeakin erortzea baño ere itsusiagoa da Jaunaren begietan, eta era berean emakumeak emakumeakin egitea: eta bekatu-mota onegatik auts biurtu zituan Jauna Sodoma, Gomorra, ta beste erri batzuek, eta Lot, bere emaztea, eta bi alaba ez beste gizon, eta emakume guziak, ala zarrak, nola gazteak an bukatu ziran. Española Konzilio batek agindu zuan, onelako bekatari zikiñak zeudela bizitza guzian peni-

tentzia egiten, eta eriotzako orduan ere etzekiela Komuniorik eman. Española legeak eriotzaren pena ipintzen dieza onelakoai, eta gañera erretzen, eta auts biurtzen ditue. Ala askotan eginda gizonakin, eta zenbait aldiz emakumeakin ere bai. Amargarren penitentzia: gizonak bere emaztea bortxatuko balu asko gauz enas egitera, Elizak ematen ziozkan penitentzia luze, eta samiñiak, baña Española legeak samiñagoa, bada ipintzen dio eriotzaren pena. Antonio Gomezek dio, berak ekusi zuala Talavera deritzan Española erri batean, nola, bizia kendurik, erre zuen gizon bat, zeren bere emaztea bortxatu zuan zenbait gauza itsusi egiteko. Amaikagarren penitentzia: abere, edo ganadurekin zikinkeriak egiten baditu batek, S. Basiliok nai zuan, onelako zikiña idukitzea penitentiako malletan amabost urtez; baña gogorragoa zan Jaunak onelako bekatari-ri ipiñi zion pena, nola zan eriotzarena. Pena au bera ipiñia dauke Española legeak, eta bizia kendurik, erretzen dira onelako enasak aberearekin batean. Ote da gure artean onelako bekatari nazkagarririk? Jakin beza bada (baldin onelakorik bada), Elizak Ama urrikarritsuak bezala artuko duala, baña justiziakoak jakiten badio, emango dioela legeak agintzen duan pena.

Zazpigarren Mandamentua da *ez ostutzea*. Ara Mandamentu onen kontrako bekatuentzat siñalatu ziran penitentzia batzuek. Lenengoa: litxarrerriak egiten dituan iduki bedi urte betean penitentzia egiten. Bigarrena, usurak egiten dituanak igaro bitza iru urte penitentiako malletan, eta lenengo urtea ur, ta ogi barautzen dala. Irugarren penitentzia: besteren gauza bide gaiztoz nai duana, eta ondasunen kutziarekin itsutua dagoana bego penitentzia egiten iru urtean. Laugarrena, Elizako ofrendak, gordezten, edo sisetzen dituanak, atera bitza berrogei barau ur, ta ogi. Bostgarrena, amarrenak beretzat gordetzen, edo egitea ez dituanak eman beza lau bider geiago, eta atera bitza ogei barau ur, ta ogi. Seigarrena: pisu, edo neurrian ostutzen duanak, atera bitza ogei barau ur, ta ogi.

Zortzigarren Mandamentua da, *testimonio falsorik ez altxatzea*, ta gezurrik ez esatea, eta onen kontrako bekatuentzat ipiñi oi ziran penitentiatik batzuek dira oek. Lenengoa, lagun urkoari egotzi badioe ez duan tatxaren bat, eta gezur au egia dala esaten duanak, igaro bitza amabost urte penitentzia egiten. Bigarrena: lagun urkoaren kontra itz egiteko griña txarra duanak, gezurra esaten badu, atera bitza zazpi barau ur, ta ogi. Uzten ditut beste penitentzia asko, geiegi luzatu ez nadin.

Aditzen dezu, Kristaua, nolako penitentiak agintzen zituen anziñako denboran Obispo Jaunak? Zer dira orañ ipintzen diranak aen parean? Andienak ere ezer ez. Ta au onela izanik, gogo gaiztoarekin artuko ditu-



gu ematen dizkiguen apurrak ere? Ea, ez gaitezen engañatu: bekatuan erori ezkeror ez dago penitentzia egitea beste biderik Zerurako. Egin dezagun gogor, ta leialki agintzen zakuna, onela gure bekatuen zorrak gutxitzeko, eta gero iristeko betiko bizitza, Amen.

OGEI, TA BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean emezortzigarrena.

ALABATUA &.

«Konfesio on bat egiteko bear dan bostgarren gauza zeñ da? galde-tzen du lenbiziko Komunioaren liburuak: eta erantzuten du *Satisfakzioa*. Zer aditzen dezu *Satisfakzioaren* izenez? Konfesoareak emandako penitentzia leialki egitea. Konfesoareak ematen dion penitentzia egiteko asmo gabe konfesatzen danak zer bekatu egiten du? Bekatu larria. Emandako penitentzia ausitzen, edo egin gabe uzten duanak, zer bekatu egiten du? Ausitzen badu penitentzia larria, eta aintzakotzat emana, bekatua izango da larria; baña ausitzen duan penitentzia txikia bada, txikia, edo beniala izando da alde onetatik egiten dan bekatua ere gizon jakintsu askoren iritzian. Konfesoareak agintzen dizun penitentzia eziñ ongi egin dezakezuna bada, zer egingo dezu? Umilki eskatuko, edo erregetuko diot, alda degidala beste penitentzia batera, alda baditeke.

Konfesoareak ematen diezten penitentziaz gañera, zer egin oi due Kristau onak? Ontzat, edo Jaunaren izenean artzen ditue emengo gurutze, ta samintasunak; eskeintzen diozkee Jaun berari beren obra guziak, eta egiten due alegiña induljenziak, edo barkazioak irabazteko». Orra lenbiziko Komunioaren liburuak Satisfakzioaren gañean dakarrena.

Azkeneko Erakusaldian aditu zenduan, Kristaua, nolako pena, ta nekeak dagozten gure bekatuai. Aditu zenduan gañera, nolakoa utzi zaituen zure bekatuak. Atzenean, zer penitentziak ipintzen zituen anziñako denboran Obispo Jaunak. Emendik igerri dezakegu, guri oraindano eman zaizkigun penitentziak ariñak dirala, eta gutxi gure bekatuen zorrai erantzuteko. Zer egin aldeakegu bada zor au bukatzeko, edo gutxitzeko? Egin dezakeguna da, benik beiñ emengo neke, ta samintasunak ontzat, eta Jaunaren izenean artzea: ta au da aurrena ukituko dedan gauza. Urrena egin dezakeguna da gure obra on guziak Jaunari eskeintzea beraren onra, ta gloriarako, eta gure bekatuen zorrak ateratzeko: au izango da bigarren lekuan aditzera emango dedana. Atzenean begiratu bear degu, nolako penitentziak egin dituen Santuak bekatutik aldegeteko, eta bekatuen zorrai erantzuteko. Asi gaitezen bertatik.



§ I.

Gu, nere Kristaua, jaiotzen geranetik inguratzen gaitue gurutze, ta samintasunak, eta ez dira aitutzen gure biziak dirauen bitartean. Zoaz nora nai; zoaz goora, zoaz beera, zoaz lagun artera, zoaz bakardadera, eta leku guzietan arkituko dituzu gurutze, ta nai gabeak. Ala gertatzen zate leku, ta onra andietara igo diranai: ala beartsu, ta beeneko mallan arkitzen diranai, ta ala nori nai. Orregatik zion Job Santuak: gerra utsa da gizonaren lurreko bizitza: *militia est vita hominis super terram*.

Gurutze, ta samintasunak ez dira arintzen, ez gutxitzen gaizki artzarekin, baizik ugaritzen, eta garratzago egiten dira, egun oro geren gan ekusten degun bezala. Baña ontzat, eta Jaunaren izenean artzen dirala, arintzen, eta gozatzen dira, zeren Jaunak ematen dion, onela gurutze, ta nekea daramanari, Zeruko graziaren gozagarria.

Baldin gurutze, ta nekeak daramaizkiana Jaunaren grazian arkitzen bada, gurutze, ta nekeak dakartzie bi ondasun txit andiak, eta oetatik bata da Zerurako irabaziaz izatea. Añ ona da gure Jauna, non beraren izenean igarotzen dan gurutze, ta naigaberik txikiena ere, Zeruaren irabazitatz artzen duan. Ala erakusten digu gure fede Santak. Gurutze, ta nekeak dakarten beste ondasuna da bekatu barkatuen zorrak ateratzea, edo osotero, edo zerbait. Au ere fedeak erakusten digun egia da, eta besterik esatea debekatzen du Elizak eskomiku nagusiarekin: *Anathema sit*. Beraz zuk, beraz nik, eta guziok, bekatuen zorrak ateratzeko, egin dezakeguna da emengo gurutze, ta samintasunak ontzat, eta Jaunaren izenean artzea. Au da beti eskura daukagun bidea, zeren egun oro, eta leku guzietan arkituko degun gurutzeren bat, batzuetan lagun urkoen aldetik, besteetan geren griña txarretatik; batzuetan, gure egin bideak dakartzien, arazo, ta nekeekin, besteetan beste alderen batetik. Nork eztakus, gurutze oek ontzat artze utsarekin gutxituaz joango lirakeala gure bekatuen zorrak? Baña gauza negargarria! izanik egun oroko gurutze oek, nai, ta nai ez, igaro bear ditugunak: izanik arriagoak, ongi artzen badira: ta izanik ondasun askoren meatze ugaria; ala ere oek biurtzen ditugu askotan gure animen puzoi! Kristaua, ikasi dezagun noizbait, gure gurutze, ta samintasunak ongi eramanaz, gure bekatuen zorrak ateratzen. Dakuskun oraiñ, zer onetarako egin bear degun bigarren lekuan. Au da gure obra on

guziak Jaunari eskeintzea beraren onra, ta gloriarako, eta bekatuen zorrak ateratzeko.

§ II.

Ez da iñor ere bere estadu, ta bizi moduan neke, edo lanari jarraitu bear ez dionik, dala nekazaria, argiña, arotza, dala jostuna, okiña; dala ardazlea, edo eulea, dala Apaiza, dala edozeñ. Obra oek egiten badira, bear diran doaiakin, guziak, eta bakoitza izango dira Zerurako irabaziaz, eta gañera gutxituko due gure bekatuen zorra, dakarten nekearen neurrian. Au da fedeko gauza, eta Trentoko Konzilioak aintzakotzat erakusten diguna. Beraz zuk, nere Kristaua, zure bizi moduak eskatzen dituan lanak egiten badituzu bear dan eran, edo bear diran doaiakin, irabaziko dezu Zeruko Erreñua, eta gañera bakoitzarekin eranzungo diozu zure bekatuen zorrari, egiten dezun lanak duan nekearen neurrian. Ez digu gure Jaunak eskatzen gauz andiak egin ditzakula. Ez digu eskatzen bate-tik bestera mendiak aldatzea, eriak sendatzea, illak piztutzea, eta iñoiz eskatuko balu, berak emango lituke artarako doai egokiak; baizik nai du gure estadu, ta bizi moduari dagozkan gauzak ongi egitea. Orregatik dio San Paulok: *Egiten dezuen guzia, dala itzez, dala obrax guzia egizue gure Jaun Jesu-Kristoren izenean*.

Baña zer doai ote dira gure lanak bear dituanak, dala Zeruaren irabazi izateko, dala bekatuen zorrari erantzuteko? Ara zer doaiak bear diran. Lenengoa da, Zerutikakoa edo sobrenaturala izatea. Zerutikakoa, zeren Espiritu Santuaren grazia, ta lagunza gabe ezin Zerurako irabazirik txikiena ere egin ditekean, ez eta Jesus bat bear bezala esatea ere. Ala esaten digu San Paulok: *Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto*. Zerutikakoa gañera, zeren egin bear dan, ez lurreko gauzetan begia ipintzen dala, baizik fedeak erakusten duan motiboren bate gatik. Bigarrena, lana egiten duana Jaunaren grazian egotea, bestela illa dago animaren aldetik, eta iliak irtengo dira egiten dituan obrak. Matsadarra igartua bada-go, ez du fruturik emango. Alaere ez ditu bekatariak utzi bear obra onak, zeren, Zerurako irabaziaz izan ez arren, asko laguntzen duen bekatutik irteteko, eta beste on asko iristeko. Irugarren doai da, egiten dan obra nekagarria izatea. Ala aditzera ematen digu Trentoko Konzilioak; baña nola obra on guziak guretzat neke dakartenak diran, orregatik Teologoak dioenez guziak dira egokiak bekatuen zorrari erantzuteko, gañerako



doaiak baditue. Laugarren doaia da gure lan, eta obra onak egitea Jaunaren onra, eta gloriarako. Era onetan egiten diran lan guziak, ala andiak, nola txikiak egokiak dira bekatuen zorrak ateratzeko, eta au da guk bigarren lekuan egin bear genduana.

Baña egiñ ote degu? Begira begio bakoitzak bere bizitzari, eta arkituko du negar egiteko gai asko. Zenbat egun oro, ta urte guzian goizetik arratseraño ari dira nekean? Zenbat Zerurako irabazi egin, eta zenbat bekatuen zor atera zitzakeen lan oriekin? Baña ez due zorrik atera, zeren bear dan eran egin ez dituen. Gertazen da gurekin gai onetan S. Pedrokekin gertatu zana. Irten ziran S. Pedro eta S. Andres beren ontzi, edo txaluparekin arranzara arrats batean, arrats guzia igarota, etzuen atxitu ezer ere. Goizean arkitu zituan Jesusek itsasbaterrean sareak altxatzen. Sartu zan ontzian, eta esan zion Pedrori, eraman zezala itsasoan barruna sareak botatzeko. Erantzun zion Pedrok: *Maisua, arrats guzian nekatu gera arrai billa, baña alferrik. Alaere zuk agintzen dezun ezkeru, botatzera noa sareak zure izenean.* Ala egin zuan, eta ainbeste arrai sartu zan sarean, non arriturik jarri zan Pedro Jesusen oñetari, eta esan zion: *Jauna, ni naiz bekatari andibat, eta ez naiz zure aurrean agertzeko diña.* S. Pedro bada arrats guzian nekatu zan alferrik, zeren Jesusen izenean bota etzitan sareak, baña izen onetan bota zituanean, atxitu zuan ugari arraia: eta ona egun oro askorekin gertatzen dana. Nekatzen, ta desegiten dira lanean, eta ez due ezer atxitzen, edo ez due Zerurako irabazirik batere egiten, eta bekatuen zorrik ateratzen, zeren ez dituen lan oriek egiten Jaunaren izenean. Nork esan alde onetatik datozkigun kalteak! Au ezagututa, ez ote zera, Kristaua, azkartuko, zure lan, ta obra on guziak Jaunaren onra, ta gloriarako egiteko? Baña goazen aurreraseago, eta begira, nolako penitenziak egin dituen Santuak bekatutik aldegitiko, eta bekatuen zorrai erantzuteko.

§ III.

Begiratu nai badiezu anziñako denborai, ekusiko dezu, S. Paulo eremutarrak amabost urte zituan denboran, utzi zuala mundua, eta bizitu zala eremuan eun, eta amairu urteetaraño: aren janaria izan zan arbola baten fruta, eta egun oro bele batek ekartzen zion ogi puska bat. S. Antonio gisa berean bizitu zan eremuan eun, eta bost urteetaraño: aren oia zan lur otza, edaria uura, eta janaria ogia, ta gatz piska bat. Santiago eremutarrari gertatu zitzaion bekatu batean erortzea: eta bekatu onen

zorrai erantzuteko ezkutatu zan obi batean, eta an bizitu zan amar urte illen ezurren artean, inguruan jaiotzen ziran belarrak baizik jaten etzuala. Zer esango det Santo Domingo Lorikatoz! Igandez landara, edo kanpora, bizitza guzian barautu zan ur, ta ogi, eta garizuman artzen zituan sei eun milla azote. Eta alde batera utzirik anziñako denborak, begiratzen badiezu alderagokoai, arrituko zera; San Pedro Alkantarak, Santa Rosa Limakoak, S. Luis Gonzagak, eta beste askok egin dituen penitenziak ekustean. S. Pedro Alkantarak jan oi zuan iru egunetatik beñi, eta zenbait aldiz igarotzen zitzaizean zortzi egun ezer artu gabe: eta au gutxi batzan bezala, egunean bi bider azotez urratzen zuan bere burua. Santa Rosak, bost urte besterik etzuan denboran, egin zuan garbitasuna, edo kastidadea gordetzeko botoa: janzi zuan orratzez beterikako soñeko, edo zilizio bat: inguratu zuan gerria burnizko katearekin, eta buruko estalkiaren azpian ipiñi zuan koroa bat eztenez betea. S. Luis Gonzagak, eskribitzen duenez, etzuan galdu bataioan artu zuan grazia: ill zan ogei ta iru urte zituanean, eta arritzekoak dira egin zituan penitenziak: Ekusten dezu, Kristaua, nolako penitenziak egin dituen Santuak, bekatutik aldegitiko, eta bekatuen zorrai erantzuteko?

Eta gu izango gera añ nagiak animako gauzetan, non zerbait egingo ez degun betiko Zerua irabazteko? Ez dizut, Kristaua, esango, ur, ta ogi barautu zaitezela Santo Domingo Lorikato bezala: ez dizut esango, zere etxea, ta erria betiko utzirik, bizi zaitezela eremuetan, edo illen ezurren artean, lurreko belarren sustraiak baizik jan gabe; baña zerk eragotziko digu zuri, ta niri gure bizi moduan egun oro arkitzen ditugun gurutzeak Jaunaren izenean igarotzea? Zerk eragotziko digu gure lan, ta obra onak Jaunari eskeintzea? Au da gauza bat neke andirik ez duana, eta ezin gai onetan emen aitzakiarik asma dezakezu; jai goizetan alabaña lenengo Mezan egiten da goizeko jaiera, eta arratsaldeetan arratsekoa, dotrina esateaz gañera, eta nork nai ikasi dezake, nola bere neke, ta obra guziak egin ditzakean Jaunaren onra, ta gloriarako. Goizeko jaiera astegunean egiteko betarik ez duanak, itz bian esan dezake: *Jauna, gaurko nere nekeak, nere itz, pensamentu, eta obrak izan bitez zure onra, ta gloriarako.* eta gañera asmo au noizean beñ berritu dezake, esaten duala beregan: *Jauna goizekoan bertan nago: izan bedi guzia zure izenean, eta indazu zure laguntza bekatutik ez egiteko.* Denbora degun bitartean egin dezagun alegiña, gure bekatuen zorrai erantzuteko. Onela uste izan dezakegu gure egunak ongi bukatzea, eta betiko bizitza iristea. Amen.



OGEI, TA AMARGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean emeretzigarrena

ALABATUA &.

«Konfesio on bat egiteko, bear dan bostgarren gauza zeñ da? Galdetzen du lenbiziko Komunioaren liburuak: eta erantzuten du: *Satisfakzioa*. Zer aditzen dezu *Satisfakzioaren* izenez? Konfesoreak emandako penitentzia leialki egitea. Konfesoreak ematen dion penitentzia egiteko asmo gabe konfesatzen danak zer bekatu egiten du? Bekatu larria. Emandako penitentzia autsitzen, edo egin gabe uzten duan zer bekatu egiten du? Ausitzen badu penitentzia larria, eta aintzakotzat emana, bekatua izango da larria; baña autsitzen duan penitentzia txikia bada, txikia, edo beniala izango da alde onetatik egiten dan bekatua ere, gizon jakintsu askoren iritzian. Konfesoreak agintzen dizun penitentzia eziñ ongi egin dezakezuna bada, zer egingo dezu? Umilki eskatuko, edo erregutuko diot, alda degidala beste penitentzia batera, alda baditeke.

Konfesoreak ematen diezten penitentziak gañera, zer egiñ oi due Kristau onak? Ontzat, edo Jaunaren izenean artzen ditue emengo gurutze, edo samintasanak: eskeintzen diozke Jaun berari beren obra guziak, eta egiten due alegiña induljenziak, edo barkazioak irabazteko». Orra lenbiziko Komunioaren liburuak satisfakzioaren gañean dakarrena.

Guri ematen zaizkun penitentziak gure utsegitei dagoztenak baño ariñagoak izan, oi dira noaski: eta beragatik geratuko zaku, bekatu barkatuai zegoten penaren zorra, eta zor au atera bear degu edo emen, edo Purgatorioko nekeen artean: eta atera dezakegu, dala emengo gurutze, edo samintasanak ontzat, eta Jaunaren izenean artzen ditugula, dala gure obra onak beraren onra, eta gloriarako egiten ditugula. Baña gerta ditek gure neke, eta obra onak zorraren diña ez izatea, zeren denbora luzeak joan zaizkigun bekatuaren bideetan, eta zor andien azpian geratu giñan, konfesio ona eginta ere. Ez ote da beste bideren bat zor au kentzeko? Bai, nere Kristaua, eta bide au da Elizak ematen dituan, barkazio, edo induljenziak irabaztea. Azkeneko aldian itzegin nizun, Kristaua, emengo gurutze, eta obra onen gañean. Gaurko Erakusaldia izango da barkazio, edo induljenzien gañean. Aurrena aditzera emango dizkitzut, Kristaua, barka-

zio oen berriak. Urrena, oek irabazteko, gure aldetik bear diran, gauzak. Entzun arretarekin..

§ I.

Ekusirik Eliz Ama Santak, bere umeak bekatuen zorrez beteak, eta nekez oen mendetik irten zitezkeala; eta beste aldetik izugarriak dirala Purgatorioko penak, anziñatik, edo bere asieratik ipiñi zituan, bekatu barkatuai dagozten zorren barkazio, edo induljenziak, eskeintzen diozkala Jaunari bere gordairu, edo *tesorotik* Jesusen, Birjiña txit Santaren, eta beste Santuen nekeak.

Egin due Elizaren etsaiak alegiña barkazio oen kontra; baña Jesu Kristok berak esan zien Apostolui: zuek barkatzen dieztezuenen bekatuak barkatuak izango dira: *Quorum remiseritis peccata remittuntur eis*. Itz oetan ematen zaio Elizari bekatuak barkatzeko eskua; eta bekatuak ditu bi gauza, bata da oben, edo kulpa, bestea pena.

Esan det, Elizak bekatu barkatuen zorren alde eskeintzen diozkala Jaunari, bere gordairu, edo tesorotik Jesusen, Birjiña txit Santaren, eta beste Santuen nekeak. Au ongi aditzeko, eutzun itzatzu, Kristaua, orain ukitzera noan gauz oek. Lenengoa: edozeñ obra onek ditu bi gauza, bata da Zeruaren irabazia, eta bestea bekatuaren zorrak kentzeko egokia izatea. Bigarrena, obra ona egiten duanak, beretzat irabazia badu ere, eskeñi degioke Jaunari obra bera lagun urkoaren zorraren alde. Ala Elizaren lenengo denboretan Martiriak eskeintzen zituen beren oñazeak, eta erio-tza penitentziako malletan zeuden zenbaiten alde. Irugarrena fedeko gauza da, Jesusen neke-oñazeak izan zirala neurririk gabe baliotsuak, eta bekatu guzien zorrak ateratzeko diña ezezik, askoz geiago. Oek utzi zituan bere Elizan gure bekatuen zorren alde, etzuan alabaña premiarik beretzat. Laugarrena, fedeko gauza da, Birjiña txit Santak etzuala izan bekatuak, eta bekatuen zorrik; beste aldetik igaro zituan gurutze, eta nalgabeak, eta egin zituan obra onak, eta bekatuen zorrak ateratzeko, zuen balioa nora zan? Utzi zion Elizari. Au bera esan bear da beste martiri, eta Santu askoz; zeren egin zituen obra onak, eren bekatuen zorrak ateratzeko ezezik geiagorako ere asko ziran, eta geiago zan ura guzia utzi nai izan zuen Elizaren eskuetan. Orra, zer dan Elizaren gordairua, eta nondik eskeintzen diozkan Jaunari gure bekatuen zorrak ateratzeko nekeak, eta pagua: eta orra zertan dagoan, Elizak ematen dituan barkazio, edo indul-



jenzien sustraia. S. Paulok Korintoko bekatari andi bati barkatu zion zegokan penitentzia Jesu-Kristoren izenean; eta Korintoko enreguakgatik: beraz bazuan Jesu-Kristok emandako eskua bekatuen zorrak barkatzeko. S. Zipriane dio, Martiriak eskatzen zuena penitentiako malletan zeudenen alde, ontzat eman zitekeala. Asko zan denbora aetan martiriorako karzelan zegoan batek bekatari baten alde erregizea, barkatzeko oni penitentiako urte guziak. Eta orduan martiri baten erregua asko bazan, barkazio osoa emateko, zer ez dezake egin Eliz Ama Santak, Jesusen, Birjiña txit Santaren: eta Santuen obra on, eta nekeak Jaunari eskeintzen diozkala?

Eliz Ama Santak bekatarien alde ematen dituan, barkazio oek batzuek dira osoak, edo *plenariak*, bekatuen zor guzia ateratzeko, eman oi diranak; besteak *ez osoak*, nola diran egun, edo urteren batzuetako barkazioa dakartenak. Batzuek dira illen, besteak bizien alde. Batzuetan indulgentzia etorri izan da itz oekin: *osoa*, *osoaga*, eta *guziz osoa*, eta aditzera ematen da, beregan danez, Aita Santuak ematen duala eman dezakean barkaziorik andiena. Beste batzuetan dator indulgentzia itz oekin: *onenbeste egun*, *urte*, eta *garizumetakoa*: eta aditzera ematen da, anziñako eran denbora orientan penitentzia eginda, irabaziko zan adiña barkazio irabaziko dala Alita Santuak bidaltzen duan indulgentzia au irabaztearekin. Bada indulgentzia, edo barkazio bat *jubileoaren* izena ematen dioena. Lege zarrean berrogei ta amar urtetatik beñ zuen jubileo-urtea. Urte artan etzan ezer ereiten, eta zeuden lurrak atsedeten. Bartatzen ziran zorrak, eta saldu baziran lurren batzuek, biurtzen zitzaizten leneko jabeai. Au onela egiten zan, etxe bakoitzean gorde zedin, Josuek Jaunaren agintez eman zion lurra. Jubileoko urtean Israeltarrak munduaren lau aldeetatik joan oi ziran Jerusalemgo Elizara Jauna adoratzera. Jesu-Kristoren legean erri guzietan dira Elizak, Jauna adoratzeko; alaere jaiera andia zitzaion S. Pedoren Erromako Elizari, guzien amari bezala, eta ara joan oi ziran Errege, Obispo, eta malla guzietako jendeak: eta jaiera oni begiraturik, asi ziran Aita Santuak *jubileoa* deritzan barkazioa ipintzen, ez ordea, emengo zorrena, baizik bekatuen eta bekatuari darraikan penarena. Lenengo jubileoa ipiñi bide zuan Bonifazio zortzigarrenak, eta agindu zuan, eun urtetatik eun urtetara izan zedilla jubileoko urtea. Klemente seigarrenak berrogei, ta amar urtetatik beñ. Urbano seigarrenak ogei, ta amairu urtetatik beñ, eta Paulo bigarrenak agindu zuan, ogei ta bost urtetatik ogei ta bost urtetara izan zedilla jubileoko urtea: eta atzenean Elizaren premia andietan, eta Aita Santu berria sartzan danean, ipiñi izan da batzuetan jubileoa. Aurreneko denboran, jubileoa irabazteko joan bear zan Erromara, eta

egin bear ziran Aita Santuak agintzen, edo siñalaten zituan obra onak: baña gero etzan Erromara joan bearrik. Jubileoak, bekatuen zorra osotaro ateratzeaz gañera, dakar boto, edo promesak aldatzeko eskua. Zer boto, edo promesa diran oek, eta nola aldatu ditezkean, jakin dezake bakoitzak, premia duanean, bere konfesorea gandik.

Anziñako denboran Obispo Jaunak eman oi zituen barkazio, edo indulgentzia osoak ere, baña Elizak Aita Santuagan bakarrik ipiñi zuan esku au. Orra indulgentzia, edo barkazioai dagozten zenbait berri. Dakuskun oraiñ, zer bear dan gure aldetik oek irabazteko.

§ II.

Onetarako lenengo gauza da, agintzen diran, gauzak ongi egitea. Elizaren lenengo denboran Martirien bitartekotasunez eman oi ziran barkazioak, ezer egiteko kargarik ipiñi gabe, eta oraiñ ere ala eman oi zaizte eriotzako zorian arkitzen diranai; baña gañerakoan agindu oi ditu Aita Santuak obra onen batzuek. Bigarrena egin bear dira obra oek Aita Santuak aditzera ematen duan fiñerako. Irugarrena, indulgentzia irabazi nai duanak, egon bear du Jaunaren grazian, azkeneko obra ipintzen duanean bederik. Laugarrena, indulgentzia, edo barkazioak irabazi nai badituzu, erabaki ezazu zeregan, bekatuen zorrak obra onakin alegiñean ateratzea; diot au, zeren gizon jakiunde andikoak erakusten digue, indulgentzia, edo barkazioak ez dirala, bekatuen zorrak ateratzeko, arretarik ipiñi nai ez duentzat. Bostgarrena, indulgentzia, edo barkazio osoa irabazi nai badezu, egitzu agintzen diran obrak alik ongiena, eta jaiera andiarekin; zeren beregan danez eman arren Aita Santuak barkazio osoa, eztakigu, zer prestatera, eta jaiera eskatzen duan Jaunak onetarako. Seigarrena barkazio osoa iristeko, ez da asko konfesio ona egitea Aita Santuak siñalaten dituan beste obrakin batean, baizik sortu bear da gañera bekatu benialen damua; bestela oei dagozten penak eren oñean egongo dira. Orregatik egin bear da alegiña, benik beñ bekatu benialetarako gogo, eta borondatea utzitze-ko, eta akto fede, esperanza, karidade, eta kontriziozkoak egiteko: eta onela karidadearen suak kenduko ditu bekatu benialen erdoiak, eta anima geratuko da barkazio osoa iristeko aro eta sasoiari. Atzenean indulgentzia, edo barkazioa illentzako bada, zeregan erabaki bear dezu, norentzat irabazi nai dezun: eskatzen diran erreguak egin bear dira Aita Santuak adirazi duan fiñerako: eta alegiñean Jaunaren grazian zaudela, eta gutxienez



bekaturako borondatea osotoro utzirik. Orra, nere Kristaua, nola gure bekatuen zorrak atera ditzakegun, ematen zaizkigun penitenziak ariñegiak balira ere. Atera ditzakegu emengo gurutze, eta samintasunak ontzat, eta Jaunaren izenean artzen ditugula. Atera ditzakegu, egiten ditugula obra onak, bakoitzak bere bizi modu, edo estaduan. Atera ditzakegu atzenean irabazten ditugula, Elizak ipintzen dituan, barkazio, edo induljenziak. Baña arretarik ezpada onetarako, egunetik egunera andiagoa izango da gure bekatuen zorra, eta nortaki, zeñ luzeak, eta noiz artekoak izango diran geroko, neke, eta penak. Denbora degun bitartean bizi gaitezen kontuz: onela iristeko gure bekatuen zorrak ateratzea, eta betiko bizitza. Amen.

OGEI, TA AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

baña Konfesioko Sakramentuaren gañean ogeigarrena.

ALABATUA &.

Luzaro itz egin dizut, Kristaua, konfesio ona egiteko bear dan bostgarren gauzaren, edo satisfakzioaren gañean. Orañ lenbiziko komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Kristau guziak beartuak ote daude konfesatzera? Erantzuten du: bai, Jauna, gaitzarekin-onaren ezagueran sartu ezkeru. Urtean zenbat bider? Urtean beñ bederik. Urtearen zer denboraz egin bear du Kristauak, Eliz Ama Santak agintzen duan, konfesio au? Ez du Elizak siñalatu denbora au, baña Iruñeko Apaiz Nagusiaren mendeko errietan ala legez, nola usanzaz garizuman egiñ oi da.

Urtean beñ ezezik, beste zenbait aldiz ere konfesatzera beartua ote dago Kristaua? Bai, Jauna. Lenbizia, iltzeko perillean dagoanean. Bigarrena, komulgatu bear badu, eta bekatuan arkitzen bada. Irugarrena, sarritan, edo noizean beñ konfesatu gabe ezin bekatuaren berrizaturak utzi baditu.

Urtean beñ bederik konfesatzeko aginte au gordetzen ez duenai zer kastigu siñalaten die Elizak? Agintzen du, bizitzan ez dakiela utzi Elizan sartzen, eta iltzen diranean, ukatu dakiela Eliz-lurra». Orra lenbiziko komunioaren liburuak gai onetan dakarrena.

Kristau guziak konfesatzeko degun egin bide, edo obligazioaren gañean izango da gaurko itzaldia. Aurrena emango ditut egin bide onen berriak, liburuak dakartzian baño ugarisêago. Urrena aditzera emango ditut egin bide onen kontra sarritan gertatzen diran bekatuak. Asi gaitzen bertatik.

§ I.

Elizaren asierako denborai begiratzen badiegu, ez degu arkituko konfesio, ta komunioaren aginterik. Zergatik ori? Zeren denbora aetako Kristauak etzuen agindu bearrik, Sakramentu oek sarritan artzeko. Añ



andia zan orduko Kristauen jaiera, eta añ ederra egiten zuen bizitza, non Meza enzuten zuen guziak artzen zuen Komunioko Sakramentua. Baziakien, Adanen bekatuarekin geratu giñala txit eriak, eta gaitzeron makurtuak; eta Jesus onak utzi zigula Konfesioko Sakramentua, bataioa ezkeru egindako bekatuak barkatzeko: eta onetarako eman ziela bear dan eskua Apostoluai, eta oen ondorengo Apaizai: arrezazue, esan zien, Espiritu Santua: *Accipite Spiritum Sanctum*. Zuek barkatzen dieztezuenen bekatuak barkatuak izango dira: *Quorum remiseritis peccata remittuntur eis*. eta zuek barkatzen ez dieztezuenenak barkatu gabe geratuko dira: *Et quorum retinueritis retenta sunt*. Baziakien, bekatuen gaitza sendatzeko, ezagutu bear dituala Apaizak, bekatariak egin dituan bekatuak, dala itzez, eta obraz, dala gogoz, edo pensamentuz, Trentoko Konzilioak dion bezala, eta onetarako gauza bearra zala bekatuak agertzea, edo aitortzea sendatzalleari. Baziakien atzanean, S. Paulok esaten digula: Aldareko Sakramentua artu baño len proga dezala bakoitzak bere burua, eta bekatu larri, edo mortalean erori bada, ezdezala artu Sakramentua, konfesioko Sakramentuarekin anima garbitu gabe. Au guzia ongi ziakienak bezala sarritan artuko zuen konfesioko Sakramentua, Elizaren aginteen bearrik gabe. Onela joan ziran zazpi eun, eta geiago urte. Asi ziran Kristauak anziñako jaiera ona utzitzen, eta agindu zuan Elizak, urtean iru aldiz bederik artu zezeela Komunioko Sakramentua, au da Pazkoa loratuan, Maiatzekoan, eta Eguerriz, eta aginte bera aditu zan konfesorako ere. Alaere asko ziran Sakramentu oez azturik bizi ziranak, eta agindu zuan azkenean, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartutako Kristau guziak aitortu degiozkeela beren bekatuak, urtean beñi bederik, barkatzeko eskua duan Apaizari. Eta ona Elizak guziori ipiñi digun agintea.

Aginte onek ez du itzegiten gaitzaren, eta onaren ezaguera ez duenakin; konfesia alabaña da bekatuen barkaziorako, eta bekatuak ez du ezagueran sartu ez danak. Gaitzaren eta onaren ezaguera ez dator guzietan berdiñ: batzuek due adimentu argiagoa, besteak baño; batzuek aziera ohea besteak baño: eta erreñu batzuetan etorri liteke ezaguera besteetan baño lenago. San Gregoriok dionez bost urteko aur bat infernura joan zan, Jaungoikoaren kontra esan zituan, itz gaitzo batzuekgatik. Baña geienak asi oi dira ona, eta gaitza ezagutzen zazpi urteetatik aurrera: Eta S. Karlos Borromeok dio, oitura ona dala, bost, edo sei urte izan ezkeru, aurrak ekartzea Konfessoreagana, egin ditezen gutxika konfesatzeko modura. Konfesia egin bear zaio, ez nori nai, baizik barkatzeko eskua duan Apaizari. Len egin bear zitzaion konfesia au Artzaiari, edo onek siñalatzan zuanari. Arzaiak berea Obispoari, Obispoak Arzobispoari,

onk Patriarkari, eta Patriarkak Aita Santuari; eta ekusirik emendik zetozen neke, eta luzapenak, Elizak eman zion Kristau bakoitzari eskua, urte oroko konfesia au egiteko Obispo Jaunak konfesia aditzeko ipintzen duan, edozeñ Apaizi. Baña kanpoan konfesatzen diranak ekarri bear lukee beren agiria. Elizak siñalatu zuan urte oroko Komunioaren denbora, baño ez konfesiaarena. Orregatik gizon jakintsu askoren iritzian konfesatzeko urtea aditzen da urte berritik urte berriraño, baño Iruñeko Apaiz Nagusi, edo lenenaren mendeko lekuetan garizuman egin bear da konfesia au, legeak dionez. Aginte oni erantzuteko ez da asko nola nai konfesatzea, baizik ongi, eta bear diran damu, eta asmoarekin konfesatzea. Orregatik, konfesia gaitzoak egin ditua beartua dago, lenbait len konfesia berritzera; eta zabartzen bada, bekatu larri, edo mortalean eroriaz dijoa, zabarkeriak dirauen bitartean.

Eliz Ama Santaren aginte onez gañera bada beste bat Jesu-Kristorena; Jesu-Kristok alabaña Sakramentu au utzi zuan bere Elizan, gure animak bekatuaren eriotzatik ateratzeko, eta animako zauriak sendatzeko, eta nai du artzea premia degunean bederik. Baña noiz beartzen ote gaitu Jesu-Kristoren aginte onek? Beartzen gaitu benik beñ eriotzaka perillean. Beartzen gaitu urrena, Komunioko Sakramentua artzeko, baldin bekatuan bagaude. Atzanean konfesioko Sakramentua sarritan, edo noizean beñ artu gabe, bekatuaren berrizaturak ezin garaitu baditugu, askorekin gertatzen dan bezala. Zer penak ote ditu urtean beingo konfesia egiten ez duanak? Debekatu bear zaio Elizan sartzea, eta illtzen danean, etzaio eman bear Eliz-lurrik: eta badu emen eskomikuaren pena ere Pazkoatik illa beteren barrunbean ezpadira konfesatzen, eta komulgatzen. Dakuskun oraiñ, zer utsegiteak sarritan gertatzen diran aginte onen kontra.

§ II.

Eliz Ama Santak, esan dedan eran, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartu diran Kristau guziaz agintzen die, urtean beñ bederik konfesia ditezela, baño zenbat izango dira, batezere erri andietan, Aginte oni erantzuteko arretarik ez duenak eta bortxaz baizik konfesioko Sakramentua artzen ez duenak?

Iruñeko legeak agintzen digue, konfesia au egin dezagula garizuman, eta zenbat izango dira garizuma guzian esnatzen ez diranak, konfesia



etortzeko? Igarotzen da garizuma, igarotzen da Pazko astea, eta orduan agertuko dira lotsa gutxiarekin: beste batzuek jarriko dira Komunioko maiean, kanpoan konfesatu balira bezala; besteak garizumarako joango dira ikazkintzara, uzten dituela errian Elizaren aginte, eta Sakramentuak.

Konfesioko aginteari erantzuteko, ez da asko, esan dan bezala, nolainai konfesatzea, baizik bear da ongi konfesatzea. Eta zenbat izango dira urteko konfesio au gaizki egiten duenak? Gaizki, examinaren aldetik; zeren saiatzen ez diran urte guzian itzez, gogoz, eta obraz egindako bekatuak gogora ekartzeko. Galdetuko die Konfessoreak, zenbat bider ori gertatu da? Erantzungo due: *frankotan Jauna*. Eta zenbat ote dira *frankotan* gertatu dirala, diozun oriek? *makiña bat, Jauna*. Atozea: egun guzietan gertatu ote dira? Astean, edo illean zenbat bider? *Askotan Jauna*. Ezta gauza garbirik onelakoetatik aterako, zeren nekatu ez diran kontu ateratzen. Baña demagun saiatzen dirala zerbait: baldin atzo esan, edo gogoan igaro ziran gauzaz gaur ezin oroitu bagera, nola oroituko gera arte guzikoaz? Santo Tomas Villanuevak dio urtetik urtera konfesatzen diranak nekez oartuko dirala bekatuen amarrenaz ere.

Eta zer esango det damu egiazko, ta bizitza ontzeko asmo oso gabe konfesatzen diranaz? Zer ezpada Kristaurik geienak era onetan konfesatzen dirala? Zer esango det, bekatuak lotsaz aitortugabe uzten dituenaz? Ez dira oek ere gutxi, len adinbat ezpadira ere. Diot au, zeren, dioenez, gaurko egunean ez dakar bekatuak ainbeste lotsa, nola zekarren beste denbora batean.

Eta emendik igarotzen bagera Jesu-Kristok konfesioko Sakramentua artzeko utzi zigun Agintera, uste dan baño geiago izango dira, Sakramentu au gabe bekatuaren berrizkaturak utziko ez dituenak, eta alaere berandutik berandura baizik konfesatzen ez diranak. Urليا gazte-txoa zala, oitu zan ukitze lotsagarrietara bere bakarrean, edo besterekin: sandia itz desonestoak esatera, edo keñada itsusiak egitera: berendia birauak botatzera, edanen igarotzera, eta lagun urkoaren kontra nola nai itz egitera. Demagun, egitera duala konfesioren bat ona, edo garizuman, edo beste denboraren batean. Nola iraungo du onek Jaunaren grazian, edo leneko bekatuetara biurtu gabe, artzen ezpaditu urte guzian konfesio, ta Komunioko Sakramentuak? Nola soro bat egongo da garbia, edo belar gaizto gabe, urte guzian maneatzeko ezpada? Nola argalez doi doia agoan dagoana, sendo jarriko da janari, eta edari egokirik artzen ez duala? Badira, ez det ukatzen, beste sendagaiak ere, baña laster aspertuko due bekataria, sarritan konfesatzen ezpada, eta biurtu da lenekora. Ala gertatu da oraindañoakoan, eta ala gertatuko da aurrera ere.

Nere Kristaua, etzaitzela engañatu munduaren losentxa, eta erausiak. Gaitzeron makurtuak, eriak, argalak, eta konfesio, ta komunioko Sakramentua sarritan artzeko premia andian gaude. Oitu zaite sendagai oek ongi, eta maiz artzera. Eta irristadaren bat gertatzen bazatzu, zoaz lenbait len konfesioren sendagaia artzera. Kolpe gaizto bat artu duanak, laster egin bear du, berez, edo bestez, sendagaia billatzera, bestela erraz gerta ditek kolpea beñere ez sendatzea, eta eria illtzea. Ez bada beldurrez, edo lotsaz egon gertatu zatzuna esateko; baizik zoaz umilki konfesioko Sakramentua artzera, Bizi zaite aurrera zintzoro: eta Jaunaren lagunzarekin iraun dezakezu beraren grazian, eta onela iritsiko dezu, betikotasun guzian zure Jaunarekin Zeruan bizitzea. Amen.



OGEI, TA AMABIGARREN ERAKUSALDIA

*baña Konfesioko Sakramentuaren gañean
ogei, ta batgarrena, eta azkenekoa.*

ALABATUA &.

Azkeneko Erakusaldia izan zan, Kristaua, guziok konfesatzeko degun, egin-bide, edo obligazioaren gañean. Orañ lenbiziko Komunioaren liburuak galdetzen du era onetan.

«Konfesatzera zoazenean, nola jarriko zera? Erantzuten du: jarriko naiz belauniko umiltasun andiarekin, eta ziñatuko naiz. Beraz janzian, eta egoeran umiltasun, eta modestia andi bat agertu bear dezu? Bai, Jauna: orregatik gizonak ez due jarri bear ezpatarekin, ez eta emakumeak ere soñeko arroakin. Ongi da besteri bere txanda kendu naiez ibiltzea? Ez, Jauna, eta beragatik itxedon bear dio bakoitzak bere txanda, edo aldiari. Erakusleak: ongi diozu, baña zarrai, eta eritxo daudenai leku egitea, lenbait len konfesa ditezten, ederki dirudian gauza da. Besteren bekatua aditzen badezu, ura konfesia egiten ari dala, esan ote dezakezu lagun artean? Ez. Jauna, baizik isilik iduki bear det, konfesoareak iduki bear duan eran. Ongi da, jakin naiez, konfesioko gauzak aditzeko moduan jartzea? Ez, Jauna, eta ongi izan ordean, da bekatu andi bat. Akusatzen asi baño len zer esango dezu? *Ni bekataria*, edo guzia anziñatik Españan esaten dan bezala, edo beintzat erdiraño: edo *Ni bekatariaren* lekuan esango det: *Nere Jesu-Kristo Jauna*. Akusatzen asitzeko aurrean ongi da Konfesoareari egun onak ematea? Ez Jauna: absolutioa artu artean ez da itz egin bear, konfesoari dagozkan gauzak baizik. Asieran esan badezu *Ni bekataria* erdiraño, edo itz oetaraño: *Nere kulpaz*, *nere kulpaz*, *nere kulpax txit andiaz*, gañerakoa noiz esango dezu? Absolutioaren aurretik.

Akusatzen asi baño len esan, edo egin bear dezuna aditu degu: esazu oraiñ nola akusatuko zeran? *Umilki*, *egjaz*, eta osotoro aitortzen ditudala nere utsegite, ta bekatuak. Aditu det, akusatzeko denboran, kontuz utzi bear dirala konfesioko Sakramentuari ongi ez dagozkan itzak. Zeñ dira oek? Lenbizia, itz, eta ipui alferrak. Bigarrena, itz loiak. Irugarrena, besteren izen ona, edo fama gutxitzen, edo beztutzen duenak. Zer itz dira, alferren izena eman diezun oriek? Itz alferrak dira esatea: *Akusatzen naiz nere Jaungoikoa bear bezala ez amatuaz; akusatzen naiz eriotzako orduan etsaiak*

akusatuko nauan guziaz. Alferrak dira bekatua esateko nastutzen diran ipui, edo kontuak, baldin luzagarri oek gabe adirazi baditeke egindako utsegitea. Zer itz dira loien edo zikiñen izena eman diezunak? Itz *loi*, edo zikiñak dira aragien izenak, eta beragatik seigarren Mandamentuaren kontrako bekatuak aitortu bear dira al dan onestidade guziarekin, bekatua ezagutzeko diña baizik esaten ez dala. Zer itz dira besteren izen ona, edo fama gutxitzen edo beztutzen duenak? Onelakoak izan ditezke, baldin bekatariak akusatzen danean, izendatzen badu bekatuan lagun izanduana, edo senarrak emaztearen, eta emazteak senarraren bekatuak kontatzen badi-tu. Orra lenbiziko Komunioaren liburuak konfesatzeko moduaren gañean erakusten diguna».

Konfesatzeko modu onari dagozkan gauzak, egun oro esango balira ere, ez lirake bear adiñatan esango: orregatik oen gañean izango da gaurko Erakusaldia. Aurrena aditzera emango ditut, liburuak gai onetan ukitzen dituan gauzak zerbait ugariago. Urrena aditzera emango det, konfesia bukatuta, komuniorako zer egin gentzakean, era danean. Entzun, Kristaua, arretaz.

§ I.

Konfesia on bat egiteko prestatu zera, Kristaua, alik ongiena? Konfesatzera zoazenean bada, jarri zaitte belauniko, eta umiltasun andiarekin. Ala jarri zan Santa Maria Magdalena Jesusen oñetan. Ala agertu zan Fabiola, Obispo, Apaiz, eta Elizan zeuden Kristau guzien aurrean bere bekatuen penitentzia eskatzera, Erromako andreen artean goimallakoa bazan ere. Gizonak ez due konfesatzera joan bear ezpatarekin: ez eta emakumeak ere soñeko arro, eta geiegiakin. Ez dirudi ongi enaskeriak, ez eta arrotasunak ere, eta are gutxiago goiak ez estaltzeak. Orregatik Inozentio, eta Klemente amaikagarrenak agindu zuen, ez dakiela konfesia, eta Komuniorako lekuri eman bularrak, eta sorbalda estali gabe datozenai, eta estalkiak izan ditezela, ez lasaiak sarea bezala, baizik tapi-tuak. D.^a Santxa Karrillo joan zan konfesatzera Juan de Avila beneragarriarekin, baña alako arrotasunarekin apaindua, non esan zion konfeso-reak *infernu-usaia dakar berorrek*. Itz oek arpoi baten gisa igaro zuen D.^a Santxaren biotza: biurtu zan etxera; utzi zituan janziaren erokeriak, eta izan zan modestia, onestidade, eta birtutearen ispillua. Ez da ibilli bear besteri txanda kendu naiez, baña zarrai, eta eri daudenai leku egitea ongi



dirudian gauza da. Gerta diteke ustekabeen zuk aditzea konfesatzen dagoanaren bekatua: eta orduan bekatu larri, edo mortalaren azpian beartua zaude isilik idukitzera aditu dezun bekatua, konfesore batek iduki beartuan eran. Ez dezu jarri beartuak aditzeko moduan, bestek txanda atxitu degizun beldurrez; bestela erraz gerta liteke salokeria au bekatu larri izatea. Akusatzen asitzeko esan oi da: *Ni bekataria*. Batzuek esaten due guzia, eta ondo egiten due, zeren au izan dan Españaiko oitura, eta esan diteke len konfesatzen dagoana altxatu baño lentxeago. Beste batzuek esaten due asieran *Ni bekataria* erdiraño, edo itz oetaraño: *Argatik erregutzen diot*: eta gañerakoa konfesioa bukatuta absoluzioaren denboran, diola gisa onetan. *Argatik erregutzen diot Santa Maria beti Birjinari, S. Migel Aingeruari, S. Juan Bautistari, S. Pedro, eta S. Paulo Apostolui, Santu guziaz, eta Zuri nere Aita, erregi degozuen nigatik gure Jaun, eta Jaungoikoari. Amen*. Au ere modu ona eta S. Karlos Borromeok erakusten diguna da. Beste batzuek, eta beartu bada geienak *Ni bekatariaren* lekuan esaten due Akto kontrizioakoa. Modu au ere ona da. Bat zuek asi oi omen dira Konfesoari egun onak ematen: *zer dio, ongitxo dago?* Ez da ongi au, zeren konfesioko denboran nastu beartu ez dan konfesoari ez dagokan gauzarik. Beste batzuek konfesioa asitzeko esaten omen due: *Ave Maria purissima*: gauz ona da au; baño era berean ona izango lizake Letaniak esatea. Ongiena da Elizak erakusten duan moduari ea erantsitza ezer, bestela batak izango du jaiera bat, besteak beste bat, batak esango du *Ave Maria*, besteat *bizi bedi Jesus*, besteak beste gauzarik.

Esanda akusatze denboraraño egin beartu dana. Asitzen zera zure utsegite, edo beartuak aitortzen. Esan beartu dituzu umilki, *egiaz, eta osotora*, itzegiten da emen beartu larri, edo mortalaren gañean; zeren benialak esan gabe utzi ditezkeanak dira. Utzi beartu dira itz, eta ipui alferak: itz loiak, eta beartu izen ona, edo fama gutxitzen, edo beartu izen duenak. Itz alferak. Badator urlia, eta dio: *Akusatzen naiz nere Jaungoikoa beartu bezala ez amatuaz*. Alperra da au esatea, dio S. Franzisko Salesek, zeren Konfesoarek itz oekin igerriko ez du, zer beartu egin duan onela akusatzen danak, eta Zeruko Santurik andienak esan dezake beste onenbeste. Badator sandia, eta dio: *akusatzen naiz eriotzako orduan deabruak akusatuko nauan guziaz*. Alferra da au esatea, zeren itz oekin agertzen ez dan egindako bearturik batere. Badator berendia: onek egin dio birau bat suiari, eta itz bian esan dezake beartu au; asko du alabaña esatea, zer birau bota dion, biotzetik, edo bestela bota dion, eta iñork aditu duan, edo ez; baño au onela egin beartu, nastutzen ditu milla kontu era onetan: *Jauna, irten zan gure Pepegizanean mendira: egin nituan taloak, eta baratzuri zopak, eta etzan agiri*.

Emakumea, zeñ da *gure Pepe?* nere suia, zori gaiztoan nerretzat agertu zana. Emakumea utzi itzatzu naspilia oriek, eta esazu gerta zatzun bekatua. *Bai, Jauna*, bere-bereala. *Juan zan bada mendira: egin nituan taloak, eta baratzuri zopak eta denbora luzean egon giñan ari itxedoten*. Emakumea esazu egin dezun bekatua, alferrik denbora igaro gabe. *Bai, Jauna, bereala bukatuko det guzia*. Etorri zan *noizbait*, esan nion, nola egon giñan itxedotez gogaituak. Au asko izan zan ekiteko neroni isekaz, eta edozeñ gauza esaten. Orduan bota nion birau bat, esaten niola: *Niri ematen zizkidan naigabeak ekusiko al zituala bere gañean*. Orra zenbat itz alfer esan oi diran itz gutxian aditzera eman litekean bekatua aitortzeko. Akusatze denboran utzi beartu diran beste itzak dira loiak, edo aragizko izenak. Badira batzuek añ enasak, eta basatiak eren, izketan, non eztakien bekatua adiraten aragien izen lotsagarriakin baizik. Seigarren Mandamentuaren kontrako beartuak konfesatu beartu dira aldan onestidade guziarekin. Atzenean utzi beartu dira, beartu izen ona, edo fama gutxitzen, edo beartu izen duen, itzak. Batzuek agertzen ditue beartu lagun izan dituenak; besteak esaten ditue emaztearen edo senarraren beartuak premia gabe; eta gaizki dan gauza da au. Bakioitzak esan bitza bere beartuak eta utzi begie beartu. Dakuskun oraiñ, zer egin gantzakean konfesioa bukatuta ondoren, era danean.

§ II.

Batzuetan gertatzen da, konfesatuta ondoren era izatea, Jaunak egin dion mesedearan eskerrak emateko, eta komuniorako biotza ederki prestatzeko. Orduan zer egin, erakusten du lenbiziko komunioaren liburuak, eta ara nola au egin dezakezun.

Konfesoaren ondoren jarri zaite leku egokiren batean; eta eman giozkatu Jaunari eskerrak «Nere Jaun Jaungoikoa, esan degiokezu: nere Aita guziz maitagarria: zure seme Jesusk utzi zuan konfesioko Sakramentua, gure animak sendatzeko. Sakramentu au ongi artzen duanari barkatzen diozkatu beartuak Jesusen eriotza, eta merezimentuak bitarteko dirala: eta uste det, au bera egin dezula nerekin ere, Apaizak barkazioa, edo absoluzioa eman didanean. O ontasan, eta urrikimentu paregabea! milla esker Jauna mesede berri onegatik.

Ez naiz, Jauna, eskerrak ematearekin kontentatzen. Berritu nai ditut, bataioko egunean eman nizkitzun itzak. Gaurdanik utzi nai det, eta uzten det Satanak betiko; eta Satanasekin batean uzten ditut beraren lagun, eta



langilleak, edo mundu galdua, eta aragiaren, edo nere gura txarren naikunzak. Au da Zeruaren, eta gizonen aurrean eman nizun itza; eta au bera ematen dizut gaur ere betiko. *Abrenuntio*. Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasen obrak, edo bekatua, ta bekatuak bideak. Zoazte nigandik urrutira adiskidetasun gaiztoak, etxe anima galgarriak, eta lagun dongeen bilkui, edo batzarreak. Au da bataioko egunean eman nizun bigarren itza; eta au bera ematen dizut gaur ere: *Abrenuntio*. Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasen arrotasun, eta zorakeriak, dala janztan, janean, edanean, eta beste gauzetan, dala atsegin, eta jolasetan. Au da bataioko egunean nik eman nizun irugarren itza: eta au bera ematen dizut berriro benaz, eta biotz guzitik. *Abrenuntio*. Lagun zaikizkit arren, eta indazu zure lagunza ugaria, agindu dizudana leialki egiteko.

Eta orain, nere anima, nor ote da gaur zugana etortzeko dagoana? Gauz arrigarria! Errege guzien Erregea, Aita Santu guzien Aita Santua, Trinitadeko bigarren persona gugatik gizon egin zana, eta gugatik gurutzean bizitza eman zuana bera. Au guzia gutxi bazan bezala, guri ongi naiez jarri nai izan zuan Aldareko Sakramentuan, eta jartzen da konsagrazioa itzak Apaizak esaten dituanen: ta gaur Sakramentu miragarri orretan zure biotzera etorri nai du. Nere anima, nondik zuri onenbeste mesede, eta ondasun? Arrritzen, eta izutzen naiz, nere Jesus ona, zu nere biotzera etortzeko zaudela gogoratzean; ez da alabaña nere biotz eskergabe au, zure diñako tokia; baña izutzen ere naiz denbora berean, zure itz oek aditzean: *Ezpadezue gizonaren semearen gorputza jaten, eta odola edaten, ez dezue iritsiko betiko bizitza doatsua*. Zer egin aldeaket bada onenbeste beldurren artean, nere Jesus ona? Aitortzen det, ez naizala ni, zu nere biotzera etortzeko diña. Eta zuk alaere nere biotzera etorri nai. Egin bedi, nere animaren jabe maitagarria, egin bedi zuk nai dezuna; baña egizu zuk lenago, Erregeak, etxeren batera dijoazenean, egiñ oi duena. Aurretik bidaltzen ditue oek, etxea apaintzeko bear diran, gauzak: bidaldu itzatu bada zuk ere, Errrege guzien Erregea, nere animako etxe arlote onetara, zu ongi artzeko bear diran, apaindurak, edo Zeruko grazia, doai, eta birtuteak. Esazu itz bat, eta egiña geratuko da guzia. Atoz nere salbatzalea egin zaite nere animaren jabe. Atoz, Jaungoikoaren bildots bekatuak kentzen dituzuna, senda ezazu nere anima bekatuen zauriz betea. Atoz Zeruko su animen berotzalea: zure amoriozko garrarekin aiena itzatu nigandik bekatuaren kutsuak, eta onerako epeldasunak».

Orra, nere Kristaua, konfesatuta ondoren zer egin genzakean, era bada, Komuniorako. Ala egiten due askok lenbiziko komunioaren liburu-

tik. Baña zenbat izango dira, komunio aurreko denbora alferrik galtzen duenak? Zenbat..., baña asko da. Bukatu ditut, nere Kristaua, konfesioko Sakramentuari dagozkan, Erakusaldiak. Ekusi dezu, nolako ongina, ta amorioarekin ipiñi zuan Jesusek Sakramentu au, gure animak sendatzeko. *Ekusi dezu*, zer ondasunak, eta zeñ andiak dakartzian Sakramentu onek. Ekusi dezu, zer dan gure aldetik eskatzen duan guzia, eta nola au edereki egin dezakegun. Zer aitzakia izan dezakegu Jaunaren aurrean, ezpadegu alaere egiten konfessio onak eskatzen duana? Zer esango degu kontuetako egunean, Sakramentu au ongi, ta sarritan artu gabez galtzen bagera? Orain denbora degunean; balia gaitzen sendagai onez, eta berak emango dizkigun Zeruko indarrakin bizi gaitzen Jesusen lege Santa gordetzen degula, onela iristeko betiko Zerua. Amen.



KOMUNIOKO SAKRAMENTUARI DAGOZKAN, ERAKUSALDIAK

Advertencias al que estas pláticas leyese.

Concluidas las pláticas de la Penitencia, pasé á la Extrema-unción, Orden y Matrimonio, reservando hablar de la Eucaristía para los Domingos del Corazón de Jesus, ó Minerva, que son los terceros de cada mes; y para esto ha sido necesario tener á la vista varias cosas inherentes a la función de Minerva.

El año de 1742 el R. P. Agustin Cardaberaz estableció en ésta, y otras parroquias la Congregación del Corazón de Jesus, cuyo fin es encender á los fieles en el amor de Jesus Sacramentado, y desagrarle de tantos ultrajes e injurias, como sufre entre nosotros. Puso al principio del libro de dicha Congregación admirables reglas, y fueran aprobadas por el Ilmo. Sr. D. Gaspar de Miranda, y Argaiz en 26 de Marzo de 1743. En ellas, para ejercicios públicos, se eligen el Domingo tercero de cada mes, el inmediato á la fiesta de *Corpus Chiti*, y el de Quinquagésima. En cuanto al primero, dice lo siguiente: «Todos los Domingos terceros de cada mes comulgarán todos los hermanos y hermanas que pudieren para reparar las injurias hechas en el mes antecedente al divino Corazón de Jesus, pidiéndole la enmienda para sí, y los otros. Este mismo Domingo de cada mes al toque, de las campanas, luego despues de Visperas, acudirán todos a la Iglesia, donde se tendrán delante del Santísimo patente los ejercicios siguientes. Lo primero, saldrá el prefecto (de la Congregación) revestido de Capa, precediéndole los dos Diputados Eclesiásticos de sobrepelliz, y descubrirá el Sacramento. Lo segundo leerá el lector desde el púlpito en vascuence por espacio de media hora la leccion espiritual sobre los asuntos de la devoción del Corazón de Jesus. Lo tercero se explicará con brevedad por el lector la materia sobre que se ha de tener oración. Lo cuarto se tendrá meditación y oración *un cuarto de hora, antes mas, que menos*, segun el beneplácito del lector. Lo quinto, acabada la oracion se hará el acto de desagravio, y se concluirá el ejercicio. En este tiempo debe haber en el Altar seis belas blancas ardiendo.

El Domingo inmediato a la festividad del Sacratísimo cuerpo de Jesu-Cristo, todos los años se celebrará con la mayor solemnidad, y devoción posible la fiesta principal de la adoración del corazón Divinísimo de Jesus con Misa Solemne, y Sermón. Al principio de la Misa se pondrá patente el Sacramento y se encerrará acabadas la Misa, y preces de la novena. (La bendicion se daba a la tarde). Por la tarde de este día, acabadas las visperas, se tendrá el ejercicio tocante á aquel mes, pero con mayor solemnidad, que otras veces. Asistirán (los Congregantes) á la Misa, y Sermón, que será en vascuence y dotrinal acerca del amor infinito, del Sagrado Corazón de Jesus y sus beneficios,

Cada año se hará una novena al Sagrado Corazón de Jesus con Misa rezada, en el Altar mayor, que se acabará el mismo Domingo de la fiesta principal, comenzando ocho dias festivos antes. Saldrá la Misa á las nueve, y en acabandose subirá el Capellán al púlpito, desde donde (respondiendo el auditorio) leera en vascuence las preces con mucho espacio.

El Domingo de quinquagésima se hará el ejercicio tocante a aquel mes, por ser este dia, en el que mayores injurias sufre el corazón adorable de Jesus por los desórdenes de los Cristianos, El año de 1743 fueron aprobadas, como se ha insinuado, las reglas de la Congregación, y el mismo año se pasó por la Cruzada la Bula del Señor Benedicto XIV expedida en 7 de Diciembre de 1742, confirmando esta Congregación, y concediendo varias indulgencias, entre ellas tres plenarias, una para el día de la entrada en la Congregacion, otra para la hora de la muerte, y la tercera para la fiesta anual del Sagrado Corazón de Jesus que se debía celebrar el Domingo inmediato despues de Corpus y piden confesión, comunión, y la oración regular, á lo menos la primera y tercera. La asignación de los días fué hecha por el Ordinario con arreglo a la Bula.

El año de 1764 hizo misión en esta Iglesia el R. Padre Mendiburu, y por insinuación suya dicha Congregación se erigió en Minerva con aprobación del Tribunal de Pamplona. Bien sabia Mendiburu, que esta Congregación con dificultad podria celebrar sus ejercicios y funciones con la decencia, y formalidad correspondiente, sin el auxilio de algun libro vascongado, y por esta causa trabajó una obra bastante difusa de Meditaciones sobre el Sacramento del Altar, pasión del Señor, y otras varias materias.

El Sinodo de Pistoya tuvo el empeño de morder á esta devoción, pero Pio VI por su Bula: *Auctorem fidei*, le condenó entre otras proposiciones, tres pertenecientes á esta devoción, y son la 61, 62 y 63.



Nuestros Ilustrísimos siempre han fomentado esta devoción, pero estos últimos tiempos, han tenido por conveniente el hacer una pequeña alteración en el método. Antes la función de los terceros Domingos se hacía solamente por la tarde, y ahora se ordena, que á la mañana, y á la tarde se ponga patente el Sacramento; que despues se haga procesión, bendición &. Este metodo es excelente para las ciudades, y pueblos reunidos en la proximidad de las Parroquias; pero para la mayor parte de Guipuzcoa no es oportuno; porque si asisten a la funcion de la mañana, con dificultad podrán acudir a la tarde, los que habitan en caseríos distantes de la Iglesia, y faltará el concurso, que se necesita para las funciones, que se han de celebrar con el Señor patente. Por esta causa se acudió de parte de esta Congregación al Ilustrísimo Señor D. Lorenzo Igual de Soria, exponiendo el referido inconveniente, y su S. I. concedió, el que en Misa mayor se celebrase, y concluyese toda la función de Minerva.

Este es el actual estado de la Minerva en esta Parroquial. Resulta de aqui el que las pláticas de los terceros Domingos hayan de ser algo breves para que no se fatigue al pueblo; pues toda la función comprende los actos siguientes. 1.º El *Asperges*. 2.º El ponerse manifiesto al Señor. 3.º Plática sobre el Sacramento. 4.º Meditación de un cuarto de hora, y para esto es necesario, que de la plática se extraigan algunas jaculatorias, que ayuden al pueblo para la meditación. Sin este auxilio seria casi inutil la parte de la meditación. 5.º Procesión con el Santísimo. 6.º Bendición, y reserva. Yo procurare tirar las pláticas con miramiento a todos estos actos, pero ceñido siempre a puntos correspondientes á este admirable Sacramento. Me valdré de los materiales, que contiene el Padre Mendiburu, y pondré en lugar de exordio las instrucciones breves del librito vascongado de la primera Comunión. Podrán servir estas pláticas para año y medio, y cuando se llegue á echar la ultima, debe volverse á la primera. Aun así, no sera poco, si el pueblo llega á formar una idea correspondiente á tan grande, y admirable Sacramento. Es regular que algunas sean muy breves á proporción de la materia, que tocarse el librito, pero debiendo seguirse jaculatorias, y meditacion, las pláticas seran largas cuanto se quiera. Ahora conviene insinuar el modo con que se practican aqui las funciones de Minerva.

1. *Asperges* &.

El celebrante se reviste en la Sacristía, y pone la capa pluvial del color correspondiente al oficio del día: el Diácono, y Subdiácono de Dalmática. Toman los bonetes, hacen reverencia a la cruz antes de poner-

los en la cabeza; y los Ministros saludan al celebrante con inclinación de cabeza. El celebrante corresponde con otra inclinación, y para entonces pusose el bonete. 2.º Salen de la Sacristia, primero el Subdiácono, despues el Diácono, y en seguida el celebrante, porque el sitio no permite, el que salgan de una vez. 3.º Cuando llegan ácia el medio del Altar, el Diacono se retira un poco, y el celebrante se coloca en medio de ambos; estos toman las puntas del Pluvial, y así suben hasta la ínfima grada del Altar. 4.º Estando de pies en el plano, se quitan los bonetes: el celebrante da el suyo al Diácono: este, y el Subdiácono al sacristán, porque no hay en lo regular mas arbitrio. Los bonetes no se ponen en la credencia, y mucho menos sobre el Altar, sino en el canape ó escaño destinado para que se sienten el Preste y Ministros. 5.º Se arrodilla el celebrante en la grada ínfima del Altar, como tambien el Diácono a la diestra, y el Subdiácono a la siniestra. 6.º El Diácono recibe del sacristán el isopo con agua bendita: besa el extremo del mango, y se lo entrega al celebrante, besandole la mano en la parte exterior. 7.º El celebrante estando de rodillas entona el *Asperges*, ó *Vidi aquam*, y prosigue el coro: rocia el Altar *triplici ductu*, esto es ácia el medio, despues ácia el lado del Evangelio, y últimamente acia el lado de la Epístola. 8.º Hecha la aspersion del Altar, se rocia su frente en forma de cruz: entonces se pone en pie, y rocia al Diácono, y Subdiácono, que se hallan de rodillas. 9.º Hace la aspersion del Clero, y despues la del pueblo. El Clero esta cantando cerca, y no se hace uso de varias cosas, que nos enseñan los Rubriquistas. 10. Vuelve al Altar, ó plano próximo a la ínfima grada del Altar; entrega el isopo al Diácono, y este al sacristan. 11. El Diácono le pone delante el Misal abierto al Preste: canta el *Ostende nobis* &. Con Alleluia, ó sin ella segun el tiempo, despues las preces, y oración. Si no fuese día de Minerva, se haría la procesion cantando el himno de Visperas del dia, y al fin se echaría la oracion del día con versículo correspondiente. Esta es la práctica que se ha encontrado: Pero en días de Minerva se omite esta procesión, porque despues de Misa se hace con el Sacramento. Parece que, mientras el Coro canta el *Asperges* debieran continuar (alternando los versos) el celebrante y Ministro; el psalmo *Miserere* hasta su conclusión, pero no se observa esto. 12. Ultimamente se aparta el preste del medio del Altar acia la parte de la Epístola, como también los Ministros: deja el celebrante la capa, y pone la Casulla, los Ministros toman los Manípulos, vuelven al medio de Altar, y el Diácono prepara el Misal. Esto no habiendo Minerva; pero habiéndola, concluida la oracion del *Asperges*, estando de capa se hace la exposicion del



Sacramento, como luego se dira, y concluida, se retiran al lado de la Epístola en la forma dicha.

Exposición del Santísimo.

Arriba se ha dicho, que concluida la aspersion el celebrante, y Ministros se hallan en la grada infima del Altar (bien que aquí no hay mas que una, y despues sigue el plano hasta el enrejado), el Preste en medio, de rodillas, con su capa pluvial, y los Ministros estarán á la diestra el uno, y á la siniestra el otro. Se supone, que las belas del Altar estan ya encendidas, y cuando menos deben ser seis, aun cuando por causa privada se espusiese cubierto con velo, y sin sacar del tabernáculo: y si es por pausa pública, y se pone patente en la forma regular, se requieren en Roma veinte belas encendidas, y en cualquiera parte debiera haber cuando menos doce, segun nos dice Cabalieri en su Ritual. Estando en la forma dicha en la infima grada, hacen oración un breve rato. 2.º Despues el Diácono se va al Tabernáculo; abre y hace genuflexión; extrae el viril, y lo coloca sobre el corporal preparado en el Altar: hace nuevamente genuflexión, y vuelve a la infima grada. Si el celebrante fuese solo; el mismo hará todo esto. 3.º Se retira un poco el celebrante ácia el lado del Evangelio, y estando en pie recibe la cuchara del incienso de mano del Diácono: echará el incienso tres veces, sin bendicion alguna: 4.º se pone de rodillas en medio, como antes toma el incensario sin ósculos, e incienso el Sacramento con tres golpes, haciendo antes, y despues profunda inclinación. 5.º Echa la incensacion, se coloca el biril en el trono, sea por el mismo celebrante, si es solo, ó sea por el Diácono, que le asiste. 6.º El que coloca el biril, u ostensorio en su trono, hace genuflexión con una rodilla; baja a la infima grada, y se pone de rodillas con las dos. 7.º se retiran acia el lado de la Epístola, el celebrante deja la capa pluvial, y pone la casulla, como también el manipulo, y los ministros toman los manipulos. 8.º Baján al plano, y alli se arrodillan con ambas rodillas, e inclinan profundamente la cabeza: se levantan., y dase principio a la Misa, y se celebra en la forma acostumbrada.

Procesión.

Acabada la Misa, llega el celebrante al medio del Altar, á una con los Ministros: hacen genuflexión con una rodilla, pasan ácia el lado de la Epístola; el celebrante deja en la credencia la casulla, y manipulo, y se pone la capa pluvial: los Ministros dejan los manipulos: y por el plano llegan al medio del Altar, donde hacen genuflexion con ambas rodillas. Se

levantan, y de nuevo se ponen de rodillas en la infima grada. 2.º Puesto en pie prepara el incensario, ó incensarios sin bendición, ministrándole el Diácono la naveta, y luego arrodillado sobre dicha grada incienso tres veces el Sacramento, inclinándose profundamente antes y despues de la incensación (con la cabeza dice Iraizos). Vuelve el incensario al Diacono, y este al sacristán. 3.º El Subdiácono toma el paño de hombros de mano del sacristán, que *debe ser blanca*, aun cuando los demas ornamentos fuesen de otro color: le pone al celebrante sobre los hombros, y lo acomoda ante el pecho. 4.º Sube el Diácono al medio del Altar: hace genuflexión, toma con ambas manos la custodia en el mismo modo, que debe estar en el Altar, esto es con la efigie del Crucifijo ácia el pueblo: vuelvese con la custodia sobre su mano derecha: se la entrega al celebrante en la misma forma, de modo que en la procesión dicha efigie mire ácia el pueblo. El Diácono se la entrega en pie, y el celebrante la recibe de rodillas con las manos cubiertas con el sobre hombros. El Diácono hace genuflexión al Sacramento: el celebrante se levanta, y vuelve ácia el pueblo, y entonces el Diácono pasa á la mano derecha del celebrante, y el Subdiácono a la siniestra. Al mismo tiempo, y no antes entonan los cantores arrodillados el himno: *Pange lingua*, y se ordena la procesión. Si esta se hiciese por dentro de la Iglesia, como aqui sucede, cuando el tiempo impide el salir fuera, entonces se comienza por la parte del Evangelio, y vuelve por el lado de la Epístola; pero si se hace por fuera, se camina por en medio de la Iglesia; se sale por la puerta principal, y se da la vuelta por la puerta del costado. 5.º Llegando al Altar, el Diácono arrodillado sobre la tarima, toma del celebrante la Custodia; colocala en el Altar, y luego, haciendo genuflexión, baja a la infima grada, donde está arrodillado el celebrante con el Subdiácono; el cual le quita el paño, ó tafetán de los hombros, a saber cuando el celebrante dió la Custodia al Diácono. 6.º Los cantores entonan el *Tantum ergo*, y al verso: *Genitori* se levanta el celebrante con los Ministros, y ministrándole el Diácono la naveta sin ósculos, prepara el incienso sin bendición, y despues arrodillado con los Ministros, incienso tres veces el Sacramento, inclinando profundamente la cabeza antes y despues de la incensación. 7.º Dos cantores entonan el v. *Panem de Caelo praestilisti eis* (en tiempo pascual, y en la infraoctava de *Corpus Cristi* con *Alleluja*, y esto mismo debe observarse con el R. *omne delectamentum &*). R. *omne delectamentum in se habentem*. Los que entonan este deben estar arrodillados. 8.º Levántase el celebrante solo, y los Ministros arrodillados le ponen, y tienen delante el libro: dice: *Oremus*, y canta la oracion: *Deus, qui nobis sub Sacramento &* con la conclusión breve *Qui vivis, et regnas per omnia*



saecula saeculorum Vease el Ritual sobre la procesión del *Corpus*. Se ha dicho, que despues del versículo *Panem de Caelo* & dice el celebrante *Oremus*, y no, *Dominus vobiscum*, porque sin embargo de que el Ritual pone el Dominus vobiscum, la Sagrada Congregación de ritos, y la Instrucción Clementina ordenan, que se omita en la reposición del Santísimo Sacramento. 9.º Concluida dicha oración, se arrodilla el celebrante: le pone el Subdiácono el paño de hombros: sube al Altar: se arrodilla con una rodilla: toma despues que se levanta, con ambas manos (cubiertas con la vanda) la Custodia, á saber con la sinestra por el pie: con la derecha por el nudo, habiendola antes vuelto de un lado. á otro, para que la efigie de la Ostia mire ácia el pueblo. Entonces se vuelve sobre su derecha al pueblo, del mismo modo que para decir en Misa *Dominus vobiscum*. y echa la bendición con la Custodia, en esta forma. 1.º levanta lentamente la Custodia hasta los ojos. 2.º con la misma lentitud baja hasta mas abajo del pecho. 3.º, la levanta hasta el pecho. 4.º de alli lleva ácia el hombro izquierdo, y últimamente ácia el hombro derecho. 5.º Perfeccionado de este modo el círculo, deja la Custodia sobre el Altar: baja a la infima grada, y se arrodilla. Sube el Diácono, hace genuflexión, coloca la Custodia en el Sagrario, y hecha genuflexión, cierra la puerta, y se van a la Sacristía en la forma ordinaria.

OGEI, TA AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean lenengoa.

ALABATUA &

Ill bakoitzaren irugarren igandeak autuak, eta bereziak daude gure Elizetan Sakramentu miragarri on artzeko, eta egiten diozkagun bidegabeak nolerebait desegiteko. Egun oetan adirazten da Jesusen gudanako ongi nai, ta amorio geiegia: begien aurrean ipintzen zaizku, guretzat dakartzian ondasunak, eta gure esker gabekeria itsusiak, eta atzanean aditzera ematen dira, Sakramentu oni dagozkan, beste gauzak. Oen gañean beti itz egin dizuet irugarren igandeetan, eta era berean itz egingo dizuet aurrera ere. Lenbiziko Komunioaren liburuak argiro ukitzen ditu Sakramentu oni dagozkan gauzak, eta aren Erakusaldi laburrak izango dira neretzat itz egiteko gai guzia, zeren gauz obe, eta zuentzat egokiagorik arkituko ez dedan. Galdetzen du bada asieratik gisa onetan.

«Eliz Ama Santaren Sakramentuen artean laugarrena zeñ da? Erantzuten du: komunioko, edo Aldareko Sakramentua. Zer da Aldareko Sakramentua? Da, ogiaren, eta ardoaren anz, eta idurien azpian Jesu-Kristo bera, Jainko, eta gizon egiazkoa berekin daukan, Sakramentu guziz miragarria. Zergatik deitzen zaio *Komunioa* edo Komunioko Sakramentua? Zeren Kristau fededun guzien animako janari ta edaria dan, eta ala andiak, nola txikiak, ala aberatsak, nola beartsuak, berdin duen janari, eta edari au artzeko eskua. Zeren gañera janari au ongi artzen duenak, bat egiten diran Jesu-Kristorekin, eta elkarrekin. Zergatik deitzen zaio *Aldareko Sakramentua*? Zeren Aldarean egiten, eskeintzen, eta artzen dan. Zergatik izendatzen da *Miragarria*, eta *askotan guziz miragarria*? Zeren mirari guzien artean andiena, guzien oroipena, eta guzien miragarritasuna berekin duana dan».

«Esan ditugunaz gañera, Komunioko Sakramentuak ote du beste izenik? Bai, Jauna, eta ez bat bakarra. Zein dira oek? *Eukaristia*, *Jaunaren aparria*, *Aingeruen ogia*, *biderako janari*, ta *edaria*, edo *Biatikoa*, eta *guziz Santua*. Zergatik deitzen zaio Eukaristia? Lenbizia, zeren *Eukaristiak* esan nai duan grazia ona, eta Komunioko Sakramentuan dagoan, grazia ona ezezik, grazia guziaren iturburua, eta emallea. Bigarrena, zeren Eukaristiaren



izenak esan nai duan gañera eskerrak ematea, eta Komunioko Sakramentua eskeintzea da eskerrik andienak ematea? Zergatik deitzen zaio *Jaunaren Aparia*? Zeren, azkeneko aparian, eta afalondoan Jesusek egin zituan, gauza miragarrien oroipena dan. Zergatik deitzen zaio Aingeruen ogia? Zeren Jesu-Kristo dan Aingeruen atsegin kontentua, eta Jesu-Kristo bera Komunioko Sakramentuan jartzen dan, gure animen janari, eta edari izateko. Zergatik deitzen zaio *Biderako janari*, ta edaria, eta *Biatikoa*? Zeren Zerurako bidean ongi ibiltzeko, eta betiko bizitza iristeko, janari, ta edaria dan. Beraz noiz nai ardezazula Komunio Santua, beti artzen dezu biderako janari, ta edaria, *edo Biatikoa*? Bai, Jauna. Nola bada iltzeko dagoanari ematen zaionean bakarrik deitzen zaio *Biatikoa*? Zeren Kristauak beti, baña batezere iltzeko dagoanean, artzen duan betiko bizitzaren bidea. Zergatik izendatzen da *guziz Santua*? Zeren Sakramentuen artean Komunioa bakarrik dan, Santutasun guziaren iturburua, eta emallea bera, beregan duana». Orra, zer asieratik erakusten digun lenbiziko Komunioaren liburuak.

Misterio oni deitzen zaio gure siniste, edo fedearen *Misterioa*, ez zeren bakarra dan, baizik guzien artean nolere bait miragarriena bezala dan. Baña zuk, nere Kristaua, aurtasunetatik ikasi, eta sinistu zenduan Misterio au, eta ez det onetan zer nekatu. Baldin Jesusek esan bazuan: *Au da nere gorputza*, eta Eliz Ama Santak milla, eta zortzi eun urte oetan ala sinistu, eta erakutsi badu, zer neke da Misterio au sinistea? Ea bada, Kristaua, Eliz Ama Santa utzi duenen erausi zentzugabeai lekuri eman. Deitzen zaio gañera Jesusen guganako ongina, eta amorioaren miraria: ala deitzen dioe S. Agustiñek eta S. Zirilok: *Sakramentum pietatis: mirakulum amoris*. Ongi nai, eta amorio au agertu zuan Jesusek era askotara, baña batezere Sakramentu orretan. Orregatik ongi nai, eta amorio au alik ongiena adiraztea izango da Erakusaldi batzuen gaia. Asiera ona emateko, begiratu bear degu gaur, nere Kristaua, benik beñ: nolako egarría erakutsi zuan Jesus onak gugana etortzeko, eta Sakramentu orretan gurekin bizitzeko. Urrena, zertarako ainbeste egarriekin nai izan zuan au. Emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun bada ardura andiarekin, nere Kristaua.

§ I.

Gure Jesus onak beti agertu zuan guganako ongi nai, eta amorio neurririk ez duan bat. Au agertu zuan gizon egin zanean. Ekusirik, Adanen bekatuarekin galdu genduala Jaunaren grazia, eta Zerurako esku, ta deretxa guzia, ainbeste maite izan ginduan, non guri ongi naiez egin zan gizon Birjiña txit Santaren sabelean. Agertu zuan gañera bere ongi nai, ta amorioa, gugatik igaroten zituala Pasioko neke-oñazeak, eta atzanean gurutzeko eriotza, eta amorio oni S Paulok deitzen dio geiegia: *Nimiam charitatem*. Baña gutxi zan au guzia Jesusen biotz maiteari, eta amorioz erazekiarentzat, eta bere, azkeneko aparian esan zien Apostoluai: egarri andiarekin nai izan det zuekin apari au egitea: *Desiderio, desideravi hoc pascha manducare vobiscum*.

Bi gauzaren egarri, eta nai andi bat aditzera eman zuan Jesus onak itz oetan, eta oetatik bata zan gu ume zurtzen eran ez utzitzea, bere Aitagana joan bear bazuan ere, baizik gugana etortzea. Etzaituet utziko ume zurtzak bezala, esan zien beiñ *Non reliquam vos orphanos*. Orretarako ipiñi nai izan zuan Sakramentu miragarri on, or etortzeko gugana egun oro, eta egun bakoitzean ezin konta al bider. Nor ote da, nere Kristaua; nor era onetan gugana etorri nai izan duana? Galde zaiozu zure siniste, edo fedeari, eta esango dizu, Jaun au dala gauza guzien egillea bera, Aita betikoaren seme bakarra, Aitarekin guzian berdiña, itz batean, Jesus Jaungoiko; ta gizon egiazkoa. Eta nor gera gu, Jaun Andi onek gugana etorri nai izateko? Nor, gura txarrez, eta utsegitez beterikako bekatari eskergabe batzuek baizik? Arriturik geratu zan Salomon, zeren berak egin zuan Eliz ederrera jatxi zan Jauna. Sinistu ote diteke, zion miretsirik, sinistu ote diteke Jauna etorri dala gure artean bizitzera? *Ergone credibile est?* Baldin Zeru oriek, eta Zeruen Zeruak toki txikiak badira, Jauna, zuretzat. Zer izango da nik egin dedan etxe au? Arriturik geratu zan Santa Isabel, zeren ekustera Joan zitzaion Birjiña txit Santa; Jesus bere sabelean zuala. Nondik zion; nondik niri onenbeste mesede, edo Jaungoikoaren Ama nigana etortzea? *Unde hoc mihi?* Zer izango da, Jaun Andi orrek gugana etorri nai izatea, ez nola nai, baizik egarri andi batekin? *Desiderio desideravi?* Baña etzuan era onetan nai izan gugana etortzea bakarrik, baita gurekin egotea, eta gure biotzetan bizitzea ere: Nere atsegin, poz, eta kontentua da gizonen umeakin, edo anima onakin bizitzea, dio Eskriturako leku batean: *Deliciae meae esse cum filiis hominum*. eta Zerura igo zan baño lensêa-



go esan zien Apostolui: orra, zuekin nago, eta egongo ere naiz mundua mundu dan artean. *Ecce ego vobis cum sum usque ad consummationem saeculi.* Nork sinits zezakean, eta sinits dezake (ala fedeak erakusten ezpalio) Jesus onak gurekin, eta gure artean bizi, eta are geiago dana, gure biotzetara etorri naiko zuala? Miretsitzen da Eliz Ama Santa, zeren Jesus, izanik Trinitadeko bigarren Persona gizon egin, eta bizitu zan ill batzuetan Birjiña txit Santaren sabelean: *Et tu non horruisti Virginiis uterum?* Eta ez gera miretsiko, gurekin, eta gure biotzetan munduaren bukaeraraño bizi nai izateaz? Milla, ta zortzi eun urte alde aldean dira Jesus dagoala Sakramentu orretan gizonen artean: ta ez erri batean bakarrik, baizik Katolikoak diran erri guzietan eta onela egoteaz gañera, dijoa guzien eta bakoitzaren biotzera, andia, edo txikia, aberatsa, edo beartsua dan begiratu gabe. Ekusten dezu, Kristaua, nolako egarría erakutsi zuan Jesus onak gugana etortzeko, eta Sakramentu orretan gurekin beti bizitzeko? Ta nola erantzun, eta erantzuten diogu Jesusen egarrí oni? Zoaz, nere Kaistaua, erri bakoitzera, zer ekusiko dezu? Zer, nori nai negar egiteko gogoa eman bear dioen gauzak baizik? Jesus ona gugana etortzeko, eta gure artean, eta biotzetan bizitzeko ainbeste egarrírekin, eta Kristaurik geienak Jesusegandik igesi! Atozea, zenbat izango dira erri bakoitzean, era izan arren, Jaun Andiari agur, eta ongi etorri bat aste guzian egiten ez dioenak? Zenbat, jaietan ere edariz beteak, eta edari usaia zabaltzen duela datozenak? Zenbat, Meza luzea, edo laburra dan bai, baña beste gauzarik gogoa ez darabiltenak? Zenbat begiramentu, edo errespetorik gabe Jaunaren aurrean egongo diranak? Zenbat, berandutik berandura baizik Jauna artu nai ez duenak, eta orduan gogoaren kontra? Esker gabekeriaren itsusia! Baña goazen aurrera, eta dakuskun, zertarako ainbeste egarrírekin nai izan zuan gugana etortzea, eta beti gurekin egotea.

§ II.

Ekusten zuan gure Jesus maitagarriak, egin ginduala Jaunak, bera ezagutzeko, ta amatzeko; eta betikioasun guzian berarekin batean Zeruan bizitzeko. Amatuko dezu zure Jaun Jaungoikoa zure biotz guziaz, zure anima guziaz, eta zure indar, eta alegin guziaz, esaten dio Jaunak gutatik bakoitzari. *Diligis Dominum Deum tuum ex toto corde tuo, et ex tota anima tua, et ex tota mente tua.* Dirudi, era onetan Jauna amatzea dala, ez nekea, baizik gure biotzak pozik, eta atsegin andiarekin egin bear lukeen gauza; Jauna

da alabaña Ontasun bat neurririk, mugarik, eta bazterrik ez duana: Jauna da edertasun bat, añ zoragarria, non begien itxi-idiki batean ekustea asko litzakean infernuko su, eta garren artean daudenak ere azturik geratzeko beren oñazeaz, eta pozik amatzeko beti-beti bere Jaungoikoa. Ozta. Angeru, ta anima doatsuak ekusi zuen edertasun baztergabe ura, alako eran amatu zuen, eta amatzen due, non, nai, ta nai ez ere amatuko duen betiraunde guzian. Alaere oztua, eta jelatua geratu zan gizonaren biotza animaren egitekoan, eta erraz aztutzen da Jaunaren ontasun baztergabeaz: eta bere doatasun, eta zori ona ipintzen du emengo iduripenetan, edo ekusten dituan atsegin-kontentu zirzilletan. Onela galtzen du betiko doatasuna, eta erortzen da betiko neke-oñazeen artean: Jesus ona etorri zan gure biotzetan erazekitzera Jaungoikoaren amorioaren sua, eta su au gure biotzetan piztu zedin, nai izan zuan gugana etortzea, eta gure artean, eta biotzetan egotea Sakramentu orren bidez. Etorri ninzan; dio S. Lukasen autik, sua zabaltzera, eta zer da nik nai dedana erazekitzea baizik? *Ignem veni mittere, et quid volo nisi ut accendatur?*

Ekusten zuan Jesus onak, etsai askoren artean geratuko giñala, nota diran Demonioa, mundua, eta aragia. iru etsai oek prest arkitzen dira beti, animai gerra egiteko, eta garaitzen ditue txit ernai bizi ez diranak: baña guziak desegiten dira Jesusen lagunzarekin. Orregatik nai izan zuan gure artean geratu, erakusteko guri, nola peleatu bear degun iru etsai oen kontra, bera giari, eta laguntzalle degula, eta nola iritsiko degun betiko bizitza.

Orra, nere Kristaua, zertarako ainbeste egarrírekin nai izan zuan gugana etortzea, eta gure artean geratzea. Eta au onela bada, dan bezala, zer ongi nai, eta amorio ez du guganako agertu Jesus onak, Sakramentu orretan gugana etortzeko, eta gurekin bizitzeko egarrírekin? Zer geiago egin zezakean Jesusek gure biotzetan erazekitzeko Jaungoikoaganako amorioaren sua? Ala ere gutxi dira Jaungoikoa, amatzen duenak, eta egunetik egunera aitua dijoaz Jaunaren serbitzariak. Gizonen umeak, deadar egiten du Dabidek: noiz artean izango zerate biotz astundunak! *Filii hominum, usquequo gravi corde?* Zergatik maite izan bear dituzue iduripen utsak, utzirik zeren Jaungoikoa? *Ut quid diligitis vanitatem, et quaeritis mendacium?* Ez ote degu oraiñ ere amatuko Jaun au? Ea nere Kristaua, erabaki dezagun gaur betiko Jaun au ez utzitzea, eta biotz osoz amatzea: eta onetarako asmo osoak artzeko, jarri gaitezen beraren aurrean belauniko eta gogora ekarri ditzakun ukitu diran gauzak. *(Jartzen dira belauniko guziak, eta erakuslea ere bai).*



1.

Begira, Kristaua, nolako egarriarekin nai izan zuan Jesusek Sakramentu orretan gugana etortzea, eta gure artean bizitzea. Gugatik bere bizitza emateko zegoan denboran bertan, esan zien Apostolui: egarri andiarekin nai izan det apari au zuekin egitea: *Desiderio desideravi hoc pascha manducare vobiscum*. Apari au zan, Sakramentu miragarri on ipintzeko aparria, eta Sakramentu orretan gugana etorri, eta gure artean bizi nai zuan. Zeñ miragarria Jesusen guganako amorioa! Eta nolakoa izan ote da gure eskergabekeria!

2.

Begira urrena, zertako ainbeste egarriarekin nai izan zuan Jesusek gugana etortzea, eta gure biotzetan bizitzea, ta mundua mundu dan artean Sakramentu orretan egotea. Gure biotzetan erazekitzeko Jaunaren amorioaren sua, eta bera giari degula guk gure animen etsaiak garaitzeko. Eta ala ere ez degu ezagutuko Jesusen guganako amorio baztergabea? Eta ez degu Jaun au amatuko? (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Nere Salbatzalle Jesus maitagarria! Ekusten det zure guganako ongi nai, eta amorio geiegia. Ekusten det, amorio onek sorrerazo zuala zure biotzean gugana etortzeko, eta gure biotzetan bizitzeko egarri andi bat. Ekusten det, zeñ gaizki erantzun dizudan oraindaño. *Peccavi*: egin det bekatu, zeren zure ontasun, eta amorio baztergabeaz aztua bizitu nai zan. *Peccavi*, egin det bekatu, zeren zu utzi, eta nere biotza ipiñi dedan emengo atsegiñ, eta gauza zirzilletan, edo obeto esateko, emengo ezerezean. Zer egin aldezaket, nere Aita ona, ta nere animaren jabea? Zer, ezpada zuga-na biurtzea, eta damu andi batekin negar egitea? Zer ezpada emendik aurrera zu amatzea? Amatuko zaitut, Jauna. *Diligam te Domine*, zeren ainbeste ongi nai, eta amorio guganako agertu dezun. *Diligam te Domine*, zeren zu zeregan zeran, ontasun guziz maitagarria. Lagun zaikizkit arren asmo au leialki gordetzen, onela nere egunak buka ditzadan zure grazian, eta iritsi dezadan Zu betikotasun guzian alabatzea. Amen.

OGEI, TA AMALAU GARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean bigarrena.

ALABATUA &.

Asi giñan Sakramentu miragarri orren gañean itz egiten, eta aditzera eman nizun, Kristaua, Sakramentu oni deitzen zaiola Jesusen guganako ongi nai, eta amorioaren miraria, *Sacramentum pietatis, miraculum amoris*. Ongi nai, eta amorio au agertu zuan Jesusek era askotara, baña batezere Sakramentu orretan. Au alik ongiena ezagutzeko, begiratu genduan aurrena, nolako egarria erakutsi zuan Jesus onak gugana etortzeko eta beti Sakramentu orretan gurekin bizitzeko. Begiratu genduan gero zertako ainbeste egarriarekin au nai izan zuan. Oraiñ lenbiziko komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Nork utzi zion Eliz Ama Santari Komunioko, Sakramentu miragarria? Erantzuten du Jesu-Kristok berak. Noiz? Ostegun Santu arratsean. Esazu, nola gertatu zan Misterio izugarri au. Ostegun Santu arratsean, bukatu lege zarrak agintzen zuan afaria, altxa zan maitetik Jesus: artu zuan gerrian esku-zapi bat, eta pertzean ura: garbitu ziezten Apostolui oñak, eta biurtu zan maiera. Artu zuan ogia eta konsagrazioko itzak esanik, eman zien Apostolui. Artu zuan kaliza ere ardoarekin, eta konsagrazioko itzak esanik, eman zien Apostolu berai. Au egiñ ondoan esan zien: Nik oraiñ zuekin egin dedana, egizue zuek ere gero, nere, ta gaur arratsean egiñ, eta bigar egingo ditudan, gauzen oroipena berritzen dezuela. Beraz arrats onetan eman zien Jesu-Kristok Komunioko Sakramentua egiteko eskua Apostolui, eta oetatik datozen Apaiz guziai? Bai, Jauna; agindu zien alabaña, egin zezeela, berak arrats artan egin zuana. Noiz egiten du Apaizak Sakramentu miragarri au? Mezan, konsagrazioko itzak ostiaren, eta ardoaren gañean esatean». Orra lenbiziko Komunioko liburuak gai onetan dakarrena.

Jesusen guganako ongi nai, eta amorio baztergabeak distiatzen du Sakramentu orretan era guziz miragarrian, baña ongiena agertzen dige ongi nai, eta amorio au, Sakramentu on ipintzeko denboran gertatu ziran gauzak. Oek izango dira gaurko Erakusaldiaren gai guzia: eta ondoren ukituko det, otoi, edo orazioa egiteko lagunduko digun, zerbait. Zuek



anima onak, eta Jesus amatu, ta serbitu nai dezuena, entzun ezazue, noraño altxa ziran Jesusen guganako ongi nai, eta amoriaren su, eta garrak. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Alderatu zitzaion Jesus onari gugatik bere bizitza emateko, eta mundu au utzirik, bere Aitagana igotzeko denbora. Ostegun Santu egunean bidaldu zituan S. Pedro, eta S. Juan Jerusalem, Israeldarren legeak agintzen zuan aparria prestatzera. Au ongi aditzeko, jakizu, Israelarrak, edo Jakoben umeak denbora luzean bizitu zirala Ejipton ijitoen mendean katiberio gogorrean, eta andik atera zituala Jaunak, egiten zituala onetarako asko gauz arrigarri. Ontarte, edo mesede onez aztu etzitezen, urte oro egin bear zuen Ejiptoko irteeraren oroipena, *Pazkoa* zeritzan festarekin. Festaren asieran jan bear zan etxe bakoitzean bildots erre bat, ipintzen ziran beste gauzakin batean.

Israeltarra zan Jesus ere eta gorde nai zuan legeak ziona, eta bidaldu zituan izendatu diran, bere bi Apostoluak, aparria prestatzera. Joan zan Jerusalem: Asi ziran afaltzen, eta jan zuen aurrena bildots, edo arkume errea. Denbora onetan inguratu zuen Jesusen biotza, alde batetik atsegin andiak, eta bestetik naigabe guziz samiñak. Ekusten zuan, maiean arkitzen zan bildots ura zala beraren artz bat. Ekusten zuan, bildots ura illa, eta sutan errea zegoan bezala bigaramonean bera ere arkituko zala gurutzean illa, eta neke, ta oñazeen suarekin ongi errea. Ekusten zuan, nola, mundu au utzita, Joan bear zuan bere Aitagana, eta erabakia zedukala Aldareko Sakramentua, ipintzea, gurekin, eta gure artean bizitzea, eta guri ematea bere gorputza, bere odola, bere biotza, eta bera zan guzia, geratu ez gindezen mundu galdu onetan ume zurtzen eran; eta au guzia egingo zuala Zeruko bere jarlekua utzi gabe. Ekusten zuan etorri zala au guzia egiteko denbora: eta ainbesteraño poztu zan, non esan zien Apostolui: egarri andi batekin bizitu naiz, zuekin afari au egiteko: *Desiderio desideravi hoc pascha manducare vobiscum*. O Jesusen guganako ongi nai, eta amorio geiegia! Gugatik igarotzera dijoa pasioko neke, eta oñaze izugarriak, eta ordu artan itzegiten du era onetan!

Beste aldetik inguratzen zuen Jesusen biotza naigabe txit samiñak. Ekusten zuan bere Apostoluen arteko batek salduko zuala, eta bere bekatu itsusiaren barkazioa eskatu bearrean, urkatuko zuala bere burua.

Ekusten zuan, Apostolu guziak izutuko zirala, Juduak bera artzen zue-nean, eta utziko zuela etsaien atzaparretan. Ekusten zuan, guri ongi naiez ainbeste gauza miragarri egin, eta ainbeste neke, ta oñaze igarota ere, zeñ eskergabeak izango giñan. Eta ekusirik au guzia, zer penak, eta samintanunen ujolak etzuen inguratuko Jesusen biotza? Naigabe oen zerbait agertu zien Apostolui maiean bertan, esaten ziela: *Zuetalik batek saldu, eta ipi-niko nau nere etsaien atzaparretan*. Au aditurik, kezka bete ziran Apostoluak, eta asi ziran galdeka: *Jauna ni ote naiz gizon saltzalle ori?* Eranzun zien: *Gizon ura platera batera nerekin eskua daramana da. Emango det bai nik nere bizitza; baña nere saltzallearen zori gaiztokoa! Obe zukean doakabeak, jajo ezpaliz*. An arkitzen zan orduan Judas ere, Jesus saltzeko itza emanik Juduai, eta izan zuan ausardia galdetzeko Jesusi era onetan: *Maisua, eta ote naiz ni gizon ori?* Eranzun zion Jesusek: *Zerorrek diozu ori*. Au esan bide zion isilik, eta beste Apostoluak aditzen etzuela. Ala ere etzan zentzatu Judas!

Bukatu zan legeak agintzen zuan afaria, eta jan ziran, afari onekin ipiñi oi ziran, beste gauzak ere, geienak beintzat askoren iritzian. Orduan jaikitzen da Jesus maietik: artzen du esku zapi bat gerrian; botatzen du pertz batean uura, eta asitzen da Apostolui oñak garbitzen. Gauz arrigarria! Jesus Jaungoiko-gizona, eta gauza guzien jabea gizonari oñak garbitzen! Zergatik onenbesteraño beeratu ote zan Jesus? Erakusteko guri, nola utzi bear degun antuzte, edo soberbia, Zerura nai badegu; eta Komunioko Sakramentuaren ondasunak naroro, edo ugari artzeko, utzi bear ditugula bekatu larriak ezezik, benialen gogo, eta borondatea ere. Arriturik geratu zan S. Pedro, ekusi zuanean bere oñetan Jesus eta esan zion: *Jauna, zuk niri garbitu oñak? ez, ez orrelakorik, ez oraiñ, eta ez gero*. Eranzun zion Jesusek ezpadizkitzut garbitzen nik zuri oñak; ez da zuretzat lekurik izango nere Apostoluen artean, eta are gutxiago nere erreñuan. Izutu zan S. Pedro, Jesusen autik au aditu zuanean, eta esan zion: *Jauna ala bear bada, oñak ezezik, eskuak, eta burua ere garbitu gizekidatzu, Eranzun zion Jesusek: garbia dagoanak ez du oñak garbitzea besterik bear, zuek garbiak zaute, baña ez guziak*. Itz oekin aditzera ematen zion Judasi, baziakiala zer asmo zerabiltzkian, eta bekatuz zikindua zegoala zan guzia. Garbitu ziozkan bada S. Pedrori oñak, baita beste Apostolui ere, oen artean Judasi. Ez ote zan alaere biguindu Judasen biotza? Ez etzan biguindu, eta biguindu bearrean, len bezeñ gogorra geratu zan, edo are gogorrago. Baña ala gertatu oi da bekatari gogortuarekin.

Garbiturik Apostolui beren oñak, biurtzen da Jesus maiera, eta lege berriko Apaiz Nagusi, eta Aita Santuak bezala, esaten du lenengo Meza. Artu zuan onetarako ogia: puskatu zuan, eta eman zien Apostolui, esa-



ten ziela: *Arrezazue, eta jan: au da nere gorputza*. Artzen du gero Kaliza ardo-arekin, eta ematen die, esaten diela: *Edan ezazue guziak emendik: au da nere odola*. Ona munduan esan zan lenengo Meza. Bigaramonean gurutzean bizitza emateko zegoan Jesus, eta artean etzuan inork ere Meza esateko, eta Sakramentu miragarri on egiteko eskurik etzuan nai, Sakramentu, eta sakrifizio on aitutzea bera illtzen zanean. Zer asmatu zuan Jesusen guganako ongi nai, eta amorio geiegiak? Eman zien Apostolui, eta oen ondorengo Apaiz guziaz Meza esateko, eta Sakramentu miragarri on egiteko eskua. Nik gaur arratsean egin dedana egizue zuek ere gero, nizaz oroitzen zeratela, esan zien: *Hoc facite in meam Commemorationem*. Itz oen indarrez Apaizak due eskua Sakramentu miragarri on egiteko. Itz oen indarrez, ozta Apaizak esaten ditu konsagraziooko itzak, jatxitzen da Jesus Zerutik Aldarera, Apaizak nai duanean, nai duan denboran, eta aldietan. Zer geiago? Au egiten du Jesusek, izan dedilla Apaiza, naiz katolikoa, naiz herejea, naiz ona, naiz gaiztoa. Etzien onelako eskurik eman anziñako Patriarkai, eta Profetai; etzien eman Aingeruai, Kerubin, eta Serafiñai, ez eta Birjiña txit Santari ere.

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ gauza arrigarriak gertatu ziran Sakramentu on ipintzeko denboran? Esangidazu oraiñ, guri ongi naiez au guzia egin duan gure Salbatzallearen ongi nai, eta amorioa norañokoa izango zan? Igaro zituan neurri, eta muga guziak, eta igo zan ongi nai, eta amorioaren araurretaraño, S. Juanek dionez: *In finem dilexit eos*. Sinisten degu au guzia, eta alaere beti egon bearrak ote gera sorrak, eta gorrak gure Aita maitagarri ori amatzeko? Zer geiago eskatuko degu Jesus ona biotz osoz amatzeko? Lotsa gaitezen, nere Kristana, gure oraindañoko esker gabekeriaz, jarri gaitezen Jaunaren aurrean belauniko; eskatu degio-gun barkazioa, eta amatu dezagun, ainbeste amatu gaituan, Jaun au. Onetarako asmo osoak sortzeko, gogoan erabili ditzakun denbora piska batean, gaur adirazi diran gauzak (*Jartzen dira guziak belauniko, eta Erakusleak ere bai*).

1.

Begira, Kristaua, zeñ gauz andi, ta miragarriak egin zituan Jesus onak Sakramentu on ipintzeko denboran, eta emendik aterako dezu beraren guganako ongi nai, eta amorioa. Erabakia zedukan gurekin, eta gure artean bizitzea Sakramentu orretan, baña denbora berean joan bear zuan bere Aitaren eskuiera, eta etzuan utzi bear bere jarlekua. Etorri zan Ostegun Santa arratsa, eta arkitzen zan, gugatik bere bizitza emanda, bere Aitagana igotzeko bezperan: eta au zan Sakramentu miragarri on ipiñi nai

zuan arratsa. Agertzen die Apostolui atsegin kontentu andi bat. Garbitzen diezte oñak, eta Judasi ere bai. Ipintzen du Aldareko Sakramentua. Ez da, au ongi nai, eta amorio geiegiak?

2.

Begira urrena, nola Sakramentu on egiteko, eta emateko eskua eman zien Apostolui, eta oen ondorengo Apaizai, zertako ori? Munduak dirauen denbora guzian gurekin, eta gure biotzetan bizitzeko. Ekusten zuan Judasen eskergabekeria itsusia. Ekusten zuan, Judasen antzekoak izango zirala geienak. Alaere añ andiak ziran. Jesusen ongi nai, eta amorioaren su, eta garrak, non utzi nai izan zuan, eta utzi zigun Sakramentu ori; eta agertu zuan onela guganako amorio, mugarik, eta bazterrik ez duan bat. *In finem dilexit eos*. Ez ote degu Jaun au amatuko?... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Ekusi dezu, nere Kristaua, Sakramentu ori ipintzean Jesus onak guganako agertu zuan ongi nai, eta amorio geiegiak. Nola eranzun diogu amorio oni? Ez degu ezertan artu amorio au, utzi degu Jesus eta serbitu ditugu mundua, eta gure griña txarrak. Orregatik esaten digu Jeremiasen antik: autsi dezu nere legearen uztarria: urratu dituzu nere aginteen loturak, eta esan dezu ez det Jaun au serbituko: *Confregisti jugum meum, rupisti vincula mea, et dixisti, non serviam*. Erabaki ezazu oraiñ, zer nai dezun, edo Jesus benaz, eta biotzetik amatzea, eta serbitzea, edo munduari, ta griña txarrai jarraitzea? Ezpadezu amatu, ta serbitu nai zure Jesus maitagarria, jakizu ez duala Jesusek zu amatzearen bearrak, zure onerako baizik: jakizu zure gañera etorriko dirala betiko nekeak, betiko negarrak, eta Jaunaren madarikazioa. S. Paulok esaten digu: madarikatua izan bedi Jesus amatzen ez duana: *Si, quis non amat Dominum Jesum Christum, anathema sit*. Baña amatu, ta serbitu nai badezu, asi zaite bertatik, asi zaite benaz, eta era onetan barkatuko dizkitzu Jaunak oraindañoko utsegiteak, eta iritsi dezakezu betiko bizitza doatsua. Amen.



OGEI, TA AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean irugarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko aldian itz egin genduan, Aldareko Sakramentua ipintzeko denboran gertatu ziran gauzen gañean. Orain lenbiziko Komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Ostian zer dago? Erantzuten du: Konsagrazioko itzak Apaizak esan ditzan artean, ogi piskabat, eta esan ezkeru Jesu-Kristoren gorputza. Jesu-Kristoren gorputza bakarrik ote dago Ostia Konsagratuan? Ez, Jauna, baizik Jesu-Kristo Jaungoiko, eta gizon egiazko guzia. Beraz Ostia Konsagratuan Jesu-Kristoren gorputzarekin batean arkitzen dira beraren odola, anima, ta Jainkotasuna? Bai, Jauna. Nola ori? Zeren Konsagrazioko itzen indarrez jartzen dan Ostian Jesu-Kristoren gorputza bizirik, eta gorputz biziari ditxeozkanak diran odola, eta anima. Zeren gañera Jesu-Kristoren Jainkotasuna, gizon egin zanetik, bat egniña, edo unitua dagoan beraren gorputz, eta animarekin.

Kalizan zer dago? Konsagrazioko itzak Apaizak esan ditzan artean, ardoa, eta ur piska bat, eta esan ezkeru Jesu-Kristoren odola. Jesu-Kristoren odola bakarrik ote dago kalizan, konsagrazioa ezkeru? Ez, baizik Jesu-Kristo Jainko, eta gizon egiazko guzia. Beraz kalizan Jesu-Kristoren odolarekin arkitzen dira beraren gorputza, anima, eta Jainkotasuna? Bai, jauna. Beraz Jesu-Kristo guzia dago, Ostia konsagratuan, eta guzia Kalizan? Bai, Jauna, baña Ostian ogiaren, eta Kalizan ardoaren anz eta idurien azpian. Ostia konsagratu utsarekin komulgatzen danak artzen ote du, Ostia eta ardo konsagratua artzen dituanak adiña? Bai, Jauna, artzen du alabaña, ala batak, nola besteak Jesu-Kristo Jainko, ta gizon egiazko-guzia. Zergatik Kristau guziak ez dira komulgatzen Ostia, eta ardo konsagratuarekin, Apaizak bezala? Ensun det, asko lekutan onela komulgatzen zirala Kristau guziak anziñako denboran, baña kendu zuala Eliz Ama Santak usanza au, zeren gertatzen zan Jesu-Kristoren odola Komunioko denboran ixurtzea, eta gañera zeren premiazko gauza ez dan, era onetan Kristau guziak komulgatzea». Orra lenbiziko komunioaren liburuak gai onetan dakarrena.

Sakramentu on da Jesusen guganako ongi nai, eta amorioaren mirari andi bat: *miraculum amoris*. Amorio au agertu zuan Jesusek gugana etortzeko, eta gurekin bizitzeko egarriarekin. Agertu zuan, Sakramentu ori ipintzeko denboran gertatu ziran, gauz arrigarriakin, leneko bi Erakusaldietan ekusi degun bezala. Agertu zuan, eta agertzen du gañera Sakramentu orretan ematen digunarekin. Orregatik gaur ekusi bear dezu, nere Kristaua, zer, ta nola ematen duan Jesusek Sakramentu orretan. Urrena zer eskatzen digun Sakramentu orretatik. Emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun kontuz.

§ I.

Ongi nai, eta amorio egiazkoa emallea da; eta alde onetatik begiratzten badiozu Jesusen guganako ongi nai, eta amorioari, arriturik geratuko zera.

Zer ote da Jesusek Sakramentu orretan ematen diguna? Ematen digu eman al guzia, duan onena, eta nai degun aldi guzietan. Au nolerebait eza-gutzeko, idiki tzatzu fedearen begiak, eta begira zer dagoan Sakramentu orretan. Ekusiko dezu, or dagoala Jesusen gorputza ogiaren anz, eta idurien azpian. *Au da nere gorputza*, esan zuan Jesusek, eta nork sinistuko ez dio Jesusi? Ekusiko dezu, gorputzarekin batean or dagoala gugatik ixuri zuan, odola bera; Jesusen gorputza alabaña, piztu zan beñere ez iltzeko, eta beragatik Sakramentu orretan eztago illa, baizik bizirik, eta gorputz biziak berekin beardu bere odola. Ekusiko dezu, gorputz, eta odolarekin or dagoala Jesusen anima; anima alabaña bat egiña, edo unitua dago gorputz biziarekin. Egizu kontu, eltzen diola batek, errosarioak daukeen gurutze eder bati, eta erakartzen duala beregana: gurutzarekin batean joango dira errosarioaren amarreko guziak ere, zeren gurutzeari itsatsiak dauden. Era berean Konsagrazioko itzak Apaizak ostiaren gañean esaten dituanean, jartzen da an itzen indarrez Jesusen gorputza, eta nola gorputzarekin bat egiñak dauden odola, eta anima, oek ere gorputzarekin batean jartzen dira ostian: eta au bera gertatzen da kalizan ere, ardoa konsagratzen danean: itzen indarrez jartzen da odola, eta odolari darraizka gorputza, eta anima. Ekusiko dezu, Jesusen gorputzak argi egiten duala eguzkiak baño milla bider geiago, eta edertasun au ezkututzen duala, Sakramentua artzera dijoazenak izutu ez ditezen. Ekusiko dezu, bere



esku, oñetan, eta saietsean dauzkala bere bost zauri, edo llogen siñaleak, eta bakoitzak distiatzen duala eguzkiaren eran.

Ekusiko dezu gorputzarekin batean or arkitzen dala Trinitadeko bigarren Persona, Jaungoiko egiazkoa, gure amorioz gizon egin zana: orduan beregana artu zuan gorputz ori, eta ez du beñere utzi. Ekusiko dezu, bigarren Personarekin batean or dagoala Aita betikoa; eziñ alabaña aldegin dezake Aitak Semea gandik, ez eta Semeak ere Aitagandik. Amatzen banau ni norbaitek, amatuko du nere Aitak, eta biok etorriko gera argana, dio Jesusek: *Si quis diligit me... et Pater meus diligit eum, et ad eum veniemus.* (Joan. 14). Aita betiko ori da gu Zerurako bidean ipintzeko, bere Seme bakarra eman zuana. Eman zuan, mundura bidaldu zuanean. Eman zuan, eta egun oro ezin konta al bider ematen digu Sakramentu orretan. Ainbesteraño maite izan ginduan, dio S. Juanek, non eman zigun bere Seme bakarra: *sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret* (Joan 14) Atzenean fedearen argiak erakusten dizu, Aita betikoarekin, eta Semearekin Sakramentu orretan dagoala Espiritu Santua ere, irurak dira alabaña Jaungoiko bat bakarra.

Ekusten dezu Kristaua, zer dagoan Sakramentu orretan? Atozea, eta au guzia ematen badigu Jesus onak, zer geiago, eta zer gauz oberik eman dezake? Ematen du au guzia ezer ezpaliz bezala, ogiaren idurien azpian ezkutaturik: ematen dio andiari eta txikiari, aberatsari, eta beartsuari, eta ematen dio nai duan aldi guzietan. Arritzen da S. Agustin, Jesusek Sakramentu orretan ematen digunari begiraturik, eta dio: izanik gure Jaungoikoa Guzialdun, edo Omnipotentea, ala ere eziñ eman duana baño geiago eman zezakean: *Cum Deus sit Omnipotens, plus dare non potuit.* Izanik guziz jakintsua, alaere etzuan jakin, zer geiago guri eman: *Cum sit Sapientissimus, plus dare nescivit.* Eta izanik guziz aberatsa, etzuan, izan zer eman geiago: *Cum sit ditissimus, plus dare non habuit.* Zer ongi nai, ta amorioa izango ez da bada Jesusek Sakramentu orretan guganako agertzen duana, Sakramentuan bertan ematen digunari begiratzen badiogu? Eta nork eztakus, bidez, eta egiaz deitzen zaiola ongi nai, ta amorioaren mirari, eta milagroa? *Miraculum amoris?* Dakuskun oraiñ, zer, eskatzen digun Jesus onak Sakramentu orretatik.

§ II.

Zer ote da Jaunak Sakramentu orretatik eskatzen diguna? Beretzat ezer ez, ez du alabaña gure bearrik beretzat; baña guri ongi naiez eskatzen digu, egin dezagula betiko zori ona iristeko egin bear dana. Zer bear ote da onetarako? Bear da benik beñ bekatutik aldegitza; bekatuaren saria da alabaña eriotza, eta betiko neke, ta oñazeak. Eziñ sartu diteke Zeruan bekatuz loitua dagoan gauzarik, S. Juanek esaten digun bezala: *Non intrabit in eam aliquid koinkinatum* (Apocal. 21). Bear da bigarrena, bekatuarekin bideetatik, eta lagun gaiztoetatik aldegitza; bestela galduko da, Espiritu Santuak esaten digun bezala: *Qui amat periculum, peribit in illo.* Bear da irugarrena, bakoitzak bere gura, eta griña txarrak ukatzea, edo ezitze-kolegiña egitea. Au egiten ez dala, ez dago bekatua bekatuari erantsitza baizik.

Ala gertatzen da birauak botatzeko, edanean igarotzeko, itz desonestoak esateko, ukitze lotsagarriak egiteko, oitura duenakin: Nere ondoren etorri nai duanak, uka beza bere burua, edo bere griña txarrak, esaten digu Jesusek berak: *Qui vult venire post me abneget semetipsum.* (Math 16). Bear da laugarrena, Jauna amatzeko, eta serbitzeko eman zitzakun, biotza emengo aurkerietan, edo ezerezean ez ipintzea. Ene Seme, indazu niri, ta neretzat gorde ezazu zure biotza *Praebe fili mihi cor tuum* (Prover. 23).

Au da, nere Kristaua, Jesus onak Sakramentu orretatik eskatzen diguna. Eta duan guzia ematen duanak au eskatzea, eta eskatzea gure onerako, asko, ote da? Ala ere ez degu egin nai izan, Jaunak eskatzen diguna! Zenbat bider Jaun au utzi degu bekatuaren atsegin-apur bategatik? Orregatik esaten digu S. Paulok: zer on, edo frutu atera dezue oraiñ lotsatzen zaituen gauz oriekien? *Quem ergo fructum habuistis in illis, in quibus nunc erubescitis?* Zenbat bider, bekatuarekin bideak utzi nai gabez, bizi da bekatu-ria betiko su, eta garren artean amiltzeko zorian? Non dira beren gura, eta griña txarrak ukatu nai dituenak? Non, Jesus onagan biotza ipiñi nai duanak? Au da Jesus onak gugandik ekusten duan eranzuera ederra. Kristaua, ezagutu dezagun gure eskergabekeri itsusia, eta egin dezagun asmo oso bat, emendik aurrera gure Jesus maitagarriak eskatzen diguna egiteko. Jarri gaitezen onetarako Jaunaren aurrean belauniko, eta gogoan erabilli ditzakun, gaur ukitu diran gauzak. *(Jartzen dira guziak belauniko eta Erakuslea ere bai).*



1.

Begira, Kristaua, lenengo lekuan, zer ematen dizun Jesus onak Sakramentu orretan, eta emendik igerriko dezu nolako ongi nai, eta amorioa agertzen digun. Ematen dizu eman al guzia, bada ematen dizu bera dan guzia, edo bere gorputza, odola, anima, edo Jainkotasuna. Zuk artzen dezunean Sakramentu on, zugana dator Trinidadeko bigarren Persona edo Seme Jaungoikoa, eta Semearekin batean Aita, ta Espiritu Santua. Zer ongi nai, eta amorioa ez digu bada agertzen Jesus onak Sakramentu orretan?...

2.

Begira urrena, zer eskatzen digun Jesus onak Sakramentu orretatik. Ez digu ezerere beretzat eskatzen, baizik gure zori onerako bear dana bakarrik. Au da gure biotzak bekatutik, eta bekatuaren bideetatik gordetzea, eta ipintzea ontasun baztergabea dan Jaunagan. Eta au ere ukatuko diogu gure Aita maitagarriari?... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Aditu dezu, Kristaua, zer ongi nai, ta amorioa erakusten digun Jesus onak Sakramentu orretan, ematen digula eman al guzia. Ez gaitzen bada, oraindano bezala, izan eskergabeak: biur gaitzen biotz osoz Jaunagana, eta amatu dezagun benaz. Onela iristeko gure bekatuen barkazioa, eta gero betiko bizitza doatsua. Amen.

OGEI, TA AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean laugarrena.

ALABATUA &

Azkeneko aldian ekusi zenduan, Kristaua, zer ematen digun Jesus onak Sakramentu orretan, edo ematen digula eman al edo bera dan guzia. Oraiñ lenbiziko Komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Esan dezu len, Komunioko Sakramentuari deitzen zaiola *guziz miragarria*, zeren mirari guzien artean andiena, guzien oroipena, eta guzien miragarritasuna berekin duana dan. Esazu zer gauza miragarri egiten ditu Jesu-Kristok, Sakramentuan jartzean, eta jarri ezkerok? Askok, eta oen artean zortzi txit arrigarriak. Zeñ dira? Lenengoa, konsagrazioko itzak esaten diran une, edo puntuan bertan jartzea Sakramentuan Jesus Jaungoiko eta gizon egiazkoa, naiz izan Apaiza ona, naiz ez, naiz Katolikoa, naiz herejea. Bigarrena, ezin konta al Elizetan egun oro jartzea, eta egotea Jesu-Kristo, Zeruko bere jarlekua utzi gabe. Irugarrena, konsagrazioko itzak esatean bertan biurtzea len ogi zana Jesu-Kristoren gorputz, eta len ardo zana Jesu-Kristoren odol. Laugarrena, Konsagrazioko itzak esan ondoan ogirik, eta ardorik batere Sakramentuan ez geratzea, baña bai ogi-ardoan anz, eta iduriak, nola diran usaia, kolorea, gusto, eta indarra.

Bostgarrena, ogiaren, eta ardoaren anz, eta iduri oek artzen dituanari ematea, ogiak eta ardoak adiña indar. Seigarrena, ostia batek duan bezeñ toki txikian jartzea, eta egotea Jesu-Kristo Jaungoiko, eta gizon egiazko. Zazpigarrena, ostia erdiratzen, eta puskatzen danean, ez puskatzea Jesu-Kristoren gorputza, eta puskatu ordean, osorik arkitzea puskarik txikienean ere. Zortzigarrena, bizirik, eta Zeruan dituan, doai, eta edertasun guziarekin jartzen bada ere, illaren eran egotea Sakramentuan. Nola gerta ditezke gauz añ miragarriak? Jaungoikoak nai izate utsarekin. Sakramentua agertzen, edo Sagarako denboran goratzen duenean, zer ekusten dezu? Ez ogirik, zeren ez dagoan: ez Jesu-Kristo, zeren ezkutatua dagoan, baizik ogiaren anz, eta iduria». Orra, lenbiziko Komunioaren liburuak gai onetan dakarrena.



Komunioko Sakramentua Jesusen guganako amorioaren mirari, edo milagroa da, len esana dagoan bezala: *Miraculum amoris*. Amorio au agertu du gugana etortzeko, eta gurekin bizitzeko izan zuan egarri andian. Agertu du Sakramentu on ipintzeko denboran gertatu ziran gauz arrigarrietan. Agertu du Sakramentu orretan ematen duanarekin, leneko Erakusaldietan aditu dezun eran. Ez du gutxiago agertu, Sakramentu orretan jartzean, eta jarri ezkeroko egiten dituan gauza miragarrietan. Gauz oek ukitzen ditu ederki liburuak, baña laburkiro. Orregatik gauza berak ugarisêago adiraztea izango, da gaurko Erakusaldia eta ondoren aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun kontuz.

§ I.

Ongi nai, eta amorioaren anditasuna igerritzeko, obrari begiratzea da biderik egokiena: eta bide oni jarraitu nai badiozu, ezagutuko dezue, Jesusen guganako ongi nai, ta amorioa Sakramentu orretan, dala geiegia, eta neurriak ez duana.

Zer ote da Sakramentu orretan jartzean, eta jarri ezkeroko Jesusen egiten duana? Apaizak Konsagraziooko itzak esaten dituan unean bertan jartzen da Sakramentuan Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, naiz izan Apaiza ona, naiz ez, naiz Katolikoa, naiz herejea, *Au da nere gorputza, esan zuan Jesu-Kristok*, eta nork izango du ausardia Jesusen esana ukatzeko, edo ez sinisteko? Nik oraiñ egin dedana, egizue zuek ere, nizaz oroitzen zera-tela: *Hoc facile in meam Commemorationem*. Jesusen emandako esku onekin Apaizak esaten ditu Jesusen itzak berak, eta bereala jartzen da Jesus Sakramentuan. Ala erakusten digu gure fede Santak, eta sinisten degu Katoliko guziok. Gauz arrigarria! Nor da alabaña, Sakramentu orretara datorrena? Jesus Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, gauza guzien Egilea. Eta nor da Mezemalle konsagraziooko itzak esaten dituana? Gizon bat bere griña txarrak dituan, bearbada, birtutetsua, eta bearbada Judasen anezkoa. Alaere gizon errebes onen otsera jartzen da Jesus Sakramentuan? eta jartzen da onelako gizonak nai duan denboran, nai duan lekuan, eta nai duan adiñatan? Arritu zaitezte Zeruak, arritu Zeruko Aingeruak, eta lurreko anima onak! Josue pelean ari zan beñ Amorreoan kontra. Izutu ziran Amorreoak, eta asi ziran iges egiten. Beldurtu zan Josue, illundu zekion etsaiak osotoro desegin baño len. Altxa zuan biotza Jaunagana, eta agindu zion eguzkiari, zegoala geldirik: *Sol, contra Gabaon ne movearis*.

Eguzkia Josueren otsera geratu zan, eta izan zuan Josuek bere etsaiak urratzeko denbora. Baña zer da au Aldareko Sakramentuan gertatzen danaren, aldean? Ezer ez Josueren otsera alabaña beñ bakarrik geratu zan eguzkia; baña Apaizaren otsera jatxitzen da Sakramentura Jesus, Eguzkiaren egilea; egun oro, eta egunean asko aldiz, Josue zan Jaunaren adiskide andia; baña beñ baño geiagotan gerta diteke, Apaiza gizon errebes bat izatea. Eta ala ere jartzen da Jesus onelako gizonaren otsera Sakramentu orretan!

Sakramentu orretan egiten dan bigarren gauza miragarria da ezin konta al Elizetan egun oro jartzea, eta egotea Jesu-Kristo Zeruko bere jarlekua utzi gabe. Igo zan Jesus Zeruetara, eta an dago eserita bere Aitaren eskuian eta ango jarlekua utzi gabe jartzen da Sakramentuan ezin konta al Elizetan. Nola au gertatzen dan, ez da erraz itzez adiraztea, baña fedearren argiarekin iristen degu, egin dezakeala Jaunak, eta osotoro sinistu bear degu, dio Trentoko Konzilioak. Ostegun Santu arratsean jarri zan Jesus Sakramentuan, maiean zeukan lekua utzigabe. Zergatik ez dezake egin au oraiñ ere, Zeruko bere tokia utzi gabe?

Sakramentu orretan Jesusen egiten duan irugarren gauza miragarria da, konsagraziooko itzak esaten duan denboran len ogi zana biurtzea bere gorputz, eta len ardo zana bere odol. Deitu zuen, beñ Kana zeritzan Galileako erri batera eztaietara. Aittu zan ardoa, eta uura biurtu zuan ardo. Mirari andia zan au, eta ez da gutxiago konsagraziooko itzakin Apaizak egiten duana.

Sakramentu orretan Jesusen egiten duan laugarren, gauza miragarria da konsagraziooko itzak esan ezkeroko, ez geratzea Sakramentuan ogirik, eta ardorik, baña bai ogi-ardoan anz eta iduriak, nola diran usaia, kolorea, gusto, eta indarra. Ala erakusten digu fedeak, eta sinisten degu guziok. Demagun Eliz onen pareteak erortzen dirala lurrera, eta ala ere airean daudela tellatuak. Zer esango genduke, nere Kristaua? Zer ezpada mirari, edo milagro andi bat gertatu dala? Tellatuak alabaña ezin dautezke airean irozgarri gabe, mirari andi bat egiten ez duala Jaunak. Ez da gutxiago gertatzen Sakramentu orretan ogi-ardoan anz, edo *Akzidenteakin*. Oen irozgarri, edo pareteak bezala dira ogiaren, eta ardoaren izatea: eta ez dago au Sakramentuan konsagraziooko itzen ondoren. Alaere geratzen dira ogiaren, eta ardoaren usaia, kolorea, gusto, indarra, biribiltasuna. Sakramentu on agirian dagoanean, oraiñ bezala, ogia ekusten degula dirudi; baña fedeak erakusten digu, ekusten degun ori, ez dala ogia, baizik ogiaren-anza, eta anz onekin ezkutatua dagoala Jesu-Kristo.



Sakramentu orretan Jesusek egiten duan bostgarren gauza miragarria da ogiaren, eta ardoaren anz, eta iduriak artzen dituanari ainbeste indar ematea, nola emango liokeen ogi, ta ardoak. Demagun, kaliz andi batean konsagratzen dirala Malagako ardotik bi pitxarra. Konsagrazioko itzen ondoren ez da an egongo ardorik, baizik ardoaren anz, eta iduri utsa. Alaere iduri oek izango lukee orditzeko indarra ardoak bezala.

Sakramentu orretan Jesusek egiten duan seigarren gauza miragarria da ostia batek duan bezeñ toki txikian jartzea, eta egotea Jesu-Kristo Jaungoiko, eta gizon egiazkoa: eta zenbat diran, konsagratzen diran ostiak, beste ainbestetan jartzen da. Ez da iristen gizonaren adimentuak, nola gertatzen dan au, baña fedeak erakusten du, ala gertatzen dala, eta sinistu bear degu guziok. Ezpagendu sinistu bear, gure adimentuak iristen duana baizik, txit gauza gutxi sinistu bearko ginduke.

Sakramentu orretan Jesusek egiten duan zazpigarren gauza miragarria da ostia erdiratzen eta puskatzen danean, ez puskatzea Jesu-Kristoren gorputza, eta puskatu ordean osorik arkitzea puskarik txikienean ere zenbat gauza miragarri ez dira arkitzen onetan bertan?

Atzanean, Jesus ona bizirik, eta Zeruan dituan doai, eta edertasun guziarekin jartzen bada ere, illaren eran egotea Sakramentuan, ezkututzen dituala bere doaiak ogiaren, eta ardoaren iduriakin, odei batekin bezala. San Juan Abanjelistak Profetaren begiakin begiratu zion Jesusi Sakramentu orretan, eta dio, ekusi zuala bildots illaren eran: *Vidi agnum stantem tanquam occisum*. Zergatik ezkututzen ote ditu Jesusek era onetan bere edertasuna, eta doaiak? Anima onak dijoazkion beren biotzetan artzera; zeren bestela izaturik ez lirakean atrebituko beraren maiera joatera, ez eta begiratzera ere.

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ gauza miragarriak egiten dituan Jesusek Sakramentu orretan? Ekusten dezu, zeñ ederki agertu, eta agertzen duan bere guganako ongi nai, ta amorio geiegia? Eta alaere ez degu guk serbitu nai Jaun au? Nor serbituko degu, Jaun au serbitu nai ezpadegu? Jarri gaitzen beraren aurrean belauniko; gogoan erabilli ditzakun gaur ukitu diran gauzak, eta egin dezagun asmo oso bat, Jaun au serbitzeko beti benaz, eta biotz osoarekin. (*Jartzen dira guziak belauniko, eta erakuslea ere bai*).

1.

Begira, Kristaua, zeñ gauza miragarriak egiten dituan Jesusek Sakramentu orretan, eta nola oekin agertzen duan guganako ongi nai, ta amorio baztergabe bat. Dana dala Mezemallea, onen otsera jatxitzen da Aldarera, len ogi zana biurtzen da Jesusen gorputz, eta len ardo zana Jesu-

Kristoren odol: eta (utzirik beste mirari asko) gure biotzera etortzeagatik, ezkututzen ditu bere doai, eta edertasuna, eta jartzen da, nork nai erraz artu dezakean eran. O ontasun, eta amorio baztergabea...

2.

Begira urrena, zer egin degun guk, ainbeste gauza miragarri guri ongi naiez egin dituan, Jaunagatik. Zer? Jaun orrez azturik, bekatua bekatuaren gañean egitea baizik? Ez ote degu Jaun au serbituko?... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Ekusi dituzu, Kristaua, edo aditu Jesus onak gure amorioz Sakramentu orretan egiten dituan, gauza miragarriak, eta guk beragatik zer egin degun. Orregatik espa andiakin dio: autsi dezu nere Legearen uztarria: urratu dituzu nere aginteen lotura guziak, eta esan dezu: ez det Jaun au serbituko: *Confregisti jugum meum, rupisti vincula mea, et dixisti: Non serviam*. Kristaua, Jesusen espa oek bidezkoak dira, eta eskatzen due, guk lenbait len gure eskergabekeriak damu egiazkoarekin desegitea, eta aurre-ra bizitza on-eder bat egitea. Egin dezagun au, onela iristeko gure bekatuen barkazioa, eta gero betiko bizitza. Amen.



OGEI, TA AMAZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean bostgarrenat

ALABATUA &.

Lenbiziko Komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Esan dezu len, Komunioko Sakramentuari deitzen zaiola guzien miragarria, zeren mirari guzien artean-andiena, guzien oroipena, eta guzien miragarritasuna berekin duana dan. Esazu, zer gauza miragarri egiten ditu Jesu-Kristok Sakramentuari jartzean, eta jarri ezker? Asko, eta oen artean zortzi txit arrigarriak. Zeñ dira? Lenengoa Konsagrazioko itzak esaten diran une, edo puntuan bertan jartzea Sakramentuan Jesus Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, naiz izan Apaiza ona, naiz ez, naiz Katolikoa, naiz herejea. Bigarrena, ezin konta al adiañ Elizetan egun oro jartzea, eta egotea Jesu-Kristo, Zeruko bere jarlekua utzi gabe. Irugarrena Konsagrazioko itzak esatean bertan biurtzea len ogi zana Jesu-Kristoren gorputz, eta len ardo zana Jesu-Kristoren odol. Laugarrena, Konsagrazioko itzak esan ondoan ogirik, eta ardorik batere Sakramentuan ez geratzea, baña bai ardo-ogien antz, eta iduriak, nola diran usaia, kolorea, gustoa, eta indarra.

Bostgarrena, ogiaren, eta ardoaren anz, eta iduri oek artzen dituanari ematea, ogiak, eta ardoak adiañ indar. Seigarrena, ostia batek duan beñ toki txikian jartzea, eta egotea Jesu-Kristo Jaungoiko, eta gizon egiazkoa. Zazpigarrena, ostia erdiratzen, eta puskatzen danean, ez puskatzea Jesu-Kristoren gorputza, eta puskatu ordean, osorik arkitzea puskarik txikienean ere. Zortzigarrena, bizirik, eta Zeruan dituan doai, eta edertasun guziarekin jartzen bada ere, illaren eran egotea Sakramentuan.

Nola gerta ditezke gauz añ miragarriak? Jaungoikoak nai izate utsarekin. Sakramentua agertzean, edo Sagarako denboran goratzen duenean, zer ekusten dezu? Ez ogirik, zeren ez dagoan; ez Jesu-Kristo, zeren ezkutatua dagoan, baizik ogiaren anz, eta iduria».

Lenengo lau Erakusaldietan aditzera eman dizut, nere Kristaua, nolako ongi nai, eta amorioa agertu, ta agertzen digun Jesus onak Sakramentu orretan. Azkeneko aldian au begien aurrean ipiñi nizun, Sakramentu orretan egiten dituan gauza miragarriakin. Oen artean zor-

tzigarren lekuan ipintzen du liburuak Jesusen Sakramentu orretako egoera, eta ukitu genduan au ere, laburkiro bederik. Baña izanik egoera au, Jesusen guganako ongi nai eta amorio baztergabea bear bada ederkiena agertzen duan, gauza, eziñ utzi dezaket ugariseago aditzera eman gabe.

Jesus ona Sakramentu orretan dago gau, ta egun bildots ill baten eran. Baña zeñ gauz arrigarriak ez ditu egin lenago gure ongi naiez? Au da aurrena gogora ekarri bear deguna. Jesus ona Sakramentu orretan dago bildots ill baten eran, baña zer bidegabeak ez ditu ekusi, ta ekusten len, ta gero? Au da bigarren lekuan begiratu bear degun gauza. Emendik aterako degu norañoko ongi nai, eta amorioa agertu, eta agertzen digun Sakramentu orretatik, eta denbora berean gaurko otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun kontuz, Kristaua.

§ I.

Jesus maitagarria Sakramentu orretan dago bildots ill baten eran, ala ekusi zuan S. Juan Abanjelistak: *vidi agnum stantem tanquam occisum*. Piztu zan beñere ez illtzeko; baña añ da andia beraren ontasun, eta mansotasuna, non bildotsaren izena ematen dion. Baña zeñ gauz arrigarriak ez ditu egin gurekin bizitzeagatik? Oetatik asko ukitu ditugu len; baña gauz egokia da berriro gogora ekartzea. Zerurako egin ginduan Jaunak; baña Adanen bekatuarekin galdu genduan arako esku, eta deretxa guzia. Ainbesteraño urrikaldu zan guzaz Trinitadeko bigarren Persona, non jatxi zan Zerutik lurrera, eta Birjiña txit Santaren Sabelean egin zan gizon, eta gizonen artean bizitu zan denbora luzean, erakusten zuala Zerurako bidea, sendatu zituan eriak, argituitsuak, eta piztu illak.

Alderatu zitzaion gugatik bere bizitza. emateko, eta bere Aitagana joateko denbora; baña ez ginduan utzi nai, ume zurtzak bezala, mundu galdu onetan, baizik gurekin, eta gure biotzetan bizi nai zuan; au da, dio, nere atsegin, eta poza: *deliciae meae esse cum filiis hominum*. Etzaituet utziko ume zurtzen eran, esan zien Apostolui: *Non relinquam vos orphanos*. Orra, zuekin nago, eta egongo ere naiz munduaren bukaeraraño: *Ecce vobiscum sum omnibus diebus us que ad consummationem saeculi*.

Ostegun Santu arratsean, afaria asi zanean, agertu zuan atsegin, eta poz andi bat, Sakramentu miragarri on ipintzeko ordua etorri zala ekusirik, esaten ziela Apostolui: egarri andi batekin bizitu naiz, zuekin aparti au egiteko: *Desiderio desideravi hoc pascha manducare vobiscum*. Oroiz zaite,



Kristaua, nola Jaun andi onek (gauza guzien egillea bazan ere) garbitu ziezten oñak Apostolui, eta oen artean Judasi ere bai. Oroï zaite, nola Lege berriko Buru, ta Aita Santuak bezala eman zuan lenengo Meza, eta ipiñi zuan Sakramentu miragarri on eta nola eman zien Apostolui, eta oen ondorengo Apaizai Sakramentu bera egiteko, eta emateko eskua. Nik oraiñ egin dedana, egizue zuek ere gero nere izenean, eta nizaz oroitzen zeratela: *Hoc facite in meam Commemorationem.*

Au guzia egiñik, irten zan Jerusalendik: jarri zan bere Aitari erregutzen. Ekusten du, bere ikasle, eta Apostolu Judasek saldu duala, eta ipiñiko duala bere etsaien atzaparretan. Ekusten du, zer nekeak igaro bear zituan gugatik, eta ala ere geienentzat alferrak izango zirala oek. Tristuraz bete zitzaion biotza: *Caepit contristari.* eta len ainbeste egarrirekin edan nai bazuan ere pasioko kaliza, ezin bere gogoan sartu zitzaion: *Caepit taedere.* Ala ere eman zuan gurutzean bere bizitza. Arriturik geratu ziran Zeruak, eta lurra, ekusirik gauza guzien Egillea gure amorioz gurutzean illa. Arriak berak erdiratzen ziran, obiak askatu, eta ill asko irten ziran, eta zebiltzan Jerusalem. Jesusen guganako amorio oni deitzen dio S. Paulok geiegia: *Nimiam charitatem.*

Piztu zan, eta igo bere Aitagana: eta agindu zuan bezala, bidaldu zuan Espiritu Santua bere doaiakin. Egun onetan, gizon jakintsu askoren iritzian, Apostoluak eman zuen lenengo Meza, eta geroztik jartzen da, eta dago Sakramentu orretan, bildots illaren eran, gurekin eta gure artean bizitzeko gure biotzetara etortzeko, eta guri emateko bera dan guria. Oroï zaite, zenbat gauza miragarri egiten dituan Sakramentu orretan, azkeneko Erakusaldian esan genduan bezala. Baña zer bide gabeak ez ditu ekusi, eta ekusten len, ta gero? Au da oraiñ ekusi bear deguna.

§ II.

Milla, eta zortzi eun urte dira Jesus ona jartzen dala egun oro, eta egunean askotan Aldareko Sakramentuan. Zer bide gabeak ez ditu ekusi, ta ekusteñ gure artean? Elizaren lenengo denboretatik asi ziran herejeak Jesus onari Sakramentu orretan gerra egiten, eta badirau gerra onek Franzian, Inglaterran, Alemanian, Prusian, eta zabaldu dira Jesusen etsaiak bazter guzietan. Ezin irakurri ditezke egin diozkeen bidegabe itsusiak, izuturik, eta arriturik geratzen ezdala irakurlea. Beñ baño geiagotan erabilli due oñpean, eta ostikoka: surtan erre due, ganibetaz igaro, eta

iltzez josi due urkamendian. Zet geiago? Eman dieza zaldai zaldaletzat. Eta alaere; au guzia igaro du isillik, eta bildots mansoaren eran.

Bide gabe oek, diran bezeñ andiak izanda ere, ez dira añ samiñak, nola diran Jesus maitagarriak gugandik ekusi, eta ekusten dituanak. Etsaietatik zer uste izan dezake Jesus onak? Zer ezpada txarkeri, eta bidegabeak bidegabeen gañean? Baña autu gu Jesusek bere senide, eta adiskidetzat: guri ongi naiez etorri gurekin bizitzera, eta eman al guzia ematera, eta gugandik ekustea ekusten dituan; bide gabeak? Au da samintasun guzien samintasuna.

Zer bidegabe ote dira, gugandik Jesusek Sakramentu orretan ekusten dituanak? Oek ezagutzeko, asko da, nere Kristaua, gertatzen danari begiraldi bat ematea. Goazen Jaun andi ori gau ta egun dagoan Elizetara, zer ekusiko degu? Ekusiko degu, zeñ begiramentu edo errespeto gutxi gordetzen dioen askok Jaunaren etxeari: batzuek egongo dira lo, besteak au zabalka edo nagjak ateratzen batzuek erausian eta, manteliñatik-manteliñara asteko hipuiak kontatzen; besteak janzian, begiratzean, eta egorran modestiaren kutsu gabe: besteak beren gura txarretan gogo darabil-tela. Arriturik geratuko lirake Turkoak berak, au ekusiko balue Kristauen Elizetan eta oetatik batek etzuan gure Lege Santa artu nai izan, zeren Mahomaren etxe, edo Elizetan baño gureetan begiramentu gutxiago ekusi zuan.

Ekusiko degu gañera, zeñ bakardade andian egon oi dan Elizarik geienetan. Or dago gure erreguak bertatik bertara aditzeko gure neke, eta premiak arintzeko au, da dio, nere atsegin, eta poza, baña gau, ta egun arkitzen da bakarrik, eta aste guzia igaroko da, iñor ere agertzen etzaiola, batez ere erri txikietan. Badator jaia, zer ikusiko dezu? Ekusiko dezu, jaiak Jauna onratzeko, eta adoratzeko bereziak, eta autuak badira ere, orduan ugariago gertatzen dirala bekatuak; orduan iskanbillak, ordikeriak, mutil-len, eta neskatzen batzarre, eta biskuiak. Ekusiko dezu, asko daudela Elizen inguruan erausian, eta ez duela oñik Elizan sartu nai, Meza asi dedin artean, eta nola onelakoak Meza ongi enzungo due, gogoaren kontra Elizan sartzen, badira? Ekusiko dira Indietan zenbait Kristau, berreun, eta geiago legua urte oro igarotzen zituenak, Jesus adoratzeko, zeren alde-rago Elizarik etzuen. Eta guk, era guziak izan arren, Jesus adoratzera, etortzeko, alaere gutxi dira au egiten duenak. Orregatik Dabiden autik dio: emen nago ni, aztua: *oblivioni datus (psalm. 30)*, emen nago ni bakarrik, tellatuko zuloan bakarrik dagoan txoria bezala: *Factus sum sicut paser solitarios in tecto* (Psalm 101).



Ekusiko dezu, Jesus ona, gure biotzetara etortzeko egarriarekin, Sakramentu orretan jarri, bazan ere, asko dirala Sakramentu ori artzeko igesi dabiltzanak, edo berandutik berandura, eta orduan bortxaz bezala artzen duenak. Deitzen die Jesus onak, batzuetan konfesoreen, besteetan beren arzaien bidez, dijoazela prestaturik dauzkan, komunioko ardo, ogiak, edo berbera dana, Sakramentu ori artzera: Atozte, esaten die, jan ezazue nere ogia, eta edan zuentzat prestatu dedan ardoa: *Venite, comedite panem meum, et bibite vinum, quod miscai vobis* (Prov. 9). Baña gorrak, eta sorrak daude Jesusen deiak aditzeko: eta ez due berarren janari ori artzera etorri nai. Eta nork eztaikus, au dala eskergabekeria, eta bidegabe itsusia? Beldur izan ditezke oek gertatu ote dakien Jesusek berak afari andi baten hipui edo parabolan aditzera eman zuana. Gizon prestu batek afari andi bat eman nai izan zien bere adiskideai, eta deitu zituan, onetarako. Gauzak prest arkitzen ziran, eta biraldu zien morroia, zijoazen bereala, baña etzizaizkan joan. Batek eranzun zuan, erosi zuala baserri bat, eta ekusi bear zuala; besteak erosi zituala bost idiuztarri eta probatu bear zituala; besteak erosi ezkondu zala, eta ezin zijoakeala. Aserratu zitzaion afaria prestatu zuanari. Deitu zien inguruan arkitu ziran elbarri, itsu eta arloteari, eta esan zuan: Deituak izan diran oetatik batek ere ez du proगतuko nere afaria, au da betiko bizitzan prestaturik dauzkadan atsegin eta kontentuak. (Luc. cap. 114. v. 20).

Ekusiko dezu, Kristaurik geienak bizi dirala oatua bezala bekatuan, batzuek, zeren bekatuaren bide, etxe, eta lagun gaitoak utzi nai ez dituen, besteak, zeren bekatuaren oitura zurretan bizi diran; batzuek, zeren lagun urkoaren, edo erriaren gauzak biurtzen ez dituen, besteak beren karguetan nagiak, eta zabarrak diran. Oek guziak, Jaun orren maiera dijoaz, graziaren apaindura gabe: saltzen due Jesus Judasen eran: beren alegiñean berriro gurutzean ipintzen due, eta jaten due S. Paulok dionez, beren betiko galera: *Judicium sibi manducat, et bibit*.

Ekusiko dezu atzanean, bekatu larri, edo mortalean ez daudenen artean ere gutxi dirala ongi nai, eta amorio beroa agertzen dioenak Jesus maitagarriari eta bakanak izango dira epeldasun andi batean bizi ez diranak. Epeldasun au Jesus onaren biotzarentzat nazkagarria da, Obispo Jaun bati S. Joanekin gaztigatu zion bezala. Ojala, esan zion, otza, edo beroa baziña; baña zeren epela zeran, asiko naiz zu nigandik botatzen, nazkatzen duan gauza bat goora bota oi dan eran: *Sed quia tepidus es incipiam te evomere ex ore meo*.

Ekusten dezu, Kristaua, zer bidegabeak ekusi, eta ekusten dituan gugandik Sakramentu orretan gure Salbatzalleak? Bidegabe oen guzien

artean dago Jesus, eta egongo ere da munduaren bukaeraraño, arkume, edo bildots illaren eran. Esan zadazu oraiñ, nere Kristaua: guri onginaiez era onetan, eta ainbeste bidegabereren artean dagoan Jesus maitagarriaren amorioa norañokoa izango da? Galde S. Juani, eta esango dizu, ongi nai, eta amorioaren araurrenetaraño igaro zala. *In finem dilexit eos*. Ongi: eta au ezaguturik, oraiñ ezagutzen degun bezala, ez ote degu negar egingo gure eskergabekeri, eta bekatuen gañean? Ez ote degu amatuko gure Ongille Andi au benaz, eta biotz osoz? Onetarako asmo egiazko bat sortu dedin guban, jarri gaitezen Jaunaren aurrean belauniko, eta gogoan erabili ditzakun ukitu diran gauzetatik batzuek. (*Jartzen dira guziak belauniko, eta Erakuslea ere bai*).

1.

Begira, Kristaua, nola gau, ta egun dagoan gure Jesus ona Sakramentu orretan bildots illaren eran. Zenbat bidegabe ekusi ditu Judu, eta herejeetatik? Zenbat gugandik? Alaere bi milla urte aldean dira Sakramentu orretan dagoala, eta orobat gertatuko da munduaren bukaeraraño. Zuekin nago, eta egongo ere naiz, dio, munduaren bukaeraraño: *Ecce ego vobiscum sum usque ad consummationem saeculi*. O ongi nai, eta amorio geiegia!

2.

Nola utzi ez gaitu gure Jesus onak, ekusirik gure bidegabeak, eta eskergabekeria? Ez gaitu utzi, anima onai begiraturik. Baña ezpagera zentzutzen, beldur izan gaitetze, utziko gaituala, beste leku asko utzi izan dituan bezala, eta orduan bere Sakramentuakin igaroko da beste lekuren batzuek bere graziaren ur gozoakin umantzera: ta gu geratuko gera animako gauzetan goseak igaroak, eta erkituak. Au gerta eztaigun, damu andi batekin eskatu degiogun oraindañoeko eskergabekerien barkazioa: eta ar dezagun bizitza berri-on bat... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagan tokitik, eta bukatzen du erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Gure Jesus maitagarria! Andiak, itsusiak, eta nik uste nuan baño ere geiago dira gure artean ekusi dituzun bidegabeak: eta eztaikit, nola gugandik joan etzeran, obeto ezagutuko zinduen tokiren batzuetara. Zer egin dezaket nik, nere anima betiko ez galtzeko? Zer ezpada seme ondatzalleak egin zuana. Biurtu zan ura bere Aita onagana: esan zion: Aita egin det bekatu zure kontra: ez dagokit zure semearen izen onragarria; baña ar nazazu zure serbitzarien artean bederik: eta Aita Zerukoak barkatu zion guzia, eta biurtu zion sameari zegokan onra, eta izena. Zugana nator bada



ni ere, egin ditudan utsegiteen damuarekin, eta zu amatzeko, ta serbitze-ko asmo sendoarekin: ez nazazula arren zeregandik bota. Lagun zaikizkit asmo dedan bezala, zu amatzen, eta serbitzen: onela iristeko nere egunak ongi bukatzea, eta gero betiko bizitza. Amen.

OGEI, TA EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean seigarrena.

ALABATUA &.

Gure Jesus onak gu ume zurtzen eran mundu galdu onetan ez uzteagatik, erabaki zuan gure artean geratzea, gure biotzetara etortzeko, eta bere ondasunak emateko. Orra, esan zien Apostolui, zuekin nago eta egongo ere naiz munduaren bukaeraraño: *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consumationem saeculi.* Onetarako ipiñi zuan Sakramentu miragarri ori, lenagoko Erakusaldietan adirazi dan eran: eta berekin dakartzi ondasun guziz andiak, prestaera onarekin artzen duen animentzat. Ondasun oen gañean asitzen da itz egiten lenbiziko Komunioaren liburu, eta galdetzen du gisa onetan.

«Zer ondasun ote dakartzi Komunioko Sakramentuak? Erantzuten du: txit andi miragarriak, eta asko. Esaitzu andienak bederik. Lenengoa, animako janari, ta edaria dan bezala, animari graziaren bizitza ugaritzea. Bigarrena, ongi prestaturik artzen duanari bekatu benialak barkatzea. Iru-garrena, bekatu larrian ez erortzeko sendagai txit andia izatea.

Laugarrena, animaren etsaiak garaitzeko Zeruko indarrak ematea. Bostgarrena, bekatuak animan utzi oi dituan zauriak, nola diran onerako gogoaren gabea, eta gaitzerako makurtasuna sendatzea. Seigarrena, bekatuak oiturak, eta erraztasunak desegitea, eta birtuteak iristeko laguntzea.

Zazpigarrena, prestaera ederrarekin artzen duanaren biotzean ixurtzea, askotan beintzat, bere gozotasun miragarriak, animako pakea, eta atsegin-kontentu garbiak. Zortzigarrena, betiko bizitza doatsuaren prentzat gure biotzetan geratzea».

Orra Komunioko Sakramentuak dakartzian ondasunen gañean lenbiziko Komunioaren liburuak erakusten diguna. Ondasun oen ezaguera gutxi due Kristaurik geienak, eta emendik datoz jaiera gutxirekin, Sakramentu au artzea. Orregatik gauz ona ezezik, premiazkoa da ondasun oek zuei adiraztea alik ongiena, eta lenengo irurak izango dira gaurko itzaldiaren gai guzia, eta emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia ere. Enzun kontuz.



§ I.

Komunioko Sakramentuak dakartzian ondasunen artean lenengoa da animako janari, ta edaria dan bezala, animari graziaren bizitza ugari-tzea. Gorputzak badu bere bizitza, eta bizitza au ugaritzen, eta gordetzen da dagokan jan-edanarekin. Animak ere badu graziaren bizitza, oroi zaite ezperen konfesio on batekin zure animari gertatu zitzaionaz. Zure anima arkitzen zan bekatuz loitua, eta gorputz illa bezala. Etzan gai, edo gauza, ala zegoan bitartean, Zerurako irabazirik txikiena ere egiteko. Fedea eta esperanza illak arkitzen ziran, eta karidadearen birtute ederra galdu zan. Baña konfesioko Sakramentua ongi artu zenduan unean bertan Espiritu Santuak ixuri zuan zure animan graziaren doai miragarria. Doai bat zure anima piztu zuana bekatuaren eriotzatik. Doai bat, zu Jaungoikoaren adis-kide, beraren seme, ta Zeruaren jabegai, edo heredero egin zinduana: Apaindu zinduan karidadearen birtute andiarekin, eta Espiritu Santuaren doaiakin, eta gisa onetan geratu ziñan Zerurako bidean ederki ibiltzeko bizirik. Ona zertan dagoan graziaren bizitza. Bizitza onek, irauteko, eska-tzen du bere janari, ta edaria, bestela erraz argalduko, eta atzenean illko da. Zer janari, ta edari ote dira animarentzat, graziaren bizitzan irauteko? Otoiz, edo orazioa, Jaunaren itza, obra onai jarraitzea. Oekin ugaritzen da graziaren doaia. Baña Jesusen guganako ongi nai, eta amorio bazterga-beak asmatu zuan beste janari, eta edari bat, ez gizonak, eta ez Aingeruak asma zezakeana, au da Jesus bera zure biotzera etortzea, ta grazia ugari-tzea zure jaierraren neurrian, eta au da graziaren bizitza ugaritzea. Nere gorputza egiaz janaria da, eta odola edari, esaten digu Jesusek berak: *Caro mea vere est cibus, et sanguis meus vere est potus.*

Zeruko janari au ongi, eta sarritan artzen duanarekin gertatzen da Elias Profetari gertatu zitzaionaren anzeko gauza bat. Bizia kendu nai zion Jezabel Erregiñak Eliasi, eta onek, Erregiñaren asmoen berri ziakia-nak bezala, iges egin zuan eremu batera. Aunatu zan, eta loak artu zuan arbola baten azpian. Esnatu zuan Aingeru batek, esaten ziola: *Altxa ortik, eta jan ezazu.* Begiratu zuan Profetak, zer ote zan Aingeruak ekarri ziona, eta ekusi zituan supeko opea bat, eta ura. Jan zuan, eta edan, eta lotara zan berriro. Etorri zan bigarren aldian Aingerua opill batekin, eta urarekin, esaten ziola jan ezazu, bada luzea da igaro bear dezun bidea. Egin zuan Profetak Aingeruaren esana, eta supeko opearen indarrarekin ibilli zan berrogei egun, ta berrogei gautako bide luzean. Aingeruak Eliasi ekarri

zion supeko opea ark aditzera ematen zuan denboraz Jesus onak emango zuan, eta ematen duan Aldareko opea, edo Sakramentua: eta opea ark ain-beste denboran bizia eman bazion Eliasi. Zer egingo ez du, Kristaua, Sakramentu orretan zure biotzera datorren Zeruko ogiak, zuk ongi, eta sarritan artzen badezu? Eliasi opearekin gertatua baño, are geiago gerta-tu zitzen Israeltarrai Zeruko manarekin. Ejiptoko katiberiotik irten ondoan, bizitu ziran Israeldarrak eremuan berrogei urtez. Etzan an ez ogirik, ez artorik, ez aragirik. Alaere urte aetan guzietan bazkatu zituan Jaunak, egun oro Zerutik bidaltzen zien manarekin: au zan inzaren gisa erortzen, eta azi txikia bezala gogorturik geratzen zan gauza bat. Janari au ere zan Aldareko Sakramentuaren iduria, eta Elizako gurasoak Sakramentu oni deitzen dioe Zeruko manaren izenarekin. Esan zadazu, nere Kristaua, Israeltarren mana ark ainbeste denboran, eta ainbeste lagu-ni bizitza eman bazien. Zer egingo ez du Sakramentu orrek ongi artzen duen animetan? Baña zertako nekatzen gera, anziñako janari aek gogora ekartzen, Jesusek berak esaten digu, Ni jaten nauena, biziko da nigatik? *Qui manducat me, et ipse vivet propter me*

Baña gauz arrigarria! Alaere, Kristaurik geienak ez due janari au artzen, berandutik berandura baizik! Zeñ eskergabekeria itsusia! Baña goazen aurrera, eta dakuskun, Komunioko Sakramentuak dakarren, biga-rren ondasuna.

§ II.

Trentoko Konzilioak esaten digu, Sakramentu on dala, egun oroko bekatuetatik ateratzen gaituan, sendagaia; *Antidotum, quo liberamur á culpís quotidianis.* Emendik ateratzen degu, Komunioko Sa kramentuaren biga-rren ondasuna dala bekatu benialak barkatzea. Baña zer bekatu dira oek, eta nola barkatzen ote ditu? Enzun, Kristaua esatera noana. Bekatu benia-lak batzuek dira Komunioko denboran bertan egiten diranak, edo gutxie-nez egiteko gogo, ta gustoan dirauenak. Urliá, egin dezagun kontu, Komunioko denboran dago gogoa beste gauzatan darabilela, edo janzia-ren, begiratzean modestia gutxirekin. Sandia da ergelkeriara, ibiltzera, janera, edanera, alferkeriara geiegi etziña, eta griña oek uzteko asmo gabe jartzen da Jaunaren maiean. Bekatu oek dira Komunioko denboran ber-tan egiten diran edo dirauenak, eta ez ditu barkatzen aldi artako Komunioak; nola alabaña barkatuko ditu, orduan bertan egiten badira?



edo biotza, aetan erortzeko, prest arkitzen bada? Badira beste bekatu benial batzuek, ez komunioko denboran, baizik lenago gertatu diranak, eta oek izan ditezela gutxi, edo asko, kentzen, eta barkatzen ditu Komunioak, utzi badu biotzak aetara biurtzeko gogo, edo asmoa. Ala erakusten digu Santo Tomasek, eta onekin batean Teologoak.

Baia nola barkatzen ote ditu bekatu oek? Ara nola. Jesus ona Sakramentu orretan arkitzen da anima onetarako ongi nai, eta amoriozko karobi erazekia bezala. Etorri nintzan, dio, mundura, Jaunaren amoriozko sua animetan zabaltzera, eta zer nai det, su au erazekitzea baizik? *Ignem veni mittere in terram ¿et quid volo, nisi ut accendatur?*

Eta prestaera onarekin artzen danean, esnatzen du fedea, eta ekusten dio animari Jaunaren ontasun neurri, ta mugarik ez duana: esnatzen da gañera betikotasun guzian bera ekusteko, amatzeko, eta gozatzeko ustea, eta ondoren jaiotzen da animan, Jaunaganako amorioaren sua. Su onek desegiten ditu bekatu benial igarotako guziak, eta oetatik datorren animako epeldasuna. Burnia, erdoitua egon arren, garbitzen da, suteagian galdatzen danean, zeren suak jaten diozkan erdoiak eta au gertatzen zaio animan, prestaera onarekin artzen badu Sakramentu ori.

Baia izanik au onela, dan bezala, nola gerta diteke, eta gertatzen da S. Paulok diona, au da Sakramentu ori artuta ere asko argalak, ta erkituak bezala egotea animaren aldetik? *Multi inbecilles*. Gertatzen da au, zeren jaiera, eta debozio gutxiarekin jartzen geran Jaunaren maiean. Zeren gañera gure biotzak, olagarroa arkaitzari bezala, asko utsegite txikiri itsatsiak dauden. Zeren atzenean, Sakramentu ori artu ondoan betarik artu nai ez dan Jaunaren amoriozko sua biotzean sortzeko, eta beta artu lekuan, Elizatik lenbait len iges egiten dan. Nola burniari kenduko zaizka erdoiak suteagian, berotu dedin baño lenago sutegitik ateratzen bada? Ez da beraz zer miretsi, S. Paulok diona gertatzeaz, naiz artu dezala batek Sakramentu ori sarritan, naiz egun oro urteetan, eta urteetan. Ekusi dezagun oraiñ Komunioko Sakramentuak dakarren irugarren ondasuna.

§ III.

Ondasun au da bekatu larri, edo mortalean ez erortzeko sendagai txit andia izatea. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak: *Antidolum, quo... á peccatis mortalibus praeservamur*. Nola gordetzen ote du anima bekatu larrietan erortzetik? Gordetzen du anima benik beñ, zeren, esan degun

bezala, ugaritzen dan graziaren doai, eta bititza, eta zenbat eta au geiago ugaritzen dan, anbat urrutiago arkitzen da animaren eriotza, edo bekatu mortala. Zeren gañera ematen dituan Zeruko laguntza, eta indar berriak bekatuaren bideetatik aldegitiko, eta bekatuari lekuri ez emateko. Atzenean, zeren Sakramentu on, ongi artuta, biotzean dagoanean, izutzen, eta aienatzen duan etsaia. Badakus etsaiak, Sakramentu orretan dagoala, hura gurutzean garaitu zuan, Jesus Jaungoiko-gizona, eta jarri dala ongi komulgatu danaren biotzean: oroitzen da Pasioko denboran gertatuaz, eta igesi dijoa, zakurra len burua ausi dionagandik joan oi dan bezala. Orra nola gordetzen duan Sakramentu orrek anima bekatu larrietatik.

Bazan Paradisuan arbola bat *bizitzarena* deitzen zitzaiona. Añ miragarria zan aren indarra, non beraren frutarekin bizi zitekean gizona, eritasunik, zartze, eta eriotzarik ekusi bage; eta Sakramentu ori ez da gutxiago animarentzat; ori janaz alabaña bizi diteke anima bat, bekatu larri, edo mortalean erori gabe. Ogi au jaten duana, dio Jesusek berak, biziko da beti: *Vivet in aeternum*. Ogi au Zerutik datorrena da: eta ez da illko ogi onetatik jaten duana: *Hic est panis de Caelo descendens, ut siquis ex ipso manducaverit non morietur*.

Alaere asko daude illak animaren aldetik, S. Paulok dionez: *Dormiunt multi*, zeren Sakramentu ori gaizki artzen, eta animaren puzoi biurtzen duen. Nor ote dira oek? Oek dira dotrina ikastera saiatzen ez diranak. Oek dira bekatuak bideak uzteko biotzik ez duenak. Oek dira, lagun urkoari bekatuak bidea ematen dioen, itzegite, eta modu itsusiak utzi nai ez dituenak. Oek dira besteren gauza jabeari biurtzeko arretarik ez duenak, eta era berean bekatuak oiturak desegiteko neurri egokiak artu nai ez dituenak, Oek guziak bizitzaren arbolatik jaten due, eta alaere illak daude: *Dormiunt multi*.

Nere Kristaua, Sakramentu miragarri orren ondasun añ andiak galdu naiko dituzu emengo aurkeri, ta emengo ezer ezagatik? Non da zure fede, edo sinistea? Ea oraindano utsegiteen barkazioa eskatu degiogun Jaunari, eta egin dezagun asmo osoa, emendik aurrera Komunioko Sakramentuaren frutuak prestaera onarekin irabazteko. Jarri gaitezen onetarako Jaunaren aurrean belauniko, eta gogora ekarri ditza-kun denbora piska batean ukitu ditugun gauzak (*Jartzen dira guziak belau-niko, eta Erakuslea ere bai*).



Begira, Kristaua, Komunioko Sakramentuak dakartzian ondasunen artean lenengoa dala animari graziaren bizitza ugaritzea. Ni jaten nauana, biziko da dio Jesus onak: *Qui manducat me, et ipse vivet propter me*. Alaere asko dira Sakramentu on artzen ez duenak berandutik berandura baizik, eta orduan ere bortxaz bezala. Ez ote da zurekin ere au bera gertatu, aditzen zauden, Kristaua? Ez ote zera isekaz egon, sarritan Sakramentu on artzen duenen kontra?...

2.

Begira bigarrena, nola Sakramentu orrek barkatzen dituan bekatu benialak, prestaera onarekin artzen bada. *Antidotum, quo liberamur á culpís quotidianis*. Onela artzen duan animan esnatzen du fede, ta esperanza, eta erazekitzen du karidade, edo Jaungoikoaren amorioa, eta onek desegiten ditu bekatu benialen erdoiak. Baña au egin ote du, Kristaua, zurekin? Ez noaski, zeren, zu jartzen zeran Jaunaren maiean jaiera, ta debozio gutxi-rekin, eta Jauna artu ondoan arretarik ipintzen ez dezun karidadearen sua piztutzeko. Gañera zure biotza komunioko denboran bertan itsatsia dago emengo aurkeri, ta griña txarrai, eta nola barkatuko dizkigu bekatu benialak era onetan artzen degula Komunio Santua?...

3.

Begira atzenean, Sakramentu on dala bekatu larri, edo mortaletan ez erortzeko sendagai txit andia. *Antidotum, quo... a peccatis mortalibus praeservamur*. Au da egiaz bizitzaren arbola, eta emendik jaten duana biziko da beti, dio Jesusek berak. *Vivet in aeternum*. Alaere Kristaurik geienak illak daude bekatuan. Eta nola ote gaude gu Jaunaren aurrean?... (*Altxatzen da Erakuslea zerbait denbora gauz oek gogoan erabiltzen igarorik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Nere salbatzalle maitagarria! nere animaren bizitza! Berandu ezagutu det, nolako ondasunak Sakramentu orretan guretzat prestatu dituzun, eta orregatik añ erraz galdu izan ditut oraindaño. Zer egin aldezaket nik, kalte au desegiteko? Nik egin dezakedana da zuri Aita urrikaritsuari bezala barkazioa eskatzea, ta aurrera zu sarritan, eta prestaera onarekin artzea. Au da nere asmo guzia; baña ez naiz gai, edo gauza au egiteko zure lagunza gabe. Indazu bada lagunz au, onekin egin dezadan nik leialki, oraiñ erabaki dedana: onela zure ondasunak Sakramentu orretan artzeko, zure grazian irauteko, eta iristeko betiko bizitza. Amen.

OGEI, TA EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean zazpigarrena.

ALABATUA &.

«Zer ondasun ote dakartzi Komunioko Sakramentuak? galdetzen du lenbiziko Komunioaren liburuak: eta erantzuten du: txit andi, miragarriak, eta asko. Esaitzu andienak bederik. Lenengoa, animako janari, eta edaria dan bezala animari graziaren bizitza ugaritzea. Bigarrena ongi prestatu artzen duanari bekatu benialak barkatzea. Irugarrena, bekatu larri, edo mortalean ez erortzeko sendagai txit andia izatea.

Laugarrena animaren etsaiak garaitzeko Zeruko indarrak ematea.

Bostgarrena, bekatuak animan utzi oi dituan zauriak, nola diran onerako gogoaren gabea, eta gaitzerako makurtasuna, sendatzea. Seigarrena, bekatuak oiturak, edo erraztasunak desegitea, eta birtuteak iristen laguntzea.

Zazpigarrena, prestaera ederrarekin artzen duanaren biotzean ixurteza, askotan beintzat, bere gozotasun miragarriak, animako pakea, eta atsegin-kontentu garbiak. Zortzigarrena, betiko bizitza doatsuaren prentzat gure biotzetan geratzea.»

Ondasun oetatik lenengo irurak aditzera eman nizkintzun, Kristaua, azkeneko aldian. Laugarrena da, animaren etsaiak garaitzeko Zeruko indarrak ematea, eta au izango da gaurko Erakusaldiaren gaia, eta onen gañean egingo degu otoiz, edo orazioa ere. Asi gaitezen bertatik, nere Kristaua.

§ I.

Bataioko Sakramentua artu zenduanean, Kristaua, eman zizun Espiritu Santuak graziaren apaindura ederra: eman zizkitzun gañera fede, esperanza, eta karidadearen birtuteak, eta egin zinduan Jaungoikoaren Seme, Jesu-Kristoren senide, ta Zeruaeren jabegai, edo heredero. Ipiñi zizun Jesu-Kristoren artaldeko marka, beñere desegingo ez dana. Konfirmazioko Sakramentua artu zenduanean, egin zinduan Espiritu



Santuak Jesu-Kristoren gudari, edo soldadu, markatzen zuala zure anima, Jesusen gerrarien markarekin. Eta zu, ez nola nai, baizik gogotik pelea zindezen animaren etsai guzien kontra, ugari ixuri zituan zure animan bere doaiak. Ekusten zuan Jesus onak, era onetan orniturik ipiñita ere, zu sarritan arkituko ziñala perill andien artean, zeren prest arkitzen ziran zure kontra irteteko iru etsai guziz trebeak, eta leiatuak, nola diran Demonioa, mundua, eta aragia; eta zer asmatu zuala, uste dezu; iru etsai oek zuk garaitu ditzazun? Jarri zan Jesus bera Sakramentu orretan, zu giatzeko iru etsai orien kontrako guda, edo gerra guzietan, eta, garaitzeko bear dituzun, Zeruko indarrak emateko.

Zure animaren etsaien artean lenena, eta beste guzien buru, eta erregea da Demonioa. Au da munduaren asieratik antustez, edo soberbiaz Jaungoikoaren kontra altxa zan Aingeru gaiztoa, eta bere alde ipiñi zituan, nortaki zenbat beste Aingeru. Deitzen zaio era askotara: batzuetan Demonioa, besteetan *Deabrua*; batzuetan *Satanas*, besteetan *Luzifer* batzuetan: *anziñako suga*, zeren suga baten autik itzegin, eta bere loséntxakin engañatu zuan Eba; besteetan *gezurraren Aita*, edo gurasoa, zeren gezurrez amilderazo zituan bekatuan gure lenbiziko gurasoak. Etsai guzien Errege onek bere mendean ditu beste ezin konta al Aingurugaizto, bekatuan lagun, eta jarraikin izan zituanak, eta oez baliatzen da animai bekatuak bide, eta sareak ipintzeko, ala gauaz, nola egunaz, ala, lagun artean, nola bakardadean. Añ trebea da animak lillurtzeko, ta txoratzeko, non Jaunak utziko balio, alde aldean guziak engañatuko litukean.

Etsai izugarri au garaitzeko, Zeruko lagunak ematen ditu Jesus onak Komunioko Sakramentuarekin, prestaera onarekin artzen danean. Egiten du au bi gisatan. Egiten du lenengo lekuan, izutzen, eta aienatzen duala etsaia, komunioko Sakramentua ongi artu duan animagandik, Saragandik aienatu zuan eran. Sara Rakelen alaba zazpi bider ezkondu zan, eta zazpi senarrak urkatu zituan *Demonioak* Sararen gelara sartzeko unean, zeren dirudianeaz, asmo garbiarekin ezkondu etziran. Ezkondu zan gero Tobias gaztearekin, S. Rafael Aingeruaren esanez. Tobias gaztea zan gizon birtutetsua, eta ezkonzako arratsa igaro zuan, Sararekin batean Jaunari erregutzen, eta S. Rafaelek aienatu zuan etxe artatik etsai galgarria, eta kateaz loturik utzi zuna Ejiptoko eremu batean. Ez du gutxiago egiten Jesusek Komunioko Sakramentuarekin. Izutzen eta aienatzen du etsaia, eta loturik bezala uzten du. Orregatik dio S. Juan Krisostomok, komunioko maietik irten bear degula su darien leoiak bezala, eta izutzen degula *Deabrua: Tanquam leones ignem spirantes; facti Diabolo terribiles.*

Ematen ditu gañera Jesusek Komunioko Sakramentuan, etsai galgarria garaitzeko laguntzak, onetarako alaitzen, eta indarberritzen dirala anima.

Au onela izanik, Nola etsaiak bekatuaren sarean atxitzen, eta betiko su, eta garren artera eramaten ditu ainbeste anima? Zeren Komunioko Sakramentua edo utzitzen, edo prestaera txarrarekin artzen dan. Izutzen da, dio San Pedro Damianok; izutzen da Demonioa Sakramentu miragarri onekin: *Terretur adversarius*; baña nola izutuko da, artzen ez, edo gaizki artzen bada? Nola izutuko da, baldin bekatuaren biskarekin pozik badijoz Kristauak etsaiaren atzaparretara? Baña goazen animaren bigarren etsaiaren gañean itz egitera.

§ II.

Bigarren etsaia da mundua; baña munduaren izenez ez dezu aditu bear munduko etxe eder galant au, baizik emen bizi diran gaiztoak, naiz zarrak, nain gazteak, naiz gizonak, naiz emakumeak. Izan bitez edozeñ estadu, eta mallakoak, oek dira mundu galdua, Jesu-Kristori, eta Jesu-Zistoren animai gerra egiten ari diranak leku guzietan. Zoaz ezperen noranai, eta zuk arkituko dezu mundua izendatzen dan bigarren etsai au, animai bekatuak bide, eta sareak ipintzen toki guzietan. Arkituko dituzu gizon, eta mutil jai egunetan berandu etxeratzen diranak, edana, iskanbilla sarritan izan oi duenak: arkituko dituzu zar berdeak, bekatua erakusteko maisu txit andiak. Arkituko dituzu ezkututik animak galtzeko jakitudan asko aurreratu ziranak, eta beren losentxa, eta modu gaiztoakin lagun urkoak bekatuak kuturtzen dituenak. Arkituko dituzu emakume ergelak, janzian arroak, eta batetik bestera dabilzanak onestidade, eta modestiarik gabe. Oek dira berentzat, eta besteentzat bekatuak biska, eta lazoa. Zer esango det edari goixo, edo bizkorren ondoren dabilzanaz? Arkituko dituzu beren neke, eta izerdiarekin berak, eta umeak ongi, eta onrarekin igaro litezkean ez gutxi; eta edanari, alferkeriari, eta ibilliari eder iritzirik, bizi dirala onrarik gabe, umeai aziera txarra ematen diezala, eta toki guzietan aldituen tranpak egiten dituela. Zoaz gero errietako batzarreetan burua sartu duenetara. Ez det biderik emengo Jaun prestu-zintzoen kontra ezer esateko, baizik itzegingo det, erri ta batzarre askotan gertatzen diran gauzen gañean. Arkituko dira erriaren, eta komunaren ondasunai atzaparra egozten diezanak, eta alaere dakien askok edo ontzat ematen, edo isilik, eta kontra egin gabe uzten dituela kalte oek. Arkituko



dira batzarreetara asi ziranetik gaurdaño oker guziak ontzat eman dituenak, edo beñere aurik idiki ez duenak, auzoaren, aldearen, edo besteren baten beldurrez.

Oek guziak dira animaren bigarren etsaia, edo mundua: eta demonioak, berez ezin duana, munduaren bidez eragiten du toki guzietan, eta esan ditekete, munduarekikoa galtzeko beldurrez batzuek, eta munduaren losêntxakin besteak utziaz goazela Jesus, eta aituaz dijoazela Kristauak. Etsai au guk garaitzeko, ipiñi zuan Komunioko Sakramentu miragarria, eta ematen ditu Zeruko indar andiak, bear dan prestaerarekin artzen badegu. Elizaren lenengo denboretan altxa ziran askotan Kristauen kontra ekaitz andiak. Zer egiten zuen oek perill aetan, munduaren beldur guziak garaitzeko? Bakoitzak bere etxean gorderik zedukan Sakramentu on; perilla zetorreanean artzen zuan eta biotz alaiarekin irteten zan munduaren arma guzien kontra peleetzera. Ez da oraiñ ainbeste perill izan oi, baña esan ditekete, ez dirala kalte gutxiago dakartenak oraingo perillak eta garaitu nai baditugu, ez degu zabarkerian egon bear Sakramentu orrez baliatzeko; munduak alabaña zabaltzen ditu bere lazoak etxeetan, bideetan, batzarreetan, eta non nai, eta txit ernai bizi ez dana engañatuko du. Ez da au oraiñdaño ekusten, eta gertatzen dana? Baña etsai au garaituta ere, geratzen zaku irugarrena lenengo biak baño gogorragoa: au dan aragia, eta onen gañean oraiñ zerbait esan bearrak gera.

§ III.

Aragiaren izenez aditzen dira emen gaitzerako guban arkitzen diran gura, eta griña txarrak. Gura oek gurekin jaiotzen, azitzen, eta bizi dira, eta eziñ geregandik osotoro bota ditzakegu, eta beragatik da etsai guzien artean andiena. Garai onean eziko balira, ez lukee kalterik ekarriko, baña onela ezi bearrean, uzten zate nai duenarekin irteten, eta neke da gero, gura, eta griña txar oek eskuratzea. Asaldatzen du anima, batzuetan soberbiaren, edo ondasunen gurak; besteetan aragiaren atsegain lizunen naikundeak: batzuetan enbidiaren, eta gorrotoaren suak; besteetan neurriaz kanpora edateko, edo jateko naiak: batzuetan egin bear dituan gauzak egiteko nagitasunak, eta besteetan beste griñaren batek. Au da geren-gan ekusten degun gurutze astun, eta nekagarria.

Eta nork gordeko gaitu, nere Kristaua, bekatutik, etsai añ gaiztoa beti etxapean daukagula? Etsai au zai dago, noiz arkituko duan era, anima

gaixoari ekiteko, eta arkitzen duanean, erasotzen dio duan alegin guziarekin, eta nola garaituko degu? Nork aterako nau, zion S. Paulok; nork aterako nau nere gura txarren eriotza onetatik? *Quis me liberabit de corpore mortis hujus?* Ezagutzen du Apostolu Santuak, ezin au iritsi dezakeala bere indar utsakin, eta dio: nork ezpada Jesu-Kristoren lagunz, eta graziak? *Gratia Dei per Jesum-Cristum Dominum nostrum.* Grazia au guri emateko ipiñi zuan Jesus onak Komunioko Sakramentua, eta Sakramentu onetan ematen digu bera dan guzia, edo bere gorputza, odola, anima, eta Jaungoikotasuna. Eta bera dan guzia ematen duanak, zer ukatuko du? Zer indarrak, zer laguntzak ez diozka emango jainera andiarekin artzen duanari? Sakramentu onek sosegatzen ditu gura txar guziak, dio S. Zirilo Alejandriakoak: *Saevientem membrorum legem sedat:* itzaltzen, edo aienatzen ditu barrengo kezka, eta asaldazio guziak: *Perturbationes animi extinguit.* Egiten du askotan Jesusek, ongi artzen duen animakin, testamentuko kutzak Jordango urakin egin zuana. Josue bere Israeltarrakin Jordango ibaia igarotzeko zegoan, eta etzan onetarako zubirik. Agindu zuan Jaunak, sar zitezela aurretik Apaizak ibaiean, kutxa bizkarrean, edo sorbaldetan zuela. Ala egin zuen, eta gauza miragarria! Ibaiaren bealdeko urak joan ziran beren bidean, eta goialdekoak gelditu ziran mendi baten eran; eta bealde guzia jarri zan urik gabe. Orduan Israeltarrak igaro zitan ibaiaren beste aldera. Eta testamentuko kutzak (Sakramentu orren iduria baizik ezpazan ere) au egin bazuan Jordango urakin, zer egingo ez du Jesusek, Komunioko Sakramentuan anima onetara datorrenean?

Orra Kristaua, nola Komunioko Sakramentuak, animaren etsiak garaitzeko, Zeruko laguntz, eta indarrak ematen dituan. Alaere, zeñ gauza negargarria! Iru etsai oen mendean bizi dira animarik geienak, zeren bear dan prestaerarekin artzen ez duen Sakramentu ori? Eta au bera gertatu bear ote zaku aurrera ere? Au gerta eztagun, gogoan erabilli ditzakun ukitu diran gauzak, eta egin dezagun asmo osoa, emendik aurrera Komunioko Sakramentua prestaera ederrarekin artzeko, eta beraren indar, eta laguntzakin animaren etsaien kontra leialki peleetzeko. Jarri gaitezen Jaunaren aurrean belauniko (Belaunikatzen dira guziak, eta Erakuslea ere bai).

1.

Begira, Kristaua, zeñ dan, eta zeñ izugarria zure animaren lenengo etsaia. Au da Satanas, infernuko Dragoia, leku guzietan, zure anima atxitu naiez dabilena. Izugarria da etsai au, eta orroaz eizaren billa dabilen, leoi aserre baten pare ipintzen du S. Pedrok. Alaere izutzen du



Komunioko Sakramentuak, ongi artzen badegu. Baña etsai au garaitzeko, ongi, eta sarritan baliatu ote gera Sakramentu orrez?...

2.

Begira, zeñ dan bigarren etsaia. Au da mundua, edo munduan bizi diran gaiztoak. Oek Satanak berak baño, kalte geiago egiten due gure animetan, eta amilderazten ditue bekatuan, eta betiko suzko lizean. Etsai au garaitzeko aldegin bear da alegiñean lagun gaiztoetatik, eta sarritan artu bear da Komunioko Sakramentua. Ala egiñ ote dezu oraiñdañokoan? Egiñ ezpadezu, ez da zer miretsi, baldin etsai onek engañatu bazaitu bere biska, bere losentxa, eta beldurrarekin

3.

Begira, zeñ dan irugarren etsaia. Au dira zere etxapean bertan dituzun gura, eta griña txarrak. Ez da asko garaitzea Satanak eta mundua edo munduan bizi diran gaiztoak; baizik gauza bearra da guk gure griña txarrak ukatzea, ilduratzeta, eta alegiñean ezitzea. Ala agindu genduan bataio-ko egunean: eta Jesus onak esaten digu: nere ondoren etorri nai duanak, uka bere burua, edo bere griña txarrak: *Qui vult venire post me, abneget semetipsum*. Baña au guk ongi egiteko, bear ditugu Zeruko indar, eta lagunzak: eta oek dakartzi guretzat Aldareko Sakramentu miragarri orrek. Au onela izanik ere, ez degu arretarik izan Zeruko indar, eta lagunza oek billatzeko, eta garaitu gaitue gure griña txarrak ainbeste bider. Nere anima, ta au guzia ezagaturik, zer asmorekin arkitzen gera?... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Kristaua, trebeak, eta leiatsuak dira, aditu dezun bezala, gure animen etsaiak; baña zure alde jartzen bada Jesus, nor da zure kontra? *Si Deus pro nobis, quis contra nos?* Eta eztakizu, zure alde izango dala. Sakramentu ori ongi, eta sarritan artzen badezu? Eztakizu, zuri laguntzeko jarri dala Sakramentu orretan? Eztakizu, deitzen dizula Aita onak bezala? Zoazkio bada sarritan, eta beraren laguntzarekin asi zaite zure etsaiak garaitzen: eta denbora datorrenean, emango dizu zure nekeen saria, betiko bizitza doatsu. Amen.

BERROGEIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean zortzigarrena.

ALABATUA &.

«Zer ondasun ote dakartzi Komunioko Sakramentuak? Galdetzen du lenbiziko Komunioaren liburuak: eta erantzuten du: txit andi, miragarriak, eta asko. Esaitzu andienak bederik. Lenengoa, animako janari, ta edaria dan bezala, animari graziaren bizitza ugaritzea. Bigarrena, ongi prestaturik artzen duanari bekatu benialak barkatzea. Irugarrena, bekatu larri, edo mortalean ez erortzeko sendagai txit andia izatea. Laugarrena, animaren etsaiak garaitzeko Zeruko indarrak ematea.

Bostgarrena, bekatuak animan utzi oi dituan, zauriak, nola diran onerako gogoaren gabea, eta gaitzerako makurtasuna, sendatzea. Seigarrena, bekaturako oiturak, edo erraztasunak desegitea: eta birtuteak iristen laguntzea.

Zazpigarrena, prestaera ederrarekin artzen duanaren biotzean ixurtzea, askotan beintzat, bere gozotasun miragarriak, animako pakea, eta atseginkontentu garbiak. Zortzigarrena, betiko bizitza doatsuaren prentatzat gure biotzetan geratzea».

Ondasun oetatik lenengo lauak al nuan ongiena aditzera eman nizkitzun, Kristaua, azkeneko bi Erakusaldietan. Bostgarren ondasuna da, bekatuak animan utzi oi dituan, zauriak, nola diran onerako gogoaren gabea, eta gaitzerako makurtasuna sendatzea: eta au da gaur aurrena ekusi bear degun gauza. Seigarren ondasuna da, bekaturako oiturak, edo erraztasunak desegitea: au da urrena ekusi bear deguna; eta emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun arretarekin, Kristaua.

§ I.

Zu nere Kristaua, bataiatu ziñanean, apaindu zinduan Espiritu Santuak graziaren doai, eta janziera ederrarekin: ornitu zinduan fede, esperanza, eta karidadearen birtuteekin, oekin egiteko Zerurako irabazi, ta obra onak: eta zure egiteko andi onetan gogotik ari zindezen, zure animan ixuri zituan bere doaiak. Baña zer gertatu zan? Bekatuan erori ziñan,



eta galdu zenduan graziaren doaia, galdu zinduan gañera karidadearen birtutea, eta Espiritu Santuaren doaiak: eta zure anima geratu zan onerako narra, motela, eta gogorik gabe. Au da bekatuak animan utzitzen duan lenengo kutsu gaizto, edo zauria, eta zenbat eta aurrerago zoazen bekatuan anbat andiagoa izango da zauri au, edo obra onak egiteko nagitasuna, edozeñek erraz ezagutu dezakean eran.

Bekatuak animan utzi oi duan bigarren kutsu, eta zauria da gaitzera-ko makurtua geratzea, erantsitzen diola berez duan griñari beste berri bat. Adan gure lenbiziko gurasoa egin zuan Jaunak Zerurako: eta eman zion graziaren doai ederra, eta zuzentasun, edo justizia orijinala. Orduan gizonaren gura, ta griña guziak arkitzen ziran ezaguera zuzenaren, eta borondatearen mendean: etziran lotsagabetzen, etziran altxatzen borondatearen kontra, eta prest arkitzen ziran onek agintzen ziena egiteko. Zori oneko bizitza zan au, baña gutxi iraun zuan. Autsi zuan Adanek Jaunaren agintea, galdu zuan justizia orijinalaren doaia, eta une artatik geratu ziran gizonaren gura, eta griñak gaitzeron makurtuak, eta zaletuak. Gura oek mugonean ezitzen balira, ez lukee kalterik batere egingo; baña geienetan gertatzen dana, gura oei jarraitzea, eta animari erantsitza gaitzerako makurtasun berri bat, eta au da animaren bigarren zauria bezala. Gertatzen zaio bekatariari orduan erbi-zakur batekin gertatu ditekeana. Erbi-zakurrak berez dakar erbitarako griña. Alaere gazte dala oitutzen bada, etxean egotera, eta etxeko gauzai kontu egitera, uzten etzaiola basora, edo erbiak diran tokietara, aztuko zaio bere griña, baña eramaten bada eizera, eta oartzen bada arrastoaz, ez da erraz izango ari bere griña galeztea. Egunaren anza ezagutzen duanetik asiko da saunkaz, eta era duanean laster egingo du arrastoaren billa. Eta ona egun oro bekatariakin ekusten dana. Garai onean asitzen bada berez dituan gura, eta griñak ezitzen, illak bezala geratzen dira oek; baña zeren onetan zabartzen dan, amilderazten due bekatuetan, eta bekatu oek uzten due bekatu berriak, eta berriak egiteko gose andia, eta zenbait aldiz ainbesterañokoa izaten da gose au, non galdu izan duen batzuek zentzua ere.

Nola sendatuko ote zaizka anima gaixoari bi zauri oek? Komunioko sakramentua prestaera onarekin artzen duala, Sakramentu onek alabaña, era onetan artzen duala, emango dio animako atsegiñ, eta gusto bat, obra onak egiteko alaitzen duana: gusto bat emengo atsegin, eta gusto guziak garaitzen dituana: eta onek illko dio gaitzerako gogoa: eta sarritan artzen duala Komunio Santua, eta aldi bakoitzean atsegin, eta gusto berria, sendatuko zaizka bere bi zauriak, edo onerako gogoaren gabea, eta gaitzera-ko makurtasun andi ura. Egia au ongi ezagutzen due, bekatuaren bideak

utzirik, bizitza onean diarduen animak: eta esango digue, prestaera onarekin Komunio Santua artzen duanari Jaunak ematen dion atsegin-apur bat, geiago dala munduko gusto guziak baño. Eta ez da au miretsitzeko gauza; Jesus da alabaña atsegin, eta gusto egiazko guzien iturria, eta iturri onetatik bertatik dastatzen, eta edaten ditu, Santo Tomasek dion bezala, animako gozotasunak: *Spiritualis dulcedo tamquam in proprio fonte gustatur*. Gusto, eta gozotasun au progatzen ezpadu bekatariak, ori da, zeren prestaera txarrarekin artzen duan Sakramentu au, eta ausapia ongi garbitu ez duan. Goazen aurrera, eta dakuskun, nola komunioko Sakramentuak desegiten dituan bekatuaren oitura, eta erraztasunak.

§ II.

Bekatuak animan uzten dituan bi zauriak, edo onerako gogoaren gabea, eta gaitzerako makurtasuna, sendatzen dira, esan degun eran Komunioko Sakramentuarekin; baña askotan, edo geienetan ez dira sendatzen, zeren bekatariak arretarik ez duan bear dana egiteko. Emendik agertzen zaio bekatuaren zoldar, edo ezkabia, esan nai det bekatuaren oitura, edo erraztasuna. Urliak artu du oitura birauak botatzeko; sandiak juramentuak nola nai egiteko: urliak berandu etxeratzeko, eta gurasoi edozeñ lotsagebekeria eranzuteko; sandiak, bere umeak dotrina, eta Zerurako bidea ikastera, ez bidaltzeko. Urliak oitu da edari bizietara, edo duana edanean irintsitzera; sandia alferkeriara, ta zuloz zulo ibiltzera. Urliak itz loi, desonestoak esatera, ta keñada itsusiak egitera; sandia bere bakarrean, edo besterekin ukitze lotsagarriak egitera. Urliak, auzoari, erriari, edo komunari alduana arrapatzera, eta ez biurtzera; sandia lagun urkoaren onra, eta izen ona alegiñean gutxitzera. Oek guziak, eta beste asko arkitzen dira bekatuaren zoldar, edo ezkabiarekin, eta nolerebait bekatuan oatuak.

Miñanze au izugarria da, nondik nai begira dakiola. Illuntzen du bekatariaren adimentua animako gauzetan, eta ez du ekusten, nola arkitzen dan betiko su, eta garren artera amiltzeko zorian. Aditzera eman bekio onelako bekatariari bere perilla, eta adituko du besteren bati esaten zaion gauza bezala. Gogortzen, eta elkortzen du biotza bekatua bekatuari erantsiaz, mallukaria ari zaion ingudea bezala. Esan diteke onelako bekatariak, Job Santuak Luziferregatik diona: gogortuko da onelakoaren biotza arria bezala, eta mallukariaren txingudearen eran: *Cor ejus indurabi-*



tur tanquam lapis, et stringetur tamquam malleatoris incus. Ez du geroztik ezertan artzen Jaunaren itza; eta bidaltzen badiozka nekeren batzuek, gaizto-ago egiten da. Jo zinduan, esaten dio Jeremiasek Jaunari; jo zinduan zere zigorrarekin, eta ez due egindako gaiztakerien damurik artu: zeatu zinduan, eta ez due ikasi nai izan, zuk erakusten ziñutena: *Percusisti eos, et non doluerunt; attrivisti eos, et renuerunt accipere disciplinam.* Bekaturako oituraren miñanzeak berekin dakar gañera bekatuaren berrizkatura berrizkaturaren gañean: orregatik onelako bekataria izan oi da, gora botatzen duana berriz jatera biurtzen dan zakurra bezala, dio Eskritura Santak: *Sicut canis, qui revertitur ad vomitum suum, sic imprudens, qui iterat stultitiam suam.* Demagin, konfesatzen dala, eta bear bada aitortzen dituala bizitza guziko bekatuak: bereala nekatzen du leneko ibillera, eta atsegin gaiztoak osotoro uzteak, eta biurtzen da lenera. Azkenean bekatuaren oiturak berekin dakar bekaturo neurria igarotzeko perill txit andia. Jakizu nere Kristaua, Jaunak gauza guziaz ipiñi diela beren neurria, eta ezin neurri au desegin dezakegula. Ipiñi die gure urte, ill, aste, eta egunai beren neurria, eta ez gera muga onetatik aurrera igaroko. Ipiñi die gutatik bakoitzari, barkatuko diozkan bekatuai ere, eta neurri au igarotzen badegu bekatu bat bakarrarekin ere, galduak izango gera betiko. Eta nork eztaikus, bekatuaren oituran bizi dan bekataria lasterka dijoala bere bekatuen neurria igarotzera?

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ izugarria dan bekaturo oituraren miñanzea? Eta nork sendatuko du miñanze au? Jeremiasek dio, añ gaitz dala miñanze au sendatzea, nola dan Etiopiako batek bere larru beltza, eta katamotzak, edo tigreak bere nabardurak, edo mantxak uztea: *Si Aethiops mutare potest pellem suam, et pardus varietates suas, et vos poteritis bené facere, cum didiceritis malum.* Sendatuko du alaere, nere Kristaua, Komunioko Sakramentuak, prestaera onarekin, eta sarritan artzen badezu: au da alabaña betiko bizitzaren janaria: au da bekaturo ez biurtzeko sendagaia, eta len egiñen kalte, ta zauriak sendatzen ditu, dio S. Zirilok: *Collisos redintegrat.* Esan det *prestaera onarekin eta sarritan artzen badezu;* au ongi egiteko, gia zaite, ez zere burutik, baizik konfesorearen iritziarekin. Era onetan zure Jesus onak Komunio bakoitzean alaituko du zure anima, bere oitura gaiztoak garaitzeko, eta atzanean garbituko du ezkabi nazkagarri orretatik. Enzun ezazu, zer egin zuan Jesus onak Kafarnaun zeritzan erri baten aldean. Asi zitzaion gizon ezkabiz, edo lepraz bete zegoan bat, oska, esaten ziola: Jauna, *zuk nai badezu, garbi nazakezu.* Begiratu zion Jesusek: ukitu zuan eskuarekin, eta esan zion: Nai det bada: garbi zaite: *Volo, mundare.* Asko izan zan au, eria garbitua, eta sendatua geratzeko. Etzuan gutxiago egin Jerusalemgo Elizaren aldean elbarri batekin. Bazan an putzu miraga-

rri bat. Noizean beñ jatxitzen zan ara Aingeru bat, erabiltzen, eta nastutzen zuan ango uura, eta lenena sartzen zan eria sendatzen zan, zana zala eritasuna. Orregatik putzuaren ingurua bete egon oi zan gaixoz: oen artean arkitzen zan bat elbarria, eta oatua, ogei, eta emezortzi urteren denbora luzeetan, eta etzan sendatu zeren etzuan, nork putzura eraman, Ainguruak nastutzen zuanean uura. Ekusi zuan Jesusek elbarri au, eta esan zion: nai dezu sendaturik geratzea? Eranzun zion elbarriak: Jauna ez det nork putzura eraman bear dan denboran, eta nerau nolerebait joateko asi arren, bestek aurea artzen dit. Orduan esan zion Jesusek: *Ea, altxa oi orretatik: arrezazu oia, eta zoaz.* Ozta au esan zuan Jesusek, sendatu zan elbarria: artu zuan oia, eta joan zan nekerik gabe.

Ekusten dezu, Kristaua, nola Jesusek itz bat esatearekin garbitzen zituan ezkabidunak, eta sendatzen elbarriak? Ez du gutxiago egingo, eta egiten bekaturo oituraren ezkabiarekin, oatua bezala dauden bekatariarekin, baldin prestaera onarekin, eta sarritan artzen badue Sakramentu miragarri ori. Baña gauza negargarria! Gutxi dira bekatuaren oiturak utzitzen dituenak, eta oekin dijoaz obira, eta betiko su, eta garren artera. Nola gertatzen ote da au? Zeren biotzik ez duen beren oitura gaiztoak utzitzeko. Eta nola oen ezkabiak kenduko digu Komunioko Sakramentuak, utzi nai ezpadegu au? Bekataria, ez ote zera oraiñ bederik zentzatuko? Oitura gaizto oriek uzteko beldurrez, itu itsuan joan nai dezu betiko su, eta garren erdira? Betiko utzi nai dituzu Zeru eder oriek? Betiko, Birjiña guziz Santa, bekatarien Ama gozoa? Betiko, zure Jesus maitagarria, eta ainbeste nekerekin zuretzat irabazi zituan ondasun guziak? Ez det uste. Au gerta ez dedin, egizu bekataria asmo oso bat zure griña, eta oitura gaizto oriek desegiteko, baliatzen zerala sarritan Komunioko Sakramentuaren sendagaiaz. Onetarako jarri gaitzen balauniko Jaunaren aurrean, eta gogora ekarri ditzakun, ukitu diran gauzak. (*Belaunikatzen dira guziak, eta erakuslea ere bai.*)

1

Begira, Kristaua, nolako zauriak utzi dizkitzun bekaturo zure animan. Zauri oek dira zure anima geratzea onerako gogorik gabe, eta gaitzeron makurtua. Eta ez uste izan, zure animari egiten zaizkala markaren batzuek; ezin dateke au, izanik espiritu utsa; baizik aditu bear dezu, bekatuarekin anima gelditzen dala onerako nagia, eta gaitzerako gosetua bezala, eta oni deitzen diogu animako zaurien izenarekin. Denbora batean, Jaunaren beldur santuan bizi ziñanean, gogotik zinjoazen obra onetara, eta izutzen zinduan bekatuaren itsustasunak. Asi ziñan bekaturo



ren bideetan, eta geroztik gogoaren kontra dira obra on guziak; eta noiz-bait asitzen bazera gauz onetan, bereala aspertzen zera. Baña munduko zorakerietan, jolas, ibillera, eta atsegin lizunetan, etzera ala aspertzen, zeren aetara makurtua dagoan zure borondatea. Zauri oek sendatzen ditu Jesus onak, komunioko Sakramentua prestaera onarekin, eta sarritan artzen dala. Egin dezu au?...

2

Begira urrena, nolakoa geratu zeran bekatua bekatuari erantsiaz. Artu dezu bekatua egiteko oitura, eta erraztasun bat, sarritan bekatuan amilderazten zaituana. Kezkarik, eta ardurarik gabe uura bezala edaten dituzu bekatu larriak. Miñanze gaiztoa, eta gutxitan sendatzen dana da au, zerorrek ezagutu dezakezun bezala: eta onekin dijoaz bekatariak obiraño. Ote ta au, zeren ezin sendatu ditekean? Ez, baizik zeren bekatari onelakoak arretarik ipintzen ez duen Komunioko Sakramentua prestaera onarekin artzeko. Atozea zu, bekatuaren oitura gaiztoetan bizi zerana, ez da au zuri gertatu zatzuna? Eta onela garaitu uste dezu oitura gaiztoa? Ez dezu, ez, garaituko, eta amilka joango zera betiko infernura. Au gerta ez dakizun, egizu asmo osoa, emendik aurrera zure oitura gaizto oriek desegiteko, sarritan, eta prestaera onarekin artzen dituzula Konfesio, ta Komunioko Sakramentua... (*Altxatzen da Erakuslea belauniko dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Aditu dezu, bekataria, nola Sakramentu miragarri orrekin sendatu ditezkean, bekatuak zure animan utzi dituan zauriak, eta nola desegiten dituan bekatuak oiturak. Asi zait bada bizitza berri, ta on bat egiten. Utzi itzazu betiko bekatuaren bideak, etxeak, ta lagun gaiztoak. Garbi ezazu zure anima konfesioko Sakramentuarekin, eta zoaz gero zure animaren sendatzallea Sakramentu orretan artzera. Atozte, esaten digu; atozte neketan zauten guziak, nik emango dizuet bear dezuen laguntza, eta neke guzien gozagarria: *Venite ad me omnes, qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos*. Etzaitzela izan, bekataria, sorra, eta gorra zure Jesus onarekin; egizu beraren esana; eta zuk garaituko dituzu bekatuaren lotura oriek, eta iritsiko dezu betiko bizitza. Amen.

BERROGEI, TA BATGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean bederatzigarrena.

ALABATUA &

«Zer ondasun ote dakartzi Komunioko Sakramentuak? galdetzen du lenbiziko Komunioaren liburuak: eta erantzuten du: *txit* andi, miragarriak, eta asko. Esaitzu andienak bederik. Lenengoa, animako janari, eta edaria dan bezala, animari graziaren bizitza ugaritzea. Bigarrena, ongi prestaturik artzen duanari bekatu benialak barkatzea. Irugarrena, bekatu larri, edo mortalean ez erortzeko sendagai txit andia izatea. Laugarrena, animaren etsaiak garaitzeko Zeruko indarrak ematea. Bostgarrena, bekatuak animan utzi oi dituan zauriak, nola diran onerako gogoaren gabea, eta gaitzerako makurtasuna, sendatzea. Seigarrena, bekatuak oitura, edo erraztasunak desegitea, eta birtuteak iristen laguntzea. Zazpigarrena, prestaera ederrarekin artzen duanaren biotzean ixurtzea, askotan beintzat, bere gozotasun miragarriak, animako pakea, eta atsegin-kontentu garbiak. Zortzigarrena, betiko bizitza doatsuaren prendatzat gure biotzetan geratzea».

Ekusi degu leneko Erakusaldietan, Sakramentu miragarri orrek, bear dan prestaerarekin artzen bada, ugaritzen duala graziaren bizitza, barkatzen dituala bekatu benialak, eragozten duala bekatu larri, edo mortalean erortzea. Ekusi degu, ematen dituala animaren etsaiak garaitzeko Zeruko laguntzak sendatzen dituala, bekatuak animan utzi oi dituan zauriak, eta atzenez, desegiten dituala bekatuak oitura, edo erraztasunak. Ez da au Sakramentu orrek anima onetan egiten duan guzia; baizik laguntzen die birtuteen apaindura ederra, batez ere garbitasuna, eta karidadea iristen: eta au da gaur aurrena ekusi bear deguna. Era onetan apaintzen danean anima, ugari ematen diozka zenbait aldiz bere gozotasunak, pakea, eta atsegin-kontentu garbiak, eta Jesus bera geratzen da animan betiko bizitzaren prendatzat. Au da bigarren lekuan ekusi bear deguna. Eta emendik aterako degu otoi, edo orazioaren gaia. Enzun kontuz.



§ I.

Sakramentu miragarri orretan zugana dator, Kristaua nor uste dezu? Jesus maitagarria, Santutasun, eta birtute guzien iturburua: eta nai du, zuk zure anima edertzea, eta apaintzea birtuteen janziera ederrarekin, batez ere garbitasun, edo kastidade, ta karidadearekin. Orregatik berezkiro laguntzen dio animari birtute oek iristen.

Zer ote da garbitasuna, edo kastidadea deritzan birtutea? Au da beste birtuteen artean lirio zuri eder bat dirudiana. Au da birtute bat, atsegin lotsagarrien gura ildurutzen, eta ezitzen duana, ukatzen dieztela begiai, belarrai, eskuai, eta gorputz guziari atsegin debekatuak. Au da birtute bat gizona, onzi ustelkor, arrez, eta loiez betea bada ere, Aingeruen anzeko, eta nolerebait Aingeruak baño geiago egiten duana, dio S. Juan Krisostomok; zeren garbitasuna gordetzen duanak, milla perill garaiturik, egiten du Aingeruak neke eta perill gabe egiten duena, edo atsegin lotsagarriak utzitzea.

Birtute au txit asko agradatzen zaio Jesus maitagarriari. Zerutik lurrera etorri, eta gizon egin bazan, nai izan zuan onetarako Birjiña zan Ama; eta bere eriotzako orduan utzi zion Ama onen kontua Birjiña zan Apostoluari. Birtute au iristeko bada, ederki laguntzen dio Jesusek, prestaera onarekin Sakramentu ori artzen duan, animari. Laguntzen dio benik beñ izutzen, aienatzen, eta loturik bezala uzten duala etsaia, S. Pedro Damianok esaten digunez: *Terretur adversarius*. Baldin gurutzeak izutzen, eta aienatzen badu etsaia, Jesusen anz, eta iduria dalako zer egingo ez du Sakramentu orrek, non dagoan Jesus bera? Laguntzen dio gañera, ematen diola barrengo gozotasun bat, aragiaren atsegiñ guziak garaitzen dituana, eta orduan dio animak: gorotza baño ere ezer ezagoak dira munduko atsegin guziak, Jesusek Sakramentu onetan ematen duan, atsegiñaren pare ipintzen badira. Laguntzen dio atzenean garbitasun, edo kastidadea iristen, zeren, S. Zirilo Alejandriakoak dionez, itzaltzen dituan aragiaren su, eta garrak. Gazte bat txit neke andian bizi zan alde onetatik. Ezkondu zan Konfessorearen iritziarekin: gutxitu zan zerbait nekea, baña ez asko. Alargundu zan, eta arkitu zan leneko gurutze pisuarekin, Konfessoreak esan zion, prestaera onarekin, eta sarritan ar zezala Komunioko Sakramentua: ala egin zuan, eta geratu zan pake gozo batean, eta gero esaten zuan. Ai! eta zertako ezkondu ninzan, sendagai añ andia Komunioko Sakramentuan neukala!

Baña demagun gurutze au ez dala kentzen bereala, Komunioko Sakramentua sarritan artuta ere, dala zeren lenago gura txar onetan geiegi biotza ipiñi zan, dala zeren jaunak umillatu nai duan anima bat, ezagutu dezan bere ezer eza. Baña orduan gordeko du Komunioko Sakramentuak gura txarrari leku ematetik, eta era onetan eragingo diozka Zerurako irabazi andiak. Enzun, Kristaua, Danielen iru lagunakin gertatua Babiloniako labean. Iru gazte oek, ez esku-oñetan lotu, eta boterazo zituan Nabuko-Donosor Erregeak labe gori izugarri batean, zeren adoratu nai izan etzuen Erregeren idoloa. Añ andi, eta bizia zan labe artako sua, non berrogei beso, ta geiago altxatzen ziran garrak, eta oen indarrak bereala ito zituan, iru gazteak labean botatzera joan ziran gizonak. Ozta iru gazte aek jatxi ziran labean beera, Aingeru batek alderagin zien su, eta garrari: zabaldu zuan inz, eta aize gozo bat, eta onekin inguratzen zitala, gorde zituan suaren kalte guzietatik. Eta orra Sakramentu miragarri orrek anima onakin askotan egiten duana, gura txarrak labe gori batean bezala ipintzen baditu ere. Bidaltzen die Zeruko graziaren inz, eta aize gozo bat, eta gordetzen ditu bekatuari leku ematetik. Ekusten dezu, nola laguntzen duan Komunioko Sakramentuak garbitasun, edo kastidadearen birtute ederra iristen? Orregatik Zakarias Profetak, urrutitik begiratzen ziola Sakramentu oni, deitzen dio, Zerurako autuak diranen ogia, eta Birjiñak egiten, eta sortzen dituan ardoa: *Frumentum electorum, et vinum germinans Virgines*. Eta au onela izanik, dan bezala, nola arkitzen da gaurko egunean mundua? Dionez txit loitua, enasa, eta nazkagarria, zeren Sakramentuetatik igesi dabillen, edo bear dan prestaera gabe artzen dituan.

Komunioko Sakramentuak bera ongi artzen duanari laguntzen dio gañera karidadearen birtutea iristen. Nola ote? Ara nola. Prestaera onarekin artzen dala Sakramentu ori, esnatzen da fedea, eta ekusten du animak Jaunaren ontasun neurririk, eta mugarik ez duana. Ekusten du, Jaun ori dala Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa bera; eta etorri zaiola bere biotzera emateko bere gorputza, bere odola, eta bera dan guzia. Esnatzen zaio betiko ondasunen ustea: eta ondoren jaiotzen da Jaungoikoaganako amorioaren sua. Su au gure biotzetan piztutzeko etorri zan Jesus Zerutik lurrera; egin zan gizon, eta gugatik bere bizitza eman zuan: eta au gutxi bazan bezala, jarri zan Sakramentu orretan gubanako ongi nai, ta amorioaren karobi bat egiña, eta dator gure biotzetara, onela bederik sortu dedin guban Jaungoikoaganako amorioa. Etorri nintzan dio mundura, Jaungoikoaganako amorioaren sua animetan zabalzera eta zer nai det, su au erazekitzea baizik? *Ignem veni mittere in terram, et quid volo, nisi ut accen-*



datur? Emendik ezta miretsitzeko gauza, asko Santuren biotzean amorio, edo karidadearen sua irakurtzen degunez, añ andi, eta erazekia izatea. S. Felipe Neriren biotza ainbesteraño erazekia zegoan Jaunaganako amorian, non eziñ kabitu zitzaizkan amoriozko garrak barrenen, eta autsirik bi saietsezur, zabaldu zion Jaunak barrengo lekua. Santa Teresa, S. Luis Gonzaga, Santa Maria Magdalena Pazis ill ziran, ez ainbeste gaitzaren indarrez, nola Jaunaren amorioz. Ez da au, berriz diot, miretsitzeko gauza, Sakramentu miragarri ori gure biotzetara datorren ezker; baña miretsitzekoa da, gu beti otzak, edo epelak geratzea. Burnia sutegian berotzen, eta erazekitzen da: arria karobian galdatzen, eta auts biurtzen da eta gu ainbeste Komunioren ondoren ez gera berotzen? Zertan ote dago au? Dago gure prestaera txarrean: dago gure biotzak buztin uts biurtuak egotean, lurreko atsegin, edo ezer ezaren ondoren dabiltzala, eta guziok dakigu, buztiña ez dala biguintzen, eta gozatzen surik andienarekin ere. Baña goazen aurrera, eta ekusi dezagun, nolako gozotasun, eta ondasunak ixurtzen dituan Jaunak bere serbitzarien biotzetan.

§ II.

Birtuteak iristen laguntzeaz gañera, prestaera onarekin artzen duanaren biotzean ixurtzen ditu askotan beintzat, bere gozotasun miragarriak. Gorputzaren janariak, berekin dakar bere gustoa, eta artzen duanari ematen dio au baldin sasoi onean, eta ausapai garbiarekin badago; eta au bera egiten du animan Sakramentu miragarri orrek, Florenziako Konzilioak esaten digun bezala. Añ andia da askotan gusto, ta gozotasun au, Santo Tomasek dionez, non ezin adirazi ditekean. Baña eztaki munduak gozotasun oen berririk: eta Kalataiud beneragarriak dio, Sakramentu ori artzen duenen artean ez dirala izango eunetatik lau Komunioko Sakramentuak dakartzian gusto, eta gozotasunak ezagutzen dituenak. Zergatik au? Zeren geienak gaizki arzen duen. Zeren gañera, bekatu larri, edo mortalean ez daudenak ere, bekatu benialen gogoa, edo aetarako borondatea utzi gabe jartzen diran Jaunaren maian. Eta nola Komunioko Sakramentuaren gusto, ta gozotasunak artuko ditugu, gure gogo, ta borondatea itsasiak badaude, lurreko atsegin zirzilletan? Israelitik, Ijitoen artean katiberio gogorrean bizitu ziran bitartean, oitu ziran porru, baratzuri, eta oen anzeko gauzetara: eta gero, Jaunak eremuan bidaldu zienean mana, Zeruko janari gozoa, etzioen askok gustorik

artzen, zeren gogoa zedukeen Ejiptoko porru, ta baratzurietan. Eta ona Kristaurik geienai gertatzen zatena Sakramentu miragarri orrek: ez dioe gustorik artzen, zeren gogoa emengo aurkeriai, edo atsegin, eta gustoai itsatsia daukeen.

Gusto, eta gozotasunen ondoren ematen die Sakramentu orrek anima onai barrengo pakea. Animako gerra guzia datorkigu gure grña txarretatik: baña Komunioko Sakramentuaren gozotasunarekin grña guziak geratzen dira illak bezala, eta anima arkitzen da pake gozo batean. Pake au ipintzen du S. Paulok Espiritu Santuaren fruituen artean.

Pakearekin batean ematen diozka Sakramentu orrek askotan, ongi artzen duan animari, atsegin-kontentu garbiak. S. Juan Ebanjelistak adiratzeko nolerebait doatsuen Zeruko atsegin-kontentuak, dio, Jaungoikoaren, eta bildotsaren jarlekutik irteten dala ur biziaren itsaso, edo ibai bat erri guzian zabaltzen dana: au da Jesusen Jaungoikotasunaren edertasunagandik zabaltzen dala atsegin-kontentuen ibai bat doatsu guziak betetzen dituan, ainbesteraño, dio Dabidek, non alde guzietatik inguratu, eta aseko dituan: *Inebriabuntur ab ubertate domis tuae, et torrente voluptatis tuae potabis eos*. Ezin gizonak iritsi dezake Zeruko atsegin aen anditasuna; baña Jesus onak Komunioko Sakramentuan ematen diezte anima onai atsegin garbien tanta batzuek, emendik igerrri dezen Zeruko anditasuna. Atsegin oek dastatzea, ta progatzea asko izan da batzuentzat arriturik, eta kordegabe geratzeko. Ala geratzen ziran S. Franzisko Asis, eta Santa Katalina Senakoa, Komunio Santua artzen zue-nean: eta S. Franzisko Jabier, Meza esaten zegoanean, askotan geratzen zan lurretik altxatua, eta ezer aditzen, eta ekusten etzuala.

Atzenean Komunioko Sakramentua ongi artzen duanaren biotzean Jesus bera geratzen da betiko bizitzaren prendatzat, Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala. Jesus onak agindu die bere adiskideai betiko bizitza: bera da betiko bizitzaren arbola, eta emallea: eta eman duan itzaren prendatzat Jesus bera dator gure biotzetara. Arritu zaitezte Zeruak, eta lurra, ekusirik Jesusen gudanako amorio geiegia! Ta au guzia egin gure Jesus onak! eta alaere gu arkitzen gera birtutearen biderik ikasi gabe? eta Sakramentu orren gozotasun, eta atsegin garbiak dastatu, eta progatu gabe? Ez ote degu oraiñ artuko asmo oso bat, Jaun andi orren maian prestaera eder batekin jartzeko? Ea, nere Kristaua, egin dezagun asmo oso au; eta oneterako gogoan erabilli ditzakun denbora pixka batean, ukitu diran gauzak. Jarri gaitezen Jaunaren aurrean belauniko. (*Jartzen dira guziak belauniko, eta Erakuslea ere bai*).



1

Begira, Kristaua, nola Sakramentu miragarri orrek laguntzen dion, prestaera onarekin artzen duanari, birtuteak iristen, batez ere kastidade, edo garbitasuna, eta karidadea; da alabaña Zerurako autuak daudenen ogia, eta Birjiñak egiten dituan ardoa: *Fruentum electorum, et vinum geminans virgines*: da amoriozko Sakramentua. Ta nola arkitzen ote zera Jaunaren aurrean?

2

Begira urrena, nola Sakramentu orretan Jesus onak ixurtzen dituan bere gozotasun miragarriak, animako pakea, ta atsegin-kontentu garbiak. Zer geiago? Gure biotzetan geratzen da betiko bizitzaren prentatza. Ala esaten digu Eliz Ama Santak: *Mens impletur gratia, et futurae gloriae nobis pignus datur*. Alaere gutxik dastatzen, eta progatzen ditu Sakramentu miragarri orrek dakartzian gozotasun, eta atsegin-kontentuak: zeren gutxi diran animaren ausapia ongi garbitzen duenak: gutxi, lurreko atsegin, gusto, eta gauzetan biotza ipiñia ez daukeenak, eta nola Komunio Santuaren gozotasun, eta atsegin garbiak artuko ditugu, biotza, ta gogoa emengo basikerietan eta ezer ezean dauzkagula? Ez ote gera noizbait asiko Sakramentu miragarri ori prestaera onarekin artzen? Gizonen umeak, otsegiten du Dabidek: noiz artean zuen biotzak izango dira onerako añ narrak, nagi, ta pisuak? *Filii hominum: usquequo gravi corde?* Ea egin dezagun asmo oso bat, Sakramentu ori prestaera eder batekin, eta sarritan artzeko: orduan apainduaz joango dira gure animak birtuteen janziera ederrarekin, eta progatuko ditugu Komunio Santuaren gozotasun, eta atsegin garbiak. (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Nere salbatzalle ezin geragoraño on, eta maitagarria! Andiak eta ugariak dira Sakramentu orretan guretzat dakartzitzun ondasunak, oen artean gaur aitatu diranak; baña guk ez ditugu ezertan artu, eta ezagutu ere. Lotsaz beterik arkitzen gera, gure eskergebekeria oni begiraturik. Urrikaldu zaite arren guzaz: ukitu itzatzu biotz oek, damuz desegin ditezen: iguzu arren zure lagunz ugaria, emendik aurrera zu biotz garbiarekin artuaz birtutez birtute joateko, zure Sakramentu orrek guretzat dakartzian ondasunak ez galtzeko, eta onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.

BERROGEI TA BIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amargarrena.

ALABATUA &.

Andiak, eta txit miragarriak dira Sakramentu orrek guretzat dakartzian ondasunak, eta oen gañean itzegin dizut, Kristaua, azkeneko lau Erakusaldietan. Orain lenbiziko Komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Guziak artzen ditue, komulgatzen diranean, ondasun oek. Eta eran-zuten du: ez, Jauna, zeren asko diran Komunio gaiztoak egiten dituenak. Zer bekatu da Komunio gaiztoa? Sakrilejio guziz izugarria, zeren Judasen eran saltzen duan Jesus, Jaungoiko biziaren semea, eta beregan danez berriro ipintzen duan gurutzeko neke-oñazeen artean: orregatik jaten, eta edaten du, S. Paulok dionez, bere betiko galera.

Komunio gaiztoa ez egiteko zer bear da? Iru gauza: lenengoa, zer, eta nolako prestaerarekin artu bear dan jakitea. Bigarrena Jaunaren grazian egotea. Irugarrena *barau naturalean*, edo gau erdia ezkerre ezerere jan, eta edan gabe egotea. Onezko damu, edo kontrizioarekin Jaunaren grazian jartzen bada bekataria, komulgatu ote diteke? Konfesio gabe ez, Jauna. Iltzeko perillean Sakramentu au artzen duanak Biatikoaren eran, artu ote dezake, baraurik egon ez arren? Bai, Jauna. Esan dituzun iru gauz oek asko ote dira Komunioko Sakramentuaren ondasunak artzeko?». Asko dira gizon jakintsuen iritzian, Sakramentuaren ondasunetatik zerbait artzeko, baña ez ugari artzeko. Orra lenbiziko Komunioaren liburuak gai onetan dakarrena.

Zu, nere Kristaua, aspalditxo bizi zera, komunio gaiztoak egiten dituzula, batzuetan lotsaz aitortu-gabe zure bekatuak, beste batzuetan lagun urkoetarako gorrotoa, eta zure biotzeko zimurtura, eta asmo txarrak utzi gabe; batzuetan, zeren izan ez dezun, bekatuak bideak uzteko, oitura gaiztoak desegiteko, besteren gauza jabeari biurtzeko, edo zere karguari erantzuteko biotzik. Uura bezala kezka andi gabe esan dituzu Komunio gaiztoen bekatuak. Ai! eta baziñaki, zeñ itsusia dan Komunio gaiztoa! Bearbada arriturik negar egingo zenduke! Au ezagutu dezazun, begiratu bear dezu gaur, aurrena: zer egin zuan Judasek, eta zer egin dezun zuk. Urrera, zer Juduak, eta zer zuk. Atzanean, zer dion S. Paulok



komunio gaiztoaren gañean: eta emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Judasen izena aitatze utsarekin nori nai gogora etortzen zaio beraren eskergabekeria itsusia. Alaere au ongi ezagutzeko, oroi zaite, Kristaua, nor zan Judas, eta zer egin zuan. Judas zan gizon bat Jesus onak ezer ezetik atera, eta onrarik andienetera altxa zuana. Deitu zion Jesusek bere ikasleen artera, eta berarekin, ta beraren maiean bizitu zan. Egin zuan bere Apostolu, eta Elizako kargudun andi, eta eman zion mirariak egiteko eskua ere. Zer egin zuan Judasek? eskergabekeria guziz itsusi bat. Joan zan Juduen buru, ta agintarietara, eta saldu zien bere Maisua ogei ta amar dirutan. Jesus Getsemaniko baratzen bere Aitari erregutzen zegoan denboran, ara giatu zituan Juduak, eta erakutsi zien nor zan Jesus, ematen ziola laztan, eta musu gezurrezko bat. Era onetan ipiñi zuan bere Maisu, ta ongille andia bere etsaien atzaparretan. Edozeñek ekusten du, guziz itsusia izan zala Judasen bekatua: eta añ itsusia iritzi zion berak ere, non, barkazioaren uste guzia galdurik, urkatu zuan bere burua.

Eta zer ote da zuk ainbeste Komunio gaiztoarekin egin dezuna? Judasen eskergabekeria, ta bekatua baño itsusiagoa dan eskergabekeria. Egin zinduan Jaunak Zerurako: deitu zinduan bere fede, eta lege Santara, utzirik beste asko federik ez dan lekuetan. Bataioko Sakramentuarekin apaindu zinduan graziaren janziera ederrarekin: egin zinduan Jaungoikoaren seme, Jesu-Kristoren senide, eta Zeruaeren jabegai: artu zaitu bere maiean, zuk nai izan dezun aldi guzietan, eta eman dizu eman al guzia, edo bere gorputza, bere odola, bere anima, eta Jaungoikotasuna: itz batean, bera dan guzia. Eta zer egin dezu zuk? Saldu dezu zure Jauna bekatu egin dezun aldi bakoitzean, eta adiskidearen idurian jarri zera beraren maiean, eta artu dezu zere ezpaili lo, eta barrunbe nazkagarrian: eta zure bekatu au Judasena baño askoz itsusiagoa da. Itsusiagoa bai, zeren Judasek beñ bakarrik saldu zuan Jesus; eta zuk askotan: Judasek saldu zuan Jesus, artean gugatik bizitza eman etzuan denboran; baño zuk saldu dezu, gugatik bizitza eman zuan ezker: Judasek saldu zuan Jesus ogei ta amar dirutan; baño zuk saldu dezu atsegin-apur lotsagarri bategatik, edo obeto esateko ezer ezagatik: *Pro nihilo*. Judasek saldu zuan Jesus bere Maisu, eta ongille andia, baño etziakian ongille au zala Jaungoiko, eta

gizon egiazkoa: eta zuk saldu dezu, dakizula, Jesus dala Aita betikoaren seme bakarra, Trinitadeko bigarren Persona, eta Jaungoiko egiazkoa. Eta ezaguturik au, izan dezu ausardia Sakramentu miragarri ori biotz nazkagarri orretan artzeko? Judasi adiskidearen idurian laztan eman zionean, esan zion Jesusek: Judas, adiskidea baziña bezala musu ematen didazu, eta onela nere etsaien atzaparretan ipintzen nazu? *Juda, osculo filium hominis tradis?* Au bera esaten, eta esango dizu zuri ere: *Urlia, adiskidearen idurian zatoz nere maiera, eta onela saltzen, eta ipintzen nazu nere etsaien atzaparretan? Osculo filium hominis tradis?* Baña goazen aurreraxeago, eta begira, zer egin zuen Juduak, eta zer egin dezun zuk.

§ II.

Juduak ziran Judas Patriarkaren odolekoak, eta odol au autu zuan Jaunak mundura etortzeko, eta gizatasunaren janzia artzeko. Odol oneta-koak ziran Birjina txit Santa, eta S. Jose ere. Denbora luzean egon ziran Juduak Salbatzallearen itxedoten, eta sarritan otsegiten zioen Jaunari, bidal zezala agindu zien Salbatzallea. Bete ziran denborak: etorri zan Jesus: bizitu zan Juduen artean, erakusten ziela Zerurako bidea, ala itzez, nola obrax; sendatzen zituan eriak, argitzenitsuak, piztutzen illak, eta etzuen alaere ezagutu nai izan beren Salbatzalletzat; eta aintzakotzat eza-gutu bearrean, munduan zan gizonik gaiztoena bezala lotu zuen Getsemaniko baratzen: eraman zuen Jerusalem: erabilli zuen ethez ethez: azotetz urratuta, aranzaz koroatu zuen: atzenean illerazo zuen gurutze batean, lapur biren erdian. Izugarria izan zan Juduen bekatua: eta ordutanik bizi dira Jaunaren aserre, eta madarikazioaren azpian, erreñurik gabe, leku batean, eta bestean zabalduak: eta are gaiztoago dana, itsuak, eta gorrak Zerurako bidea artzeko.

Eta ez ote da itsusiagoa, nere Kristaua, zuk Komunio gaizto oriekin egin dezuna? Bai, itsusiagoa da. Juduak, egia da, lotu zuen Jesus: eta zuk ez dezu gutxiago egin: sartu dezu goroztegitik zikiñena baño zikiñagoan, eta ipintzen dezu loturik bezala, au da egin nai zizkitzun ontarte, eta mesedeak eziñ egin ditzakean eran. Juduak azotetz urratu zuen, eta koroatu aranzaz: eta zuk au bera egin dezu komunio gaizto bakoitzarekin, zere alegiñean. Orregatik agertu izan da iñoiz Jesus guzia zauriz betea, eta odola dariola. Era onetan agertu zitzaion Doña Santxa Karrillori, eta esan zion: *orra zertako diran askoren Komunioak*. Juduak naiago izan zuen



Barrabas bizitzea, eta eskatu zuen, ill zedilla Jesus: *Tolle, crucifige eum.* eta zuk naiago izan dezu Satanaz zure biotzean bizitzea, eta Jesus illtzea. Juduak beren gañean artu zuen Jesusen odola, eta eriotza, eta arreizkero badarraite Jaunaren madarikazioa: eta zuk Jesusen odola zere gañ artzea gutxi baliz bezala, jaten, eta edaten dezu odol ura bera. Juduak atzenezan illerazo zuen Jesus gurutzean: zuk ez dezakezu ori egin; piztu zan alabaña beñiere ez iltzeko, baña ainbesterañokoa izan da zure gorrotoa Jesusen kontra, non kontentatu etzeran beñ igaro zuan eriotzarekin, baizik berriro gurutzean ill nai izan dezun eziñ ill ditekeana. Ala esaten digu S. Paulok: *Rursum crucifigentes sibimetipsis filium Dei* (Ad Hebr. C. 6 v. 6). Orregatik ongi begiratzen badiezu, Kristaua, zure Komunio gaiztoai, Juduen bekatua baño milla bider itsusiagoa da zurea; Juduak alabaña beñ egin zuen eren gaiztakeria; baña zuk Komunio gaizto guzietan: Juduak etziakien, Jesus zala munduaren salbatzalea, eta jakin izatera, etzuen egin zuena egingo, S. Paulo dionez; baña zuk guziaren berri dakizula, berriro kendu nai izan diozu bizitza zure Salbatzalleari: eta S. Agustiñek dio biguñagoak izan zirala Juduak: *Milius peccaverunt Judaei.*

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ itsusia dan alde onetatik Komunio gaiztoaren bekatua? Baña jakizu, itsustasun au are geiago, eta obeto agertzen diguela S. Paulok dakartzian itz izugarri batzuek, eta oraiñ arreta andi batekin begiratu bear dezu, Kristaua, Apostolu onek aditzera ematen diguna.

§ III.

San Pauloren iritzian bataioa ezkerre bekatu egiten duanak, beregan danez berriro gurutzean ipintzen du Jesus, eta kentzen dio bizitza: *Rursum crucifigentes sibimetipsis filium Dei.* Eta zer dio Komunio gaiztoa egiten duanaz? Dio, Jesusen gorpuz, eta odola gaizki artzen dituanak, bizitza kentzeko alegiña egitea gutxi baliz bezala, ekiten diela Jesusen gorputz, eta odolari, eta kulpadun geratzen dala oen kontrako bekatuarekin: *Quiquaque manducaverit panem hunc, vel biberit calicem Domini indigne, reus erit corporis, et sanguinis Domini.* Itz oetan aditzera ematen digu Komunio gaiztoaren itsustasuna, bekatuaririk gogorrena ere izutu ditekean eran. Demagun, Aita batek bere semeari dion ongi nai, eta amorioz, igarotzen dituala ezin konta al neke, eta naigabe, eta atzenezan semeak egin dituan errebekerien barkazioa iristeko, ematen duala urkamendian bere bizitza.

Aditzen du semeak au, eta bere gaiztakerien damuz kordegabe geratu bearrean, alako amorruan jartzen da bere Aita onaren kontra non laster egiten duan berriro Aita urkatzera; baña ekusirik, eziñ egin dezakeala au, zeren obira duen, ateratzen du obitik: aspertu dediñ artean erabiltzen du ostikopean: askatzen du ganibetaz gorputza, eta jaten diozka erraiak. Esan gidazu, Kristaua; asma diteke seme errebes onen eskergabekeria, eta gogortasuna beñ itsusirik? Jakizu bada, eskergabekeria itsusi au egin dezula Komunio gaizto bakoitzean, S. Paulok dionez: *Reus erit corporis, et sanguinis Domini.* Jesus da gure Aita maitagarria: Jesus da guri zigun ongi nai, eta amorioz Zerutik lurrera jatxi zana. Jesus da ainbeste neke, eta pena, eta atzenezan gurutzeko eriotza gugatik igaro zituana: Eta Aita guziz maitagarri au amatu lekuan berriro ill nai izan dezu, eta ill dezu zere alegiñean, bekatu mortala egin dezun aldi bakoitzean: *Rursum crucifigentes sibimetipsis filium Dei,* baña ekusirik, eziñ ill dezakezula, alako gorrotoa artu dezu beraren kontra, non ekin diezun beraren gorputz, eta odolari ozka, eta sartu dituzu; non ote? Infernuko dragoiaren lizean, edo bekatuz zikin-dua daukazun barrunbe orretan. Arritu zaitezte Zeruak, eta desegin Zeruko ateak: *obstupescite Coeli, et portae ejus desolamini.* Orra zer aditzera ematen digun S. Paulok Komunio gaiztoaren itsustasunaren gañean. Baña ezta onenbesterekin ere kontentatzen, eta dio gañera, Komunio santua gaizki artzen duanak, jaten, eta edaten duala bere betiko galera: *Qui enim manducat, et bibit indigne, iudicium sibi manducat, et bibit.*

Orra, Kristaua, zeñ itsusi, ta izugarria dan Komunio gaiztoaren bekatua. Alaere izan dezu, bekatu au egiteko ausardia ainbeste bider? Eta etzera bat batean amildu betiko su, eta garren artean? Ez; eta zure Jesusen ontasun, eta urrikimentua añ andia izanda, non itxedon dizun, eta prest arkitzen da zure eskergabekeria guziak barkatzeko. Kristaua, ez ote gera oraiñ bederik Jaun maitagarri orregana biotz osoz biurtuko? Ez ote degu asmo oso bat bertatik egingo, gure eskergabekerien gañean negar egiteko, eta bizitza on bati jarraitzeko? Jarri gaitzen onetarako Jaunaren aurrean belauniko, eta gogoan erabilli ditzakun denbora pixka batean gaur ukitu diran gauzak. Jartzen dira guziak belauniko, eta Erakuslea ere bai.

1

Begira, Kristaua, lenengo lekuan Judasen bekatuari. Andia izan zan au, ta guziz itsusia. Bere maisu, ta ongille andia, eta bere Elizako Apostolu, eta kargudun egin zuana saldu zien Juduai ogei, ta amar dirutan, eta adiskidearen idurian ipiñi zuan etsaien azaparretan. Judas, esan zion Jesusek: Judas, denbora batean nere Apostolua, mai batean nerekin



bizitu zerana: Judas gezurrezko musu batekin nere etsaien eskuetan ipintzen nazu? *Juda, osculo filium hominis tradis?* Añ itsusia iritzi zion Judas berak ere bere bekatuari, non urkatu zuan bere burua. Zeñ itsusia izango da, Kristaau, zuk Komunio gaiztoakin egin dezuna? Judasek saldu zuan Jesus ogei, ta amar dirutan; eta zuk atsegin lotsagarri bategatik. Judasek saldu zuan Jesus, jakin gabe, zala Jesus munduaren salbatzallea, eta Jaungoiko, eta gizon egiazkoa; baña zuk saldu dezu, au guzia dakizula, eta sinisten dezula: eta adiskidearen idurian jarri zera beraren maiean.

2

Begira urrena Juduen bekatuari. Oen gogortasun, eta eskergabeke-riak izutzen gaitu; baña ongi begirutzen badegu, zer aek, eta zer guk egin degun, gogorrakoak izan gera Jesus onarentzat. Juduak etziakien, Jesus zala munduaren salbatzallea, eta Jaungoiko egiazkoa, eta jakin izatera, etzuen egin zuena egingo; baña guk bagiñakian, eta badakigu au guzia: eta alaere egin diozkagu ainbeste bidegabe Komunioko Sakramentuan.

3

Begira atzenean, zer dion S. Paulok: Komunio gaiztoa egiten duana ezta kontentatzen, beregan danez berriro Jesusi bizitza kentzearekin: *Rursum crucifigentes filium Dei*: baizik ekiten die Jesusen gorpuz, eta odolari ozka, eta botatzen du leku guziz nazkagarri batean, edo bere barrunbe zikiñean: eta kulpadun egiten da Jesusen gorputz, eta odolaren kontrako bidegabe itsusiarekin: *Reus erit corporis, et sanguinis Domini*. Zer geiago? jaten, eta edaten du, dio Apostoluak, bere betiko galera: *Judicium sibi manducat, et bibit*. Atozea, Kristaau, au guzia ezagaturik, ez ote zera zure Aita, eta ongille andiagana bihurtuko? Ea, oraiñ Jaun ori prest arkitzen da egin diozkagun utsegite, eta bidegabeak barkatzeko: egizu asmo oso bat, emendik aurrera Sakramentu ori biotz garbiarekin artzeko. Altxatzen dira guziak, eta bukatzen da Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran.

Nere Jesus maitagarria! *Pecavi*: egin det bekatu zure kontra, eta egin det ainbeste bider! Zer egiñ al dezaket nik? Ez dago neretzat beste bide-rik, ezpada zuri barkazio eskatzea, eta aurrera bizitza berri on bat egitea. O Jesus ona! Indazu onetarako zure lagunza, bizi nadin zu amatzen, eta serbitzen zaitudala, eta iritsi dezadan gero zu betikotasun guzian alaba-tzea. Amen.

BERROGEI, TA IRUGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amaikagarrena.

ALABATUA &

Andi, ta miragarriak dira, Aldareko Sakramentuak dakartzian onda-sunak, len ekusi degun bezala; eta oen gañean galdetzen du lenbiziko Komunioaren liburuak gisa onetan.

«Esan gidazu guziak artzen ditue komulgatzen diranean, ondasun oek? Ez, Jauna, zeren asko diran Komunio gaiztoak egiten dituenak. Zer bekatu da komunio gaiztoa? Sakrilejio guziz izugarria, zeren Judasen eran saltzen duan Jesus Jaungoiko biziaren semea, eta beregan danez berriro ipintzen duan gurutzeko neke-oñazeen artean: orregatik jaten, eta edaten du, S. Paulok dionez, bere betiko galera.

Komunio gaiztoa ez egiteko, zer bear da? Iru gauza. Lenengoa, zer, eta nolako prestaerarekin artu bear dan jakitea. Bigarrena, Jaunaren gra-zian egotea. Irugarrena, barau naturalean, edo gau erdia ezker ozer ere jan, edo edan gabe egotea. Onezko damu, edo kontrizioarekin Jaunaren grazian jartzen bada bekataria, komulgatu ote ditekete? Konfesio gabe ez, Jauna. Iltzeko perillean Sakramentu au artzen duanak, Biatikoaren eran, artu ote dezake baraurik egon ez arren? Bai, Jauna. Esan dituzun iru gauz oek asko ote dira Komunioko Sakramentuaren ondasunak artzeko? Asko dira gizon jakintsuen iritzian, Sakramentuaren ondasunetatik zerbait artzeko, ez ordea ugari artzeko». Ona lenbiziko Komunioaren liburuak gai onetan erakusten diguna.

Asi giñan azkeneko aldi itz egiten Komunio gaiztoaren itsustasu-naren gañean; baña ez genduan, bear adiña ezezik, gutxiago ere esan. Orduan esan ziran gauzak, bekatariarik gogortuena ere izutu bear lukeen bezalakoak dira; alaere zu, aspaldi konfesio, ta komunio gaiztoak egiten dituzun, Kristaau, etzera batere izutu, eta zentzatu, eta dirudi, Judasen biotzean bezala, zure barrunbean sartu dala Satanas. Orregatik gerta ez dakizun ari gertatua, begira gaur, benik beñ, zer kastiguak egin zituan Jaunak lege zarrean, Testamentuko kutxari zegokan begiramentu, edo errespetoa gorde etzioen zenbaitekin. Begira urrena, komunio gaiztoaga-



tik zenbat aldiz gertatu diran gauz izugarriak. Atzenean nolako ondorenak etorri oi diran komunio gaiztoetatik. Aditu kontuz bekataria.

§ I.

Israeltarrak denbora luzean bizitu ziran Ejipton katiberio gogorrean. Andik atera zituan Jaunak mirari, edo milagro andiak, eta ondoren eman zien Sinaiko mendian bere legea, letraz ezarria bi arlosatan. Arkitzen ziran Israeltar guziak eremuan etxerik, janari, eta soñeko-gairik gabe. Alaere berrogei urtez bazkatu zituan Jaunak, Zerutik bidaltzen ziela janari gozo bat, mana zeritzana. Mirari, eta mesede oen oroipena galdu etzediñ, egin zuan Moisesek, Jaunaren agintez, kutxa eder bat, eta an ipiñi zituan Jaunak eman zien legearen bi olak, eta mana piska bat. Ona zer zan testamentuko kutxa.

Mana zan Aldareko Sakramentuaren anz, eta iduria, Elizako gurasoak dioenez, eta kutxa bera ere bai, zeren an zedukan mana. Orregatik nai izan zuan Jaunak kutxa oni begiramentu, edo errespeto andia gordetzea, eta agindu zuan zerabiltenean batetik bestera, etzekiola iñor alderatu bi milla besoz. Agindu zuan gañera, kutxa au erabilli bear zanean leku, ta erri batetik bestera, eraman zezeela Apaizak sorbaldetan. Atzenean, Jerusalengo Eliza egin zanean, ipiñi zuen *Sancta Sanctorum* esaten zioen Aldarean; goitik beerañoko kortina eder batek estaltzen zuan leku ura, eta etzan aratzen iñor Aita Santua baizik. Orra nolako begiramentua zor zitzaion testamentuko kutxari, Sakramentu orren iduria zalako.

Begiramentu au etzitzaion beti gorde, eta egin zituan Jaunak kastigu andiak, eta oetatik batzuek izan ziran Filisteoen kontra. Irten ziran beñ Israeltarrak Filisteoen kontra, eta berekin zuen testamentuko kutxa. Garaituak, eta desegiñak geratu ziran Israeltarrak, eta Filisteoak berekin eraman zuen kutxa, eta ipiñi zuen eren idolo, edo Jaungoiko gezurrezko Dagon zeukeen lekuan, edo Elizan. Joan ziran bigaramonean Elizara, eta arkitu zuen lurrean beren Jaungoikoa, eta ipiñi zuen bere tokian. Joan ziran urrengo egunean, eta arkitu zuen idoloa kutxaren aurrean, burua, eta eskuak autsiak zeduzkala: eta au gutxi bazan bezala zabaldu zan erri guzietan, andi, ta txikiak bukatzen zituan, gaitz bat, alako eran, non erabaki zuen kutxa Israeltarrai biurtzea.

Bigarren kastigua izan zan Betsamiten kontra. Bidaldu zuen Filisteoak testamentuko kutxa Israelarren lurrera. Ekusi zuen

Betsamitak, nola zetorren gurdian; beren pozarekin aztu ziran gorde bear zitzaion begiramentuaz, eta salokerian joan ziran taldeaka kutxa ekustera. Aserratu zitzaion Jaunari, eta an bertan ill otzak geratu ziran irurogei, ta amar zaldun, edo gizon bikañetakoak, eta gañerakoetatik berrogei, ta amar milla. Arriturik geratu ziran Israeltar guziak Betsamitai gertatu zitza-tenarekin, eta utzi zuen kutxa Aminadab zeritzan gizon batean etxean.

Irugarren kastigua izan zan Ozarekin. Dabid Erregeak damu zuan testamentuko kutxa Jerusalemenez ez idukitzea, eta joan zan berrogei milla gizonekin ara eramatera: ipintzen due gurdi berri batean. Asitzen dira idiak ostikoka, eta gurdia darabilte erortzeko perillean. An gurdiaren aldean zijoan Oza: luzatzen du eskua, kutxari eusteko, eta geratzen da ill otza. Izutu zan Dabid, eta etzan atrebitu kutxa eramatera Jerusalemara, baizik utzi zuan Obededonen etxean.

Ekusten dezu, bekatari komunio gaiztoak egiten dituzuna; ekusten dezu, zeñ bekatu itsusia izan zan Jaunaren begietan testamentuko kutxari zegokan begiramentua ez gordetzea? Eta au, zeren kutxa ura zan Sakramentu miragarri onen anz bat. Zeñ itsusia izango ez da bada Komunio gaiztoakin egiten dezun bekatu ori? Bortxaz, eta bere borondatearen kontra sartzen dezu alabaña, ez kutxa bat Filisteoak bezala, baizik Jesus Jaungoiko, eta gizon egiazkoa idolo nazkagarritz bete daukazun biotz orretan. Zer idolo ote dira oek? Oek dira andi-naia, eta atsegiñ zikiñen gura: oek dira alferkeria, kutizia, eta edana, eta oek zure biotzean egon dira, ta daude Jaungoikoaren lekuan; eta izan dezu ausardia oekin batean ipintzeko zure Jaun andia? Ausardiaren itsusi, ta izugarria! Baña zoaz aurrera, ta begira oraiñ Komunio gaiztoagatik zenbait aldiz gertatu diran gauza izugarriak.

§ II.

Lege berrian ez oi dira gertatu kastigu añ izugarriak, nola gertatzen ziran lege zarrean; lege berria ala baña da amoriozkoa, ez beldurrezkoa. Alaere egin ditu Jaunak beñ baño geiagotan, Komunio gaiztoaren itsustasuna ongi adirazten duen, zenbait kastigu. Siro Milango Obispoa ari zan beñ Komunioa ematen: jartzen da Komunioko tokian gizon bat bekatuz zikindua, eta besteak bezala artzen du Sakramentua. Geratzen zaio Ostia Santua auan airean. Itxi nai zukean aua, baña ezin zuan, eta eman zioen oñaze izugarriak. Asi zan orroaz, Eliza guzia asaldatzen zuala. S.



Ziprianeke beste emakume batez dio, Sakramentua gaizki artu zuan uanean sartu zitzaiola Satanasek, Judasi bezala. Ekin zion bere buruari ozka: puskatu zuan mihia, eta atzenean bukatu zan zakur amorratua zirudiala. Ez da urte asko Españako erri batean gaixotu zala iltzeko gaitzarekin, bere denbora, Komunio gaiztoak egiten zituala, igaro zuan bat. Ezagutu zuan bere perilla: artu zuan konfesio on bat egiteko asmoa: konfesatu zan betaro, eta artu zuan Jauna; baña gauz ikaragarria! Jauna artu zuan bezala asi zan gaizkiñakin dagoan baten eran, eta ala iltzan. Eztakigu, zer igaro zitzaion bekatari oni; baña beldur izateko da, ainbeste Komunio gaiztoaren buruan gogortua geratu zitzaiola biotza, eta etzala Jaunagana biurtu biotz osoz. Nik erraz sinistuko det, erri bakoitzean noizean beñ egiten dituala Jaunak era onetako gauza izugarriak. Oetako batek esan zidan neroni erri batean: *Jauna, Komunioko denboran ezkututzen zitzatan Sakramentua*. Atozea oraiñ, bekataria: ez ote da au guzia asko adiña, igerritzeko zuk, zeñ bekatu itsusia dan Komunio gaiztoa? Au asko ezpada, begira ezazu nolako ondorenak etorri oi zaizkan bekatariari Komunio gaiztoetatik.

§ III.

Komunio gaiztoen lenengo ondorena izan oi da Zeruaeren, eta ango ondasunen ustea iltzea. Badakus onelako bekatariak, Jesus dala gure ongille andia, bere odolaren, eta bizitzaren kostuz gure animak erosi zituana; baña Jaun au era guziz itsusian sartu duala bere barrunbeto lize zikiñean: eta ekusirik au, iltzen zaio bere uste, edo esperantza guzia. Ala gertatu zitzaion Judasi. Egin det bekatu, zion, saltzen dedala justuaren odola: *Pecavi, tradens sanguinem justis*; baña ezaguera onekin guziarekin ere, etzuan izan biotzik Jaunagana biurtzeko; eta urkatu zuan bere burua.

Komunio gaiztoaren bigarren ondorena izan oi da Zeruko lagunzen urbidea itxitzea, eta Jesus onak ukatzea, bestela eman nai zitukean, lagunzak. Eta oek gabe zer egingo du bekatariak? Zer, ezpada amilka joatea bekatuaren bideetan? Fedeko gauza da, ez gerala gai edo gauza Jesus bat esateko ere, ezpadigu artarako ematen Espiritu Santuak bere argitasuna, eta biotzeko ukiera. Ala dio S. Paulok: *Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto*. Fedeko gauza da gañera, Zeruko lagunz oek guretzat irabazi zituala Jesus onak bere eriotzarekin, eta guri oek emateko bideak dira otoiz, edo orazioa, eta Sakramentuak, batez ere Komuniokoa; zeren Sakramentu onetan dagoan Zeruko grazia, ta lagunza guzien iturburua,

eta au gaizki artzen, eta oñpean bezala darabilenak, zer laguntza uste izan dezake? Emendik ez da zer miretsi, baldin Komunio gaiztoetara oitu diranetik txit gutxi Jaunagana biurtzen badira.

Komunio gaiztoaren irugarren ondorena izan oi da bekatariaren biotza elkortzea, eta geroago eta geiago gogortzea, mallukaria ari zaion txingudearen eran: *Quasi malleatoris incus (Job 41)*. Eta era onetan gogortu ezkeroko bekatariaren biotza, nekez gozatuko da. Bekatari bat bizitu zan txit gaizki, eta bere gura txarren mendean itsutua. Gaixotu zan azkeneko gaitzarekin. Askotan itz egin zion Jaunak bere biotzera, presta zedin konfesio on batekin; baña gorra ta sorra, zegoan onetarako. Egin zuen alegiña ala adiskideak, nola beste gizon jakintsuak, adirazteko erriari, nolako perillean arkitzen zan, baña alferrik. Agertu zitzaion Jesus bera, eta itz egin zion txit gozotoro: «Ni naiz, esan zion, nere odolaren kostuz zu erosi zindudan, Jesus bera: zukanako urrikimentuz jatxi naiz, zuri bekatu guziak barkatzeko. Andiak, itsusiak, eta asko izan arren, etzaitzela ikaratu: askoz, eta neurrikerik gabe andiangoa da nere ontasuna, eta miseriakordia: biur zaite biotz osoz nigana, eta nik barkatuko dizkitzut guziak». Nork sinistu zezakean, biguinduko etzala Jesusen itz oekin bekatari ura? Eta etzan, ez, batere biguindu. Agertzen diozka Jesusek bere lllagak; jartzen da odola dariola, eta itz egiten dio berriz era onetan: Ene seme, begira zugatik ixuri nuan odol oni; begira zenbat kosta zintzaizkidan: odol au da zure animaren prezioa: ez dezazula galdu. Aitortu itzatzu zure bekatuak; bada barkatu nai dizkitzut guziak. Baña bekatari doakabe ura lenean bertan geratu zan. Aserratu zitzaion Jesus onari: sartzen du eskua kostaduan, eta arturik odola, esaten dio: «*Ez dezu nai izan nere barkazioa*: ezertan artu ez dezun odol au izango da mundu guziaren aurrean zure betiko galeraren marka: eta bota zion aurpegira». Ezkutatu zan Jesus: eria asi zan deadarka: *gar bizietan erretzen nago*: ill zan, eta joan zan Satanasek betiko lagun izatera. Orra bekatari gogortuarekin gertatzen, eta gertatuko dana.

Komunio gaiztoaren laugarren ondorena da, Jesus onak utzitzea bekataria bere griña txarren atzaparretan, esaten balio bezala, Juduai esan ziena: banoa ni, eta ilko zerate bekatuan: *Ego vado, et in peccato vestro morimini*. Ordutanik aldegingo due bekataria gandik Zeruko Santuak, Aingeruak, eta Birjiña txit Santak: eta itxiak bezala geratuko dira Zeru oriek onelako bekatariarentzat.

Komunio gaiztoaren azkeneko ondorena da eriotza gaiztoa; jaten du alabaña, eta edaten, S. Paulok dion bezala, betiko bere galera: *Judicium sibi manducat, et bibit*.



Orra, nere Kristaua, zeñ bekatu itsusi, ta izugarria dan komunio gaiztoa. Zer ote da oraiñ guk egin bear deguna? Zer ezpada ukitu diran gauz oek ongi gogoan erabiltzea, eta Sakramentu orri egin diozkagun, bidegabean gañean negar egitea? Zer, ezpada Sakramentu ori prestaera onarekin artzeko asmo osoak egitea? Jarri gaitezen onetarako Jaunaren aurrean belauniko. (*Belaunikatzen dira guziak, eta Erakuslea ere bai*).

Otoiz, edo orazioaren gaia

1

Begira, Kristaua, nolako kastiguak egin zituan Jaunak testamentuko kutzari zegokan begiramentua gorde etzioen zenbaiten kontra. Kastigatu zituan Filisteoak, zeren kutxa ura beren idolo Dagonen etxe, edo Elizan ipiñi zuen. Kastigatu zituan berrogei ta amar milla Betsamita, ill otzak uzten zituala, zeren salokerian ibilli ziran kutxa ekusteko. Kastigatu zuan Oza, zeren apaizen sorbaldetan eraman bear zan kutxa, gurdian ipiñi zan. Eta bekatu añ itsusia bazan Jaunaren begietan kutxa ari zegokan errespetoa ez gordetzea zer izango da Sakramentu miragarri ori, bekatuz loitua dagoan, biotzean sartzea? Testamentuko kutxan etzegoan legea, eta mana pixka bat besterik; baña Sakramentu orretan dago Jesus Jaungoiko gizona...

2

Begira urrena, komunio gaiztoak gatik batzuetan Jaunak egin dituan kastiguak. Bildots illa baliz bezala ixillik dago Jesus Sakramentu orretan: ala ekusi zuan S. Juanek. Alaere zenbait aldiz egin ditu kastigu izugarriak. Au gertatu zan S. Ziprianek dion emakumearekin: sartu zitzaion Satanas, eta ill zan zakur amorratu baten eran...

3

Baña kastigu guzien artean izugarriena izan oi dira, komunio gaizto-etara oitu dan, animari etorri oi zaizkan, animako ondoren negargarriak. Galtzen, edo oztutzen zaio Zerurako ustea; itxitzen dira Zeruko laguntzen bideak; elkortzen, ta gogortzen da biotza; uzten du Jesus onak one-lako bekataria bere gura txarren atzaperretan, eta atzenean iltzen da bekatuan. Biotz gogordunari gaizki joango zaio azkeneko orduan, dio Espiritu Santuak: *Cor durum male habebit in novissimo*. Au onela izan, eta alaere ain-

beste bidegabe egiten diozkagu Jaun andi orri? Au onela izan, eta ura bezala edaten dezu zere betiko galera? *Judicium sibi manducat, et bibit? Ez ote gera oraiñ bederik Jaun orregana biurtuko?... (Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagoan tokitik, eta bukatzen du erakusaldia oraiñ esango dan eran)*.

Ezagutu dezu, Kristaua, zeñ itsusi, ta izugarria dan komunio gaiztoaren bekatua. Ezta ala ere barkaziorik ez duana, garai onean, eta biotz osoz Jaunagana biurtzen bagera. Ez det nai, dio berak, bekataria galtzea, baizik nigana biurtzea. Ea, nere Kristaua, egizu asmo oso bat, gaurdanik aurrera zure Jaun ori amatzeko, eta Sakramentu miragarri ori begiramentu, eta prestaera onarekin artzeko. Era onetan iritsi dezakezu zure bekatuen barkazioa, eta gero betiko bizitza. Amen.



BERROGEI TA LAUGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amabigarrena.

ALABATUA &

Aldareko Sakramentuak dakartzian ondasunen gañean galdetzen du lenbiziko komunioaren liburuak gisa onetan.

«Esangidazu, guziak artzen ditue komulgatzen diranean, ondasun oek? Erantzuten du: ez, Jauna, zeren asko diran komunio gaiztoak egiten dituenak. Zer bekatu da komunio gaiztoa? Sakrilejio guziz izugarria, zeren Judasen eran saltzen duan Jesus Jaungoiko biziaren semea, eta beregan danez berriro ipintzen duan gurutzeko neke-onañezen artean; orregatik jaten, eta edaten du, S. Paulok dionez, bere betiko galera.

Komunio gaiztoa ez egiteko zer bear da? Iru gauza: lenengoa, zer, eta nolako prestaerarekin artu bear dan jakitea. Bigarrena, Jaunaren grazian egotea. Irugarrena, barau naturalean, edo gau erdia ezker, ezer ere jan, eta edan gabe egotea. Onezko damu, edo kontrizioarekin Jaunaren grazian jartzen bada bekataria, komulgatu ote diteke? Konfesio gabe ez Jauna. Iltzeko perillean Sakramentu au artzen duanak Biatikoaren eran, artu ote dezake baraurik egon ez arren? Bai Jauna. Esan dituzun iru gauz oek asko ote dira komunioko Sakramentuaren ondasunak artzeko? Asko dira gizon jakintsuen iritzian, Sakramentuaren ondasunetatik zerbait artzeko, baña ez ugari artzeko. Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko, zer geiago bear da? Bost gauza. Zeñ dira? Lenengoa da, garbitzea anima bekatu larrien loietatik ezezik, benialen gogoetatik ere bai. Zergatik garbitu bear da anima bekatu benialen gogoetatik? Zeren ala aditzera eman zigun Jesu-Kristok, Apostolui oñak garbitzean, eta gañera, zeren bekatu benialak ezaguera osoarekin, eta ardura gabe egiten badira, galtzen diran Sakramentu onen ondasunetatik asko. Zeñ da bigarrena? Anima ederki apaintzea fede, esperanza, karidade, eta beste birtuteen afektoakin. Zeñ da irugarrena? Asmo, edo intenzio garbia? Zer aditzen dezu asmo, edo intenzio garbiaren izenez? Aditzen det, komunioko Sakramentua artu bear degula, ez bortxaz, edo borondate gabe; ez besteak egiten duena egiteagatik; ez oitura utsez, baizik bizitza onean, eta Jesu-Kristoren amorioan aurreratzeagatik, eta beste onen anzeko fiñen

bategatik. Zeñ da laugarrena? Janzian modestia. Eta onela dijoaz arrotasun andiarekin janzirik, edo bear bada bularrak estali gabe Komunioko maiean jartzen diranak? Ez, Jauna, eta orregatik ukatu bear zate Sakramentua. Zeñ da bostgarrena? Beldur santu, eta errespeto andi bat erakustea egoeran, begiratzean, eta modu guzietan, *Noren maiean jarri*, eta *Nor artu bear dan, begiraturik*». Orra lenbiziko komunioaren liburuak gai onetan erakusten diguna.

Azkeneko bi Erakusaldietan aditu dezu, Kristaia, zeñ bekatu itsusia dan komunio gaiztoa. Gaur ekusi bear degu, aurrena: zer bear dan Komunio gaiztoa ez egiteko. Urrena zer bear dan Sakramentu miragarri orren ondasunak ugari artzeko. Atzenean emendik aterako degu oitzi, edo orazioaren gaia. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Komunio gaiztoa ez egiteko bear diran gauzetatik bat da zer, eta nolako prestaerarekin artu bear dan jakitea. Ala ikasi zenduan, Kristaia, aurtasunetik, eta erakusten digu lenbiziko komunioaren liburuak. Anziñako denboran aur jaioberriai ere eman oi zitzaten leku batzuetan komunioko Sakramentua bataioarekin batean, baña obeto iritzi zion Eliz Ama Santak ezagueran sartugabeko aurrari Sakramentu au ez ematea, eta nai du, Sakramentu onen ondasunen ezaguera, eta gustoa izan dezen artean itxedotea. Au onela egiten ezpada, gertatuko da aurrera ere, len askotan gertatu dana. Zer ote? Jaun andi ori prestaera, ta begiramenturik gabe nola nai artzea. Zer geiago? Zartuta ere ez jakitea zenbaitek, nola moldatu ditezkean Jaunaren maian jartzeko. Ai guraso zabarrak! Baziñakie, nolako kalteak datozen aurrak eskolara ez bidaltzetik! Baziñakie zeñ kontu estua eman bearrak zeraten Jaunaren aurrean!

Komunio gaiztoa ez egiteko, bear dan bigarren gauza da Jaunaren grazian egotea; ala erakusten digu gure fede Santak. S. Paulok esaten digu: proga dezala bakoitzak bere burua, *Probet autem se ipsum homo*: eta gero jan dezala Zerutik gugana jatxi dan ogi orretatik: *Et sic de pane illo edat*. Zer aditzera ematen ote digu S. Paulok itz oetan? Begira degiogula bakoitzak bere biotzari, eta arkitzen badegu bekatu larri, edo mortalen bat, Konfesioko Sakramentuaren bidez barkatu ez dana, ez gaitzela jarri Jaunaren maiean. Ala aditzen ditu Trentoko Konzilioak S. Pauloren itzak: *Etiam probationem esse necessariam, ut nullus sibi conscius peccati mortalitatis... accedens*



debeat. Orregatik anziñako denboran komunioko aurrean otsegiten zuan Diakonoak *Sancta Sanctis.*, esaten bazuan bezala: Sakramentu miragarri au Santuentzat ipiña dago, eta ez datorrela bekatuan dagoanik. Eta ez da asko Jaunaren grazian nola nai jartzea bekataria, baizik jarri bear du Konfesioko Sakramentuarekin. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak.

Komunio gaiztoa ez egiteko bear dan irugarren gauza da barau naturalean, edo gau erdia ezker ezer ere jan, eta edan gabe egotea. Luterok, eta hereje askok ez due ezertan artu barau au, baña guk, Eliz Ama Santak erakusten diguna, entzun, eta egin bear degu, ez Elizaren etsaiak daraustena. Ez dakigu noiztanik agindu zuan Elizak barau au, baña bai anziñatik agindua dagoala. Alaere Sakramentu au artu dezakee, eta artzen due eriotzako perillean arkitzen diranak, baraurik egon ez arren, eta perillak badirau, ar dezake sarritan, edo konfessoreak ongi deritzan aldi guzietan.

Iru gauz oek askok dira, gizon jakintsuak erakusten digunez, Komunio gaiztoa ez egiteko: eta au aditzera ematen digu Trentoko Konzilioak. Baña asko ote dira Sakramentuaren ondasunak artzeko? Batzuek dioe, iru gauz oez gañera gauza bearra dala komunioko denboran jaiera, edo debozioa, eta bekatu benialen gogoetak ere aienatzea. Emendik iritzi onek dionez, asko, edo obeto esateko, banakaren batzuek ez, beste guziak Sakramentu orren ondasunak dastatu, eta progatu ere gabe bizi dira, bekatu larririk ez izan arren. Baña Teologorik geienak Santo Tomasekin erakusten digue, komunioko Sakramentuaren ondasunak dirala asko; oetatik bat da grazia ugaritzea. Ondasun onetatik zerbait artzen due Jaunaren grazian komulgatzen diran guziak, ez ordea jaiera, ta prestaera onarekin komulgatzen diranak bezala. Beste ondasuna da animako poz, eta atsegin-kontentu bat, alaitzen duana gizona, emengo neke, ta gurutzeen artean gogotik Jauna serbitzeko. Eta animako poz, eta atsegin au ez oi due artu Jaunaren grazian komulgatzen diran guziak, baizik Jaunaren grazian egoteaz gañera, jaiera, ta prestaera eder batekin Jaun bera artzen duenak. Eta ona zergatik geienak, komunio askoren ondoren, erkituak bezala arkitzen diran animaren aldetik; ez dira alabaña bear dan jaierekin prestatzen Jaun andia artzeko. Dakuskun oraiñ, zer bear dan Sakramentu miragarri orren ondasunak ugari artzeko.

§ II.

Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko bear diran gauzak, ukitzen dira lenbiziko komunioaren liburuan; baña ugarixeago adirazi bear dira, ongi aditu ditezen. Lenengo gauza da garbitzea anima, bekatu larrien loietatik ezezik, benialen gogoetatik ere bai. Bekatu benialak batzuek dira igaroak, au da len egin badira ere, komunio denboran egiten ez diranak. Demagun, nere Kristaua, zuk utzi dezula bekatu oetarako gogoeta, ta naikunde: orduan bekatu benial oek ez dizue eragotziko Sakramentuaren ondasunak ugari artzea. Ala erakusten digu Santo Tomasek. Beste bekatu benial batzuek dira komunioko denboran bertan egiten diranak. Gerta diteke au era askotara. Lenengo lekuan Sakramentua artzen bada, munduaren begietan onaren iduria egiteko. Bigarrena, komunioko denboran gogoa badauka batek bere naiez munduko aurkerietan. Irugarrena, denbora artan bertan gogoa itsatsia badauka bekatu benialen batzuetan, egin dezagun kontu onra, ondasun, apaindura, erausi, jan, edan, eta beste onelako gauzetan. Laugarrena denbora artan egiten bada, Sakramentuari zor zaion begiramentu, edo errespetoari ongi ez dagokan gauzaren bat, dala begiratzean, dala beste moduren batean. Bekatu oek (berenez benialak izan arren) eragotzen due komunioko ondasunak ugari artzea. Orregatik arreta andiarekin utzi bear ditugu, ez bekatu larriak bakarrik, baita benialen gogoak ere Jaunaren maian jartzeko. Au aditzera eman zigun Jesus onak, Apostoluai oñak garbitzean. Badakit, Kristaua, izango ditugula bekatu benialak, prestaerarik ederrena eginda ere, baña denbora berean utzi dezakegu aetan irauteko, eta aek egiteko nai, eta gogoa.

Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko bear dan bigarren gauza da anima ederki apaintzea fede, esperantza, karidade, eta beste birtuteen afektoakin, eta au erakusten da lenbiziko komunioaren liburuan. Etxeren batera Errege batek joan nai duanean, ez da asko etxea garbitzea, baizik alik ongiena apaindu bear da. Eta au onela egin bear bada munduko errege bat etxean artzeko zer egin bear ez da Errege guzien Erregea gure biotzetan artzeko? Orregatik piztu bear da fedearren argia, eta argi onekin gogora ekarri bear degu, Nor dan gugana datorrena, norgana, eta zertara datorren. Emendik erraz piztutzen dira esperantza, eta karidadea. Baña zer gertatzen da? Askok ez dira gauz oetara saiatzen, eta artzen due Jaun Andia nolana, edo jaierearen apurgabe.



Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko, bear dan irugarren gauza da, asmo, edo intenzio garbia. Eta gutxi ote dira asmo au gabe Jaunaren maian jartzen diranak? Ez noaski. Oetatik izan oi dira bortxaz, edo gogoaren kontra berandutik berandura datozenak. Oetatik dira, Jauna artzen duenak, ez bizitza ondu naiez, baizik oitura utsez? Orregatik alik ongiena garbitu bear degu gure asmo, edo intenzioa, artzen degula Jauna bizitza onean irauteko, eta Jesusen amorioan aurreratzeko gogoz, edo onen anzeko fiñen bategatik. Gañera sortu bear degu, Sakramentu orren ondasunak artzeko gose, eta egarria, zeren gogo gabe artzen dan janariak on gutxi egin dezake. Zeruko janari onek artzalleagan eskatzen du gosea, dio S. Agustiñek, eta anziñatik esan zuan Dabidek: gose dan anima ondasunez bete, eta aseko zuala Jaunak: *Animam esurientem satiabit bonis*.

Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko, bear dan laugarren gauza da janzian modestia. Ez da ongi Jaunaren maian jartzea soñeko enasakin, ez eta arroakin ere, eta are gutxiago goiak salgai bezala erakusten dirala. Orregatik Aita Santu Inozenzio, eta Klemente Amaikagarrenak agindu zuen, ez dakiela konfesio, ta komuniorako lekurik eman bularrak, eta sorbalda estali gabe datozenai. Agindu zuen gañera, ez ditezela izan estalkiak lasaiak, baizik tapituak. Ez da (Jaunari eskerak) gure errietan alde onetatik gauz andirik ekusten, eta dirudi emakumeak elkarren leian darraizkala modestiari. Baña neke da, askoren artean buru arro, edo txoraskaren batzuek ez arkitzea: eta noizean beiñ ekusiko dira manteliña lasaiak, gorputz guzia erakusteko egokiak. Ekusiko dira goiak ongi estaltzen ez dituenak, eta orratzik ipintzen ez duenak. Ekusiko dira dagoten baño apaindura geiago darabiltenak. Eta ez ote dira gizonen artean ere gizantx, edo anyere biurtu diranak? Oek guziak galtzen ditue komunioko Sakramentuaren ondasun ugariak.

Azkenean komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko, jarri bear da Jaunaren maian begiramentu, eta beldur andi batekin, gogora ekartzen dala, *Noren maiean jarri, eta nor artu bear dan*. Testamentuko kutxa etzan Sakramentu orren iduria baizik. Alaere nai izan zuan Jaunak, kutxa oni begiramentu andi bat gordetzea, alako eran, non berrogei, ta amar milla Betsamita ill-otzak geratu ziran, zeren saloegi ibilli ziran kutxa ekusi naiez. Nolako begiramentu, eta beldurra zorko ez diogu bada Sakramentu orri, testamentuko kutxari alakoa zor bazitzaion?

Orra, nere Kristaua, zer bear dan komunioko Sakramentuaren ondasunak naroro, edo ugari artzeko. Erraz emendik igerri dezakegu, zergatik gu beti arkitzen geran animaren aldetik gauden bezeñ beartsu; baña au are

obeto ezagutzeko, eta bear diran asmo onak ateratzeko, jarri gaitzen Jaunaren aurrean belauniko, eta gogoan erabili ditzakun gaur ukitu ditugun gauzak. (*Jartzen dira guziak belauniko, eta Erakuslea ere bai*).

1

Begira, Kristaua, lenengo lekuan, zer bear dan komunio gaiztoa ez egiteko. Gutxienez Jaunaren grazian egon bear da. Baña zenbat dira graziaren soñeko ederra gabe Jaunaren maiean jartzen diranak? Batzuek lotsaz bekatuak aitortu gabe bizi diranak; besteak lagun urkoen gorrotoa biotzean gordetzen duenak; batzuek bekatuak bideak, eta anziñako oitura zarrak uzteko biotzik ez duenak; besteak lagun urkoari, edo erriari egindako kalteak desegiten ez dituenak, edo umeai Zerurako bidea erakusteko arretarik ez duenak. Oek Jaunaren maian jartzen dira graziaren apaindura gabe. Zer esaten ote die onelakoai Jesus onak? Esaten die eztaiera soñeko egokirik gabe sartu zanari esan zitzaiona: *Adiskidea, nola zatoz mai onetara, eztaietako soñekoa gabe? Amice, quomodo huc intrasti, non habens vestem nuptialem?* Zer geiago esaten die? Judasi esan ziona, musuka, ta adiskidearen idurian bere etsaien atzaparretan ipiñi zuanean; Judas, adiskidea baziña bezala, musu ematen didazu, eta nere etsaien eskuetan ipintzen nazu? *Juda, osculo filum hominis tradis?* Kristaua, eta gu nola ote goaz Jaunaren maiera?...

2

Begira urrena, zer bear dan, Sakramentu orren ondasunak naroro, edo ugari artzeko. Onetarako ez da asko bekatu larri, edo mortalik ez izatea, baizik garbitu bear da anima bekatu benialen gogo, edo borondatetik ere: apaindu bear da anima fede, esperanza, eta karidadearen birtuteekin: Sakramentua artu bear da asmo, edo intenzio garbiarekin, ez bortxaz, ez oitura utsez. Joan bear da janzian modestia andi bat erakusten dala; begiramentu, eta beldur andi batekin. Ongi, nere Kristaua eta nola joan ote gera gu Jaunaren maiera? Garbitu ote degu anima bekatu benialen autsetatik? edo aetara biurtzeko gogoetatik? Ai! gutxi dira au egiten duenak. Apaindu ote degu anima fede, esperanza, eta karidadearen birtuteekin? Asko dira gauz oez oroitzen ere ez diranak. Ez ote gera askotan jarri Jaunaren maiean oitura utsez, Sakramentuaren ondasunak artzeko gose, eta egarri gabe? eta atzenean begiramentu, eta beldur santurik gabe? Ez da beraz miretsitzeko gauza, baldin komunioko ondasunetatik gutxi artu badegu. Nere Kristaua, ez da au gauza negargarria? Ez ote gera oraiñ bederik saiaturko, Sakramentu miragarri orrek eskatzen duan prestaera



ongi egitera?... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Kristaua, gure animen jabe, eta salbatzalle Jesus maitagarria etorria dago Sakramentu orretara, guri eman al guzia emateko, eta naroro ematen diezte prestaera onarekin artzen duenai; baña guk guzia galdu degu, animako gauzetan degun nagitasun, eta zabarkeriarekin. Zer egiñ aldeakegu, etorri zaizkigun kalteak desegiteko? Ez dago beste biderik, ezpada oraiñdañokoaz Jaunari barkazioa eskatzea, eta aurrera gure arreta egunetik egunera ugaritzea. Egin dezagun au, eta Sakramentu orren ondasun, eta laguntza ugariak artuaz iritsi dezakegu gure egunak ongi bukatzea, eta gero betiko bizitza. Amen.

BERROGEI, TA BOSTGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amairugarrena.

ALABATUA &.

Komunio gaiztoa ez egiteko bear dira iru gauza, eta oek aditu zinduan, Kristaua, azkeneko aldian; baña galdetzen du lenbiziko komunioaren liburuak gisa onetan.

«Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko zer geiago bear da? Erantzuten du: bost gauza. Zein dira. Lenengoa da garbitzea anima, bekatu larrien loietatik ezezik, benialen gogoetatik ere bai. Zergatik garbitu bear da anima bekatu benialen gogoetatik? Zeren ala aditzera eman zigun Jesu-Kristok, Apostolui oñak garbitzean; eta gañera zeren bekatu benialak ezaguera osoarekin, eta ardura gabe egiten badira, galtzen diran Sakramentu onen ondasunetatik asko. Zeñ da bigarrena? Anima ederki apaintzea fede, esperanza, karidade, eta beste birtuteen afektoakin. Zein da irugarrena? Asmo, edo intenzio garbia. Zer aditzen dezu asmo, edo intenzio garbiaren izenez? Aditzen det, komunioko Sakramentua artu bear degula, ez bortxaz, edo borondate gabe; ez besteak egiten duena egiteagatik; ez oitura utsez, baizik bizitz onean, eta Jesu-Kristoren amorioan aurreratzeagatik, edo beste onen antzeko fiñen bateagatik. Zein da laugarrena? Janzian modestia. Eta onela dijoaz arrotasun andiarekin janzirik, eta bear bada bularrak estali gabe komunioko maiean jartzen diranak? Ez, Jauna; eta orregatik ukatu bear zate Sakramentua. Zein da bostgarrena? Beldur Santu, eta errespeto andi bat erakustea, egoeran, begiratzean, eta modu guzietan, *Noren maiean jarri, eta Nor artu bear dan* begiraturik».

Bost gauza oen gañean ere esan nuan zerbait leneko Erakusaldian, eta balantzan bezala egon naiz, orrenbesterekin utziko dedan, edo ez gai au; baña uste det, ez dirala gauz oek beiñere aditzera eman premiaren neurrian, eta orregatik erabaki det, gauza beren oroipena berritzea: eta alik ongiena aditzera emango ditut, lenengo lekuan, komunioko liburuak dakartzian, bost gauz oek. Urrena, zer, eta nola egin gentzakean konfesioaren ondoren komunioaren aurretik, beta danean. Enzun arretarekin, nere Kristaua.



§ I.

Komunioko Sakramentua bere ondasunetan da ondorik ez duan itsasoaren eran, eta alaere batzuek ez due Sakramentuaren ondasunetatik batere artzen; beste batzuek artzen due gutxi, eta besteak naroro, edo ugari. Zertan ote dago au? Bakoitzak daraman onzi, edo prestaeran. Itsasora ur billa bazoaz onzi zulodunarekin, ur gabe geldituko zera; onzi txikiarekin bazoaz, ur gutxi aterako dezu; baña asko, onzi on, eta galantarekin joaten bazera. Orregatik gauza bearra da, nere Kristau, guk ongi begiratzea, zer bear dan komunioko Sakramentuaren ondasunak naroro artzeko.

Onetarako bear dan lenbiziko gauza da garbitzea anima, bekatu larrien loietatik ezezik, benialen gogoetatik ere bai. Bekatu benialak batzuek dira igaroen izena Santo Tomasek ematen dienak. Oek dira len egiñak, baña komunioko denboran ez dirauenak. Demagun, zuk izan dezula, etxean ezin egona, eta ergelkerian batetik bestera ibiltzeko griña, baña gauza gaizto andirik egiteko perill gabe. Ezagutzen dezu, txorasken ibillerak dirala oek, eta uzten dituzu, ala berak, nola oetarako borondate, eta gogoak. Orduan bekatu benial oez ez due eragotzen komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzea, Santo Tomasek dionez: *Peccata venialia (praeterita) nullo modo impediunt effectum hujus Sacramenti*. Beste bekatu benial batzuek dira komunioko denboran bertan egiten diranak, eta era askotara gerta diteke au. Lenengo lekuan Sakramentua artzen bada munduaren begietan onaren izena iristeko. Bigarrena, komunioko denboran bertan gogo badauka batek bere naiez munduko aurkerietan. Irugarrena, denbora artan bertan gogo itsatsia badauka bekatu benialen batzuetan, egin dezagun kontu onra, ondasun, apaindura, erausi, jan, edan, eta beste onelako gauzetan. Laugarrena, denbora artan egiten bada Sakramentuari zor zaion begiramentu, edo errespetoaren kontrako gauzaren bat beigratzean, edo beste moduren batean. Bekatu oek (berenez benialak izan arren) eragotzen due komunioko Sakramentuaren ondasunak naroro, edo ugari artzea. Orregatik benaz utzi bear ditugu oetarako gogoetak, Jaunaren maiean jartzeko. Au aditzera eman zigun Jesus onak, Apostoluai oñak garbitzean. Eman nai zien lenbiziko komunioa: Judas ez, besteak garbiak arkitzen ziran bekatu larrietatik, baña zituen eren gogoeta, eta utsegite txikiak, eta oek utzierazteko garbitu ziezten oñak. Ekusten det,

prestaerarik ederrena eginda ere, izango ditugula bekatu benialak, baña denbora berean ekusia dago, utzi dezakegula aetarako borondate, ta gogo. Neke da bidez egun oro ibiltzea, eta bideko autsa oñetakoai ez itsastea; alaere ez da neke andia alik garbiroena ibilli nai izatea, eta maiean jartzeko autsak kentzea.

Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko bear dan bigarren gauza da, fede, esperanza, karidade, eta beste birtuteen afektokin anima apaintzea: eta au erakusten da lenbiziko komunioaren liburuan. Etxeren batera Erregeren batek joan nai duanean, ez da asko etxea garbitzea, baizik al dan ongiena apaindu bear da. Eta au egiten bada, munduko Errege bat, Obispo Jaun, edo beste gizon andiren bat artzeko etxean, zer egin bear ezta Errege guzien Errege gure biotzetan artzeko? Orregatik piztu bear da fedearen argia, eta argi onekin gogora ekarri bear degu, *Nor dan* gugana datorrena, *norgana*, eta *zertara* datorren. Emendik erraz esnatzen da esperanza, eta karidadea, edo Jaungoikoaganako ongi nai, eta amorioa. Baña zer gertatzen da? Asko ez dira gauz oetara saiatzen, beste askok doi doa dakie zer artu bear duen, eta geienak emengo arazo, eta kezken barrengo otsarekin, ez dira ongi oartzen, zertara dijoazen.

Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko bear dan, irugarren gauza da, asmo, edo intenzio garbia, egin dezagun kontu bizitza onean irauteko, eta Jesusen amorioan aurreratzeko asmoa; baña zenbat izango dira onelako asmo garbirik gabe Jaunaren maiean jartzen diranak? Zenbat bortxaz, gogoaren kontra, eta berandutik berandura artzen duenak? Zenbat oitura utsez, edo bizitza ontzeko gogo andi gabe komulgatzen diranak? Orregatik garbitu bear degu gure asmoa Sakramentu ori artzeko, eta onetarako sortu bear degu beraren ondasunak iristeko gose, eta egarria. Gogo, ta gose gabe artzen dan janariak, dan onenak ere, on gutxi egingo dio bati, eta gertatuko zaio Israeltarri manarekin gertatua. Oek bizitu ziran Ejipton katiberio gogorrean: neke andiak, eta ezin irozo zituenak eragiten zitzaizten, ta aen janaria izan oi zan dongea, nola ziran porru, baratzuri, edo beste onelako gauzak. Atera zituan andik Jaunak, egiten zituala asko gauza miragarri, eta sartu ziran eremu andi batean. Etzegoan an ogirik, artorik, eta jateko gauzarik, eta Jaunak egun oro (larunbatz kanpora) bidaltzen zien Zerutik, *mana* zeritzan janaria: janari bat txit gozo, eta gusto andikoa. Baña nola oituak zeuden janari txarretara, etzuen jaten askok *mana* gogoarekin, eta asi ziran esaten: nazkatzen, eta goragalea ematen digu janari ezerez onek: *Nauseat anima nostra super cibo isto levissimo* (Numer. 21). Au bera gertatzen da gogo gabe artzen dan beste janari edozeñekin, eta orobat komunioko Sakramentuarekin.



Zeruko janari onek artzallearen aldetik eskatzen du gosea, dio S. Agustiñek, eta Birjiña txit Santak esan zuan: gose diranak ondasunez beteko dituala Jaunak: *Esurientes implebit bonis*.

Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko bear dan laugarren guaza da janzian modestia. Ez da ongi Jaunaren maiean jartzea soñeko enasakin, ez eta arroakin ere, eta are gutxiago goiak salgai bezala erakusten dirala. Orregatik Aita Santu Inozenzio, eta Klemente amaikagarrenak agindu zuen, ez dakiela konfesio, ta komuniorako lekurik eman bularrak, eta sorbalda estali gabe datozenai. Agindu zuen gañera, ez ditezela izan estalkiak lasaiak, baizik tapituak. Ez da, Jaunari eskerrak, gure errietan alde onetatik gauz andirik ekusten, eta dirudi, emakumeak elkarren leian darraizkala modestiari. Baña neke da, askoren artean buru arro, edo txaraskaren batzuek ez arkitzea: eta noizean beñ ekusiko dira mantelina lasaiak, gorpuz guzia erakusteko egokiak. Ekusiko dira goiak ongi estaltzen ez dituenak, eta orratzik ipintzen ez duenak. Ekusiko dira dago ten baño apaindura geiago darabiltenak. Eta ez ote dira gizonen artean ere gizantz, edo anyere biurtu diranak? Oek guziak galtzen ditue komunioko Sakramentuaren ondasun ugariak.

Azkenean komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko, jarri bear da Jaunaren maiean begiramentu, eta beldur andi batekin, gogora ekartzen dala, *Noren maiean jarri, eta nor artu bear dan*. Testamentuko kutxa etzan Sakramentu orren iduria baizik: Alaere nai izan zuan Jaunak, kutxa oni begiramentu andi bat gordetzea, alako eran, non berrogei, ta amar milla Betsamita ill-otzak geratu ziran, zeren saloegi ibilli ziran kutxa ekusi naiez. Nolako beldur, eta begiramentua zorko ez diogu bada Sakramentu orri, testamentuko kutxari alakoa zor bazitzaion?

Orra, nere Kristaua, zer bear dan gure aldetik komunioko Sakramentuaren ondasunak naroro artzeko. Batzuetan guretatzen da, alik ongiena batek bere biotza prestatzea konfesioko Sakramentuarekin, eta konfesiorearen ondoren bereala Sakramentua artu bear, edo nai izatea. Orduan len egin duan prestaera, eta fede bizi bat sortzea asko da Sakramentu miragarri ori, eta beraren ondasunak artzeko. Beste batzuetan gertatzen da, konfesiorearen ondoren beta izatea, komunioa artu baño len zerbait denbora igarotzeko. Orregatik oraiñ ekusi bear degu, zer eta nola egin gentzakean orduan.

§ II.

Konfesiorearen ondoren jarri zaite leku egoki batean, eta eman giozkatu Jaunari eskerrak. «Nere Jaun Jaungoikoa, esan degiokezu, nere Aita guziz maitagarria: zure seme Jesusek utzi zuan konfesioko Sakramentua, gure animak sendatzeko. Sakramentu au ongi artzen duanari barkatzen diozkatu bekatuak, Jesusen eriotza, ta merezimentuak bitarteko dirala: eta uste det, au bera egin dezula nerekin ere, Apaizak barkazioa, edo abso-luzioa eman didanean. O ontasun, eta urrikimentu paregabea! Milla esker Jauna mesede berri onegatik.

Ez naiz, Jauna, eskerrak ematearekin kontentatzen. Berritu nai ditut, bataioko egunean eman nizkitzun itzak. Gaurdanik utzi nai det, eta uzten det Satanasekin batean uzten ditut beraren lagun, eta langilleak, edo mundu galdua, eta aragiaren, edo nere gura txarren naikun-zak. Au da Zeruairen, eta gizonen aurrean eman nizun itza; eta au bera ematen dizut gaur ere betiko: *Abrenuntia*. Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasekin obrak edo bekatua eta bekatuak bideak. Zoazte nigandik urrutira adiskidetasun gaiztoak, etxe anima galgarriak, eta lagun dongeen bilkui, edo batzarreak. Au da bataioko egunean eman nizun bigarren itza: eta au bera ematen dizut gaur ere: *Abrenuntia*. Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasekin arrotasun, eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, ta beste gauzetan, dala atsegina, eta jolasetan. Au da bataioko egunean nik eman nizun irugarren itza, eta au bera ematen dizut berriro benaz, eta biotz guzitik. *Abrenuntia*. Lagun zaikizkit arren, eta indazu zure lagunza ugaria, agindu dizudana leialki egiteko.

Eta orain, nere anima, nor ote da gaur zugana etortzeko daogana? Gauz arrigarria! Errege guzien Erregea, Aita Santu guzien Aita Santua, Trinidadeko bigarren Persona, gugatik gizon egin zana, eta gugatik gurutzean bizitza eman zuana bera. Au guzia gutxi bazan bezala, guri ongi naiez jarri nai izan zuan Aldareko Sakramentuan, eta jartzen da Konsagrazioko itzak Apaizak esaten dituanen: eta gaur Sakramentu miragarri orretan zure biotzera etorri nai du. Nere anima, nondik zuri onenbeste mesede, eta ondasun? Arritzen, eta izutzen naiz, nere Jesus ona, Zu nere biotzera etortzeko zaudela gogoratzean; ez da alabaña nere biotz eskergabe au zure diñako tokia; baña izutzen ere naiz denbora berean zure itz oek aditzean: *Ezpadezue gizonaren semearen gorputza jaten, eta odola edaten, ez dezue iritsiko betiko bizitza doatsua*. Zer egin aldezaketa bada



onenbeste beldurren artean, nere Jesus ona? Aitrotzen det, ez naizala ni, Zu nere biotzera etortzeko diña. Eta zuk alaere nigana etorri nai! Egin bedi; nere animaren jabe maitagarria, egin bedi zuk nai dezuna; baña egizu zuk lenago, Erregeak, etxeren batera dijoazenean egin oi duena. Aurretik bidaltzen ditue oek etxea apaintzeko bear diran gauzak: bidaldu itzatzu bada Zuk ere, Errege guzien Erregea, nere animako etxe arlote onetara, Zu ongi artzeko bear diran apaindurak, edo Zeruko grazia, doai, eta birtuteak. Esazu itz bat, eta egiña geratuko da guzia. Atoz, nere salbatzalea; egin zaitte nere animaren jabe. Atoz, Jainkoaren bildots bekatuak kentzen dituzuna, senda ezazu nere anima bekatuen zauriz betea. Atoz, Zeruko su animen berotzalea; zure amoriozko garrarekin aiena itzatzu nigandik bekatuaren kutsuak, eta onerako epeldasunak».

Ekusten dezu, nere Kristaua, zer, ta nola egiñ gentzakean konfesatuta komuniorako? Ala egiten due askok, lenbiziko komunioaren liburutik: eta ojala guziok egiten bagendu! Ez ote gera emendik aurrera prestatuko, komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko eran? Onetarako bear diran asmo on-sendoak egiteko, jarri gaitezen Jaunaren aurrean belauniko, eta gogoan erabilli ditzakun aditzera gaur eman diran gauzak. *(Jartzen dira guziak belauniko, eta Erakuslea ere bai).*

1

Begira, Kristaua, Sakramentu ori dala Zeruko ondasunen itsaso ondorik, eta bazterrik ez duana. Artzalleak ezin konta al izan arren, eta artu al guzia artuta ere, ez da agortzen, ez gutxitzen. Baña guk, ondasun oek ugari artzeko, eraman bear degu onzi egokia, edo biotz ederki prestatua. Onetarako garbitu bear da anima, bekatu larrietatik ezezik, benialen gogoetatik ere: apaindu bear da fede, esperantza, eta karidadearekin, eta Sakramentua artu bear da begiramentu andi batekin. Era onetan prestatutako onzi, edo biotzakin joan ote gera Jaunaren maiera? Ai! nere Jesus ona! Zenbat bide eta gai degun, negar egiteko zure aurrean!...

2

Begira urrena, zeñ ederki igaro gentzakean Komunioko aurreko denbora piska lenbiziko komunioko liburuak erakusten digun eran. Alaere guraso asko dira aurrak eskolara bidaltzeko nagiak, edo obeto esateko sorrak, eta gorrak. Ezpaliz Erakuslerik, izango lukee eren zabarkeriaren edergarri egoki bat; baña Erakusleak diran ezkerro, zer kontu emango degu Jaunaren aurrean? Ea, nere Kristaua, ez gaitezen engañatu, eta galdu betiko. Egin dezagun asmo oso bat, komunioko Sakramentuaren

prestaeran gerok ez zabartzeko eta gure kontukoai bear dana erakusteko... *(Aitxatzen da Erakuslea belaunikatua dagan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran).*

Gure Jesus ona! Andia izan da gure zabarkeria, zure ondasunak ugari artzeko, eskatzen dezun eran gure animak garbitzeko, eta apaintzeko: eta oraiñ ere ez gera gai onetarako zure grazia ta lagunza gabe; baña onekin batean guzia dezakegu. Ez arren ukatu grazia, ta laguntza au. Era onetan uste degu, emendik aurrera Zu biotz garbiarekin artzean zure grazian irautea, eta iristea betiraunde guzian zu alabatzea. Amen.



BERROGEI TA SEIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amalaugarrena.

ALABATUA &

Azkeneko Erakusaldian ekusi genduan, zer bear dan, komunioko Sakramentuaren ondasunak naroro, edo ugari artzeko. Orain lenbiziko komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Zer egin bear da komunioko denboran, eta ondoren? Erantzuten du: lenengo gauza da umiltasun andi batekin, eta belauniko jartzea, ez Aldareurreko lenengo mallan, baizik komunioko lekuan, eta gizonezkoak jarri bear due alde batean, emakumezkoak bestean».

Aldareurreko lenengo malla Eliz-gizonentzat da, eta urrutixago izan oi da komunioko lekua. Ezta ongi gizonak emakumeen artean jartzea. Orregatik S. Karlos Borromeok nai zukean komuniorako bi Aldare izatea, bata gizonentzat, bestea emakumeentzat, eta ezin bazan au, nai zuan gizonezkoai ematea ordu, edo denbora batean, eta emakumei bestean. Onetan aditzera ematen zaku, nolako modestia, eta onestidatea eskatzen duan Jaunaren maiak.

«Bigarrena; komunioko denboran egon bear da zuzen, baña begiak beronz makurtzen dirala».

Ala aditzera ematen digu Elizak. Batzuek geiegi makurtzen due burua, edo manteliña, eta erraz gerta diteke Apaizari eskuetatik erortzea ostia; beste batzuek begiak darabiltzkie batera, eta bestera, eta gaizki dirudian gauza da au.

«Iruigarrena, artu bear da eskuetan komunioko zapia».

Ala erakusten digu Rituala deritzan Elizako liburuak: ta au da Sakramentuaren puskarik lurrera erori ez dedin. Beñ baño geiagotan ekusi da, zapiaren lekuan estolaren, edo kasullaren beko erza eskuetan artzea, baña ez da au Elizak nai duana. Anziñako denboran komunioko maiean jartzen ziranak beren eskuetan artzen zuen Sakramentua, emakumeak zapi zuri batean, eta gizonak esku garbietan. Batzuetan an bertan komulgatzen ziran, besteetan etxera eraman, eta gordetzen zuen, premia andietarako. Ala egiten zuen eremuetan bizi ziranak, eta bide luzeren bat igaro, edo itsasoan joan bear zuenak. Baña Priziliano zeritzan hereje

baten jarraikiñak asi ziran Españan gauza itsusietarako Sakramentuaz baliatzen, eta Zaragozako Konzilio batek, eta Toledoko laugarrenak kendu zuen era onetan Sakramentua etxeetara eramatea, eta denboraz gauzak jarri ziran orain dauden eran.

«Laugarrena, poliki idikitzen, edo zabaltzen da aua, eta azpiko ezpañaren gañean ipinzen da mihia». Ezta geiegi zabaldu bear aua, ez eta geiegi luzatu ere mihia; asko da poliki ipintzea ezpañaren gañean.

«Bostgarrena, zerbait ezatu dedin, iduki bear da ostia Santua denbora gutxi batean mihi gañean, eta, gero irintsi bear da fede bizi, eta beldur Santu batekin». Esan det *denbora gutxi batean*, zeren denbora luzean idukiko baliz, gerta liteke Sakramentua auan osotero desegitea, Sakramenturik barrena ez igarotzea, eta beraren ondasunak galtzea. Baña zenbat denboran iduki bear ostia Santua mihiaren gañean? S. Karlos Borromeok dio, asko dala onela idukitzea *Aita gure, eta Abe Maria bat* esateko denboran.

«Seigarrena, au-sapaiari itsasten bazaio ostia, artuko det mihiaren puntarekin, eta irintsiko det: eta ala bear bada, artuko det ur piska bat». Au bera egin diteke Sakramentuaren kutsuak irintsitzeko. *Rituala* izendatzen dan Elizako liburuak dio presta dedilla onzi bat, edo geiago ardo, ta urarekin, komulgatzen diranai emateko; baña aspaldiko denboretan ez da egiten au. Asko tokitan, Apaizak beatzak garbituta geratzen dan uura, ematen zate komulgatzen diranai; batzuek artzen due, besteak ez, zeren artzeko aginterik ipiñi ez duan Elizak.

«Zazpigarrena, joango naiz leku egoki batera Jaunarekin biotzez biotz, ordu laurden batean bederik, itz egitera». Ala erakusten digu Aita Santu Benedikto Amairugarrenak.

«Zortzigarrena, denbora onetan emango diozkat eskerrak, eta egin-go diozkat nere erregu umillak, eta gero ere sarritan oroituko naiz, egin didan, mesede andiaz».

«Bederatzigarrena, ordu laurden batean bederik ez det txisturik botako; baña oarkabean botatze ez da bekatu: eta ez tulak ematen badu estutasunen bat, artu diteke istua musu-zapian». S. Karlos Borromeok nai zuan, ordu-erdi batean txisturik ez botatzea, baña Aita Santu Benedikto Amairugarrena kontetatzen da ordu laurden batekin. Eta diot berriz, eta berriz, ustekabean txistua botatzea ez da bekatu; eta estutasunean bota diteke musuetako zapira, Anziñako denboran eguerdiraño etzuan ezer artzen komulgatzen zanak: orain ez da onenbesteraño gauza estutzen. Ala ere ongi lizake ordu laurden batean bederik janari, eta edaririk ez artzea. Ala erakusten digu Benedikto Amairugarrenak.



«Eta nola emango diozkatzu Jaunari komunio ondoko eskerrak? Aldedan ongiena, eta irakurtzen dakiana, balia diteke lenbiziko komunioaren liburuak dakarranaz». Orra zeñ berri onak ematen dizkigun liburu onek.

Gaur, laburtxo bederik, itzegin nai dizut, Kristaua, komunio ondoko eskerrak ematearen gañean. Aurrena eskusiko degu, zeñ gauza bearra, eta ondasunduna dan Jaunari komunioaren ondoren eskerrak ematea. Urrena, nola au egin dezakegun ongi; eta emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Mesede, edo ontarteak artzen dituenak zor diozka bere ongillari ezaguera ona; eta eskerrak, eta prest egon bearra da artzalle bera, alik ongiena ongillari eranzuteko, ala itzez, noa obraz. Au da egia bat fedegabeak berak ere ezagutzen duena. Eta au onela izanik, nork eztakus, zeñ gauza bearra dan guk gure Jaun, eta ongille ezin andiagoari eskerrak ematea, egin dizkigun, mesedeak gatik? Eta are geiago, zeren, komunioko Sakramentuan gugana etortzean, egiten duan mesede bat, fedeak ez erakustera, ezin sinistu litekeana.

Gai onetan sarritan aditzera eman du Jaunak, zeñ gauz itsusia dan, egin dituan mesedeaz aztutzea, eta zor zaion eran ez eranzutea. Israeltarrak, Ejiptotik irten ondoan, aztu ziran Jaunak egin ziezten mesedeaz, eta Moysesen autik agertu ziezten bere espadasunak: Au da, esan zien, zuek Jaunari zor diozuen ezaguera? Jaun au ez ote da zuen gurasoa? *Haecine reddis Domino, popule stulte, et insipiens? Numquid non ipse est pater tuus?* (Deut. 32) Eta Isaiasen autik esaten zien, eta esaten digu guzoi: ezagutzen du idiak bere jabea, eta astoak nagusiaren trisipua; baña Israeltarrak ez naue ni ezagutu nai izan: *Cognovit bos possessorem suum, et asinus praesepae Domini sui: Israel autem me non cognovit.* (Isai. 1). Zer esango det Jesus onak Juduai esan ziezten itz izugarri oez. Billatuko nazue, eta illko zerate zuen bekatuan: *Quaeritis me... et in peccato vestro moriemini.* Jesus onak egin ziezten Juduai mesede guziz andiak: aen odoletik artu zuan gizatasuna: aen artean bizitu zan, eta itzez, eta obraz erakutsi zien Zerurako bidea; sendatu zituan eriak, argitu itsuak, eta piztu illak; baña añ esker gaiztokoak izan ziran, non etzuen ezagutu beren salbatzalletzat, eta atzenean gurutzean kendu zioen bizitza. Eskergabekeri onen ondorena guziok ekusten degu

Juduetan: gogortuak, sorrak, eta gorra iltzen dira eren bekatuan: *Et in peccato vestro moriemini.* Eta zenbat bider au bera gertatzen da, Sakramentu orretan Jesusek gugandik ekusten duan, eskergabekeria itsusiagatik? Beraz gauza bearra da, nere Kristaua, komunioaren ondoren alik ongiena gure ongille andi oni eskerrak ematea.

Au guk ongi egitea da gauza ondasunduna, edo ondasun andiak berekin dakartziana. Orregatik Jaun andia gure biotzetan dagoan denbora ari Santa Teresak deitzen dio *preziotsua*. S. Franzisko Borjak iru egun igarotzen zituan komunio ondoko eskerrak ematen, eta S. Luis Gonzagak ere bai. Santa Margarita Ungriako Erregearen alabaz kontatzen da, komunioko eguna goizetik arratseraño igarotzen zuala eskerrak ematen, ezer ere jan gabe. Jesus ona da gure animen argia, eta gure biotzetan dagoan bitartean argitzen ditu gure adimentuak. Da Zeruko sua, eta berotzen du biotza, Zerurako bidean ongi ibiltzeko. Da gure animen sendatzallea, eta sendatzen ditu animako zauriak. Da betiko bizitza, eta ugaritzen du graziaren bizitza: eta ondasun oek, eta geiago ixurtzen ditu esker umillak ematen diozkanaren biotzean. Galdetzen due Theologoak, noiz ematen dituan Sakramentu orrek komunio-aldi bakoitzari dagozkan ondasunak? Batzuek dioe, ematen dituala artzen dan unean bertan. Besteak dioe, Sakramentua biotzean dagoan denbora guzian, ari dala Jesus bere ondasunak ematen, artzallearen jaiera ugaritzen dan bitartean. Atzenean guziak aitortzen due, komunioaren ondorengo esker umillakin irabazten dirala ondasun asko. Dakuskun oraiñ, nola eman ditezkean komunioaren ondorengo esker oek.

§ II.

Gure Jesus ona ez dabil itz ederren, baizik biotz onen billa: eta askotan gerta diteke irakurtzen ez dakian batek askoz obeto Jaunari komunio ondoan eskerrak ematea gizon jakiunde andiko batek baño; zeren alduan ongiena egiten diozkan bere agur umillak, esker onak eta bere errekuak aditzera ematen diozkan. Alaere eziñ ukatu diteke, asko laguntzen duela liburu onak. Oraiñ nik esango dizuet lenbiziko komunioko liburuak erakusten duan modua.

Jauna artu ondoan jartzen zera leku egoki batean, eta zeregan diozu gisa onetan: «Nere anima: artu dezu komunio Santua, Aingeruen ogia, eta Zeruko mana. Esna zaitte bada, eta fedearen begiak gin begira, *Nor dan*



komunioan etorri zatzuna, norgana eta zertara etorri dan. Nor ote da ogi-pixka baten idurian etorri zatzun au? Au da, zu ezerezetik egin zinduan, Jauna bera, eta egin zinduana bera ezagutzeko, amatzeko, eta betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izateko. Au da, zu Adanen bekatuarekin galdua ekusirik, gizon egin zana, eta gurutzeko eriotzarekin Zerurako grazia, eta deretxa zuretzat irabazi zuana bera. Au, zuri bere grazia, eta lagunzak emateko, Sakramentuak ipiñi zituana, oen artean komunioko Sakramentua. Norgana etorri da? Gauz arrigarria! Izan zu zeran bezeñ eskergabea; eta ezereza; eta alaere zugana etorri da, zugana-ko ongi nai, eta amorioz beterik! Zertako etorri dala, uste dezu? Etorri da, zure animaren janari, eta edari izateko, eta zuri bere ondasunak, eta bera dan guzia emateko!

Miretsi zaite zugana era onetan Jaun andia etortzeaz. Nondik nere anima, esan dezakezu; nondik zuri onenbeste ondasun, eta mesede? Arriturik geratu zan Salomon zeren berak egin zuan, Eliz ederrean bizitzera, Jauna etorri zitzaion. Arriturik geratu zan Santa Isabel, zeren ekustera, edo bisitatzera joan zitzaion Jainkoaren Ama. Arritzen da Eliz Ama Santa, zeren Trinitadeko bigarren Persona gizon egin, eta bizitu zan Birjiña txit Santaren sabelean. Nere anima, eta Jaun andi ura bera zugana etorri bada, eta zerekin badaukazu, etzera miretsiko? Jesus ona, zer da gizona, eta zer naiz ni, zu era onetan nizaz oroitzeko?

Egitzu oraiñ fede, esperanza, eta karidadezko afektoak, eta adora ezazu zugana etorri dan Jaun andia. O Jesus ona, esan dezakezu: nere animaren erosle, edo Redentore maitagarria! Sinisten det, zu egiaz arkitzen zerala Aldareko Sakramentuan, eta Sakramentu onetan nigana etorri zerala. Sinisten det, zu ongi artzen zaituanari ematen diozkatzula Zeruko grazia, eta ongi bizitzeko lagunzak: eta gañera agintzen diozula betiko bizitza. Zugan ipintzen det nere uste guzia, zeren zu zeran Jaungoiko Guzialdun, edo guzia dezakezuna, eta zere itzetan guziz leiala. O Ontasun guziz miragarria! Amaten zaitut biotz guzitik, eta zure izenean amaten ditut nere lagun urko guziak, eta oen artean nere etsaiak. Adoratzen zaitut nere Jaungoiko, nere Errege, eta nere Salbatzalea.

Eman giozkatu oraiñ eskerrak. Nai nuke nik, nere Jesus ona, egin dizkidatzun ontarte eta mesede guziaz, eta oraiñ nigana etortzean egin didazun oni alik ongiena erantzutea; baña aitortzen det, ez naizala gauza, edo gai, onetarako ezezik, milla bider gutxiagorako ere. Geiena nik egin dezakedana da, esker umillak ematea. Milla esker bada, nere ongille andia. Alabatu, eta bedekatu zaitzeela Zeruan, eta lurrean diran gauza guziak. Bedeika zaitzeela Zeruko eguzkiak, eta izarrak, lurreko loreak, belarrak,

eta itsasoko arraiak. Bedeika zaitzeela lurrean bizi diran anima on guziak. Bedeika zaitzeela Zeruko Kerubin jakintsuak, Serafin Jaunaren amorez erazekiak, eta Aingeru doatsu guziak. Bedeika zaitzala zure Ama maitagarri, Aingeru, ta Santu guzien Erregiñak.

Azkenean egin giozkatu zure eskari, edo errege umillak. Zer uste ez dezaket gaur Zugandik, nere Salbatzalea? Etxe batean sartzen badira lurreko Erregeak, ez oi dira andik irteten etxekoai mesederen batzuek egin gabe. Eta izanik Zu Errege guzien Erregea, zer eztu zugandik uste izan bear nere anima beartsu onek? Bera dan guzia eman duanak, zer ukatu al dezake? Indazu bada, nere Jesus ona, emendik aurrera bekatutik aldegitiko, eta grazian irauteko doaia. Indazu nere griña txarrak, batez ere arako geiena nekatzen nauan ura, ezitzeko, eta garaitzeko zure lagunz ugarria. Oroi zaite nere aide ta ongilleaz, bai ta etsaiaz ere, ala biziuz, nola illaz. Gorde ezazu zure Eliza Santa bere etsai guzietatik, baita gure Jaun Erregea ere bere etxeko guziakin.

Jesusen anima, esan degiokezu; Jesusen anima birtutez bete nazazu. Jesusen biotza, amorez erre nazazu. Jesusen gorputza, salba nazazu. Jesusen odola, Zeruko amorioz zora nazazu.

Jesusen biotzeko uura, garbi nazazu. Jesusen izerdia, graziaren bizitaz bete nazazu. Jesusen Pasioa, indartsu egin nazazu. O Jesus ona, adi nazazu. Zure llogen artean gorde nazazu. Zugandik aldegiten ez arren utzi. Etsai galgarriagandik gorde nazazu. Zeregana eraman nazazu. Zere aldean ipiñi nazazu, zure Santu, eta Aingeruakin alaba zaitzadan sekula guzian. Amen».

Orra, nere Kristaua, nola eman ditezkean Komunioaren ondorengo eskerrak. Eta zer? Aditurik au guzia, ez ote gera oituko, gure Jesus onari komunio ondoan esker umillak ematera? Onetarako asmo sendo bat sortu dedin gure biotzetan, jarri gaitezen Jaunaren aurrean belauniko, eta gogora ekarri ditzakun, gaur ukitu diran gauzak. (*Jartzen dira guziak belau-niko, eta Erakuslea ere bai*).

1

Begira, Kristaua, lenengo lekuan, mesedeak artzen dituan beartua dagoala bere ongillari esker onakin bederik erantzutera. Aitortzen due egia au fedegabeak ere, eta erakusten digue zentzugabeko abereak berak. Eta edozeñ ongillari esker onak zor bazaizka, zer zorko ez diogu Jesus onari, gure biotzetara etortzean egin digun mesedeagatik? Zer, gure onerako egin dituan, gañerako gauza miragarriak gatik? Baña nola eranzun ote diogu gure eginbide oni? Guziz gaizki. Zenbat, komunio ondoan ego-



ten dira, nor etorri zaten, eta norekin dauden begiratu gabe? Zenbat, Jesusi agur edo ongi etorri bat ere egiten ez dioenak? Zenbat bereala Elizatik iges egiten duenak? Non da gure sinistea?...

2

Begira urrena, zeñ ondasunduna dan komunioaren ondoren Jesus onari esker umillak ematea. Denbora artan arkitzen da Jesus gure biotzetan, guri emateko bere ondasunak, eta bear degun guzia; baña nai du, egin dizkigun mesedeen eskerrak ematea, eta gure premiak agertzea. Eta zer da guk oraindano egin deguna?... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia orain ipiñiko dan eran*).

Lotsa gaitezen, Kristaua, Jesus onarekin izan geran beñ eskergabeak izatez: negar egin dezagun, eskergabekeria onekin ainbeste ondasun galdu ditugulako. Oitu gaitezen alik ongiena Jesus onari agur umillak egitera, eta eskerrak ematera. Izan zaitezte eskerdunak, esaten digu S. Paulok: *Grati estote*. Onela artuko ditugu Jesusek Sakramentu orretan guretzat dakartzian ondasunak, eta uste izan dezakegu iristea betiko bizitza. Amen.

BERROGEI, TA ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amabostgarrena.

ALABATUA &

Azkeneko Erakusaldietan aditzera eman dizut, Kristaua, zer egin bear gendukean, komunioko Sakramentuaren ondasunak naroro, edo ugari artzeko. Emendik lenbiziko komunioaren liburuia igarotzen da komunio gogozko, edo espiritualaren gañean itzegitera, eta galdetzen du gisa onetan.

«Zer komunioaren gañean itzezin da aurreko Erakusaldietan? Aldareko Sakramentua egiaz arturik, egiten dan komunioaren gañean. Omen da beste komunio-mota bat Sakramentua egiaz artu gabe egiñ oi dana? Bai, Jauna, eta da komunio gogozko, edo espirituala deritzana. Zer ote da gogozko komunio au? Guganako ongi nai, eta amorioz Sakramentuan dagoan Jesus maitagarria artzeko gogo, egarri, eta deseo bero batzuek biotzean sortzea. Zer bear da gogozko komunio ona egiteko? Bi gauza: lenengoa da Jaunaren grazian egotea. Bigarrena, fede, esperantza, eta karidadezko afektoakin biotza prestatzea, eta apaintzea. Beraz prestaera onen ondoren egiñ, edo sortu bear dira, Jesus ona biotzean artzeko, ta idukitzeko gogo, egarri, eta deseo beroak? Bai, Jauna.

Non, eta zenbat aldiz egiñ diteke gogozko komunioa? Non ere nai, niaz etxean, naiz Elizan; eta zenbat aldiz nai dan, ainbeste bider Noiz egin diteke ongiena, edo obeto? Meza enzuten, eta Sakramentua bisitatzen danean.

Eta gogozko komunio utsa egiten duanak, artzen ote ditu Sakramentuaren ondasunak? Bai, Jauna, eta batzuetan Sakramentua egiaz artzen duenak baño geiago. Nola ori? Zeren gogozko komunioa egiten duana askoz ederkiago prestatzen dan zenbait aldiz, Sakramentua egiaz artzen duana baño». Orra lenbiziko komunioaren liburuak gogozko komunioaren gañean erakusten diguna.

Kristau gutxi dira komunio-mota onen ezaguera argia duenak, eta beragatik beraren gañean izango da gaurko Erakusaldi guzia. Aurrena ugarixeago aditzera emango ditut liburuak ukitzen dituan gauzak. Urrena, emendik aterako det otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun, Kristaua, kontuz.



§ I.

Bi gisatara egin diteke, eta egiten da komunioa. Egin diteke benik beñ, egiaz artzen dala auan Sakramentua, eta irintsitzen dala barruna; eta au da Jesus onari geiena agradatzen zaion komunioa, eta berak esandako itzai obeto dagotena. Ezpadezue gizonaren semearen gorputza jaten, eta odola edaten, ez dezue iritsiko betiko bizitsua, esan zuan beñ: *Nisi manducaveritis carnem filii hominis, et biberitis ejus sanguinem, non habebitis vitam in vobis*. Nere gorputza egiaz janaria da dio berriz eta nere odola edaria: eta ogi onetatik jaten duana biziko da beti: *Caro mea vere est cibus, et sanguis meus vere est potus: si quis manducaverit ex hoc pane vivet in aeternum*. Nork eztakus, itz oetan aditzera ematen duala Jesusek egiazko jatea, eta au dala geiago agradatzen zaion komunioa? Santa Katalina Senakoa joan zan beñ, beste askotan bezala, Sakramentu ori artzera, baña etzan iritsi garai onean Elizara. Asi zan gogozko komunioaren prestaera egiten, añ ederki, eta egarri andiarekin, non aura joan zitzaion Sakramentua. S. Buenabenturak, begiraturik zeñ misterio andi, eta arrigarria dan Aldareko Sakramentua, eta zeñ ezereza dan gizona, iduritu zitzaion, obe zuala Mezarik ez esatea, eta Mezako komunioa utzitzea, eta onen lekuan egitea komunio espirituala, edo gogozkoa, esaten ziola Jesus onari. Jauna pozik ni komulgatu-ko nintzake, eta atsegin andia nuke orretan; baña ez naiz ni orretarako diña: egizu zuk zere Aldaretik, nere biotzera etorririk egingo zendukean guzia, eta indazu zere lagunza, eta grazia. Au esan zion Santuak Jesus onari Meza enzuten zegoan batean; baña Jesusek aditzera eman zion, naiago zuala, umilki Sakramentua artzea ezen ez artzeko gogo utsa: onetarako aura bidaldu zion Mezako ostia konsagratuaren zati, edo puskatxo bat.

Egin diteke urrena komunioa, Sakramentua egiaz auan artzen ez dala, baizik biotzean sortzen dala Sakramentuaren, eta Sakramentuak dakartzian ondasunen gogo, eta egarria:

eta gogo oni deitzen zaio komunio *espirituala*, edo *gogozkoa*: ala erakusten digue Elizako gurasoak Trentoko Konzilioarekin. Komunio gogozko au ez da ordea guk komunio egiazkoa nagitasunez, edo zabarkeriaz utzitze-ko, baizik onez gañera, edo au egiteko erarik ez danean, gogoz komulgatu dedin bakoitza, eta bere gogo, eta jaierearen neurrian artu ditzan Sakramentuaren ondasunak. Badira zenbait anima egun oro Sakramentua

artu lezakeenak, lenbiziko Kristauak artu oi zuen bezala, baña konfeso-arearen iritziarekin ez due artzen egun jakiñetan baizik. Badira gañera Sakramentu orren anditasunak izutzen dituanak sarritan artzeko. Badira atzanean Elizatik urruti bizi diranak, gaixo daudenak, edo erarik ez duenak Jauna nai bezeñ sarritan artzeko: eta oentzako guziz egokia da komunio espirituala, edo gogozkoa.

Komunio espirituala ongi egiteko, bear dira bi gauza, lenengoa da Jaunaren grazian egotea. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Bekatu larri, edo mortalean dagoanak, bekatutik irten gabe artu nai baluke Sakramentua, nai au izango litzake gaiztoa, zeren Judasen eran saldu nai duan Jesus; baña baldin bekatuan dagoanak sortzen badu nai, edo gogo andi bat, artzeko Sakramentua bekatutik iriteten danean, orduan nai, edo gogo au izango da ona, ez ordea egokia komunio espirituala egiteko, eta Sakramentuaren ondasunak artzeko; oek alabaña ez dira ixurtzen bekatuz zikindua dagoan biotzean. Komunio espirituala ongi egiteko bear dan bigarren gauza da biotza prestatzea fede, esperanza, eta karidadearekin. Ezpada fedearen argiarekin gogora ekartzen, nor dagoan Sakramentuan, eta zer ondasunak dakartzian guretzat, ez da gure biotzetan sortuko Sakramentu ori artzeko nai, gogo, eta egarria.

Era onetan prestatutik biotza, orduan egiten da gogozko komunioa, lenbiziko komunioaren liburuak Mezaren enzunbidean erakusten duan bezala. Komunio au egin diteke, non ere nai, naiz etxean, naiz Elizan, zenbat aldiz nai dan ainbeste bider, eta denborarik egokiena da Meza entzuten danean, eta Sakramentua bisitatzan danean: eta era berean komunio aurrean, eta ondoren; eta orduan komunio-mota biak lagunduko due Sakramentuaren ondasunak naroro artzeko.

Sakramentua egiaz arturik egiten dan komunioak berez ondasun geiago emango diozka artzalleari, gogozko komunio utsak baño, preste-ara berdiña bada; baña eziñ ukatu diteke, komunio espiritual, edo gogozkoak ematen diozkala ongi egiten duanari bere ondasunak prestaera, eta jaierearen neurrian, Trentoko Konzilioak erakusten digunez. *Voto caelestem panem edentes fide viva, fructum, et utilitatem sentiunt*. Nola izan diteke au, esango didazu, baldin gogozko komunio utsa egiten duanak artzen ezpadu egiaz bere biotzean Sakramentua? Zeren Jesus dan Jaungoiko-gizon Guzalduna, eta nai izate utsarekin egin dezakean, Aldarean dagoala ere, gure biotzean sartuta egiten duana. Onelako aldietan egiten du Jesusek, Kafarnaungo eri batekin egin zuana. Eun soldaduren agintea zuan bati gaixotu zitzaion maite zuan morroi bat, eta zegoan au illtzeko perill andian. Aditu zituan agintariak, Jesusek egiten zituan gauza miragarriak;



sendatzen zituan alabaña eriak, argitzen itsuak, eta piztutzen illak. Fedegabea, edo jentilla bazan ere, mandatariz, eta bitarteko onakin erre-gutu zion Jesusi, senda zegiola gaixo zeukan bere morroia. Mandatu au artuta bereala, ekin zion Jesusek Kafarnaungo bideari. Jakin zuanean au soldaduak, gaztigatu zion Jesusi: etzezala ainbeste neke artu: ez naiz, Jauna, ni Zu nere etxera etortzeko diña. Asko da zuk itz bat esatea, eta sendatua geratuko da nere morroia: *Dic verbo, et sanabitur puer meus*. Baditut nik ere nere mendean zenbait soldadu: batari esaten diot: *zoaz*, eta badi-joa; besteari *atoz*, eta badator; eta morroiari esaten diot: *egizu au*, eta egi-ten du. Miretsi zan Jesus mandatu au aditzean; itzuli zan berarekin zijoa-zenetara, eta esan zien: *egiaz diot*, ez det Israelarren artean ere arkitu onenbeste siniste: *Non inveni tantam fidem in Israel*. Egin bedi gizon onek eskatzen duana, sinistu, eta uste izan duan bezala. Ozta esan zuan au Jesusek, sendatu zan gaixo zegoan mutilla. Orra nola Jesusek egin zuan au, eriaeren etxean sartu gabe. Zergatik egin ez dezake Aldareko bere tokian dagoala, gure biotzetara etorrira, egiten duana, edo bere ondasu-nak ematea?

Esan det, Sakramentua egiaz arturik, egiten dan komunioak berez ondasun geiago emango diozkala artzalleari, komunio espiritualak baño. Alaere gerta diteke, komunio espiritualak besteak baño ondasun geiago ematea. Nola ori? Zeren gogo utsez egiten danean komunioa, izan leza-kean batek, jaiera askoz andiagoa. Eri zegoan beñ Santa Jetrudis: etorri zan monjen komunioko eguna, eta ezin komulga zitekean Santa. Biurtu zan Jaunagana, eta esna zion: orra, Jauna: ez naiz ni beñere izan zu nere biotzean artzeko diña; eta alakoa banintz ere, ezin artuko zinduket gaur nere gaitzgatik. Ekusten dezu zuk, zeñ andia dan, nere biotza ongi pres-tatzeko, eta zu artzeko gogoa. Dizula bada, Jauna, nere gogo onek komu-nioak adiña onra, eta atsegin; eta didala niri bear dedana. Ainbeste agra-datu zitzaion Jaunari Jetrudisen komunio gogozko au, non aditzera eman zion, monja guziak, egun artan Sakramentua arturik, egin zuen Zerurako irabazia baño andiagoa egin zuala ark gogo utsezko komunioarekin. Santa Juliana denbora luzean egon zan, artzen zuan janari guzia gora botatzen zuala. Jauna artzeko alako gogoa zedukan, non eskatu zuan, eraman zegioela, adora zezan. Eraman zioen, denbora aetan askotan egiten zan bezala. Eta gauza miragarria! Apaizaren eskuetatik ezkutatu zan Sakramentua, eta ill zan Juliana atsegin, eta poz andiarekin. Etzan jakin zer egin zan Sakramentuaz, Santaren gorputza askatu zuen artean. Orduan bularraren ezkerreko aldean arkitu zan ostiaren anz, edo iduria, sillu batekin ezarria bezala: eta onela ezagutu zan Apaizaren eskuetatik

ezkutatu zan, Sakramentua joan zala Julianaren biotzera. Emendik atera ezazu, Kristaua, gogozko Komunioaren prestaera añ andi, ta ederra izan ditekeala, non atera litzakean, Sakramentua egiaz artzen duenak baño, ondasun geiago, Santa Jetrudisegon gertatu zan bezala. Eta au gerta dite-ke, prestaera obeagatik ezezik, beste alde batetik ere bai, eta da zeren gogozko komunioa egin ditekean non nai, eta egunean askotan, baño ez komunio osoa, edo, Sakramentua egiaz artuta, egiten dana. Sakramentua eziñ artu diteke egunean beñ baño geiagotan, eta txit gutxi dira egunean beñ ere artu dezakeenak; baño gogozko komunioa egin diteke egun oro eun, edo berreun aldiz, eta aldi bakoitzean artuko ditu onela gogoz komulgatzen danak, ondasun berriak, eta azkenerako ugarituko dira alako eran, non askoz geiago izango diran noizean beñ Sakramentua artzeak dakartzianak baño. Ageda de la Kruz, Santo Domingoren ordenako mon-jak Sakramentua artzeko añ egarri andia zuan, non jartzen zan iltzeko zorian, zeren ezin artu zezakean nai zuan aldi guzietan. Agindu zion kon-fesoreak, noizean beñ egin zezala gogozko komunioa: eta egiten zuan goiz oro eun aldiz, eta arrats oro beste ainbeste bider. Nork sinistuko ez du, Agedak astean beñ Sakramentua artuta baño ondasun geiago artuko zuala egun oroko komunio espiritualarekin?

Ekusten dezu, Kristaua, zenbat ondasun atera ditzakegun Sakramentu orretatik gogozko komunioarekin? Ekusten dezu au egin dezakezula non nai, eta zenbat bider nai dezun, ainbeste bider? Eta zer-gatik ez gera saiatuko jaiera eder au artzera? Onetarako gogo, eta asmo oso bat gure biotzetan sortu dedin, jarri gaitezen Jaunaren aurrean belau-niko, eta gogora ekarri ditzakun, ukitu diran gauzetatik andienak. (*Jartzen dira guziak belauniko, eta Erakuslea ere bai*).

1

Begira, Kristaua, Sakramentu orren ondasunak artu ditzakezula, ez bakarrik Jesus ona zure biotzera etortzen dala, baita Aldarean dagoala ere, gogozko komunioaren bidez. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Beraz zuk, Kristaua, naiz zere neke, ta lanetan ari zaitezela, naiz gaixo zaudela, gogozko komunioaren bidez artu ditzakezu Sakramentu miraga-rri orrek guretzat dakartzian ondasunak. Zeñ ona, eta emallea gure Jesus ona! Baña saiatu ote gera gisa onetan komunioko ondasunak ateratzera? Nola saiatuko ziñan, oraindaño gogozko komunioaren izenik ere ezpa-ziñakean, eta lenbiziko komunioaren liburuan argiro gauz au egon arren, irakurtzen ezpadezu an erakusten dana?...



2

Begira gañera, nola gogozko komunioarekin animako ondasunen gordairu txit andia bildu dezakezun; komunio au alabaña egin dezakezu nai dezun aldi guzietan. Baña nagiak, eta narrak gera animaren egitekoan, eta arkitzen gera, Zeruko ondasun guzien iturria, eta emallea geren artean Sakramentu orretan daukagula, baña beti beartsu, alferrai gertatzen zaion eran. Zeñ gauza lotsagarria! noizbait ar dezagun benaz Sakramentu miragarri orren ondasunak irabazteko asmo oso bat... (*Altxatzen da Erakuslea belainiko dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Aditu dezu, Kristaua, nola Sakramentu orretatik atera ditzakezun ondasun ugariak, Sakramentu bera artuaz sarritan, eta prestaera onarekin, eta gogozko komunioarekin. Meza bakoitzean, Sakramentua bisitatzean, edo etxean zaudenean gaixo edo eguraldi gaiztoakin ezin etorri zaitzekenean, gogozko komunioa erraz egin dezakezu. Onela bilduko dezu Zeruko ondasunen gordairu andi bat, eta iritsi dezakezu betiko bizitza doatsua. Amen.

BERROGEI TA ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amaseigarrena.

ALABATUA &.

Sakramentu miragarri orren gañean azkeneko aldi itz egin nua-nean, aditzera eman nizun, Kristaua, zer dan komunio gogozko, edo espirituala, eta zeñ andiak diran andik atera ditzaketzun ondasunak, zere etxean zaudela, bidean zabiltzala, eta batez ere Meza enzutean, edo Sakramentua bisitatzean. Oraiñ lenbiziko komunioaren liburuak itz egiten digu, komunioko Sakramentua artzeko, Kristaua, guziak duen eginbide, edo obligazioaren gañean, eta galdetzen du gisa onetan.

Kristau guziak beartuak ote daude artzera komunioko Sakramentua? Erantzuten du: Sakramentu oni dagokion ezagueran sartu ezkerro, bai Jauna. Zenbat bider urtean? Elizaren lenbiziko denboretan Sakramentu au artu oi omen zuen Kristauak, Meza enzuten zuen aldi guzietan. Asi ziran zabartzen, eta agindu zuan Elizak, komulga zitezela urtean iru bider bederik, edo Pazkoa loratuan, Maiatzekoan, eta eguerriz. Etziran zentzatu, geienak beintzat, aginte onekin ere, eta azkenean agindu zan, komulga zitezela, urtean beñ gutxienez. Zer denboraz egin bear da urtean beñgo komunio au? Pazkoa loratuan, baña Pazkoaren izenez aditzen dira oraiñ erramutik urrengo amabost egunak, erramu eguna ere amabost egun oetan sartzen dala. Non egin bear da komunio au? Bakoitzak egin bear du bere Elizan, bere artzaiaren baimenik ezpadu bestetan egiteko.

Pazkoako denboraz kanpora, ez ote dago beartua Kristaua, zenbait aldiz komulgatzera? Bai Jauna. Noiz ote? Lenbizia: illtzeko perillean arkitzen danean. Bigarrena, Zeruko janari au gabe ezin garaitu baditu bere griña txarrak, edo ezin iraun badezake Jaunaren grazian. Urtean zenbat aldiz artu bear lukee Kristau guziak janari miragarri au? Gutxienez illean beñ gizon jakintsuen iritzian.

Nor dira, komunioko maiean jartzea eragotzi bear zuten bekatariak? Errian guziak, edo geienak dakiela, gaizki bizi diranak, nola diran gorrotoan, ordikerian, adiskidetasun gaiztoetan, eta usuretan dirauenak. Ona Sakramentu miragarri ori artzeko, Kristau guziak degun egin-bidearen gañean lenbiziko komunioaren liburuak dakarrena.



Gauz oek berak ugarixeago azaltzea izango da gaurko Erakusaldia. Aurrena aditzera emango dizkitzut, Kristaua, Sakramentu miragarri au artzeko aginteari dagozkan, berriak. Urrena aginte onen kontra sarritan gertatzen diran bekatuak. Atzenez emendik aterako degu gaurko otoiz, edo orazioaren gaia. Asi gaitzen bertatik.

§ I.

Elizaren lenengo denboran Kristauak egun oro, edo Meza enzuten zuen aldi guzietan artzen zuen komunioko Sakramentua, S. Lukasek aditzera ematen digunez. Baña asi ziran zabartzen, eta utziaz zijoazen oitura eder au, eta agindu zuen Elizak, komulga zitezela Kristau guziak urtean iru aldiz bederik, au da Pazkoa loratuan, Maiatzekoan, eta eguerriz. Etziran zentzatu, geienak beintzat, aginte onekin ere, eta agindu bear izan zuan berriro Elizak, komulga zitezela gutxienez urtean beñ, Pazkoa loratuan. Agindu zuan gañera, Pazkoako komunioa egiñ nai etzuenai debekatu dakiela Elizako sarrera, eta iltzen diranean ukatu dakiela Eliz lurra. Ezta onenbesterekin kontentatu Eliza, baizik aditzera eman digu, komunioaren aginte oni eranzuten ez dioenak, herejeen suspitxa ematen duela: *Sunt de haeresi suspecti*. Leku batzuetan Pazkoetan komulgatu ez diranai siñalatzen die Obispo Jaunak denbora, presta ditezen ongi, eta artu dezeen Sakramentua prestaera ederrarekin. Eta Iruñeko Obispaduan agindua dago lenbizia: *Pazkoako* ama bost egunak igarotzen diranean, aditzera eman dezeela Animen arzaiak Elizan, nor diran komulgatu ez diranak, eta eztakiela utzi Meza, ta bezperak enzuten. Bigarrena, au onela eginda ere, ezpadira konfesatzen, eta komulgatzen amabost egunen barrunbean, geratzen dirala exkomikatuak, eta exkomiku au ezin kendu dezakeala Obispo Jaunak baizik. Irugarrena: Animen arzai bakoitzak *Korpus* egunerako bidal ditzala Iruñera, edo bear dan lekura, Pazkoako komunioa egiñ ez duenen agiriak. Gauz oek egin bear lirakeanak dira, baña anbesteraño lasaitua dago mundua, non gauz oetan bear litzakean arretra ipintzen ez dan.

Pazkoako komunioa egin bear du bakoitzak bere Elizan, bere arzairen baimenik ezpadu beste Elizaren batean egiteko. Konfesioa egin oida nai dan lekuan, konfesioak aditzeko eskua Obispo Jaunak eman dion edozeñekin; baña kanpoan konfesatu danak ekarri bear du bere agiria; beste-la gerta diteke erraz, Jaunaren maiean jartzea zenbait konfesorik gabe. Ez

da asko nola nai Pazkoetan komunioko Sakramentua artzea, baizik artu bear da ongi, eta komunio gaiztoarekin etzaio erantzuten Elizaren Aginteari.

Elizaren Aginte onez gañera bada beste bat Jesu-Kristorena: Jesu-Kristok alabaña esana utzi zigun: ez degula graziaren bizitarik izango, ezpadegu beraren gorputza jaten, eta odola edaten: *Nisi manducaveritis carnem filii hominis, et biberitis ejus sanguinem, non habebitis vitam in vobis*. Jesu-Kristoren itz oen bidez beartua dago Kristaua komunioko Sakramentua artzera, ez Pazkoako denboran bakarrik, baita beste zenbait denboraz ere. Beartua dago benik beñ, eriotzako perillean arkitzen danean. Beartua dago gañera, Zeruko janari au gabe ezin garaitu baditu bere gura, ta griña txarrak. Ona, nere Kristaua, komunioko Sakramentua artzeko guziok degun eginbidearen berriak. Ekusi ditzakun oraiñ eginbide onen kontra sarritan gertatzen diran bekatuak.

§ II.

Elizak agintzen digu, komunioko Sakramentua artu dezagula gutxienez Pazkoa loratuan eta zenbat izan oi dira erri bakoitzean, orduan ere Jaunaren maietik iges egin nai lukeenak eta gogoaren kontra datozenak? zenbat poztuko lirakenak, Pazkoarik ez izateaz eriotzako orduraño? Orregatik ez oi dira ekusi Pazkoako denboraren bukaeraraño, edo denbora au igaro artean.

Elizak agintzen du, Pazkoako komunioa bakoitzak egin dezala bere Elizan; eta zenbatek iges egingo due basora, edo beste errietara, Pazkoa aztu dedin artean? Batzuek dotrinan estu artu ditzeen beldurrez, besteak; zeren bizitza gaiztoa uzteko asmo osorik ez duen?

Elizak agintzen du Pazkoako komunioa, ta komunio ongi egiña: eta ongi begiratzen bazaio munduaren ibillerari, esan diteke, geienak, edo asko dirala Pazkoako komunioa gaizki egiten duenak. Atozea ezperen, ez dira asko munduan, dotrina, ta Zerurako bidea ikasteko nekatu nai ez duenak? Eta nekatu orde etsyia gurutzeagandik bezala igesi dabiltzanak dotrina, eta Jaunaren itza enzutetik? Ez dira asko beren estadu, ta karguaren eginbideak jakiteko saiatzen ez diranak? Ez dira asko, bekaturako bide, ta perill urkoak utzi litzakeela, uzten ez dituenak? Bekaturako bidea lagun urkoari ematen dioen, itz loi, ta keñada lotsagarriak laja ez dituenak? Ez dira asko bekaturako oitura utzitzeke, edo jabeari bere gauza



biurtzeko biotzik ez duenak? Oek guziak Pazkoetako komunioa, edo ez due egin, edo gaizki egin due, eta beartuak daude berriro egitera.

Jesu-Kristo Sakramentu orretan arkitzen da guri graziaren bizitza ugaritzeko, eta da *bizitzaren arbola* egiazkoa. Bazan Paradisuan arbola bat, bizitzaren arbola Eskriturak deitzen diona. Aren fruta janaz bizi zitekean gizona, eritasunik, zartze, ta eriotzarik ekusi gabe: eta arbola ura baño askoz miragarriago da komunioko Sakramentuan dagoana: Nere gorputza egiaz da janaria, eta nere odola egiaz edaria: *Caro mea vere est cibus, et sanguis meus vere est potus*: ogi au jaten duana biziko da beti: *vivet in aeternum*. Janari au sarritan artuaz graziaren bizitzan iraun zezakeen asko bekatuaren berrizkaturak artu ditu, eta ill dira animaren aldetik, zeren Sakramentu onetatik igesi ibilli diran. Urlia garizuman biurtu zan Jaunagana, ustez biotz osoarekin, sandia Misioren batean, berendia egon zan egun batzuetan *Konbeturen* batean bere kontuak ateratzen: berritu zituen beren konfesioak, eta jarri ziran Jaunaren grazian; baño geratu ziran guziz argalak, eta gaitzeronz makurtuak. Oek Sakramentu miragarri ori sarritan artuaz, iraun zezakeen bekatuan erori gabe; baño zabartu ziran alde onetatik, eta laster biurtu ziran leneko bekatueta, ta oen geroko bizitza izanda lenekoa baño ere gaiztoagoa: *et fiunt novissima hominis illius pejora prioribus*. Ekusten dezu, Kristaua, nola sarritan utsegiten dan Sakramentu ori artze-ko degun eginbide, edo obligazioaren kontra?

Au guzia ezaguturik, zer da guk egin bear deguna? Zer ezpada oraindañoakoaz ongi damutzea, eta aurrerako asmo on, eta sendoak egitea? Onetarako denbora piska batean gogoan erabilli bear ditugu ukitu ditudan gauzak. Jarri gaitzen Jaunaren aurrean belainiko. (*Ala jartzen dira guziak, eta Erakuslea ere bai*).

1

Begira, Kristaua, zer agintzen dizun Elizak, eta zer Jesu-Kristok. Elizak nai luke, zuk Sakramentu ori sarritan artzea, lenengo Kristauak egiten zuen bezala; baño ekusirik zure argaltasuna, ez dizu agintzen, urtean beñ gutxienez komulga zaitezela baizik. Jesu-Kristok agintzen dizu, zoazkiola, eta artu dezazula janari miragarri au premia dezunean bederik, edo au gabe zure griña txarrak ezin garaitu dituzunean: bestela illko zerala bekatuaren eriotzarekin: *Non habebitis vitam in vobis..*

2

Begira bigarrena, nola eranzun diezun, ala Elizaren, nola Jesusen aginteari. Zenbat bider bortxaz bezala Pazkoetako komunioa egin dezu?

zenbat bider gaizki, edo tranpaz kanpoan? Zenbat bider gertatu zaizkitzu bekatuaren berrizkaturak, zeren Zeruko janari ori sarritan artu ez dezun?... Egin dezagun negar Jaunaren aurrean oraindañoako utsegiteen gañean: artu dezagun asmo oso bat, aurrera Sakramentu ori sarritan, eta prestaera onarekin artzeko... (*Altxatzen da Erakuslea belainkatua zegoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia era onetan*).

3

Gure salbatzalle Jesus maitagarria! Zu zera gure animen janari, ta sendagai miragarria! Ezagutzen det, sendagai au gabe iraungo ez dedala onean: eta erabaki det, Jauna, zu sarritan, eta prestaera onarekin artzea. Lagun zaikizkit arren nere asmo au gordetzen, era onetan iristeko zu biotz osoz amatzea, eta betikotasun guzian Zeruan zu alabatzea. Amen.



BERROGEI, TA BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

baña Aldareko Sakramentuaren gañean amazpigarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko aldian itz egin nizun, Kristaua, komunioko Sakramentua artzeko guziok degun eginbide, edo obligazioaren gañean. Orain lezbiziko komunioko liburuak ukitzen ditu aurreneko komunioko dagozkan, gauzak, eta galdetzen du gisa onetan.

«Noiz egin bear due aurrak lezbiziko komunioko? Erantzuten du. Komunioko Sakramentuaren, eta Sakramentu berak dakartzian ondasunen ezaguera, eta gustoa igarritzen zatenean. Noiz azaldu, edo agertu oi da aurretan ezaguera, eta gustu au? Amar urteetatik amalaren bitartean, geienetan beintzat.

Zer bear da lezbiziko komunioko au aurrak ongi egiteko? Iru gauza, baraurik, eta Jaunaren grazian egoteaz gañera. Zein dira? Lenengoa dotrinaren lau Parteak ongi jakitea. Bigarrena, konfesioko ta komunioko Sakramentuari dagozkan gauzak ere jakitea. Irugarrena, ongi konfesatzeko, eta komulgatzeko prestaera nola egin ikastea. Zergatik ori? Zeren prestaera au ikasten ez duan aurrak konfesioko, ta komunioko gaiztoak egiteko perillean biziko dan.

Pazkoaz, edo zeñ egunez egin bear due aurrak lezbiziko komunioko? Ori erabaki bear due animen arzaia. Lezbiziko komunioko egiteko berri-itu bear ote dira arteraño konfesioko? Ez, Jauna, ongi egiñak badira; baña nola aur-denborako konfesioko egiñ oi diran nola nai, eta ardura gutxiarekin, berri-itu oi ditue leku batzuetan lezbiziko komunioko. *Erakusleak.* Ongi diozu: eta konfesioko ezezik, bataioan emandako itzak ere berritzen ditue». Ona zer erakusten digun lezbiziko komunioko liburuak aurreneko komunioko gañean.

Gauz oek berak izango dira gaurko itzaldiaren gaia. Aurrena ukituko ditut lezbiziko komunioko dagozkan gauzak. Urrena gai onetan gura-soak izan oi duen zabarkeria negargarria. Azkenean, ukituko det otoiz, edo orazioaren gaia. Asi gaitezen.

§ I.

Anziñako denboran leku askotan eman oi zitzaten aur jaio berriai ere komunioko Sakramentua bataio, ta konfirmazioarekin batean, eta oitura au gorde zan denbora luzean; baña etzan premiazko gauza, ez graziaren apaindura ederra aurrari emateko, zeren au artzen duan bataioarekin, ez eta grazia doia ez galtzeko ere zeren ezin au galdu dezakean aurrak, gaitzaren, eta onaren ezaguera sartu dedin artean. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Etzan oitura au gaiztoa, eta ez du aintzakotzat eman Eliz Ama Santak; baña etzan erraz Sakramentu miragarri orri zor zaion begiramentu, edo errespetoa ongi gordetzea, ematen zitzatela aur ezaguerarik etzuenai: eta utzia joan ziran Obispo Jaunak anziñako oitura ura. Beste aldetik, Elizak, komunioko Sakramentua artzeko Kristau guziaz ipiñi zien, agintean etzitan aitatu ezagueran sartu ziranak baizik.

Aginte au Elizak ipiñi zuanean, sinits diteke, komunioko Sakramentua artu bear zuela, konfesatzeko adinean sartu ziran guziak; artean alabaña aur jaio berriai ere eman oi zitzaten asko lekutan. Baña andia da Sakramentu orrek eskatzen duan begiramentua, eta gizon jakintsu askoren iritzia izan zan, etzitzatela komunioko Sakramentua eman bear konfesatzen ziran aur guziaz, baizik itxedon bear zala, Sakramentuaren, eta Sakramentu onek dakartzian ondasunen ezaguera, eta gustoa igerri zekien artean: eta iritzi au ipiñi zan *Rituala* deritzan Elizako liburuan. Ezaguera, ta gustu au lenago izango due aur batzuek, besteak baño; batzuek alabaña adimentu argiagoa, aziera, ta era ohea due besteak baño; baña geienetan igerri oi da amar urteetatik amalauen bitartean. Au aditzen da osasuna dan bitartean, zeren iltzeko perillean badago aurrak, eta gaitzaren, ta onaren ezaguera sartua bada, emango zaio komunioko Biatikoa bezala, alik ongiena erakusten zaizkala gauzarik bearrenak.

Baña zer bear ote da lezbiziko komunioko au aurrak ongi egiteko? Baraurik, eta Jaunaren grazian egoteaz gañera, bear dira iru gauza. Lenengoa da dotrinaren lau Parteak ongi jakitea. Lau parte oek dotrinako liburutxoak dakartzian eran, dira gaitzaren, eta onaren ezaguera sartzean aurrak jakin bear dituan gauzak. Lenengo partean erakusten dira fedeko misteriorik andienak. Bigarren partean, nola erregutu bear diogun Jaunari, Zerurako bidean bear ditugun gauzak iristeko. Irugarren partean, zer egin bear degun Zerurako. Laugarrenean, zer diran, eta zertako Sakramentu guziak, eta bakoitza. Oek dira dotrinaren lau parteak, edo Kristauak eza-



gueran sartzen danetik jakin bear dituan lau gauzak. Eta ezpadakizki gauz oek, nola emango zaio komunioko Sakramentua? Lenbiziko komunioa ongi egiteko bear dan bigarren gauza da konfesio, ta komunioko Sakramentuari dagozten gauzak ere jakitea. Dotrinako liburutxoak ukitzen ditu bi Sakramentu oek, baña kontentatzen da, aur batek ezagueran sartzen danean jakin bear duana adiraztearekin. Badatorchio aurrari konfesatzeko, ta komulgatzeko denbora, eta orduan, dotrinako liburuak dakarren argi pixka ez du asko, gauzak ongi egiteko, guziok dakigun bezala. Lenbiziko komunioa ongi egiteko bear dan irugarren gauza da ongi konfesatzeko, ta komulgatzeko prestaera nola egin jakitea. Ala erakusten digu Aita Santu Benedikto amairugarrenak dotrinako bere liburuan. Prestaera au ikasten ezpadu aurrak lenbiziko komuniorako, beti biziko da konfesio, ta komunio gaiztoak egiteko perillean. Gerta liteke onelako Kristauak, suertez bezala, konfesio onen bat egitea, zeren konfesoreak lagundu dion; baña askotan usteko du konfesoreak, ongi prestatua dagoala bekataria eta emango dio absoluzioa, prestaera nola egin ez dakianari. Zer esango det, eriotzako perillean, eta konfesore gabe arkitzen bada onelako Kristaua? Nola moldatuko da, ezpadaki nola fedearen argiarekin gogora ekarri bear dituan onezko damu, edo kontrizio osoaren bideak? Dakuskun oraiñ gai onetan gurasoak izan oi duen zabarkeria negargarria.

§ II.

Badakit, eta atsegin andiarekin aitortzen det, guraso asko dirala emen, eta inguruko errietan, ederki dakienak ongi konfesatzeko, ta komulgatzeko prestaera, eta alegiña egiten duenak beren aurrari ere erakusteko. Baña beste asko arkituko dira non nai guziz jakinezak, zabarrak, eta sasiko abereak bezala bizi diranak. Arkituko dira Dotrinaren lau parteen izenik aditu ez duenak, eta galdetuko due: *Zer dira parte oriek?* Arkituko dira *Nere Jesu-Kristo Jauna*, edo onezko damua sortzeko itzak ez dakizkienak. Arkituko dira, nola examina egin ikasi ez duenak. Arkituko dira, bekatu jatorrizko, edo orijinalaren berririk ez duenak: eta oek nola adituko due Enkarnazioko Misterioa, edo Trinidadeko bigarren Personaren gizon egitea? Egin zan alabaña gizon, Adanek bere bekatuarekin beretzat, eta guretzat galdu zuan animako grazia, eta Zerurako eskua guri biurtzeko, eta kosta zitzaion gurutzean bizitza ematea. Arkituko dira *grazia* zer dan eztakienak, eta galdetzen bazate, eranzuten

due: *ez da gure errian orrelako gauzarik galdetzen*. Eta añ landugabeak badira guraso oek zer ikasiko due oen umeak? Ikasi lezakee bear adiña, bidalduko balitue eskolara, edo dotriña erakusten dan tokira; baña nola berak ezer ez dakien, ez ditue bidaltzen eskolara, eta dioe: *orrelako gabe igaro degu gure denbora*. Ah! guraso doakabea! Zertako artu zenduan ezkontzako Sakramentua? Zenzurik ez duen abereak bezala bizitzeko? Atozea, etzitzatzun orduan erakutsi, ezkontzako Sakramentua dala ezkonduak pakean bizitzeko, eta aurririk izaten badue, oek Zerurako azi ditzeen? Ez ote dezu oraiñ bederik asmo oso bat egingo, alik ongiena dagokizun dotrina ikasteko, eta aurrak, erakusten dan, lekura bidaltzeko? Asmo au bertatik sortu dedin zure biotzean, gogora ekarri ditzakun denbora pixka batean, gaur ukitu ditudan, gauz oek. Jarri gaitezen onetarako Jaunaren aurrean belau-niko. (*Ala jartzen dira guziak, ta Erakuslea ere bai*).

§ III.

1

Begira, Kristaua, zer bear dan lenbiziko komunioa ongi egiteko, eta nola egin zenduan, ta zauden gaurko egunean ere. Ikasi ote zinduan ordurako dotrinaren lau parteak, ta ongi konfesatzeko, ta komulgatzeko prestaera? Ote dakizkitzu oraiñ ere? Ez ote zera igesi ibiltzen dotrinetatik? Zer nai dezu nik esatea? Zer, Jesusek diona baizik? Jaungoikoarena danak, dio, entzuten ditu Jaungoikoaren itzak: *Qui ex Deo est, verba Dei audit*. Argatik ez dituzue zuek enzuten, zeren Jaungoikoarenak etzeraten: *Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis*.

2

Begira gañera, zure umeai erakutsi dieztezun lenbiziko komuniorako bear diran gauzak: edo beintzat bidaldu dituzun ikasteko lekura. Ai! Au onela egin bearrean, etxean iduki dituzu eskolara bidaldu gabe! Arreta geiagorekin begiratu diozu zure idisko, eta bigatxen azierari. Ez dira zu bezalakoak gurasoak, baizik eralleak, dio S. Bernardok: *Non parentes, sed peremptores*. Eta S. Paulok dio, ezpadu batek bereen, batez ere etxekoan ardura, edo konturik, ukatu du kargua artzean eman zuan itza, eta fede gabea baño ere gaiztoagoa da: *Siquis suorum, et maxime domesticorum curam non habet, fidem negavit, et est infideli deterior*. Lotsa gaitezen gure zabarkeriaz, eta egin dezagun asmo osoa, aurrera guri dagozkigun, gauzak ongi ikas-



teko, eta gure kontukoai erakusteko... (*Altxatzen da Erakuslea belaunikatua dagoan tokitik, eta bukatzen du Erakusaldia gisa onetan*).

3

Kristaua, aditu dituzun egia oekin, azkartu zaitte, eta egizu alegiña Jaunaren itza gogo, eta egarri andiarekin enzuteko. Bidaldu itzatzu aurrak eskolara Zerurako bidea ikasi dezeen artean. Gazteak, gazte dan bitartean artzen duan bidea ez oi du utzi zartzen danean ere. *Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea.* (Prov. 22). Etzaitzezela onenbesterekin kontentatu. Lenbiziko komunioa egin duen aurrak bidal itzatzu dotrinetara, eta sarritan konfesatzera. Onela geratuko dira ederki ikasiak, eta izango dira zure onra, eta atsegin andia, eta uste izan dezakezu, emengo egunak ongi bukatzea, eta gero betiko bizitza. Amen.

BERROGEI TA AMARGARREN ERAKUSALDIA

baña Mezako Sakrifizio miragarriaren gañean lendabizikoa.

ALABATUA &.

Aditu dituzu, Kristaua, komunioko Sakramentuari dagozkan, gauzetatik ez gutxi; baña jakizu, Sakramentu au denbora berean dala Jesu-Kristoren legeko sakrifizio guziz miragarria. Orregatik lenbiziko komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Komunioko Sakramentua denbora berean omen da Jesu-Kristoren legeko sakrifizio guziz arrigarria? Erantzuten du: bai, Jauna: ala erakusten digu gure fede Santak, eta sinisten degu Katoliko guziok. Zergatik da Sakramentu? Zeren ogiaren, eta ardoaren anz, eta idurien azpian dagoan Jesu-Kristo, gure animen janari, ta edari izateko. Zergatik da sakrifizio? Zeren dan, Trinitade txit santari aldarean eskeintzen zaion, doai eta ofrenda guziz eder, eta onragarria. Nola deritza Sakrifizio oni? Meza. Nori eskeintzen zaio Meza? Jainkoari bakarrik. Nola bada Meza batzuek dira Birjiña txit Santarenak, besteak Apostoluenak, besteak Aingeruenak, edo beste Santuren batzuenak? Ez zeren Meza oek Santuai eskeintzen zaizten, baizik zeren oen oroipena egiten, eta gure bitarteko Jaunari ipintzen zaizkan. Zer eskeintzen zaio Jaungoikoari Mezako Sakrifizioan? Jesu-Kristo Jaungoiko, ta gizon egiazkoa bera, ogiaren, eta ardoaren idurien azpian.

Beraz bat dira Mezako Sakrifizioa, eta Jesu-Kristok gurutzean eskeñi zuana? Bai, Jauna, bat dira eskeintzen dan gauzaren aldetik, baña ez eskeintzeko eran. Nola ori? Zeren gurutzekoa eskeñi zuan Jesu-Kristok, ixuriaz zuan odola, baña Mezakoa eskeintzen da odolik ixuri gabe. Mezako Sakrifizioa ote da gurutzekoaren anza, eta oroipena? Bai, Jauna, eta ipiñi zuan Jesu-Kristok, adirazteko guri, gure amorioz gurutzean eskeñi zuan, Sakrifizioa, eta onen oroipenak iraun zezan munduak dirauen artean. Nori eman zion Jesu-Kristok Sakrifizio au egiteko, eta eskeintzeko eskua? Apostoluai, eta ondorengo Apaizai bakarrik. Ona lenbiziko komunioaren liburuak aldi onetan erakusten diguna».

Erakusaldi onetatik ateratzeko guk zerbait on, begiratu bear degu gaur, benik beñ: nolako ongi nai, ta amorioa agertu digun gure Jesus onak



Mezako Sakrifizio miragarria ipintzean. Urrena nola egon bear gendukean, Sakrifizio au egiten danean: eta emendik aterako degu gaurko otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun arreata onarekin.

§ I.

Aldareko Sakramentua ipintzean, agertu zuan Jesusek guganako ongi nai, eta amorio bat, neurri, ta muga guziak igaro zituana, edo ezin geiagorañokoa; eman nai izan zigun alabaña, Jaungoikoak eman dezakean, edo bera dan guzia. Au guzia eginda ere, etzan Jesusen biotza guri onginaiez ase eta Sakramentu orrekin batean utzi nai izan zigun Sakrifizio bat, anziñako Sakrifizio guziak baño geiago balio duana, eta bakarra: Sakrifizio egiazkoa, eta egun oro ezin konta al bider Jaunari eskeñi daki-keona, eta au da *Mezako* Sakrifizioa.

Bai, nere Kristaua, utzi nai izan zigun Jesusek, eta utzi zigun Sakrifizio bat, anziñako Sakrifizioak baño geiago balio zuana, eta bakarra. Munduaren asieratik eskeñi zitzaizkan Jaunari doai, eta Sakrifizioak, eta Lege zarrean askoz geiago. Salomonek, bukatu zuanean Jerusalemgo Eliza, eskeñi ziozkan, beste sakrifizioen artean, ogei, ta bi milla zekor, eta eun, ta ogei milla ari. Anziñako sakrifizioen artean izan zan bat, Melkisedek Salengo Erregeak eskeñi zuana oraiñ esango dedan eran. Abrahamek garaitu zituan guda, edo gerra batean bost errege: irten zitzaion bidera Melkisedek Jaunaren apaiza, eta eskerrak Jaun berari emateko, eskeñi zion ogi, ta ardoaren sakrifizioa: eta au izan zan, Jesu-Kristok gero ipiñi zuan, mezako sakrifizioaren anz bat. Sakrifizio oek guziak aditzera ematen zuen Jesusen gurutzeko eriotza, eta aitu bearrak ziran Jesus iltzen zanean. Bere denboran etorri zan Jesus: ostegun santu arratsean bazekusan, laster bukatuko zirala lege zarra, eta legeko sakrifizio guziak, eta lege berriak eskatzen zuala sakrifizioen bat. Zer egin zuala, uste dezue? Lege berriaren emalle, ta Apaiz nagusiak bezala berak eman zuan lenengo meza, eta eskeñi zion aita betikoari lege berriko sakrifizioa. Zer geiago? Eman zien Apostolui, eta oen ondorengo apaizai sakrifizio bera egiteko, eta eskeintzeko eskua. Nik oraiñ egin dedana egizue zuek ere, nizaz oroitzen zeratela, esan zien: *Hoc facite in meam commemorationem*. Orra nola Jesusek utzi zigun mezako sakrifizioa. Urrutitik begiratu zion Dabidek Jesusi, sakrifizio au eskeintzen ari zala, eta esan zuan: Zu zera betiko apaiza, Melkisedeken anzera (ark alabaña ogi, ta ardoaren sakri-

zioa eskeñi zion Jaunari): *Tu es Sacerdos in aeternum secundum ordinem Melchisedech*. Sakrifizio onek anziñako guziak baño geiago balio du, eskeintzen zaio alabaña Aita betikoari doai bat, bere balioan neurririk ez duana, eta Aita berarekin berdiña, au da Jesus bera.

Sakrifizio au bakarra da lege berrian, Elizak erakusten digun bezala; zertako alabaña besterik ipiñiko zuan Jesus onak, bat au añ andi, ta miragarria utzi zigun ezkeroko?

Sakrifizio au, bakarra ezezik, da sakrifizio egiazkoa, zeren berekin dituan onetarako eskatzen diran doai, edo kondizio guziak. Zer doai ote dira sakrifizio egiazkoak eskatzen dituanak? Lau dira doai oek. Lenengoa, agiri dan ofrenda eskeintzea, eta Mezan eskeintzen da agiri dan doai, edo ofrenda. Eta nolako doai? Ez anziñako denboran bezala, anzume, zekor, eta bildotsak, baizik Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa. Doai au ez degu ekusten bera beregan, baña bai bere estalkietan. Sakrifizio egiazkoak eskatzen duan, bigarren doai da eskeñia izatea artarako eskua duanak, eta ala da Meza, eziñ alabaña eskeñi dezake au, artarako ipiñia dagoan Apaizak baizik. Apaiz nagusi ekusten ez dana, da Jesu-Kristo bera, eta Jesu-Kristoren itzakin eskeintzen du Apaizak sakrifizio au. Ez du orduan itzagitzen Apaizak gizonak bezala, baizik Jesu-Kristo bera baliz bezala. Sakrifizio egiazkoak eskatzen duan irugarren doai da, Jaungoikoari bakarri eskeñia izatea, eta ala da Meza, Trentoko Konzilioak erakusten digun bezala; bestela izango lizake *idolatria* deritzan bekatu itsusia, zeren Jaungoikoari bakarrik zor zaion, onra emango litzakeon Jaungoiko ez danari. Sakrifizio egiazkoak eskatzen duan laugarren doai da, eskeintzen dan gauza nolerebait desegitea, edo beintzat len zuan modutik beste batera aldatzea: eta au gertatzen da Mezan era guziz miragarrian. Oza Apaizak esaten ditu konsagraziooko itzak, len ogi zana biurtzen da Jesu-Kristoren gorputz, eta len ardo zana Jesu-Kristoren odol: eziñ ill diteke Jesus, eta alere konsagraziooko itzak nolerebait berriro iltzen duela dirudi, S. Zyrilok dionez: *Gladio verborum sanguis separatur a corpore* Atzanean Apaizak bere biotzean artzen duanean Sakramentua, eta desegiten diranean ogiaren eta ardoaren iduriak, denbora berean desegiten da Jesusen ango egoera. Orra nola, eta zergatik Meza dan lege berriko sakrifizio egiazkoa.

Sakrifizio au egun oro, eta egunean ezin konta al bider eskeñi daki-keo, eta eskeintzen zaio Jaunari. Zoaz ezperen, Kristaua, nora nai. Ekusiko dezu katolikoan erri guzietan egun oro, eta egunean askotan eskeintzen dala doai au. Era onetan berritzen da Jesusen gurutzeko erioztaren oroipena, eta gisa berean berrituko da muduaren bukaeraraño. Zer



geiago? Meza esaten dan bakoitzean nolerebait berriro iltzen da Jesus eta arriturik daude Aingiruak dio S. Juan Krisostomok: *Stupent Angeli*. Esan zadazu oraiñ, nere Kristaau: au guzia guri ongi naiez egin, ta egiten badu Jesus onak, nolakoa izango da beraren guganako amorioa? eta nola egon bear genduke, Mezako sakrifizioa egiten, eta eskeintzen danean? Au da oraiñ begiratu bear deguna.

§ II.

Ekusia dago sakrifizio au egiten dan denboran egon bear dala begiramentu, eta jaiera andi batekin, baña zer ote da onetarako guk egin bear deguna? Ara zer: lenengo lekuan alde bat utzi bear dira lurreko arazo, eta kezkek; bestela oetara joango da gogo, eta zertan gauden oroitu gaitzezeneko, aurrera joango da Meza. Bigarrena, mugonean etorri bear da Elizara, eta adoratu bear degu, guri ongi naiez gau, ta egun Sakramentu orretan dagoana. Irugarrena, eskeñi bear diogu enzutera goazen Meza Trinitate guziz Santari beraren onra, ta gloriarako: egin dizkigun ontarte, eta mesede guzien eskerrak emateko: gure, ta lagun urko bizien bekatuen barkaziorako: Purgatorioko animen alde: eta atzenean bekatutik aldegitiko, eta bizitza onean irauteko bear ditugun lagunzak iristeko. Laugarrena, Mezaren asieratik Sagararaño gogoan erabilli ditzakegu Jesusen neke oñazeak, Getsemaniko baratzara joan zanetik gurutzean bizitza eman zuan artean: eta noizean beñ saia gaitezke gure bekatuen damua, eta beragana-ko ongi nai, ta amorioa sortzera. Jesusen pasioko Misterioak gogoan erabiltzea erraz egin dezake irakurtzen ez dakianak ere, eta beragatik au da, nere ustean, guzientzat Mezaren enzun bide egokiena. Baña begira, ez uste izan Sagararaño igaro bear dituzula Misterio guziak, Meza ongi entzuteko; baizik igaro ditzakezu, nai badezu, guziak, eta naiago badezu, batzuek, eta orobat gera zaitezke beste Misterioak baño obeto biotza ukitzen dizunen batean.

Bostgarrena, Sagarako denbora datorrenean, oroi zaite orduan gertatzen diran Misterio izugarriaz. Esaten ditu Apaizak konsagratio itzak, len ogi zana biurtzen da Jesus-Kristoren gorputz, eta len ardo zana Jesukristoren odol: idikitzen dira Zeruak, eta jatxitzen da Jesus Aldarera: jatxitzen dira Zeruko Aingeru, ta Serafinak ere beren Jaun, eta Erregea adoratzerara; batzuek jartzen dira auspez, eta besteak Mez-emalleari laguntzen dioe gauzak ongi egin ditzan. Ala ekusi zituan S. Euthimiok. Bedeikatua

izan dedilla, esan dezakezu Elizarekin, bedeikatua Jaunaren izenean datorrigun gure Salbatzallea: *Benedictus, qui venit in nomine Domini*. Seigarrena, egin ditzakezu akto fede, esperanza, ta karidadezkoak: eta presta zaitezke gogozko komuniorako, artarako sasoiean bazaude: orobat Mezondoan Jauna artu nai badezu. Atzenean Apaizak bendizioa ematen duan denboran, eska zaiozu Jaunari, ixuri dezala zure gañean bere bendizioa. Orra, nere Kristaau, zer egin dezakegun, begiramentu, eta jaiera andi batekin egoteko, Mezako Sakrifizioa eskeintzen dan denboran. Ez du Jaunak eskatzen itz ederrik, baizik nai du biotz onarekin alegiña egitea. Onetarako bear diran asmo onak egiteko, jarri gaitezen belauniko Jaunaren aurrean, eta gogoan erabilli ditzakun ukitu diran gauzak. (*Belaunikatzen dira guziak*).

1

Begira, Kristaau, lenengo lekuan, nolako ongi nai, ta amorioa agertu digun Jesus onak Mezako Sakrifizioa ipintzean. Etzan kontentatu Sakramentu orretan gugana etortzearekin. Ekusten zuan anziñako Sakrifizio guziak aituko zirala beraren eriotzarekin, eta aen lekuan ipiñi zuan Mezako Sakrifizioa, anziñakoak baño geiago balio duana; Sakrifizio bakarra, egiazkoa, eta egun oro, ta egunean ezin konta al bider Jaunari eskeñi dakikeona. Sakrifizio onetan eskeintzen dan doai, ta ofrenda da Jesus bera. Nolakoa izango da bada guri ongi naiez au egiñ duan Jesusen guganako ongi nai, ta amorioa?

2

Begira urrena, nola egon bear gendukean Mezako Sakrifizioa egiten, eta eskeintzen danean. Egon bear genduke begiramentu, eta jaiera andi batekin, eta onetarako asko lagunduko digue Mezaren aurretik, eta Mezako denboran egiteko aditzera eman ditudan gauzak. Baña nagiak izan gu gauz onak ongi egiteko. Ez ote degu noizbait utzi bear nagitasun au?... (*Altxatzen da Erakuslea, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Aditu dezu, nere Kristaau, Mezako Sakrifizioa ipintzean Jesus onak agertu digun ongi nai, ta amorioa. Aditu dezu, zer egin bear gendukean begiramentu, eta jaiera andi batekin, Sakrifizio au egiten dan denboran egoteko. Zeruko Aingeruak auspez bezala, eta arriturik daude orduan, eta gu egongo gera, zertan gauden ere, begiratu gabe? Ea, oraindano nagitasunaz egin dezagun negar: aurrera jaiera andi batekin enzun dezagun Meza Santa, eta bizi gaitezen Kristauari dagokan eran, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.



BERROGEI, TA AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

baña Mezako Sakrifizio miragarriaren gañean bigarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko aldian asi nintzan Mezako Sakrifizioaren gañean itz egiten. Aditu zenduan orduan, Kristaua, nolako ongi nai, eta amorioa agertu digun Jesus onak, Mezako Sakrifizio miragarria ipintzean: Sakrifizio bat anziñako guziak baño geiago balio duana, eta bakarra: Sakrifizio bat egiazkoa, eta egun oro, ta egunean eziñ konta al bider Jaunari eskeintzen zaiona. Aditu zenduan gañera nola egon bear gendukean Sakrifizio au egiten, eta eskeintzen danean. Zeruko Aingeruak arriturik arkitzen dira Aldarearen inguruan: eta nola egon bear genduke, guk? Orain lenbiziko komunioaren liburuak galdetzen du gisa onetan.

«Zertako eskeintzen zaio Jaungoikoari Mezako Sakrifizioa? Erantzuten du: Bost gauzatarako. Zeñ dira? Lenengoa: eman al ditekian onrarik andien, eta garaiena emateko. Bigarrena, beraren esku ongilleak egin dizkigun ontarte, edo mesede guzien eskerrak emateko. Irugarrena, beraren aserrea palakatzeko, eta gurekin lagun-urkoen bekatuen barkazioa iristeko. Laugarrena, gure, eta Purgatorioko animen bekatu barkatuai dagozten, penak pagatzeko. Bostgarrena, Zerurako bidean bear degun guzia, batezere bekatutik aldegitoko, eta onean irauteko Zeruko lagunza ugariak iristeko.

Zergatik Mezako Sakrifizioa eskeintzea da eman al ditekian onrarik andien, eta garaiena Jaungoikoari ematea? Zeren eskeintzen zaion bere seme bakar Jesus Jaungoiko, eta gizon egiazkoa, eta ofrenda au dan neurririk, eta mugarik gabe onragarria. Nola Sakrifizio onek barkatzen ditu bekatuak? Iristen dituala Jaunagandik, bekatutik irteteko bear ditugun, Zeruko lagunzak. Au onela izanik, nola geratzen dira asko beren bizitza gaiztoan? Zeren baliatzen ez diran, bekatutik irteteko, Jaunak bidaltzen diezten, lagunzak». Ona lenbiziko komunioaren liburuak aldi onetan erakusten diguna.

Gaurko itz aldia izango da ukitu diran bost gauz oek ugarixeago adiraztea, eta emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Enzun arre-ta onarekin.

§ I.

Jesusen guganako ongi nai, ta amorio geiegiak asmatu zuan guri utzitzea Mezako Sakrifizio guziz miragarria, len ekusi degun eran. Zertako ote? Lenengo lekuan Jaunari emateko eman al ditekian onrarik andien, eta garaiena. Jauna da gauza guzien asiera, iturburua, ta iraupena: da izate miragarri bat, zeñagandik datozen gauza guziak itsasotik iturriak datozen bezala: eta gauza guzien asiera oni zor zitzaion onrarik andien, eta garaiena. Egia au ezagutu zuan gizonak, Jaunak eman zion argitasunarekin, eta bereala asi zan berari eskeintzen doai, ofrenda, ta Sakrifizioak, oen artean anzumeak, bildotsak, zekorrek, amarrenak, eta primiziak. Salomonek, bukatu zuanean Jerusalemgo Eliza, eskeñi ziozkan Jaunari doai, ta Sakrifizio txit ugariak, bada eskeñi ziozkan ogei, ta bi milla zekor, eta eun, eta ogei milla ari. Baña zer ziran gauz oek Jaunaren anditasunari zor zaion onrari erantzuteko? Zer dira munduko gauza guziak Jaunaren aldean ipintzen badira? Ezer ez bezala, dio Isaias Profetak, eta diran apurra ere berak emana da. Orragatik gizonak, egiñ al guzia egiñ, eta eman al guzia eman arren, etzuan zerekin onratu Jauna zegokan eran. Zer egin zuan Jesus onak? Utzi zigun Mezako Sakrifizioa, non eskeintzen zaion Jaunari doai bat neurri, ta mugarik gabe onragarria, doai bat Jaunarekin guzian berdiña.

Sakrifizio au eskeintzen zaio urrena Jaunari, egin dizkigun ontarte, eta mesede guzien eskerrak emateko. Ontarte, ta mesedeak artzen ditua-na beartua dago, bere ongillea aintzakotzat idukitzera, eta berari eskerrak ematera, artu dituan mesedeai dagoten eran. Baña nola emango diozkagu Jaunari, egin dizkigun ontarte, ta mesede guzien eskerrak? Berak eman zigun, eta gordetzen digu degun izatea. Berak ederki prestatu zituan guretzat Zeruko, lurra, eta bizitzeko bear ditugun gauza guziak: eta egin ginduan berarekin batean Zeruan bizitzeko. Galdu zuan Adanek Zerurako esku au ala beretzat, nola guretzat, eta oker au zuzentzeko, bidaldu zuan mundura bere seme bakarra. Ainbesteraño maite izan ginduan, non eman zuan bere seme bakarra, dio S. Juanek: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret.* Egin zan gizon seme au, eman zuan gurutzean bere bizitza, eta ipiñi ginduan Zerurako bidean. Zer geiago? itsasoan arraia urez inguratua arkitzen dan eran, ala gu inguratuak gaude alde guzietatik Jaunaren ontarte, ta mesedez, eta mesede oek egun oro, ta ordu oro berri-



tzen dira. Zer ordañ biurtuko diot Jaunari, egin dizkidan ontarte, ta mese-de guziakgatik, zion Dabidek? *Quid retribuam Domino pro omnibus, quae retribuit michi?* Eta zer esango zuan, geroztik Jaunak gure alde egin dituan gauz arrigarriak ekusi balitu? Ainbeste, ta añ andiak dira Jaunagandik artu ditugun mesedeak, non gai, edo gauza ez geran oen diñako eskerrak emateko. Orregatik utzi zigun Jesu-Kristok Mezako Sakrifizioa, onekin Jaunari emateko zor diogun guziaren eskerrak, Jaun berari, eta artu ditugun mesedeai dagoten eran. Emendik deitzen zaio Sakrifizio oni esker onaren Sakrifizioa.

Mezako Sakrifizioa eskeintzen zaio Jaunari irugarren lekuan, beraren aserrea palakatzeko, ta gurekin lagun-urkoen bekatuen barkazioa iristeko. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Lege naturalean, edo letraz ezarritako legea Jaunak eman zuan baño lenagoko denboran, eskeintzen zitzaizkan doai, eta Sakrifizioak beraren aserrea itzaltzeko, eta bekatuen barkazioa iristeko. Ala egun oro egiten zuan Job Santuak bere seme, ta alaben bekatuakgatik. Moysesen legean ere baziran bekatuen barkaziorako eskeintzen ziran, Sakrifizioak. Oek Jaunaren begietan utsa, edo ezer ez bezala ziran berenez, S. Paulok dionez; alaere agradatzen zitzaizkan Jaunari, zeren Jesusen gurutzeko eriotzaren anza, eta gereiza ziran. Kendu zituan Jesusek anziñako Sakrifizio aek, ta aen lekuan utzi zigun Sakrifizio bat ezin geiagoraño Jaunari agradatzen zaiona: eskeintzen zaio alabaña bere seme bakarra, eta onegan ditu bere atsegin-kontentuak betikotasunetik: *In quo mihi bene complacui.* Sakrifizio onek itzaltzen ditu Jaunaren aserreak; bestela munduaren zori gaiztokoa! Gañera Sakrifizio onen bidez ematen dizkigu Jaunak, bekatutik irteteko, eta bizitza onean irauteko, Zeruko laguntzak. Alaere geienak geratzen dira bekatuan, zeren beren griña txarretan itsutuak bizi diran, eta baliatzen ez diran Jaunak bidaltzen diezten lagunaz.

Mezako Sakrifizioa eskeintzen zaio Jaunari laugarren lekuan, gure, ta Purgatorioko animen bekatu barkatuai dagozten, penak pagatzeko. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak. Ekusten zuan Jesus onak, gutxitan izango zala gudan bekatuen damua añ andi eta bizia, non iritsiko genduan, bekatuaren barkazioa ezezik, bekatuaren penarena ere bai. Ekusten zuan, egunetik egunera aziaz joango zala gure bekatuen zorra, eta zor au atera gabe etzegoala Zerurako biderik: eta au guzia ongi zekusanak bezala, ipiñi zuan Mezako Sakrifizioa bekatu barkatuen zorrak, edo penak barkatzeko. Emen galdetu oi dira zenbait gauza, eta oetatik batzuek dira oraiñ ukituko ditudanak. Lenengoa: urliak ateratzen du Meza bat, edo geiago bere bekatuen zorrai erantzuteko; baña Meza esaten danean arkitzen da beka-

tuan, barkatuko ote zaio bekatuen zorrik? Ez, zeren zor au barkatzen ez da, bekatua bere oñean dagoala; baña emango diozka Jaunak bekatutik irteteko Zeruko laguntzak. Jaunaren grazian arkitzen bada Meza esaten danean, orduan barkatuko dio Jaunak bekatuen zorra, edo guzia, edo zerbait; eta zenbat eta jaiera, edo debozio andiagorekin ematen duan Meza esateko limosna, anbat ugariagoa izango da barkazioa. 2.a Sandiak ez du Meza ateratzeko erarik, baña Meza nagusietara dator, bere mallari ongi dagozkan, doai edo ofrendakin, eta enzuten du Meza jaiera, ta debozio andiarekin; onek frutu gutxiago ote du Meza esan erazten duanak baño? Ez, baizik geiago, dio Pedro Soto jakintsuak. Alde batetik alabaña Jaunari eskeintzen diozka bere doaiak Mezan, eta bestetik Meza enzuten du jaiera, edo debozio andiarekin; baña Meza ateratzen duanak ez oi du enzun. Esan det *bere mallari ongi dagozkan*, doai, *eta ofrendakin*, zeren doai, edo ofrendak ez dira arrotasunez egin, edo eskeñi bear, baizik Jauna onratzeko, eta aitortzeko, bera dala gauza guzien jabe, ta emallea. Doai, edo ofrendarik ezpadezu, Kristaua, ez du ezer esan nai, eskeñi zaiozu Jaunari zure biotza egindako utsegiteen damu andiarekin, eta aurrera bera amatzeko, ta serbitzeko asmo osoarekin, eta uste det, era onetan zuk Meza nagusitik ondasun geiago aterako dezula, beste batzuek Meza ateratzearekin baño; Elizaren lenengo denboretan Errege, ta Erregiñak, andi, eta txikiak Meza nagusietara zijoazen beren ofrendakin, eta S. Karlos Borromeok alegiñ asko egin zuan jai egunetako ofrendak anziñako oñean ipintzeko. Emendik atera ezazu, Kristaua, gai onetan ez dala itz egin bear erraz, eta gauzen berri ongi jakin gabe. Irugarrena: galdetu oi da, obe lizakean guzia Mezatako utzitzea, ezen ez onrak, ofrendak, limosnak egitea? Gerta diteke, erri batean izatea premia estuan dauden bearsuak, eta orduan ez da ongi guzia Mezatarako utzitzea, Domingo Soto gizon txit jakintsuak dionez. Gerta diteke gañera erri bateko Apaizen errentak nolerebait moldatuak izatea onra, ta ofrendakin: orduan ez da ongi oitura ona utzirik, guzia Mezatan biurtzea; baizik egin bear dana da alferrikako gastu gabe erriko usanza gordetzea, eta zerekin duenak atera ditzakee Mezak. Jakizue, Elizaren anziñako usanza dala illai onrak egitea, ta onetarako dira illeta, herena zazpigarrena bederatzurrena, ogei, ta amargarrena, eta urtebetegarrena. Esan ditut gauz oek zeren gaurko egunean noizean beñ agertu oi diran, jakintsuen idurian, aditzen ez dituen, gauzak itz egiten dituenak gai onetan.

Atzenean Mezako Sakrifizioa eskeintzen zaio Jaunari, Zerurako bidean bear degun guzia iristeko, betezere bekatutik aldegitoko, eta bizitz onean irauteko Zeruko lagunza ugariak. Añ eriezerezak gera animari



dagozkan gauzetan, non gauza ez geran gerenez *Jesus* bat esateko ere bear bezala. Ala esaten digu S. Paulok: *Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto.*

Au onela izan, eta ez ote gera Sakrifizio onezaz baliatuko gaur aditu ditugun gauzetarako? Jesusek guri ongi naiez añ ederki prestatu Sakrifizio au, gure onerako: eta gu izango ote gera oraindño bezeñ eskergabeak? Ez det uste: eta gaur bear bezalako asmoak sortzeko jarri gaitezen belau-niko Jaunaren aurrean, eta gogoan erabilli ditzakun ukitu diran gauzak. (*Belaunikatzen dira guziak eta Erakuslea ere bai*).

1

Begira, Kristaua, zertako eskeintzen zaion Jaungoikoari Mezako Sakrifizioa? Eskeintzen zaio eman aldithekan onrarik andien, eta garaiena emateko: egin dizkigun ontarte, ta mesede guzien eskerrak emateko. Eskeintzen zaio beraren aserrea palakatzeko, eta gurekin lagun-urkoen bekatuen barkazioa iristeko: gure, eta Purgatorioko animen bekatu barkatuai dagozten, penak pagatzeko: atzanean Zerurako bidean bear degun guzia iristeko. Nori gogorako zitzaion, Jesus ona etzala kontentatuko Sakramentu ori ipintzearekin? Eta utzi naiko zigula Sakrifizio arrigarri au? Ongi nai, ta amorioaren geiegia?...

2

Begira urrena, nola baliatu geran Sakrifizio orrez. Baliatu ote gera Jaunari onrarik andiena emateko? Baliatu ote gera, egin dizkigun mese-deen ezaguera, eta esker ona agertzeko, edo esan diran beste gauzetarako? Ai! Au egin bearrean, zenbat bider gure gogo, eta biotzak ibilli dira beste gauzetan? Zenbat bider Jaunari onrarik andiena eman lekuan bide gabe, ta eskergabekeria berriak egiten zaizka Mezako denboran? Eta alae-re ez du gure artetik iges egin gure Jesus onak? Ez ote degu beste bizi-modurik artu bear?... (*Altxatzen da Erakuslea, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran*).

Aditu dezu, Kristaua, zertako eskeintzen zaion Jaungoikoari Mezako sakrifizioa: eta nai, ta nai ez ezagutuko zenduan sakrifizio onez ez gerala baliatu bear gendukean eran. Zeñ eskergabekeri itsusia! Zer ote da guk oraiñ, ta gero egin bear deguna? Guk egin bear deguna da Jaunari barkazio eskatzea oraindñoko utsegiteaz, eta aurrera Mezako sakrifizioa eskeintzea, eta enzutea Jesus onak nai duan bezala, onela iristeko bizi on bat egiteko Zeruko lagunza ugariak, eta gero betiko atsegin-kontentuak. Amen.

BERROGEI TA AMABIGARREN ERAKUSALDIA

baña Mezako Sakrifizio miragarriaren gañean irugarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko bi Erakusaldietan itz egin degu Mezaren gañean, eta ekusi degu, zeñ andi, ta ugariak diran, Sakrifizio onetan Jesus onak utzi dizki-gun, ondasunak. Jauna, esango didazu oraiñ, zeñ ote da guretzat Mezaren enzun-biderik errazena, eta onena? Arkituko dituzu Mezaren enzun-bide ederrak, ala erdaraz, nola euskeraz, baña zuk naizenduke errazena, au da, irakurtzen ez dakienak ere neke gutxirekin idasi dezakeana, eta denbora berean protxurik geiena zuretzat ekarriko duana. Onelakoa izango da bear bada, egiten badituzu iru gauza. Lenengoa da, Jauna adoratzeta, eta Trinitade guziz Santari eskeintzea, enzutera zoazen, Meza. Bigarrena, Mezaren asieratik Sagararaño Jesusen Pasioko neke-oñazeak gogoan era-biltzea, eta emendik sortzea zure bekatuen damua, eta Jesusen ongi nai, eta amorio egiazkoa. Irugarrena Jesusi egitea Elizarekin batean ongi eto-rrri umillak, akto fede, esperanza ta karidadezkoak: eta sasoiaren bazaude, gogozko komuniorako prestaera. Iru gauz oek adiraztea izango da gaur-ko Erakusaldia; eta emendik aterako degu otoiz, edo orazioaren gaia. Gaur esango ditudan gauzetatik batzuek ukitu nituan azkeneko Erakusaldian ere. Baña eun bider esango balira ere, gutxitan esango lira-ke. Entzun, Kristaua, kontuz.

§ I.

Zu, nere, Kristaua, Meza ongi enzuteko naiez zauden ezkerro, atoz Elizara mugonean: jarri zaite belau-niko: adora ezazu Jauna, eta eskeñi zaiozu enzutera zoazen Meza Trinitade guziz Santari era onetan, Trinitade guziz Santa, Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua, Jaungoiko bat bakarra, ta iru persona zerana! Adoratzeta zaitut umiltasun, eta errespeto guziarekin. Eskeintzen dizut enzutera noan Meza au, lenengo lekuan: zuri, gauza guzien asiera, eta iturburuari bezala, onrarik andiena emateko. Bigarrena: egin dizkidatzun ontarte, eta mesede guzien esker zure diña-



koak emateko. Irugarrena, nere, ta lagun urko bizien bekatuen barkazioa iristeko. Laugarrena, Purgatorioko animen alde. Azkenean eskeintzen dizut Jesusen ofrenda au, eman degidazun, Zerurako bidean bear, eta on izango dedan guzia, batez ere bekatutik aldegeteko, eta bizitz onean irauteko doaia. Orra, nola eskeñi degiokezun Trinitade guziz Santari Meza eta ez uste izan, itz oekin berakin egin bear dezula au: egizu al dezuna biotz onarekin, eta au da Jaunari geiena agradatzen zaiona.

§ II.

Mezako Sakrifizioa da, Jesusek gurutzean eskeñi zuanaren anz, eta iduria, eta berritzen du gurutzekoaren oroipena. Ala esaten digu S. Paulok: *Quotiescumque enim manducabitis panem hunc, et calicem bibetis, mortem Domini annuntiabitis, donec veniat.* Asi zaite bada Jesusen Pasioko neke-oñazei begiraldi bat ematen.

Irteten da Apaiza Mezaren Sakrifizio izugarria eskeintzera: irten zan Jesus Jerusalemik Getsemaniko baratzara, gugatik Aita Eternoari Pasioko neke-oñazeak eta bizitza eskeintzera. Asitzen da bere Aitari erregutzen. Ekusten ditu animako begien aurrean munduaren bekatu guziak, eta oek-gatik igaro bear dituan nekeak. Ekusten du, geienak alaere utzi naiko ez duela bekatua, ta galduko dirala: oetatik bat izango dala Judas. Illuntzen eta tristuraz betetzen zaio barren guzia: izutzen due Pasioko neke-oñazeak, eta eskatzen dio Aitari, igaro dedilla Pasioko kaliza, berak edan gabe. Ala ere, egin bedi, esaten dio, zuk nai dezuna, eta zuk nai dezun eran. Jartzen da odolezko izerditan. Nere anima, zure eskergabekeri, ta bekatuak onenbesteraño nekatzen due Jesus eta zu etzera mugituko oen gañean negar egitera, eta bizitz on bat artzera?

Getsemaniko neke oen ondoren bereala asi ziran neke, oñaze, ta naigabeen ujola berriak. Badator Judas saltzalea, eta adiskidearen idurian ipintzen du Jesus bere etsaien atzaparretan. Iges egiten due Apostoluak. Badarabilte Jesus Jerusalemen etxez etxe, kalez kale. Zeatzen, eta urratzen due azotez. Begira, nere anima, nola utzi duen zure bekatuak Jesus! Burutik asi ta oñetaraño zauri bat egiña dago guzia: eta alaere zuri ongi nai ez ontzat artzen ditu ainbeste neke, ta oñaze! Eta Jaun au ez dezu amatuko eta serbituko?

Kentzen diozkee berriro bere soñekoak oñaze andiarekin, eta utzitzen due era lotsagarrian. Jantzitzen dioe soñeko gorri bat Erregeren idu-

rian ipintzeko. Sartzen dioe buruan aranzazko koroa bat nortaki zenbat oñazerekin. Ipintzen dioe Erregeren zetro, edo bastoizat kañabera bat, eta asitzen zaizka isekaz Erregeri bezala agurrak egiten. Zer geiago? Loitu zioen aurpegi eder ura beren karkaixa, eta istu zikiñakin. Begira nere anima, Errege guzien Errege, ta guzien Egilleari pauso onetan! Adora ezazu zure Jaungoiko, zure Errege, ta Salbatzalea bezala.

Kuturtzen due Pilatos, Jesusi gurutzean bizitza kentzeko sententzia ematera. Ipintzen dioe soñean gurutzea. Asitzen da Kalbariorako mendira; baña igaro zituan arratsa, eta goiza igaro ondoan, nola joango zan Jesus? Erorka noaski, eta borroeroak ostikoka eraikitzen zuela. Bidean ill zedin beldurrez, gurutzea eramateko eman zioen laguntzat Simon zeritzan Zireneko gizon bat.

Noiz bait iritsi zan Jesus Kalbarioko mendira. Josten due gurutzean iltze sendoakin: eta agertzen da munduaren Salbatzalea gurutzean lapur biren erdian. Naigabez bezala, desegin nai zituen heren buruak, Zeruak, lurra, eta arriak berak. Beltzez janzi zan zerua: lurra dardaraz zebillen, eta arriak auts biurtzen ziran. Iru ordu bezala igaro zituan Jesusek bizirik gurutzean; bukatu da esan zuan; bukatu da nere gaiñ artu nuan egiteko andia: *Consummatum est.* Egin zuan ots andi bat, esaten zuala: Aita, zure eskuetan uzten det nere espiritua: eta ill zan Jesus gure ongille andia.

Ona, Jesusek gure amorioz gurutzean eskeñi zuan, Sakrifizio izugarria. Eta Sakrifizio au berritzen da nolerebait Mezan, eta berrituko da munduaren bukaeraraño. *Mortem Domini annuntiabitis, donec veniat.* Nork eztakus, irakurtzen ez dakianak ere gogoan erabilli ditzakeala Misterio oek? Ez ta gauza bearra Sagararaño guziak igarotzea, baizik igaro ditezke, edo guziak, edo batzuek, eta gera diteke bat geiena biotza ukitzen dion Misterioan. Au da Sagararaño ongi egin ditekeana.

§ III.

Sagarako denbora datorrenean, oroi zaite Kristaua orduan gertatzen diran Misterio izugarriaz. Esaten ditu Apaizak konsagrazioko itzak: len ogi zana biurtzen da Jesu-Kristoren gorputz, eta len ardo zana Jesu-kristoren odol: idikitzen dira Zeruak: jatxitzen da Jesus Aldarera, eta badator Zeruko Aingeru, eta Serafiñak beren Jaun, eta Errege adoratzera: batzuek jartzen dira auspez, eta besteak Mez-emalleari laguntzen dioe. Ala ekusi zituan S. Euthimiok. Adora ezazu zuk ere oekin batean, eta esan zaiozu



Elizak esaten diona: Bedeikatua izan dedilla Jaunaren izenean datorkigun gure Salbatzalea. *Benedictus, qui venit in nomine Domini*. O! Jesus ona! nere animaren bizitza, eta doatasuna! Zu zera Trinidadeko bigarren Persona. Zu guretzat Zerurako grazia, ta esku, edo deretxa irabazteko gizon egin ziñana, eta ainbeste neke-oñaze, eta azkenik gurutzeko eriotza igaro zinduana: irugarren egunean piztu, eta gero Zerura igo ziñana. Zu Zeruan dezun, jarlekua utzigabe, Meza Santuan gugana etorri zerana. Zertara ote? Zertara ote? Gugatik igaro zenduan gurutzeko eriotzaren oroipena guri berritzera. Zertara geiago? gurekin, eta gure artean bizitzera, guri ematera zure gorputza, odola, anima: eta zeran guzia. O ontasun miragarria! Sinisten ditut misterio oek guziak, zeren zuk agertu diozkatzun Eliz Ama Santari, eta onek ala erakusten dizkidan. Esperatzen det Jauna, zukan nere bekatuen barkazioa, eta betiko bizitza, zure lagunzarekin bekatutik aldegiten, eta bizitza onean irauten dedala. O edertasun paregabea! Zeñ berandu ezagutu zaitudan! Zeñ berandu amatu! Amatzan zaitut biotz guzitik, eta zure izenean amatzan ditut nere lagun urko guziak. Ai! eta utzi nik zu ainbeste bider! Izan ni noizbait zure etsai andietatik bat! O! pena! Ojala lenago milla bider ill banintz!

Egiñik aldezun eran zure ongietorri, ta akto, fede, esperanza, ta karidadezkoak, gogozko komunio egin nai badezu, askok egiten duen bezala, esan giozu Jesus onari: zeñ andi, ta ugariak diran, Jesus maitagarria, zure serbitzarientzat Sakramentu orretan gorde dituzun ondasunak! Zori onekoak Sakramentu ori ongi artzeko eran prestatuak dauden animak. Zori onekoak, zeren betiko bizitzaren emallea bera, eta doatasun guziaren iturburu berengan idukiko duen. Zori onekoak, zeren zure gozotasun miragarriak progatuko dituen. Zori onekoak atzenean, zeren etsai guziak garaitzeko indarrez beteko dituzun. Nai nuke, Jauna, nik ere zu, nere ongille andia, nere biotzean idukitzea, baña aitortzen det, ez naiz ni zu nere etxean sartzeko diña. Alaere fedeak erakusten dit, zuk egin ditzaketzula Sakramentua artu gabe ere, Sakramentuarekin egiten dituzun, mese-deak. Asko da zuk nai izatea: asko da zuk itz bat esatea, guzia egiña geratzeko. Esazu bada, nere Jesus ona itz bat, eta nere anima sendatuko da, eta artuko ditu, guretzat ekarri dituzun, ondasunetatik zuk nai dituzunak, eta nai dezun neurrian. Au egiten da Apaiza komulgatzen daneko. Baldin enzuten dezun Mezan, edo ondoren komunio Santua artu nai badezu, presta zaitetzke lenbiziko komunioaren liburuak erakusten dizun eran, edo aldezun ongiena.

Apaizak bere bendizioa ematen dizun denboran esan dezakezu: *Trinidad eguziz Santa, Aita, ta Semea, ta Espiritu Santua: Mez-emalleak dion*

eran, indazu zure bendizioa, egun au, ta beste guziak igarotzeko zu adoratzan, serbitzen, eta amatzan.

Orra, nere Kristaua, nola erraz, eta ederki enzun dezakezun Meza Santa. Enzun-bide au zerbait luzeago ipiña dago lenbiziko komunioaren liburuan. Irakurtzen eztakianak ere ongi enzun dezake, baldin Jesusen neke-oñazeak gogoan erabiltzen baditu Sagararaño, eta emendik sortzen badu bere bekatuen damu egiazkoa, eta Jaungoikoaganako ongi nai, ta amorio egiazkoa. Sagararen ondoren egin ditzake akto fede, esperanza, ta karidadezkoak, eta gogozko komunioaren prestaera. Ez ote gera oraiñ bederik benaz saiatuko Meza Santa jaiera andi batekin enzutera? Onetarako bear diran asmoak gure biotzetan sortu ditezen, gogora ekarri ditzakun ukitu ditugun gauzak, Jaunaren aurrean belauniko jarririk. *(Belaunikatzen dira guziak).*

1

Begira, Kristaua, nola Mezako Sakrifizioa dan Jesusek gurutzan eskeñi zuanaren oroipena. *Passionis suae memoriale memoriale perenne*. Zer neke da bada, Apaizaren bidez Meza Trinitate guziz Santari eskeintzea, eta Jesusen neke-oñazeak gogoan erabiltzea? Eta au ongi egiten bada, nola egon gaitezke, gure bekatuen damua sortu gabe? Nola, Jesus amatu gabe?...

2

Begira urrena, nolako jaiera, edo debozioarekin Mezako Sakrifizioa enzuten zuen aziñako Kristauak. Etziran kontentatzen Mezatar nola nai etortzearekin, baizik Meza enzuten zuen guzian artzen zuen komunio Santua. Baña igaro ziran denbora aek, eta gutxi dira añañiñako Kristauen anzekoak, eta oek ere ez due beti era komunioko Sakramentua artzeko, Mezatar datozen aldi guzietan. Zer egiñ dezakee oek Sakramentu orretan Jesusek dakartzian ondasunak iristeko? Zer, ezpada gogozko komunioa, esan dan eran, egitea? Baña asko ote dira au egiten duenak?... *(Altxatzen da Erakuslea, eta bukatzen du Erakusaldia oraiñ ipiñiko dan eran).*

Aditu dezu, nere Kristaua, nola erraz, eta ederki enzun dezakezun Mezako Sakrifizioa. Batzuek galdeka dabilta, nola ongi enzungo duen Meza, eta txit gauz ederra da, bear diran, gauzak jakin nai izatea. Zuk oraiñ aditu dezunarekin badezu zerbait argitasun Meza ongi enzuteko, galdeka ibilli gabe. Saia zaitte bada gogotik, eta iritsiko dituzu Mezaren ondasun andiak, eta uste izan dezakezu Zerurako bidean ongi ibiltzea, eta atzenean betiko bizitza. Amen.



BERROGEI, TA AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

baña Mezako Sakrifizio miragarriaren gañean laugarrena.

ALABATUA &

Mezako Sakrifizio miragarria izanda azkeneko iru Erakusaldien gaia. Sakrifizio au eskeintzeko leku berezia da Eliza, eta deitzen diogu Jaunaren etxea. Ainbeste, ta añ andiak dira Jaunaren etxeari egiñ oi zaizkan bidegabeak, non odolezko malkoakin negar egin bear gendukean. Era onetan aditzera ematen degu, ez degula benaz sinisten noren aurrean, eta etxean gauden; Sakramentuak artzen dira nola nai eta Mezako Sakrifizioan ezin gaude, mez-emallea ezpada postarka. Orregatik gaur itzegin nai dizut, Kristaia, Jaunaren etxeari zor diogun begiramentu, edo errespetoaren gañean. Aurrena ekusi bear degu, nolako begiramentu, edo errespetoa zor zaion Jaunaren etxeari. Urrena, nolako bidegabeak egin oi zaizkan. Irugarrena, zer egin bear degun oker oek zuzentzeko. Emendik aterako da otoiz, edo orazioaren gaia. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Nai dezu zuk, Kristaia, ezagutu, nolako begiramentu, eta errespetoa zor zaion Jaunaren etxeari? Begira ezazu bada benik beñ, noren bizilekua dan; eta au ekusi ondoan, begira zertako dan.

Noren bizilekua ote da Eliza, edo Jaunaren etxea? Da Jaungoiko Guzialdun, ta guzi andiaren bizileku, ta Jauregia. Leku guzietan arkitzen da Jauna; ez du alabaña beraren izateak neurririk, mugarik, eta bazterrik, eta toki guziak betetzen ditu. Alaere autu izan ditu leku batzuek bere ontasun, ontarte, ta mesedeak berezkiro agertzeko. Leku oetatik bata da Zerua. An dago bere Aingeru, eta anima doatsuakin, erakusten dieztela bere edertasun baztergabeak, eta perfekzioak. Beste lekua da Eliza. Autu ditu Jaunak Elizak, gurekin, eta gure artean bizitzeko: gure erregu, eta premiak aditzeko, batezere Aldareko Sakramentua gau, ta egun gorderik dagoan Elizetan; oetan alabaña bizi da Jaungoikoa, ez nola nai, baizik bere gizatasun Santuarekin bat egiña, Zeruan dagoan bezala: bizi da gure

biotzetara etortzeko, eta guri bere ondasun guziak emateko. Orra, esaten digu Jesusek: zuekin, eta zuen artean nago, eta egongo ere naiz munduaren bukaeraraño: *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consummationem saeculi*. Eta izanik au onela, nolako begiramentu, edo errespetoa zorko etzaio Jaunaren etxe, edo Elizari? Jakob Patriarkak ekusi zuan beñ eskallera bat lurretik Zeruraño iristen zana; gora, ta beera zebiltzan an Aingeruak, eta goieneko mallan zegoan Aita Zerukoa. Au ekusi zuan Patriarkak lo zegoala, eta esnatu zanean, arrituaren eran asi zan esaten: zeñ izugarria dan leku au! *Quam terribilis est locus iste*. Zer esango zuan Patriarka onek, ekusi balitu gure Elizetan Zeruko Aingeruak gau, ta egun Jauna adoratzan? Moysesek, Horeb zeritzan basoan zijoala, ekusi zuan sasi bat garretan, eta alaere batere erretzen etzala. Zer mirari gertatzen zan jakin naiez, alderatu zan sasironz; baña aditu zuan Jaunaren ots bat, esaten ziona: gera zaite, bada toki au Santua da: ken itzatzu oñetakoak, eta atoz gero. Aditu zuanean Moysesek, an zegoala Jauna, eta Santua zala leku ura, ikaratu, eta auspez jarri zan. Eta baso bateko lekuari ainbeste begiramentu gorde bazion Moysesek zer egingo etzuan gure Elizetan sartu baliz? Salomonek Jerusalemene egin zuan Jaunaren onran Eliz eder bat: zazpi urte igaro ziran asi zanetik bukatu zaneke. Aritu ziran berreun milla, ta sei eun langille, eta baziran gañera iru milla, ta sei eun maisu, ta kontu arzalle. Alaere, añ modu ederra gorde zan, non etzan malluaren otsik ere aditu: eta gauza guziak erriaz kanpora ebaki, laundu, eta prestatu ziran. Zergatik onenbeste ardura ipiñi zan Jerusalemgo Elizako lanean? Zeren Jaunaren bizilekua egin bear zan. Bukatu zanean, eskeñi ziozkan Salomonek Jaunari asko Sakrifizio: agertu zan Elizan odei bat, eta onen bidez aditzera eman zion Jaunak Salomoni, an arkitzen zala, eta agradatu zitzaizkala Eliza, ta eskeñi zitzaizkan doaiak. Arriturik geratu zan Salomon, eta esan zuan; sinistu diteke beraz, Jaungoikoa bizi dala lurrean gizonakin? Jauna, Zeruetako Zerua gutxi badira zuretzat, zer izango da nik egin dizudan etxea au? Orra, Kristaia, nolako begiramentua zor zaion Elizari, zeren dan Jaunaren bizilekua.

Au bera ezagutuko dezu, begiratzen badezu, zertako dan. Zertako dala uste dezu, Jaunaren etxea? Da lenengo lekuan, Jaunari guk agertzeko gure premiak, eta erregu umillak egiteko, eta beragatik zor zaio begiramentu andia. Ekusi zituan beñ Jesus onak Jerusalemgo Elizan zenbait, Sakrifizioetarako bear ziran gauzak saltzen, eta erosten: eta mansotasuna bera bazan ere, ainbesteraño aserratu zitzaion, non egin zuan azote bat, eta onekin aienatu zituan Elizatik, atelekatzen zituala garraztasun andiarekin: letraz ezarria dago, esan zien: *Scriptum est*: nere etxea otoiz, edo ora-



zioaren etxea izendatuko da: eta zuek lapurzulo biurtu dezue: *Domus mea domus orationis vocabitur; vos autem fecistis illam speluncam latronum.*

Jaungoikoaren etxea da bigarren lekuan beraren Itza ezuteko leku berezia. Emen bakoitzari aditzera ematen dizkigu gure eskergabekeri, ta animako zauriak, bai eta oen sendagaiak ere. Emen bizitza ondo nai duan bekatoriarentzat agertzen du bere ontasun, eta urrikimentu baztergabea. Eta era onetan Jaungoikoak itz egiten duan lekuari, zer begiramentu, edo errespeto etzaio zor? Orregatik S. Agustiñek etzuan nai, Jaunaren Itza eserita enzutea baizik zutik, gaixo ezpazegoan bat.

Jaungoikoaren etxea da irugarren lekuan, Sakramentuen bidez gure animak garbitzeko, eta gau, ta egun, guri ongi naiez, Sakramentu orretan dagoan, Jesus ona adoratzeko. Da atzanean jaunari emateko eman ditekanean onrari andiena, eta beraren diñako eskerrak, Mezako Sakrifizioarekin. Sakrifizio au eskeintzen danean idikitzen dira Zerua, dio S. Gregoriok, jatxitzen da Jesus Jaungoiko-gizona Aldarera: jatxitzen dira Zeruko Aingeruak ere, eta beldur Santu batekin arriturik daude: *Stupent Angeli.* Ala dio S. Juan Krisostomok.

Esan gidazu oraiñ, nere Kristaua, au guzia onela bada, dan bezala, nolako begiramentu, edo errespetoa ez diogu zor Jaunaren etxeari? Baña, zer gertatzen da leku askotan? Zer ezpada bidegabe andi, ta itsusiak egitea? Oei eman bear diegu oraiñ begiraldi bat.

§ II.

Zoaz Kristaua, asko Elizetara, eta arriturik geratuko zera, gertatzen dana dakusazunean. Ekusiko dituzu zenbait, errosario, bezperak, edo Meza nagusia esaten diran denboran, ostatueta edanean, eta iskanbillan. Ekusiko dituzu batzuek errosarioko denboran Eliz-inguruan pillotan. Non dira animen arzaia? Non dira gurasoak? Non dira eskola-maisuak? Ekusiko dituzu besteak Elizako ateetan pipa, edo zigarroa artzen: batzuek zekorren tatxak, edo alabanzak kontaktzen; besteak Meza asi ta geroz ere erausian daudela. Oek dira Elizara baño len gertatu oi diran gauzak.

Sar zaitte Kristaua Elizetan. Zer ekusiko dezu? Ekusiko dezu, batzuek daudela galtzak belaunetan estu gabe, besteak almilla, edo txupa gorputzean sartu gabe. Atozea Kristaua: joango ote ziñake gisa onetan Obispo Jaun baten aurrera? Ez noaski. Nola bada zoaz Jaungoikoaren etxera, eta aurrera? Batzuek edariz beroturik sartuko dira Elizako zoko-

ren batean, eta egongo dira erausi, edo marmarretan, aldamenean daudenai eragozten diezala jaineraz egotea; besteak sartuko dira emakumeen artean. Au da gaizki dirudian gauza. Orregatik Elizak beti nai izandu gizonetakoak bereziak egotea emakumeetatik. Batzuek Elizara etorriko dira beren zakurrakin, eta oek bota bear lirake Elizatik zakurrakin batean. Atozea Kristaua, ongi da zakurtegi egitea Jaunaren etxea? Beste batzuek sartzen dira Meza entzutera ollo, ollasko, edo beste egaztiak otarran dituela, eta oen otsarekin asaldatzen ditue Elizan daudenak. Zergatik uzten ez ditue etxeren batean? Batzuek Elizara dakartzie aur txiki negartiak, edo batetik bestera oska, ta lasterka dabilzananak. Ona da aurrak, zerbait gogortuak, edo aziak diranean ekartzea Elizara, oitu ditezen gauz onetara; baña orretarako bear due zai ona, bestela aurtasunetik artuko ditue oitura txarrak. Beste batzuek, batezere eskola mutillak, ibilliko dira Elizan ate batetik bestera lasterka, eta iskanbillan. Au badakie guraso, eta erakusleak, eta alaere ez ditue zeatzen onelako mutil lotsagabeak? Zer esango det mutillak, eta neskatxak nasteka ezkillak jotzera bidaltzeaz? Batzuek Mezatan, edo Jaunaren itza adirazten danean egongo dira lo, edo erausian: oek dira Satanasen euli andiak, edo belzunzak. Beste batzuek manteliñatik manteliñara, bear bada sorbaldaz Aldareronz, egongo dira hipui kontaktzen. Batzuek egun onak ematen, besteak aldamenekoaren apaindurari begira Mezaren ardurarik gabe, ta besteak bear bada gogorazio gaiztoetan.

Aditzen dezu, Kristaua, nolako bidegabeak egiten zaizkan Jaunaren etxeari, edo obeto esateko Jaun berari? Herejeak ere beren Elizetan ez due geiago egingo: eta Turkoak berak begiramentu, eta jaiera andiagorekin, egoten dira eren Eliza-moduetan. Erri batean bizi zan doai ederretako Turko bat, eta erria zan Katolikoena. Asko nai zioen guziak Turkoari, eta egin zioen alegiña arrezazteko gure lege Santa; baña alperrik. Billatu zuen atzanean onetarako gizon trebe-jakintsu bat. Egin zuan onek al zuan guzia Turkoarekin; baña onek eranzun zion: askotan gogora zitzaiola Kristau egitea; baña ekusi zuala, Turkoak beren Elizetan jaiera, ta begiramentu andiagorekin zeudela, eta osotoro sinistu zuala, ohea zala zuan Erljioa, ezen ez gurea. Orra zer kalteak dakartzian Jaunaren etxeari, zor diogun, begiramentua ez gordetzeak. Zer ote da bada, oker oek desegiteko, guk egin bear deguna? Au da oraiñ ukituko dedana.



§ III.

Guk lenengo lekuan egin bear deguna da, Jaunaren etxera etortzea, nora, ta norekin itzegitera gatozen, gogora ekartzen degula. Erregerekin egon, edo itzezin nai duanak, ongi gogora ekartzen du, nora joan, eta zer itzezin bear duan. Gure aldetik bear dan bigarren gauza da umiltasun andi batekin Jaunaren etxean egotea. Umiltasun andi bear da bai biotzaren aldetik, ezagutzen degula gure ezereza, ta Jaunaren anditasuna. Umiltasun andia gañera egoeran, ta janzian. Ez da ongi emakumeak gorputz utsean ibiltzea Elizan, eta orregatik esaten die S. Paulok estali ditzeela buruak: *Mulieres velent caput*. Ezta ongi, soñeko arroakin, eta bear bada goiak estali gabe Elizara etortea, eta are gutxiago konfesatzera, eta komunioko Sakramentua artzera. Nork sinistuko du, onelakoak bear dan damu, ta asmoarekin datozela? Zergatik bait agindu zuan Elizak, ez dakiela Sakramenturik eman onelakoai. Era berean gaizki dirudi estalki lasai, ta sarearen anzekoakin egotea. Irugarrena da modestia, ta modu eder batekin egotea Elizan. Atzenean ixildasun andia gorde bear da, batezere Jaunaren Itza adirazten danean, bezperak, errosario, eta Mezak esaten diran denboran. Orregatik Elizak agindu zuan, amar egunez ur, ta ogi barau zedilla onelako denboran Elizan itz egiten zuana. Españaiko errege Felipe bigarrena zegoan beñ Meza enzuten, eta oartu zan, izketan igaro zuela Mezako denbora, aldamenean zeduzkan, andietatik bik. Meza bukatu zanean, esan zien: *Ez geiago nere aurrean jarri*. Alako lotsa, ta naigabea artu zuen, non bata bereala ill zan, eta bestea geratu zan burutik galdua. Beldur naiz, Errege ark bi gizon andi aei esan ziena, esan degien Jaunak Kristau askori eriotzako orduan.

Orra, nere Kristaua, zer egin bear degun Jaunaren etxeari zor zaion begiramentua gordetzeko. Eta aditurik, aditu ditugun gauzak, ez gera onetara saiatuko? Baietz uste det, eta au egiteko bear dan asmo osoa sortu dedin gure biotzetan, jarri gaitzen Jaunaren aurrean belauniko, eta gogotan erabilli ditzakun ukitu diran gauzak. (*Belaunikatzen dira guziak*).

1

Begira, Kristaua, lenengo lekuan, nolako begiramentu, edo errespetoa zor zaion Jaunaren etxeari. Arriturik geratu zan Jakob Patriarka, lo zegola ekusi zuanean eskallera bat lurretik Zerurano iristen zana, eta an zebiltzala gora beera Aingeruak, eta goieneko mallan Aita betikoa.

Arriturik geratu zan Moyses, Horeb zeritzan basoan, zeren Jaunak esan zion: gera zedilla; Santua zala leku ura. Arriturik geratu zan Salomon, zeren Jaunaren onran egin zuan Elizara jatxi zan Jauna odei batean. Zer esango zuen, gure Elizetan gertatzen dana ekusi balue animaren begiak? Emen bizi da Jesus Jaungoiko gizona gau, ta egun, gure erreguak aditze-ko, gure biotzetara etorteko. Emen eskeintzen zaio Jaunari Mezako Sakrifizio izugarria: eskeintzen dan doaia da Jaungoikoaren Semea bera, eta berritzen da gurutzeko eriotzaren oroipena. Arriturik, eta auspez daude orduan Zeruko Aingeruak...

2

Begira urrena, nolako bidegabeak egiten diozkagun Jaunaren etxeari! Zenbat bidegabe Elizako ate, eta atarian? Zenbat Elizan bertan? Zenbat Mezako denboran, eta ondoren? Nola gertatu da au, espadasun andiarekin esaten digu Jaunak Jeremiasen autik: *Quid est quod dilectus meus in domo mea fecit scelera multa* (Jeremiae 11). Lotsa gaitzen Jaunaren aurrean: aurrerako artu ditzakun bear diran asmoak... (*Altxatzen da Erakuslea eta bukatzen du Erakusaldia orain ipiñiko dan eran*).

Nere Kristaua, ez gaitzen izan fedegabeak baño ere eskergabeagoak: zuek gurasoak, eta Erakusleak egizue alegiña gazteai erakusteko, nola egon bear dan Jaunaren etxean, eta ekusten bada norbait edo erausian, edo modestia gabe, ez barkatu. Onela Jaunaren etxeari gordeko zaio dagokan begiramentua: ixuriko ditu Jaunak gure gañera bere bendizioak, eta uste izan dezakegu betiko bizitza. Amen.



BERROGEI TA AMALAU GARREN ERAKUSALDIA

baña Oleazio edo Estremaunzioko Sakramentuaren gañean bakarra.

ALABATUA &.

Betaz, eta luzaro itz egin dizut, Kristaua, lenengo lau Sakramentuen gañean. Igaro gaitzen bostgarren Sakramentuaren gañean itz egitera. Sakramentu au da Oleazioa, edo Azken-Oleadura, eta erdaraz deitzen zaio *Estremaunzioa*. Aurrena emango dizkitzut Sakramentu oni dagozkan berriak. Urrena begiratuko degu, nolako ontasun, eta amorioa agertu digun Jaunak Sakramentu au ipintzean. Enzun arretaz.

§ I.

Oleazioaren izenez aditzen da *Apaizak olio z gantzutzea gaixo dagoana*, bear *diran itzakin*: eta da Jesu-Kristok bere Elizari utzi ziozkan, Sakramentuetatik bat, eta besterik esatea debekatua dago exkomiku nagusiarekin. Santiago Apostoluak ederki, aditzera eman zigun Sakramentu au itz oekin. Eri, edo gaixo arkitzen da zuetatik norbait? *Infirmatur quis in vobis?* Deitu bitza Elizako Apaizak, eta erregutu bezee oek eria ren alde, Jaunaren izenean gantzutzen duela olio z; eta Apaizen erreguak sendatu, eta alaituko du eria: eta bekatuan badago, barkatuko dio Jaunak. Deitzen zaio *Azken-Oleadura*, zeren, Kristauari egiten zaizkan, oleadura guzien artean azkenekoa dan, eta gañera, zeren bizitzaren azken-aldean ematen zaion. Elizak aurrena gantzutzen du Kristaua bataioan olio z, eta balsamoz: urrena Konfirmazioan krismarekin, eta atzenean gaixotzen danean olio utsarekin.

Oleazioa deritzan Sakramentua egiteko gaia da olio a, Santiago Apostoluak dionez: *Ungentes eum oleo*. Olio-mota asko dira, nola diran oli-barena, intxaur, liazi, ta beste gauz askorena. Santiagok etzuan esan, zer olio bear zan Sakramentu au egiteko; alaere ezin eman diteke olibenarekin baizik; zeren aitatzan danean *Olio a* beste eraskin gabe, *olibena* bakarrik aditzen dan, eta Elizak ala aditu duan. Zeren gañera Florenziako Konzilioak *oliben* olio a eskatzen duan Sakramentu onentzat. Olio au urte

oro ostegun Santuz bedekatzen due Obispo Jaunak, eta berria etorri ezker o, ez da zarrarekin oleazio a ematen, baña bai berria etorri baño len, eriren bat jartzen bada iltzeko perillean. Sakramentu au egiteko gantzutu bear da eria, Santiagok dionez: *Ungentes eum oleo*.

Baña non, edo gorputzaren zer lekutan gantzutu bear ote da eria? Ez digu au esaten Santiagok. Orregatik ez dira toki guzietan era, edo modu batean gantzutu eriak. Leku batzuetan gantzutzen zuen eria gorputzaren tokirik geienetan; beste batzuetan lepoan, eztarrian, eta sorbaldan; batzuetan buruan, kopetan, bularrean, eta masalletan; besteetan buruan bakarrik; batzuetan gaitza geiena agertzen zan tokian; baña Erromako Elizan zazpi lekutan gantzutu izan dira eriak; *begietan, belarrietan, sudurretan, ezpañetan, eskuetan, glzurriñetan, eta oñetan*, esaten dirala, sentidu bakoitza gantzutzean, Elizak arturik dauzkan, itzak. Zazpi leku oek izendatzen ditu Florenziako Konzilioak, eta Rituala deritzan Elizako liburuak ere bai. Gantzutzen dira gorputzaren leku oek olioarekin, gurutzea egiten dala bakoitzean, eta aditzera ematen da, Jesusen gurutzeko eriotzagandik datorkiola Sakramentu oni, duan indarra. Gantzutzen dira *begiak*, zeren oetatik biotzera sartu oi duan etsaiak bekatuaren pu zoia. Gantzutzen dira *belarriak*, zeren oez baliatzen dan bekataria, itz desonesta, losentxa anima galgarri, eta lagun urkoaren kontrako erausiak aditzeko. Gantzutzen dira *ezpañak*, zeren oekin egiñ oi diran eziñ konta al bekatu, dala ukitutuz, dala itzez, dala jan, eta edan geiegiz. Gantzutzen dira *eskuak*, zeren oez baliatzen dan bekataria ukitze lotsagarriak, eta litxarreriak egiteko. Gantzutzen dira esku zabalak, baña gaixo dagoana Apaiza bada, eskugañak; zeren Apaizaren mallara igo zanean konsagratu zitzaizkan esku-zabalak Jesu-Kristoren gorputza ukitzeko. Gantzutzen ziran len giltzurriñak baña utzi zan au egitea; aurrena emakumeetan onestidadeagatik, eta gero gizonetan ere bai. Gantzutzen dira atzenean *oñak*, zeren oekin egiñ oi diran ibillera gaizto asko. Sentidu bat bi tokitan badago, begi, belarri, sudur, esku, eta oñakin, geratzen dan bezala, orduan toki bietan egiten da Oleadura, eta oñak gantzutzen dira gañetik zapietara ixuri ez dediñ olio a. Sentidu guziak banaka gantzutzeko denborarik ezpada, orduan, Aita Santu Benedikto amalau garrenak dionez, onena da oleadura egitea buruan, zeren burua dan sentidu guzien sustraia, esaten dirala itzak era onetan: *Oleazio Santa onen bidez, eta bere urrikimentu guziz beraagatik barka degizkitzula Jaunak senti-duakin egin dituzun bekatuak*. Emanik era onetan buruan oleazio a, bizi bada eria, ematen zaio ondoren sentidu bakoitzean.

Sakramentu onen emallea da Apaiza, Santiagok esaten digun bezala: eta premia z kanpora, arzaia ri dagoka edo bere z, edo beste z ematea.



Premiaz kanpora, diot, zeren premia danean, eta arzaia ezpadago errian, edozeñ Apaizek eman dezake Sakramentu au. Anziñako denboran oleazioa emateko, bildu oi ziran Apaiz bat baño geiago, eta era bazan zazpi, eta oraiñ ere ala gertatzen da zenbait lekutan: eta bakoitzak gantzuzen du eria sentiduren batean, au da, batak begietan, besteak belarrietan, besteak beste tokiren batean. Baña gauza erabakia, ta jakiña da, balio duala oleazioak, Apaiz bakarrak ematen duanean ere. Au onela ez izatera, erri andietarako bakarrik izango lizake Sakramentu au.

Sakramentu onen artzallea da gizon, edo emakume bataiatua, gaitzaren eta onaren ezagueran sartua, eta eri, edo gaixo dagoana. Esan det *bataiatua*, zeren bataiatu gabea ez da, Sakramentu au artzeko, gai: Esan det gañera *gaitzaren, eta onaren ezagueran sartua*, Sakramentu au da alabaña bizi-tza gaiztoaren arrasto, ta kutsu gaiztoak kentzeko, eta ezagueran sartu eztanak ez du bizitza gaiztorik. Esan det *atzenen eri, edo gaixo* dagoana; *gaixo* ez nola nai, baizik eriotzaren beldur, edo perilla dakarren gaitzarekin. Ala erakusten digue Florenziako Konzilioak, eta Rituala deritzan Elizako liburuak. Orregatik etzate oleaziorik ematen itsasoan joan bear duenai, gerrako denboran peleara dijoazenai, urkamendian bizia eman bear duenai baldin beste aldetik gaixo ezpadaude. Au bera egiten da aur-giten daudenakin ere. Egia da, añ aunatua utzi lezakeela emakumea erditzeko miñak, non eman legikeon oleazioa, ez erditze utsagatik, baizik zeren miñak aunatua, eta gaixo utzi duen. Zarrai, eriotzaren aldean daudenean, ematen zate Sakramentu au; zeren orduan zartasuna bera gaitz andia, eta eriotza berekin dakarrena dan. Anziñako denboran toki batzuetan artu oi zuen eriak oleazioa, Biatikoa baño len, beste toki batzuetan ondoren: eta naiz lenago, naiz geroago eman zedilla, ongi zan gauza zan. Erromako Elizak anziñatik eman oi du Biatikoa ondoren, eta ala egi-tea da onena, eri onek, edo ark lenago artu nai baluke ere. Ala esaten digu Benedikto amalaugarrenak. Ez det ezer esan nai Sakramentu au artzeko degun eginbide, edo obligazioaren gañean, gauza jakiña da alabaña, bekatu larri, edo mortala egiten duala Sakramentu au ezertan ez daukanak: eta dana dala artzeko degun eginbideaz, ondasun asko galduko ditu artzen ez duanak.

Sakramentu onek dakartzian ondasunak dira iru, eta irurak ukitzen ditu dotriñak. Lenengoa da *igaroko bizitza gaiztoaren arrasto, eta kutsu gaiztoak kentzea*, egin duan prestaera onaren neurrian. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak: *Peccati reliquias abstergit*. Galdetu nion beñ bati: *zertako da Oleazioa?* Eranzun zidan: *iru gauzatarako. Zeñ dira? Lenengoa: bizitza gaizto pasatutakoaren arrasto, eta erlikiak kentzeko.* Atozea, eta *erlikia oriek*

kutunen bat, edo zer dira? Eranzun zidan: *ala izango dira noaski.* Orra zer datorren euskeraz garbiro esan ditezkean gauzak erdarazko itzak in esetik. Oleazioak dakartzian ondasunen artean bada lenengoa da: *igaroko bizitza gaiztoaren arrasto, eta kutsu gaiztoak kentzea*: aditzen da edo guziak, edo zerbait; gutxitan alabaña izango da guziak kentzeko diña dan prestaera. Bizitza gaiztoak animan uzten dituan *arrasto ta kutsuak* dira asko: lenengoa: gaitzerako makurtasun, eta zalea. Zenbat eta bekatariak bekatu geiago egiten dituan, anbat makurtuagoa dago gaitzeron, eta ez du arretarik, inguratzen duen gogorazio gaiztoak aienatzeko: eta gaitzerako makurtasun au gutxitzen dio oleazioak. Bigarren arrasto, eta kutsu gaizto, bekatuetatik datorrena, da onerako narra, nagia, eta gogorik gabe geratzeta: eta oleazioak kentzen dio arrasto, eta kutsu au alaitzen duala onerako. Irugarren arrasto, eta kutsu gaiztoa da, bekatuak barkatuta geratu oi dan zor, edo pena, emen, edo purgatorioan igaro bear dana: ta au kentzen, edo arintzen dio Oleazioak. Igaroko bizitza gaiztoaren laugarren arrasto, eta kutsu gaiztoa dira, eriarri, konfesio, ta komunioa ongi artu arren, barkatu gabe geratu oi zaizkan bekatu benialak, S. Karlos Borromeok, eta Benedikto amalaugarrenak erakusten diguenez. Bekatu benial barkatu gabe oek asko izango dira Kristaurik geienetan, zeren gutxi diran, bekatu benialen batzuei biotza itsatsia ez daukeenak, eta bekatu oek barkatzen ez ditu, ez konfesioak, ez Biatikoa; baña barkatuko ditu Oleazioak, orduan bederik sortzen badu eriak aen damu egiazkoa. Igaroko bizitza gaiztoaren bostgarren arrasto, eta kutsu gaiztoa dira, ezagutzen ez diran bekatu larri, edo mortalak. Demagun, eria konfesatu dala, bere ustean ongi, baña damu egiazko, eta asmo oso gabe. Demagun gañera bear dan damuarekin konfesatuta ongi artu duala Biatikoa, eta geroxeago gertatzen zaiola gogorazio gaiztoaren bati leku ematea; baña gaitzaren indarrarekin ez dala oroitzen bekatu onez. Uste du Jaunaren grazian arkitzen dala, eta dago bekatuan. Bi bekatari oek artzen due Oleazioa, berriro konfesatu gabe, zeren Jaunaren grazian daudela, uste duen. Guzia barkatuko die Oleazioak, baldin egindako bekatuen damu egiazkoarekin artzen badue. Ala erakusten digu S. Karlos Borromeok. Orra zer aditzen dan igaroko bizitza gaiztoaren arrasto, eta kutsuen izenez.

Sakramentu onek dakarren bigarren ondasuna da Demonioaren tentazioen kontra animari indarra ematea. Ala erakusten digu Trentoko Konzilioak: *Tentationibus Daemonis, calcaneo insidiantis, facilius resistit*. Irugarren ondasuna da, gorputzari, konbeni bazaio, osasuna, ematea. Ala erakusten digue Florenziako, eta Trentoko Konzilioak. Egiten du au Sakramentu onek, mirari, edo milagrorik gabe, garai onean artzen bada.



Demagun, eriak duan gaitza, bera utsik, ez dala eriozkoa, baña beste alde-tik bere bekatuen, eriotzaren, eta ondorengo kontuen oroipenak alako eran tristuraz, edo illuntasunez betetzen du, non garaituko ez duan gaitza, berez au eriozkoa ezpada ere, eta illko da, animaren aldetik alaitzen ezpada. Artzen du oleazioa garai onean; eta arintzen dio barrengo nekea, aienatzen diozkala kezka, eta beldur geiegiak; orduan gorputza ere alaitzen da, eta garaitzen du gaitza. Orra, zer gisatan Oleazioak ematen dion askotan gorputzari osasuna. Baña onetarako artu bear da, esan dedan bezala, garai onean, zeren gaitzak osotoro mendera badu gorputza, eziñ senda diteke mirari gabe, eta ez ditu nola nai Jaunak egiten mirariak. Ona, nere Kristaua, asieratik Oleazioaren gañean agindu nizkitzun, berriak. Begira dezagun oraiñ, nolako ontasun, eta amorioa agertu digun Jaunak Sakramentu au ipintzean.

§ II.

Gure Jesus onak milla gisatara agertu du bere guganako ontasun, eta amorio geiegia, neurri, ta mugarik ez duana. Bere bizitzaren kostuz irabazi zuan guretzat Zerurako esku, ta deretxa. Ipiñi zituan Sakramentuak, eta bataioan eman zigun graziaren apaindura ederra, eta egin ginduan Jaungoikoaren beraren adiskide, ta seme, eta Zeruaaren jabegai. Konfirmazioko Sakramentuarekin markatu ginduan bere gudari, edo soldaduen markarrekin, eta ixuri zituan gure animetan Espiritu Santuaren doaiak ugari, zertako uste dezu? Gogoz, eta gustoz pelea gindezen animaren etsaien kontra. Ekusten zuan, geienak, etsai oen kontra peleatu bearrean, jarraituko ziezala eren gura txarrai, galduko zuela, ainbeste kosta zitzaion, graziaren apaindura, eta Zerurako esku, ta deretxa: eta geratuko zirala berrero illak animaren aldetik; eta oek piztutzeko, ta sendatzeko, ipiñi zuan konfesioko Sakramentua. Zer geiago? Graziaren bizitza galdu ez genezan, ipiñi zuan Aldareko Sakramentu guziz miragarria. Sakramentu onetan Jesus bera jarri zan, eta jartzen da; guri laguntzeko etsaiak garaitzen, eta emateko bere gorputza, odola, eta bera dan guzia. Ekusten zuan, ill bearrak giñala, eta ordua alderatzean perill andien artean arkituko giñala. Perillak gure griña txarren aldetik. Perillak etsaiagandik; zeren, denbora aitutzen zaiola eria atxitzeko, ekusirik, egingo du alegin guzia anima gaixoa engañatzeko. Perillak bizitza gaiztoaren aldetik. Oroituko da eria Jaunaren kontra egin dituan eskergabekeriaz, eta gogo-

rako zaio bereala eman bear dituala guzien kontuak. Eta perill oetatik ongi irteteko gu, zer egin zuan gure Jesus onak? Ipiñi zuan beste Sakramentu bat, eriak alaitzeko azkeneko estutasun oetan; onela garaitu ditzeen ordu artako perillak ta au da Oleazioa. Esan zadazu, Kristaua: ez da au, Jesus onak berrero agertzea guganako ontasun eta amorio geiegi, eta baztergabe bat?

Eta oraiñ zer da guk egin bear deguna? guk egiñ bear deguna da, Jesus onari umilki eskerrak ematea, zeren guri betiko zori on, eta bizitza emateko, gauza guziak añ ederki prestatu dituan. Guk egin bear deguna da, gure bizitzako kontuak Jaunarekin egitea, eta Oleazioaren denbora datorrenean, ez ibilli luzapenetan. Eta begira gurasoak, eriai kontu egiteko, ez dira ipiñi bear Jaunaren beldurgabekoak: eta al baliz ipiñi bear lirake gizonak gizonentzat, eta emakumeak emakumeentzat. Au egin gabez, gertatu dira, beñi baño geiagotan, bekatu andiak. Gañera ez dira beillan egoteko, eraman bear mutill, eta neska arro-lasaiak; bestela eria erioarekin borroka ibilliko da, eta beillariak egongo dira izketa lasaietan. Jaunari nai dakiola, guk deserri onetako denbora beraren pakean bukatzea, onela iris-teko betiko bizitza doatsua. Amen.



BERROGEI, TA AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

baña Ordenako Sakramentuaren gañean bakarria.

ALABATUA &.

Azkeneko Erakusaldian itz egin nizun, Kristaua, Oleazio, edo Azken-Oleaduraren gañean. Lenengo bost Sakramentuakin ederki presatuak utzi zituan Jesus onak, ill arteko denboran, Zerua irabazteko bear ditugun, gauza guziak. Baña ez da asko lenengo Sakramentuetan guk Zerurako bear deguna arkitzea, ezpada Sakramentu oen egille, ta emallerik. Orregatik utzi zuan seigarren Sakramentu bat, *Ordna* deritzana: eta Sakramentu onen bidez Apostoluen denboratik izan dira, eta munduaren bukaeraraño izango dira Elizan, Sakramentuen egille, ta emalleak. Oetatik batzuek dira Apaiz nagusiak, edo *konfirmatzeko, eta ordenatzeko eskua duenak*. Oen guzien artean lenena, guzien burua, eta lurrean Kristoren ordekoa da Erromako Apaiz nagusi, edo Aita Santua. Beste apaizak ez due eskurik *konfirmatzeko, ordenatzeko, eta Eliza gobernatzeko, eta deitzen zate bigarren mallakoak*. Apaizen goiende, edo dignidade onen kontra egin due alegiñ guzia hereje, eta herejeen anzeko Kristau gaiztoak beren mingaiñ amorratuakin, eta miñanze au izurriaren eran zabalduaz joan da, eta dijoa bazter guzietan. Ez det uste, itsatsi zatzula zuri ere, nere Kristaua; baña itsatsi ez dakizun gauza bearra da gai onen, edo apaizen goiende, edo dignidade arrigarriaren gañean zerbait esatea. Aurrena aditzera emango dizut, nork ipiña dan Apaizen dignidadea, eta zer mallak igaro bear diran ara igotzeko. Urrena, zeñ esku miragarria eman dien Jesu-Kristok bere legeko Apaizai. Atzenean, zeñ onragarria dan oen goiende, edo dignidadea. Enzun arretarekin.

§ I.

Fedeko gauza, eta Katoliko guziak sinistu bear duena da Jesu-Kristo gure Jaunak ipiña zuala bere Elizan Apaizen goiende, edo dignidadea ostegun Santu arratsean. Berak, lege berriko Apaiz nagusiak bezala, eman, edo esan zuan lenengo Meza: eta esan zien Apostolui: Nik oraiñ egin

dedana, egizue zuek ere, nizaz oroitzen zeratela, eta nere izenean: *Hoc facite in meam commemorationem*. Itz oekin Apaiz egiñak geratu ziran Apostoluak, eta era berean oek, eta oen ondorengo Obispo Jaunak malla onetara altxatzen dituen guziak ere, eta besterik esatea da herejia.

Apaizen goiende, edo dignidadera etzaio nori nai utzitzen; baizik ongi begiratzen da, nor ote dan, eta zer doai, eta bizimodu izan dituan. Egiten zaio aurrena koroa txiki bat, eta marka onekin aditzera ematen du, ordutanik utzi dituala lurreko gura, eta naikunde txarrak, eta Jauna baka- rrik dala, billatzen duan ondasun guzia. *Dominus pars haereditatis meae*. Ez dago osotoro erabakia, lenengo koroa au egitea Sakramentu dan, edo ez. Begira, Kristaua, nolako asiera egiten dan Apaiz izateko.

Ondoren dira lau malla txiki, graduen izena ematen zatenak. Malla txiki oetarako etzaio iñori lekurik ematen, bizitz onaren, eta beste gauz askoren agiri gabe. Lau malla, edo graduak Sakramentu diran, edo ez, eztakigu, zeren Elizak erabaki ez duan.

Lau malla oek artu dituan ez da bereala igotzen aurrera, baizik urte bete igarotzen du, autu bear duan bizimoduaren gañean kontuak ateratzen. Urtea alderatzen danean, erregutzen dio Obispo Jaunari, altxa dezala Epistolaren mallara; eta onetarako Obispo Jaunaren agintez egiten dira lau gauza. Lenengoa: Epistolaren malla nai duanaren errian agintzen zate testiguai, juramentuaren azpian esan dezeela, zeren bizimodutakoa dan ordena eskatzen duana; edalea juramentu gillea, lagun gaiztoakin biltzen dana, usai gaiztoko emakumeakin dabillena dan, edo ez. Bigarrena: agintzen zate erriko guziak, eskomiku nagusiaren azpian ager dezeela, ezer badakie ordena eskatzen duanaren kontra. Irugarrena, bidaltzen da au illabete Seminarioan igarotzera, ongi begira dezan, Apaiz izateko Jaunak deitzen duan, edo ez. Laugarrena, Obispo Jaunaren aurrean eman bear du itza, garbitasun edo kastidadea gordetzeko beti. Eztakigu Epistolaren malla au Sakramentu, edo Elizaren zeremonia utsa dan, edo ez.

Epistolako mallaren urrena da *Diakono, edo Ebanjelistena*. Malla onetara igotzeko, igaro bear da urte bete gutxi gora bera: eta Epistolarako egiten diran galde, eta gauzak berriro egiten dira. Diakono, edo Ebanjelistaren malla Sakramentua, dala alde-aldean fedeko gauza da.

Diakono, edo Ebanjelisten mallaren urrena da Apaizena. Txit goi arkitzen da malla au, eta ez dio Elizak eman nai oraiñ ukitzera noan doaiak ez dituanari. Lenengo doia. Jaunaren deia. Au da atea Apaizen mallara sartzeko: atetik sartzan ez dana lapurra da. Bigarren doia: Apaizari dagozkan gauzen jakiunde, edo beintzat artarako gogotsua, eta arretaduna izatea. Itsu-aurrekoa itsua bada biak eroriko dira lenengo zulo-



an, Jesusek esaten digun bezala. Irugarren doaia: bizimodu, ta oitura onak dituana izatea. Apaizari bere goiende, edo Dignidadeak ez diozka kenduko anz-azturak, eta oek gaiztoak badira, era geiago izango du gura duana egiteko. Laugarren doaia: Apaizari ez dagozkan egiteko, lagun, ibillera, eta jolasak utzirik bizitzea. Gauz oen berriak galdetzen ditu Elizak, eta oek onak ezpadira, ez dio inori ematen Apaizaren malla. Zer geiago egin dezake Eliz Ama Santak, bear bezalako Apaizak, Erakusle, eta giariak bere umeai emateko? Eta baldiñ alaere asko bagera, degun malla ez dagokigunak, ori gertatzen da, zeren gurasoak, batzuetan beintzat, Apaiz izatea nai duen, artarako egokiak ez diran semeak. Ori da, zeren billatzen diran, testiguak agertu nai ez dituen, Apaizen mallara igo nai duenen, oitura gaiztoak. Ori da, zeren Jaunaren deiarekin, eta ongi Apaizen mallara igotzen diranak ere berekin dituen, Adanen bekatuari darraizkan gura txarrak, eta oek eskuratzeko zabartzen badira, eroriko dira, beste edozeñ bezala, gauz okerretan; gogora ekartzue ezperen Judasekin gertatua. Judas bide zuzenez, edo Jesus beraren deiarekin sartu zan Apostoluen goiende, edo dignidadera. Alaere berekin zituan bere gura txarrak, oen artean *kutizia* deritzan, eta emengo ondasunai geiegi nai dien gura. Etzuan ilduratu, edo ezi gura au, eta salerazo zion bere Maisua. Gogora ekartzue gañera, non, eta norekin bizi diran Apaizak. Ez dira bizi eremuetan ezkutaturik, S. Paulo, eta S. Antonio bezala, baizik munduaren erdian, gaitz itsaskorrez beteak daudenen artean. Eta zer da zer miretsi, onelako erien artean bizi diran, Apaizen batzuei miña itsasten bazate? Orregatik orrelako gauzak aditzen dituzuenean, etzaitzela asi ozka, ta aginka Apaizen kontra, baizik urrikaldu zaitezte eren *Dignidadeaz* aztu diranaz. Goazen aurrera, eta dakuskun, zeñ esku miragarria eman dien Jesu-Kristok bere legeko Apaizai.

§ II.

Ozta bat Apaizen mallara igotzen da eta Obispo Jaunak esaten ditu aldi artan esan bear diran itzak, Espiritu Santuak markatzen du Apaizaren anima, eta egiten du Jesusen artaldeko Giarietatik bat. Marka au ez da beñere desegingo, ez emen, ez beste bizitzan: izango da txit onragarria bizitza onean irauten duenentzat, baña lotsagarria, eren malla, ta dignidadeari dagokan eran, bizi nai ez duenentzat.

Marka onekin batean ematen diozka Espiritu Santuak Apaizari bi esku, edo podere guziz arrigarriak. Lenengoa da Aldareko Sakramentua

egiteko, eta Mezako Sakrifizioa eskeintzeko eskua, fedeak erakusten digun bezala, eta besterik esatea da herejia. Esku onen bidez, Konsagrazioko itzak Apaizak esaten dituan uanean jartzen da Jesus Jaungoiko, ta gizon egiazkoa Aldareko Sakramentuan, Apaizak nai duan orduan, nai duan lekuan, eta nai duan aldi guzietan. Ekarri itzatzu gogora, nere Kristaua, Munduaren asieratik egin diran gauzarik andienak, eta atrebitzen naiz esatera, arrigarriagoa dala Apaizaren itzakin Sakramentu orretan gertatzen dana. Gauz andia izan zan Zeruak, eguzkia, izarrak, lurra, itsasoa, ibaiak, lore, arbolak, eta beste gauzak *egin bedi* esate utsarekin egiñak geratzea. Baña au gertatu zan Jaungoikoaren, ez gizonaren, itzera. Gauz andia zan Josueren otsera eguzkia gelditzea; baña au gertatu zan beñ bakarrik, eta Josue zan Jaungoikoaren adiskide andia. Gauza guziz andi, eta arritzekoa izan zan, Trinidadeko bigarren Persona gizon egitea Birgiña txit Santaren sabelean, Birgiña berak baimena eman zuan uanean; baña au gertatu zan beñ, eta Birgiña au zan munduan izan, eta izango dan animarik ederrena. Baña Apaizaren otsera egun oro, ta egunean asko aldz jaxkitzen da Zerutik lurrera Jesus Jesus Jaungoiko-gizona, naiz izan Apaiza ona, naiz ez. Esan zadazu, Kristaua, ez da guziz miragarria esku au?

Bigarren esku, edo poderea da bekatuak barkatzekoa. Esku au Jaungoikoari bakarri dagokana da, alako eran, non Jesusen kontra erausian asi ziran Juduak, zeren gizon bati esan zion: barkatzen zaizkitzu zure bekatuak; *Remittuntur tibi peccata*. Etzuen sinisten Jesus zala Jaungoiko egiazkoa; orregatik beraren kontra aserratu ziran, bekatuak barkatzen zituala aditzean. Eta esku au eman zien Jesusek Apostolui, eta ondorengo Apaizai. Sartu zan Apostoluak zeuden tokian, eta esan zien: pakea izan dedilla zuekin: *Pax vobis*. Arrezazue Ezpiritu Santua: *Accipite Spiritum Sanctum*. Zuek barkatzen dieztezuenean bekatuak barkatuak izango dira: *Quor um remiseritis peccata remittuntur eis*; eta zuek barkatzen ez dieztezuenean barkatu gabe geratuko dira: *Et quorum retinueritis, retenta sunt*. Itz oetan argiro eman zien Jesusek Apostolui, eta ondorengo Apaizai bekatuak barkatzeko eskua, eta besterik esatea da herejia.

Esan gidazu oraiñ, Kristaua, ez da miragarria, Jesus onak bere legeko Apaizai eman dien, esku, ta poderea? Etzien Jaunak eman onelako eskurik lege naturaleko Patriarkai: etzian eman lege zarreko Aita Santu eta Profetai: eta etzian eman Birgiña txit Santa bere Ama maitagarriari ere. Zertako eman ziela uste dezu? Gu esnatzeko beraren ontasun baztergabea amatzera, eta serbitzera. Begira dezagun oraiñ, zeñ onragarria dan Apaizen goiende, edo dignidadea.



§ III.

Leku, ta denbora guzietan onragarria izan da dignidade au, fedegabeen artean ere. Toki batzuetan etzan iñor Errege egiten ezpazan Apaiza: ala gertatzen zan Ejipton, Lazedemonian, eta Erroman; beste toki batzuetan Apaizak ziran, Erregeak aututzeko, eta kentzeko, eskua zuenak. Apaiz aek etziran idoloen kontua zeukeen gizon batzuek besterik, ta alae-re añ onragarria zan Apaizen goiendea. Lege naturalean etxe bakoitzeko seme nagusai eman oi zitzaten Apaizen onra. Lege zarrean ipiñi zituan Jaunak denbora ari zegozkan Apaizak, eta Aita Santua: eta oen egiteko andiena zan zekor, arkume, eta oen antzeko beste gauzak jaunari eskeintzea; etzan alabaña, Jesusek bere lege eder-garbia ipiñi zuan artean, Mezarik, ez konfesioko Sakramenturik. Alaere Espiritu Santuak esaten zuan: Onra ezazu Jaungoikoa zure anima guziaz, eta onra itzatzu Apaizak: *Honora Deum ex tota anima tua, et honorifica Sacerdotes* (Eclesiastici 7). Eta lege zarreko Apaizen dignidadea añ onragarria bazan, zeñ onragarria izango ez da Jesu-Kristoren legekoena? Enzun itzatzu, Kristaua, Santuak gai onetan esaten dizkiguen gauza miragarriak. S. Ignazio martiriak deitzen dio dignidade oni lurrean arkitzen diran gauz on guzien erpiña: *Sacerdotium est apex honorum omnium, quae sunt in hominibus*. S. Ambrosiok dio Erregeen koroak, Apaizen goiende, edo dignidadearen aldean, beruna urrearen aldean dana dirala. Nai dezu geiago? Jakizu bada, S. Juan Krisostomok Jaunaren Aingeruen izena ematen diela Apaizai, eta era berean S. Jeronimok. Orregatik Konstantino Enperadorea etzan eseri Nizeako Konzilioan, Apaizak eseri ziran artean. S. Franzisko Asis, zan bezeñ Santu andia izan arren, etzan atrebitu Apaizen malla artzera, eta zion, jatziko baliz Zeruko Santuetatik bat, eta ekusiko banu denbora berean Apaiza, oni lenengo lekuan muñ egingo nioke eskuan, eta gero agur egingo nioke Santuari. Santa Katalina Senakoak lurrari muñegin oi zion apaizen bat ekustean. S. Juan Ebanjelistari agertu zitzaion beñ Aingeru bat, bereala auspez jarri zan Santua; baña esan zion Aingeruak: Ez orrelakorik egin: Jaun baten serbitzariak gera: *Vide ne feceris* (Apoc. 19 et 22).

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ onragarria dan Apaizen goiende, edo dignidadea? Zer da orain guk egin bear deguna? Guk egin bear deguna da, berriro ezagutzea Jaunaren gudanako ontasun, eta amorio geiegia, bada gure onagatik ipiñi ditu bere Elizan Apaizak, Mezako Sakrifizio izugarria

eskeintzeko, Sakramentuak emateko, oen artean Aldareko Sakramentu guziz miragarria, eta atzenean bekatuak, diranak dirala, barkatzeko. Guk egin bear deguna da, Jaunari milla esker ematea mesede onegatik, eta onratzea apaizak, duen goiende, edo dignidadeari begiraturik, naiz izan birtutetsuak, naiz ez. Ala egin zuan Jesu-Kristok lege zarreko Apaizakin, oetatik bidegabe asko ekusi bazituan ere. Ala egiten due anima zintzo, eta on guziak: eta besterik egiten badue askok, oriek izan oi dira herejeak, eta Sakramentuetatik igesi dabiltzanak. Egin dezagun Jesus onak erakutsi diguna, eta iritsiko degu betiko bitzta doatsua. Amen.



BERROGEI TA AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

baña ezkonzako edo Matrimonioko Sakramentuaren gañean lendabizikoa.

ALABATUA &.

Azkeneko Erakusaldian itz egin nizun, Kristaua, *Ordena* deritzan Sakramentuaren gañean. Lenengo bost Sakramentuetan era miragarrian prestatu zituan Jaunak, guk Zerurako bidean bear ginduan, gauzak. Seigarren Sakramentuarekin, edo Ordenaren bidez ematen ditu Sakramentuen egille, eta emalleak. Zer geiago egin zezakean Jesus onak, agertzeko guri bere guganako ongi nai, ta amorioa? Dirudi, ezin geiago egin zezakeala; baña egin zuan beste bat, berak bakarrik asma zezakeana: au da, ezkonza altxatzea bere Sakramentuen mallara. Sakramentu au Jesu-Kristoren Elizan andia, eta onragarria da, eta artuko baliz Elizak nai duan eran, izango lizake etxe, erri, eta erreñuetako zori onaren iturburua. Orregatik gauza bearra da ezkonzaren gañean arretarekin, eta betaro iz egitea. Egingo det nik, nere Kristaua, ez bear lizakean adiña, baizik dezakedana, zuri gai oni dagozkan gauzak adirazteko. Gaur ukituko ditut, lenengo lekuan: ezkonzako Sakramentuari berari dagozkan berriak. Urrena ezkontzako Sakramentua artzen duenai, artu ondoan botatzen diezten bendizioak. Enzun arretarekin, ezkonduak, eta ezkontzeko asmoak dituzuenak.

§ I.

Munduaren asieratik izan zan ezkonza jaio zitezen Zerurako Jaunak autuak zeduzkanak: eta lenengo ezkonduak izan ziran gure lenbiziko gurasoak, edo Adan, eta Eba. Etzan orduan Sakramentu eskontza, Santo Tomasek erakusten digun bezala. Etorri zan Munduaren Salbatzallea: ekusi zuan, ezkonza zala gurutze pisua, eta samintasunez betea, eta au arintzeko, eta gozatzeko, altxa zuan len esan dedan bezala, ezkonza Sakramentuen mallara, eman zegien ezkonduai graziaren gozagarria. Au da egia bat Florenziako, eta Trentoko Konzilioak erakusten diguena, eta Katoliko guziak sinisten duena: eta besterik esatea da herejia. Izan dira

herejeak egia au ukatu duenak. Oetatik batzuek erausi zuen, ez zala ona ezkonza, eta denbora berean ontzat ematen zuen nolana, eta norekinai loikerietan ibiltzea. Hereje oen anzekoak dira asko, Kristauen artean ere. Ez due ezkondu nai: ote da au garbitasun edo kastidadearen birtute ederrari begiraturik? Ez. Zergatik bada ezkonzaren igesi dabilta? Zeren batekin bakarrik geratu nai ez duen. Beste hereje batzuek, oen artean Luterok, eta Kalbinok, esan zuen, gauz ona dala ezkonza, baña ez Sakramentu; baña S. Paulok deitzen dio Ezkontzari Sakramentu andia, eta onragarria, eta Elizak eskomikua botatzen dio beste gauzarik dionari: *Anathema sit*.

Ezkonza, gizon, eta emakume baten artean baizik ezin izan ditekean, Sakramentua da. Orregatik ez gizonak izan ditzake denbora batean emazte asko, eta ez emazteak ere senar bat baño geiago. Ala erakusten digu gure fede santak. Munduaren asieran Jaunak berak ipiñi zuan ezkonza, eta etzion Adani eman emazte bat besterik. Denbora luzean etziran atrebitu gizonak lege au autsiztera: eta lenengo autsi zuana izan zan Lametx, Kainen ondorengoa, baña Tertulianok dionez, etzion iñork jarraitu, emazte bat baño geiago artzean, ujaldeen denboraraño. Orduan aldealdean aitua zan mundua, bada Noe, eta bere etxeok ez, beste guziak ito ziran. Orregatik utzi zien Jaunak gizonai emazte bat baño geiago artzen: eta iraun zuan usanz onek lege zarrean ere, edo Jesu-Kristoren lege ederra etorri zan artean. Baña etzuen izan, eta ezin izan zezakeen emakumeak senar bat baizik; zeren ezaguera zuzenak argiro ala erakusten duan. Etorri zan Jesu-Kristo: ordurako betea zegoan mundua gizonaz, eta emakumez: eta ipiñi zuan ezkonza, Paradisuan Jaunak ipiñi zuan bezala, edo biren artean bakarrik. Orregatik gizonak ere ez dezake artu bigarren emazterik, lenengoa bizi dan bitartean; eta artzen badu, egiten du *adulterioa* deritzan bekatu itsusia. Ala dio Jesu-kristok berak: *Quicumque dimiserit uxorem suam... et aliam duxerit, maechatur*. Esan det, biren artean bakarrik izan ditekeala ezkontzako Sakramentua; baña biren artean ere ez nolana, baizik, Elizak sinalatzen dituan urteak dituenen artean, ezpadue ezkonza eragozten duan gauzaren bat, nola dan aidetasuna. Aidetasun au iristen da laugarren mallaraño, eta emendik eziñ ezkondu ditezke elkarrekin senideak, lengusu, bestengusu, eta erengusuak. Aidetasun au da odoletik datorrena. Bada gañera beste aidetasun bat ezkontzatik jaiotzen dana. Urllia ezkontzen da sandiarekin: senarra aide egiten da emaztearen aizpa, lengusu, bestengusu, eta erengusuakin, eta era berean emaztea senarraren anai, eta beste aideakin laugarren mallaraño. Baldin ezkontzeko itza eman badezu, balio duan eran, ezin ezkondu zaitezke, itza eman diozunaren



seniderekin: eta erori bazera obrazko bekatu osoan, debekutzen zatzu ezkontza, bekatuan lagun izan dezunaren, senide, eta lengusuakin. Baña gauz oek, eta ezkonza eragozten duen beste asko, egokiagoak dira bear bada konfesonariorako.

Ezkontzako Sakramentua artzen dan denboran, Apaizak esaten die Sakramentuaren artzalleai: nik lotutzen zaituet ezkontzarako: *Ego vos in Matrimonium conjugo*. orregatik gizon jakinsu asko ustean daude, itz oek esaten dituan Apaizak egiten duala Sakramentua gizonaren, eta emakumearen borondatearekin batean. Baña Santo Tomasek, eta anziñako Theologoak erakusten digue, artzalleak berak, eren borondatea bear bezala agertzean, egiten duela Sakramentua ere. Eta dana dala iritzi oez, Trentoko Konzilioa ezkerro, ezkontzak ez du balio, arzaia, eta beste bi, edo iru testiguren aurrean egiten ezpada. Arzaia baimenarekin egin diteke beste Apaizen baten aurrean ere.

Sakramentu onek, ezkontzen diranentzat dakartzian ondasunak, dira oek. Lenengoa, senarraren, eta emaztearen bi borondateak bat egitea, ezin eten ditekean, lotura, eta korapillo batekin. Aldegin beza gizonak emazteagandik, eta bijoa urrutietara, berekin darama ezkonduaren lotura, eta besterekin ezkontzen bada, ez du balio ezkontzak, eta lenengo ezkontzaren kontrako bekatuan erortzen da: *Qui aliam duxerit maechatur*. Ala esaten digu Jesu-Kristok. Iges egin beza emazteak senarragandik, itsasoaz beste aldera; non nai izango da bere senarrarena, eta ezin ezkonduko da besterekin, eta alakorik egingo balu, deituko zaio *adultera*, dio S. Paulok: au da ezkontzaren zikintzallea: *Igitur vivente viro, vocabitur adultera, si fuerit cum alio viro*. Lotura onek aditzera ematen du, Jesu-Kristok bere Elizarekin duan, batasuna, eta dion ongi nai, eta amorio guziz garbia. Ez du Jesu-Kristok uzten, eta ez du beñere utziko ainbeste nekerekin altxa zuan bere Eliza, edo Kristau fededunen artaldea; eta era berean ez due ezkonduak elkar utzi bear. Au onela ez izatera, zer leialtasun gordeko lioke gizonak emazteari, eta emazteak gizonari? Edozeñ aitzakiarekin gizona asiko lizake besteren billa, eta au bera egingo luke emazteak ere; eta zer aziera izango lukee onelako gurasoen umeak? Sakramentu onek artzallearentzat dakarren beste ondasuna da animako grazia ugaritzea, bear dan prestaerarekin artzen bada. *Ugaritzea* diot, zeren dan bizien Sakramentua, eta artu bear dan Jaunaren grazian. Gañera ematen diezte Zeruko laguntzak, bizi ditezen pakean, eta ongi eraman ditzeen eren gurutze, eta nekeak. Sakramentu au artzeko prestaeraren gañean gero itz egingo det.

Gertatzen da zenbait aldiz Sakramentu au artzea, paramentatzea debekatua dagoan denboran. Orduan, ezkontzen diranak ez oi due

Mezarik enzun, ez komuniorik artu: ez det esango, bekatu dala au; baña bai obeto dala, Sakramentu au goizetik artzea; ondoren Meza enzutea, eta Komunio Santua ere ez utzitzea. *Meza enzutea* diot, ez paramentatzekoa, baizik egunekoa. Gero paramendu ditezke, kentzen danean Elizaren debekua. Ez du nai Eliz Ama Santak, ezkonduak denbora luzean egotea paramendu gabe; orregatik lenbait len etorri bear due onetara. Orduan botatzen diezte bere bendizioak, eta oetatik batzuek ukituko ditut oraiñ.

§ II.

Ezkontzaren ondoren, sartzen dira ezkon-berriak Elizan Apaizarekin batean, eta onek esaten die. Zori onekoak Jaunaren beldur Santuan bizi diran guziak, eta beraren Aginteen bidetik dabiltzanak: *Beati omnes, qui timent Dominum: qui ambulant in viis ejus*.

Zori onekoa zu ere gisa onetan bizi bazera: zuk gustoz jango dezu zere neke, eta izerdiarekin irabazten dezuna: eta ondoren artuko dezu zere nekeen saria, ez emen bakarrik, bai ta askoz ugariago beste bizitzan: *Labores manuum tuarum quia manducabis: beatus es et bene tibi erit*.

Zure emaztea ez dabillela ergelkerian batetik bestera, baizik egon dedilla etxean modestia, eta onestidade andian: izan dedilla mats ugari mordoz beterikako baten eran: *Uxor tua sicut vitis abundans in lateribus domus tuae*.

Zure Seme, eta alabak, Jaunaren beldur Snatuan azitzen dituzula, agertuko dira zure maiaren inguruan olibaren alsuna ederrak bezala: begiratuko diezu, eta atsegin-pozez beteko da zure biotza: *Filii tui, sicut novellae olivarum, in circuitu mensae tuae*.

Orra, onelaixe ixuriko ditu Jaunak bere bendizioak, beraren beldur Santuan bizi diranen gañera: *Ecce sic benedicetur homo, qui timet Dominum*.

Zeruko Sionen, edo erri eder artan bizi dan Jaunak ixuri dezala zure gañera bere bendizioa: eman degizkitzula, ez emengo ondasunak bakarrik, baita are geiago Zerukoak: eta betikotasun guzian ekusi ditzatzula Zeruko Jerusalemgo ondasunak: *Benedicat tibi Dominus ex Sion, et videas bona Hierusalem omnibus diebus vitae*.

Ekusi ditzatzula erri doatsu artan zure umeen umeak, eta oekin batean angio betiko pakea: *Et videas filios filiorum tuorum, pacem super Israel*. Ona, Kristaua, paramentzen diranai Elizak botatzen diezten bendiziota-tik batzuek.



§ III.

Ekusten dezu, Kristaua, zer dan ezkonzako Sakramentua, eta zer ondasunak dakartzian ongi artzen duenen animetara? Ekusten dezu, zer bendizioak botatzen diezten Elizak ezkonduai, paramentzen diranean? Nork ez du arriturik esango, zeñ ona, ta maitagarria gure Jesus ona! bada altxa nai izan du ezkonza bere Sakramentuen mallara, era onetan arintze-ko, eta gozatzeko, ezkonduen bizimoduak dakartzian gurutze, eta samintasunak. Zeñ doatsuak izango ez lirake etxe, ta erriak, bear bezala artuko baliz Sakramentu au? Baña asko dira abereak baño prestaera geiago egiten ez duenak. Emendik ainbeste ezkonza negargarri: emendik ainbeste ume gaizki azi. Zuek bada, ezkonduak, ezagutu ezazue, zeñ andi, ta onragarria dan ezkonzako Sakramentua: arrezazue bizimodu on bat, eta iritsiko dituzue Sakramentu onen gozagarriak, eta oekin batean uste izan dezakezue betiko bizitza. Amen.

BERROGEITA AMAZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

baña ezkonzako edo Matrimonioko Sakramentuaren gañean bigarrena.

ALABATUA &.

Asi nintzan azkeneko Erakusaldian ezkonzako Sakramentuaren gañean itz egiten. Adu zinduan orduan, nere Kristaua, Sakramentu oni dagozkan zenbait berri. Adu zinduan gañera, ezkonduai, paramentzen diranean, Eliz Ama Santak botatzen diezten bendizioak. Sakramentu au da lotura, eta korapillo bat beñere eteten ez dana, eta berekin dakartzi egin-bide, edo obligazio andiak, baña guziak arintzen eta gozaten ditu Jaunaren lagunak, eta ezkonduak elkarri zor dioen, ongi nai, eta amorioak. Orregatik esan zuan S. Agustiñek: Burniazkoak dira ezkonzaren kateak: maite izan bezee elkar, eta urrezkoak izango dira. Ongi nai ta amorio oni ongi begiratzen bazaio, erraz ezagutzen dira ezkoduen egin-bideak, eta au izango da gaurko itz aldiaren gaia. Aurrena ekusiko degu, zer doai bear dituan ezkonduak elkarri zor dioen ongi nai, eta amorioak. Urrena, ongi nai, eta amorio au aitu ezker, zeñ samiña, eta pisua dan ezkonduen gurutzea. Enzun kontuz, ala ezkonduak, nola ezkontzeko asmoan zautenak.

§ I.

Ezkonzako Sakramentuak biren borondateak bat egiten ditu, ongi nai, eta amorioaren loturarekin. Orregatik ongi nai, ta amorio au ardura andiarekin gorde bear due ezkonduak. Baña zer doai, edo kondizio eskatzen ote ditu ongi nai, ta amorio onek? Lenengo doaia da, *ez batarena bakarrik, baizik biena, eta elkarganakoa izatea*. Zer balioko du gizonak emaztea benaz, eta biotzetik amatzeak, ezpadio emazteak borondaterik batere? Zer emazteak gizona maite izateak, ekusi nai ezpadu gizonak? Onelakoen ezkonza da burnizko katea, eta biziko dira gazteluetan katez lotuak dabil-tzanak bezala: edo traillan katua, ta zakurra egongo lirakean eran.

Ezkonduen ongi nai, ta amorioak eskatzen duan bigarren doaia da, *bakarra izatea* esan nai det Jainkoaz osteronzean bizi lagunari bakarrik



begiraten diona. Anziñako denboran ongi gorde bear ziran gauzai eraztunarekin ipintzen zitzaten marka, dio S. Franzisko Salesek: eta Elizak ipintzen dio gizonari, ezkontzen danean, eraztuna, adirazteko, ordutanik markatua bezala geratzen dala beraren biotza emaztearentzat bakarrik: eta au bera egiten du gero emaztearekin ere. Aditu det, toki batzuetan emakume ezkonduak ez dirala kontentu, senarraz kanpora ezpadue ezkutari-
ren bat, noizean beñ itz egiteko, eta norabait joan edo ibilli nai duenean laguntzeko: eta orobat gertatzen bide da gizonakin. Dirudi, etxeko ogiak gogo betetu dituala, eta gauza berrien naikundeakin daudela. Ez da gure errietan ekusten onenbeste zorakeria, eta alde onetatik laudagarriak dira leku oetako ezkonduak. Gaizki dirudien usanzak dirade oek; eta kiratsa zabalduko due goiz, edo berandu.

Ezkonduen ongi nai eta amorioak eskatzen duan, irugarren doايا da *leiala izatea*. Leiala gogo, eta pensamentuetan, esan nai det, ez senarrak, ez emazteak ipiñi bear duala bestegan bere gogo, eta biotza. Paramendu zanean, Elizak esan zion gizonari: ematen dizut laguna, ez neskamea: maite izan ezazu Jesu-Kristok bere Eliza maite duan bezala: *Sociam trade tibi, non ancillam, dilige illum, sicut Christus diligit Ecclesiam*. Eta Jesu-Kristok bere gogo, ta biotza ez ditu ipintzen hereje, ta fedegabeen bilkui, batzarrere, edo Elizetan, baizik bere Eliza bakarrean. Gizonari bezala aditzera ematen dio emazteari ere, beti gorde bear diola leialtasuna bere senarrari. Ezkonduen ongi nai, ta amorioak leiala izan bear du gañera itz egite, begiratze, ta modu guzietan; bestela erraz autsiko du dagokan garbitasuna. Badira ezkondu batzuek añ enasak gai onetan, non Kristauen artean lekurik eman bear ez litzakeen. Onelakoak, beren animak zikintzea gutxi baliz bezala, gazteai erakusten, eta eragiten diezteza bekatu asko. Eta gogo, ta itzetan leiala izan bear badu ezkonduen ongi nai, ta amorioak, zer esango du obrazko gauzaz? Ezkonduak gai onetan besterekin erortzea añ gauz itsusi-nazkagarria da Jaunaren begietan, non lege zarrean agindu izan zuan, ken zekiola arrika bizia onelako bekatarari zikiñari. Jaungoikoaren begietan ezezik, munduarenetan ere itsusia izan da bekatu au; baña Españako legeak eriotzaren pena ipiñi zuen gizonarentzat; eta emakumeak erabiltzen ziran kalez kale asto gañean, eta borreroak azotarekin zeatzen zituan. Ote da pena au irabazi duanik leku oetan? Ez da sinisteko gauza. Alaere gerta liteke etxeko mai ona ipintzen duanari batzuekin gertatzen zaiona. Ipiñi bedi bazkaririk onena, ta txukunena: alaere batzuek otorduan ez due ezer jaten, eta gero ixilka gogotik ariko dira jaten edozeñ gauza; beste batzuek muziñak egingo diozkee etxeko ipintzen dan janariari ederki maneata egon arren, eta arratsaldean pozik aseko dira

txardiña gaziz, piperrez, tipulaz, edo bakallao ustelez. Orregatik esan zuan Espiritu Santuak: gozoagoak iduritzen dirala ostutako urrak: *Aquae furtivae dulciores sunt*.

Ezkonduen ongi nai, eta amorioak eskatzen duan laugarren doايا da onestidadea itz egite, ta modu guzietan, ez arrotzak bakarrik, baita elkarren artean ere. Gai onetan letraz ezarriak daude ezkonduen arteko gauz itsusi asko. Batzuek ezkonzaren ondoren ezin daude ixilik, eta eren lagunai erakusten diezteza gogo, eta biotza zikintzeko egokiak diran gauzak. Onelakoak markatu bear lirake mingañean burni gorituarekin. Besteak aur gogortuak idukiko ditue berak dautzan oian, eta oek ikasten ditue, ikasi bear ez litukeen gauzak, eta au izan oi da askorentzat ezin konta al bekaturen sustraia. Onelako ezkonduak mendira bota bear lirake zintzerri andi banarekin. Beste batzuek atzenean egin oi omen ditue, Jaunak debekatzen dituan, gauz itsusiak elkarrekin. Jauna, esango due: senarra ezta emaztearena, eta emaztea ezta senarrarena? Bai, ez ordea Jaunak bedekatzen diezten gauz itsusiak egiteko. Demagun, zure gelan daukazula Tudelako, edo Peraltako ardo-puska bat, adiskide batek bidaldua. Ardo au da zurea, ez besterena; alaere orditzen bazera, bekatu egingo dezu, zeren Jaunak debekatzen dizun gauza egiten dezun. Judas Patriarkaren seme nagusi, Her zeritzana, ezkondu zan Jamarrekin, eta Jaunak kendu zion bizia, zeren gaiztoa zan beraren begietan, dio Eskritura Santak: *Nequam in conspectu Domini*. Ez digu esaten zertan zegoan gizon onen gaiztakeria; baña askoren iritzia da, egiten zituala gauza itsusiak bere emaztearekin. Patriarkaren beraren seme bigarren zan Onan: ezkondu zuan Aitak Tamarrekin, eta egiten zituan gauz itsusi-nazkagarriak, aurdun geratu etzedin Tamar; eta bereala kendu zion Jaunak bizia. Ekusten dezu, Kristaua, nola ezkonduen artean ere gorde bear dan onestidadea? Ekusten dezu, bakoitzak bere senar, edo emaztearekin ere ezin egin deza-keala edozeñ gauza? Zenbat izango dira ezkonduen artean gauz itsusiak, eta bekatu andiak diranak sarritan egiten dituenak? Badue barrengo kezka, eta ar bat, esaten diena: *au ez da gauz ona*; ta alaere ez due utzitzen, eta are geiago dana, ez due konfesioan ere esango. Zenbat izango dira, aur asko izan ditzeen beldurrez, bekatu itsusiak egiten dituenak? Oek, berak ala nai izatera, denbora puska batean gorde dezakee garbitasuna, S. Paulok esaten dien bezala: *Nolite fraudare invicem, nisi forte ex consensu ad tempus* (1 ad Corint. c. 7): era onetan ezta aur geiegi izateko beldurrik. Jauna, ez giñan orretarako ezkondu. Atozea, eta ezkondu ziñan zerriak baño ere enasago izateko? Zure zori gaiztokoa konfesio on batekin jartzen ezpazera Zerurako bidean!



Ezkonduen ongi nai, eta amorioak eskatzen duan bostgarren doaia da *modestia janzian eta gastuetan*. Onetan zabaldu omen dira munduan usanza gaizto ez gutxi. Oetatik bat da eztaietan gastatzea, zorrak ateratzeko, eta etxea oñ eder batean ipintzeko, bear lizakeana, eta nork eztakus, gaizki dirudian gauza dala au? Igarotzen dira eztaiak: asitzen dira estutzen zorrak, eta ezta zerekin oei eranzun. Bigarren usanza gaiztoa da nori nai edari biziak ateratzeko, eta uura bezala edatea. Irugarrena da, gurasoak eztaietara bidaltzea alabak, batzuek arilkai, matazur, eta linaiak; besteak katillu, eta platerakin; besteak eltze, edo lapikoakin. Zer etorriko da emendik? anima zikintzeko gauz asko aditzea, ekustea, eta egitea, mutil, eta neskatxak zokoetara joatea, gaua triskan, eta lasaikerietan igarotzea. Eztaiak bakoitzaren mallari dagokan bezala, egitea ongi dirudian gauza da; baña ukitu diran zorakeri oekin ondutzen dira etxeak, desonratzen da Sakramentua, eta gertatzen dira asko bekatu. Españako erri batean ezteietara bildu ziran gizon, eta emakume asko. Bazkalondoan asi ziran triskan, añ modu itsusiakin, non laster erakarri zuen beren gañera jaunaren aserrea. Nondik, eta nola etziakiela batetan erazeki zitzaion etxeari alde guzietatik, eta su, ta garren artean ill ziran eun, eta zortzi gizon, eta emakume.

Ezkonduen ongi nai, eta amorioak eskatzen duan seigarren doaia da, bizi lagunak nai duana egiteko, ez izatea *mukerra, eta gozakaitza*, baizik erraza, samurra, gozoa; aditzen da bekatu ez diran gauzetan. Doai au da ezkonduen ongi nai, ta amorioaren gañ, eta lorea bezala. Onelako ongi nai, ta amorioak gozatzen ditu juniorik mukerrenak ere, baña asitzen badi-ra ezkonduak, bakoitzak nai duana baizik, egin nai ez duela, ez da aen artean ekusiko amorio egiazkoaren siñalerik, eta pakarik: eta egunetik egunera astunagoa, samiñagoa, ta gogaikarriagoa izango da ezkontzako korapillo, ta gurutzea.

Ezkonduen ongi nai, eta amorioak eskatzen duan zazpigarren doaia da *egillea izatea* etxeak bear dituan gauzetan. Gizonak arretarekin egin bear ditu, gizonari dagozkan lanak, eta emazteak emakumeari dagozkanak. Gizonari dagoka berak, eta etxeakoak bear duena irabazteko arreta ipintzea, edanari, jokoari, alperkeriari ederretsi gabe; bestela bera, eta etxeoko guziak geratuko dira zerekin bizi ez duela, zorra zorraren gañean egiten duela, eta iñork ere begi onez ekusten ez dituala. Esku nagí, edo alperrak berekin ekarri du premia, ta arloteria, dio Espiritu Santuak: *Egestatem operata est manus remissa*. Emazteari dagoka etxeari ongi kontu egitea; ergelkerian, eta ipui biltzen ez ibiltzea. Emazteari dagoka gizonak irabazten duana ongi gastatzea: senarraren, ume, ta etxeoen garbitasunari begira-

tzeta. Atzanean biai dagote umeai aziera ona ematea, eta elkarri biritza onarekin Zerurako bidean laguntzea.

Ezkonduen ongi nai, eta amorioak eskatzen duan zortzigarren doaia da *eramankorra* izatea. Ongi nai, eta amorioa eramankorra da, dio S. Paulok: *Charitas patiens est*. Eta au onela bada, edozeñ ongi nai, ta amorio egiazkoren gañean itz egiten dala, zer esango degu ezkonduen ongi nai, eta amorioaz? Txit eramankorra ezpada au nekez pakean biziko dirala ezkonduak, eta itzaliko da oen ongi nai, ta amorio guzia. Bizi laguna aserre bada, etzaio eranzun bear ezer, bere kontrako gauza bada; zeren sasoi txarrean arkitzen dan ongi aditzeko: itxedon bear da denbora egokiraño: eta gauza bearra bada zerbait esatea, egin bedi au modu onean; onelako eranzuerak alabaña itzaltzen du aserrea, Espiritu Santuak esaten digun bezala: *Responsio mollis frangit iram*.

Aditzen dezu, Kristaua, nolako ongi nai, eta amorioa dan ezkonduak elkarri zor dioena? Aditzen dezu, zer doaiak bear dituan amorio onek? Dakuskun oraiñ, zeñ samiña, eta pisua dan ezkonduen gurutzea, amorio au aitu ezkeru.

§ II.

Ezkontzako aurreneko denborak igaro oi dira atsegin, eta kontentuen artean, askotan beintzat. Baña askotan gertatzen da, laster agertzea ezkonduak bere gríña txarrak, eta itzaltzea bien arteko ongi nai, ta amorioa. Ekusten du bata, bizilagunak ez diola borondaterik; ekusten du besteak, gizonak, edo emakumeak norbaiti diola bere jaiera: ekusten du, neke dala leiala izatea bere gogo, itz, eta obretan besteren arrastoan onela dabillena. Ekusten du, eragiten diozkala, Jaunak debekatzen dituan, asko gauza. Ekusten du, egiten dituala ezin iroso ditzakean gastuak, dala janzian, dala erriz-erri premiarik gabe dabilela. Ekusten du, dala mukerra, gozakaitza, eta besteren ongi-esanak aditu nai ez dituna. Ekusten du nekeari jarraitu nai ez diola, egunetik egunera zorrak ugaritzen dirala, eta etxea arkitzen dala azkeneko asnetan bezala. Ekusten du atzanean pakearik ez dala etxean. Gisa onetan aitutzen zaio bizilagunaganako ongi nai, eta amorioa: eta andik aurrera edozeñ gauzak erretzen du. Badakus beste aldetik, gurutze onek iraun bear duala, bata, edo bestea ill dedin artean: eta emendik illuntasunez betetzen zaio barren guzia. Esan zadazu,



nere Kristaua, zeñ pisu eta samiña izango ez da gurutze au? Eta zenbat, eta zenbat izango dira onelako gurutzearen azpian bizi diranak?

Eta zer egin al dezakee onelako ezkondu urrikalgarriak beren animak ez galtzeko? Egin bear duena da, lenengo lekuan, Jaunarekin ongi jartzea konfesio on baten bidez. Bigarrena, gaurdanik betiko elkarri bar-katzea gertatu diran utsegiteak, diranak dirala, naiz andiak, naiz txikiak. Irugarrena elkarganako ongi nai, eta amorio egiazko bat biotzean sortzea, eta aurrera ongi, ta Jaunaren izenean igarotzea gertatzen diran nekeak. Onela arinduko da gurutze pisu, edo astun ori, eta irabazi dezakee betiko bizitza. Amen.

BERROGEI TA EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

baña ezkonzako edo Matrimonioko Sakramentuaren gañean irugarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko Erakusaldian aditu zenduan, Kristaua, nola ezkonduak beartuak dauden elkar amatzera, eta zer doaiak eskatzen dituan ongi nai, ta amorio onek. Aditu zenduan gañera, ongi nai, ta amorio au aitua ezkerro, zeñ pisu, ta samiña dan ezkonduen gurutzea. Orregatik ezkonduak, bekatu larri, edo mortalaren azpian beartuak daude, beren aldetik alegiña egitera, aitua edo itzali ez dediñ ongi nai, eta amorio au. Zer ote da, esango didazu, onetarako emazteak egin bear duana? Au adiraztea izango da gaurko Erakusaldiaren gaia. Gerta liteke, zer edo zer gatz pixkaren batekin esatea, oraiñ munduan barreatzen diran gauzen gañean; baña jakizue, nik esango ditudan gauzak izango dirala, ez zuen kontra, baizik zuen alde, eta itsatsi ez dakizuan, gaizki dirudian, azturaren bat. Enzun bada arretaz, emakume ezkonduak, gaurko Erakusaldi onetan ukituko ditudan gauzak.

§ I.

Ezkondua zera, emakumea? Beartua zaude beraz zure gizona amatzera, ez nola nai, baizik beti, eta ongi nai, ta amorio garbi batekin, Eliz Ama Santak Jesus maite duan eran: eta bekatu larri, edo mortalaren azpian egin bear dezu zere aldetik alegiña, ongi nai, eta amorio au itzali ez dedin.

Emendik lenengo lekuan ezagutu bear dezu, gizona dala zure burua, eta borondate onarekin egin bear dituzu beraren aginduak, batezere etxeko gobernu, eta umeen aziera onari dagozten gauzetan. Egin zuan Jaunak emakumea gizonaren galtzarbeko saiets-ezur batetik, eta S. Franzisko Salesek dio, onetan Jaunak aditzera eman zuala, nola emakumeak egon bear duan gizonaren gobernuaren azpian: eta Jaunak berak ala esan zion Ebari Paradisutik erbestetu zuanean: gizonaren esku-mendean bizi bearra zera, esan zion: *Sub viri potestate eris*. Beraz zuk, emakume ezkondua, egin bear dituzu gizonaren aginduak, bekatu ez diran gauzetan, ezagutzen



dezula, gizona dala emaztearen buru, eta agintaria. Emakume ezkonduak gauza guzietan egon bear due eren gizonen mendean, Eliza Jesu-Kristoren mendean dagoan bezala, dio S. Paulok: *Sicut Ecclesia subjecta est Christo, ita et mulieres viris suis in omnibus*. Alaere omen dira asko emakume zirauaren anzekoak, setaz gizonaren aginduak egin nai ez dituenak: omen dira zaputz egiten duenak, eta mututurik geratzen diranak, zeren gizonak debekatu dien zerbait. Omen dira atzenean, gizonaren borondatearen kontra, alabai apaindura geiegi ematen diezanak. Zer esango det, bekatu-rako bidea dakarten festa, triska, eta zorakerietara bidaltzeaz? Zer lagun arro, ta gaiztoetara utzitzeaz? Onelako emakumeak ez due, ezkonzako Sakramentuak eskatzen dien, ongi nai, eta amoriorik, eta bizi oi dira konfessio, ta komunio gaiztoak egiten dituela.

Bigarrena: zuk, emakume ezkondua, lagundu bear diozu gizonari biziera onari jarraitzeko, arretaz egiten dituzula emakumeari dagozkan gauzak. Onetarako egin zuan Jaunak emakumea. Egin degiogun bere anzeko lagun bat, esan zuan Jaunak: *Faciamus ei adiutorium simile sibi*. Au ezpadu egiten emazteak, ez du, Sakramentuak eskatzen duan ongi nai, eta amorio egiazkorik. Emakumeari dagozkan gauzen artean bat da, umeai, txikitxoak dirala, gutxika dotrina, eta Zerurako bidea erakustea eta berak ezpadaki, nola erakutsiko die? Bidaldu bear lituke erakusten duen tokira: baña gertatzen omen da leku batzuetan arzaiaik jai-arratsaldeetan, dotriña erakusteko, alegiña egitea, eta aurrak kaleetan jolasean ibiltzea; eta amak? Oek kezka ta lotsa gutxirekin jokoan aritzea. Onelakoai, sardean artuta, galdan dagoan labean igaro aldi bat eman bear litzakee. Emakumeari dagozkan gauzen artean bigarrena da, gizonak, eta etxeakoak bear dituen gosari, bazkari, eta aparia alik ongiena maneatzeta, edo prestatzea. Eta nola au ongi egingo du, ezpadaki elze bat gustora ipintzen? Ez ote dira gizon asko mundu onetatik irteten, gusto oneko elze bat progatu ere gabe? Ez ote dira emakume asko senargai billa asitzen, eltzeari gatza ematen, arto, ta ogi ona egiten ikasi baño len? Onelakoentzat ezkontzeko deirik eze lizake egin bear, gauz oetan trebe daudela jakin dedin artean. Emakumeari dagozkan gauzen artean irugarrena da, etxea, eta umeak nola nai utzita, gizalanetara ez joatea. Etxeetan, geienetan beintzat, bada emakumeentzat etxapean bertan lanik asko; alaere aditzen det, asko emakume dirala, etxean egotea baño, naiago duenak gizartean laian, eta atxurrean aritzea, utzirik aurrak zai gabe, ta bazkaria zakurren, eta katuen kontura. Zer etorri al diteke emendik? itz loi, edo desonestoak aditzea, ongi ez dirudien lasaieriak ekustea, eta Jaunaren beldur Santua gutxitzea. Eta utzirik baserrietan gertatzen diran gauzak, begiraldi bat emango baliz erri

andietako emakume askoren bizieraren gañean, arrituko giñake, eta esango genduke: *oek dira gizonari laguntzeko Jaunak egin zituan emakumeak? Zer lagunza oetatik izango da, ezpadira beranduraño jaikitzen, eta ergelkeria, eta apaindura baizik, gogoan ezpadarabilte? Enzun itzatzu, Kristaua, andre indartsuari Espiritu Santuak ematen diozkan alabanzak; baña ez uste izan, andre indarsuaren izena ematen diola gizonen lanetan sartzen danari, baizik etxea ongi gobernatzen duanari. Nork, eta non arkituko du andre indarsua? Galdetzen du: *Mulierem fortem quis inveniet?* Askok balio duan gauza da, urrutietatik ekartzen diran gauzak izan oi diran eran: *Procul, et de ultimis finibus pretium ejus*. Onelako andrearen gizonak utzi zituan etxeo gauzen kezka, eta etzuan etxea ornitzkeo ezereen billa ibilli bearrik, zeren emazteak prest zedukan guzia. *Confidit in ea cor viri sui, et sponliis non indigebit*. Billatu zuan lana, eta lioa, eta gogotik iruiñ zuan bere eskuz: *Quaesivit lanam, et linum, et operata est consilio manuum suarum*. Jaikitzen zan eguna baño len; prestatzen zien morroi ta langilleai bear zuen janaria, baita nes-kameai ere beren langaia. Au guzia egin ondoan ekiten zion ardatzari: *Digiti ejus apprehenderunt fusum*. Etzan onenbesterekin kontentatzen: artzen zuan argia; begiratzen zien etxeo bazterrai, eta ekusten zuan nor, eta non zegoan; askotan alabaña gertatu da gazteak gauaren illuntasunaz baliatzea gaiztakerietarako, etxeo buruen beldurrik ezpadue: *Consideravit semitas domus suae*. Txit laudagarriak dira andre indartsuaren doai oek, baña ezer ez bezala izango lirake, ezpalu beste doai bat, eta da Jaunaren beldur santua. Orregatik azkenean dio Espiritu Santuak: Jaunaren beldur Santuan bizi dan andrea izango da laudatua, ta onratua: *Mulier timens Deum ipsa laudabitur*. Ona nolako alabanzak ematen diozkan Espiritu Santuak andre indartsuari, edo etxea ongi gobernatzen duanari.*

Irugarrena: zu, emakume ezkondua, janzi zaite zure adiñari, eta Jaunak eman dizun mallari dagokan eran, baña modestiarekin: bestela ez da zuan ezkonduai dagoten ongi nai, ta amorio egiazkorik izango. Iru gisatara utsegin dezake emakume ezkonduak gai onetan. Utsegin dezake benik beñ, apaintzen dala duan adiñari ez dagokan eran. Nork ez du farra egingo, adiñean aurreratu dan emakume bat ekusten badu emezortzi urteetako neskatxa baten eran apaindua? Utsegin dezake urrena, geiegi apaintzen dala kanpora, ta bere gizona gabe dijoanean. Badijoaz txango larunbatez, edo beste denboraren batean inguruko erriren batera emakumeak, ala ezkonduak, nola ezkongaiak: begiratzen diezu, eta ezin igerri dezu, ezkonduak, edo ezkongaiak diran, eta are gutxiago goi mallakoak, bitarteakoak, edo bekoak diran, edo ez. Gaizki dirudian gauza da au, batezere emakume ezkonduetan; aditzera ematen due alabaña, ego-aizez



beteak dauzkeela goiak, eta ez dirala kontentu beren gizonai bakarrik agradatzearekin. S. Franzisko Salesek dio, apaindu ditekeala emakume ezkondua senarrak nai duan eran, eta berarekin danean. Baña senarrarekin ez danean, aldare nagusia bezala apaindurik badijoa kanpora Zer esango due ekusten duenak? Noren begiai, esango due, noren begiai atsegin eman nai ote die urlia onek onenbeste apainduararekin? Orra zer dion S. Franzisko Salesek. Atzanean utsegin dezake gai onetan emakume ezkonduak, baldin etxean, eta etxe inguruan badabill baldana, enasa, eta goragalea emateko eran. Zoazte zenbait etxetara: ekusiko dezue, kanpoan añ eder, eta arro agertzen dan, urlia zanko utsean, buruko zapirik gabe, kolkoa salgai duala, eta aste guzian aurpegirik garbitu gabe. Zer atsegin, eta gusto izan dezake gizonak, onelako andre enasari begira egotean? Eta gizona bestegana joaten bada, noren kulpaa izango da? Orregatik emakume ezkonduak zan bear due janzian garbiak, txukunak, ez arreak; modestia da alabaña emakume baten apaindurarik ederrena.

Laugarrena, *setaren griña txarra* ilduratu, eta ezi bear dezu; bestela laster itzaliko da ezkonduak elkarri zor dioen ongi nai, eta amorioa. Zuk seta ori utzi nai ezpadezu, ez da pakerik izango zu bizi zeran etxean. Eta zer gustorekin biziko zerea munduan, pakerik ez dezula zere gizonarekin? Eta nork, eta nola igaroko du bere bizi guzia, zu bere aldean zaituala? Enzun ezazu, zer dion Espiritu Santuak andre setatsuaren gañean: etxape batean emakume setatsuarekin bizitzea baño, obe da, dio estalirik ez duan edozeñ tokitan ere bakarrik bizitzea: *Melius est sedere in angulo domatis, quam cum muliere litigiosa, et in domo communi*. Onelako emakumeak bizi oi dira bekatu larri, edo mortalean, eta ez due egiten konfesio onik, zeren biotzik ez duen beren griña txarra utzitzeko.

Bostgarrena, *iraren griña* alik ongiena garaitu bear dezu, eta au ez egi-tera ez da zugar ezkonduai dagoten ongi nai, eta amoriorik izango: ongi nai, eta amorioa alabaña eramankorra da, dio S. Paulok: *Charitas patiens est* ez da aserratzen: *non irritatur*. Beraz zuk, emakume ezkondua, ederretsitzen badiozu erriertari, eta gertatzen dan edozeñ gauzarekin jartzen bazera gaizkiñakiñ dagoan baten eran, ez da zugar ezkonduen ongi nai, ta amoriorik, eta itzaliko dezu bizi lagunak duana ere. Au aditzera emateko, dio Espiritu Santuak gisa onetan: ez da, dio, sugearen burua baño gaiztoagorik: *Non est caput nequius super caput colubri*: eta ez da emakumearen ira, eta aserrea baño andiagorik: *Non est ira super iram mulieris*. Lenago egingo da edozeñ leoi, eta dragoi batekin bizitzera, ezen ez emakume irakor, eta gaiztoarekin: *Commorari leoni, et draconi placebit, quam habitare cum muliere nequam*. Emendik igerri dezakezu, emakume ezkondua, ira, edo aserrearen

griña garaitzea dala gauza bearra, baldin zure lagunarekin ongi nai, ta amorioan bizi nai badezu. Au ez egitera, galduko zera betiko.

Seigarrena, etzaitzela izan zelotia, eta bide txit andirik ezpadezu, ez sinistu senarrarentzat gauza gaiztorik; bestela itzaliko da zuen arteko ongi nai, ta amorioa. Zeloak bizilagunari erraz artzen diozkanak, aditzera ematen du, ez diola ongi nai, ta amorio andirik, zeren onelako amorioa norbaiti dionak ez du erraz aren kontra gauza gaiztorik sinistuko. Aditzera ematen du gañera, S. Franzisko Salesek dionez, senarrari dion ongi nai, ta amorioa ez dala garbia. Ez da erraz ongi adiraztea, zeñ gurutze samiñ, eta gogaikarria izango dan onelako emakumea ala beretzat, nola gizonarentzat. Beretzat, zeren gizonaren edozeñ itz egite, eta ibillera alde gaiztora botako duan. Asko izango da, gizona auzora, festara, edo norabaitekin itz egitera joatea, emakume zelotsua beregan erkiturik egoteko. Ez du lo onik egingo: batzuetan zelatan dabill, besteetan egiten ditu bere galdeak, zerbait jakiñ ote dezakean. Eta beretzat gurutze añ samiña bada, nolakoa izango da gizonarentzat? Izango da samintasan guziak berekin dituan gurutzea. Orain jarriko da kopeta beltz, eta zimurturaz betearekin, gero itz egin nai ez duala; orain egingo du zaputz, gero galduko die beren izen on, edo fama gizonari, eta arekin itz egiten duen guziaz. Enzun ezazu, emakumea, Espiritu Santuak gai onetan esaten diguna. Iru gauzak izuturik uzten due, dio, nere biotza: oek dira batek bere erria saltzea, errietako jendea asalaturik jaikitzea, eta norbaiti gauz itsusiren bat bidegabe, edo gezurrez egotzitzea. Eriotza bera baño ere astunagoak dira iru gauz oek; baña bada beste bat oek baño ere astunagoa. Zer ote da au? Au da emakume zelotsua. Onelako emakumea da biotzeko oñaze, eta iluntasuna bera: *Dolor cordis, et luctus mulier zelotypa*. Bere mihian dakar guzientzako azotea, eta ez dio barkatzen, ez gizonari, ez andreari, ez ezkongaiari: *Flagellum linguae omnibus communicans*. Orra, zer esaten digun Espiritu Santuak.

Atzanean, zu, emakume ezkondua (ezkonduai dagoten ongi nai, ta amorioa itzaltzea nai ezpadezu) izan zaite onestidarearen ispillua, ezkonzako egunean agindu zenduan bezala. Gai onetan laudagarriak dira inguru oetako emakumeak, eta ez degu zer nekatu gai onetan.



§ II.

Aditu dezu, emakume ezkondua, zer egin bear dezun zere aldetik, itzali ez dedin ezkonduak elkarri zor dioen ongi nai, ta amorioa. Begira ondo nola egin dezun au oraindañokoan. Au egin gabez biziera gogaikarri bat izan badezu, aurrerako arritzatzu neurri egokiak. Egizu konfesio on bat: egizu zure aldetik alegin guzia pakean zure gizonarekin bizitzeko: gertatzen diran nekeak eskeñi giozkatzu Jaunari zure bekatuen zorren alde: onela arinduko dira guziak, eta iritsi dezakezu betiko bizitza doatsua. Amen.

BERROGEI TA EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

baña ezkonzako edo Matrimonioko Sakramentuaren gañean laugarrena.

ALABATUA &.

Ezkonduak elkar amatu bear due beti, ta ongi nai, ta amorio garbi batekin. Azkeneko aldian itz egin nien emakume ezkonduai, eta al nuan ongiena aditzera eman nien, zer egin bear duen eren aldetik, elkarri zor dioen ongi nai ura aitu, edo itzali ez dedin. Gaur aditzera eman uste det, zer egin bear duan gizonak onetarako. Era onetan ez due izango biderik espadasunak erakusteko nere kontra, zeren emakume ezkonduai zer bait esan nien leneko Erakusaldian. Asi gaitezen bada bertatik.

§ I.

Egin zuan Jaunak emakumea, biotzaren urrena gizonak zedukan saietsezurretik, dio S. Franzisko Salesek, eta ozta ekusi zuan Adanek esan zuan: *Au da nere ezurretatik bat, eta nere aragiaren puska: orregatik gizonak utziko ditu bere Aita, ta Ama, eta biziko da bere emaztearekin.* Emendik agirian dago, beartua dagoala gizona amatzera bere emaztea. Gizonak maite izan itzatzue zeren emazteak, Jesu-Kristok bere Eliza maite duan bezala: *Viri, diligite uxores vestras, sicut Chtus Ecclesiam.* Ongi nai, ta amorio au itzali ez dedin, egin bear du gizonak bere aldetik alegiña.

Jauna, eta zer ote da bada nik egin bear dedana? Ara zer. Ezagutu bear dezu benik beñ, emaztea ez dala zure neskamea, baizik betiko laguna: eta aintzakotzat iduki bear dezu. Au esan zizun Elizak paramendu ziñanean, itz oekin: laguna ematen dizut, ez neskamea: maite izan ezazu Jesu-Kristok bere Eliza maite duan eran: *Socian trado tibi, non ancillam: diligē illam, sicut Chtus diligit Ecclesiam?* Zer ongi nai, ta amorio izan diteke zurekin-emaztearen artean, ezertan ezpadaukazu zure lagun ori? Alaere askotan gertatzen da munduan, gizonak begi onez ez ekustea emaztea, batezere azalprinza zimurtzen, eta ortzak erortzen asi bazaizka, edo nekeari jarraitzeko gauz ezpada. Esan diteke: asko gizonen emazte izatea baño obe lizakeala mundurako esne-bei izatea.



Bigarrena: zuk gizona, ez diozu eragotzi bear emazteari sarritan konfetsatzea, Jaunaren itza enzutea, liburu onak irakurtzea, Jesusen neke-oñazeen gañean otoiz, edo orazio pixka egitea, baldin gauz oek egiten badira etxearen kalte gabe. S. Franzisko Salesek dio, nai bear lukeela gizonak, jaineratsuak izatea eren emazteak; zeren ala ez izatera, utsegite askotan erortzeko perill andia duen. Espiritu Santuak dio: zori onekoa andre onaren gizona: *Mulieris bonae beatus vir*. Zori onekoa, zeren etxeko kezkarik gabe bizi ditekian. Zori onekoa, zeren umeak ongi azitzeko arreta izango duan. Zori onekoa atzenean, zeren emaztearen erregu, eta obra onak itzailiko duen Jaunaren aserrea, eta iritsiko dituen Zeruko lagunak, ala bereztat, nola gizonarentzat. Santa Monikak bere erregu, ta bizitza onarekin iritsi zuan Jaunagandik, senarra gure fede Santara jartzea, eta bere seme Agustin Santu andi egitea. Alaere badira gizon batzuek añ aberekiak, non ezin eraman duen, emazteak denbora apur batzuek obra onetan igarotzea, etxearen kalte gabe au egiten badu ere. Diot *etxearen kalte gabe*; zeren etxea ta umeak nola nai utzirik, denbora luzeak igarotzen baditu Elizan: goiz jaikita bere obra onak egin litzakeala, jaiera, edo debozioaren aitzakian goiza igarotzen badu ezer egin gabe, ez da au izango jaiera, edo debozio egiazkoa, baizik erraz, eta nekerik gabe bizitzea.

Irugarrena: opa bear diozu emazteari, bere mallan dagokana, ala janzian, nola beste gauzetan; eta au bera aditzen da ume, eta etxekoentzat bear danaren gañean. Gizona da etxeko buru, eta bere gaiñ artzen du emaztearen, ume, ta etxekoen kargua. Ezpadu batek bereen, batezere etxekoen ardurarik, ukatu du eman zuan itza, eta fedegabea baño ere gaiztoagoa da, dio S. Paulok: *Siquis suorum, et maxime domesticorum curam non habet, fidem negavit, et est infideli deterior* (1 ad Timot. 5). Alaere arkituko dira munduan egin-bide, edo obligazio onez oroitzen ez diranak. Batzuek ezkontzen dira, aragiaren atsegin loiai bakarrik begiratzen diezala, eta gero emaztea, ta umeak dijoazela larrera. Argatik ekusten dira ainbeste ume, ta emakume erriz erri eskean, eta bear bada gauza gaiztoagoetan. Zergatik eragotzi bear etzate onelakoai ezkonza? Beste batzuek nekutzen dira, eta irabazten due ongi, baño ondatzen due edanean, jokoan, edo trabesean, eta emaztea, ta umeak geratzen dira ezer gabe. Badira beste batzuek zerekin bizi duenak, eta emazteak, ume, ta etxekoak bear duena ateratzeko guziz zekenak. Onelako gizonen emazteak urrikalgarriak dira, bada beti ibilli bear due bear danaren billa: egiten ditue zorrak: eta oek estaltzeko baliatzen dira ixilka artoaz edo gariak. Eta zer egingo due, salgai ipintzen ezpaditue eren buruak? leoiak, arzak, eta otsoak ere opa dieza eren emei bizitzeko bear dana; eta oek baño gogorraoak dira zenbait

gizon zeken. Atzenean badira beste batzuek bizitza ateratzeko saiatzen ez diranak. Alperrak dira emaztearen negarrak: alperra umeen arloteria, ez dira onelako gizonak lanari jarraitza oituko, begien aurrean betiko su, eta garrak ekusi arren.

Laugarrena: ordu onean etxera bear dezu. Ez du gizonak beti egon bear etxean, marisa bezala: gogaitzen zate emakumeai onelako gizonakin: eta askoz naiago due, gizonak lagun artera joatea, eta zerbait denbora lagun onakin igarotzea, ezen ez emakumeak zaitzen egotea. Baña sarritan berandu etxeratzen bada, eta bearbada zagi egiña: etxera dijoanean pakearik ezpadu ematen, edo jartzen bada sukaldian lerdea, eta itz loiak darioz-kala zer gustorekin biziko da emaztea onelako gizonaren aldean? Zer ongi nai, ta amorio izan ditekian onelako ezkonduen artean? Ezkon gura baziran onelako gizonen emazteak, badue era eren utsegiteen gañean negar egiteko.

Bostgarrena: etzabiltzala Jainkoaren itza enzutetik, errosario, bezpera, ta Sakramentuetatik igesi. Ez det esan nai gauz oetatik bakoitzak beartzen zaituala bekatu larri, edo mortalaren azpian: baño oetatik oituraz igesi bazabiltza: izan era Sakramentuak artzeko, eta urtean beñ, eta orduan bortxaz bezala artzen badituzu: Elizaren aldean bizi, eta dotrina-rik, bezpera, eta errosariorik enzuten ezpadezu: zer biziera izango da zurea? Zer erakutsiko diezu emazteari, umeai, ta etxekoai? Badakit, asko dirala gaurko egunean Meza nagusietara, eta Sakramentuak artzera datozenak, eta oei ezkerak ematen dieztet. Baña begira, nor diran oek. Oek izango dira geienak beintzat, beti batzuek, eta non bizi dira gañerakoak? Zoaz jakitera. Eta nor dira sarritan Sakramentuak artzera datozenak? Geienak emakumeak. Oen kontra esaten dira asko gauza, baño ezin ukatu ditekian, errietako jaiaren geiena ekumeetan dagoala.

Seigarrena, etzaitzela izan zure bizi lagunarekin mukerra, garratza, gozakaitza. Onelako gizon mukerraren emazteak alde-aldean sinits dezake, gaztañ-ondoren batekin ezkondu zala, eta ez duala ekusiko alegeranzaren pixkarik bere bizitza guzian. Ez da au ongi dirudian gauza. Orregatik esaten die S. Paulok gizonai: etzaitzela izan garratzak, eta samiñak zeren emazteakin: *Nolite esse amari*. Gañera ez da ongi, gizona emakumeen egitekoetan sartzea; bestela aserratuko zate, eta ez due gauza zuzenik egingo.

Zazpigarrena: ez diozu eman bear emazteari zeloak artzeko biderik, dala usai txarreko emakumeekin itz egiñez, dala norbaitekin adiskidetasun gaiztoa artuaz, edo onelako esanmesak ipiñiaz. Eriotzaren pena ipiñi zion Jaunak, bere emazteaz kanpora, besterekin erortzen zanari: eta au bera



agintzen zuen Españaiko legeak. Ez due zer egiñ andirik eman oi gai onetan emengo gizonak. Alaere askoren artean arkituko dira zenbait, aragizko atsegin lotsagarrietara añ itsatsiak, non dabilzan leku guzietan agertu oi duen beren griña gaiztoa. Arkituko dira etxeke ogi zuria ezertan ez daukeenak, eta kanpoko arto urdindua pozik jango duenak. Oroi zaitte, gizona, ezkonzako egunean eman zenduan itzaz. Ordutanik betiko utzi zinduan garbitasunaren kontrako gogorazio, itz egite, ibillera, eta adiskidetasun guziak:

eta au leialki gordetzen ezpadezu, emango dezu ezkonduai dagoten pake, ongi nai, ta amorioa galtzeko bidea.

Zortzigarrena: ez degiozula zure emazteari eragin, Jaunak debekatzetan duan gauzarik, dala garbitasunaren, dala beste edozeñ mandamenturen kontra. Judas Patriarkaren bi semeri bizia kendu zien Jaunak, zeren emaztearekin egin zituen gauz itsusi-nazkagarriak. Gertatzen da beñ baño geiagotan, emakume bat Jaunaren beldur Santuan, eta garbitasunean ezkonzaraño bizitzea, eta gero bekatu guziz nazkagarrietan erortzea, zeren suertatu zaion gizon bat, abererik zikiñena baño, zikiñagoa. Ote da onelakorik Eliz onetan? Ez det sinisten; baño baldin bada, jakin beza, Españaiko legeak agintzen duela, ken dakiola bizia, eta erre dedilla auts biurtzeraño. Ala egin da askotan; eta berak ekusi zuala, dio Gomez jakintsuak, kastigu au Españaiko erri batean. Orañ ere kastigu au emango litza-kee zenbait gizon enasi, bear bezala agertu al-balidi egia.

Azkenean, zu, gizona, etzaitzela izan zelotsua, bide txit andi gabe: eta zure ustean bide andia izan arren, ez sinistu osotoro gauza gaiztoa; zeren askotan engañatzen geran. Badira zenbait añ idurikorak, non asko duen ekustea emaztea onekin edo arekin itz egiten, farra egiten, iduripen gaiztoetan asitzeko. Emendik gau illun baten anzeko kopeta ipintzea emazteari. Emendik zelatan ibiltzea. Badira beste batzuek, bekatuaren eskolan maisu andi izan diranak: eta onelakoak erraz sinistu lezakee emaztearen kontra gauz okerra: esana dago: *egillea pentsatzalle*. Atozea gizona, eztakizu, ezin dagokeala emaztea onekin, edo arekin bear danean itz egin gabe? Au egin bear ezpadu, erabiltzu zerekin zorro batean sarturik. Utzi itzatzu zorakeri oriek: ez ibilli zelatan, esaten dizu Espiritu Santuak: ez ibilli zelatan, eragin ez degiozun, len gogora etzaion gauzaren bat: *Non zeles mulierem sinus tui, ne ostendat super te malitiam doctrinae nequam*.

§ II.

Ekusten dezu, gizon ezkondua, zer egin bear dezun zere aldetik, zurekin-bizilagunaren ongi nai, ta amorioa itzali ez dedin? Baña egiñ ote dezu oraindañoan? Beldur naiz ezetz: eta beldur naiz zu, eta zure anzeko asko bizi zeratela, konfesio gaiztoak egiten dituzuela, eta gazteluetan katez beteak dabilzanen eran.

Zer ote da zuk egin bear dezuna, bizitza onean jartzeko, eta kate astun ori gozatzeko? Zuk egin bear dezuna da Jaunarekin pakeak egitea, eta aurrera zere aldetik alegiña egitea, zure bizilagunarekin ongi nai, eta amorio garbi batean irauteko. Egizu au, ta zure gurutzea arinduko da, eta uste izan dezakezu, zure egunak Jaunaren grazian bukatzea, eta iristea betiko bizitza doatsua. Amen.



IRUROGEIGARREN ERAKUSALDIA

baña Ezkontzako edo Matrimonioko Sakramentuaren gañean hostgarrena.

ALABATUA &

Luzaro itzegin diet ezkonduai ezkontzako Sakramentuaren gañean; eta nork nai igerri dezake, oen artean asko bizi dirala, urratu nai, eta ezin urratu dituen edeakin lotuak, gustoko egun bat ekusten ez duela. Oei aditzera eman zate, nola gozatu dezakeen beren gurutze samiña. Orain zer-bait esan bear dizuet zuei, ezkontzeko adiñean arkitzen zeraten gazteak, itsu-itsuan sartu etzaitzeten, bizitza guzian iraun bear duan, katean.

Ezkontzako Sakramentua andia, ta onragarria da, S. Paulok dion bezala; baña artu bear da Jaunak, eta Eliz Ama Santak nai duen eran; bestela erraz gerta ditekete batek bere anima galtzea betiko. Jauna, esango didazu: eta zer ote da, nik nere aldetik egin bear dedana, Sakramentu au, Jaunak, eta Eliz Ama Santak nai duen bezala, artzeko? Asko gauza bear dira onetarako. Oetatik lenengoa da, arretaz begiratzea, zer estadu, edo bizimodu dan zuretzat egokiena. Bigarrena, zeñetara deitzen dizun Jaunak. Bi gauz oek adiraztea izango da gaurko itzaldia. Enzun kontuz.

§ I.

Zuk, gazte ezkongai, betiko bizitza iristeko asko dezu Jaunaren Aginteak, eta Eliz Ama Santarenak leialki gordetzea. Baña gure griña, ta jenioak ez dira berdiñak, eta batzuentzat neke andia da Jaunaren Aginteak gordetzea estadu, edo bizimodu batean, bestearentzat ez ain-beste. Batzuentzat neke andia da Jaunaren legea gordetzea ezkonduen bizimoduan, beste batzuentzat ez: eta au bera gertatzen da beste estadu, eta bizimoduakin. Orregatik nai izan zuan Jaunak estadu, edo bizimodu asko izatea beraren Elizan, autu dezan bakoitzak egokiena, edo obeto datorkiona.

Jesu-Kristoren Elizan diran, estadu guziak dira berenez onak, eta guzietan izan dira Santu asko, batzuek donzellak, besteak ezkonduak: batzuek erlijioako ordenetan ezkutaturik bizitu diranak; besteak munduaren erdian perill guziak garaitu dituenak. Batzuek Erregeak, besteak

gerrariak. Batzuek nekazariak, edo lurreko lanetan ari oi ziranak; besteak arotzak, argiñak, edo beste langinzaren batean ziardenak. Orregatik beren estadu, edo bizimodua arturik daudenak, ez dabiltzala esaten: *Nik onelako, edo alako estadu artu banu, izango nintzan ona*. Au da etsaiaren sare bat: ez dago baten ontasuna bizimodu au, edo ura artzean, baizik artu duanari leialki eranzutean, eta au da egin bear deguna, estadu artu gunduan guziok.

Esan det, Jesu-Kristoren Elizan diran, estadu guziak dirala berenez onak; baña au ala izan arren, ezin ukatu ditekete, oen artean batzuek besteak baño obeak dirala. Obea da berez garbitasun, edo kastidatea gordetzen duenen estadu ezkonduenena baño: obea da erlijioako ordenaren batean bizitzea, ezen ez munduko perillen artean egotea. Baña gerta ditekete estadu, edo bizimodu, berez obea dana, zuretzat egokia ez izatea. Askorentzat Apaiz izatea, Erlijioako ordenaren batean sartzea ez da bizimodu egokia, beste batzuentzat bai. Au bera gerta ditekete ezkonduen estadu, ta bizimoduarekin ere. Demagun, urlia dala alperra, eta beste aldetik ondasun andirik ez duana; ez da onentzat egokia ezkonduen bizimodua, zeren bizimodu onetan nekatu bear dan emazte, ume ta etxeokak bear duena irabazteko. Sandia da seta utsa, eta berearekin irtetzen ezpada, pakearik emango ez duana: berendia da ordia, bere itzegitean zikiña: onentzat guzientzat ez da ezkonza estadu egokia berez, zeren griña oriek eskuratzen ez diran bitartean, ezin ongi eranzungo diezan eren egin-bideai. Orregatik, zuk, gaztea, arretaz begiratu bear dezu, zer estadu, edo bizimodu dan zuretzat egokiena.

§ II.

Estadu, edo bizimodua Jaunak nai duan eran artzeko, ez da asko batek begiratzea, zeñ estadu dan arentzat egokiena; askotan alabaña gertatzen da, batek beregan esatea: *arako bizimodu ura da neretzat* egokiena, eta ala ere Jaunaren borondatea besterik izatea. Orregatik egin bear dan bigarren gauza da, begiratzea, zeñ estadu, edo bizimodura Jaunak deitzen dion bakoitzari. Badira guraso batzuek, gogoak ematen dien estadu umeentzat aututzen duenak. *Au etxerako, ura monja, bestea Apaiz*. Gurasoak, ez dezue onelako eskurik: Jaungoikoari bakarrik dagoka prestatzea bakoitzari estadu, edo bizimodua: orregatik dio S. Paulok bakoitzak Jaunagandik du bere doaia: *Unusquisque proprium donum habet ex Deo*. batak



bizimodu batean, besteak bestean bera serbitzeko: *alius quidem sic, alius vero sic*. Orregatik dio Jesusek. Ni naiz atea: atetik sartzen ez dana artaldean, lapurra da. Badakit, gutxi dirala, Jaunaren dei, eta borondatea ezagutzeko, burua berotzen duenak; baña denbora berean guziok dakigu, zeñ negar-garriak diran, emendik etorri oi diran, ondorenak, estadu guzietan, eta ez gutxiena ezkonduen artean. Zenbat emakume bizi dira, gauak, eta egunak negarrez igarotzen dituela, zeren berentzat, eta umeentzat bear duena ezin billatu duen? Zenbat gizon gogaituak, eta erkituak, emaztearen griña txarrak ezin iroso dituela? Gutxi da au: emengo nekeak alabaña, diran andienak ere, laster bukatuko dira; baña gerokoak ez due izango bukarrerarik, eta neke oetan amildu oi dira, Jaunaren dei, eta borondateari begiratu gabe beren estadia artzen duenak.

Jauna, esango didazu: eta zer egingo det nik, Jaunaren dei, eta borondatea ezagutzeko? Jaunak, ala nai izatera, nori nai itzegin, eta aditzera eman legioke berez, eta Aingeruen bidez, artu dezala estadu au, edo ura, Oseas Profetari, eta Tobias gazteari aditzera eman zien eran. Baña gutxitan gertatzen da au, eta nai du Jaunak, bakoitzak bere aldetik alegiña egitea, igerritzeko beraren dei, eta borondatea.

Onetarako zuk egiñ bear dezun, lenengo gauza da, konfesio on batekin zure anima bekatuaren loietatik garbitzea. Berjera bat umandu nai duanak, lenago garbitu bear ditu ur-bideak, eta gero eman bear diozka urak. Era berean Espiritu Santuaren ur gozo, ta argitasunak artu nai dituanak, garbitu bear du anima bekatuaren loietatik. Bigarrena da Jaunari umilki eskatzea, eman degizula, beraren dei, eta borondatea ezagutzeko argitasuna. Jauna, esaten zion Dabidek: *erakutsi gidazu, zer bidez ni ibiltzea, nai dezun: erakutsi gidazu, zuk nai dezuna egiten*. Irugarrena, jarri zaite Jaunaren aurrean prest, berak nai duan bizimodua artzeko, dana dala esaten diozula Samuel Profetarekin: *Itz egizu*, Jauna ona ni zure serbitzaria, zuk esaten didazuna enutzeko, ta egiteko: *Loquere, Domine, quia audit servus tuus*. Baña zer gertatu oi da? Gertatu oi da batek egin nai izatea, ez Jaunak nai duana, baizik berak gura duana, eta utsegitea estaduaren aukeran. Rakel Jakoben emazte ederrak etzuan aurrik, eta beraren aizpa Liak bai: orregatik Rakel bizi zan illuntasun, edo tristura andian, ainbesteraño, non naigabez illko zala zion berak. Denboren buruan geratu zan aurdun, baña aurgite añ gaiztoa izan zuan, non oñazeen artean ill zan. Semea egin zuanean esan zuan: *Benoni*. esan nai du: *nerre oñazearen semea*. Rakeli aurra izateko egarria kosta zitzaion bizia: eta askori ezkonzaren gura geiegia kosta zate animaren betiko bizitza.

Laugarrena: begira garbitasun, edo kastidadearen edertasunari. Birtute au besteen artean da lirio zuri eder bat bezala, dio S. Buenabenturak: da aragiaren eriotza, eta animaren bizitza, dio S. Zipriane: da birtute bat gizona Aingeruen anzeko egiten duana, dio S. Bernardok. Baña birtute eder au uxaldua, maskaldua, eta mastrikatua geratzen da gogorazio munduak ezertan artzen ez dituanakin ere. Bada Indietan belar bat *lotsatia* deritzana. Sustraiaren ingurutik goraño jantzitzen da ostu berdez, eta gordetzen dioe gorputz guzia. Eder dirudi, baña ez da ukitu bear, zeren ukitzen bada edo eskuarekin, edo beste edozeñ gauzarekin, bereala maskaltzen zaizka bere ostu ederrak, eta erortzen zaizka lurrerontz. Au bera gertatzen da garbitasun, edo kastidadearekin. Txit ederra da, baña asko da gogorazio gaizto bati leku ematea, edo ukitze lotsagarri bat egitea, birtute onen edertasuna galtzeko. Kristala ere, garbitua dagoanean, ederra da, baña asnas utsa asko da illundurik uzteko. Zuk bada, gazte ezkongai, ongi begira giozu garbitasun, edo kastidadearen edertasunari, baita zere buruari ere. Egokia izango ote da zuretzat garbitasun, edo kastidadea osotoro gordetzea eskatzen duan estadu, edo bizimodua?

Bostgarrena: begira urrea ezkonduen bizimoduari. Bizimodu onetara asko dira deituak, eta Jaunak nai duan eran artzen bada, emango diezte Jaun berak ongi bizitzeko lagunzak. Baña ez uste izan, gaztea, guziak dituela estadu onek eskatzen dituan doaiak. Zer doai ote dira oek? Ara oetatik batzuek. Lenengoa da, paketsua izatea, zeren pakerik ezpada ezkonduen artean zer ongi nai, eta amorio izango dioe elkarri? Paketsua izateko gauza bearra da setaren, eta aserrearen griña txarra ezitzea. Bigarren doia: bata bestearentzat leiala izatea. Onetarako ez da egin bear, Jaunak debekatzen duan, gauzarik, arrotzakin ezezik, bizilagunarekin ere. Badue ezkonduak gauza batzuetarako eskua; ez ordea Jaunak debekatzen diezten gauza nazkagarrietarako: eta askorentzat errazago da ezkonduen lanak osotoro utzitzea, ezen ez gauza debekatueta ez igarotzea, esan zuan S. Agustiñek. Irugarren doia: aurrik izaten bada, oei Zerurako bidea erakustea, eta era berean etxeokoi. Eta nork eztaki, asko ez dirala onetarako egokiak? Nola erakutsiko du Zerurako bidea, dotriña ongi ez dakianak? Nola erakutsiko du Zerurako bidea, Sakramentuetatik igesi bizi danak? Laugarren doia: umeak, eta etxeokak bear dituen gauzak ipintzeko arreta: ta bere nekearekin bizi bear duanak lankintzaren bati ongi jarraitzea. Au da egin-bide, edo obligazio bat ezkonduen estadiak berekin daramana. Esan zadazu oraiñ gaztea: egokia ote zera ezkonduen estadu, edo bizimoduan Jaunaren lege Santa ongi gordetzeko? Egokia baze-



ra, eta estadu orretara makurtua badago zure borondatea, sinits dezakezu, au dala Jaunaren dei, eta borondatea.

§ III.

Orra, gazte ezkongai, Jaunak, eta Eliz Ama Santak nai duan eran ezkontzako Sakramentua artzeko, bear diran lenengo bi gauzak. Jauna esango didazu: orrenbeste neke artu gabe, egiñ oi dira ezkontzak, eta era baliz, are geiago egingo lirake. Aitortzen det au guzia; guziok dakigu alabaña, asko, ta asko ezkontzen dirala moxalak baño kontu geiago atera gabe; baña denbora berean edozeñek daki, onela egiten diran ezkontzetatik kalte asko datozela errietara, nola diran, ezkonduak elkar ezin ekusi duela bizitzea, umeen aziera txarra. Jaunak nai duan estaud, edo bizimodua artzen duenak ere ez dira Zerurako, leialki eranzuten ezpadienza eren egin-bideai. Ala gertatu zan Judasekin. Judasi Jesu-Kristok berak deitu zion Apostoluen malla onragarrira; ta alaere betiko galdu zan, zeren bere aldetik egin bear zuana etzuan egin. Zer izango da, baldin estadia artzen bada itsu-itsuan, eta Jaunaren borondatea ezagutzeko alegiñarik egin gabe? Ez dezazula, gaztea, orrelakorik egiñ. Begira arretarekin, zeñ estadu, eta bizimodu dan zuretzat egokiena: eta noronz deitzen dizun Jaunak. Onela errazago eranzungo diezu zure eginbideai, eta neke gutxiagorekin irabazi dezakezu betiko bizitza. Amen.

IRUROGEI TA BATGARREN ERAKUSALDIA

Baña Ezkontzako edo Matrimonioko Sakramentuaren gañean seigarrena.

ALABATUA &.

Azkeneko aldian itzezin nizun, gazte ezkongai, ezkontzako Sakramentua Jaunak nai duan eran artzeko, lenengo lekuan bear diran, bi gauzaren gañean. Oek ziran arretarekin begiratzea, aurrena: zer estadu, edo bizimodu dan zuretzat egokiena, urrena, zeñetara deitzen dizun Jaunak. Bi gauz oez gañera bear dira beste asko, ta oek adiraztea izango da gaurko erakusaldi guzia. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Zuk, gaztea, ongi begiratu dezu, zer bizimodu lizakean zuretzat egokiena? eta zer bizimodura deitzen dizun Jaunak? Uste dezu, ezkonduen bizimodura deitzen dizula Jaunak? Ongi; baña jakizu, bizimodu ori Jaunak nai duan eran artzeko, bear dirala beste zenbait gauza. Ara oetatik batzuek. Lenengoa: ez degiozula ezkon-gurari toki geiegi eman, baizik zure suertea utzi ezazu Jaunaren eskuetan; bestela ezkontzaren era gabeko gurak erraz amilderazoko zaitu bekatuan, eta gerta liteke, Jaunak zuretzat prestaturik zedukan, suertea galtzea: jakizu, asko ezkutari dirala neskatz ergelak losentxakin kuturtzen dituenak bekatua, eta nai duena egiñ ondoan, igesegiten due, esaten duela isekaz: *Pu kiratsa dakar*. Sarritan gertatzen da au, eta alaere ezkongurarekin itsutua dagoana nekez zentzatu da beste askori gertatuarekin, eta zentzatu bearrean, sartuko da edozeñ perilletan. Enzun ezazu, gaztea, Isaias Profetak Jerusalemgo alabai esan ziena. Atelekatu zituan eren ergelkeria, eta janziera arroakgatik: aditzera eman zien, nola gerrakin gutxituko ziran gizonak, eta gero esan zien: orduan egingo dieza emakumeak gizonai: gizon bakoitza inguratuko due zazpi emakumek, eta esango dioe: ez kezkarik artu guk bear degun janaz, eta janziaz: ori guzia gure gaiñ geratuko da, guk ez degu zure emazteen izenarekin onratuak izatea besterik nai: *Tantummodo invocetur nomen tuum super nos*. Eta Isaias Profetak Jerusalemgo alabaz ziona ez ote diteke esan



gaurko egunean beste askoz? Nik eztakit, zer gertazen dan munduan, baña gauz asko esaten dira gai onetan. Emendik igerri dezakezu, gaztea, zeñ gauza bearra dan ezkongurari leku geiegi ez ematea.

Bigarrena: zuk mutilla, Jaunak nai duan eran artu nai badezu ezkonzako Sakramentua, ezkazaiozu Jaunari bizi lagun ona, eta aldegi zu bekatutik. Etzabiltzala beñ bat, gero beste bat engañatzen ezkonzaren ustepixka emanaz. Atozea, onela bazabiltza zer aurreperegirkin Jaunari eskatuko diozu bizi lagun ona? Zerori abererik zikiñena bezala bizi bazera, nola nai dezu Jaunak zuri ematea lagun garbia, ta onestidade andikoa? Geiegi balio du onelako bizi lagunak zerriai botatzeko.

Irugarrena: zuk, neskatxa, Jaunak, eta Eliz Ama Santak nai duen bezala, artu nai badezu ezkonzako Sakramentua, Jaunaren doia da bizi lagun ona, eta berari eskatu bear diozu: bizi zaite Jaunaren beldur santuan, aldegiten dezula bekatutik, eta bekatuaren bideetatik: zure ibillera, itz egite, eta janzian aditzera emazu onestidade, eta modestia andi bat. Au da bide zuzena, Jaunagandik iristeko bizi lagun ona, eta ematen ezpadizu, ori izango da, zeren ezkonzarako nai etzaituan. Bide au artu ordean, batzuek ibilli oi dira erriz erri, eta festaz festa suerte onaren billa, eta bati baño geiagori gertatu zate, atez ate salgai dabiltzan soñeko ederrai gertatzen zatena, au da etxean balio zuenaren erdirik ez eskeintzea. Beste batzuek uste due, agertzen diran moda guziaz jarraitu bear diezala, zori ona arkitzeko. Apaintzen dira arrotasun andiarekin, eta bear bada onestidadeari, eta duen mallari ez dagokan eran. Zer dator emendik? Ekusten dituen ezkutariak esatea: *egparen kolpe andiak ditue oek, nor bizi oen aldarteakin eta nork irozo oen janzia?*

Laugarrena: ezkontzeko eraren bat agertzen bazatzu, ez dezazula bereala esan: *bai*, bizik jakizu ongi, nolakoa dan zu nai zaituan urlia; ezkontzako Sakramentua alabaña da lotura, eta korapillo bat, eriotzarekin baizik etengo ez dana eta itsuan artuko dezu onelako korapilloa? Gañera ezkonzako Sakramentua artu ezkerro, gizona ezta gizonarena, baizik emaztearena, eta emaztea ez da emaztearena, baizik gizonarena, eta betiko emango diozu zere burua, nori ematen diozun eztakizula? Zekor, edo biga bat artu bear dezunean, galdetzen dezu, zenbat urte dituan, jalea dan, jotzeko griña, eztula, edo beste gaitzen bat ote duan, eta betiko zure laguna artuko dezu, nolakoa dan jakin gabe? Ez dezazula orrelako zorakeriarik egin, baizik ixilik galde ezazu, zuri dagokizuna, paketsua, biritza onekoa, ta beargillea dan. Esan det ixilik *galde dezazula*; baña oraiñ diot gañera, urliarean kontrako gauzaren bat jakiten badezu, ixilik gorde bear dezu zeregan; bestela orraz etorri litezke gorroto, eta esanmesa andiak, eta

urliak bere aserrearekin agertuko lituke zure zauri guziak, eta zureak ezezik, zure aide, ta aurrekoenak ere bai. Ez da arbolarik arkituko adar oker, edo igarren bat ez duanik, eta au bera gertatu oi da etxeakin. Ona, eta askotan bearra da dotea, baña bearragoa da bizi laguna zintzoa, eta Jaunaren beldurrekoa izatea. Ez ibilli azal-frinz txit ederraren billa; beste la erraz gertatuko zatzu ispillurik ederrenarekin ere egun oro ekusten dana. Ezpadaukazu ispillua miisa, edo sareren batekin ongi estalia, laster goroztuko due euliak; eta au bera egin lezakee euli andiren batzuek zure bizi lagun ederrarekin, ongi gordea ezpadaukazu.

Bostgarrena: ezkonzako Sakramentua Jaunak nai duan eran artzeko, gauza bearra da asmo garbi, eta ona. Onelako asmoa da Sakramentu au artu nai izatea, Jauna obeto serbitzeko, eta aurrik izaten bada ongi azitzeko. Asko ezkontzen dira abereak bezala, edo beren gura asetzea baizik billatzen ez duela: eta onelakoetan badu Demonioak bere eskua, Tobias gazteari S. Rafaelek esan zion bezala. Au ekusi zan Sararen lenengo zazpi senarrakin; bada zazpiak urkatu zituan Demonioak, ezkondu ziran arratsean bertan, Sararen gelara sartzean. Ezkonza etzan artean Sakramentu, eta alaere gauz itsusia zan Jaunaren begietan asmo garbiarekin ez artzea. Zer izango da asmo zikiñarekin artzea, Jesu-Kristok bere Sakramentuen mallara altxa zuan ezkerro?

Seigarrena: etzaitzela igaro ezkontzeko itzak ematera gurasoen baimena gabe. Ala erakusten dizu ezaguera zuzenak, eta ala nai du Eliz Ama Santak. Anziñako denboran etzuen gazteak egiten gurasoak nai zuena baizik ezkonzari zegozkan gauzetan, eta askoren iritzian etzuan ezkonzak balio gurasoen borondate gabe. Gero alako ausardia artu zuen umeak gai onetan, non atrebitzen ziran ezkonzera ixilik, testigurik, eta Apaizik gabe: eta are gaiztoago zana, onela ixilik ezkonduak zeudela, agirian ezkontzen ziran batzuek besteren batekin. Orregatik erabaki zuan Trentoko Konzilioak, andik aurrera etzezala baliorik batere izan ezkonzak, ezpazan egiten Apaizaren, eta bi, edo iru testiguren aurrean.

Etzuan orduan ezer erabaki Elizak ezkontzeko itzen gañean, eta gazteak sarritan tratatzen ziran onelako itzetan. Emendik askotan auziak, gorrotoak, esanmesak. Emendik asko neskatxa prestu galduak geratzea. Kalte oek aienatzeko, Karlos irugarrenak milla zazpi eun, eta irurogei ta amaseigarren urtean ipiñi zuan lege bat, non agindu zuan, lenengo lekuan: ogei ta bost urte ez dituen seme, eta alabak eskatu bear diezala gurasoai beren baimena ezkontzeko itzak emateko. Bigarrena, ogei, ta bost urte izan arren, eskatu bear diezala gurasoai, konsejua bederik. Irugarrena, gurasoen baimena, edo konsejua eskatu gabe ezkontzen badira, ez dezee-



la izan beren etxeko ondasunetan esku, ta eskabiderik. Atzenean aditzera eman zien Obispo Jaunai, nola nai zukean, ezkontzeko itzen gañean ipiñi oi diran auziai lekurik ez ematea, baldin gurasoen baimenik ezpadue. Obispo Jaunak ontzat artu zuen lege au, eta gordetzen da, oraindaniokoa beintzat. Karlos laugarrena etzan onenbesterekin kontentatu, eta agindu zuan, ez dakiela ezkontzeko itzen auziai lekurik eman, letraz ezarriak, eta Eskribauaren, eta testiguen aurrean emanak ezpadira. Baña Obispo Jaunak ez due artu bigarren lege au, eta etzan erraz artzea, ala nai izan arren; Zeren Aita Santu Benedikto Amalauarrenak dionez, ez duen onenbeste esku. Nafarroako Konsejuan, eta Probinzia onetan ere, etzizaion lekurik eman ezkontzeko itzen modu berri oni. Atera ezazu emendik, gaztea, ezkontzeko itzak Jainkoaren aurrean balio dezakeala, letraz ezarria, eta Eskribau, ta testiguen aurrean emana ez izan arren. Atera ezazu urrena, gurasoen baimena gabe emandako itzak ezer ez dirala auzia ipintzeko Obispo Jaunaren, eta bere ordekoaren aurrean, zeren lekurik emango etzaten. Au onela izan, eta alaere badira ezkutariak ezkontzeko itzaren bixkarekin neskatzak engañatzen dituenak? Oek dira Satanasen eskola-maisuak. Eta zer esango det ezkontzeko itzen goxoakin edozeñ gauzatarra kuturtzen diran neskatzaz?

Zazpigarrena, ezkontzeko itza eman ondoan ez ibilli, elkarren arrastoan bezala: bego bakoitza bere etxean, eta zerbaiten gañean itzezin bear bada, ori egin dezakee gurasoak. Erreñu guzietan gizon jakintsuak erakusten due, bekaturako perill andia dala, ezkontzeko itzak eman dituen gazteak elkarrekin bakarrik egotea: eta toki batzuetan onela egon diranak ez ditue ezkontzen, bekatu onen barkazioa Obispo Jaunagandik iritsi dezeen artean. Alaere toki batzuetan ekusten omen dira gaizki dirudien zenbait gauza. Oetatik bat da, deiak asitzen diran egunean senargaia neskatzak ekustera joatea ardo onez betetako zatoarekin. Au egiten ezpadu, muzindurik geratzen omen da emaztegaia, eta esaten omen du: *Au oraiñ, zer izango da gero?* Bigarrena: gurasoak utzitzen omen dieza elkarrekin nai duen bezala egoten, esaten diezala bear bada: *zaute zaute, gero ere elkarrekin bizi bear dezue*. Ha! guraso madarikatua, umeen bekatuen estalkiña! Irugarrena, toki batzuetan ezkontzeko itzak eman dituenak bizi oi omen dira ezkonduak balira bezala, eta lotsa gutxirekin esaten bide due: *gu Jaungoikoarekiko ezkonduak gaude*. Au da herejia bat, bada ez da Jaungoikoaren, eta Elizaren aurrean egiazko ezkonzarrik, Apaizaren, eta testiguen aurrean egiten dana baizik. Ez det uste, inguru oetara zabaldu dala onelako usanza itsusirik; baña kontuan ipintzen zaituet, engañatu etzaitzetzen.

Zortzigarrena: gauz ona, eta askorentzat premiazkoa da ezkonzarako konfesioak berritzea; aurtasuneko konfesioak alabaña egin oi dira prestaera gutxirekin, eta gazte denboran burua arrotzen, eta gaitzerantz kolokatzan asitzen danetik beregana dediñ artean, doi doia daki gazteak nondik, eta nola dabillen. Orregatik ezkontzeko deiak eskatzen dituenai, esan oi diet, presta ditezela, konfesioak berritzeko, baldin berritu berriak ezpaditue.

Atzenean, ongi dirudian gauza da ezkontza onratzea eztaiak, eta deitza aide, ta adiskideak. Ala deitu zituan Tobias zarrak, semea ezkondu zanean: eta Kana Galileakoan eztaietara deituak izan ziran Jesus eta bere Ama Birjiña guziz Santa. Baña ezkonza onratu nai duanak, begira beza zer mallan Jaunak ipiñi duan, zer erak dituan, eta egin bitza eztaiak, dagokan neurri, ta modua igarotzen ez duala. Ez dira eztaietara deitu bear lasaikerian, edo bekaturako bidea ematen ibilli oi diranak. Baña gauz oek ukituak daude len, eta asko degu.

§ II.

Aditu dituzu, gazte ezkongai, Jaunak nai duan eran ezkontzeko, bear diran gauzak. Ezkonzara makurtua bazaude, ezkondu zaitte ordu onean, ezkondu zaitte Jaunak nai duan bezala: bizi zaitte beraren beldur santuan, onela iristeko betiko bizitza doatsua. Amen.



IRUROGEI TA BIGARREN ERAKUSALDIA

Baña Espiritu Santuaren doai eta frutuen gañean bakarra.

ALABATUA &

Bukatu ditugu, zazpi Sakramentuai dagozten, Erakusaldiak, Sakramentuen ondoren ukitzen ditu dotrinak Espiritu Santuaren doai, eta frutuak, eta oek izango dira gaurko Erakusaldiaren gaia. Aurrena itzegin-go det doaien, urrena frutuen gañean. Asi gaitezen bertatik.

§ I.

Jesu-Kristo gure Jaunak, Zerura igo baño len, agindu zien Apostolui, bidalduko ziela Espiritu Santua, eta agindu zien bezala, bidaldu zien Zerura igo zanetik amargarren egunean. Baña Apostolu Santuak etzuen artu Espiritu Santua berentzat bakarrik, baizik Kristau guzietara zabaltzeko Sakramentuen bidez, batezere bataio, ta Konfirmazioan.

Bataioan ematen die Espiritu Santuak Sakramentu onen artzalleari graziaren apaindura ederra, eta egiten du Jaungoikoaren Seme, Jesu-Kristoren senide, eta Zeruaren jabegai. Baña Zerua irabazteko, ezta asko au, baizik gizonak ezagueran sartzen danetik ekin bear dio Zerurako bideari, eta egin bear ditu, Jaunaren legeak agintzen diozkan gauzak. Eta nola egingo luke au, Jaunak ez ematera artarako bear diran indar, eta birtuteak? Nekazari batek, dala lurreko lanetan diarduna, dala arotza, edo argiña, nola egingo ditu bere lanak, ezpaditu artarako bear diran lanabesak? Orregatik Espiritu Santuak Kristauari graziren soñeko ederra eman ondoan, ematen diozka fede, esperanza, eta karidadearen birtuteak, baita beste asko-ere, oekin bere denboran amatu, ta serbitu dezan bere Jaun ona, eta egin ditzan Zerurako obra onak. Gauz oek gure fede Santak erakusten dizkigunak dira.

Ekusten zuan Espiritu Santuak, Kristauak, graziaren apaindura, eta ukitu ditudan birtuteakin ornitua egon arren, berekin zituala asko griña txar, eta oetatik datorkiola onerako nagia izatea, eta gaitzerako makurtua egotea. Ekusten zuan, zenbat perill, eta neke arkitzen dituan Kristauak askotan, Zerurako egin bear diran gauzak egiteko. Orregatik fede, espe-

ranza, karidade, eta beste birtuteaz gañera ixurtzen ditu Kristauaren animan bere doaiak, oekin batean egiteko, Zerurako bidean egin bear ditugun, gauzak, ez nola nai, baizik gogoz, eta atsegin kontentuz. Ala gertatu zan Apostoluakin. Jaunaren grazian arkitzen ziran, Espiritu Santuak bere doaietz bete zituan baño ere lenago; eta alaere nork eztaki, zeñ beldurtiak, eta nolere bait landugabeak zeuden? Baña ozta artu zituen Espiritu Santuaren doaiak, ezin esan, edo bear bezala aditzera eman diteke, nolako amorio, gusto, eta gogoarekin ekin zioen Jesusen lege ederra barreatzeari Jerusalem, eta mundu guzian. Etsizuen ikaratzen, ez munduak, ez Demonioak, ez eta eriotzak ere. Ekusi ezazu oraiñ, Kristaua, zeñ ederki ornitu ginduan Espiritu Santuak bere doaiakin, Zerurako egin bear diran, gauzak guk gogotik, eta gustoz egiteko.

Eta zenbat ote dira Espiritu Santuaren doaiak? zazpi dira dotrinak izendatzen dituanak, eta beste ainbeste izendatzen ditu Isaias Profektak. Baña Espiritu Santuak eman litzake zazpi doai ezezik geiago, eta geiago ere Dotrinak dakartzian zazpi doaiak dira: *jakiundearen doaia: adimentuaren doaia: konsejuaren doaia: zienziaren, edo zintzotasunaren doaia: fortalearen, edo indarraren doaia: piedadearen doaia: eta Jaunaren beldurraren doaia.*

Jakiundearen doaia. Doai onek altxatzen du anima lurreko gauzetatik Jaungoikoaren, eta Zeruko gauzen ezaguerara, eta ezaguera onek azten du atsegiñ, eta kontentuz bete: prest arkitzen da Jaunagatik edozeñ gauza egiteko, eta lurreko gauzai begiratzen die gorotza balira bezala. Ala gertatu zitzaion S. Paulori Jesu-Kristo ezagutu zuan ezker.

Bigarrena da adimentuaren doaia. Doai onek argitzen du adimentua fedeko gauzak, fedearren argi utsarekin ezagutzen dituan baño, argitasun geiagorekin ezagutzeko, eta ezaguera onek berekin dakar gusto bat animako gauzetan. Ala gertatu zan Apostoluakin. Ezin ongi aditu zituen Jesu-Kristok aditzera ematen ziezten gauzak, eta artu zituenean Espiritu Santuaren doaiak, argiro ezagutu zituen misteriorik goienak: eta askotan gertatzen da Teologorik andienak baño gizon, edo emakume letragabeko batek obeto ezagutzea gure fedeko misterioak.

Irugarrena da *Konsejuaren* doaia. Doai onek argitzen du anima, noiz ta nola egin bear dituan, Jaunaren onrari, eta animaren onari dagozkan, gauzak ezagutzeko. Ala ekusi zan Apostoluakin. Debekatu ziezkan Juduak Jesu-Kristoren lege Santa erakustea, baño etzuen egin nai izan gizonen, baizik Jaunaren agintea, naiz kosta bizitza. Era berean egiten due askok, utzirik lagun gaiztoak, munduko losentxa, eta atsegin txarrak, aututzen duenean beren Salbatzalea bakarrik amatzea, eta berari jarraitzea.



Laugarrena da *Zienziaren*, edo argiroago esateko *Zintzotasunaren doaia*. Doai onek argitzen du Kristaua, emengo gauzaz baliatzeko, Zerurako laguntzen duen eran, eta neurrian: ezagutzeko bere utsegiteak, eta betiko neke, eta oñazeetatik aldegitako.

Bostgarrena da *Fortalezaren*, edo indarraren doaia. Doai onek alaitzen, eta prest ipintzen du anima, Jaunaren onran igarotzeko edozeñ neke, eta egiteko edozeñ gauza. Ala ekusi zan Apostoluakin eman zuen gustoz bizitza gure fede Santagatik. Zer esango det S. Lorenzoz, S. Ignazio martiriaz, S. Eulaliaz? ezertan etzituen artu infernuak, eta munduak asmatu zituan oñaze guziak.

Seigarrena da *piadadearen* doaia. Doai onek eragiten diozka animari gustoz, eta gogotik Jainkoaren, Birjiña txit Santaren, eta Santuen onrari dagozkan gauzak. Doai onek gogoz, eta pozik eragiten ditu gañera gurasoen, eta lagun urkoen onratzea, eta laguntzea.

Zazpigarrena da *Jaunaren beldurraren doaia*. Iru mallatakoa da beldurra. Batari deitzen zaio *serbitzariena*; oetatik askok alabaña egiten ditue lanak, edo egiten ez ditue zenbait gauza gaizto, kastiguaren beldurrez. Era onetan askok aldegiten due bekatutik betiko su, eta garren beldurrez. Beldur au ona da, eta asko laguntzen du bekatutik aldegitako. Baña gaiztoa izango lizake beregan esango balu: *ezpaliz infernirik pozik egingo nuke bekatu au, edo ura*. Bigarren beldurra da seme ongi aziak izan oi duena. Oek egiten ditue asko gauza Aitari aserratu dakion beldurrez: eta gisa berean Kristauak egiten ditu zenbait obra jaunaren aserrearen beldurrez. Beldur au lenengoa baño obea da; egia da, au ere askotan nastu ditekeala geroko nekeen beldurrarekin. Irugarren beldurra da, Jaunaren maitagarritasunari begiraturik, sortzen dana. Ekusten du batek, zeñ on, eta maitagarria dan Jauna, eta amatzen du: orregatik beldur da, ontasun au utzi, edo onen kontrako gauzarik egin dezan. Beldur au guzien artean onena, eta Espiritu Santuaren doaietatik jaiotzen dana da.

Zazpi doai oek bada, fede, esperanza, eta karidadeaz gañera, ixurten ditu Espiritu Santuak Sakramentuetan, batezere bataioan, eta konfirmazioan, egiteko guk Zerurako obra onak, ez nola nai, baizik gogoz, eta gustoz. Alaere kristaurik geienak ez due doai oen fruturik ateratzen, batzuek, zeren bekatuarekin galdu dituen doai andi oek; besteak zeren arretarik ez duen ipintzen, beraz baliatzeko. Ekusi ditzakun oraiñ doai oen frutuak.

§ II.

Espiritu Santuaren doaiakin animak atera litzakean frutuak dira amabi, doktrinak erakusten digun eran, eta beste ainbeste izendatzen ditu S. Paulo Apostoluak. Lenengoa da *karidadea*. Zer ote da frutu au? Ez nolanai Jaingoikoaganako amorioa, baizik amorio garsua, ugarria, eta animako atsegin, eta gusto garbi bat berekin dakarrena. Ala berengan ekusi zuen Apostoluak, eta ekusten due Jaunaganako amorioan erazekiak bizi diran animak. O edertasun anziñakoa, esaten zion S. Agustiñek Jaunari! O edertasun anziñakoa! Eta beti berria! Zeñ berandu ezagutu, eta amatu zaitudan! Bigarren frutua da *Pakea*; au da barrengo, edo animako pakea. Bekatariak eztaki frutu au zeñ gozoa dan. Alde batetik bere gura txarrak, eta bestetik bere bizitza gaiztoaren aranzak asaldatzen due, eta bizi da barrengo pake onen berri gabe: eta noizbait dastatu badu, ori izango zan konfesio ona arretaz noizbait egin badu. Baña anima onak, zenbat eta bere gura, eta griña txarrak geiago ilduratzen, eta ezitzen dituan, anbat barrengo pake andiagoa iristen du, eta arkitzen da atsegin andiarekin. Irugarren frutua da, erdaraz *longanimidadea* deritzana. Au da neke, eta gurutzak, naiz andiak, eta luzeak izan, naiz garratzak, Jaunaren borondateari begiraturik, igarotzea gogotik, eta gustoz: eta gusto au da Espiritu Santuaren frutua. Ala gertatu da Martiri askorekin. S. Juan de la Kruz deritzan Santuari galdetu zion beñ Jaunak: *zer sari eskatzen zuan, igaro zituan, neke andiakgatik?* Eranzun zion: *Jauna, ez det beste saririk eskatzen, zugatik neke berriak, eta berriak igarotzea baizik*. Laugarren frutua da, erdaraz benignidadea deritzana. Au da lagun urkoai on egitea, ez nolanai, baizik biotz biguin-bera batekin, eta poz andiarekin.

Bostgarren frutua da *fedea*: eta fedearen izenez emen aditzen da, ez gure Legeko gauzak sinistea uts-utsik, baizik uste, edo esperanza osoa berekin duana. Ala zan Apostoluen fedea, Espiritu Santuaren doaiak artu zituan ezker, eta ala zan San Gregorio Taumaturgo deritzanak zuana. Santu onek egin nai zukean Eliza, bizi zan erriari zegokan bezalakoa; baña eragozten zion mendi batek. Joan zan toki artara, erregutu zion Jaunari, eta gauz arritzekoa! aldatu zan mendia beste toki batera. Seigarren frutua da erdaraz *kontinenzia* deritzana. Au da gaitzerako sortzen diran naikundeak, batezere sentiduenak ilduratzea, eta batek bere buruari ukatzea. Nork eztaki, begiak ekusi nai dituela, belarriak aditu, eta eskuak, ta gorputzak ukitu gauza debekatuak? eta debekatuaz gañera, premiazoak ez



diranak? Oen naikundeak bada ilduratzea, ta batek bere buruari ukatzea da kontinenzia, eta au egiten danean pozik, eta gustoz da Espiritu Santuaren frutua. Zazpigarren frutua da espiritu, edo animako *gozo*, eta poza. Ari da anima ona Espiritu Santuaren doaiakin gogotik obra onak egiten: ematen dio Espiritu Santuak betiko ondasunak iristeko uste andi bat, eta emendik sortzen zaio animako poza. Zortzigarren frutua da, *Pazienzia* deritzana: ez ordea edozeñ pazienzia, baizik *atsegin* kontentuz daramatziana emengo gurutze, eta naigabeak. Au ekusi zan Apostoluetan: au Martirietan; eta sarritan ekusten da Santuetan.

Bederatzigarren frutua da *Ontasuna* deritzana. Zer ote da *Ontasun* au? Lagun urkoai on egiteko borondate prest, samur, eta gozoa idukitzea. Amargarren frutua da, *mansotasuna* deritzana. Au da ira, edo aserrearen mugidak eskuratzea, eta txarkeri, eta bidegabeen artean ere kontentuz egotea, zeren gure Salbatzalleak ala egin zuan. Orregatik deitzen zaio bildots mansoa. Amaikagarren frutua da *modestia* deritzana. Au da itzegietan, begiratzean, ibilleran, eta soñekoetan modu eder bat gogoz, eta gustoz gordetzea. Amabigarren frutua da garbitasuna, edo kastidatea. Garbitasunak ditu bi malla: bata da begiai, belarriai, mihia, eskuai, ta gorputzari, eskatzen dituen, atsegin loiak ukatzea: eta malla au gerra utsa da. Beste malla da, garaiturik griña au, pakean gustoz utzitzea atsegin loi guziak. Oek dira Espiritu Santuaren amabi frutuak; eta esan diteke, guziak biurtzen dirala batera, nola dan obra onak, eta emen ukitu diran gauzak egitea, ez nolana, baizik pozik, eta atsegin kontentuz. Fede, esperanza, eta karidadearekin, eta gañerako birtuteekin egin ditezke obra oek, baña egitea pozik, eta animako atsegin-kotentuarekin au da Espiritu Santuak animari ematen dion gozagarri bat; orregatik deitzen zaio Espiritu Santuaren *frutua*.

§ III.

Ekusten dezu, Kristaua, zeñ ederki prestatu dituan Espiritu Santuak gauza guziak, eragiteko guri Zerurako bidean egin bear deguna, ez nolana, baizik gustoz, eta atsegin kontentuz? Alaere gutxi dira frutu gozo oek dastatu, eta progatu dituenak. Nola gertatzen da au? Gertatzen da au benik beñ, zeren kristaurik geienak bekatuan bizi diran. Gertatzen da au urrena, zeren gure griña txarrak eskuratzeko, eta ezitzeko nekeak ikaratzten gaituan: eta neke au artzen ez degun bitartean, beti ibilliko gera

Zeruko bidean gogo gutxirekin, eta ez ditugu progatuko Espiritu Santuaren frutu gozoak. Zer egiñ bear degu bada oek iristeko? Lenengo gauza da, gure biotzak prestatzea konfesio on batekin, aldegiten dala bekatuaren bideetatik. Bigarrena jaunari umilki eskatzea, ixuri ditzala gure biotzetan Espiritu Santuaren doaiak. Ala prestatzen egon ziran Apostoluak Jerusalemenean, Jesu-Kristo Zerura igo zanetik Espiritu Santuaren etorreraraño. Irugarrena, doai oekin ekin gogotik gure griña txarrak ezitzeari, eta obra onai. Era onetan ixuriko ditu gure biotzetan bere frutuak, edo gozagarri bat gure neke guziak arinduko dituana: eta iritsi dezakegu betiko bizitza doatsua. Amen.



IRUROGEI TA IRUGARREN ERAKUSALDIA

baña zori on, edo doatasunen gañean bakarra.

Munduaren asieratik gure Jaunaren lan, eta egiteko andia izan da, gizona betiko Zori on, edo doatasuna iristeko, zuzentzea. Egin zuanetik laster aldegin zion gizonak Jaunari, ausitzen zuala beraren Agintea. Era onetan galdu zuan betiko Zori onaren eskubide, ta deretxa guzia. Utsegite au desegiteko, jatxi zan lurrera Trinitadeko bigarren Persona bera: gizon egin zan, eta eman zuan gurutzean bere bizitza; gañera bidaldu zuan Espiritu Santua bere doaiakin: eta Sakramentuen bidez ixurtzen ditu gure animetan graziaren doai miragarria, birtute, eta doaiak, eta era onetan ipintzen du kristauaren anima edertua, apaindua, ornitua Zerurako bidean ibiltzeko gogotik eta gustoz, eta iristeko betiko zori ona. Gizonaren biotza beti dago zori on, eta doatasunaren egarri andi batekin; baña zer gertatzen zaio? Billatzen du bere zori ona arkitzen ez dan tokian, eta ez du ateratzen nekea, eta naigabea besterik, eta galtzen du emengo, eta Zeruko zori ona. Ekusi zuan Jesus onak, zeñ erraz lilluratzten, eta engaňatzen zan gizona gai onetan: igo zan mendi batera, eta andik aditzera eman zuan, nor diran *zori onekoak*, edo *doatsuak*. Orregatik oen gañean izango da gaurko Erakusaldia. Aurrena aditzera emango det, nor diran, Jesusek erakusten digunez, *zori onekoak*, edo *doatsuak*. Urrena begiratu bear degu, zori oneko oen artean arkitzen ote geran. Enzun kontuz, nere Kristaua.

§ I.

Munduak uste du, zori onekoak eta doatsuak dirala emengo onren, eta ondasunen artean bizi diranak; baña engaňatzen da: ez due alabaña gauz oek gizonaren biotza betetzen: eta amilderazten due asko bekatutan; eta galerazten dioe bere zori ona. Au gertatu zitzaion Salomoni, eta gertatzen zaio beste edozeñi, onra, eta izanai biotza itsasten bazate. Au gerta etzekigun, esan zuan Jesusek: *Beati pauperes quoniam ipsorum est regnum Caelorum*. Zori onekoak gogoz, edo espirituz, beartsu diranak. Zeñ ote dira zori oneko beartsu oek? Ote dira atez ate eskean dabiltzanak? Ez

guziak beintzat; badira alabaña oen artean, nekeari iges egiteagatik, eskean dabiltzanak, badira, biltzen duena, edanean, eta gaiztakerian gastatzen duenak, eta badira eskean biltzen duenarekin gordairua beren aleginean egiten duenak. Ote dira ondasun asko ez, baizik zerbait duenak? Ez; zeren oetatik batzuek dituen gauzetan biotza itsatsia daukeen. Nor ote dira bada Jesu-Kristok lenengo mallan ipintzen dituan zori oneko oek, edo gogoz beartsu diranak? Oek dira benik beñ gogoz, eta borondatez lurreko onrak, eta izanak utzita Jesus onari jarraitzen dioenak, erlijio ordenetan askok egiten duen bezala. Zori oneko beartsuak dira gañera duen pixkaz baliatzen diranak Jauna serbitzeko geiagoren egarri gabe. Zori oneko beartsuak dira atzenean, aberatsak izan arren, ondasunetan biotza ipintzen ez duenak, eta dituenaz baliatzen diranak Jauna onratzeko, eta lagun urkoen onerako. Itz batean zori oneko beartsuak dira biotza ipintzen ez duenak emengo onra, ta ondasunetan, baizik Jaunagan. Nola igotzen ote da anima malla onetara? Igotzen da baliatzen dala Espiritu Santuaren doaiatz. Oen argitasunarekin ezagutzen du animak, lurreko onra, eta izanak ezer ez dirala betikoen aldean: begiratzen dio gero Jaunaren edertasun neurri, ta mugarik ez duanari, eta ezagutzen du, zeñ gauza gozoa izango dan edertasun au betikotasun guzian ekustea, amatztea, eta galtzeko perill gabe beti biotzean idukitzea. Era onetan itzaltzen zaio animari emengo gauzen egarria, ta begiratzen die gorotzari bezala. Ala gertatu zitzaion S. Paulori, Jesu-Kristo ezagutu zuan ezkeru.

Zori onekoak, dio Jesusek bigarren lekuan; zori onekoak mansoak, zeren oek izango diran lurraren jabe. *Beati mites, quoniam ipsi possidebunt terram*. Ekusten zuan Jesus onak, munduaren lege gaiztoetatik bat dala etsaiari gorrotoz begiratzea, haren gaitzaz atsegin artzea, onaz naigabetua, eta illuntasunez bete geratzea, eta al dan txarkeria egiteko prest egotea. Ekusten zuan ira, edo aserrea dala asko bekatuen sustraia, eta oek aienatzeko gugandik, esaten digu, *Zori onekoak mansoak, zeren oek izango diran lurraren jabe*. Nor ote dira zori oneko manso oek? Oek dira *ira*, edo benganzaren gura eskuratzen duenak, eta lagun urkoen erausi, eta bidegabeak ixilik daramazkienak. Oek dira etsaiari ere al duen on guzia egiten diezana. Zori onekoak oek, zeren izango diran lurraren jabe. Lurraren jabe bai, zeren beren biotzeko lurrean izango diran errege, eta jaun. Bere gura, ta griña errebesak ilduratzten, eta ezitzen ez dituana, oen mendean arkitzen da, eta beragatik ez da bere etxeko lurraren jabe, baña bai manso, eta umillak. Lurraren jabe izango dira oek gañera, zeren beste guzien biotzen jabe izango diran; lenago, edo geroago alabaña guziak amatzen due bidegabeak ongi daramazkiana, eta etsaiari ere mesedeak egiten dieztena, eta



gisa onetan egiten da guzien biotzen jabe. Atzanean manso, ta umillak izango dira bizien lurreko jabe. Zer lur ote da bizien lur au? Au da doatsuaren erreñua, beñere desegingo ez dana. Nola igotzen da anima bigarren malla onetara? Espiritu Santuaren doaiakin saiatzan dala, Jesus bildots mansoaren eran, emengo bidegabeak igarotzera. Ikasi ezazu ngandik dio Jesusek nola au egiten dan: *Discite a me, quia mitis sum, et humilis corde*.

Zori onekoak, dio irugarren lekuan; zori onekoak negartiak, edo negar egiten duenak, zeren oek izango diran konsolatuak: *Beati qui lugent, quoniam ipsi consolabuntur*. Zeñ ote dira zori oneko negarti oek? Diran benik beñ, Jaunaren ontasun baztergabearen kontra egin dituen, eskergabeke-rien gañean biotzetik negar egiten duenak. Ala egiten zuan S. Agustiñek, eta zion: Ai! eta izan ni noizbait Jaunaren etsaia! Zori oneko negartiak diran gañera, ekusirik, lagun urko geienak bizi dirala bekatuaren bideetan, naigabez negar egiten duenak Jaunaren aurrean. Zori oneko negartiak diran atzanean Jaunaren edertasuna ekusteko egarriarekin negar egiten duenak erbeste onetan. Ala egiten zuan Dabidek, eta zion: Ai! ene! luzatu da deserrri onetako nere bizia! *Heu mihi, quia incolatus meus prolongatus est!* Zori oneko negarti oek atsegin-kontentuz beteak izango dira, dio Jesusek: *Quoniam ipsi consolabuntur*.

Zori onekoak laugarren lekuan zuzentasunaren, edo justiziaren gose, ta egarri diranak. *Beati, qui esuriunt, et siliunt justitiam*. Zuzentasun, edo justiziaren izenez aditzen da arreta andiarekin bekatutik aldegitia, eta obra onai jarraitzea. Eta zeñ ote dira justizia onen gose, eta egarri diranak? Oek, Jaunaren lege Santa ongi baño obeto gordetzeko, egarriarekin bizi diranak: oek izango dira aseak, dio Jesu-Kristok: aseak, edo beteak emen Jaunaren doaiez, eta gero betiko bizitzaren atsegin-kontentuakin: *Quoniam ipsi saturabuntur*. Orregatik zion Dabidek: aseko naiz, Jauna, Zure gloriaren edertasuna erakusten didazunean: *Satiabor, cum apparuerit gloria tua*.

Zori onekoak bostgarren lekuan urrikaritsuak, edo miserikordiosoak, zeren oek iritsiko duen Miserikordia, dio Jesu-Kristok. *Beati Misericordes, quoniam ipsi Misericordiam consequentur*. Zeñ ote dira zori oneko urrikarritsu, edo miserikordioso oek? Diran biotz txit bera duenak lagun urkoentzat, izan ditezela oek, naiz adiskideak, naiz etsaiak, naiz aideak, naiz atzeak, naiz erritarrak, naiz arrotzak. Oek pozik, eta ongi nai andiarekin laguntzen dioe lagun urkoari, ez gorputzari dagozkan premietan bakarrik, bai ta are geiago animari dagozkanetan: eta agintzen dio Jesusek bere urrikimentua.

Zori onekoak seigarren lekuan biotz garbidunak, zeren oek ekusiko duen Jaungoikoa, dio Jesu-Kristok: *Beati mundo corde, quoniam ipsi Deum videbunt*. Juduak etzituen ezertan artzen biotzaz kanpora agertzen ez diran bekatuak, egin dezagun kontu gorrotoak, gogozko atsegin loiak. Orregatik esan zuan Jesusek: *Zori onekoak biotz garbidunak*. Oek diran arre-tarekin biotza garbitzen duenak bekatuaren loietatik, eta garbitasun au ez galtzeko, beren gura, eta griña txarrak ardura andiarekin ilduratzan, eta ezitzen dituenak: ta neke onen saria izango da Jaunaren edertasun baztergabea betiraunde guzian ekustea: *Quoniam ipsi Deum videbunt*.

Zori onekoak zazpigarren lekuan pakezaleak, zeren oek *Jainkoaren Seme* izendatuko diran, dio Jesu-Kristok: *Beati pacifici, quoniam filii Dei vocabuntur*. Gure Jaungoikoa da pakearen Jaungoikoa, S. Paulok deitzen dion bezala: *Deus pacis*: eta ez dagote Jaungoikoaren Semeen izena pakezaleak ez diranai. Zeñ ote dira zori oneko pake-zale oek? Diran pakea galtzeko biderik ematen ez duenak, ez itzez, ez bestela. Diran urrena lagun urkoetatik datozen itz garratzak, eta modu gaiztoak ixilik daramazkienak pakeagatik. Atzanean lagun urkoen artean ere pakea eragiteko alegiña egiten duenak. Oek diran pake-zaleak, eta *Jaungoikoaren Seme* izendatuko dira.

Zori onekoak zortzigarren lekuan *justiziagatik persegituak*; zeren oena izango dan Zerueta erreñua; dio Jesu-Kristok: *Beati, qui persecutionem patientur propter justitiam, quoniam ipsorum est regnum Caelorum*. Zer aditzen ote da emen justiziaren izenez? aditzen da Jesu-kristoren legea zuzen, eta arreta andiarekin gordetzea, eta onela bizi diranak igaro bearrak diran neke, eta gurutze samiñak. Batzuetan iseka egingo dieza, beren kideakoak, besteetan asmatuko dieza, egin dituela, nortaki zer utsegite: besteetan agertuko ditue noizbait egin zituen okerrak. Neke, ta gurutze oen artean sendo daudenai, edo zuzen Jaunaren legea gordetzen duenai deitzen die Jesu-Kristok: *Zori onekoak* eta agintzen die Zerueta erreñua: *Quoniam ipsorum est regnum Caelorum*. Ona, nere Kristaia, nor diran zori onekoak, edo doatsuak, ala emen, nola beste bizitzan, eta ona, gizona zori onaren billa egarri andiarekin ibilli arren, zergatik arkitzen ez duan; billatzen du alabaña ez dagoan tokian, eta geratzen da aranzaz, naigabez, eta samintasunez gogaitzen, eta zori gaiztoko egiña. Dakuskun orain Jesu-Kristok izendatzen dituan zorionekoaren artean arkitzen ote geran.



§ II.

Zori onekoak gogoz, edo espirituz beartsuak, esan digu Jesu-Kristok. Oetatik ote gera? Ez ote daude gure biotzak emengo izanai itsatsiak, olagarroa arkaitzari itsatsia dagoan eran? Ala bagaude, ez gera orain, eta ez gera gero izango zori onekoak, ezpaditugu ipintzen gure biotzak ipiñi bear diran tokian.

Zori onekoak, esan digu Jesusek, mansoak. Oetatik ote gera? Saiatu ote gera ira, eta aserrea ezitzera, ta eskuratzera? Esan bezee botatzen diran birauak. Esan bezee etsaiaren kontra egiten diran erausi itsusiak. Esan beza, etsaiari al dan txarkeria egiteko, eraren zai egoteak. Esan beza lagun urkoari, gutxienez egin digun adiña, gaitz opa izateak. Zer esango det etsaiaren onaz muzindurik, eta illuntasunez beterik geratzeaz?

Zori onekoak negartiak, edo negar egiten duenak, esan digu Jesus onak. Oetatik ote gera? Negar egiñ, eta egiten ote degu biotzetik, zeren gure Jaun guziz maitagarria utzi, eta beraren kontra ainbeste bekatu egin degun? Negar egiten ote degu, ekusirik, lagun urko-geienak utzi duela Zerurako bidea, eta amilka dijoazela betiko su, eta garren artera? Zenbat ote dira, onela negar egin bearrean, lagun urkoa bekatuan amilderaztean beren atsegiñik andiena duenak? Negar egiten ote degu Jaunaren edertasun paregabea, eta Zeruko gure erria ekusi naiez? Begira dezagun bakoitzak ongi, zer igarotzen dan gure biotzetan, eta beldur naiz, lotsaturik geratzeko asko bide izango degula. Beldur naiz, berriak diranez asko izango dirala denbora oetan abere biurtu, edo beintzat abereen suertearen Zeruaren baño zaleago diranak; baño oek artuko due dagoten bezalako saria.

Zori onekoak zuzentasunaren, edo justiziaren gose, ta egarri diranak, esan digu Jesusek. Oetatik ote gera gu? Obra onak ongi baño obeto, eta geiago, ta geiago egiteko egarririk ote da gugan? Nola izango da, baldin onerako nagitsuna bera bagera?

Zori onekoak urrikarritsuak, edo miserikordiosoak, dio Jesusek. Oetatik ote gera? Beldur naiz ezetz, zeren Munduan orain artu dan usanza omen da besteren gaitzaren naigabe gutxi, edo batere ez izatea.

Zori onekoak biotz garbi dunak, esan digu Jesusek. Oetatik ote gera? Galde begio bakoitzak bere buruari: Askot ote dira, eren gura, eta griña txarrak ukaturik, biotza garbiro gordetzen duenak?

Zori onekoak pakezaleak, dio Jesu-Kristok. Oetatik ote zera, Kristaua? Ez ote diozu lagun urkoari zere erausi, eta bide gabeakin pakea galtzeko biderik ematen? Egiten dizkitzuen bide gabeak ixilik, eta ongi eraman oi dituzu pakeagatik? Ez ote dezu beñ baño geiagotan zabaldu lagun artean aserre, ta gorrotoaren sua?

Atzanean zori onekoak, dio Jesu-Kristok, justiziagatik persegituak; oek dira Jaunaren lege Santa ongi gordetzen duelako, Munduagandik isekak, eta bidegabeak ekusten dituenak, eta alaere artu duen bizitza onari jarraitzen dioenak biotz alai, eta sendoarekin. Oetatik ote gera gu? Gutxi dira noaski onela gure lege Santa gordetzen duenak.

Kristaua, ongi begira dezagun, zori on egiazkoa iritsi nai degun, edo ez. Iritsi nai badegu, billa dezagun arkitzen dan tokian; bestela gertatuko zaku amesetan diru zorroa topatu duanari gertatzen zaiona. Poztutzen da, ekusirik zorroan dauden urre txikiak, eta onzakoak: esnatzen, eta asitzen da diruen billa: ez du arkitzen batere, eta geratzen da illuntasunez bete. Au bera gertatuko zaio zori ona billatzen duanari, Jesu-Kristok erakutsi dizkigun, tokiaz kanpora. Amesetan bezala dabil; uste du zori ona arkitzen dala onra ondasun, eta aragiaren atsegin lotsagarrietan; esnatuko da eriotzako denboran, edo lenago bear bada, eta ekusiko du, emengo onrak, ondasunak, atsegin lizunak, zori ona ekarri bearrean, dakartela biotzeko illuntasuna, eta onen ondoren betiko negarrena, betiko su, eta garrak. Baña bere zori ona billatzen duanak Jesus onak erakutsi dion bidetik; gerta dedilla munduan edozeñ gauza, arkituko du emen ere animako atsegin gozo bat, eta zori ona, eta ondoren betiko bizitza doatsua. Egin dezagun au, nere Kristaua, eta gu ere zori onekoak izango gera emen, eta gero betikotasun guzian. Amen.